ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA 2002

# ARARTEKOAK
# EUSKO LEGEBILTZARRARI
# EGINDAKO TXOSTENA
# 2002. URTEA

© ARARTEKO
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Paper ekologikoa.
L.G.: VI-105/03.

ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA 2002

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** ........ 21

**I. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK** ...... 23

1. 2002 URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK ....... 25

**1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan egin ziren gomendioak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak** .. 25

*1.1.1. Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko txosten bereziari jarraiki hasitako jardueren jarraipena* ........ 26
*1.1.2. Arabako sasoikako langileen arazoen jarraipena. Txosten berezia* ........ 43
*1.1.3. Adinekoen egoitzak kontrolatzeko jardueren jarraipena* .... 55
*1.1.4. Egoitzetatik kanpoko adinekoen artapena kontrolatzeko jardueren jarraipena* ........ 61
*1.1.5. Babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko jarraipena* ........ 73
*1.1.6. Adingabe lege urratzaileen gaian egindakoaren jarraipena* 91
*1.1.7. San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipena.* ........ 104
*1.1.8. Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraren jarraipena* ........ 106
*1.1.9. EAEn buru-gaixoei ematen zaien gizarte-arretaren gaineko jarraipena* ........ 117
*1.1.10. EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunari buruzko txosten berezia* ........ 125
*1.1.11. Ertzaintzaren ziegetako eta udal gordetegietako egoeraren jarraipena* ........ 127

**1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko dituzten aukerei buruz egingo ditugun gai bakarreko txostenak** ........ 134

**1.3. Genero-indarkeria jasaten duten emakumeei Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zaien arretari buruzko txosten berezia** .. 136

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK ........ 139

**2.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak** ........ 139

**2.2. Ararteko erakundeak deitu dituen ikerketa bekak** ........ 148

**2.3. Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egiteko bekak** ........ 149

**2.4. "Giza eskubideak eta teknologia berriak" gaiari buruzko jardunaldiak, EHUk antolaturiko udako ikastaroetan** ........ 151

3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK ........ 153

**3.1. Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldiak** . 153

**3.2. Europako Ombudsmanen Seigarren Biltzarra (Krakovian, 2002ko maiatzaren 22tik 24ra)** ........ 163

**3.3. Iberoamerikako herri defendatzaileen eta giza eskubideen batzorde publikoetako mandatari eta lehendakarien Federazioaren Seigarren Biltzarra** ........ 164

**II. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA** ........ 169

*A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR* ........ 172

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA ........ 172

**1.1. Sarrera** ........ 172

**1.2. Aukeratutako kexak** ........ 173

A) Nekazaritza, abere hazkuntza eta arrantza
⇒ *Mugak ustiapen askatasunari: ekoizpen esklusiboko eremuak* ........ 173

B) Merkataritza
⇒ *Eskulangintza azokak: saltokien esleipena* ........ 174

C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Zilegizko konfiantzaren printzipioa urratzea Konekta Zaitez egitarauko laguntzak ematean* ........ 175

D) Industria
⇒ *Zehapen prozedurako frogaren gainean* ........ 177

2. GIZARTE ONGIZATEA ........ 178
**2.1. Sarrera** ........ 178
**2.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ........ 180
A) Artapen bereziko taldeei laguntzea
⇒ *Hontza zentroa: etxerik gabeko drogen mendeko pertsonak artatzea* ........ 180
B) Ezinduei laguntzea
⇒ *Okupazio zentro batera zihoazen pertsonen garraioa egiten zuen autobusaren segurtasun baldintzak* ........ 183
⇒ *Ezindu psikiko bat egoitzaz aldatzea* ........ 183
C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Udalaren alderdi bakarreko jarreraren aurka defendatzeko ezintasuna* ........ 184
⇒ *Aurretiaz egoile izateko betekizuna oinarrizko errentaren onuradun izan ahal izateko* ........ 185

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA ........ 188
**3.1. Sarrera** ........ 188
**3.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ........ 190
A) Elebitasuna
⇒ *Euskararen ofizialkidetasunari buruzko jarrera* ........ 190
⇒ *Euskara erabiltzeko normalizazio plana Osakidetzan* ........ 191
B) Kirola
⇒ *Kirol lizentzien izapideak. Segurtasun juridikoaren printzipioaren mende jartzea eta denbora joatearen eragozpenak gaiaren muinean* ........ 192

4. HEZKUNTZA ........ 194
**4.1. Sarrera** ........ 194
**4.2. Aukeratutako kexak** ........ 198
A) Eskubideak eta betebeharrak
⇒ *Haur hezkuntza. Hezkuntza behar bereziko haurren eskolatzea lehenestea* ........ 198
⇒ *Ikasleen ama hizkuntzaren arabera bereiztutako hizkuntza tratamenduko hezkuntza proiektua* ........ 199
⇒ *EHU. Ikasle ezinduen integrazioa* ........ 200
⇒ *Derrigorrezko bigarren hezkuntza. Amaierako ebaluazioaren erreklamazioa* ........ 201
⇒ *Hezkuntza behar berezidun neskatoa, ASPACEren itunpeko ikastegi batean eskolatuta. Eskola garraioa* ........ 203
⇒ *Eskola garraioa* ........ 204
B) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
⇒ *Erlijio irakaskuntzarako erabiltzen den eskola materialaren edukien analisiaren gainean* ........ 206

C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *EHU. Barne ikuskaritzako txostenak ikusi ahal izatea* ...... 208

5. FUNTZIO PUBLIKOA ........ 211
**5.1. Sarrera** ........ 211
**5.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ........ 217
A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
⇒ *Ordezkapenak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan* ........ 217
⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Europako Batasuneko herrialdeetan izandako lanbide-esperientziaren balorazioa* 218
B) Funtzio publiko orokorra
⇒ *Hemen bizi diren atzerritarrak lan kontratuko enplegu publikoetan sartzea* ........ 220
⇒ *Amatasunagatiko lizentzia eta urteko lanaldiaren banaketa irregularra* ........ 221
⇒ *Aukeraketa-prozesu baten baliogabetzea eta berrikuspena, epai baten ondorioz. Izendapen berrien eragina eta ondorioak* ........ 221
C) Poliziaren alorreko funtzio publikoa
⇒ *Poliziaren alorreko funtzio publikorako sarrera. Gutxieneko garaieraren baldintza* ........ 223
D) Osasun alorreko funtzio publikoa
⇒ *Baztertu ezineko eginbeharretarako lizentzia. Ordainsariak* 224
⇒ *Ezintasuna duten pertsonak. Aukeraketa-saioak egiteko denboraren luzapena* ........ 226

6. OGASUNA ........ 228
**6.1. Sarrera** ........ 228
**6.2. Aukeratutako kexak** ........ 230
A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Bilketarako zerga-prozeduran ediktuaren jakinarazpena egiteko betekizunak* ........ 230
⇒ *Bahitura agindua* ........ 231
B) Foru zergak – PFEZ
⇒ *Familiako kenkariak: Egoera zibilaren araberako bereizketa* 233
⇒ *Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria: Okupatzeko hamabi hilabeteko epearen salbuespenak* ........ 234
⇒ *Baterako aitorpena: Familia unitatean adinez nagusi diren kide guztien sinadura ezinbesteko baldintza da zergak ordaintzeko modalitate honetan* ........ 235
C) Foru zergak: Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga
⇒ *Hiri higiezinen balorazioa* ........ 236

D) Udal zergak
⇒ *Titularkidetasunaren eragina OHZren likidazioetan* ......... 237
E) Udalaren tasa eta prezio publikoak
⇒ *Zaborraren tasa ordaintzeko betebeharra* ......................... 238
⇒ *Uraren udal tasan, zergadunaren ordezkoa* ...................... 239

7. HERRIZAINGOA ........................................................................ 240
**7.1. Sarrera** .............................................................................. 240
**7.2. Aukeratutako kexak** ............................................................ 243
A) Eskubideak eta askatasunak
⇒ *Ertzaintzak delitu baten egileak identifikatzeko izapidean zigor aurrekaririk gabeko pertsonen argazkiak erakutsi zituen* ........................................................................... 243
B) Herritarren segurtasuna
⇒ *Polizien jarduerak atxiloketan zehar* ............................... 244
C) Trafikoa
⇒ *Salatutako gertakaria ikusi ez zuen agintaritzako agente baten salaketaren ondorioz abiatutako zehapen prozeduraren baliorik eza* ............................................. 245
⇒ *Zehapen prozeduraren iraungipen epea noiz hasten den, nahitaezko salaketa unean bertan jakinarazi ez denean* .... 246
⇒ *Ibilgailuei bidea ixtea, Anoeta inguruan, Donostian, kirol edo bestelako ekitaldirik dagoenean hango kirol instalazioetan* ................................................................. 247
⇒ *Bilboko udalarekiko betebeharren ordainketan egunean egon beharra, TAO eremuan egoiliar txartela eskuratu ahal izateko* ........................................................................... 247
⇒ *TAO eremuan estazionatzeko ezgaituentzako berariazko araubidea, Bilboko Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berrian* ........................................................................... 248

8. JUSTIZIA ................................................................................. 250
**8.1. Sarrera** .............................................................................. 250
**8.2. Aukeratutako kexak** ............................................................ 257
A) Abokatu eta prokuradoreen bazkunak
⇒ *Abokatutzaren Euskal Kontseilua: Malgutasuna bazkunen erabakien aurkako errekurtsoen formazko akatsen aurrean eta herritarrekiko harremanetan euskara erabiltzera behartuta egotea* ........................................................... 257
B) Justizia administrazioaren funtzionamendua
⇒ *Badaezpadako espetxealdia luzatzea. Ama-umeentzako modulurik ez dago Euskadiko espetxeetan* ....................... 259

9. INGURUMENA ......................................................................... 262
**9.1. Sarrera** .............................................................................. 262

**9.2. Aukeratutako kexak** ........ 265

A) Jarduera sailkatuak egoitza-lurretan

⇒ *Jatetxe-erretegi batetik datozen zaratak, usainak eta keak* 265

⇒ *Udalak ez du kontrolatzen ostalaritzako establezimendu baten funtzionamendua gaueko orduetan* ........ 266

⇒ *Edarien biltegi eta denda batek eragozpenak sortzen zituen zarata eta usainengatik* ........ 268

⇒ *Taberna batean baimenik gabe instalatutako musika-ekipoak zarata gogaikarria egiten du* ........ 272

B) Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk

⇒ *Kalean instalatutako kutxetak zapaltzean ibilgailuek zarata egiten dute* ........ 273

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK ........ 275

**10.1. Sarrera** ........ 275

**10.2. Aukeratutako kexak** ........ 280

A) Obren burutzapena

⇒ *Ibaien ubideetan egindako mantentze lanak* ........ 280

B) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Izena ematea udaleko biztanleen erroldan, izen emateko eskarian jarritako datuak egiaztatu gabe* ........ 281

C) Obren proiektuak

⇒ *Bide baten eraikuntza proiektuaren inguruko desadostasunak* ........ 282

⇒ *Foru errepide batetik finka batera sartzeko bidea ukatzea* 283

D) Kontratazio, ondare eta administrazio erantzukizunaren araubidea

⇒ *Administrazioaren erantzukizuna foru errepide batean jausitako zuhaitz batek eragindako kalteengatik* ........ 284

E) Udal zerbitzu publikoak

⇒ *Bidea gordetzeko lizentzia ukatzea* ........ 286

F) Garraioak

⇒ *Bidaian zeharreko gehigarriaren ordainketa* ........ 286

11. OSASUNA ........ 288

**11.1. Sarrera** ........ 288

**11.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ........ 290

A) Osasun artapena

⇒ *Praktika klinikorako gomendioek ez zuten interbentzio kirurgikorik aholkatzen* ........ 290

⇒ *Atzerapena froga mediko baten emaitzaren berri ematean* 291

B) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *GIB kutsadura berrien informazio sistema* ........ 291

⇒ *Osasun zerbitzuen gaineko informazioa; irismena administrazioaren erantzukizunean* ........ 292
⇒ *Gaixoen datuen tratamendu automatizatua: Osabide* ....... 293
C) Buru osasuna
⇒ *Nahitaezko tratamendua edo barnerapena: betekizunak* ... 295

12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .................... 297
**12.1. Sarrera** .................... 297
**12.2. Aukeratutako kexak** .................... 298
A) Beste alderdi batzuk
⇒ *Lanpostuaren finantzaketa: ekonomia sozialeko enpresetara sartzeko laguntzak* .................... 298
B) Lana
⇒ *Gizarte zerbitzu baten funtzionamendua greba batean* ..... 299

13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .................... 301
**13.1. Sarrera** .................... 301
**13.2. Aukeratutako kexak** .................... 303
A) Hirigintzako diziplina eta aiurria
⇒ *Udalaren esku-hartzerik eza finka bat ixteko hormaren kontuan, hirigintzako araudiaren aurkakoa izan arren* ..... 303
⇒ *Herri jabariko bide batean itxitura egiteko obren lizentzia* .................... 305
⇒ *Erantzunik ez lizentzia txiki baten eskarian* .................... 307
B) Hirigintzaren kudeaketa
⇒ *Etxebizitza batzuk hirigintzan zehaztu gabe egotea, justizia epaitegien erabakiaren ostean* .................... 308
C) Hirigintzako antolamendua
⇒ *Udalek konpentsazio batzordeei hirigintzaren zamak bete ditzaten exijitzeko dituzten betebeharren gainean* ............ 309
⇒ *Ibai baten bideratze proiektuaren eta dagoen eraikinaren arteko gutxieneko tartea errespetatu beharra* .................... 311
⇒ *Hiri lurraren sailkapenaren gainean* .................... 312
⇒ *Auzokide bat udalerriaren hiri garapena bere jabetzako lurretan gauzatzeko proposamenaren aurka azaltzea* ........ 313
D) Etxebizitza
⇒ *Etxebizitzaren beharra dokumentuen bidez frogatu beharraren gainean* .................... 314
⇒ *Etxebizitzak ezgaituentzat gordetzearen gainean* ............. 315
⇒ *Etxebizitzen esleipenaren prozesutik kanpo uztea, etxebizitza baten jabe izan eta etxe hori etxebizitzaren beharraren ingurumarien arauan aurreikusitako salbuespenetan sartzen ez delako* .................... 315

14. ZENBAIT GESTIO .......... 317
**14.1. Sarrera** .......... 317
**14.2. Aukeratutako kexak** .......... 317
⇒ *Gasteizko magrebtarrek dituzten arazoak etxebizitzak errentan hartzeko* .......... 317
⇒ *Argentinako herritar baten heriotzari buruzko zenbait informazio eskuratzeko zailtasunak* .......... 318
⇒ *Autoa bahituta autoaren jabeetako batek GSINrekin zuen zorra dela-eta* .......... 319
⇒ *Estatistikako Euskal Erakundeari laguntzeko obligazioa estatistikako esku-hartzeak egitean* .......... 319

*B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI* .......... 321
1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI .......... 321
2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI .......... 333
3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI .......... 335
4. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI .......... 342
5. BERARIAZKO ARRETA PERTSONA EZGAITUEN ARAZOEI .......... 344

**III. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN** 353
1. OHAR ETA DATU OROKORRAK .......... 355
2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR .......... 358
3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA .......... 362
A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak .......... 363
B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak .......... 364
C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak .......... 365
D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak .......... 369
E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak .......... 369
4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA) .......... 370
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA) .......... 373
6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA) .......... 382
7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK) .......... 383

A) Gasteizko arreta zuzeneko bulegoa ... 385
B) Donostiako arreta zuzeneko bulegoa ... 386
C) Bilboko arreta zuzeneko bulegoa ... 387

8. OFIZIOZKO JARDUERAK ... 389

9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK) ... 390

**IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA** ... 393

1. SARRERA ETA OHARRAK ... 395

2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2002. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA ... 399
A) Eusko Jaurlaritza ... 399
B) Foru aldundiak ... 400
C) Udalak ... 401
D) Beste erakunde publiko batzuk ... 403

3. ARARTEKOAK 2002. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA ... 404
A) Eusko Jaurlaritza ... 404
B) Foru aldundiak ... 406
C) Udalak ... 408
D) Beste erakunde publiko batzuk ... 412

**V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN** ... 413

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ... 417
A) Eusko Jaurlaritza ... 417
B) Foru administrazioa ... 417
C) Toki administrazioa ... 418

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ... 420
A) Eusko Jaurlaritza ... 420
B) Foru administrazioa ... 421
C) Toki administrazioa ... 421

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ... 425
A) Eusko Jaurlaritza ... 425
B) Foru administrazioa ... 426
C) Toki administrazioa ... 426

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO ........ 429
Eusko Jaurlaritza ........ 429

**VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK** ........ 431

1. HAURREI TRATU TXARRAK EMATEN ZAIZKIEN KASUETAN ERAKUNDE-JARDUERA KOORDINATZEKO PROTOKOLOA EGIN BEHARRA ........ 433
2. GORDETAKO KUOTA: PERTSONA EZGAITUAK EAEKO ENPLEGU PUBLIKORA HELTZEKO SUSTAPEN NEURRIA ........ 443
3. UDAL ZERGETAN SUBJEKTU PASIBO GISA HAINBAT PERTSONA BATERATZEA ........ 449
4. TRAFIKOARI, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE SEGURTASUNARI BURUZKO ZEHAPEN PROZEDURAN POSTAZ EGITEN DIREN JAKINARAZPENAK: JAKINARAZPENAK BEHAR BEZALA SAIATUTA EGIN DIRELA ULERTZEKO BALDINTZAK, JAKINARAZPENA JASO BEHAR DUENA EZ DAGOENEAN ........ 454
5. HIRI INGURUETAN DAUDEN GOI-TENTSIOKO HARI ELEKTRIKOEN ARAZOA ........ 462
6. DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK: NOLA ERABILI DATUEN BABESA BERMATUTA ........ 470
7. MERKATARITZARAKO LOKALAK ETXE BIHURTZEKO AUKERA EMATEN DUTEN UDAL ORDENANTZAK ........ 476

**VII. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK** ........ 483

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA ........ 486
2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK ........ 487
   **2.1. Bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea** ........ 487
   **2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak** ........ 489
   **2.3. Intimitaterako eskubidea** ........ 490
   **2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa** ........ 491
   **2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa** ........ 492
   **2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak** ........ 493
   **2.7. Hezkuntzarako eskubidea** ........ 494

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK .......................... 496
**3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezkotasun printzipioak** .................................................... 496
**3.2. Jabetza pribaturako eskubidea** ........................................... 496
4. GIZARTE ESKUBIDEAK .................................................................. 497
**4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa** ......... 497
**4.2. Osasunerako eskubidea** ....................................................... 498
**4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea** ................................... 499
**4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea** .................................... 500
**4.5. Urritu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak)** .................................................................. 501
**4.6. Adinekoen eskubideak** ......................................................... 502
5. LABURBILKETA ............................................................................ 502

## ERANSKINAK

- *I. ERANSKINA:* Jarduneko Arartekoaren agerraldia, terrorismoaren biktimen egoera eta beharrizanak aztertzeaz arduratutako Ponentziak eskatuta .................................................................. 507
- *II. ERANSKINA:* Inmigrazio planen eragingarritasuna (Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldiak) .............................. 513
- *III. ERANSKINA:* Aparteko ahultasun egoeran dauden adingabeak eta erakundeen erantzunak. Hamar zailtasun, eta esku hartu eta hobetzeko ahalbideak (Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldiak) .................................................... 517
- *IV. ERANSKINA:* GRAFIKOAK ............................................................ 523
  - 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregulartasuna administrazioaren jokaeran 2002an bukatutako kexetan ....... 525
  - 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra ................................................................. 525
  - 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2002) 526
  - 4. Diagrama: 2002an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren .............................................................................. 526
  - 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera 527
  - 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera ................................................ 527
  - 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ............................................................................ 528
  - 8. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera ............................................................................ 528

- 9. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ........ 529
- 10. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera .. 529
- 11. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2002) ... 530
- 12. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2002) ........ 530
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera ..... 531
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera .... 531
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera ....... 531
- 16-17. Diagramak: 2002an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak) ........ 532
- 18. Diagrama: Banaketa adin taldeen arabera ........ 532
- 19. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak ........ 533
- 20. Diagrama: Harrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa ........ 533
- 21. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2002). Banaketa alorrez alor ........ 534
- 22. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2002). Eragindako administrazioen araberako banaketa ........ 534
- 23-28. Diagramak: Kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak) ........ 535
- 29-30. Diagramak: Arazoa "ez da konpondu" edo "nahiko txarto konpondu da" dioten kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa ........ 538

**GAIEN AURKIBIDEA** ........ 539

## AURKEZPENA

Txosten hau Eusko Legebiltzarrekoei aurkeztu gura diet Ararteko erakundeak 2002an zehar zertan jardun duen jakinarazteko.

Txostenaren egitura legean manatutakoarekin bat dator, jakina. Hau da, bertan baloratuta dago, orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesari buruz dagoen egoera; gero, bertan ageri dira jasotako kexei eta egindako jarduerei buruzko datu kuantitatiboak, administrazioen lankidetza maila, kexarik garrantzitsuenak eta administrazio-hobekuntzak ekartzeko gomendioak eta iradokizunak.

Legebiltzarreko ordezkaritza honek, urteko txostena emanda, bere Legebiltzarrari 2002an zehar egindako jarduera nagusien berri emateko legezko agindua bete gura du, zertarako-eta herri botereen aurrean hiritarren eskubideak bermatzeko. Baina ez zaio Legebiltzarrari bakarrik zuzentzen ari, baita lankidetza eskatu dien herri administrazioei eta parte hartuz sistema demokratikoa indartzen duten hiritarrei ere.

Oso pozik adieraz dezaket ezen administrazioak irregulartasunez jardun duela uste izan den 100etik ia 90 espedientetan Administrazioak bere ekintzak zuzendu dituela, gehienetan kexa tramitatzen aritu delarik. Hortaz, ez da berariazko gomendiorik behar izan. Horrek dakarrenez, beren eskubideak zapalduak zituzten hiritarrek erantzun ona jaso dute eta euskal herri administrazioak gai izan dira zuzendu beharrekoa zuzentzeko eta beraien esku-hartzea Zuzenbidera doitua ez zela aitortzeko.

Datuok oso garrantzitsuak diren arren, txostenean aurkituko dituzue azterketa orokorra egiteko sortu diren jarduerak, pertsona kopuru zehaztugabeari dagozkion arazoak konpontzen saiatzekoak. Horregatik, askotan bereziki baztertuta dauden taldeetako euskal hiritarren eskubideak bermatzeko, bereziki lagungarriak dira ofiziozko jarduerak, txosten monografikoa egitea eta gomendio orokorrak proposatzea. Hori guztia txosten honetan aurkituko duzue.

Eusko Legebiltzarrean *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan* deritzan txostena aurkeztu du erakunde honek, horren gainean zazpi urtean lan egin ondoren. Bertan adierazi du nola dauden Arabako sasoikako langileak, eta detektaturiko akats edo urritasunak hobetzeko gomendioak egin ditu.

2002. urte osoan zehar hiru txosten berezi prestatu dira; uneotan ia amaituta daude eta 2003ko lehenengo hilabeteetan aurkeztuko dira.

Minusbaliatuen arazoak bi txostenetan aztertu dira: EAEko herri zerbitzuetarako irisgarritasunari buruzkoan, eta pertsona minusbaliatuak lan merkatura sartzeari buruzkoan.

Beste alde batetik, ia bukatuta dago genero-indarkeriarekiko erakunde-erantzunari buruzko txosten bat.

Balore demokratikoetan sakondu beharra dago. Horrek 2002an ere giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzen duten ekimenekin jarraitzera eraman gaitu. Horretarako, ikerketa-bekak, argitalpenak eta udako unibertsitate-jardunaldiak baliatu ditugu.

2002an berriz doluz jantzi gara, ETAk 5 pertsona hil baititu. Ezin ditut haien senideak eta lagunak ahantzi, terrorismoaren biktima guztien senideak eta lagunak. Gizakiaren bizia galtzea tamalgarria dela eta, hitza hartu eta adierazi behar dugu ez dagoela hilketa zuritzen duen aldarrikapenik, ezta aldarrikapena bidezkoa izanik ere.

Erakundeok akordioak lortzen lagundu behar dugu, laguntza bilatzen, gizarte eta politika desadostasunak euskaldunen artean sortzen ari diren haustura konponbidean jartzen. Horregatik, zeinek bere erantzukizunetik, adiskide gisa jardun behar dugu. Izan ere, horrelaxe erdietsi ahal izango dugu guztiok bizitzeko moduko herri bat.

2003ko martxoa
JARDUNEKO ARARTEKOA
*Mercedes Agúndez Basterra*

# I. ATALA

## ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK

# 1. 2002 URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK

## 1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

Aurreneko atal honetan, erakunde honek azken urteetan prestatu dituen txosten berezien jarraipena egiteko jarduerak laburbilduko ditugu. Arartekoa erakundearen txosten guztiek, bukatzeko, zenbait gomendio ematen dizkiete kasuan kasuko administrazio eskudunei eta beraz, jarraipenaren helburua ez da bestrik gomendioak zenbateraino betetzen ari diren jakitea baino. Horretarako, bide desberdinak erabiltzen dira, gaia zein den, txostena egin denetik zenbat urte igaro diren, gomendioa abian jartzeko zerbitzuak zeintzuk eta zenbat diren, beste urte batzuetatik daturik ezagutzen dugun…

Hain zuzen ere, hauek dira biderik erabilienak:

- Bisitaldiak egitea aztertutako zentroetara edo zerbitzuetara (esate baterako, komisariak, harrera-zentroak edo barruan egoteko zentroak).
- Arlo bakoitzean diharduten elkarteekin edo profesional-taldeekin harremanetan jartzea.
- Kasuan kasu eskudun den administrazioari datuak, informazioa eta balorazioak eskatzea.

Aipatutakoez gain, beste bide batzuk ere erabiltzen ditugu, erkatzeko: kexen bidez jasotako informazioa; aztertzen ari garen aldian argitaratu diren planak, programak, deialdiak edo memoriak; bilerak sailetako ardura duten politikoekin…

Administrazioei datuak eskatzen dizkiegunean informazio gaurkotua, ahalik eta gaurkotuena, eskura eduki gura dugulako da. Horregatik, sarritan, eskakizuna urtearen azken bi hiletan egiten dugu eta urtea bukatu bitarteko epea eman –azken ekitaldiko datuak txostenean sartu ahal izateko-, baina erantzunak hurrengo urtearen aurreneko bi hiletan jaso eta aztertzen ditugu. Horrela, bada, hurrengo ataletan agertuko diren datu asko eta asko 2002. urteari dagozkio baina 2003ko urtarrilean edo otsailean jaso ditugu, txosten hau amaitu baino lehentxoago. Kontuan hartzekoa da hori.

### 1.1.1. EUSKAL HERRIKO KARTZELEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIARI JARRAIKI HASITAKO JARDUEREN JARRAIPENA

Ararteko erakundeak Euskal Herriko kartzelen egoerari buruz egindako txosten berezia Eusko Legebiltzarrari 1996an eman zitzaion. Bertan deskribatuta zegoen gure Erkidegoko hiru presondegietan ikusitako problematika, eta bertan pertsona presoen egoera hobetzeko gomendioak egin ziren. Gero, urte horretako urteko txosten arruntean, Arartekoak administrazio batzuen eta besteen aurrean egindako urratsei buruzko informazio zabala eman zen, eta txostenak eremu jakin batzuetan sorrarazitako polemikari buruzkoa (1996ko txostenaren I. atala., 2.1.2 )

Harrezkero, hurrengo urteetako txosten arruntetan jarraipen-atala sartu da, zeinetan kezkak, jarduerak eta balorazioak islatuz joan baitira, kasu bakoitzean egon diren informazioen arabera. Informazio horiek presondegietako zuzendariengandik, haietan esku hartzeko programak dituzten elkarteengandik, zenbait jarraipen-batzorderengandik, Osasun eta Justizia Sailarengandik, Ararteko erakundearengandik eta abarrengandik jaso dira. Gehienbat osasunerako eta osasun-arretarako eskubidearekin loturiko gaien jarraipena egin da: xiringsk trukatzeko programa zabaltzearena, pertsona presoentzako arreta psikiatrikoarena, presondegiaren hautazko bide terapeutikoena, Txagorritxuko eta Basurtoko zainketa bereziko ospitale-unitateen baldintzena eta abarrena. Hau da, Zigor Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean finkatutako lankidetza markoaren barruko gaien jarraipena egin da. Hain zuzen ere, azken ezaugarri hori dela eta, Arartekoak zuzenean jardun ahal du. Beste gai garrantzitsu batzuetan ezin du zuzenean jardun.

Urtero gertatu izan den bezala, kontuan hartu behar da ezen presondegiaren gaiko eskudunak ez zaizkiola gure Erkidegoari intsuldatu eta, hortaz, hiru presondegiek Barne Ministerioaren menpean jarraitzen dutela. Horrela, aipatu ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarako marko-hitzarmena edo osasun arloko beste hitzarmen zehatz bat dela eta, Arartekoak zelanbait esku hartu eta hartzen du, lankidetzapeko gaietan bakarrik baina. Egoera horrek benetako jarraipen-aukerak oso baldintzatzen ditu eta, neurri handi batean, bai aztertutako gaiak bai erabilitako metodologia edo informazio-bideak azaltzen ditu. Egin-eginean ere, informazioa elkarri trukatzeko aldizkako bilerak izan ditugun presondegietako zuzendaritzekin eta pertsona presoei laguntzeko elkarteekin izandako harreman onei eta erakundearteko lankidetzarako foroetako batzuetan agertzeari esker egin da jarraipena urteotan. Foro horiek xiringak trukatzeko programei jarraitzeko batzordeak izan dira. Baina beti zeharka hartu da esku, gaien aldetik mugatuta, eta informazioa biltzeko edo egiaztatzeko funtsezko tresnarik gabe. Horrelako tresnak, esate baterako, honakook dira: presondegiak zuzenean bisitatzea eta haietan lan egiten duten edo preso dauden pertsonekiko elkarrizketak. Behin baino gehiagotan aitortu dugu ezen, marko horrekin bat etorririk, erakunde honentzat zaila dela aztergaiak gogo handiagoz aztertzea edo kontrol hobea edo handiagoa egitea. Alabaina, mugak gorabehera, azken urte honetan ere irekirik egon dira aipatutako jarduera- edo harreman-bideak (elkarteekiko bilerak, zuzendariekiko elkarrizketak, batzorderen batean egotea…), eta, gai batzuetarako, beste informazio-bide batzuk bilatu dira, beti arrakastatsuak izan ez direnak.

Jarraipen-kapitulu hau idazteko, honako iturriok hartu dira kontuan:

- Urtean zehar jasotako kexak.
- Pertsona presoei laguntzeko 14 elkartetako kideekin martxoan izandako bileretan jasotako kezkak eta datuak.
- Txagorritxuko eta Basurtoko ospitale-unitateei eta Donostiako Ospitalearen baldintzei begira egindako bisitak eta jarduerak.
- Drogazaleekin esku hartzeko programei buruzko Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiaren 2001eko memoria.
- Osasun Sailari, Justizia Sailari, Gizartekintza Sailari eta Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusiari ofiziozko espedienteen bitartez eskatu edo/eta sailotatik jasotako informazioa.
- Ametzagañaren menpeko unitateari egindako bisita.
- Hainbat taldek aurkeztutako proposamen, kexa edo arazoak kontuan hartuta egindako esku-harmenak.
- Justizi Administrazioaren Euskal Behatokiaren 2001eko Memoria.

Jarraioan aipatuko ditugu, labur, aztertutako gaien eta iturri batetik edo beste batetik jasotako informazioen alderdi batzuk, nabarmentzeko modukoak direnak.

- **Zigor-arloko eskumenak eta erakundearteko lankidetzarako akordioak**

Aipatu dugun bezala, hain zuzen ere, bi gai hauek (zigor-arloko eskumenak eta erakundeen arteko lankidetzarako akordioak egotea) dira erakunde honen jarduera baldintzatzen dihardutenak.

Euskal Autonomia Erkidegoak zigor-arloko eskumena bereganatu behar du. Intsuldaketa hori ez da oraindik gertatu, Autonomia Estatutuan ezarritakoa gorabehera. Hark eskumen hau bereganatu beharrari begira adieraztekoa adierazi du erakunde honek bere txosten guztietan. Era berean, kontuan hartu da ezen, horrelako intsuldaketarik ezean, lankidetza-hitzarmenak daudela eta, arlo jakin batzuetan batera esku hartu behar da, behintzat, eta pertsona presoen eta esku hartzen duten taldeen eta profesionalenbizi- eta lan-baldintzak hobetu behar dira.

Indarrean dauden hitzarmenek oinarrizko gaiak harturik dituzte barnean, eta haiek eragina dute pertsona presoen osasunerako, hezkuntzarako, lanerako eedo gizarterapenerako eskubidean. Ildo horretatik bere mugak gorabehera hobekuntzarako programa eta jarduera asko ahalbidetzen dituen jarduera-markoa osatzen dute. Baina, haiek behar bezala garatzeko, beharrezkoa da, zalantzarik gabe, aldeen arteko konfiantza eta lankidetza.

Jasotako datuak kontuan harturik, ez dirudi haien potentzialtasunak nahiko garatu direnik. Badirudi, azken urteetan behintzat, haien garapena lankidetzan eragin txarra izan duten kontu politikoek ukitu eta geldituta geratu dela. Izan ere, marko-hitzarmenean ezarritako Jarraipen-batzordearen azken bilera 1998ko martxoan izan zen eta ez da harrezkero bilerarik izan. Egin-eginean ere, azken urte honetan izandako bilera bakarra Langraitz Okako presondegian xiringak trukatzeko prorgramari jarraitzeko batzordearena izan da.

Gure ustez, garapena gelditu da. Hori zela eta, erakunde honek inplikaturiko aldeengana jotzea egokietsi zuen, haien balorazioa eta proposamenak jasotzeko. Informazio-eskaera gaian eskumenak zituzten eta esku hartua zuten Eusko Jaurlaritzaren hiru saili (Justizia, Osasuna eta Gizarte Gaiak) zuzendutako hiru ofiziozko espedientetan eta Barne Ministerioaren Zigor Erakundeetako Zuzendaritzarentzako idazki batean zehaztu zen.

Funtsean, haiei guztiei antzeko informazioa eskatu zitzaien, beraien eskumen-eremura egokitua. Horrek lau atal zituen zehazpide.

1. Indarrean zeuden hitzarmenek (osasun arloko hitzarmen zehatzak eta marko-hitzarmenak) iritsitako benetako garapen mailari eta erakundearteko egungo lankidetza eta koordinazio mailari buruzko sail bakoitzaren balorazioa.
2. Gure iazko jarraipen-txostenean (2001eko txostenaren I. atala, 1.1.1) islatutako gaiak ñabartu, osatu edo eguneratzeko egokiesten zituen ekarpenak.
3. Garrantzi bereziko aldediak edo proposamenen bat egitea beharrezkotzat jotzen zuen alderdiak.
4. Haiek erakunde honek egindako gomendioen ildotik zigor-gaietako lankidetzan eta presondegiratzearen hautabidezko zigorretan burutu edo ezarritako jarduera nagusiak.

Txosten hau prest uzterakoan, Eusko Jaurlaritzaren hiru sailen erantzunak jaso dira. 2002ko azaroaren 27an Zigor Erakundeen zuzendariari egindako eskaerari zegokionez, haren idazkia jaso zen. Hark eskumen-arrazoiengatik Ararteko erakundearengana jotzeko gomendioa eman zigun bertan. Zeharkako bide horrek dakarren atzerapena gorabehera, eta bide hori beharrezkotzat jo ez zuen arren, erakundeak informazioa berriz eskatu zuen, ordukoan Ararteko erakundearen bitartez. Alabaina, Zigor Erakundeen zuzendariari esan zion ezen ez zegoela hark jarraitutako irizpidearekin ados. Izan ere, eskatutako informazioa ezin zen ulertu guk ikuskatzea ez zihoakigun administrazioa kontrolatzeko saio bezala, baizik eta Hitzarmena sinatu zuen aldeetako batek (Barne Ministerioak) egin nahi zituen balorazioak, proposamenak eta iradokizunak ezagutzeko eta gu beste aldearen informazioarekin (Eusko Jaurlaritzarenarekin) bakarrik ez geratzeko bide eraginkor bezala.

Saioa gorabehera, beste erantzunik jaso ez dugula eta, aldeetako baten ikuspegia bakarrik islatu behar dugu hemen. Baloraziorik globalena Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarengandik jasotako idazkian egin da. Bertan, funtsen, lau gai aztertu dira eta «Zigor Erakundeekiko 1994ko apirilaren 18ko Marko-hitzarmena baloratzeari buruzko 2002ko abenduko txostena» ageri da erantsita.

Sailburuaren erantzunean honakoa nabarmen daiteke:

1. Zigor-erakundeen antolaerari, araubideari eta ibilerari eta birgizarterapenari buruzko eskumen esklusiboa (Autonomia Estatuaren 10.14 artikulua) eta zigor-legeak betearazteko eskumena (12.1 artikulua) behin eta berriz eskatzea.
2. Hitzarmenaren garapenari buruz egiten den balorazio txarra, haren potentzialtasunak eta hura bizkortzeko saioak gorabehera. Saioei buruz aipatuta dagoenez, *«2002an zehar, aipatutako hitzarmena bizkortu nahirik, sail hau*

*behin baino gehiagotan joan da Zigor Erakundeeen Zuzendaritza Nagusiarengana, eta Giza Eskubideen zuzendariak elkarrizketa pertsonalak izan ditu, gogo hori berriro adierazteko eta Marko-hitzarmenaren egoera eta egungo lankidetzarako tresna gisako baliozkotasuna zehazki aztertzeko. Izan ere, hala denean, lankidetza sendotu edo handiagotu behar da. Kartzelen herri zerbitzua egiteko kalitatea hobetzea helburua izango da beti.*

Eta, erantzun falta dela eta, baloratzeari dagokionean ondorioztatu denez *"ez da zaila irudikatzea ezen Sailak 1994ko Marko-hitzarmenaren ibilerari buruz egindako balorazioa oso txarra dela. Egia da hasieran gauzak egin zirela eta hor dirauten zenbait ekimen interesgarri garatu zirela (XTP...). Era berean, egia da esate baterako Jarraipen-batzordea ez dela 1998ko martxoaren 2az geroztik bildu (...)*

*Alabaina, gure ustez, Hitzarmena EAEko presondegietan jarduerak, programak eta zerbitzuak garatu ahal izateko bezain lankidetza-tresna zabal eta malgua da".*

Antzeko balorazio globala ikus daiteke Justizi Administrazioaren Euskal Behatokiak argitaratutako 2001eko Memorian. Bertan aipatuta dagoenez, *«Orokorrean Hitzarmena 2001ean 1998az geroztiko inertzia eta arretarik ezeko egoera berean egon da eta ez dira aprobetxatu berak kartzelen herri zerbitzua hobeto egiteko ematen dituen jarduera-aukerak. Izan ere, Administrazio bien lankidetzarako egokia ez den abagune politikoa dago».*

3. Sailarteko Batzordea eratzea, *«gaiari buruz zelanbait eskumenak dituzten Sailen koordinaziorako»*. Izan ere, beharrezkoa da *«eraginkortasun eta eragingarritasun handiagoa lortzea»*, *«baterako perspektibatik errealitate horren gainean esku hartzea, zerbitzua egiten zaienen beharrizanak kontuan hartuta, jarduten duten euskal Administrazio Publikoaren hainbat organo daudela ere»* eta *«osasun-alderdiak, hezkuntza-alderdiak, prestakuntza-alderdiak, lan-alderdiak, laguntza-alderdiak eta abar barnean hartzen dituen diziplina anitzetako arreta».*

   Aipatuta dagoenez, *"Horregatik informalki eratu zen 2002ko apirilean Sailarteko Batzordea, Justizia, Gizarte Gaiak eta Gizarteratze sailordetzen artean. Inoiz bertan parte hartu dute gaiaren arabera inplikaturiko beste Sail batzuek, hala nola, Osasun eta Hezkuntza Sailek. Inoiz jakinarazi zaio Lan eta Trebakuntza Sailordetzari.*

   *Batzorde honen helburuak honakook dira: Sail bakoitzak azaldu eta betearazitako ekimen eta proiektuen sailarteko jakinarazpena, Sail bakoitzaren ekimen eta proiektuak koordinatzea, zigor-arloan baterako ekimenak bultzatzea, koordinatzea eta betearaztea, kanpoarekiko komunikazioak erdiratzea (ZEZN, EAEko presondegiak eta beste erakunde eta elkarte batzuk), zertarako-eta amankomuneko gaietan batera agertzeko, eta inplikaturiko Sailen diru-laguntzarako politika koordinatzea.*

   *Batzorde hau ekainaren 14an bildu da zigor-eremuan lan egiten duten euskal elkarteekin. Harrezkero, zigor justiziako I. Gizarte Foroa antolatzen dihardugu. Kartzeletatik irten diren pertsonentzako langabezi sorospeneko aurrerakina hitzartzeko Gizarte Gaietako Sailordetzaren ekimena eztabaidatu da eta Zigor Erakundeekiko 1994ko Marko-hitzarmenari buruz hausnar egin da".*

4. Hitzarmenaren markoan burututako jarduerak laburtzea:

- *"Droga-menpekotasunen programa (Etxebizitza eta Gizarte Arazo Sailak Droga-menpekotasunen Zuzedaritzari transferitua).*
- *Ametzagaina fundazioa. 57.877 euroko aurrekontu-zuzkidura.*
- *Zigorretako Legezko Laguntza. 99.678 euroko aurrekontu-zuzkidura.*
- *Zigorren gaineko gizarte ekimenetarako diru-laguntzen programa: 271.478 euro.*
- *Arloko zeharkako beste esku-harmen batzuk (Justiziarekiko Lankidetzarako Zerbitzuak)."*

Aipatutako «Zigor Erakundeekiko Marko-hitzarmena baloratzeari buruzko 2002ko abenduko txosten»ean sartuta daude programa horiek eta beste sail batzuek burututako beste batzuk. Haren 2. paragrafoan zabal banakatuta daude garatutako jarduerak, emandako diru-laguntzak, abian jarritako programak eta beraietarako aurrekontuko kopuruak.

Txostenaren bost ataletan laburtuta dago jasotako informazioa, inplikaturiko bost sailei dagokiena. Sail horiek honakook dira:

1. Justizia Saila bera (elkarteei eta programei emandako laguntzak eta partidak banakatuta daude).
2. Osasun Saila (presondegi bakoitzeko gastua eta programak aipatuta daude).
3. Hezkuntza Saila (Presondegiei laguntzeko HHko irakasleei eta pertsona presoei emandako bekak aipaturik daude).
4. Gizarte Gaietako Saila (Droga-menpekotasunen Zuzendaritzak toxikomanietan esku hartzeko programak bereganatea eta kartzeletatik irten direnen langabezi sorospeneko aurrerakinari begirako kudeaketak aipatuta daude).
5. Lan Saila (Zereginetako Heziketarako Programaren barruko ikastaro diruz lagunduak aipatuta daude).

- **Jasotako kexak**

2002an jasotako kexak aurreko urteetakoen antzeko arazoei buruzkoak izan dira, Justizi arloaren sarreran azaldu den bezala: terrorismo-delituengatik atxilotutako pertsonei lotutako egoerak (bisita, posta, ikasketak, presondegi batzuetako bizi-baldintzak...), etxekoengandik urruntzea, kondenaren hiru laurdenak beteta kartzelan izatea... Sarritan udalaren ordezkariek, elkarteek edo taldeek azaltzen dituzte kexok. Pertsona presoek eurek aurkezturikoen artean, Basauriko aurretiko hitzordurako sistemarekin, Langraitzeko presondegiko sail batzuen baldintza txarrekin, presondegietako adituen osasun-laguntzarekin, hirugarren graduan egonda INEMen erregistratzeko zailtasunekin eta abarrekin loturiko kexak jaso dira. Era batera edo bestera, pertsona presoek helarazten dizkiguten idazkiek presondegiko bizitzan eragina duten gai asko hartu ohi dituzte barnean: maila-sailkapenak, baimenen ukapenak, buruko gaixotasunak eta droga-menpekotasunak sendatzeko hutsuneak, gaixotasun larria duten pertsonak kartzelatik ez ateratzea, betelekua, lekualdaketak, ordenagailuak eta beste gailu batzuk izateko arautegia, pentsioak ukatzea...

- **Xiringak trukatzeko programak**

Gure Erkidegoko presondegietan xiringak trukatzeko programei dagokienez, egungo egoera honelaxe labur daiteke:

- Basauriko presondegia: 1997ko uztailean esperimentalki hasitako programa (XTP), ontzat hartu eta argitalpen xumearen bitartez zabaldua, beste proiektu batzuetarako oinarri bezala. Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiak kaleratutako datuen arabera, 2001ean 1.823 xiringa banatu ziren. Programari jarraiteko batzordea ez da urtean zehar bildu.
- Martuteneko presondegia: Xiringak Trukatzeko Programa presondegi horretan 2000ko otsailean abiarazi zen, eta normaltasunez dirauela dirudi. Aipatutako datu-iturriaren arabera, urtean 463 xiringa banatu ziren. Kasu horretan ere ez da programari jarraiteko batzordea urtean zehar bildu.
- Langraitzeko presondegia: programa, azkenik, 2001eko urriaren 1ean abiarazi zen eta jarraipen-batzordea 2002ko ekainaren 10ean bildu zen haren garapna berriro ikusi eta beharrezko aldarazpenak aztertzeko.
  Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiak kaleratu zituen datuen arabera, 2001ean (hau da, lehenengo hiru ibilera-hilabeteetan zehar) 632 xiringa banatu ziren. Ekaineko bileran emandako datuen arabera, ordurako, programa hasi eta zortzi hilabetera, 1.200 bat xiringa banatua zen.

Horrela bada, 2001eko urriaz geroztik gure Erkidegoko hiru presondegiek xiringak trukatzeko programak dituzte, gaitzak txikitzeko gainerako programetan sartuak. Horrek zigor-eremuko haien bideragarritasuna erakutsi dute. Programa beste presondegi batzuetan zabaltzeari edo orokortzeari zegokionez, abenduaren 10ean idazki bat jaso zen Arartekoaren erakundetik. Bertan jakinarazi zitzaigun Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusitik jasotako informazioa. Beronen arabera, *"Gizarteratzeo zentroetan, Zigor-psikiatrikoetan eta I. Portuko zentroan izan ezik, gainerako presondegietan ezarri da programa"*, zuzendaritza horren 2001eko ekaineko zirkular bat kontuan hartuta. Datuok ikusita, erakunde honek bere burua zoriondu behar du hasieran, 1995an azaldu zenean, erreparo eta aurkaritza handiak eragin zituen baliabide bat ezartzen izandako aurrerapenen aurrean.

- **Presoentzako osasun-arreta**

Zehazki, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren eta Zigor Arazoetarako Estatu Idazkaritzaren artean indarrean dagoen lankidetzarako hitzarmena aplikatzeko Erkidegoko baliabideen bitartez estaltzen ari diren osasun-prestazioez ari gara.
Iazko txostenean bilduta zegoen, Osasun sailburuarentzako ofiziozko espedientea kontuan harturik, Basauriko, Martuteneko eta Langraitz Okako presondegietan espetxeratutako pertsonei begira estaltzen ari ziren osasun-prestazioei buruzko informazio zabala. Horrela, 1999an (2000ko otsaileko txostena) eta 2000n eta 2001ean (2002ko urtarrilaren 31ko txostena) egindako prestazioei buruzko datu globalak eman ziren, zentroz zentro. Txosten bion bitartez jarraitu nahi izan zaio osasun-arloko lankidetzarako 1995eko azaroaren 20ko hitzarmenari (ikus 2001eko txostenaren I. atala, 1.1.1)

Osasun Sailetik jasotako azken erantzunean, 2003ko otsailaren 5ean, aipatu jarraipen txostenak edo memoriak aipatu dira, prestazioak bi talde nagusitan bereizi dira (laguntza-jarduerak eta prebentziozko eta herri osasuneko jarduerak) eta balorazio global ona eman da, honela: *"Presoek eskatzen dituzten eta Osakidetzako gure*

*zentroetan jaramon egiten zaien laguntza-jarduerei dagokienez, arreta hori gure zerbitzuetara etortzen den beste edozein pertsonarentzakoa bezalakoa da.*
*Prebentziozko, osasun-hezkuntzako eta herri osasuneko arretei dagokienez, horrelako esku-harmenak zigor-eremura hurbiltzeko ahaleginak egin izan dira. Hori islaturik dago jarraipen-txostenetan.*
*Hortaz, nire ustez, Osasun Sailak eta Osakidetzak aipatu Hitzarmenari datxezkion betebeharrak bete dituzte".*

- **Zaintza bereziko ospitale-unitateen egoera**

Erakunde honek azken urteetan arreta berezia jarri du polizi zaintzako ospitale-unitateen egoeraren gainean. Unitateok presoei ospitale-arreta ematekoak dira. Hark horren berri eman du urteroko aurreko txostenetan.

Horrela, esate baterako, iazko txostenean zehatz-mehatz deskribaturik zegoen askatasunez gabetutako pertsonak sartu ohi ziren hiru ospitale-zentrotara (Txagorritxura, Basurtokora eta Donostiakora) egindako bisitetan ikusitakoa (ikus 2001eko txostena, 31-34 orr.). Beste alde batetik, elkarteek egindako galderetarako hurrengo epigrafean azaltzen den bezala, Arabako Osasun eta Kartzela Plataformak Eusko Legebiltzarrekoei ZBU-Zaintza Bereziko Unitateetan osasun-arreta ematen den baldintzen gaineko bere salaketak helarazi dizkie.

2001aren bukaeran eta 2002aren hasieran egindako bisiten ostean, ez dugu beharrezkotzat jo beste *in situ* behaketarik egitea. Izan ere, ez dira aldarazi sail horien baldintza fisikoak. Alabaina, harremanetan jarri gara zentroen arduradunekin, osasunekolangileekin, zentrootan sarturik dauden pertsonak bisitatzera joaten diren elkarteekin eta zentrootan sarturik dauden pertsona batzuekin.

Zentroek eurek emandako informazioen arabera, 34 presok sartu behar izan dute Basurtoko ZBUra; 22k, Donostia ospitalera; eta 90ek, Txagorritxuko ZBUra. Bizkaiko ospitalean (zentro horrek bakarrik eman du datua) ZBUko batezbesteko egonaldi-iraupena 3,89 egunekoa da, aurreko hiru urteetako 9,5 egun ingurukoa baino askoz laburragoa. Bere aldetik, Arabako Txagorritxu ospitaleak ospitalerapen-zioei buruzko informazioa eman digu:

| | |
|---|---|
| Arnas Patolog. (Pneumoniak, Bronkitisa eta abar) ...................... | 37 |
| Liseri. Apar. Patolog. (Enteritisa, Gastritisa, Hepatitisa eta abar)... | 21 |
| Gorputz Arrotzak................................................................ | 9 |
| Patolog. Kardiologikoa (Perikarditisa, IAM eta abar) .................... | 6 |
| Toxikapenak (kaustikoak, opioa, lasaigarriak eta abar)................ | 5 |
| Patolog. Traumatologikoa .................................................... | 5 |
| Patolog. Ginekolog./Erditzeak ............................................... | 4 |
| Beste batzuk (zorabioak, anemia eta abar) ................................ | 3 |
| **GUZTIRA** ........................................................................ | **90** |

Beste alde batetik, gogora ekarri behar da ezen ospitale-zentroek presoei emandako laguntza ez dela ospitalerapenei begirakoa bakarrik. Larrialdi-zerbitzuko arretaz gain, honakook egiten dira, halaber: kontsultak, laborategiko probak eta azterketa erradiologikoak...

Aurrekoetan detektatu ditugun gabetasun materialei dagokienez, jakin dugu ezen Basurtoko ZBUko bainugeletan ispilurik ez dagoela, baina hura eskatu dutela eta jarriko dutela esan digute. Ospitale-zentroak ez du egokietsi alde horretan telefono publikorik jartzerik, erakunde honek hori eskatu arren. Txagorritxun behin betiko konponduta bide dago gaixoek beren gauzaki pertsonak gordetzen dituzten eta orain zabalik dauden armairuen arazoa. “Itxaroteko gela”ri zegokionez, hura gaixoen topagela bezala erabiltzea iradoki genuen, zertarako-eta ospitaleratzearen ondoriozko isolamendua arintzeko, baina hura ez da oraindik horretarako erabiltzen. Antza denez, ertzainek ez ohi diete gaixoei elkarrekin hitz egiten utzi. Horrek presondegikoa baino harreman pertsonen murriztapen handiagoa dakar, gure ustez arrazoi zehatzik (osasunekorik, segurtasunekorik...) bateratuz gero bakarrik justifikatu ahal dena. Logeletan ez da telebistarik jarri. Alderdi horretan tratu ezberdina jasotzen dute, ospitalearen gainerako erabiltzaileek jasotzen dutenaren ezberdina alegia.

Nolanahi ere den, iazko txostenean azaldu zen bezala, arazorik garrantzitsuenak Ertzaintzaren zaintzari berari eta, bereziki, gai batzuetan amankomuneko irizpiderik ez izateari dagozkie. Gai horiek honakook dira: bisitak, osasuneko langileekiko harremanen isilpekotasuna... Kontu horiek eta beste batzuk 1999an azaldu zitzaizkion Herrizaingo Sailari, Txagorritxuko ZBU abiarazita. Orduan arazorik larrienak konpontzeko aldarazpen batzuk egin ziren. Alabaina, alderdi asko ez ziren ukitu. Horiei buruzko informazioa eskatu dugu behin eta berriz, baina ez dugu lortu.

Horregatik, eta arazo batzuek konpontzeke jarraitzen dutela eta, Arartekoak eremu honetan berriz esku hartzea erabaki du. Horretarako, Herrizaingo Sailarengana zuzendu eta honako gaion berri jakin gura izan du:

1. Intimitaterako eskubideari dagokionez, Donostia ospitalean eta ZBUetan gertatzen diren inguruabarrak bereizi behar dira:

1.1. Txagorritxuko ZBUan detektatu zen hutsune nagusietako bat honakoa zen: logela bakoitzeko segurtasun-atea logelaren eta komunerako sarreraren artean zegoen. Hori dela eta, pertsona gaixoak, komuna erabili gura duen bakoitzean, agente zaintzaileei dei egin behar die atea ireki diezaioten. Herrizaingo Sailak gure planteamenduarekin ados zegoela azaldu zuen. Hori dela eta, kudeaketarik egin duen edo eskatutako aldarazpenak burutzeko Zigor Administrazioaren ekimenen baten berririk jakin duen galdetu diogu.

1.2. Donostia ospitalean ZBUrik ez dagoela eta, asktasunez gabetutako pertsonei jo dituen gaitzari dagokion solairuan ematen zaie arreta. Sistema horrek abantailak eta desabantailak agertzen ditu, polizi zaintzari begirakoak: agenteek korridorean egon behar dute, gelako sarreran, edo, sarritan, gela barruan, leihoa begiratzeko. Polizien

lan-zorroztasuna gehitzeaz gain, gaixoak bere intimitatearen begi-bistako mugak jasan behar ditu. Inplikaturiko pertsona guztien onerako hobekuntzak iradokitzeko asmoz, ospitalekoei egun batean esan genien polizi agenteak gelaren barruan egotea ez dela beharrezkoa ihesaldia eragozteko segurtasun-mekanismoak (zentroko bertako Psikiatri Unitatean dauden bezala) ezartzeko logela batzuetako leihoak aldarazten badira. Oraingoz aldaketak egin ez direnez gero, Herrizaingo Sailari prozesuaren dinamizazioan parte har dezan proposatu diogu.

1.3. Ospitale berean azaldu den beste gai bat agenteek zaintza burutzen duten moduari buruzkoa da: haiek uniformaturik egotea edo ez. Ertzainak uniformea jantzita daudenean, pertsona gaixoaren askatasunik gabekotasuna agerikoa da. Justizi arloan (II.8.2 kap.) azaldu denez, arazo hori preso bat amatasun-solairuratzearen kariaz piztu zen. Kasu hartan, hasiera batean polizi funtzionarioek zaintza uniformea jantzita egiten bazuten ere, gero, irizpidez aldarazita, ertzainak egunez ez ziren uniformatzen, baina gauez bai. Arartekoak uste duenez, jarduteko modu horrek hobeto errespetatzen du zaindutako pertsonaren intimitaterako eskubidea. Hori dela eta, hark etorkizunari begira irizpide hori arau orokor bezala egokitu ahal den jakin gura du.

2. Hiru ospitale-zentroetan, pertsona atxilotuek jasotzen dituzten bisitak baimendu eta kontrolatzeak Ertzaintza bakarrik du eskudun. Zaintzaileek beti esaten dute ezen zigor-araubidea mantentzen dela eta, hortaz, komunikazioen kopurua eta baldintzak presondegikoen berdinak direla. Hala ere, batzuetan arazoak sortu dira eta erakunde honek gaiari buruzko amankomuneko irizpiderik ez dagoela egiaztatu du. Erabaki bidegabeak edo subjektiboak saihesteko beharrezkoa da ospitale-zentroetan agenteei ematen zaizkien jarraibideak bateratzea; horixe jakinarazi diogu Herrizaingo Sailari. Aipatutako arautegiaren gutxieneko oinarria indarrean dagoen zigor-legeriak zehaztuko du. Alabaina, bera aplikatzeko kontuan hartu beharko da ospitaleratzetik datorren laguntza afektibo eta psikologikoaren behar handiagoa dagoela, eta beste presoekin harremanik ez dagoela, egia esan.

Oharrarazi den bezala, ospitaleetako polizi zaintzarekin loturik dauden eta Arartekoari interesatzen zaizkion beste alderdi asko daude. Baina, Herrizaingo Sailari 2003aren hasieran zuzendutako idazkian, aipatutako gaiak hartu ditugu ardatz nagusi. Hala ere, jarraipen-lan generikoa egiten jarraituko dugu.

- **Ametzagaña zentroaren egoera**

Ametzagaña zentro pedagogikoa Martuteneko presondegiaren menpeko unitate bezala sortu zen eta ibili da 1994ko irailaz geroztik, Gobernu Zentralaren (Zigor Erakundeak) eta Eusko Jaurlaritzaren (Justizia Saila-Giza Eskubideak) arteko hitzarmenaren bitartez.

Zentroaren funtsezko helburua ez berrerortzeko prest dauden gazte zehatz batzuentzat kartzelaren alternatiba eskaintzea da. Horretarako, bertan presoalditik askaldira pasatzea errazten zaie, arreta pertsonalizatuaren eta testuinguru irekiko hainbat prestakuntza eta lan programa eta jarduera eta programa eta jarduera terepeutikoren bitartez.

Erakunde honek kartzelei buruz egindako txosten berezian zentroaren baldintzak aztertu ziren eta hari buruzko gomendio zehatza eman zen, hura aprobetxatzeko eta zabaldu ahal izateko (57 zenbakiko Gomendioko kop.)

Arartekoak eta erakunde honetako langileek zentroa 2002ko urtarrilaren 23an bisitatu zuen, hitzarmena berritzeko arazo batzuk sortzeagatik: instalazioak berrikusi genituen, bertan barneraturik zeuden 14ekin hitz egin genuen, profesional taldearekin behin bildu ginen eta datuak eta agiriak jaso genituen. Horrek zentroari buruz dagoen informazioa eguneratzeko balio izan zuen. Informazio hori iazko txostenean laburbildu zen (ikus 2001eko txostena, 34-36 orr.) Hark balio izan zuen kartzelaren hautazko programak garatzea beharrezkoa eta komenigarria dela esaten jarratzeko ere.

- **Elkarteek azaldutako arazo eta kezkatzeko zio nagusiak**

Pertsona atxilotuei laguntzen dieten edo zentroen osagarriak edo hautabideak diren programak dituzten elkarteekin martxoaren 11n bildu ginen Gasteizen, 12an Bilbon eta 20an Donostian. Guztira 14 elkartetako pertsonek parte hartu zuten eta haietarik gehienak Langraitzen, Basaurin edo Martutenen esku hartuta zeuden. Elkarte horiek honakook dira: Arabako Cáritas (PAEX), Arabako Hiesaurkako Batzordea, Salhaketa, Aldarriketa, Bizitegi, Bilbo-Etxezabal, Bizkaiko Gizaki Proiektua, Adsis-Bestalde, Bizkaiko Alkoholiko Anonimoak, IRSE-Gipuzkoa, Arratz, Hegaldi, Emaus eta DEE.

Aurreko urteetan bezala (2001eko txosteneko I. atala, 1.1.1, esate baterako), elkarteek mota orotako arazoak mahaigaineratu zituzten: zentroen baldintza fisikoei, zentroen barruan zentroetatik kanpo ematen den arreta medikoari, beren lana burutzeko batzuetan izaten dituzten zailtasunei, atzerritar jatorriko pertsonen egoerari, hainbat zerbitzuren arteko koordinazioaren beharrari eta abarri buruzkoak.

Pertsona atxilotuen osasunerako eskubidearekin loturiko arazoak ardatz nagusi dituzte kezka eta proposamenetako askok. Arabako kasuan Hiesaren kontrako Hiritar Batzordeak, Zigor Pastoralak, Salhaketak, Adsis-Bestaldek, ADAPek, Senideek eta Gizaki Proiektuak osatutako Osasun eta Kartzela Plataformako kideek Eusko Legebiltzarrari parte har zezan jakinarazi zizkioten proposamenak aurkeztu zituzten. Hona hemen beraien bost proposamenen testua.

1. “Legebiltzarrak Hiesa Prebenitzeko Plana aplikatzen ari den erari jarraitzea eta, zehazki, EAEko kartzeletan erabili eta botatzeko xiringak banatzea.
2. Arartekoak ospitaleratutako pertsona atxilotuentzako *“Zaintza bereziko ospitale-unitate”*en baldintzei buruz iaduela bi urte egindako txostena berriro hartzea. Izan ere, ez dira betetzen kartzelako pertsonek legez dituzten eskubideen gutxieneko errespetu-baldintzak. Legebiltzarretik Osakidetzari badaezpada unitateok berehala ixteko eskatu behar zaio, pai-agintari eskudunek zigor-antolamenduaren arabera bete beharreko baldintzak betetzen dituzten ebaluatzen duten arte. Izan ere, preso gaixoek ez dute gainerako gaixoekiko bazterkeriazko traturik jasan behar.
3. Osakidetzari presondegi bakoitzean osasunerako hezkuntzako plana presaz ezartzeko eskatzea, bai biztanle atxilotuentzat bai kartzeletako funtzionarioentzat, eta, zehazkiago, buruko osasunaren arloko prebentziorako plana, itxialdiak sorrarazten dituen arazo psikologikoak saihesteko.

4. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak presondegiak baldintza materialak aztertzeko eta pertsona atxilotuekin elkarrizketan aritzeko bisitatzea edo begiz ikustea, zertarako-eta instalazioei, oinarrizko produktuen zuzkidurari, oinarrizko ekipamenduei, erizaintzakoei eta abarri buruz dauden urritasunak eta gabetasunak bertan egiaztatzeko eta Estatuko Administrazioari detektaturiko urritasunak konpon ditzan eskatzeko.
5. HIESA garatu zaien pertsonei begira, beraiek kartzelatik berehala ateratzea erraztea eta haiek presondegitik kanpo hartzeko zerbitzuak eskaintzea, haiek kartzelan fase terminalean edo kalean abandonaturik ez uzteko”.

Aztertu zen beste agiri bat “lehenengo mailan sailkatutako euskal pertsonek EAEn erregimen itxia benetan betetzeko proposamena” izan zen. Gai hori zenbaitetan azaldu da eta orain proposamen idatzi eta oinarritua zegoen, Bizkaiko Salhaketak idatzia. Bileren bitartez, agiriari begira jarrerak ezagutu ahal izan ziren, eta kontraesan posibleak aztertu eta Erkidegoko presondegien sarearen gabetasunak eta zerbitzu berrien beharra berriro azpimarratzea. Izan ere, zerbitzu berriak behar dituzte, lehen mailako presoek ezezik, emakumeek, gazteek, buru-gaixoek, adin txikiko umeak dituzten amek eta abarrek ere.

Aztertutako gaiak eta hiru bilerak kontuan harturik, Ararteko erakundeak zenbait ekimen burutu zituen: sindikatuen kartzeletako atal sindikalei erregimen itxiari buruzko proposamena bidali zien, eta lantzean behingo arazo batzuk (hala nola, Langraitz Okako presondegoan taxiekin sortutako arazoa...) konpontzeko gestioak burutu zituen.

Beste alde batetik, Legebiltzarrean 2001eko txostena eman ondoren, Arartekoak kartzelen egoerari buruzko kapituluaren testua bidali zien aldizkako harremanak zituen elkarte eta zerbitzu zihoakienei orori: bai bileretaratu ziren 14 elkarteei bai beste 33 talderi eta zerbitzuri.

- **Ertzaintzaren zaintzapean presoak garraiatzea**

Iazko txostenean adierazi zen bezala, pertsona atxilotuak gure Erkidegoaren barruan irizpide ezberdinei jarraiki garraiatzen dira presondegi bakoitzean.

Arartekoak esku hartu behar izan zuen Langraitzeko presoak Bizkaiko epaitegietara agertzeko garraiatzeak ekarritako arazoan. Izan ere, haiek, kasu horretan erabilitako lekualdaketa-irizpideekin, zenbait egun pasatu behar dituzte Basauriko presondegian. Egoera hori eta zekartzan arazoak elkarteek eta presondegietako zuzendaritzek behin eta berriz azaldu zituzten, eta beraien gainean aurretik jardunda zegoen Arartekoaren erakunde. Arazo horiek honakook dira: lana galtzea, nora jo ez dakiten senideak, sendabide medikoekin jarraitzeko zailtasunak...

Harrigarria bada ere, arazoak sorrarazi dituen irizpidea balizko jakin batzuetan bakarrik aplikatzen da. Horrela, aipatutako pertsona emakumea edo lehen mailako presoa bada, epaitegira zuzenean bidaltzen da eta egun berean itzultzen da. Irizpide bera erabiltzen da Basauriko presoak Gipuzkoako epaitegietara edo Martutenen atxilotuta dauden pertsonak Bizkaiko epaitegietara eramateko.

Ararteko erakundea Herrizaingo Sailari berriz joan zitzaion eta Langraitzeko presoen Bizkaiko epaitegietako zitazioetan haiek zuzenean eramatea proposatu zion, eta Langraitzera egun berean itzultzea, Basaurin egon beharrik izan gabe. Sailak proposamena bideratu ezin zela uste izan zuen. Izan ere, proposamena kontuan hartzeko beharrezkoa izango zen haiek eramateaz arduratzen zen unitatearen giza bitartekoak eta bitarteko materialak nabarmen gehiagotzea, eta hori ezin zen egin plantilari eta zerbitzu-beharrizanei begira gertatzen ziren inguruabarretan. Egun, urtebete geroago, arazoak konpondu gabe dirau.

- **Presondegietan irakasten duten irakasleen lan-egoera**

Kartzelen egoerari buruzko aparte txostenean, erakunde honek zehazki gomendatu zuen zentrootako irakasleen lanbide egoera hobetzea. Besteak beste, LOGSEko 10. gehigarria garatu beharra azaldu zuen. 2001ean, Martuteneko bi funtzionariok aurkeztutako kexa zela bide, berriz ekin zitzaion gaiari.

Uztailaren 9ko 1203/1999 Errege Dekreryuko arauak aztertu ziren eta euskal hezkuntza administrazioari funtzionariook benetan intsuldatzeari buruzko informazioa eskatu zen. Izan ere, hari dagokio beraren kudeaketako eremuko zigor-establezimenduetan hezkuntza-zerbitzua egitea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erantzun zuenez, Estatuko Administrazioko maisu-kidegoan sarturiko Zigor Erakundeetako Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-kidegoko irakasleak benetan transferitzeke zeuden. Hark egoera hori, arazo teknikoei barik, Estatuko Administrazioak interesik ez agertzeari egotzi zion.

Horregatik, eta funtzionarioon egoera administratibo eta funtzionala normalizatzeko haiek EAEko Hezkuntza Admiistrazioari benetan intsuldatu behar zitzaizkiola, erakunde honek kexa Ararteko erakundeari bidaltzea erabaki zuen, Estatuko Administrazioaren organoen aurrean ekimen egokiak bultza zitzan. Orain arte ez da horri buruzko informaziorik jaso.

- **Beste Erkidego batzuetako presondegietako euskal presoak**

Egoitza-lekutik urrun dauden presondegietan askatasunez gabetuta egotea pertsona atxilotuari eta beraren senideei datozkien arazoek erakunde hau kezkatzen dute.

Ez dago zigorra egoitzatik hurbileneko espetxean betetzeko pertsona zigortuen eskubide subjektiborik. Baina hobe da autonomia erkidego bakoitzean zigorrak edozein zigor-araubidetan betearazteko zentro egokiak izatea. Bestela, preso batzuk beraien famili egoitzatik urrun dauden presondegietara eraman behar dira. Hori egun Euskal Herrian gertatzen da. Bertan ez dago zigorra erregimen itxian betetzeko modulurik, ez ama-unitateetarik, ez buru-gaixoentzako zigor-sailik...

Beste alde batetik, Arartekoaren iritziz, euskal erakundeek kartzelan egon diren pertsonak berriro gizarteratzeko herri botere guztientzako amankomuneko lanean beren erantzukizunak berenganatu behar dituzte. Eta bistan bi da helburu hori iristeko

hobe dela zigorra Euskal Herritik kanpo betetzen duen pertsona taldearen neurriak ezagutzea.

Antzeko kezka zela eta, Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak Andaluziako Herriaren Defendatzaileari Andaluziatik kanpoko presondegietan atxilotuta zeuden Andaluziako presoei buruzko datuak eman zizkion. Hori zela eta, erakunde horri autonomia erkidego honetatik datozen biztanle presoei buruzko argibideak eskatu genizkion. Zuzendaritza Nagusiak Ararteko erakundearengana jo beharko genela jakinarazi zigun eta hori egin genuen. 2002ko uztailean erantzuna jaso genuen, baina, beraren edukia aztertuta, konturatu ginen hura nahastu zela edo gauzaren bat alde batera utzi zuela: emandako kopuruak beste informazio-iturri batzuetatiko hurbilketak baino txikiagoak ziren. Galdera berriz egin genuen eta, txosten hau behin betiko idatzita utzi baino lehentxeago, Ararteko erakundeak informazioa eman digu. Informazio hori aztertzeke dago eta egoitza Euskal Herrian izaten duten eta preso dauden pertsonen gaineko datu globala eman dezakegu. Haiek 2002ko abenduaren 20an 1.393 ziren. Beraietarik 652 gure Erkidegotik kanpoko presondegietan zeuden.

- **Kartzelaren hautazko zigorrak eta betetzeak**

Zigor-arloko eskumenak egun banatuta dauden era kontuan hartu gabe, Ararteko erakundeak beti beharrezkotzat, presazkotzat eta posibletzat jo du gure Autonomia Erkidegoan zigorrak erregimen irekian edo presondegiak ez diren zentroetan betetzeko modalitateak garatzea eta kartzelaren hautazko zigorrak aplikatzea. Horrekin bat etorririk, gomendio orokor bana egin da: *Euskal administrazioek erkidegoaren onerako lanak zigor moduan betetzeko hitzarmenak izenpetu eta bultzatu beharra* (1999ko txostena) eta *Asteburuko atzipenaldiak eta kartzela zigorra betetzearen hautazko moduak: EAEko administrazioen erantzukizunak* (2000ko txostena). Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailek bide horretan aurrera egiteko gogoa dutela adierazi diguten arren, gure ustez, komenigarria da hemen gomendio biotako edukia berriro aipatzea.

- **Drogazaleekin esku hartzeko programak**

2002ko urriaren 31n jaso zuen erakunde honek presondegietan drogazaleekin esku hartzeko programen 2001eko memoriaren ale bat, Zigor Osasuneko zuzendariorde nagusiak bidalia. Memorian bilduta daude, aurreko urteetakoetan bezala, gai honetan egindako jarduera nagusiak eta esku hartzeko programa bakoitzaren gaineko oinarrizko datuak.

Hurrengo taulan ageri dira, memoriatik bereizita, gure Erkidegoko zentroei burzko datuak, ikuspegi globala lortzea eta, esate baterako, aurreko urteko datuekin erkatzea ahalbidetzen dutenak (haiek iazko txostenean daude, 42 orr.).

| DROGA-MENPEKOTASUNETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK<br>GURE ERKIDEGOKO HIRU ZENTROEI DAGOZKIEN DATUAK,<br>Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiaren 2001eko Memoriatik hartuak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **BASAURI** | **MARTUTENE** | **NANCLARES** | **GUZTIRA** |
| **INFORMAZIOA / PREBENTZIOA** | | | | |
| Informazioa/Motibazioa/Harrera | 294 | 304 | 284 | 882 |
| Osasunerako Hezkuntza | 563 | 253 | 284 | 1.100 |
| **XIRINGAK TRUKATZEA** | | | | |
| Banatutako xiringa kopurua | 1.823 | 463 | 632 | 2.918 |
| **METADONA** | | | | |
| Urteko sendabidea guztira | 258 | 115 | 433 | 806 |
| Abenduaren 31n sendabidean barneratuta zeudenak | 27 | 42 | 154 | 223 |
| Kopurua | | | | |
| Biztanle guztien gaineko ehunekoa | % 10,93 | % 17,28 | % 28,10 | % 21,48 |
| **DESTOXIKAPENA** | | | | |
| Arauz egindako destoxikapenak | 261 | 21 | 91 | 373 |
| **OHITURA KENTZEA** | | | | |
| Anbulatorioan-urtean guztira | | | | |
| Antagonistekin | 16 | – | 55 | 71 |
| Antagonistarik gabe | 206 | 114 | 216 | 536 |
| Abenduaren 31n ohitura kentzeko bidean barneratuta zeudenak | | | | |
| Kopurua | 43 | 36 | 84 | 163 |
| Biztanle guztien gaineko ehunekoa | % 17,41 | % 14,81 | % 15,33 | % 15,70 |
| **ERKIDEGOKO BALIABIDEAK HARTZEA** | | | | |
| Metadona-programak | 101 | 29 | 47 | 177 |
| Ohitura kentzeko programak | 70 | 5 | 132 | 207 |
| Zentro anbulatorioak/egunekoak | 57 | – | 72 | 129 |
| Gizarteratze-pisuak | 5 | – | 25 | 30 |
| Erkidego terapeutikoak | 8 | 5 | 24 | 37 |
| Beste baliabide batzuk | – | – | 11 | 11 |
| **ERAKUNDE ERANTZUNKIDEAK** | EDEX | AGIPAD | LUR GIZEN | |
| | EJ-REN DROGA-MENPEKOTASUN IDAZKARITZA<br>OSAKIDETZA | | | |

- **Presoak kartzelatik kanporatzen direneko diru-laguntzak**

Iazko txostenean (ikus 37-38 orr.) gogora ekarri zen, berriz, kartzelan egon ostean askatasuna lortzen duten pertsonek diru-laguntzak jasotzeko zegoen arazoa. Kartzelatik kanporatzeagatiko langabezi sorospena (bera bidezkoa den kasuetan) pertsona kartzelatik irten arte tramitatzen hasten ez denez gero, hark epealdi batean ez du

diruzko laguntzarik. Problematika hori azpimarratuta, Arartekoarengana joan zen Goiztiri elkartea. Bere esperientziaren arabera egiaztatu zuen ezen kartzelatik irtendakoan pertsonarik gehienek ez zutela bizitzeko baliabiderik langabezi sorospena atzitu ahal izan arte, gutxi gorabehera hilabete bi pasatu arte alegia. Tarte horretan, aurrekoaren ondorioz, arrisku handi-handia dago pertsonak delitu bat edo gehiago egiteko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila sortu eta eskumenak berriro banatu ondoren, Arartekoak sail horrengana zuzentzea egokietsi zuen. Izan ere, eskatutako laguntzak kudeatzea hari ez egokitzea gerta zitekeen arren, uste genuen ezen haren eskumen-eremukoa dela detektatutako beharrizanak aztertzea eta, hala denean, beraiek estaltzeko baliabideak bultzatzea eta agintzea.

Iaz jakinarazi zen bere lehenengo erantzunean, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak arazoarekiko interesa eta kezka jakinarazi zigun. Era berean, adierazi zigun ezen iradokitako neurriak praktikan jartzeko ahalmena Justizi, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari, alde batetik, eta, bestetik, toki administrazioei zegokiela. Alabaina, erkidegoko gizarte zerbitzuen eta presondegietakoen arteko koordinazioa bultzatzeko konpromisoa hartu zuen, zertarako-eta antzemandako beharrizanak behar bezala estali ahal izateko.

Arartekoak arazoa kartzelatik irtendako pertsonei laguntzeko zegoen hutsunea betetzeko neurri posibleak hartzeaz arduratzen ziren erakundeei bidaltzea erabaki zuen.

Zorionez, azken urtean, arazoa konpontzeko urratsak egin dira. Horrela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak gure informazio-eskaerari erantzunda adierazi digun bezala, *"2002ko abenduaren 20tik aurrera dabil kartzelatik irtenikako pertsonei langabezi sorospena aurreratzea kudeatzen duen Zerbitzua"*.

Oraindik goiz da akordioaren benetako eragina jakiteko. Hala ere, gure ustez, haiek kartzelatik irteten diren uneari begira adierazitako arazoetako asko konpondu ahal eta behar dira. Hura aplikatzearen gaineko jarraipena egin beharko da, bada.

- **Presondegietako biztanleen gaineko datuak**

Hemen bilduta daude Justizi Administrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2001eko txostenetik hartutako datuak, gure Erkidegoko presondegietako biztanleen banaketari buruzko ikusmolde globala ematen dutelako. Datuak 2001eko abenduaren 28koak dira eta zentroka honelaxe banatuta daude:

**Taula: Prebentzio eta zigorpeko biztanleak presondegiz presondegi 2001/12/28an**

| | Preventziopeko biztanleak | | | Zigorpeko biztanleak | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emak. | Guztira | Gizonak | Emak. | Guztira | Gizonak | Emak. | Guztira |
| Bilbo-Basauri | 61 | 0 | 61 | 186 | 0 | 186 | 247 | 0 | 247 |
| Langraitz Oka | 32 | 11 | 43 | 459 | 46 | 505 | 491 | 57 | 548 |
| Martutene-Donostia | 52 | 8 | 60 | 176 | 7 | 183 | 228 | 15 | 243 |
| Guztira | 145 | 19 | 164 | 821 | 53 | 874 | 966 | 72 | 1.038 |

(Datu-iturria: Barne Ministerioa)

Data horretan Estatuko presondegietan 47.548 pertsona zeuden preso: 43.624 gizonezko eta 3.924 emakumezko. Horrela bada, hiru zentroetan preso guztien %2,2 zegoen (%1,8, emakumezkoen kasuan). Prebentzio-araubideko pertsona presoen ehunekoa %16koa zen; eta, emakumeen kasuan, %26koa zen.

- **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren jarduerak eta proposamenak**

Txosten hau behin betiko idatzita geratzeko unean, erakunde honek idazkia jasio du, 203ko otsailaren 10ean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarengandik. Hark bertan aipatu ditu, indarrean dauden hitzarmenak garatzeari buruzkoak diren eta funtsean beste sail batzuengandik jaso eta hemen islatutako balorazioekin bat datozen balorazioez gain, berak bultzaturiko bost jarduera, honelaxe laburtuta daudenak:

1. *"Droga-menpekotasun Zuzendaritzak Batzorde Tekniko Juridiko-Penitentziarioa sustatu eta eratu du, Droga-menpekotasunetako Kontseilu Aholkulariaren menpekoa. Bertan parte hartzen dute epai-eremua, eremu fiskala, abokatutza-arloa, unibertsitate-eremua eta zigor-eremuan lan egiten duten beste erakunde batzuk ordezkatzen dituzten 15 kidek. Era berean, zuzendaritza honek EAEko 3 presondegietan xiringak trukatzeko garatu izan den programa koordinatzea eta finantzatzea beretu du. Halaber, droga-presondegietako menpekotasunen eremuan lan egiten duten hainbat elkarteren jarduera finantzatu da.*
2. *Zigor eta Gizarte Justiziako foro bat antolatzea sustatu da eta finantzatzen ari da. Bertan parte hartzen dute 40 erakundek baino gehiagok. Haren Batzorde Antolatzaileak hura 2003ko martxoaren 27an eta 28an egitea ezarri du eta hura urtero egingo da. Eztabaidatzeko eta hausnar egiteko gai nagusiak presondegietako buru-osasuna eta hobekuntzarako alternatiba posibleak izango dira.*
3. *2003ko lehenengo seihilekoan hitzarmena sinatu gura da, EHUrekin nonbait, zigor-sistemaren eremuan eta zigor-neurripeko pertsonak birsozializatzeko eremuan gizarte zerbitzuei buruzko azterketa-, dokumentazio- eta informazio-zentroa sortzeko. Berau nazioarteko hainbat behatokirekin koordinatuta egongo litzateke.*

*4. 2002ko abenduaren 20tik aurrera dabil kartzelatik irtenikako pertsonei langabezi sorospena aurreratzea kudeatzen duen Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak hiru Aurrezki Kutxekin eta Euskadiko Kutxarekin sinatu duen Hitzarmen bati jarraiki.*

*5. Pertsona preso ohien zerbitzura EAEn dauden gizarte baliabideen mapa egin da, udalerririk biztanletsuenak barnean sarturik."*

## 1.1.2. ARABAKO SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOEN JARRAIPENA. TXOSTEN BEREZIA

2002an zehar, iazko txosten arruntean iragarri zen bezala, *Arabako sasoikako langileen egoera*ri buruzko txosten berezia egin, aurkeztu eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen. Txosten honetan, mahatsa eta patata biltzeko kanpainetako sasoikako laneko baldintzak aztertu dira bereziki.

Txosten berezia urriaren 11n kaleratu zen eta eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko buruari, eta azaroaren 27an eztabaidatu zen Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean.

Txostena dagoeneko argitaratu dela eta, egin behar duguna honakoa da soilik: hura testuingururatzea, beraren ezaugarri batzuk aipatzea, zenbait ohar egitea, garrantzitsutzat jotzen ditugun elementu kezkagarriak nabarmentzea, bertan egiten diren gomendioak aurkeztea edo gogoratzea eta, azkenik, haren edukien inguruan sortu diren eta etorkizuneko perspektiba berriak ireki dituzten legebiltzarreko ekimenak biltzea.

### A. Txostenaren testuingururapena eta ezaugarriak

*Arabako sasoikako langileen egoera*ri buruzko txostenak berezi egiten duten ezaugarriak ditu:

- Normalean, lan monografikoetan, arartekoaren instituzioak Erkidego osoa ukitzen duten gaiak aztertu ohi ditu. Alabaina, kasu honetan aztertutako egoerak Arabako nekazaritzako zona jakin batzuk ditu ardatz nagusi. Zona horiek sasoikako langilerik gehienak joaten diren lekuak dira.
- Ia beti izaten da beste talderen baten laguntza, datuak biltzekoa eta txostenaren oinarrri diren ikerketetarakoa. Kasu honetan, ez da hori gertatu eta lan guztia instituzioko langileek egin dute.
- Hori, neurri handi batean, gai honi buruz azken zazpi urteetan egindako jarraipenari esker izan da posible. Egin-eginean, bereziki azken kanpaina biei buruzko datuak txostenean bilduta dauden arren, kontuan hartu da aurreko urteetan jasotako informazioa ere.
- Horrela bada, ez da aurretik azaldutako gaien gaineko berritasun handirik ekarri nahi izan: urriki ezaguna den errealitateari buruzko ikusmolde globala bultzatu nahi da, pertsonon egoera ausartasunez hobetzen laguntzekoa.

Izan ere, 1995az geroztik, arartekoaren instituzioak eskubideak bermatzeko perspektibatik bereziki problematikotzakoak diren lau gai funtsean ardatz nagusi izan dituen arazo honen jarraipena egin du:

- Kontratazio-sistemak.
- Ostatu-baldintzak.
- Sasoikako familien adinez txikien eskolatze-baldintzak.
- Inguruneari begira gizarteratzeko edo gizartean baztertzeko baldintzak.

Gai horiei urtero jarraitzeko, hainbat informazio iturri eta bide erabili izan dira:

- Kokaleku eta ostatuetarako bisitak.
- Ikastetxeetarako bisitak.

- Sasoikako langile landun eta langabeekiko elkarrizketak.
- Nekazariekiko elkarrizketak.
- Arretarako programetan zuzenean inplikaturiko pertsonekiko eta taldeekiko bilerak: oinarrizko gizarte-laguntzaileekikoak, ikastetxeetako irakastaldeekikoak, hezkuntza eta gizarte programak aurrera eramaten dituzten taldeekikoak, Ertzaintzaren arduradunekikoak eta abarrekikoak.
- Toki eta lurralde erakundeenganako datu-eskaerak.
- Urteroko memorien azterketak.
- Arabako Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan ukiturik dauden hainbat sailen arduradunekiko bilerak…

Aipatu jarraipenaren kontuak aldizka eman zaizkio Legebiltzarrari 1996az geroztik txosten arrunt guztietan. Urtero alderdi batzuk edo beste batzuk azpimarratu dira eta zenbait gomendio egin dira. Horrela, esate baterako:

- 1996ko txostenean egoeraren lehenengo laburpen-diagnostikoa eskaini zen, problematikoenak ei ziren lau gaiei zehazki heldu zitzaien eta erakunde-jarduerarako zenbait proposamen azaldu ziren. (1996ko txostena, 58-66 orr.)
- 1997ko txostenean, egindako jarraipenaren emaitzak (aipatutako lau arloetan ikusitako aurrerapenak eta gabetasunak) islatu ziren eta koordinatutako lanaren garrantziari, egoeraren hauskortasunari, arretako sareek gainezka egiteari eta udaleko agintaroen inplikazio maila ezberdinei buruzko ondorioak ekarri ziren. Era berean, pertsonoi ostatu emateko baldintzei buruzko lehen gomendio orokorra egin zen. (1997ko txostena, 42-49 eta 482-487 orr.)
- 1998ko eta 1999ko txostenetan, urte horietan zehar egindako jarraipenaren berri jakinarazi zen eta zenbait datu eta elementu esanguratsu nabarmendu ziren (1998ko txostena, 41-44 orr.; 1999ko txostena, 40-45 orr.). 2000koan, ostatuen gaia berriro aztertu zen eta beste gomendio orokor bat egin zen, "*Saoikakoen ostatuen baldintzak araupetze*"ari buruzkoa (2000ko txostena, 33-37 eta 415-427 orr.).
- Azkenik, 2001eko txosten arruntean berriz ikusi ziren azken kanpainako ostatu eta eskolatze baldintzak, eta, bukaeran, honako izenburua jarri zitzaion atal bat jarri zen: "*Sasoikako egoerari buruzko hurrengo txosten monografikorako aukera*". Atal horretan iragarri zenez, "*Urteotako jarraipenaren eta bildutako informazioaren jarraipenaren ondorioz, arartekoaren instituzioak Arabako sasoikako langileen problematikari buruzko txosten monografikoa egiteko aukera buruan darabil, txosten horrek informazio barreiatuak biltzeko eta haien egoerari buruzko ikusmolde globala ematen eta hura hobetzen laguntzeko.*

Hori izan da, bada, txosten monografikoaren oinarrizko helburua: informazio barreiatuak biltzea eta sasoikako langileen egoerari buruzkoa den eta berau hobetzen laguntzen duen ikusmolde globala ematea. Horretarako:

1. Aurreko zazpi urteetan zehar pilatutako informazioa erabili da. Informazio hori iturri gehigarrien eta txostena egiteari begira berariaz egindako datu-eskaeren bitartez osatu da. Osagarri horiek honakook izan dira
   - Errioxa Arabarreko, Arabako Mendialdeko eta Arabako Lautadako eskualdeetako 31 udali egindako datu-eskaerak.

- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate eta Nekazaritza Sailei, Eusko Jaurlaritzaren Lurraldekako Hezkuntza Ordezkaritzari, Gobernuaren Arabako Azpieskuordetzaren Lan eta Gizarte Gaietako Zuzendaritzari, UAGA nekazaritza-sindikatuari eta Biasteriko Ertzaintzaren Komisaldegiari egindako datu-eskaerak.
- Sasoikakoen problematikarekin loturiko zerbitzu, sail edo programak zuzenean ezagutzen dituztelako eta beraietan parte hartzen dutelako aukeratutako pertsonekin izandako bilerak.

2. Informazioa baliagarritasun-irizpidearekin bat etorririk aukeratu da: errealitatea hobeto ezagutzeko eta haren gainean hobeto esku hartu ahal izateko. Eta, neurri handi batean, aurretik azpimarratu izan diren lau interesguneekin bat etorririk antolatu da. Lau interesgune horiek honakook ditugu: 1) kontratazioak, 2) ostatuak, 3) eskolatzea, 4) gizarterapena. Egin-eginean ere, txostenaren oinarrizko egitura (2.etik 5.erainoko kapituluak) eta gomendioak taldekatzea aipatu eskemari dagozkio neurri handi batean.
   Txostenaren oinarrizko eskema hori osatu zutenak honakook izan ziren: aurretiko kapitulu bat, ondorengo beste bat, gomendioak, informazio-iturri nagusien zerrenda eta erantsitako zenbait agiri.

Erabilitako informazio-iturriei eta txostenari erantsitako datuei dagokienean adierazi behar denez:

- Eskuratu ahal ziren informazio-iturri guztiak erabili ziren, baina, logikoa zenez, datu guztiei ez zitzaien baliozkotasun eta fidagarritasun bera eman. Hori dela eta, taula eta grafiko guztietan iturria adierazi da eta, gai beraren gaineko zenbait datu-iturri izan direnean, ezberdintasun horiek islatu eta kontraste-elementu bezala erabili nahi izan dira.
- Datu koantitatiboei beste batzuei baino balio handiagorik eman gura ez zitzaien arren, txostenaren eduki eta helburuetarako esanguratsutzat hartutako datuak ahalik eta argienik (taula eta grafiko askoren bitartez) eskaintzeko ahaleginak egin ziren. Gainera, kontuan hartu zen ezen datu asko ezezagunak edota agiri askotan barreiatuak zirela. Eta, aztertutako errealitatearen osotasunari buruzko datu osorik izaterik ez zegoenean, eskura zeuden datuetan oinarritutako zenbatespenak egin ziren.

Nolanahi ere den, testuari datu zehatz batzuk bakarrik eransteko jarraitutako irizpidea beti honakook izan zen: baliagarritasuna eta txostenaren beraren ezaugarriei egokitzea.

## B. Errealitatera globalki hurbiltzea

Araban aste batzuetan soroetan lan egiteko gertu pertsonak eta familia osoak ugariki egotea ez da batere berria. Gizarte errealitate hori aspaldidanik dago gure artean, goraka joan da zenbait aldetan eta lan, gizarte edo ekonomi inplikazioak handiak dira. Hala ere, oraindik ez dakigu asko errealitate horri buruz, eta, egindako urratsak gorabehera, beharrizanetarako erantzuna oraindik eskasa da. Horrek hainbat zio ditu: arloaren antolakuntza falta eta zailtasuna bera, kasu askotan zonan denbora laburrean

egotea, ukitutako eskualdeen nekazarittza-egitura, inplikaturik administrazio anitz (udalerriak, Foru Aldundia, Edusko Jaurlaritza, Administrazio Zentrala) egotea, eskuharmenak koordinatzeko zailtasuna.

Pertsonotarik gehienak Errioxa Arabarreko, Arabako Mendialdeko eta Arabako Lautadako eskualdeetako herrietara irailean edo urrian agertzen dira, bilketa-lanek irauten duten eta lana izaten duten bitartean egoten dira eta gero beste alde batzuetara joaten dira edo beren jatorri-lekuetara itzultzen dira. Horrexegatik deitzen zaie “sasoikako langileak”. Izan ere, horrela deituta, talde osoa hartu gura da barnean.

Alabaina, adierazi behar da ezen sasoikako langileen taldea, beste edozein talde bezala, oso ezaugarri ezberdinak dituzten pertsona eta taldeek osatuta dagoela: beren jatorriaren araber; bakarrik etortzen diren kontu, antolaturiko taldeetan edo famili taldeetan, jatorriz kontratatu diren kontu, nekazari batzuentzat aurreko urteetan lan egin duten ala zorte ona izateko gogoz datozen kontu; beren administrazio-egoera erregularizatuta duten ala ez atzerritar jatorriko pertsonen kasuan; bilketa-lanetara bakarrik joaten diren ala zonan beste nekazaritza-lan batzuetan ere parte hartzen duten… Ezaugarri horien eta beste batzuen arabera, oso alda daitezke haien bizi-baldintzak, lanerako aukerak eta, orokorrean, beharrizanak. Horiek dira, hain zuzen ere, txostenerako gehien interesatzen diren gaiak.

Txostenaren lehenengo kapituluan erakutsi eta koantifikatzeko moduan jarri gura da errealitate askotariko hau. Horretarako, Arabako nekazaritza-sasoikakotasunaren problematika bai bere dimentsio geografikoan (sasoikako gehien hartzen duten aldeak) bai koantitatiboan (pertsona kopurua) kokatu gura da. Sasoikako langileen ezaugarri bereziki esanguratsuak aztertu ere egin gura dira, haien beharrizan diferentzialak ezagutzekoak, hala nola, adina, generoa edo jatorria. Errioxa Arabarreko sasoikakoei buruzko atal zehatz bat eskaini da lehenengo kapituluan, sasoikako gehienak agertzen diren aldeari buruzko atala alegia.

Bildutako datuek honakoa erakusten dute:

- Ezen pertsonotariko asko herri zehatz batzuetan biltzen direla.
- Ezen ezaugarri bereziak dituzten bi zona daudela: mahatsa biltzen den zona (Errioxa Arabarra) eta patataren zona (Arabako Mendialdeko eta Arabako Lautadako eskualdeetako udalerriak, bereziki). Ezaugarri horiek honakook ukiturik dituzte: aldi baterako lan kopurua, nekazaritza-ustiategien egitura, haien inbertsio-aukerak edo haien kontratazio- eta ostatu-beharrizanak.
- Ezen milaka pertsona daudela, ehunka familia eta adinez txiki, milaka kontratazio denbora laburrean. Egoera hori urtero izaten da, aldakuntza txikiak daudelarik.
- Sasoikako emakumeen problematika zehatza, adinez txikiena, atzerritar biztanleena eta abarrena.

Horrela, laburubilduz, beharrizanen perspektibatik, esan daiteke ezen Arabara etortzen diren sasoikako langileen artean honako taldeok bereizi ahal direla gutxienez.

- Ijito herriko familiak edo portugaldarrak. Horietarik asko agertzen dira mahatsa biltzen den zona zehatz batzuetan eta beraien proportzio handiagoa dago patataren zonan. Talde horren barruan honakook daude:
  - Eskolatzeko adina duten adinez txikien taldea.
  - Bere familiarekin etortzen den emakume taldea.

- Aurretiko kontraturik gabe lan bila etortzen diren pertsonak eta taldeak, familiak ez direnak. Talde horren barruan honakoa dago bereizita:
  - Atzerritar etorkinen taldea.
- Enpresak edo nekazaritza-elkarteren baten bitartez jatorrian kontratatuariko pertsonak eta taldeak.

Ezberdintasun horietarik batzuk argitasun handiz agertzen dira gai bakoitza aztertzen denean. Egin-eginean, arazo zehatzak egotea ekartzen dute, edo gomendio batzuk egitea.

### C. Elementu kezkagarri nagusiak

Detektatutako funtsezko arazoak eta beraiek konpontzeko egon daitezkeen bideak laburbildu nahirik, bost arazo bakarrik aipatuko ditugu hemen:

1. Txostenaren 2. kapituluan aztertutako kontratazio-baldintzei dagokienez, funtsezko arazoak azpikontratazioak egiteak berekin ekartzen dituen hedadura eta arrisku larriak. Beti egon dira bitartekoak, baina azken kanpainetan benetako mafiak edo talde antolatuak egon direla esan daiteke. Talde horiek lana zona jakin batzuetan kontrolatzeko eta beren baldintzak bai sasoikako langileei bai nekazariei eurei ezartzeko gai dira.
   Egia esan, azpikontratazioaren ondoriozko abusuengatik jasotzen diren salaketen kopurua urria da, baina horrek egun salatzera oso jende gutxi ausartzen dela bakarrik erakusten du. Ondorio txarrek eta esplotatzeko arriskuek atzerritar biztanleak ukitzen dituzte bereziki: magrebtar gizonak eta Portugaldik etortzen diren pertsonak eta familiak. Batzuetan, sasoikakoek beren lanarengatik nekazariak bitartekoari eman dion kopuruaren erdia baino gutxiago jasotzen dute eta bitartekoak egunsariaren zatirik handiena hartzen du. Kontuan hartu behar da ezen Errioxa arabarrean mahatsa biltzeko kontratazioetan egun gutxitan bost milioi euro edo gehiago mugitzen direla.
   Premiazkoa eta beharrezkoa bide da horren aurka borrokatzea. Neurri batzuk dagoeneko hasi dira. Adibide gisa balio izan bezate jatorrian kontratatzeko edo eskualdeetako informazio-bulegoetan lan-burtsak sortzeko esperientziek. Alabaina, ez dira aski. Gehiago egin behar da. Haiek beste jarduera batzuek indartu behar dituzte zuzeneko ordainketa orokortzea lortu arte. Jarduera indargarri horiek honakook izan daitezke: informatzekoak, lan-baldintzak araupetzekoak, ikuskatzekoak, salatzekoak eta abartzekoak.

2. Pertsonon ostatu baldintzei begira, aipatu den bezala, aurreko urteetan (1997ko eta 2000ko urteko txostenetan) instituzio honek baldintzok araupetu eta hobetu beharraren gaineko gomendio orokorrak egin zituen. Txostenean bilduta dago aterpetxeetan, kanpatzeko aldeetan edo ostatu motetan in situ urteroko bisiten bitartez azken urteetan ikusitako bilakaera. Ostatu motak honakook dira: furgonetak, bordak, biltegiak, etxebizitzak...
   Asko dira laneskua behar dutela eta osatu egokirik ez dutela onartu duten nekazariak. Gutxi dira, oraindik, ments hori konpontzea bilatzen duten erkidego-ekimenak. Eta ezin onar daitezkeen egoerak daude oraindik, gutxieneko higiene- edo segurtasun-baldintzak gabeko egoerak alegia. Datuak, kasuotan, beti izaten dira

hotzak, eta berauek bisitetan ikusitako errealitatea islatzen ez dutelako sentsazioa izaten du norberak.
Egia da kontuan hartu behar diren inguruabar objektiboak daudela: ustiategi txikiak edo inbertsio-aukera urrikoak daude, pertsonok batzuetan aste bitan egoten dira, kultur elementu batzuek batzuetan erantzun egokia emateko aukerak zailtzen dituzte… Zalantza barik, kontuan hartu beharreko datuak dira. Baina arartekoaren instituzioak beti esan du ezen administrazio eskudunek egoera hori aztertzeko dituzten tresnak erabili behar dituztela: planifikatzeko eta araupetzeko balio duten tresnak, lokalak gaitzen laguntzeko bideak, ikuskapen-mekanismoak…

3. Patata edo mahatsa biltzera etortzen diren sasoikako familien seme-alaben eskolatzeari begira, urrats handiak egin izan dira: hezkuntza eta gizarte programak, zentroei laguntzeko irakasleak, garraiorako eta jantokirako laguntzak…
Alabaina, benetan iritsitako eskolatze mailak txikia izaten dirau: ez da zonako adinez txikien %40koa ere. Are txikiagoa da bera, %20koa, haiem eskoletaratze maila kontuan hartuz gero.
Lehen helburua haiek guztiak eskolaratzea da, eta, hori bezain garrantzitsua dena: adinez txikioi beraien beharrizanekin bat datorren hezkuntza-erantzuna ematea. Txostenean proposatuta daude hori lortzeko zenbait neurri.

4. Pertsonok inguruneratzeko eta bazter ez ditzaten dituzten aukerak haiek bizi diren edo lan egiten duten baldintzekin lotuta daude. Zenbat eta baldintza hobeagoak, orduan eta gizarteratzeko aukera handiagoak.
Ildo horretatik, beharrezkoa da, antza, biztanleen gizarte setsibilizazioarekin jarraitzea, gizarte-eragileen inplikazioa sustatzea eta bazterketa posibleak aurretik saihestea.

5. Aztertutako bost gai nagusietako 5.a osatzen duten erakunde-inplikazioei dagokienez, txostenean aztertuta dago Tenporerismo Mahaiaren erabilera. Bertan bilduta daude Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak bultzaturiko beste jarduera batzuk. Txosten honetan islatuta daude, halaber, ukituriko udalen inplikazio maila ezberdinak. Sasoikako langileen arazoek oso maila ezberdineko administrazioak eta zerbitzuak ukitzen dituzte: tokikoak, lurraldeetakoak, erkideak, estatukoak… Hori dela eta, hobetzeko jarduerak zailak dira edo izan daitezke eta koordinazioa edota informazioak eta programak elkarri trukatzea errazten duen fororen bat egotea beharrezkoa da. Hain zuzen ere, gai horiei buruzkoak dira lehenengo gomendioak.

## D. Arartekoaren eskudun erakundeenganako gomendioak

Txostenean 17 gomendio daude, administrazio ezberdinentzakoak, hemen laburtuta bilduta daudenak; eta ostatu-baldintzak hobetzeko hobetzekoak bakarrik daude era zabalagoan bilduta.

- *Erakundeen eta zerbitzuen inplikazioari buruzko* gomendioak

1. Sasoikakotasun Mahaiaren eginkizuna indartzea æedo beste antzeko tresna batæ, erakundearteko koordinaziorako mekanismo bezala.

Beti beharrezkotzat jo da informazioak elkarri trukatzea eta, hala denean, sasoikako biztanleenganako erantzunean inplikaturiko erakunde eta sailen arteko koordinazioa ahalbidetu eta errazten duen fororen bat egotea. Horregatik, azken urteetako esperientziarekin bat etorririk, honakoa proposatu da:

- Azken urteetan Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak sustaturiko Sasoikakotasun Mahaiak jarraitutako dinamika baloratzea. Horretarako, haren koordinazio-tresna gisako lorpenak eta hutsune posibleak aztertu behar dira eta hura osatzeko eta ibiltzeko beharrezko aldarazpenak edo hobekuntzak sartu.
- Mahaira æedo beste antzeko fororaæ bertan orain arte izan ez diren beste sail batzuen ordezkariak sartzea erraztea, hala nola, Herrizaingo Sailarenak (Ertzaintzarenak) eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarenak.

2. Doakien administrazio guztiek erakunde gisa parte hartzea lortzea.

   Ildo honetatik, euskal administrazioei dagokienez, deigarria da udal batzuetako agintaritzen plikazio maila eskasa; eta Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren nekazaritza sailek ekimenik ez izatea, beren eskumenak gorabehera.

3. Ukitutako zonetan zerbitzu zehatz batzuen erantzuteko gaitasuna eta ahalmena aldi baterako gehitzea.

   Hezkuntza-zerbitzuez, osasun-zerbitzuez, oinarrizko gizarte zerbitzuez, polizi zerbitzuez eta abarrez ari gara.

- *Kontratazio-baldintzak kontrolatzeko eta hobetzeko* egindako gomendioak. Bost dira:

4. Jatorriko kontratazioak bultzatzea.

   Izan ere, horrelako kontratazioek abantailak dituzte: joan-etorriak antolatzeko eta laguntzak lortzeko aukera, kontratazio ezberdinak uztarteko eta kontratazio-denbora osoa handitzeko aukera, ostatu-baldintzak kontrolatzeko aukera, azpikontratazioari loturiko arriskuak saihesteko aukera...

5. Azpikontratazioak salatzea eta beraien kontra aritzea.

   Horretarako, hainbat neurri hartu behar dira, hala nola:
   - Nekazari kontratugileak jabearaztea.
   - Zuzeneko ordainketa sustatzea, bitartekaririk gabekoa.
   - Salatzekoa salatzeko protokoloak ematea.
   - Salaketak salatzaileen euren kontrako ez bihurtzeko bermeak ematea (haiek ukitutako pertsonak nahiz nekazariak eurak izan).
   - Ikertzekoa ikertzeko sistemak eta kontrolatzeko mekanismoak bizkortzea...

6. Kontratazio-tramiteak erraztea eta Lan Ikuskatzailetzaren esku-harmena handitzea.

   Izan ere, egoera irregularrak zabaltzeak ibilitako bidean atzera nabarmen egitea ekarriko luke, matrikula-liburuak ezabatu eta kontratazio-araubide orokorra aldi baterako kontratazioei aplikatuta.

7. Aldi baterako laneko burtsak sortzea edo kudeatzea sustatzea.

   Gai horretan espezializaturiko sailek hartu behar dute parte, hala nola, INEMek eta Langaik

8. Arabarako nekazaritza-hitzarmen bat negoziatzea.

   Egia esan, hitzarmena egoteak berez ez lituzke arazoak konponduko, baina egungoa baino askoz harreman-marko argiagoa ezar lezake, beste leku batzuetan edo antzeko sektoreentzat dagoen bezala; eta txostenean aztertutako alderdi asko araupe.

- *Ostatu-baldintzak hobetzeari buruzko* lau gomendio daude txostenean:

9. Sasoikako langileentzako bizilekuen baldintzak araupetzea.
10. Lokalak gaitzeko edo egokitzeko erakunde-laguntzarako bideak hartu edo erabiltzea.
11. Erkidego ekipamendu edo aterpetxeen ekimenak sustatu eta beraietarako laguntza ematea.
12. Lokalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko funtzioak argitu eta garatzea.

Lehenengo gomendio biak azalduko ditugu zabal hemen. Izan ere, ostatuen gaiari arreta berezia eman dio instituzio honek, eta gomendio biok berriro baieztatu eta, ahal bada, zehatzagotzen dituzte Legebiltzarrean aurkeztutako gomendio orokor biak (1997 eta 2000koak).

Azpimarratu denez, sasoikako langileentzako bizilekuen baldintzak araupetu behar dira.

2000ko 6 zenbakiko gomendio orokorrean, ikusitako egoerak deskribatu, hainbat ekimen baloratu eta gure eskumen-markoa aztertu ondoren, sasoikako langileentzako bizilekuen baldintzak araupetu ziren tresna juridikoen bitartez. Horrela, honakoa proposatu zen:

1. Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bat egitea, Nekazaritza Sailak proposatuta. Bertan ezarri behar denez, mahastia zaintzeko eta ardoa egiteko eta patatako ustiategiek, sortu berriek eta daudenak zabaltzeko proiektuek gutxienez, aldi baterako langileei ostatua emateko instalazioak izan behar dituzte, ustiategi bakoitzaren ekoizteko gaitasunaren eta beharrizanen arabera zehazten den proportzioan.
Dekretu horretan jorratu behar dira instalaziook gutxienez bete behar dituzten baldintzak eta beharkizunak ere:
- Argi naturala eta aireztapen egokia.
- Sukontrako koltxoia ohe edo litera eta armairua.
- Dutxa, konketa eta komuneko kazola, hamar pertsonako bat.
- Sukaldea eta harraska alikatatua, eta kozinatzeko gutxieneko ekipamendua.
- Jateko aldea.

2. Lurraldea antolatzeko agiri estrategikoetan, erabilera hori ezarri beharra biltzea. Izan ere, hori ezinbestekoa da eta patatako eta mahastia zaintzeko eta ardoa egiteko ustiategiei lotuta dago. Zehazki, ari ginen planak honakook ziren: Ekonomi Jardueretarako Sektorekako Lurralde Plana (Nekazaritzako Lurzoruen Sektorekako Lurralde Plana), Errioxa Arabarreko Lurralde Plan Partziala eta Arabako Erdialdeko Lurralde Plan Partziala.

3. Ukituriko udalerri guztietako arau subsidiarioak berriro ikustean, nekazaritzako ustiategiei loturiko aldi baterako talde-etxebizitza gisako erabilera kontuan hartzea.
Halaber, instalaziook gutxienez bete behar dituzten beharkizunak eta parametroak udal plangintzako arau subsidiarioei eranstea proposatu zen, zertarako-eta, haiek betez gero, udalak hirigintza-diziplinako tresnak erabiliz esku hartu ahal izateko.
Araupeketa horrek, bada, administrazio eta sail ezberdinak ukitzen ditu, neurri batean edo beste batean.
Beste alde batetik, bloke honetako 2. gomendioa, lokalak ostatu bezala gaitu edo egokitzeko erakunde-laguntzarako bideak hartu edo erabiltzekoa, aurrekoarekin hertsiki loturik dago. Egin-eginean, 2000ko gomendio orokorrean proposatu zen Arabako Foru Aldundiak aldi baterako langileentzat instalazioak egokitzeko laguntzen deialdia dekretu bidez ezartzea. Horretarako, proposatutako autonomi arautegiak adierazitako gutxieneko beharkizunak bete behar ziren. Gomendio hartan proposatu zenez, dekretu horretan adierazi behar da ezen, arlo honetako inbertsiorako zerga-onurak, laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeko, Eusko Jaurlaritzaren sasoikakoentzako instalazioei buruzko dekretuan ezarritakoak bete beharko direla.
Eztabaidatzeko modukoa da proposatutako erakundeen diruzko laguntza beharrezkoa den ala kasu guztietan horrelakoa den. Egin-eginean ere, ostatuaren benetako baliagarritasuna eta inbertsio-aukerak oso aldatzen dira ustiategiaren zonaren (patata-mahatsa biltzea) edo tamainuaren arabera. Alabaina, oso zaila da baldintza onetako ostaturik ezaren arazo deskribatuak benetan eta denbora laburrean konpontzea, baldin eta hori ekimen librearen eskuetan bakarrik uzten bada. Horrela, erakunde-laguntza prozesuak ahalbidetu eta bizkortzen dituen elementu motibatzaile gisa azaldu da, eta bereziki garrantzitsua da ustiategiak famili ustiategi txikiak badira, inbertsio-gaitasuna txikia bada eta instalazioek baliagarritasun potentzial urririk badute.
Proposamenean, ikus daitekeen bezala, elkarren artean loturiko jarduera batzuk eta hainbat sail eta administrazioren inplikazioa eskatu da.

- Sasoikako familien baitako *adinez txikien eskolatzea eta arreta hobetzeari buruz* (ga horretan izan dira aurrerapenik handiena eta hartu dira ekimenik gehienak azken jarraipen-urteetan zehar), gomendioek, proposamen berriak azaldu barik, hasitako jardunlerro batzuk azpimarratu dituzte eta haiek hobetzea eta haien ondorerik handienak bilatu gura dituzte.

  Horrela, azken urteetako esperientziarekin bat etorririk eta hezkuntza-eragileengandik eurengandik jasotako ekarpenetako asko kontuan harturik, honakoa proposatu da:

  13. Adinez txikion eskolatze maila igotzea, bitarteko guztiak baliatuz.

  Horretarako, honakoa hobetsi da:

- Eskolako garraiorako eta jantokirako laguntzei jarraitzea, eta hezkuntza eta gizarte programen laguntzarekin.
- Talde batzuen laguntza ezberdina aztertzea, adinaren, generoaren, kokagunearen edo jatorriaren arabera; eta haiei benetan eskolatzen laguntzea, neurri zehatzen bitartez (0-3 urteko etapa, 12 urtetik gorakoak, neskak, adinez txiki portugesak).
- Alde guztiak eskolatzearen behar eta derrigorrezkotasunaz jabearaztea.
- Zonan dauden ikastetxe guztiek zuzenean parte hartzea lortzea.
- Ahal denean, jatorriko eskolatzean eragina izatea eta agintari eskudunei dagoen informazioa ekartzea.

14. Adinez txikion beharrizan zehatzetarako ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzea. Horretarako egin behar dena honakoa da:

- Jatorrizko ikastetxeekin harremanak eta informazioa eta dokumentazioa trukatzea bultzatzea.
- Irakasleak zehazki prestatzea, haiek ikastetxeetara sasoikakoak agertu baino lehenago sartzea eta esperientziak eta materialak trukatzea erraztea.
- Ikastetxeko proiektuak, programak, jarduerak eta eskola-taldekapenak adinez txikion oinarrizko beharrizanetara egokitzea.
- Eskolako esku-harmenak eskolaz kanpoko hezkuntza eta gizarte programetan garatzen direnekin koordinatzea.
- Eskola-dinamikaratzen (guneetaratzen, jardueretaratzen eta taldeetaratzen) laguntzea, hori ahal bada.
- Beste profil bateko profesionalak (portugesez dakitenak edo jatorrizko kulturetakoak) izatea komeni den eta bideratu ahal den azaltzea.

15. Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailak diruz lagundu eta hainbat elkartek kudeatutako hezkuntza eta gizarte programekin jarraitzea eta horrelako programak zabaltzea. Ildo horretatik, honakoa proposatu da:

- Haiek sasoikako familiak dauden herri eta alde guztietara zabaltzea
- Elkarteen eta hezitzaileen erantzukizunak argitzea, beste erakunde eta profesional batzuenei begira (gizarte zerbitzuak, ikastetxeak...).
- Haiek beste sail batzuekin koordinatzea eta baterako helburuak bete daitezen erraztea.

- *Azkenik, gizarte sentsibilizazioari eta erkidegorapenari dagokionez*, gomendio bi egin dira, bata harrerako biztanleentzakoa eta bestea sasoikakoentzakoa:

16. Gizartea jabearazteko programak eta jarduerak garatzea, aurreko urteetako jardueren bat etorririk. Udaleko agintariekparte handiagoa hartu behar dute; izan ere, administrazio hurbilenaren arduradunak dira eta biztanleekin eta berorien arazoekin zuzeneko harremanak eta erlazioa dituzte.

17. Sasoikako biztanleei beren eskubideen eta betebeharren eta eskura dituzten zerbitzuen berri jakinaraztea.

## E. Legebiltzarreko ekimenak eta etorkizuneko perspektibak

Gomendioen gainean aurretik egin den laburpenean egiaztatu ahal izan den bezala, haietariko batzuen bitartez, abian jarritako ekimenak edo esperientziak (hala nola, jatorriko kontratazioak, erkidego-aterpetxeak edo hezkuntza eta gizarte programak) bultzatu, bizkortu edo indartu gura dira; beste batzuen bitartez, ibili ez ditugun bideak ibiltzen hastea proposatu da.

Txostenera bildutako arazo eta hutsetariko asko seguraski ezin dira berehala konpondu. Baina haien eragina txikitzeko urrats sendoak egin behar dira eta arriskurik handieneko egoerak zuzentzeko eta gainditzeko premia dago. Hemen laburbildutako txostena horretarako lagungarria izatea gura dugu eta, horretarako, arartekoak administrazioen aurrean ofizioz jardungo du eta instituzio honek datozen urteetan jarraipena egingo du.

Ildo horretatik, Batzordean txostena eztabaidatu baino egun batzuk geroago, 2002ko abenduaren 12an, parlamentuko taldeek Eusko Legebiltzarreko Talde Popularraren aldi baterako langileei buruzko proposamen ez legezkoaren zuzenketa transakzionala onetsi zuten, honelaxe:

> *"1.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari inplikatutako elkarteekin, erakundeekin eta Erakunde eskudunekin lankidetzan sasoikako langileei Arreta emateko Osoko Plana SEI HILABETEko epean aurkezteko eskatu gura dio, zertarako-eta hura Parlamentu-ganberan eztabaidatzeko eta alderdi politikoek egokiesten dituzten ebazpen-proposamenak aurkezteko. Horretarako, lan-oinarritzat hartu behar dira 'Arabako sasoikako langileen egoera'ri buruzko arartekoaren gomendioak eta txostena eta Arabako Foru Aldundiaren Sasoikakotasun Mahaiaren esperientzia.*
>
> *Era berean, hark Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako 'Sasoikako lanaren gaineko erakundearteko mahaia' eratzeko eskatu gura dio, zertarako-eta aipatutako Plana Euskadi osoari egokitzeko.*
>
> *2.- Aurrekoarekin batera, orain arte egindako ahaleginak aintzatetsita, arartekoak 'Arabako sasoikako langileen egoera'ri buruzko bere txostenean egindako gomendioak aplikatzeko beharrezko neurriak eta jarduerak abian jarri behar dira".*

Gero, 2003ko urtarrilaren 20an, Arabako Batzar Nagusiek sasoikako langileei buruzko honako mozio hau onetsi dute osoko bilkuran:

1. *"Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailari Eusko Legebiltzarrean sasoikako langileei Arreta emateko onetsitako Osoko Planari jarraiki Dekretua egiteko eskatu gura dio, sasoikakoei ostatua emateko intalazioen eskaera eta instalaziook gutxienez bete behar dituzten baldintzak eta beharkizunak araupetzen dituena*
2. *Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari Osoko Planaren eta aipatu araupeketaren arabera sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzetarako deialdiari buruzko Foru Dekretua egiteko eskatu gura diote.*

3. *Aurrekoarekin batera, orain arte egindako ahaleginak aintzatetsita, arartekoak 'Arabako sasoikako langileen egoera'ri buruzko bere txostenean egindako gomendioak aplikatzeko beharrezko neurriak eta jarduerak abian jarri behar dira.*
   a) *Arabako Batzar Nagusiek Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari nekazariak sasoikakoen taldearen laneko baldintzez jabearazteko kanpainak sustatzeko eskatu gura diote.*
   b) *Arabako Batzar Nagusiek Lan Ikuskatzailetzari ikuskatzekoa ikuskatzekoa eta kontrolatzekoa kontrolatzeko bere jarduerak gehitzeko eskatu gura diote, zertarako-eta Araban mafiak suntsitzeko.*
   c) *Arabako Batzar Nagusiek Foru Aldundiaren Gizarte Ongizate Sailari eta Arabako Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzari sasoikako familien baitako adinez txikien eskolatzean sakontzen jarraitzeko eskatu gura diete."*

Proposamenok onesteak etorkizunerako aukera berriak ekarriko ditu, hurrengo txostenetan bildu ahalko direnak.

## 1.1.3. ADINEKOEN EGOITZAK KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA

2002an zaharren egoitza-zentro publikoak eta itunpeko plazak dituztenak bisitatzen jarraitu dugu, zertarako-eta instituzio honek zentrooi buruz 1994an egin zuen txosteneko gomendioen jarraipena egiteko eta haiek gero onetsitako arautegiari zein mailatan egokitu zaizkion jakiteko, hau da, haiek zaharrentzako egoitzazko gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuari zein mailatan egokitu zaizkion jakiteko.

Egoitzotara bisitak gero eta menpekotasun fisiko edo psikikoaren maila altuko pertsona gehiagok egin dituzte. Hori dela eta, zentro askok egoera horri egokitzeko ahaleginak egin behar dituzte. Izan ere, horrek hainbat gauza ukiturik ditu: haien instalazioak eta zuzeneko arretako langileak, pertsona egoiliarrekin garatu beharreko jarduera eta, orokorrean, pertsonoi eman behar zaien arreta mota eta modua. Egokitze horrek berekin dakartza, besteak beste, ekonomi inbertsioak, obrak egitekoak edo plantila gehitzekoak.

Prozesu horretan daude zenbait zentro, bereziki dituela zenbait urte ireki ziren eta menpekotasun maila txikia duten pertsonak dituztenak. Alabaina, pertsona horiek, denboraren poderioz, gero eta menpekoagotu dira. Horregatik, plaza lagunduak eta arreta espezializatuagoa behar dira. Alderdi horretan eragin ona izango du gai biotan eskudun diren organoen arteko gizarte eta osasun arloko akordioa sinatzeak. Egin-eginean, 2002an zehar horretarako oinarriak finkatu dira. Instituzio honek erakunde-lankidetza horren alde egin zuen egoitzoi buruzko txosten berezian. Akordio horri buruz ari gara txosten honen II. atalaren Gizarte Ongizateari buruzko alorrean.

Adierazi behar da ezen zeharrentzako arreta egokia gizartearen betebehar bat dela. Izan ere, hura beren bizitzan zehar zuten onena ekarri zuten eta urteak pasatuta besteen laguntza behar dutenekiko esker ona agertzea da. Fase horretan, familiak eta laguntzek pertsona zaharren bizitzan garrantzi handia izaten jarraitzen dute eta kohesio horrek iraun behar du egoitza-zentroan sartu eta geratu direnean ere, edo kohesio hori handiagotu behar da, ahal bada.

Garrantzitsua da harremanok ahalik eta hertsikien mantentzen laguntzen duten neurriak ezartzea. Egin-eginean, gero eta ohikoagoa da zentroek etxekoen batzordeak izatea, egoiliarrek beren erabakitzeko gaitasuna oso txikitu dutenean bereziki; bisiten ordutegiak ohiko lan-ordutegitik harago luzatzea, ordutegi hori familiakoentzat eta lagunentzat oztopo izan ez dadin; berauei egoitzaren ospakizunetan eta beste jarduera batzuetan parte hartzen laguntzea…

Egoitzetan gertatu izan den beste alderdi bat beren tutoretza berenganatzen duten famili harremanik edo bestelako harremanik ez duten pertsonen lege-gaikuntzarik ezeko egoerena da. Egoera horrek ukiturik ditu beste talde batzuk (buruko gaixoak, minusbaliatu psikikoak…) ere. Egoera horretarako erantzuna ezberdina da lurralde historiko bakoitzean. Horrek ofiziozko jarduera bati ekitera eraman gaitu, zeinen berri jakinaraziko baitugu txostenaren kapitulu honen beste atal batean.

Egindako bisitetan ikusi denez, zentro batzuetan alderdi batzuk hobetzea komeni da. Esate baterako, telefono bidezko elkarrizketetako pribatutasun-alderdia hobetu behar da. Horretarako, baldintza egokiak behar dira. Ikusi dugunez, horrek kanpoarekiko komunikazioa ezartzen duena pertsona egoiliarra denean bereziki ukitzen du, hark

zentroko herri telefonoa erabili behar du eta. Ez du hainbesteko eraginik deia jasotzen duenean. Izan ere, sarritan alanbrerik gabeko telefonoa pasatu ahal izaten zaie eta babestutako zonatik hitz egin ahal izaten dute. Era berean, elementu batzuen altuera (hala nola, igogailuko deirako botoi eta telefonoena) zentroetan gero eta ugariago diren gurpildun aulkiko pertsonei egokitu beharra ikusi da-

Pribatutasuna eta intimitatea pertsonaren duintasunarekin loturik egoten dira sarritan. Ildo horretatik, garrantzitsu deritzogu zentroek talde-egoitzako lekuak direlako alderdiok zaintzea indartzeari. Izan ere, zentzu horretako sentsibilitatea eskatzen duten egoera asko gertatzen dira egunean zehar: bainua, janztea, oheratzea, inkontinentzi egoerak eta abar.

Zenbait zentrotan indartu behar den beste alderdi bat astialdia behar bezala ematea da. Ezin dugu ahantzi pertsona asko kalera irteteko moduan ez daudela. Beste batzuk laguntza edo laguntasuna behar dute kalera irteteko, eta horrek aukera hori mugatu edo baldintzatzen du. Hori dela eta, pertsona askok denbora asko edo egun osoa eman behar dute egoitzan. Horregatik, garrantzitsua da zentroak jardueren programa bat izatea eta jarduera horiek pertsonen egoerarekin eta gaitasunarekin ba etortzea. Dena den, zentro guztiek telebista-gela dute eta bisitak jasotzen dituzte eta, are, zentro batzuetan bolondres taldeak daude.

2002an sei egoitza bisitatu ditugu, lurralde historikoetako bina. Haietarik bost publikoak dira; eta bestea fundazio pribatuarena da, baina bertako plazarik gehienak herri erakunde batekin itundurik daude. Egoitza horiek honakook dira:

**ARABA**
**San Prudencio egoitza** (Gasteiz)

Eraikin zaharrean dago, zenbait aldiz zaharberritutako eraikin zaharrean. Haren egoera ona da. Bisitaren unean aurreikusita zona batzuetako obra berriak zeuden, haiek unitate lagunduei egokitzekoak. Izan ere, gero eta gehiago dira horrelako arreta behar duten pertsonak. Egoitza hau Gasteizko Udalaren menpekoa da eta 175 plaza ditu. Badu barruan pertsona zaharrentzako eguneko zentro bat ere.

Hiriaren erdian dago. Hori dela eta, pertsona erabiltzaileak kalera irten ahal dira eta kanpokoekin gizarte harremanak izan ahal dituzte. Sarbidea erraza da eta ez du oztopo arkitektonikorik. Badu leku zabala sarrera nagusiaren aurrean, eta lorategi atsegina eraikinaren erdiko patioan.

Instalazioak zuzenak eta zentroaren funtziorako egokiak dira. Astialdia emateko jarduera-programa bat dago eta egoiliarrek edo/eta beraien familiakoek zentroaren bizitzan parte hartzeko bideak dituzte, batzordeak baliatzen dituztelarik. Bisiten ordutegia librea da eta hori ona da haientzat. Jarduteko zenbait protokolo daude eta, une honetan, barruko araubideko araudi berria eta eginera onerako eskuliburua egiten ari dira.

Gelak atseginak eta ia guztiak banakakoak dira. Horrek pertsonen intimitatea handiagotzen du. Alabaina, komenigarria da, alde batetik, amankomuneko zona batzuei zerbitzua egiten dieten komun eta dutxagela batzuetan euspen-barra gehiago jartzea, beroriek erabiltzaileei segurtasuna emaqten baitiete. Beste alde batetik, komenigarria da pertsona baliatuen ataletan amankomuneko dutxa gehiago instalatzea, haien logeletan dutxagelarik ez baitago, zertarako-eta dekretu araupetzailean ezarritako ratioa betetzeko.

Telefono publikoei dagokienez, bere funtzioa behar bezala betetzen duen bat dago. pertsona guztiek erabil dezakete, baita gurpildun aulkian daudenek ere; eta elkarrizketaren pribatutasuna bermatzen du. Baina solairuetako gailuek ez dute horrelako ezaugarririk. Horregatik, haiek beheragotu eta elkarrizketaren halako pribatutasun bat ahalbidetzen duen babesen batez zuzkitu behar dira. Horretarako guztirako kontuan hartu behar da zentroaren erabiltzaileen kopuru handia, eta haiei logelan linea pribatua instalatzeko ematen zaien aukera. Horrek dakarren ekonomi kostua bereganatu beharra dago.

Egoitza honek Langraitz Okako presondegiarekin lankidetzan burutzen duen programa bat aipatu behar da. Bion arteko akordioari jarraiki, presondegian barruratutako zenbait pertsona egoitzara joaten dira, bolondresek lagunduta, zaharrekin jarduerak konpartitzera. Programa hori udan eta Gabonetan burutzen da 15 eguneko epealdietan. Gure ustez, esperientzia hori onuragarria da alde bientzat, eta presondegi barruan daudenei gizarteratzeko eta beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematen die.

## Oiongo egoitza

Egoitza hori Arabako Foru Aldundiaren menpekoa da eta 1987an inauguratutako eraikin batean dago. Hura ondo dago. Loreztatutako zonak inguratuta dago, eta zentrora sartzea erraza da mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat. Egoitzaren tamainuak (33 plazatarakoak) pertsonarteko harremanak eta elkar ezagutzea errazten ditu. Hori ona da zentroaren bizitzarako.

Gelak atseginak eta zabalak dira eta terraza handi eta ederra dute. Baina badaude hobetzeko elementuak. Beste gauza batzuen artean, bainuetan euspen-barra gehiago instalatu behar dira, eta larrialdietan deitzeko txirrinak. Igogailuan, sakatzeko botoien garaiera gurpildun aulkian dauden pertsonei egokitu behar zaie. Banakako logela kopuruari dagokionez, bikoitzen kopuruari begira, ez da betetzen dekretu araupetzailean ezarritako ehunekoa. Hala ere, neurri horrek bilatzen duen intimitatea oheen artean dagoen gortinak partzialki beteta dago, logela bikoitzetan.

Zentroko telefonoek (solairuko telefono bat dago) ez dute elkarrizketaren pribatutasuna bermatzen. Hori konpondu beharko litzateke. Era berean, uste dugu ezen astialdia emateko jarduera-programa eta jarduera fisikoren bat finkatu behar dela, pertsonen mugikortasuna errazteko.

Bestelako gauzei dagokienez, zentroak eginera onerako eskuliburu bat eta zenbait jarduera-protokolo ditu. Alabaina, azken horiek gehitu behar dira, egoera zehatzei buruzko egungo ahozko arauak ordezteko. Era berean, komenigarria da erreklamazio liburu bat edo orriak izatea, idatzizko kexak errazago aurkezteko.

Ibilera-arauei dagokienez, informazio liburuska bat dago, zentroaren oinarrizko arauak dituena, argi eta baliagarria, egoiliarrentzat. Era berean, Barruko Araubideko Araudi bat dago, dekretu araupetzailearekin bat datorrena. Azken hori buruz esan dugu pertsona erabiltzaileen eskubideei buruzko atala gehiago garatzeko, pertsona horiek beren eskubideak hobeto uler ditzaten. Izan ere, Araudiak ez ditu eskubideak berariaz aipaturik: haietariko asko testuan zehar txertaturik daude, eta haiek biltzen dituen arautegia aipatuta. Horregatik, gure ustez, eskubideen berariazko zerrenda argiak, eta parte hartzeko dauden bideenak, haiek ulertzea erraztuko die langile erabiltzaileei edo/ eta familiakoei.

**BIZKAIA**
**Zallako Eguzki egoitza** (Zalla)

Udal titulartasuneko egoitza da eta 1987an inauguratutako eraikin batean dago. Hura oso ondo dago. Herriaren erdian dago. Pertsona minusbaliatuak errazki sartu ahal dira bertara. Beraren egitura-itxuraketa nabarmentzen da, argitasun handia ematen diona. Itxuraketa hori, galeriak eta erdiko lorategia direla eta, egoitzaren baldintza fisikoak oso atseginak dira. Hark 72 plaza ditu.

Alabaina, alderdi batzuk dekretu araupetzaileari egokitzeko aldaraztea proposatu dugu. Alderdi batzuk aldarazteko diru asko behar dela jakinik, haiek aipatu ditugu etorkizuneko ezarpen gisa kontuan har daitezen. Kontua da, bereziki, logela guztiak bikoitzak direla eta berauei erantsitako komunak ez daudela pertsona minusbaliatuei egokiturik. Izan ere, berauek bainuontziak daudela eta, ezin dira dutxara sartu. Gainera, haiek ez dute deitzeko txirrinik ez euspen-barrarik. Euspen-barrak errazki jarri ahal dira. Era berean, barrak guztientzako komunetan jarri behar dira, eta txirrina geriatri bainugelan, badaezpada.

Zentro honetako solairu bakoitzean telefono bat dago, baina ezeinek ez du elkarrizketaren pribatutasuna bermatzen. Gainera, telefonoak jarrita dauden altuera dela eta, zail dute haiek hartzea gurpildun aulkietako pertsonek. Bi alderdi horiek zuzendu beharko lirateke.

Astialdia emateari dagokionez, komenigarria da zentroak jolas jarduera eta jarduera terapeutikoetarako programa izatea. Izan ere, pertsona askok, beren egoeragatik, egun osoa ematen dute zentroan. Era berean, zentroak hobe izango luke bere barruko araubideko araudia eguneratzea, berau dekretu araupetzailean xedatutakoari egokitzea, jarduteko arauak eginera onerako eskuliburuan bilduta egotea eta egoera zehatzak protokolizaturik egotea.

Zentroak erreklamazio liburua edo orriak izan behar ditu, zeren eta, horrela, egoiliarrek idatzizko kexa nahi dutenean errazki aurkeztea baitute; eta iradokizun-ontzia, pertsona erabiltzaileekzentroari dagozkien alderdiei buruzko beren iritziak eta ekarpenak eskualdatu ahal izan ditzaten.

**Elorrioko egoitza**

Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko zentroa da. 1991n inauguratu zen eta 64 plazako edukiera du. Herriaren erdian dago. Horrek jende egoiliarraren eta udalerrikoaren arteko harremanak errazten ditu. Eraikina ondo dago eta beraren ingurunea atsegina da, bertan lorategirik ez bago ere.

Gure iritziz, alderdi batzuk hobetu behar dira. Horrela, komun guztietan, bai geletakoetan bai amankomuneko zonetakoetan, larrialdietan deitzeko txirrinak jarri behar dira. Era berean, igogailuan sakatzeko dauden botoien garaiera txikitu egin behar da, gurpildun aulkietako pertsonek erabili ahal izan ditzaten.

Intimitatea errespetatzeko, logeletako armairuak giltzaz ixteko aukerak egon behar luke eta telefono gehiago (solairu bakoitzean bat) jartzea hobe da, elkarrizketak pribatuak izan ahal izan daitezen. Egun dagoenak ez du horrelako aukerarik.

Egoiliarrek astialdia emateari dagokionez, jarduera-programa oso txikia dela ikusi dugu, egoiliarren kopurua kontuan harturik. Horregatik, programazioa indartu beharko litzateke langile egokiek zuzendutako jolas-jarduera eta jarduera terapeutikoen bitartez.

Hori izugarri ondo etorriko zaie kanpora irteteko moduan daudenei. Era berean, telebistadun egongela bakarra dagoela ikusi dugu, non egoiliar ia guztiak biltzen diren. Horri dagokionez, beste gela batzuk erabiltzea sustatu behar da, aipaturiko gelan horrenbeste pertsona ez biltzeko eta bertan inguruneko zarata saihesteko.

Beste alde batetik, zentroak ibilera-arauak ditu, baina agiria ezin da barruko araubideko araudi bat bezala ulertu, dekretu araupetzailean ezarritakoarekin bat etorririk, hutsune handiak baititu, hala nola, pertsona erabiltzaileen eskubideen zerrenda eta zentroaren bizitzan demokratikoki parte hartzeko bideak. Horregatik, araudia berriro idaztea iradoki dugu, arauan xedatutakoaren arabera. Era berean, zentroari buruzko informazio-liburuska eguneratu behar da. Izan ere, hura argia izan arren, zaharkitutako datuak zuzendu behar dira.

Azkenik, pertsona erabiltzaileek zentroaren bizitzaren gainean beren iritziak adierazi eta ekarpenak egin ahal izan ditzaten, iradokizun-ontzia pertsona guztiek errazki sartzea duten ageriko lekuan instalatu behar da.

**GIPUZKOA**
**Mizpirualde egoitza** (Bergara)

Udal titulartasuneko zentroa da, herriaren erdian dagoena. Horrek bisitatzaileak egoitzara sartzea eta pertsona erabiltzaileak herrira irtetea errazten du, eta, hortaz, gizarte harremanak izatea.

Eraikina zaharra da, baina berau egokitzeko hainbat obra egin dira eta ondo dago. 113 plaza ditu. Hainbat gauza ditu: lorategia, hainbat egongela eta galeria zabalak. Solairuetako korridoreek kolore ezberdinak dituzte, leku-orientazioa errazteko. Jarduteko protokoloak eta dekretu araupetzaileari egokitutako barruko araubideko araudia daude. Araudi horretan, aipatu arauan aintzatetsitako eskubideak ezezik, ageri da hizkuntza aukeratzekoa ere. Alderdi hori oso garrantzitsua da, zentroratzen diren pertsonarik gehienen hizkuntz eta gizarte jatorria kontuan harturik.

Alabaina, gure ustez, zenbait gauza aldarazi behar dira, instituzio honen gomendio orokorrei eta ararautegiari egokitzeko:

Eraikinerako sarbideak, sarrera nagusiak, eskailerak ditu eta hori oztopo arkitektoniko handia da pertsona minusbaliatuentzat. Beroriek erdisototik sartu behar dute. Irtenbide hori baliozkoa da behin-behinean, baina ez da behin-betikotzat hartu behar. Horregatik, hobe da arazo hori behar bezala konpontzea, pertsona guzti-guztiek eraikinera sarrera nagusitik sartzea izan dezaten.

Komenigarria da segurtasun-elementuak indartzea ere: euspen-barra gehiago eta ez irristatzeko zorua jarri behar dira logeletako bainugeletan; eta deitzeko txirrinak, amankomuneko komunetan. Era berean, igogailuan sakatzeko dauden botoien garaiera txikitu egin behar da, gurpildun aulkietako pertsonek erabili ahal izan ditzaten.

Telefonoari dagokionez, zentro osoan bakarra dago eta ez du elkarrizketaren pribatutasuna ahalbidetzen. Solairu bakoitzean telefono batek egon behar du eta pribatutasun hori bermatu behar da.

Azkenik, astialdia emateko jardueren programazioa indartu behar da, egungoari egoiliar kopurua kontuan harturik nahikoa ez deritzogu eta. Era berean, egun oso gutxitan erabiltzen den fisioterapi gelan antolatzen den jarduera bat ezarri behar da.

**Fraisoro gerontologi zentroa** (Zizurkil)

Zentro gerontologikoa izateko birgaitu den eraikin zaharrean dago. Matia Fundazioaren menpean dago eta 2000n inauguratu zen. Titulartasun pribatuko zentroa da, bada, baina bertako plazarik gehienak (dauden 88etarik 70) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduta daude. Horrexegatik bisitatu dugu zentro bat. Oraindik gutxi joaten den eguneko zentroa atxikia zaio, halaber.

Hirigunetik kanpo dago. Landa-ingurunean dago, lorategiak inguraturik, bista politekin eta altzari egokiekin. Oraintsuko lana dela eta, egoitzak araupeturik dituen dekretua kontuan hartu da, baita ailegaerraztasuna sustatzeko legea eta hura garatzeko araudia ere. Ildo horretatik, eraikinaren egoera ona da, ez du oztopo arkitektonikorik eta instalazioak zuzenak eta zentroaren funtziorako egokiak dira: bainugelak behar bezala egokiturik daude, gelak zabalak dira eta gurpildun aulkiak erabil daitezke, geletako armairuek giltza dute norberaren tresnen eta gauzen pribatutasuna bermatzeko, larrialdietarako txirrinak daude... Era berean, jardueretarako zenbait gela daude zentroan, eta bisitak jasotzeko eta egoteko galeria batzuk.

Alabaina, honako alderdiok aldarazi behar dira:

- Telefono publikoa: zentroan bakarra dago eta ez du elkarrizketaren pribatutasuna bermatzen. Horregatik, solairu bakoitzeko gailu bat instalatzea iradoki dugu, zertarako-eta elkarrizketa pribatuan aritu ahal izateko.
- Igogailua: igogailuan sakatzeko dauden botoien garaiera txikitu egin behar da, gurpildun aulkietako pertsonek erabili ahal izan ditzaten.
- Bakarrarentzako logelen kopurua ez da nahikoa, dekretu araupetzailean ezarritakoari jarraiki; baina jakinarazi ziguten arazo hori konpontzeko asmoa zutela.

Aurrekoaz gain, adierazi behar da ezen zentroak barruko araubideko araudi bat, zenbait jarduera-protokolo eta eginera onerako eskuliburu osoa dituela. Badu egoiliarrentzat antolatutako jardueren programa ere. Halaber, zuzeneko arretarako jendearen gogobetetasun maila aldizka neurtzen du, erabiltzaileei egindako zerbitzuan duen eraginagatik.

Gizarte eremuan, zenbait programa nabarmendu behar dira, hala nola, familiei ematen zaien garrantzia, familiak egoiliarren bizitza pertsonal eta afektiboan funtsezkoak direlako: familiekin esku hartzeko plan bat dago, berbaldiak ematen zaizkie, bisiten ordutegia librea da... Era berean, belaunaldi-plan bat dago, zeini jarraiki zenbait diziplinatako ikasleek zentroan lanak egiten baitituzte egoiliarrekin. Horrek elkarrekiko komunikazioa eta elkar ezagutzea errazten du. Udan inguruko herrietarako txangoak egiten dira eta arretarako langileak euskalduntzeko plana dago. Horrek garrantzia du, egoitzak hartzen dituen pertsonak nondik datozen eta zein hizkuntza erabiltzen duten kontuan hartu behar baita.

Beste alde batetik, zentro hau zehazki pertsona zaharrak atenditzen dituen erakundearena izateak bertan laguntza-etikako batzorde bat eta gerontologiari buruzko hainbat agiri eta argitalpen izatea errazten du.

## 1.1.4. EGOITZETATIK KANPOKO ADINEKOEN ARTAPENA KONTROLATZEKO JARDUEREN JARRAIPENA

Egoitzei buruzko arestiko atalean bezala, eguneko zentroak ikusiz jarraitu dugu, 1995eko gai honetako gure txosten ezohikoan egindako gomendioen jarraipena egiteko, eta zentro hauek ondoren onartutako araudira zenbateraino egokitzen diren jakiteko: urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, besteren mende bizi diren adineko pertsonentzako eguneko zentroen gainekoa. Azken batean, zentro horietan adineko pertsonei ematen zaien artapenaren kalitateari aditu nahi diogu.

Eguneko zentroen betekizun garrantzitsua, etxean adineko pertsona bat daukaten familientzat laguntza ikaragarria baitira, hirugarren adinarekin zerikusia duten eragile guztiek onartzen duten kontua da. Familientzako sostengu neurriak sortu behar dira, batetik, lan bizitzari eutsi ahal izan diezaioten eta, bestetik, ongizaterako arnas edo atsedenaldia eskainiko dien tartetxoa eduki ahal izan dezaten, hori adinekoaren onerako ere badelako.

Egoitzetatik kanpoko artapenaren barruan beste gizarte errekurtso bat ere hartzen da kontua, eguneko zentroak duen intentsitatea izan ez arren, adinekoen bizitza kalitatean betekizun garrantzitsua duena eta beren ingurune naturalean mantentzen laguntzen diena: Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) da.

Zerbitzu hau, hasieratik, udaletatik eman izan da (Araban ezik, Araban Aldundiak ematen du, udalerriek, hiriburuak ezik, eginkizun horretarako foru erakundea eskuordetu baitute). Egoera honek zerbitzuaren estaldura mailan hainbat desberdintasun sorrarazi ditu, bereiziki urtean zeharreko egun jakin batzuetan.

Zentzuzko zantzuak geneuzkan egoera jakin batzuetan desberdintasun zehatzak daudela zerbitzuaren prestazioan. Horregatik, egoera benetan zein den jakin nahi izan dugu eta, horretarako, 2002an ofiziozko jarduerari ekin diogu. Jardueraren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan ELZ hori, egoera eta epe zehatzetan, nola ematen den jakitea zen: lanegunak ez diren egunetan, eta etxez etxeko laguntzailea ordezkatu behar denean.

Horretarako aurretiaz, biztanleriaren kopuruari adituz, aukeratutako hiru lurralde historikoetako 49 udalerriri eskatu diogu informazioa. Arabako 10, Bizkaiko 21 eta Gipuzkoako 18 udalerri izan dira. Horri buruzko koadroan erakusten den bezala, gure susmoak, udalerri desberdinetan desberdintasun nabarmenak zeudelako susmoak baietsi egin dira. Horrek esan nahi du herri zerbitzu honen kalitatea ematen duen udalerriaren arabera aldatzen dela, horrek herritarrengan duen oihartzunarekin.

### 1) EGUNEKO ZENTROAK

Ikusi ditugun hiru eguneko zentroak egoitza banaren mende daude, lehenago esan dugun bezala. Hona hemen zeintzuk diren:

**Araban**
*San Prudencio eguneko zentroa (Gasteiz)*

40 toki dituen zentro hau arestiko atalean aipatu dugun eta udal titularitatekoa den San Prudentzio egoitzan dago. Beraz, kokapen, sarbide eta abarren gaineko

deskribapen orokorra eguneko zentroari ere aplikatu ahal zaio. Ordutegia goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara da, eta garraiabide egokitua dauka.

Eguneko zentroa eraikinaren beheko solairuan dago, egoitzako toki aparte eta bereiztuan. Bere jarduera egitaraua dauka, baita zuzentzeko bere langileak ere. Eguneko zentroa erabiltzen duten pertsonek, hala ere, egoitzako beste toki batzutara ere joan daitezke, esaterako fisioterapiako aretora edo pasealeku eta gozamen guneetara.

Barruko Araubideko Arautegiari dagokionez, lehenago esan dugu berria, orokorra prestatzen ari direla, eta zentroari ukitzen dioten alderdi zehatzetara moldatuko dela.

*Oiongo eguneko artapeneko landa eremuko zentroa*

Lehenago deskribatutako foru aldundiaren mendeko herri honetako egoitzan dago. Lau toki dauzka, eta ikustera joan ginenean, bi besterik ez zeuden beteta.

Ahalmen murritza duenez, zentroa joaten diren pertsonak egoitzakoekin batera ibiltzen dira, eta egoitzako langileek artatzen dituzte.

Horregati, egoitzaren atalean esandakoa, egoitzarena beren beregi ez bada, atal honetarako ere balio du.

*Fraisoroko eguneko zentroa (Zizurkil)*

Zentro hau aurreko atalean deskribatu dugun izen bereko egoitzan dago. Hamabostentzako tokia dauka, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta, eta ikustera joan ginenean bost besterik ez zeuden hartuta.

Ordutegia goizeko 9etatik arratsaldeko 6etara da, astelehenetik ostiralera, eta garraiabide egokitua dauka. Zentroaren erabiltzaileek astean bainu bat hartzen dute, eta familiei egunero jakinarazten zaie egitaraua (bazkaria, balizko goraberehera edo xehetasunak, eta abar).

Zentroak bere egoitzatxoak dauzka, eta egokiak dira. Gizarte eta kultura arloko dinamizazio programa dauka, egunean 2 ordukoa. Gainerakoan, zentroaren erabiltzaileak egoitzakoekin ibiltzen dira, hainbat jarduera desberdin elkarrekin eginez.

## 2) ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ)

Hitzaurrean esan dugun bezala, prestazio honen estaldura, egoera eta epe zehatzetan, zenbaterainokoa den jakin nahi izan dugu.

Gai honetako gure interesak laguntza behar duten pertsonentzako herri zerbitzua izatearekin zerikusia dauka. Zerbitzuaren kalitatea hobetzea gehienetan zaharrak diren pertsona horien bizitza kalitatea hobetzea da, eta beren familia eta maitasun ingurune naturalean irauten laguntzea.

Egun, ELZaren prestazioa udalen eskuetan dago, gizarte zerbitzuak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren 4.1.2. artikuluaren arabera. Aray honek honelaxe definitzen du ELZ: "*...erabiltzailearen etxean egitea etxeko artapeneko lanak, pertsona zaintzeko edota familia edo etxeko hezkuntzako lanak, etxeko bizitza kalitatea hobetzera begira...*". Xedeei dagokienez, ondoko hauek jartzen ditu:

*"a) Autonomia galeraren prebentzio edota konpentsatzioa, eguneroko bizitzako jarduerak egiten lagunduz, edota etxea bizitzeko gutxieneko baldintza egokietan mantenduz.*
*b) Zaintzaileei laguntza ematea, beraiek baitira artapeneko sare naturala.*
*c) Erabiltzaileak beren ingurunean integratzen laguntzea, bakartze egoerak saihestuz.*
*d) Bizikidetasun giroa hobetzea, arriskuren bat daukaten egoerak ekiteko esku hartzeen bidez.*
*e) Beste zerbitzuren baten esku hartzea behar luketen premia egoerak igartzeko balio izatea."*

Gizarte baliabide honek, udaletatik eman eta araupetzen denak (Arabako Foru Aldundiaren kasuan ezik, honek bere araudia baitu), estaldura mailan zenbait desberdintasun izatea eragind u, bereziki urtean zeharreko egun edo epe jakin batzuetan.

Aztertu ditugun egoeretan, epe horiek ezohiko egunak dira (lanegunak ez direnak) eta, horregatik, prestazioa etetea ere gerta liteke. Hala ere, printzipioz, onuradunen artapen beharrak ez dira aldatzen, batzuetan beraiekin bizi diren senideen laguntza izan dezaketen arren.

Hona hemen aztertu diren epe edo egunak:

a) Larunbat, igande eta jai egunak, eta hainbat egun jarraian datozen garaiak (Aste Santua, esaterako). Egun horietako artapena nola aurreikusten den jakiten saiatu gara.
b) Edozein egunetarako artapen orokorra, laneguna izan zein ez, zerbitzua ematen duen pertsona ez dagoenean (oporretan, gaixorik eta abar dagoelako). Hau da, etxeko ohiko laguntzailea ez dagoenean.

Bi kasuetan hiru artapen maila bereiztu dira:

1- Artapen pertsonala (jaiki, oheratu, higiene pertsonala, jantzi, bazkaria prestatu eta bazkaldu, botikak kontrolatu, gernu eta gorotz ihesa...).
2- Etxeko lanak (etxea eta arropa garbitu, oinarrizko erosketak ...).
3- Harreman bizitza (kasu egin eta lagundu, pasiatu...).

Adierazi nahi dugu, jasotako datuen arabera, berezitzat jotako kasuetan, artapena ematen denean, normalean oinarrizko artapena edo artapen pertsonala ematen dela. Horregatik ez ditugu mailak bereiztu ondorengo koadroetan.

Lehenago esan dugun bezala, informazioa jasotzeko, 49 udalerritara bidali ditugu galdera sortak, udalerri mota guztiak ordezkatuta egon daitezen aurretiaz proportzio sistema baten bidez aukeratu ditugun udalerrietara. Hartara, udalerriak biztanle kopuruaren arabera bildu dira, eta aukeraketa multzo bakoitzaren barruan egin da, dagoen zenbakiaren arabera. 3 lurralde historikoetako udalerrien eraketa desberdina ere kontuan izan da, bereiziki Arabakoa, Bizkaia eta Gipuzkoaren aldean.

Horrela, ondokoak aukeratu dira: 10 udalerri Araban, 21 Bizkaian eta 18 Gipuzkoan. Hona hemen zeintzuk diren:

- Araban: Vitoria-Gasteiz, Llodio, Ayala/Aiara, Aramaio, Zigoitia, Barrundia, Elciego, Samaniego eta Peñacerrada-Urizaharra.

- Bizkaian: Bilbo, Barakaldo, Basauri, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Durango, Arrigorriaga, Ermua, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Igorre, Berango, Markina-Xemein, Sopuerta, Zeberio, Izurtza, Trucios-Turtzioz, Ibarrangelu, Aulesti eta Meñaka.
- Gipuzkoan: Donostia-San Sebastián, Eibar, Errenteria, Irun, Zarautz, Arrasate/ Mondragón, Bergara, Hernani, Oñati, Eskoriatza, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas, Zumaia, Aizarnazabal, Abaltzisketa, Antzuola, Mendaro eta Ormaiztegi.

Behin datuak jasota, aztertu egin ditugu, eta hona hemen emaitzak:

***ARABA***

| HERRIA | Prest. mota | 4 jai edo gehiago (Aste Santua) | Larunbatak | Igandeak | Jaiak | Ordezkoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Vitoria-Gasteiz** | C | Larunbatetan: bai Gainerakoan: kasu bereziak | Bai | Kasu bereziak | Kasu bereziak. Berresku-ragarria zerbitzua egun tartekatuetan bada | Bai |
| **Arabako gainerako herriak** | C | Kasu bereziak edo beste egun batekin konpentsatuta | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |

C: kontratatutako zerbitzua

Lurralde honetan, ELZ Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean ematen dute. Foru erakundeak ituna sinatuta dauka, Arabako udalerri guztiekin, hiriburuarekin ezik (mendeko pertsonentzat ezik), eta itun horren bidez aldundiak udalerri horietako ELZaren kudeaketa bere gain hartzen du. Horrela, Gasteizek hirian bere kabuz molda daitezkeen pertsonak artatzen ditu. Zehaztapen hau garrantzitsua da, zerbitzuaren estaldura argitzeko ondoreetarako. Bi kasuetan, zerbitzua enpresei kontratatuta ematen da.

Zerbitzuaren estaldura mailari dagokionez, ez dago alde handirik Gasteizko udalak eta aldundiak ematen dituztenen artean. Oro har, estaldura onartzeko modukoa da, eta behar den kasuetan eguneroko artapena ere jaso dezakete.

Gasteizko udalarentzat lanegunak astelehenetik larunbatera artekoak dira, eta Aldundiarentzat, berriz, astelehenetik ostiralera bitartekoak. Egun horietan zerbitzua orokorki eta hiru artapen mailatan ematen da. Gainerako egunetan –lanegunak ez direnetan- estalduraren bat egon daiteke berezitzat jotako kasuetarako. Zerbitzua egun tartekatuetan egin eta jai egun batean egokitzen bada, beste egun batean eginez konpentsatzea ere badago, erabiltzailea hainbat egunez artapenik gabe ez egoteko.

Foru Aldundiak kudeatzen duen zerbitzuan, larunbat, igande eta jai egunetan artapen pertsonala kasu berezitzat jotakoei ematen zaie. Etxeko lanetan, konpentsatu egiten da hainbat jaiegun jarraian datozenean. Hirugarren artapen maila –harreman bizitza- kasu bereziei ematen zaie.

Azkenik, 4 jai egun edo gehiago daudenean, esaterako Aste Santuan, larunbatean oinarrizko artapena osorik bermatzen da, laneguna delako. Gainerako egunetan igande eta jaietan bezala egiten da, hau da, horrela jarritako kasu berezietan bezala, eta hala ez bada, beste egun batekin konpentsatzeko aukera eskaintzen da. Probintziako gainerako herrietan, egun horiek kasu zehatzerako prestazio egunak badira, eman egiten da. Bestela, artapenik gabeko egun bat beste egun batekin konpentsatu ahal da.

Horrela, artapen pertsonala bermatuta dago, lurralde osoan, urteko edozein egunetan, beharrezkoa den kasuetarako, eta kasu askotan baita bigarren mailari, hau da, etxeko lanen kontuari dagokiona ere.

Ohiko etxeko laguntzailea ez dagoen tarteetan, kasu guztietan ordezkoa ipintzen da, haren lan berberak eta modu berean egin dituena. Beraz, zerbitzuaren erabiltzaileak ez du inolako aldaketarik jasan behar egoera hori dela-eta.

Badira, Arabako ELZaren barruan, zenbait elementu aipagarri, baliabide honen osagarri ona direlako:

1) Gasteizen, bazkari prestatua etxez etxe banatzen da, egunero-egunero, horrela erabakita dagoen kasuetan. Normalean bazkaria beren kabuz prestatzeko zailtasuna daukaten eta bestelako laguntzarik ez daukaten pertsonak dira. Zerbitzu honek normalean pertsona horiek daukaten ELZ indartzen du.

Hiri honetan familiei, udalak adinekoak zaintzen dituzten familientzako sostengu programaren bidez, ELZaren aldaera batekin eman nahi zaien arnasa ere aipatu behar da. Horretaz II. kapituluko Gizarte Ongizateari buruzko atalean hitz egingo dugu.

2) Foru Aldundiak kudeatzen duen zerbitzuan, egunean 7 ordura arte ere sendotzeko ahalbidea dago, aparteko egoeretan, familia ordezkatu behar denekotan. Esaterako, prestazioaren onuradunak eguneko zentrora joaterik ez daukanean, gaixorik dagoelako, eta familiak zaindu ezin duenean, senideen lan txandengatik, eta abar.

***BIZKAIA***

| HERRIA | Prest. mota | 4 jai edo gehiago (Aste Santua) | Larunbatak | Igandeak | Jaiak | Ordezkoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Aulesti** | | Larunbat, Bai | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Basauri** | | 1-2 egun, kasu berezi. | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Bilbo** | C | 1-2 egun Kasu berezietan | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Gaixo- Bai Opor.: oinarrizkoa soilik |
| **Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Arrigorriaga** | C | Jue.-sáb.-lun. | Bai | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |
| **Barakaldo** | C | Larunbat: kasu berezi.. | Kasu bereziak | Ez | Kasu bereziak | Bai |

| HERRIA | Prest. mota | 4 jai edo gehiago (Aste Santua) | Larunbatak | Igandeak | Jaiak | Ordezkoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Berango** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Durango** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Getxo** | C | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Ez | Kasu bereziak | Bai |
| **Ibarrangelu** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Igorre** | C | Kasu bereziak | Bai | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |
| **Izurtza** | C | Kasu bereziak tartekako egunak | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Meñaka** | C | Kasu bereziak | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Portugalete** | C | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu ereziak | Bai |
| **Santurtzi** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Sestao** | C | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |
| **Sopuerta** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Trucios-Turtzioz** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Zeberio** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Ermua** | P | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Markina-Xemein** | P | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |

C: kontratatutako zerbitzua
P: bere zerbitzua

21 udalerri aukeratu dira. Guztiek daukate zerbitzuaren prestazioa kontratuta, bik ezik: Ermuak eta Markina-Xemeinek, beren bitartekoekin ematen baitute.

ELZaren estaldura mailari dagokionez, gehienek lanegunak astelehenetik ostiralera bitartean dituzte eta, horregatik, larunbat, igande eta jaietan ez da laguntza hori ematen. Larunbatei dagokienez, badira bi udalerri –Arrigorriaga eta Igorre- artatutako biztanle guztiei zerbitzua ematen dietenak. Beste batzuk berezitzat jotako kasuetan soilik egiten dute (Bilbo, Barakaldo, Getxo, Markina-Xemein, Portugalete eta Sestao).

Igande eta jaiegunetan, oro har, ez da zerbitzurik ematen, baina zenbait udalerritan kasu bereziei artapen pertsonala ematen zaie, hala nola, Bilbon, Arrigorriagan, Igorren, Markina-Xemeinen eta Sestaon. Barakaldok eta Getxok jai egunetan soilik egiten dute hori.

4 jai egun edo gehiago jarraian datozenean (Aste Santua), bi udalerrik soilik ematen diete artapena onuradun guztiei, gutxienez artapen pertsonala, egun horietakoren batean. Arrigorriaga, ostegun, larunbat eta astelehenetan artatzen duena, eta Aulesti, larunbatetan artatzen duena dira.

Beste udalerri batzuk oinarrizko behar hori artatzen dute, aldiorotasun desberdinez, berezitzat eta familiaren sostengurik gabekotzat jotako kasuetan. Artapena 1 edo 2 egunekoa (Bilbo, Barakaldo, Basauri eta Izurtza) edo gehiagokoa (Getxo, Markina-Xemein, Meñaka, Portugalete eta Sestao) izan daiteke. Azkenik, badira zenbait udalerri, gure datuen arabera, bost egunetan inolako artapenik eskaintzen ez dutenak (Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Berango, Durango, Ermua, Ibarrangelu, Santurtzi, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zeberio).

Arrigorriagako udalaren irizpidea artapenik gabeko egun bat gehiago ez lagatzea da. Horregatik, larunbatetan, oro har, artapen hori ematen da, eta aste santuran hiru egun tartekatutan. Gainerako egunetak kasu bereziak artatzen dira. Aulestiko udalak, bere aldetik, ez du bi egun baino gehiago lagatzen artapenik gabe.

Zerbitzua eman ohi duen pertsona ez dagoen kasuetan, oro har, ordezkoa egoten da, zerbitzua besteak bezala betetzeko. Bilbon, ordea, jarduera desberdina da absentzia zergatik den arabera: gaixotasun edo oporrengatik. Gaixotasuna denean, ordezkoa beti ipintzen da. Baina absentzia udako oporrengatik bada, ez da ordezkoa beti eskaintzen. Azkeneko kasu honetan ez dira etxeko lanak egiteko ordezkoak jartzen, oinarrizko egiteko ordezkoa soilik baizik (artapen pertsonala, bazkaria, botika, oinarrizko erosketak...), zerbitzua astean egunero edo hiru egunetan emateko esleituta dagoen kasuetan. Astean biko zerbitzua denean, ordezkoa pertsonak zainduko duen seniderik ez daukanean soilik jartzen da. Etxeko lanak egiteko, ordea, ez da inoiz ordezkorik jartzen Bilbon. Artapen falta horrek eragin berezia izan dezake, oinarrizko egitekoak, hala nola, bainuetako higienea eta arroparena, direnean, batez ere eutsi ezineko egoeretan. Kontuan izan behar da udako oporrak, denak batera hartu ez arren, nahikoa luzatzen direla oinarrizko eginkizun horiek egin gabe edukitzeko.

Ondorio hau aipa dezakegu:

1) Estaldura mailarik handiena bi udalerrik daukate, Aste Santuan (1 egun edo gehiagoko artapenaz) eta, oro har, larunbatero artatuz, baita gainerako egunetan ere, egoera berezietan (Arrigorriaga eta Igorre).
2) Atzetik aztertutako egoera berezietan gutxienez egunero egoera bereziak artatzen dituzten udalerriak daude (Bilbo, Markina-Xemein, Portugalete eta Sestao).
3) Zenbait udalerrik bi tarteak artatzen dituzte, osorik artatu ez arren (Barakaldo eta Getxo).
4) Beste batzuk bi tarteetako bat bakarrik artatzen dute: Aste Santua (Aulesti, Basauri, Izurza eta Meñaka).
5) Azkenik, aztertutako egoera batean ere inolako artapenik ematen ez dutenak daude, gehienak direnak (Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Berango, Durango, Ermua, Ibarrangelu, Santurtzi, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zeberio).

Aldeak daude, beraz, ELZaren estaldura mailan Bizkaian, aztertu ditugun epe eta udalerrietan.

Estalduraren gainean deskribatu dugun egoera ordezkapenen kasueta islatzen da, zeren, oro har, ohiko laguntzailearen absentziak baldintza berdinetan betetzen baitira. Baina alde horretatik, Bilboko Udala da estaldura mailarik txikiena daukana, lehenago esan dugun bezala.

Jakin nahi izan dugu ea udalerriaren tamainak ikusitako desberdintasunez zerbait argitzen digun. Horren ildotik, ondoko honetaz ohartu gara:

- 30.000 biztanletik gorako 7 udalerrietan[1] , 5ek nolabaiteko estaldura eskaintzen dute asteburuko egunen batean eta jai egunetan[2] , eta 6k Aste Santuan[3] .
- 10.000-30.000 biztaneko 3 udalerrietan[4] , 1ek estalduraren bat eskaintzen du bi tarte horietako egunen batean (Arrigorriaga).
- 2.000-10.000 biztanleko 5 udalerrietan[5] , 2k estalduraren bat eskaintzen dute bi tarte horietako egunen batean (Igorre eta Markina-Xemein).
- 2.000 biztanletik beherako 6 udalerrietan[6] , batek ere ez du estaldurarik eskaintzen asteburuko egunetan eta jai egunetan, eta 3k Aste Santuan egiten dute (Izurtza, Aulesti eta Meñaka).

Horren arabera, badirudi gutxieneko estaldura eskaintzen dutenak behintzat, 2.000-10.000 biztanle bitartekoak eta 30.000etik gorakoak direla. Azkeneko horietan, ordea, jada esandako arazoak aurkitzen ditugu, hala nola, zerbitzua eamten duen pertsonaren oporretako ordezkoa hartzearen gainekoak.

***GIPUZKOA***

| HERRIA | Prest. mota | 4 jai edo gehiago (Aste Santua) | Larunbatak | Igandeak | Jaiak | Ordezkoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Donostia-San Sebastián** | C | Larunbat: Bai Gainerakoan: kasu bereziak | Bai | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Bai |
| **Abaltzisketa** | P | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Aizarnazabal** | P | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai |
| **Antzuola** | C | Larunbat: Bai | Bai | Ez | Ez | Bai |
| **Arrasate/ Mondragón** | C | Ez | Bai | Ez | Ez | Bai |
| **Bergara** | C | Larunbat: Bai | Bai | Ez | Ez | — |
| **Eibar** | P | Larunbat: art.pertsonala | Ez | Ez | Zerbitzutan konpentsatua Ez egunerokoa | — |
| **Errenteria** | Mistoa | Ez | Ez | Ez | Ez | — |
| **Eskoriatza** | Diru laguntza | Ez | Bai | Ez | Ez | — |
| **Hernani** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | — |

1 Bilbo, Barakaldo, Basauri, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Sestao.
2 Bilbo, Barakaldo, Getxo, Sestao, Portugalete.
3 Denek Santurtzik ezik.
4 Durango, Arrigorriaga, Ermua.
5 Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Igorre, Berango, Markina-Xemein, Sopuerta.
6 Zeberio, Izurtza, Trucios-Turtzioz, Ibarrangelu, Aulesti, Meñaka.

| HERRIA | Prest. mota | 4 jai edo gehiago (Aste Santua) | Larunbatak | Igandeak | Jaiak | Ordezkoak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Irun** | C | Ez | Bai | Ez | Ez | — |
| **Mendaro** | Diru laguntza | Ez | Oinarrizko artapena | Ez | Ez | — |
| **Mutriku** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | Ez |
| **Oñati** | C | Ez | Ez | Ez | Ez | — |
| **Ormaiztegi** | Diru laguntza | Ez | Ez | Ez | Ez | — |
| **Soraluze-Placencia de las Armas** | P | Ez | Ez | Ez | Ez | — |
| **Zarautz** | C | Ostegun eta larunbatetan | Kasu bereziak | Kasu bereziak | Ez | — |
| **Zumaia** | Mistoa | Larunbat: kasu bereziak | Ez | Ez | Ez | — |

C: kontratatutako zerbitzua
P: bere zerbitzua

Hautatutako 18 udalerriek emandako datuak aztertu ondoren hauxe ikusi dugu:

Zerbitzuaren prestazio motaren arabera, erdiak -9[7] - enpresaren batekin kontratatuta dauka, baina badira beren zerbitzua daukaten 4 kasu (Eibar, Soraluze, Aizarnazabal eta Abaltzisketa), 2 kasu misto (Errenteria eta Zumaia) eta 3 diru laguntza zuzenekoak (Eskoriatza, Mendaro eta Ormaiztegi). Azkeneko kasu honetan udalek ELZ onartzen dioten pertsonari diru laguntza ematen diote, eta bera da zerbitzu hori emango duen pertsona zuzenean kontratatuko duena.

Modalitate honetan onuradunarengan lagatzen da etxeko laguntzailea bilatu eta kontratatzeko ardura guztia eta, gainera, zenbait eragozpen ere badauzka: batetik, zerbitzuaren egintza kontrolatzea zaila da, gizarte zerbitzuetatik esleitutako eginkizunen arabera. Bestetik, kontratatutako pertsonak ez dauka, normalean, gaiari buruzko berariazko prestakuntzarik, ez baita alor horretako enpresa bateko langilea izaten. Azkenik, sistema honek familiarengan lagatzen du ohiko pertsona hori ez dagoenean (gaixorik edo oporretan dagoelako) ordezkoa bilatzeko ardura. Horren ondorioz normalean absentzia horiek ez dituzte inongo ordezkok betetzen.

Zerbitzuaren prestazioaren estaldurari dagokionez, lanegunak, oro har, astelehenetik ostiralera bitartean dira, baina zenbait udaletan larunbatak ere sartzen dira (Eskoriatza, Antzuola, Donostia-San Sebastián, Irun, Arrasate/Mondragón eta Bergara. Mendarok partzialki artatzen du).

Larunbata laneguntzat hartzen ez denean, igande eta jaiak bezala, ez da zerbitzurik ematen, baina zenbait udalerrik oinarrizko artapena eskaintzen dute egun horietan ere,

[7] Donostia-San Sebastián, Irun, Zarautz, Arrasate, Bergara, Hernani, Oñati, Mutriku eta Antzuola.

kasu berezitzat jotzen direnetan. Hartara, Donostika igande eta jaietan eskaintzen du, prezioa %10 gehituz. Zarautzen larunbat eta igandetan kasu bereziak artatzen dira, baina jai egunetan ez, eta Eibarren jai egunak konpentsatu egiten dira eguneroko zerbitzua ez denean.

Azkenik, 4 jaiegun edo gehiago biltzen direnean (esaterako: 4 jai egun eta 1 larunbat, jarraian), egoerak aldatu egiten dira: udalerririk gehienek (12)[8] ez dute inongo zerbitzurik ematen bost egunetan (Eskoriatza, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas, Aizarnazabal, Abaltzisketa, Mendaro, Ormaiztegi, Errenteria, Irun, Hernani, Oñati eta Arrasate/Mondragón).

Larunbat santua Antzuola, Eibar, Bergara eta Donostian kasu guztietan estaltzen da, batzuetan denbora laburragoz bada ere. Zumaian, kasu bereziak soilik, Zarautzek, bere aldetik, ez du inor lagatzen bi egunez jarraian artatu barik, bakarrik bizi diren pertsonak soilik artatzen dituelako. Horren arabera, udalerri honek bi egun eskaintzen ditu (osteguna eta larunbata) artapen pertsonalerako eta etxeko lanak kasu berezietan egiten dira.

Ohiko etxeko laguntzailea ez dagoeneko ordezkapenei dagokienez, Gipuzkoako udalerri guztietan ohiko laguntzailearen eginkizun eta denbora bererako hartzen da ordeza. Aizarnazabal salbuetsi behar da, hor ez baitute ordezkorik hartzen. Mendaro, Ormaiztegi eta Eskoriatzan esan dugu ordezkoa artatutako pertsonaren edota bere familiaren ardura dela.

Hori guztia esan ondoren, baiezta dezakegu, daukagun informazioaren arabera, Gipuzkoan oso normala dela larunbat, igande eta jaietan artapenik ez ematea. 4 udalerri besterik ez daude, guk dakigula, horietako egunen batean behintzat estalduraren bat ematen dutenak, eta kasu berezietarako gutxienez. Donostia-San Sebastián, Zarautz, Bergara eta Antzuola dira.

Aste Santuko 5 egunei dagokienez, lehen esan dugun bezala, gure datuek arabera, artapenik ematen ez duten udalerriak gehienak dira (12). Beraz, 6 besterik ez lirateke estalduraren bat ematen dutenak, gutxienez egun batean: Donostia-San Sebastián, Eibar, Zarautz, Bergara, Zumaia eta Antzuola.

Horren ildoetik, hauxe esan daiteke:

1) Udalerri bakarrak bermatzen du aztertutako kasuetan eta epeetan behar dutenei egunero artapena ematea. Estaldurarik handiena daukan udalerriak, alegia (Donostia-San Sebastián).
2) Atzetik Aste Santuan gutxienez egun batean eta asteburuetan ere egun batean artatzen dutenak datoz (Bergara, Antzuola, Zarautz).
3) Beste batzuek estaldura txikiagoa daukate, baina badute zerbait gutxienez (Irun, Arrasate, Eskoriatza eta Zumaia).
4) Azkenik, aztertutako egoeretan inolako artapenik ez daukatenak daude, gehienak alegia (Errenteria, Hernani, Oñati, Eskoriatza, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas, Aizarnazabal, Abaltzisketa eta Ormaiztegi).

[8] Errenteria, Irun, Arrasate, Hernani, Oñati, Eskoriatza, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas, Aizarnazabal, Abaltzisketa, Mendaro eta Ormaiztegi.

Ikusi nahi izan dugu, Gipuzkoan ere, ea dauden desberdintasunek udalerriaren tamainarekin zerikusirik daukaten. Datuak aldagai horren arabera aztertuz, eta ikusita larunbat, igande edo jaietan, baita Aste Santuan ere inolako estaldurarik daukaten udalerriak zeintzuk diren ondokoaz jabetu gara:

- 20.000 biztanletik gorako 6 udalerrietan[9] , 2k asteburuetako eta jaietako egunen batean estaldurarik eskaintzen dute (Donostia-San Sebastián eta Zarautz), eta 3k Aste Santuan (Donostia-San Sebatián, Eibar eta Zarautz).
- 10.000-20.000 biztanle bitarteko 3 udalerrietan[10] , 1ek estalduraren bat eskaintzen du bi tarte horietako egunen batean (Bergara).
- 2000-10.000 biztanle bitarteko 4 udalerrietan[11] , 1ek estalduraren bat eskaintzen du bi tarte horietako egunen batean (Zumaia).
- 2.000 biztanletik beherako 5 udalerrietan [12], 2k nolabaiteko artapena eskaintzend ute asteburuko eta jai egunetako egunen batean (Antzuola eta Mendaro), eta 1ek Aste Santuan (Antzuola).

Esandako artapeneko lehenengo zatirako proportziorik altuena udalerririk txikienena da, bigarrenekoa (Aste Santua), udalerririk handienekoa den bitartean. Edonola ere, udalerriaren tamainaren faktore honek bakarrik ez du ematen desberdintasunak azaltzen dituenik.

**KONPARAKETA**

Hiru udalerrietako egoera alderatzen badugu, Araba da egoerarik onenean dagoena, udalerri guztiek, gutxienez, tarte horietako egunetan gutxienez nolabaiteko estaldura bermatzen baitute.

Bizkaia eta Gipuzkoari dagokienez, ez zaizke elkarren arteko desberdintasun nabarmenik ikusten, baina bai lurralde bakoitzaren barruan, esan den bezala. Ondorio horretara udalerri bakoitzak emandako datuak aztertu ondoren heltzen gara. Hala ere, baliteke esandakoak baino gehiago izatea tarte horietan berezitzat jotako kasuetan oinarrizko beharrak artatzen dituzten udalerriak.

Zerbitzua ematen duen pertsonaren gaixotasun edo oporren absentziak, oro har, kasu guztietan eta baldintza berdinetan ordezkatzen dira. Bi salbuespen daude:

a) Bilbon gaixotasunaren ondoriozko absentzia ordezkatzen da, baina udako oporretan, artapen pertsonal edo oinarrizko eginkizunak soilik ordezkatzen dira, zerbitzua egunero edo astean hiru egunetan emateko esleituta dagoenean. Aldiorokotasuna astean bi egunekoa denean, ordezkapena onuradunak familiaren sostengurik ez daukanean soilik egiten da.
   Horrek, batetik, ordezkatu gabe geratzen diren kasuak daudela esan nahi du. Beste batetik, etxeko lanak ez dira artatuta geratzen inoiz ere. Kontuan izanik udako oporrak zenbat egun jarraian izaten diren, estaldi gabeko absentzia hori gehiegizkoa izan liteke, bereziki oinarrizko eginkizunetan, hala nola, komunak

9 Donostia-San Sebastián, Eibar, Errenteria, Irun, Zarautz, Arrasate.
10 Bergara, Hernani, Oñati.
11 Eskoriatza, Mutriku, Soraluze-Placencia de las Armas, Zumaia.
12 Aizarnazabal, Abaltzisketa, Antzuola, Mendaro, Ormaiztegi.

garbitzeko, baita arropak garbitzeko lanetan, batez ere eutsi ezina dagoen kasuetan.

b) Zerbitzua betetzeko modua onuradunari diru laguntza ematea denean, beraren ardura da ordezkoa bilatzea, beraz, ez du udalak halakorik bermatzen. Gipuzkoako hiru udalerriren kasua da: Eskoriatza, Mendaro eta Ormaiztegi.

Udalerrien artean dauden desberdintasunak ez dira biztanleen kopuruengatik azaltzen. Arrazoiak beste faktore batzuetan bilatu beharko dira, esaterako, udal bakoitzak biztanle kopuruaren aldean zerbitzu honetara bideratzen duen diru kopuruan; udalerri bakoitzan zerbitzu hau behar duten pertsonen kopuruan; familiak nola bizi diren eta senideak (normalean adinekoak, laguntzaren beharra dutenak) artatzeko lanetaz zenbateraino ardura daitezkeen; eremuan gai honetaz dagoen kulturan, eta abar.

## ONDORIOAK

Alde handiak daude udalerrietan herritarrei eskaintzen zaizkien estalduretan. Udalerri batzuk herritar guztiak larunbatetan eta Aste Santuko egun batzuetan ere artatzen dituzte, eta gainerako egunetan kasu bereziez arduratzen dira. Beste batzuek, berriz, ez dute zerbitzurik eskaintzen Aste Santuko bost egunetan jarraian, ez eta asteburu osoan eta jai egunetan ere. Horregatik, gure ustez zerbitzuaren kalitatea hobetzeko neurriak hartuko beharko lirateke, baita, ahal dela, eskaintzen den estaldura maila berdintzeko ere, euskal herritarrek, oro har, izatezko ezaugarri desberdintasuneko zerbitzurik jaso ez dezaten lortzeko. Horrengatik, hauxe pentsatzen dugu:

1) Gutxienez artapen pertsonala ziurtatu beharko litzaieke, urteko egun guztietan, etxean beraiekin bizi diren senideen laguntzarik ez daukaten pertsona guztiei, edo ELZaren onuraduna artatzeko egin behar diren zereginetarako gaituta ez daudenei.
2) Horren ildotik, larunbat, igande eta jaietan behar duten pertsona guztiei oinarrizko artapena bermatu beharko litzaieke. Aste Santuan, gutxienez egunen batean, artapena eskaini beharko litzateke, bost egunez jarraian artapenik gabe egotea, zenbait kasutan, luzeegia gerta baitaiteke.
3) Ohiko etxeko lanak ez lirateke eten behar 3 edo 4 egunez, bereziki bainuko eta arroparen garbiketa, batez ere eutsi ezina dutenen kasuan.
4) Zenbait egoeratan, bereziki bakarrik bizi diren eta kalera irteteko laguntza behar duten pertsonen kasuan, harreman bizitzaren artapena garrantzitsua da eta kontua hartu beharko litzateke.
5) Etxeko ohiko laguntzailearen absentziak erabat ordezkatu beharko lirateke, betekizun eta prestazio denbora berdinekin.
6) Prestazio motetatik onuradunari banako diru laguntza ematea kendu beharko litzateke. Udalak behar luke zerbitzua ematen duena.
7) Ondo legoke ELZaren gaineko arauketa egotea, irizpideak batzeko eta zerbitzuak gure Autonomia Erkidegoaren esparruan bete beharko lituztekeen gutxieneko oinarriak ezartzeko, udalerrien araberako desberdintasunik ez izatera begira. Zerbitzua udalak ematen du, gizarte zerbitzuen gaietako eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren arabera, baina Eusko Jaurlaritzak, gizarte zerbitzuen gaineko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 10. artikuluak esleitzen dizkion eskuduntzez baliatuz, gaia arau lezake.

## 1.1.5. BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEEN ARTAPENAREN GAINEKO JARRAIPENA

Ararteko erakundeak babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko txosten berezia 1997ko irailean atera zuen jendaurrera. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (50 lurralde historiko bakoitzeko), eta gure Erkidegoan 1995ean zeuden 63 zentroak ikustera joan ginen. Eta txostena aztertutako kontuetako askoren gaineko 42 gomendio proposatuz burutu zen:

- marko juridikoaren eta adingabeen babesari buruzko eskumenen banaketaren gainean;
- zerbitzuen sarean lan egiten duten profesional desberdinen gainean;
- norbanakoen beharrei erantzuteko programa desberdinen gainean;
- antzeman, erabaki, parte hartu, berrikusteko eta abarreko prozeduren gainean;
- egoitzetako zerbitzuen antolamendu eta funtzionamenduaren gainean;
- zerbitzu horien kontrolaren eta ebaluazioaren gainean...

Bai txostenean bai ondorengo jardueretan, nabarmen hobe litezkeen alderdiak edo lehenesten diren beharrak azpimarratzean, erakunde hau ondoko hauetan bereziki tematu da:

- araudi erkide bat behar dela, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko, gure Erkidegoan;
- ahalik eta erantzunik desberdin gehien behar dela (familietako harrera, larrialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi direla lurralde historikoen artean;
- babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar direla;
- oinarriko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinaketa;
- irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo gizarte autonomiako programak;
- haurren eta nerabeen eta beren familien partaidetzarako mekanismoak;
- zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldioroko kontrola.

Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldioroko bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien laburpena jaso da.

Iaz, txostena egin zenetik igarotako denbora zela-eta, eta haurren beharretan eta haurrak babesteko politiketan izandako aldaketak kontuan izanik, ahalegin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta izandako bilakaeraren eta lortutako aurrerapenen balorazioa egiteko. Horretarako, bisitez gain (bereziki bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako eta jokabide arazo larriak dituztenentzako zentroetara), administrazio eskudun bakoitzarengana jo genuen, informazio xehatua eskatzeko, ondoko gaien inguruan:

1. Urte askotako indarreko planak eta abian dauden programak, familia, bitartekari zerbitzu, familia banantze eta babes sistematik irtetearen gainean.
2. Ekipo teknikoetan, artapen zuzeneko profesionalengan eta ekipoen arteko koordinaketan izandako aldaketa esanguratsuak.

3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, erabaki guneak..).
4. Arrisku eta babesik gabeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen partaidetza eta kexetarako mekanismoak eta bizikidetasun arauak ezartzea.
6. 2000 eta 2001 urteetan artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak.
7. Familia banantzeetako babes neurrien gaineko datuak (egoitzetan hartzeak, familietan hartzeak, adopzioak...) 2000 eta 2001 urteetan.
8. Estatuko eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak, zentro bakoitzaren tamaina, titularitate edo betekizunaren arabera.
10. Zerbitzuen eta programen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak.
11. Berariazko informazio eta datuak bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboaren gainean.

Zenbait ataletan, eskatutako informazioa hasierako txosteneko datuekin alderatzeko moduko kopuruzko datuetan edo adierazleetan zehazten zen, horrela bilakaera ikus baitzitekeen.

Jasotako informazio guztia, laburbilduta, iazko txostenean islatu zen, lurraldez lurralde. Gainera, azkeneko atal batean, gogoetakoan, ondorio, joera eta alderdi aipagarri nagusiak jaso ziren (cfr. 2001eko txostena, 57-86 orr.)

Jarraipenerako formula hori bereziki interesgarria iruditzen zaigu, aldian behin erabiltzeko, epe luzeetarako, datu orokorrak ematen dituelako eta abiapuntuari begira izandako joerak igartzen lagatzen duelako. Baina muga garrantzitsuak ere baditu. Bat, errealitatearen alderdi zehatzagoekin alderatzeko zailtasuna. Beste bat, datuak bildu eta aztertzeko dakarren lana. Onena litzateke administrazio eskudun bakoitzak teknika hori erabiltzea burututako jardueren gaineko memoria prestatu eta argitaratzeko, denbora jakin batean, kasu honetan babesaren gaiaz. Batzuetan egiten da, baina oraindik ez da guztietara zabaldu den ohitura.

Gure txostena argitaratu eta gerora, erakunde honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailean zegokion zuzendaritzaren idatzia jaso genuen, non jasotako datuak zalantzan jarri ez arren –iturria Aldundia bera zen- erabilitako irizpideen ñabardurak adierazi eta oraingo datuen eta 1997ko txostenean eskainitakoen arteko konparazioa erraztuko zuen informazio gehigarria eman nahi baitzen. Zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoan igarri zen joeraz ari ziren, gure txostenaren 86. orrialdean jasotako zentroen titularitate publikoari eta kudeaketa moduei zegokienez (titularitate publikoko eta titularitate pribatuko zentroen arteko proportzioan). Emandako datu berriek zentroen errealitatearen edo kasuistikaren berri osatzen laguntzen dute; ez dira zentroen kudeaketa nori dagokion gainean esandako joerak aldatzen, baina bai zehazten da higiezinen titularitatea (higiezinaren titularitatea publikoa den baina zerbitzuaren kudeaketa erakunde edo elkarterekin batekin hitzartzen deneko zentroak).

Iazko txostenean jaso eta xehetasunez aztertutako datu orokorrak alboratuta, azkeneko urte honetan, erakunde honen artapena eta jarraipena, berriro ere, bakarrik

dauden adingabe atzerritarrengana bideratu dira. Kapitulu honen gehiena hori aztertzen emango dugu eta, amaieran soilik, beste jarduera desberdin batzuk ere islatuko ditugu.

## 1. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren berariazko egoera

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, babesik gabeko adingabeen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar desberdineko taldea dira. Azkeneko urteetan, Ararteko erakundeak arreta berezia jarri dio kolektibo honi eta, zehazkiago, kolektibo horri lurralde historiko bakoitzean xedatutako berariazko zerbitzuei. Egoera aldatuz joan da urtetik urtera, eta lurraldeen artean alde handiak daude. Azken aldian, Bizkaian ugariak dira halako adingabeak, Gipuzkoan gutxiago eta, gero eta gehiago diren arren, Araban oso gutxi daude. Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenik egitea eta, horien arabera, beharrei aurrea hartu edo behar diren baliabideak programatzea. Izan ere, adingabe hauen fluxuak (presentzia handiago edo txikiagoko uneak, lurralde batetik bestera joateak...) oso faktore aldakorren araberakoak dira: muga igarotzeko izatezko ahalbideak, atzerritarren gaietako araudia, harrera zerbitzuen egoera Erkidego bakoitzean, ez oso denbora luzean dokumentazioa lortzeko erraztasuna edo zailtasuna... Sarritan, halako faktoreek azaltzen dute zergatik, une jakin batean, lurralde jakin batean, harrera beharrak gehitu ala gutxitzen diren.

Gure Erkidegoan, erakunde arduradunek, ia kasu guztietan, beraientzat beren beregi prestatutako zerbitzuetan hartzea erabaki dute. Jarraian lurralde bakoitzean jasotako informazioa laburbilduko dugu.

### A) **Arabako Lurralde Historikoa**

Beste lurraldeetan ez bezala, Araban kolektibo horrek ez zuen hazkunde nabarmenik izan azkeneko urteetan. Hartara, esaterako, 2001ean guztira 10 adingabe atzerritar artatu zen, eta horietatik 8 zentroan astebete baino gutxiago egon ziren. Ez zen, beraz, beraientzako berariazko zerbitzurik sortzeko beharrik ikusten.

2001ean Arabako Foru Aldundiak Bosco Etxea, Larrialdietako Harrera Gunea ireki zuen, 12 urtetik 18 urtera bitarteko nerabeentzat, eta kolektibo horretan sor litezkeen harrera beharretara ere zabalik. 7 tokirekin hasi zen, 10eraino hedatzeko pentsamenduaz. Arartekoa eta bere erakundeko langileak joan den abenduaren 16an izan ziren bertan. Egun horretan 11 adingabe zegoen zentroan: 7 mutil eta 4 neska. Zazpi mutilak atzerritarrak ziren (magrebtarrak) eta nesketako bat kolonbiarra zen.

Zentroaren ezaugarri fisikoei dagokienez, funtsean, obran erositako bi pisu bat egin eta berregituratzearen emaitza da eta horri lurraren parean dauden hainbat toki gehitu behar zaizkio, non hainbat zerbitzu erkide dauden (arropa-armairua, jaki-tokia, berogailua, trastelekua). Goiko solairuan antzeko banaketako bi modulu daude (4 logela- biko hiru eta bateko bat-, egongela eta bi bainu gela modu bakoitzean), beste espazio erkide batzuez gain: sukaldea, jaki-tokia, jantokia, egongela eta hezitzaileen bulegoa. Kanpoko sarrera independentea da, eta antzeman genion gabezia bakarra ke igarlerik edo larrialdi sistemarik ez zuela izan zen (su itzalgailuak bazeuzkan).

Zentroa hamar nerabe hartzeko pentsatuta dago, baina azkeneko urteko beharrak ikusita, sarritan hamaika edo hamabi ere izaten dituzte. Datu horiek kontuan hartuta, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako berariazko zentroa sortu beharraz pentsatzen ari dira. Izan ere, bisita egunean, zentroan hartutako 8ez gain, beste bi adingabe atzerritar zeuden, Hazaldin hartuta.

Kudeaketa ereduari dagokionez, itunpeko zentroa da, 6 hezitzaile (gehi laguntzeko beste bat 10 toki baino gehiago hartuta daudenean), gaueko 4 begirale, txanda bakoitzeko zaindari bat, sukalderako pertsona bat eta garbiketa enpresa bateko langileak ari direlarik. Ohikoena da txanda bakoitzean hezitzaile gizonezko bat eta hezitzaile emakumezko bat egon daitezen bermatzea. Eskari edo proposamen bat egin da talde horretara arabieraz mintzatzen den hezitzaileren bat sartzeko.

Erkidegoko baliabideen eta zerbitzu normalizatuen erabilpenak zabala eta arazorik gabea dirudi: partaidetza herritarren zentroetan (udaleko norbanakoentzako txartelaren bidez), osasun artapena (TISen bidez), eskolatzea Hezkuntza Sailaren bidez… Helburua denak eskola edo lan sisteman sar daitezen lortzea da. Bisitaren egunean Konpentsaziozko Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako zentroetan eta Tailer Eskoletan eskolatutako adingabeak zeuden. Enpresa batean lanean ari zen beste bat ere bazegoen.

Zentroko hezkuntza proiektua eta bizikidetasun proiektua berrikusten ari ziren. Kultura edo erlijio desberdintasunak kontuan hartzen dira otordu, hizkuntzen erabilpeneko irizpideetan, ordutegietan eta halakoetan (esaterako, Ramadan hilean).

Azkeneko hiletako bilakaera aztertuz gero, gero eta etorrera gehiago izateko joera ikusten da, geratzeko asmoz datozenak, batzutan beste toki batzuetatik datozenak (Katalunia, Bizkaia), edo beren jatorrizko herriko pertsonaren batekin datozenak…

Paperik gabekoen adina zehazteko hezur frogei dagokienez, hamar bat egun irauten dute. Berton bizitzeko baimenaren izapideak ahal bezain laster hasten dira, eta baimenak eman arte 3 edo 4 hilabete joaten dira. (Berton bizitzeko izapidetutako 4 baimenetatik ordura arte hiru lortuak zituzten; baita lanerako baimen bat ere).

Azkeneko urteko daturik esanguratsuenak, Arabako Foru Aldundiak emandakoak, honelaxe laburbil ditzakegu:

- Hona hemen urtez urteko datuen bilakaera:

| | | |
|---|---|---|
| - 1997: | 8 adingabe | (10 sarrera) |
| - 1998: | 7 adingabe | (10 sarrera) |
| - 1999: | 14 adingabe | (17 sarrera) |
| - 2000: | 6 adingabe | (9 sarrera) |
| - 2001: | 10 adingabe | (11 sarrera) |
| - 2002: | 30 adingabe | (31 sarrera) |
| - Denera(1997-2002): | 75 adingabe | (88 sarrera) |

- Sarreren erdia ia (14) urteko azkeneko hiru hiletan izan dira.

- Hartutako adingabeen ezaugarriei dagokienez (adina, jatorria, sexua), hauek dira datuak, laburbilduta:
  - Mutilak: 27 ; neskak: 3
  - 13-14 urte: 1
  - 15-16 urte: 5
  - 16-17 urte: 16
  - 17-18 urte: 5
  - Adinik ez dakigu: 2
  - Adinez heldua: 1
  - Jatorriak: Marokko (20); Ekuador (2); Aljeria (2); Mauritania (1); Sahara (1); Nigeria (1); Bolivia (1); Errumania (1); Senegal (1).
- Jendearen egonaldiak oso desberdinak izan dira: egun batetik (8 adingabe), ia urte osoraino. Hilabetetik gora artatuta egon diren adingabeak 11 izan dira.
- Adingabearen Kontseiluak, 2002an, bakarrik zeuden 3 atzerritar adingaberen tutoretza bere gain hartu zuen.
- Sartutako 30 adingabeetatik, 3 adinez nagusi izan arte egon dira. Bi egonaldi osteko jarraipen programara sartu dira.
- 2002ko abenduaren 31n, 8 adingabek hezkuntza programetan sartuta jarraitzen zuten.

B) **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Iaz bezala, aurten ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren arazoa bereziki Bizkaian kontzentratu da. 2001eko igoera ikaragarria (urte betean 59 sarrera izatetik 370 izatera igaro zen) moteldu egin da, baina erakundeen bidez erantzuteko beharrak ez dira jaitsi: 2002an 337 sarrera berri izan dira Zabaloetxe egoitzan (71 berriro sartutakoak izan dira).

Hona hemen urtez urteko datuen bilakaera:
- 1996: 5 adingabe (5 sarrera)
- 1997: 12 adingabe (15 sarrera)
- 1998: 23 adingabe (23 sarrera)
- 1999: 30 adingabe (48 sarrera)
- 2000: 52 adingabe (59 sarrera)
- 2001: 349 adingabe (370 sarrera)
- 2002: 266 adingabe (337 sarrera)
- Denera (1996-2002): 737 adingabe (858 sarrera)

Bizkaiko Foru Aldundiak Urdulizen hirugarren zentro bat zabaltzeko ahalegin hutseginaren ostean –proiektuak herritarren aurkako erantzuna piztu zuen-, harrera beharren erantzuna lehendik zeuden bi zentrotara bideratu da (Zabaloetxe Loiun, eta Gabriel Mª de Ibarra Urduñan), eta buru jabetzen laguntzeko zenbait pisu abian jarri edo aprobetxatzera.

Loiuko zentroa hasierako harrera gune gisa ari da eta, beraz, mugimendu handia dago (sarrera asko eta aldegite asko). Urduñako zentroaren errealitatea, berriz, askoz ere egonkorragoa da. Hemen artatutako herritarrak dauden 30 tokien inguruan

mantentzen dira beti. Uzteak adinez nagusi izatera heltzen direnean gertatzen dira (5 kasu 2002an), ihes egiten dutelako (6 kasu), edo barnerapeneko neurri judizial bat betetzeagatik (beste 6 kasu). Sarrerak, normalean, Loiutik etortzen dira, leku aldaketen ondorioz (15 adingabe 2002an), eta pare bat kasutan, erreforma zentroetatik etorri dira.

Hona hemen Loiun 2002an zehar izandako datuen bilakaeraren laburpena:

| HILA | SARRERAK | UZTEAK | HILEAN ARTATUAK AZKENEAN | GUZTIRA HILAREN |
|---|---|---|---|---|
| 2001-12-31n | | | | 97 |
| URTARRILA | 49 | 67 | 146 | 79 |
| OTSAILA | 31 | 35 | 110 | 75 |
| MARTXOA | 28 | 27 | 103 | 76 |
| APIRILA | 22 | 22 | 98 | 76 |
| MAIATZA | 20 | 28 | 96 | 68 |
| EKAINA | 19 | 23 | 87 | 64 |
| UZTAILA | 21 | 26 | 85 | 59 |
| ABUZTUA | 27 | 20 | 86 | 66 |
| IRAILA | 29 | 23 | 95 | 72 |
| URRIA | 41 | 45 | 113 | 68 |
| AZAROA | 26 | 27 | 94 | 67 |
| ABENDUA | 24 | 20 | 91 | 71 |
| GUZTIRA | 337 | 363 | 1.204 | 938 |
| **HILEAN BATEZ BESTE** | **28** | **30** | **100** | **72** |

(Iturria: 2002ko Memoria, Zabaloetxe egoitza)

Urduñako Zentroko azkeneko urteko datuei dagokienez, 17 berri sartu ziren, 16k utzi zuten, hileko egonaldiak 351 izan ziren eta hilean artatutako adingabeak, batez beste, 29 baino gehixeago izan ziren.

Erakunde honek hainbat urte darama egoeraren jarraipen xehatua egiten. Jarraipena zentroen baldintza fisikoetara, hezkuntza proiektuetara, jarduera protokoloetara, administrazioko egoeren erregularizatzeari dagokionez lortutako emaitzetara (dokumentazioa), tutoretzaren ariketara, baliabide erkideen aprobetxamendura (hezkuntza, osasun, kirol, lanbide hastapen eta abarretakoak), kultura desberdinen errespetura, buru jabetza eta laneratze aukeretara... bideratu da. Horren guztiaren berri lehenagoko txostenetan eman da (cfr., esaterako, “Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Bizkaiko Lurralde Historikoa”, 2001eko Txosteneko 1.1.5 atalean).

Azkeneko urtean, Arartekoak kontu honetan izandako esku hartzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan, ondokoetan oinarritu da:
- Loiu eta Urduñako harrera zentroak bisitatzea.
- Adingabe lege urratzaileentzako barnerapen zentroetarako bisitak.

- Hainbat ertzain etxetarako bisitak.
- Azkeneko urteko dokumentazio eta datuen analisia.
- Aldioroko harremanak zentroetako zuzendariekin, erakundeetako arduradunekin eta atzerritarrei laguntzeko elkarteekin.

Batzutan, gero ikusiko den bezala, ikusitako egoerek edo jasotako datuek Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailean edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean ofizioz jardutera eraman gaituzte.

Burututako jardueretatik eta ateratarako informazioetatik ondoko elementuak azpimarratuko genituzke:

- Bizkaiko Foru Aldundiak adingabe horientzako erakundeen erantzuna emateko baliabideak mantendu ditu. Hona hemen baliabide horiek zertan zehazten diren:
  - Zabaloetxe zentroa, Terciarios Capuchinos-ek kudeatuta, zentroan bertan 54 adingabe hartu, prestatu eta gizarteratzeko, eta besteren batzuk buru jabetza prozesu edo baliabideetan sartuta edukitzeko.
  - Urduñako Gabriel M ª Ibarra zentroaren erabilpena, halako ezaugarrietako 30 gazte hartzeko modukoa.
  - Lankidetza Ituna Etorkin Magrebtarren AZRAF Elkartearekin.
  - Buru jabetzeko baliabideak bultzatzea, 18 urte betetzen dituztenentzat (2002 urtean 11 gazte tutoretzapeko pisuetan eta 23 gazte alokairuko pisuetan).

- Hona hemen hartutako adingabeen ezaugarriak –adin eta jatorriak-, laburbilduta:
  - Sartzean adingabeek adierazitako adina, batez beste, 16 urtekoa izan da. 12 urtetik 17ra bitartean egoten da, eta gehienak 16 edo 17 urte dauzkatela diotenak dira.
  - Kasu askotan, esandako adina ez dator ondoren hezur edo dokumentu frogen bidez egiaztatu ahal izaten denarekin bat. Esandakoa gutxixeago izaten da. 2002 urtean egiaztatutako adinen batez bestekoa 16 urte eta 6 hilabetekoa izan da.
  - 2001eko egiaztapenen arabera, hartutakoen %43 adinez nagusiak ziren. Azkeneko urtean portzentaje hori %20raino jaitsi da.
  - Azkeneko urtean 8 herrialde desberdinetatik zetozen adingabeak hartu dira. Gehien-gehienak (266tik gutxienez 241) Marokkotik datoz, aurreko urteetan bezala, eta ia erdia Tangerretik dator.
  - Hona hemen gazte horien jatorrizko lurraldeak: Aljeria (13), Bielorrusia (1), Ginea Bissau (1), Marokko (241), Moldavia (1), Palestina (7), Errumania (1), Sri Lanka (1).

- Harrera zentroko egonaldiaren arabera –datu gakoa tutoretza, dokumentazio, prestakuntza edo laneratze kontuetan iristeko moduko xedeak baloratzeko orduan, Zabaloetxe egoitzan azkeneko urtean izandako sarrerak hauxe adierazten dute:
  - 104 adingabek zentroak 1 egunetik 6ra arte eman dutela.
  - 75 adingabek, 7 egunetik 30era.
  - 49 adingabek, 31 egunetik 90era.
  - 38 adingabek, hiru hilabetetik gora.

  Aurreko urtearen aldean, sarrera berrien batez besteko egonaldia nabarmen jaitsi da.

Urduñako zentroa urtean zehar utzi dutenen adingabeen batez besteko egonaldia, ordea, ia hamaika hilabetekoa izan zen. Urte amaieran, adingabeen ia erdiak (14) zentroan 2001ean hasi zenetik zeramaten (hau da, 18 hilabete).
Komeni da esatea, kasu askotan, adingabe hauek antzeko beste harrera zentro batzuetan ere egon direla (Andaluzian, Katalunian, Madrilen...) Bizkaira etorri baino lehen.

- Bizkaiko zerbitzuetan azkeneko urtean hartutako kolektiboaren ezaugarrien artean, ondoko hazpegiak nabarmentzen dira:
  • Nerabe adingabeak, 14 urtetik 17ra bitartean, bakarrik dauden atzerritarrak, paperik eta etxerik gabeak: %78.
  • Gazteak, 18 urtetik 24ra bitartean, adingabe gisa pasatzen direnak: %22.
  • Familiaren erabateko babes gabezia, askok familiarekin urruneko harremanak izan arren.
  • Ingurunea ia bat ere ez ezagutzea.
  • Jatorri desberdinak, baina marokkoar proportzio handia (10etik gutxienez 9), eta afrikarrak ia guztiak (%96).
  • Beren herrialdeetatik modu desberdinetan ihes egin dutenak.
  • Sartzen direnean beren familia eta pertsona mailako egoera ez ezagutzea.
  • Hizkuntza ez jakitea, askotan.
  • Kultura balio desberdinak eta sarritan irrealak diren igurikapenak.
  • Dokumentaziorik ez, eta sarritan, mesfidantza eta datuak ezkutatzea.
  • Prestakuntza gutxi eta oinarrizko ikasketen beharra.
  • Zenbaitetan, jokabide arazotsu eta giza harremanen aurkakoak.

  Ezaugarri horiek dira zer artapen behar duten zehazten dutenak: babesa, prestakuntza, dokumentazioa izapidetzea, gizarte trebeziak garatzea, inguruneko baliabideak ezagutzea, jatorrizko familiarekin harremanetan jartzea, laneratzeko ikaskuntza eta esperientziak...

- Zenbait datu hartutako babes neurrien edo adingabeok gizarteratzeko iritsitako lorpenen adierazle gisa har daitezke. Hartara, azkeneko urtean, Zabaloetxen hartutako adingabeei dagokienez:
  • Hamar adingabekotik bederatzirengan tutoretza egin da.
  • 30 gaztek lan baimena lortu dute: 6k erregularizatze prozesuaren bidez, 16k errotze prozesuaren bidez eta 8k ez-ohiko arrazoiengatik.
  • 45 gaztek lan esperientziaren bat izan dute, eta horietatik 41ek lanean segitzen dute.
  • 122k lan aurreko prestakuntzako jarduera desberdinetan parte hartu dute (ikastaroak eta praktika aldiak).
  • 34 gazte harrera saretik irten dira, tutoretzapeko pisuetara (11) zein alokairuko pisuetara (23).

  Urduñan hartutako adingabeei dagokienez, azkeneko urtean:
  • Berton bizitzeko 10 baimen eskatu ziren, 4 izapidetzea eta 12 berritzea lortu zen;

- 32 gaztek lanbide hastapeneko ikastaroak egin dituzte, 1ek konpentsazio hezkuntzakoak eta 7k alfabetatzekoak (EPA);
- 4 lan baimen lortu direnez, 4 gazte laneratzea lortu da;
- 3 gazte tutoretzapeko pisuetara joan dira eta 1 alokairuko pisu batera.

Zentroetako baten urteko memorian jasotzen den bezala, gizarte eta lan mailako integrazioa *"lan prozesuaren azkeneko fasea da baina sarritan ondo burutzen zailena ere bai, sortzen diren zailtasunen eta denbora premiaren ondorioz. Adingabeen lanaren eta ahaleginaren benetako helburua da, eta kasu askotan ez da erabat amaitzera heltzen, oztopo ugari sortzen direlako, eta prozesuaren arrakasta ziurta dezaten baliabideak urriak direlako."*

- Lege aldeko egoeraren eta dokumentazio prozesu eta lorpenaren gainean, gehiengoarentzat (Zabaloetxen hartutakoak), azkeneko bi urteetako datuen konparazioak azkeneko urtea nabarmen okerragoa izan dela erakusten du, bereziki berton bizitzeko baimenen eskariei dagokienez:

| | | |
|---|---|---|
| - Lan baimenak: | 17 2001ean; | 30 2002an. |
| - Berton bizitzeko baimenak: | 29 2001ean; | 55 2002an. |
| - Berton bizitzeko baimen eskariak: | 193 2001ean; | 24 2002an. |
| - Pasaporteak: | 224 2001ean; | 36 2002an. |
| - Pasaporte eskariak: | 15 2001ean; | 31 2002an. |

Laburpen orokor gisa, esan daiteke 2002 urtean adingabe eta gazte papergabeen proportzioa %56koa izan dela (138 adingabe), 2001ean izandako %77,36en aldean (270 paperdun), eta datu horrek egoera legeztatzeko ondorengo izapideak baldintzatzen ditu.

Bestalde, azkeneko urtean izapidetutako berton bizitzeko baimenen 24 eskarietatik 8 baino ez dira lortu. Eta izapidetu diren 31 pasaporte eskarietatik 17 lortu dira. Gai honi geroago berriro helduko diogu.

- Loiuko zentrora (Zabaloetxe) abenduaren 11n joan ginen, eta Urduñakora (Gabriel Mª de Ibarra) biharamunean. Bi zentroak beren ahalbideen mugaraino erabiltzen ari ziren: 30 toki Urduñan eta itunpeko 54 toki Loiun. Horri buru jabetzeko pisuetako tokiak gehitu behar zaizkio. Guztiak mutilentzat (neskarik bat ere ez).

Taldeen egitura eta zentroen barruko antolamendua funtsean berdin mantentzen zen: txanda desberdinetan hezitzaile magrebtarrak sartuak ziren, Urduñako zentroaren zuzendaritzan aldaketaren bat izan zen, aurreko zuzendaria hil zelako.

Behin datu guztiak aztertu ondoren (instalazioen egoera, langilerien egoera, zentroek eskariei erantzuteko ahalmena, esku hartzeko irizpideak, beste instantzia batzuekiko koordinaketa, dokumentazioen izapideak; buru jabetzeko aukerak, gatazka egoerak…), esan dezakegu ikusi ditugun arazo nagusiak hauek direla:

1. Bizkaiko Foru Aldundiak adingabeen dokumentazioaren izapideetarako ezarritako irizpidea eta bere ondorio larri ezkorrak.

Aurreko urteetan ez bezala, zeinetan berton bizitzeko baimenaren izapidea zentroak berak eta ahal zen bezain laster egiten baitzuten, 2002an Bizkaiko Foru Aldundiak izapideak adingabea hartu eta 9 hilabete beranduagora arte ez hasteko irizpidea ezarri zuen, eta zerbitzua zentroekin zerikusirik ez zeukan elkarte bati kontratatu zion.

Irizpide aldaketa otsail aldera izan zen, eta horren berri zabaltzean, iturri guztien arabera, harrera eskariak eta egonaldiak nabarmen jaitsi ziren. izan ere, 2002ko otsailetik azarora bitartean, irizpidea eta prozedura aldatu zirenez, ez zen berton bizitzeko baimen bat ere izapidetu. Haurren Zerbitzuak zentroetara bidalitako idatzian honelaxe dio:

*"Adingabea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan jarri denetik 9 hilabetera, behin jatorrizko bere familiarengana itzultzen saiatu ondoren, halakorik lortu ez bada, 4/2000 Lege Organikoaren 35.4 artikuluak hizpide duen berton bizitzeko baimena izapidetzeari ekingo zaio, Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren Aginduaren bidez."*

Elkarrizketatutako profesionalen iritziz, irizpide aldaketa horrek azkeneko urteko lan guztia eta igurikapenak baldintzatu ditu. Ondorio txarren artean (baimenak lortzeko ageriko atzerapenaz gain), beste hauek ere aipatzen dira:

- adingabeek motibazioa galtzea eta motibazioa hezitzaileen esku hartzeko elementu gisa baliatu ezina;
- beste toki batzuetara ihes egitea, edo delinkuentzia egoeretara igarotzea;
- kontraesana babes zein erreformako beste zerbitzu batzuetan erabilitako irizpideekin (horrek zerbitzuen arteko lekualdaketak eragiten ditu);
- atzerapena buru jabetzako prozesuetan (lan eskaintza zehatzak izan arren, baimenak lortzeko atzerapenaren ondorioz onartu ezin dituzten adingabeak).
- taldeen barruko bizikidetasuna eta ingurunearekiko harremanak hondatzea…

Gai honen gainean, bi zentroetara eta erreformako beste zentro batzeutara egindako bisiten ondoren, Arartekoak, duen garrantziaz jabetuta, 2003ko urtarrilean Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailean ofiziozko espedientea hasi du, non erabilitako irizpidearen aurka dagoela adierazten duen eta informazio eta datu gehiago eskatzen duen. Txosten hau ixteko orduan oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso.

2. Hezkuntza Administrazioak ere ez du behar beste laguntzen adingabe hauek eskolatzeko arazoak ondo konpondu ahal izateko.

   Iaz, jada, Urduñako zentrora egindako bisita baten ondoren, erakunde honek ofiziozko espediente bat abiatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat. Sailak 2001eko urriaren 15ean erantzun zigunarekin, pentsarazi zigun igarritako arazoak konponduta zeudela. Ez zen, ordea, horrela eta, gainera, arazo batzuk larriagotu ere egin ziren.

   Egiaz, alde honetan izandako bilakaera ona izan da, harrera zentroetako zuzendaritzek eta hezitzaile taldeek hartutako adingabe asko eskolatzea lortu dute, baina ahalegin handia eginez, eta eskolekin harreman zuzenean egonez. batzuetan gertuen dauden ikastegiekin, beste batzuetan urrunago egon arren adingabe hauen beharrei erantzuteko prest dauden edo programa egokiagoak dituzten zentroetan.

Hartara, esaterako, azaroan, Zabaloetxen hartutako 76 adingabe atzerritarrek eskola erantzunen bat izana zuten: 27k harrera zentroan bertan, bertoko baliabideekin edo eskola sistemaz kanpoko irakasleak zuzenean kontratatuta; 49 ikastegi (gehienetan CIP) eta herri desberdinetan: Portugalete, Erandio, Santutxu, Errekalde, Urtuella, Mungia, Trapagara, Larrondo, Leioa, Ollargan, Amurrio, Arrigorriaga...

Urduñan hartutako adingabeen kasuan, geografiaren ikuspegia kontuan hartuta, hezkuntzarako erantzuna Bizkaian zein Araban bilatzen da (Laudion eta Amurrion).

Baina jasotako informazioen arabera:

- Oraindik ere arazoak daude Administrazioarekin edo hezkuntza zerbitzuekin hitz egiteko orduan (Ordezkaritza, Ikuskaritza, Berritzeguneak).
- Hizkuntza ikasteko hasierako beharrei ez zaie erakundeetatik erantzuten.
- Administrazioak ukatu egin ditu gertuko ikastegiak erabiltzeko edo horietan berariazko baliabideren bat sortzeko proposamen batzuk.
- Hezkuntza Sailaren mendekoa den eta tradizioz Zabaloetxera adingabe ez-atzerritarrei eskolak ematera joan izan diren irakasleak ez ziren izendatu, edo gutxienez ez ziren zentroan abenduaren 9ra arte agertu.

Gai horiek guztiak planteatu zaizkio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, 2003ko urtarrilaren 17ko ofiziozko espediente berrian, eta txosten hau idazten ari garenean sailaren erantzunaren zain gaude.

3. Babes sistemaren eta erreforma sistemaren arteko lotura.

   Kezkagarria da babesteko hartutako adingabeetatik barnerapen zentroetan amaitzen dutenak hainbeste izatea, bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan (txosten honetan, 1.1.6 atalean zenbait datu ikus daiteke). Zenbakizko datuaz aparte, berez babes sistemak zerbait huts egiten ari delako zantzua izan daitekeena, zentro desberdinetara egindako bisitetan beste arazo batzuk ere ikusi ahal izan ditugu, zerbitzuen arteko koordinaketan, sistema batetik bestera igarotzean hezkuntzako esku hartzeetan jarraitasunik ezean, neurria amaitzean alternatibarik ez edukitzean (buru jabetzarako bitartekoak), edo dokumentazioak izapidetzean (atzerapenak, dokumentazioa iraungita, irizpideak bat ez etortzea dokumentuen izapideetan....). Lau arazo horiek neurri handiago edo txikiagoan ageri ohi dira zerbitzu guztietan.

   Txosten hau idazteko orduan, Ararteko erakundea ofiziozko jarduerak abiatzeaz edo erakunde arduradunei gomendioren bat egiteaz pentsatzen ari da: hiru Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari.

4. Baliabide mugatuak daude (bereziki egoitzetan), adingabe hauek buru jabetzeko prozesuak sustatzeko.

   Babesteko edozein esku hartzeren amaierako helburuak autonomia lortzea izan behar du, gizarteratze normalizatua iristea. Helburu hori lortzeko, sarritan, batez ere egoera bereziki ahuletan, buru jabetzara arian-arian heltzeko prozesua behar izaten da. Prozesu hori lortzeko berariazko baliabide mugatuak izatea da, antza, gure sistemaren defizitetako bat, gure txosten askotan behin eta berriro seinalatu izan duguna.

Eskuartean daukagun kasuan, 2002aren amaieran, erabilitako baliabideak, funtsean, tutoretzapeko pisuak eta alokairuko pisuak ziren. Ordura arte, lehenago harrera zentroan artatutako adingabe edo gazte atzerritarretatik gutxienez 34 pisuetara joanak ziren bizitzera, autonomia handiago ala txikiagoz: zenbait kasutan (23), alokairuzko pisuetara, zentroak zuzenean kudeatuta eta zentroko hezitzaileen jarraipenarekin; beste batzutan (11 gazte), elkarte edo erakunde desberdinek (Goiztiri, Elkarbanatuz, Gurutze Gorria y Cáritas) kudeatutako pisuetara. Hiru kasutan familiekin bizitzera joanak ziren.
Bide horiez egiten den balorazioa, oro har, oso ona da. Hala ere, dauden baliabideei gutxiegi irizten zaie dauden beharrei erantzuteko. Are gehiago baimenak lortzeko atzerapenaren ondorioz, nahikoa prestakuntza ona eta enplegu eskaintza sendoak dauzkaten pertsonak, lan egin lezaketenak eta diru aldetik erabat autonomo izan litezkeenak, ezin dituzte kontratatu, eta gizarteratzeko dituzten benetako aukerak baldintzatuta geratzen dira.

5. Hezur frogetako atzerapenen ondoriozko arazoak.
Egun, hezur frogen emaitzak zentroan sartu eta 15 edo 20 egunetara jakiten diren. Emaitzak gaztea adinez nagusia dela adierazten badu, zentrotik bota egin behar da, eta horrek tentsioak eta auziak sortzen ditu. Onena litzateke frogak zentroan sartu aurretik egin ahal izatea edo bestela, oso tarte laburrean.
Bestalde, azkeneko urteetan frogetatik ateratako emaitzei dagokienez, zenbait kasutan emaitzak adinez nagusiak direla esan eta, eskatutako dokumentazioa heltzean, adingabea dela ikustea gertatu izan da, eta horrek erabakiak hartzea zailago egiten du (hartzea – botatzea - berriro hartzea).

Ikusi edo jaso ditugun beste arazo batzuek ondoko gaiei buruzkoak dira:
- Atzerapenak osasun txartelak eskuratzeko (6 hilabete ere) eta zailtasunak zenbait izapide egin ahal izateko exijitzen diren egiaztagiri medikoak lortzeko.
- Erreparoak edo tentsio egoerak berehalako inguruneko pertsonekin.
- Zabaloetxeko instalazioan eragindako sutearen eta izandako erasoaldiaren Ertzaintzaren ikerketa gelditzea edo emaitzarik ez lortzea.
- Urduñako zentroan apropos apurtutakoak eta instalazioen egoera.
- Aldaketak sarri (gaixo egoera, uzte edo ordezkapenengatik) hezitzaileen taldeetan, eta langile gehiago sartzeko eskariak.
- Informatizatzeko beharrak, eta garraio beharrak…

- Zabaloetxe egoitzak egindako 2002ko memoriak, bertatik hartu ditugu aurreko datu asko eta asko, azkeneko atalean hemen jorratutako gaietako askoren gaineko hainbat ondorio bildu ditu: dokumentazioa, hizkuntza ikastea, laneratzea, etxebizitza partekatuetara sartu ahal izatea, ingurunean txertatzea, harrera epearen osteko jarraipenak… Gai horietako bakoitzaren gainean eskaini eta aztertzen ditu urteko datuak, bai lorpenak bai arazoak, eta konpondu edo hobetzeko balizko bideak iradokitzen ditu. Datu eta proposamen horietako batzuk berriro jorratu dira, arestiko lerroetan, Gabriel Mª de Ibarra zentroak prestatutako memorian jasotako beste hainbat datu eta proposamen bezala.

Badirudi garbi dagoela erakundeen ahalegin guztiak adingabe horiek gizarteratzea erraztera bideratu behar dira. Errazte hori, funtsean, “paperak” eskuratzean zehazten da, eta lan mundura laster sartzeko eta buru jabea izateko behar diren ikaskuntzetan. Horrela baino ez baita nahi ez diren egoerak edo delinkuentzia kasuak gehitzea saihestu ahal izango.

C) **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Lurralde honetan, 2002an, sarrerak eta adingabe atzerritarrak pixka bat gutxitu dira aurreko urtearen aldean. Hona hemen bilakaeraren datuak, laburbilduta:

| | | |
|---|---|---|
| - 1996: | 2 adingabe | (2 sarrera) |
| - 1997: | 28 adingabe | (29 sarrera) |
| - 1998: | 82 adingabe | (97 sarrera) |
| - 1999: | 103 adingabe | (268 sarrera) |
| - 2000: | 85 adingabe | (148 sarrera) |
| - 2001: | 159 adingabe | (182 sarrera) |
| - 2002: | 117 adingabe | (149 sarrera) |
| - Denera (1996-2002): | 576 adingabe | (875 sarrera) |

Adingabe hauentzako berariazko zentroei dagokienez, azkeneko urteetan Irunen dagoen pisu bat eduki da (larrialdiko harrera), eta Martuteneko egoitza ere bai, biak Gurutze Gorriak kudeatuta. Lehenengo kasuan, beste toki batzuetarako bidean zihoazen edo, gutxienez, horren esperantzan zeuden adingabeak hartzen ziren; bigarrenean kolektiborik egonkorrena edo hemen gelditzea aukeratzen duena hartzen da. Errealitate bikoitz hori zentroetako bakoitzean hartutako adingabeen kopuruan eta bakoitzeko batez besteko egonaldietan islatzen da. 2001 urteko datuetan:

- Irun: 114 adingabe artatuta; egonaldia, batez beste: 7 egun.
- Martutene: 16 adingabe artatuta; egonaldia, batez beste: 126 egun.

Azkeneko bi urteetan (cfr. “Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak”, 2000ko zein 2001eko txosteneko 1.1.5 atala), erakunde honek behin eta berriro azpimarratu ditu ondorengoak bezalako kontuak: Irungo pisuaren mugak, hezitzaileen taldean atzerritarren kultura eta hizkuntza ezagutzen dituztenak sartu behar direla, ikuskatu, kontrolatu eta bermatzeko mekanismoak hobetu behar direla, kalean bizi diren adingabe atzerritar babesgabeen kolektiboaren arazoei aurre egin behar zaiela...

Artapen sareari dagokionez, aurtengo berritasunik aipagarriena Irungo pisua itxi dela eta Urnietan zentro berria zabaldu dela izan da, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arartekoari 2002ko urtarrilaren 11ko idatzian aurreratu zion bezala: *“Aurreikusita daukagu bakarrik dauden adingabeen Larrialdietako Harrera Zentroa berehala lekuz aldatzea, Irundik beste herri batera, oraingoaren egitura fisikoak ez baitu egoitzaren hezkuntza jarduera egokiro garatzeko aukerarik ematen, eta Irun, muga hiri izanik, artatuen gizarteratzea errazten ez duen tokia dela uste dugulako”.*

Aurtengo jarraipena zentro berrira eta Martuteneko zentrora egindako bisitetara bideratu da, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak bere gain hartuta dauzkan bi zentroetako zuzendaritza edo koordinatzaileari datuak eskatzera. Hemen bisitetan edo jasotako datu eta informazioetan ikusitako alderdirik garrantzitsuetan islatu ditugu.

Arartekoa bera eta gure erakundeko beste langile batzuk abenduaren 5ean joan ziren Urnietan dagoen larrialdietako harrera zentro berria ikustera. Irundik hara otsailaren 13an aldatu ziren, eta egun horretan 4 adingabe zeuzkaten zentroan hartuta.

Zentroaren instalazioei eta harrera ahalmenari dagokienez, aldaketak hobekuntza nabarmena ekarri du. Bizitza bakarreko etxea da, alokairuan hartuta, bi solairu dituena: sarrera, sukaldea, egongela, bainu gela eta hezitzaileentzako logela bainu gelarekin, beheko solairuan; goian birentzako lau logela eta bainugela bat; horri tailer modura erabil litezkeen garaje handia gehituta.

Txandaka ari diren 5 hezitzaile, egun erdiz laguntzeko dagoen pertsona bat, sukaldari bat, eta zentro horren eta Martutenekoaren koordinaketaz arduratzen den pertsona dira bertoko langileria. Zentroaren helburua hasierako harrera egitea da eta, jarraitzen duten adingabeen kasuan, hiru bat hilabeteko behaketa eta balorazi epea aurreikusten da. Izan ere, zentroaren erabilpenaren datuek mugikortasun handia adierazten dute: urtean zehar 117 adingabe igaro dira bertatik (149 sarrera); gehienak beste toki batzuetara joaten dira eta 4 besterik ez dira Martuteneko zentrora igaro. Gehienak Tangerretik datoz eta ia guztiak lehenago Bartzelonan edo Kataluniako beste nonbaiten egon dira (adingabeen %90 edo).

Kudeaketa eredua eta lan baldintzak lan hitzarmenaren urteroko berritzearen mende daude: sinatu zen azkeneko hitzarmenean langile gehiago hartzea lortu zen eta, soldatei dagokienez, irakaskuntza pribatuko hitzarmenaren %80 ingurukoak dira.

Bisitan zehar erakunde honen ardurako eskubideen defentsaren ikuspegitik ohikoak izaten elementu desberdinak ikuskatu ziren: instantzia eskudun desberdinen arteko koordinaketa, oinarrizko eskubideen estaldura (hezkuntza, osasuna…); intimitatea eta desberdinaren errespetua; erkidegoaren baliabideen erabilpena eta ingurunean integratzea; zentroaren beraren antolamenduaren elementuak…

Hona hemen gai horien inguruko zenbait alderdi adierazgarri:
- Jarduera irizpide bateraturik ez izateak, edo baliabideen prestutasunean dauden diferentziek adingabeak lurralde batzuetatik bestera ibiltzea eragiten dute: lurralde batetik nahita zein halabeharrez aldatutakoak, plazak goraino beteta egotearen arazoak, edo zentroen artean dokumentazioa izapidetzeko orduan koordinazio arazoak… Kasu honetan, Kataluniatik etorritakoak dira, baina baita Bizkaitik ere.
- Zentroa zabaldu zenean, hasieran, harrera arazoak izan zituztenez, eta herriko udaltzain eta agintariek ere desegoki tratatu zituztenez, etxearen jabeek alokatzeaz zalantzak izan zituzten. Informazioa baliatu zen amore eman ez zezaten eta, zenbait kasutan, aldioroko koordinaketako bilerak egin ziren.
- Alde desberdinen jarduera irizpideak finkatzen zituen protokoloa edo dokumentua berrikusi da (Aldundia, fiskaltzak…).
- Hezur frogak, aldeak adostuta, zentro pribatu batean egiten dira, eta emaitzan egun gutxitan jasotzen dira.
- Aldundiak ulertzen du ez duela tutoretza izapidetzen hasi behar harik eta adingabea hartu denetik bederatzi hilabete igaro arte. Irizpide horrek ondore txarrak ditu

adingabearen dokumentazioari dagokionez, prozesu guztia atzeratzen baita.
- Zentroetako baliabideekin emandako gaztelania eskolak mantentzen dira, edo eskolatze ondoreetarako CIPrekin harreman zuzena izatea, baina Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko eta beharrei azkar erantzutea lortzeko arazoak daude.
- Baliabide erkideak ondo aprobetxatzen dira (ludoteka, kiroldegia, gaztelekua...).
- Hezkuntza jarduerarako bitartekorik gehienak (zentroko proiektuak, arautegia, bizikidetasun arauak, banan-banako planak....) berrikusten ari dira.
- Dokumentazioa lortzea da arazo nagusia.
- Polizia desberdinekiko harremanei dagokienez, Ertzaintzarekin nolabaiteko koordinaketa mantentzen da, batzuetan hainbat eskariri (ihes edo lekualdaketen kasuetan) erantzuterik ez daukan arren. Donostiako udaltzainen jarduerei buruzko kexa nahikoa jasotzen da: ezagupen birak, biluztarazteak, hitzezko probokazioak, eskuburdinak erabiltzea...

Martutenerako azkeneko bisita 2003ko otsailaren 6an egin genuen. Egun horretan 7 adingabe zeuden zentroan, guztiak eskolatuta edo kanpoko ikasketa, edo lan jardueretan sartuta. Langileek 5 hezitzaile izaten jarraitzen dute, eta zentroaren ezaugarriak eta dinamika aurreko urteetakoen oso antzekoa da (aurreko txostenetan islatu ditugu). Zentroak dauden tokiak 9 dira orain ere, eta normalean denak edo ia gehienak beteta egoten dira.

2002ko Memoriako datuak, Gurutze Gorriak emandakoak, hauek dira:

| | **LARRIALDIKO HARRERA (Urnieta)** | **EGOITZA (Martutene)** |
|---|---|---|
| Sarrerak urte osoan | 149 | 8 |
| Artatutako adingabeak | 117 (10 neska) | 15 (1 neska) |
| Egonaldia, batez beste | 3 egun | — |
| Berriro etorritakoak | 19 adingabe | — |
| Jatorriak | Magreb: 83<br>Europa: 14<br>Afrika Subsah.: 8<br>Hegoamerika: 3<br>Asia: 3<br>Besterik: 4 | Magreb: 13<br>Afrika Subsah.: 1<br>Hegoamerika:1 |
| Adinez nagusiak (hezur frogaren arabera) | 14 | — |
| Dokumentazioa izapidetzen | 0 | 3 |
| Berton bizitzeko baimena | 0 | 4 |
| Lan baimena | 0 | 2 |
| Buru jabeak | 0 | 4 |

Jasotako datu eta informazio guztiak kontuan hartuta, esan daiteke Bizkairako aztertu ditugun arazoetako asko hemen ere badaudela. Bereziki, ondokoei buruzkoak:

- Tutoretzak hartzeko eta dokumentazioa izapidetzeko erabiltzen diren irizpideak.
- Irteera ahalbideak eta buru jabetza errazteko baliabide gutxi.
- Babes sistemaren eta erreforma sistemaren arteko lotura.

Lehenengo gaiari dagokionez, berak baldintzatzen baitītu lan guztia eta integrazio ahalbideak, Foru Aldundiak adingabea hartu denetik bederatzi hilabete igaro arte tutoretza bere gain hartzeko izapideak ez hasteko irizpideari eusten dio. Eta denbora hori igaro ostean soilik, behin tutoretza onartu denean, hasten dira berton bizitzeko baimena lortzeko izapideak, beste 8 edo 9 hilabetez luzatzen direnak. Datuen koadroan azkeneko urtean izapidetu edo lortutako dokumentazioaren gaineko hainbat jaso dira. Eta Bizkaiari dagokion atalean (B) irizpide horri eustearen ondorio okerrak eta Arartekoaren desadostasuna agerrarazi dira. Hartara, bada, kasu honetan ere, Arartekoak ofiziozko jarduerak abiatu ditu, gai horrengatik, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Sailean.

Zentroetan hartuta egon gabe, bere kabuz eta, ziurrenik, legez kanpoko kontuetatik bizi diren bakarrik dauden adingabeen arazoei dagokienez -Gipuzkoakoa, beren beregi-, ez da erraza informazio fidagarririk izatea. Gainerako arazoei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikorako esandakoari begiratu.

* * *

- **Dolaretxeko larrialdietako zentrorako bisita (Bilbo)**

Zentro hau Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago, eta oso ume txikiak hartzen ditu: jaioberrietatik hiru edo lau urtera bitartekoak. Horretarako prestatuta dagoen bizitza bakarreko etxe batean dago, eta lehenago ere ikustera joan ginen, txostena egiteko. Titularitate publikokoa da (IFASek kudeatzen du), 20 toki dauzka eta hiru txandatan banatzen diren 22 pertsonak, soslai profesional desberdinetakoak egiten dute bertan lan.
Zentroa ikustera irailaren 17an joan ginen. Instalazioak begiratu ziren, espedienteren bat aztertu zen, baita erregistroen erabilpena ere, zuzendariarekin bilera egin genuen, bertan zeuden sarrerako eta arratsaldeko txandetako profesionalik gehienekin hitz egin genuen…
Instalazioei dagokienez, kanpoko pinturan hobekuntzak egin ziren eta leihoetako eta balkoiko egurretan konponketa batzuk egitea falta zen. Espazioak eta altzariak, solairuetan, zentroaren beharrei erantzuteko ondo banatuta zeuden, adin desberdinen arabera (sehaskak, biberoien esterilizatzaileak, jostailuak eta jolas guneak, segurtasun elementuak…). Zentroak barruko igogailu bat ere badauka, solairu desberdinak komunikatzeko helduen laguntzarik gabe erabili ezin dena.
Zentroaren erabilpen maila gutxituz joan da azkeneko garaietan. Bisita egunean harrera zentroan 15 haur zeuzkaten, eta bi urtetik gorako guztiak eskolatuta zeuden. Zentroko batez besteko egonaldia oso altua da: bi urte ingurukoa.
Bertan artatzen dituztenak oso txikiak direnez, eta nolakoak diren kontuan izanik, garbi dago oinarrizko betebehar guztiak asetzearekin lotutako gai guztiak garrantzitsuak direla, baita haurtxoekin nola jardun eta zaintzeko irizpideak ere. Azkeneko horri

dagokionez, egindako bisitari esker profesional desberdinen artean dauden desadostasunen eta kezka gaien berri jaso ahal izan genuen: nola jokatu, zuzen, egoera desberdinen aurrean, esaterako, jaten ez duen edo lorik egiten ez duen ume baten aurrean. Baliteke irizpideetan ados ez egotea, hein batean behintzat, pertsona bakoitzaren prestakuntza eta ibilbide profesional desberdinen ondorio izatea (laguntzaileak, haur-zaintzaileak...). Dena dela, zentroak irizpide garbiak eduki behar ditu, eta zentroko arduradunek irizpideak bete daitezen zaindu behar dute.

Horren harira, erakunde honek hainbat ekimenen berri izan zuen, hala nola, nahi zuten zentroko profesionalek ikastaro bat egitera joateko aukera izan zutela, edo halako gauzak kontuan hartuko zituen zentroko proiektu bat egiteko urratsak egin zirela. Bide horiek egoki ikusten dira irizpideak adosteko eta, gure iritziz, jarduerak berrikusi edo ikuskatzeko beste prozedura batzuekin sendotu behar dira, edo jarduera onen eskuliburuak prestatuz, besteak beste.

Zentroaren egungo antolaketak ez du txanda bakoitzean arduradun eginkizunak bere gain hartuko dituen, edo une jakin batean zalantzak argitu edo erabakiak hartu ahal izango dituen pertsona bat egon behar denik finkatzen. Zuzendaria astelehenetik ostiralera zenbait orduz han egoten da, baina beste egun eta ordu batzuetan ez, jakina.

Ez dago, halaber, funtzionamendua ebaluatzeko edo eguneroko jarduketak hobetzen lagun lezakeen kanpoko ikuskaritza mekanismorik.

Hobetu behar diren alderdi materialei dagokienez, familien bisitetarako dagoen tokia oso txikia dela iruditzen zaigu, ez dela behar horietarako egokia.

Elikadurari dagokionez, menu desberdina, ugaria dago, zentroak berak finkatua, baina ez dirudi kanpoko inork ikuskatzen duenik menu hori.

Bisita egunean, profesionaletako batzuk bertoko langileen ordezkoak betetzen ari ziren, gaixo zeudelako. IFASen ordezkapen sistemaren oinarri bakarra gaixo egoerak estaltzeko erabiltzen den zerrenda bat da, bai adingabeen zentroetan bai hirugarren adinekoen zentroetan. Zerrenda independenteak egoteak, ziurrenik, espezializazio handiagoa egotea eta beharretara ondo egokitzea ahalbidetuko luke.

Eskolatzea edo zenbait kasutan, haurtzaindegietara joatea albo batera utzita, zenbait profesionalek uste dute ondo legokeela zentrotik kanpoko jarduera gehiagotan parte hartzea, baita artapen psikologikoa edo estimulazio goiztiarreko jarduerak indartzea ere.

- **Haurrak babesteko legea**

Erakunde honek behin eta berriro azpimarratzen du, urtero-urtero, gure Erkidegoaren esparrurako haurren eta nerabeen artapena araupetuko duen lege bat behar dela. Araudi horrek, besteak beste, harrera zentroen baimen, erregistro, homologazio edo ikuskapen araubideak garatu beharko lituzke, zerbitzu horiek eta beste batzuek garatzeko orduan irizpide bateraturik gabeko egungo egoera gainditu ahal izateko.

Izan ere, araudi horren beharra izan zen Arartekoak 1997ko bere ez-ohiko txostenean egindako bi lehen gomendioak, eta etengabe errepikatu izan duen arren eta ordutik hona denbora luzea igaro den arren, oraindik egiteke dagoen kontua da.

Lege zirriborro bat badago, baina duela sei urte, orduko txostena idazteko garaian ere beste zirriborro bat zegoen. Zirriborroak zirriborro izateari utzi eta lege proiektu

bihur daitezen premiazkoa dela adierazi besterik ezin dugu egin, behin lege proiektu direnean azkenean onetsi ahal izan daitezen eta eskubideen bermea hobetzea ekar dezaten.

- **Erakundeen erantzuna babesgabetasun egoeran dauden adingabeei**

  Babesik gabeko haurren eta bereziki ahulak diren alorren arazoei dagokienez, Arartekoak komunikazio bat aurkeztu zuen, Arartekoen Koordinaketarako Jardunaldietan, *"Ahultasun bereziko egoeretan dauden adingabeak eta erakundeen erantzunak. Hamar zailtasun eta esku hartu eta hobetzeko ahalbideak."* (Edukia ikusteko, ikus txosten honetako III. eranskina). Bertan ikusitako arazo ugari, kapitulu honetan jaso direnak laburbilduta ageri dira.

## 1.1.6. ADINGABE LEGE URRATZAILEEN GAIAN EGINDAKOAREN JARRAIPENA

Arartekoak adingabe lege urratzaileekin egindakoaren gainean prestatutako ezohiko txostena 1998an atera zen argitara eta Legebiltzarreko Buruari eman zitzaion. Txostenak, oro har, eta barruan daramatzan gomendioek erakunde desberdinei ukitzen die eta, bereziki, biri: Botere Judizialari –adingabeen fiskaltza eta epaitegia-, prozedurei, neurriak hartzeari eta neurrion jarraipen eta ebaluazioari dagokienez; eta Eusko Jaurlaritzari –bereziki Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari -, neurriak betetzeari dagokionean eta, beraz, bere esku jarritako baliabide eta bitartekoen multzoari dagokionez. Arartekoaren jarduera, Legearen aginduz, betetzea Eusko Jaurlaritzari dagokion kontu eta proposamenetara bideratu da.

1999an, Arartekoaren jarraipena gure Erkidegoan dauden adingabe lege-urratzaileentzako hiru barnerapen zentroetarako ikustaldiaren bidez eta, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eskatutako informazioaren bidez. Bisiten emaitzen eta sailetik jasotako erantzunaren berri urte horretako txosten arruntean eman zen (ikus 1999ko txostenaren I. atala, 1.1.6). Bertan gomendioak betetzearen inguruan ikusitako alderdi on zein txarrak azpimarratzen dira; neurri batzuen eta besteen bilakaerak alderatzeko datuak ematen ziren, eta arreta berezia jartzen zen askatasunaren murrizketa handiagoa dakarten zerbitzuen eragingarritasunerako garrantzitsuak diren lau alderditan:

- Barnerapen zentroen sarearen eraketan
- Horko profesionalen lan egoeran.
- Zerbitzu horiek beste artapen sare batzuekin duten lotura edo harremanean.
- Adingabeen irteera eta buru jabetza ahalbideetan.

Kontu berberei aditu zitzaien bereziki 2000n egindako jarraipenean. Arartekoaren erakundeko langileak berriro joan ziren Andoiu, Urtuella eta Aramaioko zentroak ikustera eta, ondoren, Ararteko erakundeak, ofiziozko bi espedienteren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailera eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera jo zuen. Espedienteetako batek adingabe lege-urratzaileak, barnerapenean zeuden bitartean, nola eskolatzen ziren zuen hizpide; bestean, arestian esandako lau alderdi horien gaineko informazio zehatzak eskatzen ziren, baita azkeneko bi urteetan burututako neurrien bilakaeraren eta zerbitzuen arauketaren gainean ere. Gainera, adingabeen zigor erantzukizunaren gaineko 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrilean indarrean jartzeaz eta lege horretan aurreikusitako neurri guztiak abian jartzeko behar ziren baliabide pertsonal eta materialak artikulatzearen garrantziaz balorazio xumea egiten zen (ikus 2000ko txostenaren I. atala, 1.1.6).

Iazko jarraipenari dagokionez, berriro joan ginen hiru zentroak ikustera, eta ofiziozko espediente baten bidez Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari informazio zabala eskatu zitzaion, hamar puntutan zehaztuta:

1. Barnerapen zentroen sarean sartutako aldarazpenak, Zumarragan diseinatutako zentroa zabaltzearen gaineko aurreikuspenak, eta gure egungo sarea zenbateraino izan zen azkeneko urteetako beharrei erantzuteko gai baloratzea.
2. Profesionalen lan egoera eta baldintzetan sartutako hobekuntzak (hitzarmenen ezaugarriak, prestakuntza, jarraipena, kudeaketa sistemak...).

3. Beharrei erantzuteko beste zerbitzu batzuekiko koordinazio eta lankidetza sistemak eta akordioak (bereziki barneratutako adingabeak eskolatu edo hezkuntzaren aldetik artatzeko, eta osasun artapena ere eskaintzeko).
4. Zentroetan hartu edo barneratutako adingabeen hezkuntza eskubidea bermatzeko neurriak araupetzen dituzten 2001eko azaroaren 7ko Aginduaren aplikaziorako egindako edo aurreikusitako urratsak.
5. Adingabe horien irteera errazteko abian jarritako berariazko programa edo zerbitzuak, barnerapen aldia amaitzean, xede bererako, herritarrentzat oro har dauden sistema, programa eta zerbitzuak erabiltzeko aukerak eta zailtasunak, eta babes zentroekin koordinatzea, hortik zetozen edo horietara itzultzen ziren kasuetan.
6. Nola zen zerbitzu horien arauketa, erakunde honek hainbestetan eskatu duena, bai ezohiko txostenean bertan bai ondorengo gure beste jarduera guztietan.
7. Azkeneko urteetan burututako neurrien bilakaera.
8. Adingabearen Zigor Erantzukizuneko Lege Berria 2001ean indarrean jartzearen ondoriozko aldarazpenak, eskariei, baliabideei eta erantzuteko gaitasunei dagokienez.
9. Azkeneko urteetan beste lurralde batzuetako zentroetan sartu dituzten gure Erkidegoko adingabeen gaineko datuak, baita kanpoan zergatik sartu dituzten ere.
10. Adingabeen urraketen biktima izan diren edo ondoriorik jasan duten pertsonei emandako artapenaren gaineko datuak.

Hartara, bada, eskatutako informazioak jada lehenago ere jarraipena egin genien gaiak berriro hartzen zituen, baina kontu berriak ere sartzen zituen, eta denboran gertu zeuden eta zerbitzuan eragin zuzena zuten egitate edo faktore batzuk kontuan hartzen zituen. Hartara:

- adingabeen zigor erantzukizuna arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrilean indarrean jartzea, besteak beste, zigor adina eta adin zibila parekatzen dituena eta, ziurrenik, neurrien mendeko adingabeen kopurua gehitzea ekarriko duena, baita barnerapen zentroetako adingabeen soslaia eta ezaugarriak aldatzea ere;
- ETAk Zumarragan barnerapen zentro izateko eraikitako instalazioak leherrarazi izana, horrek zabaltzea atzeratu baitu;
- 2001eko abenduaren 14ko EHAOean azaroaren 7ko Agindua argitaratu izana, zeinen bidez Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren mendeko zentroetan hartutako edo barneratutako adingabe lege-urratzaileen hezkuntzarako eskubidea bermatuko duten neurriak araupetzen baitira.

Arestian esandako hamar kontu horiek ere erreferentzia markotzat hartu ziren Urtuellako (2002-01-22), Andoiuko (2002-01-25) eta Aramaioko (2002-01-28) zentroetarako bisitetan, horrekin informazioa eta ikuspegiak kontrastatzea bilatuz. Horren guztiaren laburpen luzea iazko txostenean jaso genuen (2001eko txostena, I. kap, 1.1.6).

Azkeneko urtean, Arartekoaren esku hartzeren erreferentzia markoa hamar kontu horiek izan dira, eta baten bati bereziki aditu zaio, ikusitako bilakaeraren edo jasotako kexaren baten ondorioz. Txosten hau egiteko orduan, funtsean ondoko elementu edo informazio iturriak hartuko dira kontuan:

- Tokian-tokian jasotako informazioa, behaketa eta elkarrizketen bidez, Urtuella, Andoiu eta Aramaioko barnerapen zentroetan eta sortu berria den autonomiako pisuetako batean.
- Justizia Sailburuordetzako eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako arduradunekin izandako bilerak, horien mende baitaude neurriak aplikatzeko zerbitzuak.
- Justiziako Bizkairako talde psiko-sozialarekin izandako bilera.
- Justizia Sailetik jasotako informazioak, Entzutegi Nazionalaren aginduz hainbat adingabe atxilotu izanagatik jasotako kexa batengatik.

Hemen ia erabili ez arren, Justizia Administrazioko Euskal Behatokiaren 2001eko memoriaren argitalpena informazio iturri gehigarria da, justiziaren jarduerara bideratzen dena: erregistratutako gaiak, ebatziak eta ebazteko daudenak adingabeen epaitegi bakoitzean, erantzukizun zibileko piezak, hartutako neurriak, zigor jurisdikzioaren multzoan adingabeen kasuen proportzioa zein den....

Informazioa ondoko epigrafeen inguruan antolatuko dugu:

- Azkeneko urteetan gauzatutako neurrien bilakaera.
- Sartutako aldarazpenak eta hedatzeko aurreikuspenak barnerapen zentroen sarean.
- Zentroetarako ikustaldietan ikusitakoak, aipatzeko modukoak direnak.
- Ekipo Psiko-sozial Judizialak planteatutako kontuak.
- Hainbat gogoeta orokor eta hobetzeko proposamen.

## 1. Azkeneko urteetan gauzatutako neurrien bilakaera

Adingabe lege-urratzaileen gaineko Arartekoaren Txostenak bultzatu nahi zuen oinarrizko jarduera lerroetako bat legeak aurreikusitako neurrien multzoaren eta, bereziki, askatasuna gutxien murrizten zuten, hezkuntza ahalbiderik handiena zuten eta barnerapena exijitzen ez zuten neurrien gaitasun guztiak garatzearena zen. Baliabide eta bitarteko gehiago edo gutxiago edukitzea neurrien izatezko aplikaziorako faktore erabakigarriak izaten dira eta batez ere horri aditu dio erakunde honek, neurriak betearaztea euskal Administrazioaren eskumena baita.

Aurreko txostenetan arreta berezia eskaini zaio gai hori, datu ugari emanez, balorazioak eginez eta elementu on eta txarrak azpimarratuz. Batez ere 2000 urtean, orduan Gazte Justiziako Zerbitzuaren lan memoria xehatua eskuratu eta aztertzeko aukera izan baikenuen: “Adingabeen epaitegiek EAEn ezarritako neurrien gauzatzea 1999an zehar”.

Memoria horretako datuen ustiapenari esker neurrien bilakaera orokor eta zenbakizkoa ezagutu ez eze, informazioa xehetasun handiagoz ere aztertu ahal izan zen, erakunde honen iritziz oso interesgarriak diren irizpideen arabera. Hartara, esaterako:

- Adingabeen epaitegi bakoitzak erabakitako neurrien arteko konparaketa;
- Neurri desberdinak betearazteko berandutza tarteak, edo egitate edo urraketatik neurria gauzatu arte joandako denborak;
- Diferentziak neurrien aplikazioan, adingabeak mutilak ala neskak diren arabera;
- Neurririk gogor edo murriztaileenen (barnerapena) eta kolektibo jakin batzuen ahultasun egoera edo ezaugarrien arteko lotura: gutxiengo etnikoak, adingabe eskolatu gabeak, babespeko adingabeak, berrerorleak...

Zoritxarrez, ezin izan dugu azkeneko hiru urteen gainean halako datuak biltzen dituen memoriarik eduki. Badauzkagu bilakaeraren datu orokorrak, neurri bakoitzaren aplikazioaren maila handiago ala txikiagoa ezagutzeko aukera eskaintzen digutenak, baita joera orokorrak zein diren erakusten digutenak ere. Datu orokor horiek hurrengo taulan jasota daude.

**AZKENEKO SEI URTEETAN BURUTUTAKO NEURRIAK**

| | 1997 | | 1998 | | 1999 | | 2000 | | 2001 | | 2002 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Denera | % | Denera | % | Denera | % | Denera | % | Denera | % | Denera |
| Bitartekaritza/Konponketa | 94 | 26,8 | 158 | 39,9 | 247 | 46,9 | 234 | 43,2 | 309 | 41 | –[2] |
| Zentzarazpena | 120 | 34,2 | 97 | 24,5 | 72 | 13,7 | 72 | 13,3 | 33 | 4,4 | –[2] |
| Begiradapeko askatasuna | 53 | 15,1 | 60 | 15,2 | 56 | 10,6 | 65 | 12 | 135 | 17,9 | 176 |
| Erkidegoaren onerakoz zerbitzuen prestazioa | 53 | 15,1 | 39 | 9,8 | 77 | 14,6 | 83 | 15,3 | 123 | 16,3 | 185 |
| Tratamendu anbulatorioa | 4 | 1,1 | 3 | 0,8 | 9 | 1,7 | 7 | 1,3 | 26 | 3,5 | 31 |
| Gizarte-hezkuntza lanak | – | – | – | – | – | – | – | – | 20 | 2,7 | 27 |
| Hartzea | – | – | – | – | – | – | – | – | 2 | 0,3 | 3 |
| Asteburuko barnerapena | 5 | 1,4 | 8 | 2 | 15 | 2,8 | 16 | 2,9 | 42 | 5,6 | 62 |
| Zentro bateko barnerapena | 22 [1] | 6,3 | 31[1] | 7,8 | 51[1] | 9,7 | 64[1] | 11,8 | 63 | 8,4 | 98 |
| **DENERA** | **351** | **100** | **396** | **100** | **527** | **100** | **541** | **100** | **753** | **100** | |

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Geuk prestatua)

[1] Zentroetako barnerapenak zenbatzeko irizpideak aldatu egin dira: hartara 22 eta 31 adingabe dira (97 eta 98 urteetan), baina 51 neurri, 37 adingaberen gainean (99 urtean), 64 neurri 33 adingaberentzat (2000 urtean), 63 neurri edo 98 neurri (ez adingabe) azkeneko bi urteetan.

[2] Ez daukagu azkeneko urtean izandako bitartekaritza eta zentzarazpenen daturik oraindik. Urteko lehenengo sei hilekoko datuen arabera (214 bitartekaritza), 400 bitartekaritza eta 30 zentzarazpen inguru direla pentsa genezake, eta horrek neurriak, guztira, 1000 inguru izatea ekarriko luke.

Datu hauek zenbait joaera argi eta garbi adierazten dituzte. Agian garrantzitsuena guztirako neurriak, baita banan-banan hartuta ia guztiak, zentzarazpenak ezik, ikaragarri gehitu direla da nabariena.

Hazkundeak bereziki esanguratsuak dira 2001 urtetik, eta 5/2000 Legearen aplikazioaren ondorio dira. Izan ere, azkeneko bi urteetan, oraindik datu osoak izan ez arren, gauzatutako neurrien kopurua ia bikoiztu egin dela esan dezakegu.

Igoera batez ere ingurune irekiko neurrietan izan da. Barnerapen neurriak mantendu egin ziren lehenengo urtean, azkenekoan nabarmen gehitu badira ere (63tik 98 neurritaraino).

2000 urtea erreferentzia gisa hartzen badugu (5/2000 Legea indarrean jarri aurreko azkeneko urtea), eta orduko datuak azkeneko urte honetakoekin alderazten baditugu, ondoko aldaketa eta joerak ikusten ditugu:

- Begiradapeko askatasunak 2,7 bider gehiago dira (65etik 176ra igaro dira).
- Erkidegoaren onerako zerbitzuen prestazioak 2,2 bider gehiago dira (83tik 185era igaro dira).

- Tratamendu anbulatorioak 7tik 31ra igo dira (4,4 bider gehiago).
- Lehenago ez zeuden gizarte eta hezkuntza lanak 27 izan dira azkeneko urtean.
- Hezkuntza taldeko harrerak apalki hasi dira (3 kasu).
- Asteburuko barnerapenak 16tik 62ra igaro dira (ia 4 bider gehiago).
- Zentroko barnerapenak 64tik 98ra igaro dira (azkeneko urtean %50etik gorako hazkundea).

Datu hauek, jakina, beste batzuekin osa litezke, esaterako neurri bakoitzaren iraupenarekin. Horren ildotik, iaz, Justizia Sailak –gure datu eskariari erantzunez- hauxe zioen: "*Neurrien batez besteko iraupena nabarmen hazi da, askotan bikoiztu egin da.*"

Hartara, bada, bai neurrien bilakaeraren datuek bai, kasurako, iraupenaren luzapenak lana ikaragarri gehitu dela adieraziko lukete, eta baliabide gehiago beharko litzatekeela, lana ondo egin ahal izateko.

Datu orokorrek, ordea, ez dute balio, ia, errealitatera xehetasun handiagoz hurbiltzeko. Erakunde honek segitzen du ikerlan edo jarraipen xehatuagoak egin behar direla esaten, 1999 urteko Gazte Justiziako Zerbitzuaren memorian jasotakoen antzekoak. Datu eguneraturik ezean, pentsatu behar dugu antzemandako zenbait arazo edo arazo asko, orduan agerian jarritakoak (irizpide desberdintasun handiak epaitegien artean, egitateak gertatzetik neurriak aplikatu arte urtebete ere joatea, zenbait neurriren eta kolektiborik ahulenen ezaugarrien arteko lotura…; ikus 2000ko txosteneko I. kap., 1.1.6) oraindik ere gertatuko dira eta, ondorioz, aditu egin behar zaie. Bisita eta bileretan jasotako informazio batzuek hala iradokitzen dute. Esaterako, barnerapen neurriak aplikatu zaizkien bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboa ikaragarri hazi da (neurri horien % 36, 2001 eta 2002 urteetan), edo zentroetan sartu ahal izateko itxaro-zerrendak daude.

## 2. Sartutako aldarazpenak eta hedatzeko aurreikuspenak barnerapen zentroen sarean

Gure Erkidegoan adingabe lege-urratzaileen barnerapenera beren beregi xedatutako hezkuntza zentroen sarea, azkeneko urteetan, hiru zentrok osatu dute: Andoiukoak (hasieran neskentzako pentsatua), Aramaiokoa eta Urtuellakoa (mutilentzat). 2001 urterako Zumarragako zentro berria sarera sartzeko plangintza zegoen.

Aurreko txostenetan zentro horien zenbait muga agerrarazi izan dira, kokapenetik, titularitatetik edo egituratik datozen elementuen ondoriozkoak: ingurunearen gizarte ekipamenduak aprobetxatzeko zailtasunak; bidaietarako zailtasunak, bai adingabeentzat bai senideentzat, eginkizun horietarako diseinatuta ez dauden eta tarte jakin baterako erabiltzeko lagatako eraikinak hobetzen inbertitzeko beharra… Pentsatzen genuen, gainera, Zumagarrago zentro berria sarera sartzea aukera ona izan litekeela zentroen eraketa berrikusi eta etorkizunaren plangintza egiteko.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuak erantzunean esan zuenez, ETAko komando batek, zentroa eraikita, altzariz hornituta eta ekipatuta zegoenean, Zumarragako instalazioen aurka egin zuen atentatuaren ostean, tokien prestutasunaren gainean zegoen plangintza guztia bertan behera geratu zen, buruhauste handiak sortu ziren eta dauden hiru zentroen antolamenduan aldaketak egin behar izan dira eskariari erantzun ahal izateko.

Justizia Saileko arduradunek urtean zehar beraiekin izan ditugun bileretan esan digutenarengatik, zentroen sarean aurreikusitako edo egindako aldarazpenetan ondoko elementuak azpimarra daitezke:

- Orain Urtuellan dagoen zentroaren alternatiba edo indartzegunea izan litekeena aurkitzeko Bizkaiko hainbat tokitan egin diren gestioek ez dute, arrazoi desberdinengatik, emaitzarik ekarri eta, kasuren batean, proiektua oso aurreratua zegoela, auzokideek errefusatu dutenez atzera egin behar izan da.
- Autonomiadun bi pisu zabaldu dira (bata Bilbon eta bestea GAsteizen) eta Gipuzkoan hirugarren bat zabaltzea aurreikusita dago.
- Zumarragako zentroa berreraikitzeko lanak datozen hilabeteetan amaituko direla espero da eta, horrela, behin langileen kontuan konpondu ondoren, pixkana erabiltzen hasteko modua izango da.
- Txosten hau idazten ari garen unean (hau da, jada 2003 urtean), sarera beste zentro bat gehitu da, Araban, Landan dagoena.

Hartara, bada, 2002an lehendik ezagutzen ditugun hiru zentroek funtzionatzen jarraitu dute: Aramaioko Mendixola CE (12 toki), Urtuellako Miguel Ángel Remírez CE (8 toki) eta Gasteizko Andoiu CE (7 toki). Gainera, barnerapen neurriak aplikatzeko urtean zehar martxan jarri diren autonomiako pisuak ere erabili dira.

Sarearen mugak direla-eta, dauden tokiak beteta egon dira ia denbora guztian, itxaron zerrendak egon dira eta, inoiz-edo, zentroren batek, denbora mugatuan, zeuzkan tokiak baino adingabe gehiago eduki behar izatea ere gertatu da. Kontuan izan 2002an gauzatutako barnerapen neurriak 98 izan direla, dauden tokiak baino hiru bider gehiago.

Erakunde honek, zentroetara egindako bisitetan eta profesionalen taldeekin izandako bileretan, berriro egiaztatu ahal izan ditu barnerapen beharren erantzuna sortzen ari den oztopoak eta eskatzen ari den ahalegin gehigarria zenbaterainokoak diren. Iaz bezala, baiezta daiteke hiru faktoreren konbinazioak –5/2000 Legea indarrean jartzearen ondoriozko aldaketak; Zumarragako instalazioak edo barnerapenerako baliabide berriak pentsatutako epean erabiltzerik ez izatea; eta egungo zentro erabilgarrien ezaugarriak- erantzuteko ahalmena eta erakundeen esku hartzea baldintzatu ditu, lan taldeen ahaleginari, borondate onari eta giza eta pertsona mailako ahidura ikaragarriari esker gainditu diren muturreko egoerak planteatuz. Egoera hau ez da, ziurrenik, Zumarragako zentroa zabaldu arte nabarmen aldatzerik izango.

Hurrengo atalean zentro horietara egindako bisitetan ikusitako zenbait alderdi aipatuko ditugu.

### 3. Zentroetarako ikustaldietan ikusitakoak, aipatzeko modukoak direnak.

2002ko urtearen amaieran, Arartekoaren erakundeko langileak Urtuella, Andoiu eta Aramaioko zentroetara joan ziren. Berrikiago, hau da, urte horretako abenduan eta 2003ko urtarrilean, hiru zentroak ikustera joan ziren berriro, baita Bilbon zabaldutako autonomiako pisua ikustera ere. Hemen, ikusitakoen artean, interesgarrienak besterik ez ditugu aipatuko.

- Bilboko **autonomiako pisuari** dagokionez, bisita abenduaren 10ean egin zen. Pisua 2002ko maiatzean hasi zen funtzionatzen, hiru logela dauzka eta lau mutil hartzen

ditu, aurreikusita dauden tokiak horiexek baitira. Hezitzaileen multzoan bost pertsona daude, eta horiez gain koordinatzailea eta sukaldaria.

Pisuaren ezaugarriak eta eginkizunak kontuan izanik, nerabe edo gazteak barnerapen zentroetan daudenen artean hautatzen dira, hainbat ezaugarritan oinarrituz: herstura kontrolatzeko ahalmenean, borondatean, talde toki horietakoa joateko prestutasunean... Lehenengo hiletako eskarmentua oso ontzat baloratzen zen: taldea mantendu zen, lau tokiak beteta egon ziren beti, eta ordura arte ez zen inolako ihesik egon, ez eta barnerapen zentrora itzuli zenik ere...

Zenbait auzokiderekin tirabirak zeuden, baina garrantzi handirik gabeak. Edonola ere, baliabide horrek toki horretan jarraitzea ez dago erabat ziurtatuta, zeren pisua, titularite publikokoa, urte batez erabiltzeko lagata baitago.

Bizikidetasun arauei edo arazorik sortzekotan baliatzeko jarduera protokoloei dagokienez, gazteek beraiek parte hartuz prestatzen ari dira. Banan-banan egiteko lana da, eta funtzionamenduko arazoak edo kontuak (ordutegiak, lan banaketak...) bilera batean aztertu eta erabakiak aktan jasotzen dira. Autonomia handiagoa lortzera begira, lan aurkitzea, dirua erabiltzea, familiarekiko harremanak, prestakuntza akademikoa, lanen ardura hartzea bezalako gaiak bereziki zaintzen dira.

Talde arduradunaren ustez, dauden tokiak ez dira dauden beharretarako nahikoak. Toki gehiago edukiz gero, gazte gehiago egongo lirateke, barnerapen zentroetatik irten eta halako pisuetara joateko moduan.

- **Andoiuko zentrora egindako azkeneko bisita** 2003ko urtarrilaren 14an izan da. Egun horretan zentroan bi neska zeuden (badaezpadako barnerapenean), eta bost mutil, hiru ordura arte Bizkaiko babes zerbitzuetan hartutako bakarrik zeuden adingabe atzerritarrak.

  Zentroaren ezaugarri eta ahalbideekin lotutako datu xume hauek (hasieran neskentzat bakarrik pentsatutakoa, eta barruko jarduaretarako baliabide urriekin), artatu behar diren herritarren soslaian izandako aldaketa eta erantzun egokia emateko dauden zailtasunak iradoki diezazkigukete.

  Zentroaren kudeaketaren ardura duen Gaztaroan Ekin elkarteak, Gasteizen Aranzabelan zabaldutako autonomiako pisuaren kudeaketa ere hartu du bere gain, irailetik aurrera.

  Ikusitako arazoen artean, ondokoak azpimarra ditzakegu:
  - Zentroaren egiturazko mugak izatez artatuta dagoen kolektiboaren beharrei erantzun egokia emateko (neska-mutilak nahastua, espazio txikia eta baliabide gutxi tailerretako edo bestelako barne jardueretarako...).
  - Babes sistemekin koordinatzeko edo neurria amaitzean “irtenbide” egokiak bilatzeko zailtasunak, batez ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuetan.
  - Toxikomania ugariko kasuetan erantzuteko arazoak.

- Langile beharrak gehitu dira, eta barrukoa ere berrantolatu beharra dago (txandak, soslai profesionalak, zuzendaritza estiloa...).

Egungo baldintzetan lan egiteko zailtasunak, ezbairik gabe, lan taldeen ahidura eta langilerian izandako gorabehera handiak azaltzen ditu: ehun pertsona desberdin kontratatu da azkeneko bost urteetan. Bisitaren unean, lan taldean 20 pertsona zeuden, bi hezitzaile magrebdar sartu berriak ziren eta, oztopoak oztopo, berrantolatzeko eta jarraitzeko modua aztertzen ari ziren.

- **Mendixolako zentroako bisita** (Aramaio) 2003ko urtarrilaren 20an egin zen. Egun horretan zentroan 12 gazte zeuden, horietako 7 atzerritarrak. Hamabietatik bat ere ez zen prestakuntza jarduerarik edo kanpoan lan egitera inora joaten eta, beraz, zentroaren beraren ahalbideekin moldatu behar zuten: ikasgela, aroztegi tailerra, ordenagailuak, negutegia...

  Zentroan zenbait berriztapen eginak ziren: pintura, sarrerako detektorea, zenbait leihotako babes neurriak indartzea... Zentroaren erabilpen maila, azkeneko urtean, –gogortzat jota dago- ondoko datuekin laburbiltzen da: 46 adingabe artatu dira; 35 sarrera berri, horietatik 25 badaezpadako barnerapenean eta lau bizimodu itxian, artatatuko 45 gazteetatik 30 bat babes sistemetatik datoz; gehienak atzerritarrak dira.

  Berriztu elkartean kudeatzen duen zentroaren egungo langilerian 19 pertsona daude, horietatik bost azkeneko urtean sartutako berriak dira.

  Bisitetan ohi denez, osasun artapenarekin, hezkuntza artapenarekin, lekualdaketetarako Ertzaintzaren laguntzarekin, baliabide erkideak erabiltzeko ahalbideekin eta halakoekin zerikusia zuten kontuan aztertu ziren

  Arreta berezia eskaini zitzaion garai berezi edo arazozkoetan euspeneko tokiak erabiltzeari eta aplikatutako programei. Bakartze neurriez edo euspeneko ziegaren erabilpenaz ari gara. Aurreko txostenetan egin izan ditugu oharrak gai honetaz, guretzat oso garrantzitsua baita, askatasuna murrizten duen heinean. Halako neurriak hartzeko irizpideen mamia baloratzera sartu gabe, beti esan dugu erabakiak hartzeko prozedura garbia eta bermezkoa izan behar dela, eta hartzen diren erabakiak dokumentuetan jasota geratu behar direla, edozein kontrol instantziak prozedurak ikuskatu ahal izan ditzan, eta prozedurak esku hartzen duten alderdi guztien eskubideen berme izan daitezen, bai adingabe edo gazteentzat bai inplikatutako profesionalentzat.

  Horren ildotik, berriro aztertu zen erabaki horien islapen dokumentala: programaren aurreikuspenak jasotzen direneko fitxa, eta epaitegirako eta Gazte Justiziako Zerbitzurako jakinarazpena. Ekainaren 4tik aurrera, neurri horiek jasotzeko datu base informatizatua erabiltzen da. Datu horien arabera, ekainaren 4tik abenduaren 31ra bitartean 30 epe berezi erabaki ziren: 19 kasutan hasierako bakartzearekin eta 11 halakorik gabe, beti bitik zazpi egunerako tarteetarako. Euspenean aurreikusitako gehienezko bakartzea 24ordukoa zen eta sei orduan behin berrikusten zen.

Araudi baten bidez arautu beharreko gaiaren aurrean gaude, argi eta garbi, baina behin eta berriro eskatu dugun arren oraindik arautzeke dago. Arau bateratu bat ez dagoenez, zentro bakoitzak, bere behar eta irizpideen arabera, bere prozedurak finkatuz joan da. Epaitegira eta Gazte Justiziako Zerbitzurako berehalako jakinarazpena berme elementua da, zalantzarik gabe. Gure ustez, baina, egungo prozedurek ez dituzte gai garrantzitsuak kontuan hartzen, hala nola, hasieran proposatutako neurrien benetako aplikazioan sar daitezkeen aldaketak, edo bakartze neurri bat beste batekin denbora laburrean kateatzeko ahalbidea, berez, bakartze tarte horiek luzatzea ekarri lukeena. Kontua ez halakorik gertatzea, baizik eta arauek aukera hori ekidin eta alderdi guztiei argitasuna eta bermeak eskaintzea.

Oro har ikusitako zenbait arazo Andoiun jasotakoen antzekoak dira. Hartara, esaterako:
- Neurriaren amaierarako "irtenbide" egokiak bilatzeko zailtasuna (egoitzetako baliabide gutxi).
- Arazoak atzerritarren dokumentazioan.
- Babes sistemekiko harremana…

Badaezpadako barnerapenen kopuru handiak dakartzan arazoak ere azpimarratzen ziren (asko ez eze, luzeak ere badirelako), zentroaren ahalmena zenbait unetan gainditzeraino (12 pertsona baino gehiago barneratuta daudeneko uneak), edo kasu askotan artapen psikiatrikoa jasotzeko behar eta zailtasunak.

Leku aldaketak polizien babesarekin egiteari dagokionez, lekualdaketaren baldintzak esku hartzen duten polizien esku daudela dirudi. Oro har, ez zen arazo handiegirik ikusten eta, kasu batean, Bilbon Epaitegirako bidaia batean, epaitegian bertan eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan kexa aurkeztua zuten.

- **Urtuellako Miguel Ángel Remírez** zentrora 2003ko urtarrilaren 29an joan ginen. Egun horretan 8 adingabe zeuden zentroan (hau da, bertan dauden beste toki), hiru atzerritarrak, babes zentroetatik zetozenak. Gehienak kanpora joaten ziren jarduera desberdinetara: hiru lan kontratuarekin eta beste hiru inguruko ikastegi desberdinetara.

Instalazioei dagokienez, muga asko dituztela behin baino gehiago agerrarazi dugu, kanpoan zenbait pintura lan eginak ziren, eta barruan ADSL linea jartzen ari ziren, eta ordenagailu ekipamenduaren zain zeuden. Berokuntza zentraleko sistema jartzeko gasa ipintzeko proiektua daukate.

Hezitzaileen taldea –zentroaren kudeaketa Berriztu hezkuntza elkartearen esku dago- nahikoa egonkor mantentzen da. Aldaketak, batez ere, barruko berregituraketen ondorio izan dira (elkarte beraren zentro batetik besterako aldaketak). Taldera hezitzaile magrebtar bat sartu da, eta soslai bereko besteren bat ere kontratatzeko aukera aztertzen ari dira.

Zentroaren hezkuntza proiektuan aldarazpenak egiten ari dira, eta diziplinazko neurriak erabiltzeari edo ziegetako bakartzearen aplikazioari dagokionez, Aramaion erabiltzen

denaren antzerako eta aurreikusitako prozedurari jarraitzen zaio, hemen oraindik datu base informatikorik erabiltzen ez duten arren.

2002an artatutako adingabeen zenbakizko datuei dagokienez, hona hemen batzuk, esanguratsuak:

- Artatutako adingabeen kopurua: 26.
- Sarrera berriak: 20.
- Babesetik datozenak: 13 (11 bakarrik dauden atzerritarrak).
- Badaezpadako sarrerak: 15, 26tik (10 bizimodu “itxian”; 10 adingabe atzerritarretatik 7).

Jasotako informazioarengatik, ez dirudi beste sail batzuen mendeko zerbitzuekin harreman arazorik dagoenik: hezkuntza, osasun edo polizia zerbitzuekin.

## 4. Ekipo Psiko-sozial Judizialak planteatutako kontuak

Neurriak hartzeko prozesu judizialean funtsezko betekizun teknikoa talde psiko-sozialek jokatzen dute. Horretan soilik aritu ez arren, beren jarduera profesionalaren zati handi bat adingabeei begira dago: 2001ean auzipetutako adingabeen gainean 1690 txosten egin zituzten, Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Memorian emandako datuen arabera. Izan ere, azkeneko urteetan, talde horietako profesionalen kopurua gehitu egin da, eta gau-eguneko zerbitzu bat jarri da prozeduretan atzerapenik ez izateko. Interesgarria zirudien, beraz, beren lana gertuagotik ezagutzea, eta beren arazoen eta proposamen berri jasotzea, erakunde honek orain arte inoiz ere egin ez zuena, hain zuzen.

Dauden hiru taldeetatik (lurralde bakoitzeko bat), Bizkaikoarekin bilera egitea aukeratu zen. Bilera 2002ko azaroaren 29an egin genuen, Bilboko Justizia Jauregian dauzkaten lokaletan, eta hamar profesionalek hartu zuten parte.

Bilerak taldean sartutako aldarazpenak, 5/2000 Legea aplikatzen hasi zenetik beren lanean izandako aldaketak, bitartekaritzek lortutako edo lortzeko moduko pisua (%40-50, guztirako neurrien aldean), adingabeen zenbait kolektibori lotutako arazoak (bakarrik dauden atzerritarrak, edo ijitoen taldekoak…) aztertzeko balio izan zuen.

Hona hemen agerian jarritako arazo edo beharrik azpimarragarrienak:

- profesionalen lan egoera (bitarteko langileak gehienak, lan baldintzak ez dira berrikusten lanean izaten diren aldaketak kontuan hartzeko…);
- bitartekaritza gutxi erabiltzen da adingabe ijitoak edo atzerritarrak direnean;
- irizpideetan ez dago batasunik badaezpadako neurriren bat hartzea erabakitzen denean nork eta nola gauzatu behar duen kontuan;
- zentroetan dauden tokien kopurua mugatua da, barnerapen neurri bat erabakitzeko orduan;
- prozedura judizialetan atzerapenak izaten dira; botila zama Bilboko Epaitegian eta adingabeentzako bigarren epaitegiaren beharra (adingabeen epaitegian ikusteko geratzen ziren gaiak, 2001eko amaieran, 574 ziren Bizkaian, 114 Araban eta 171 Gipuzkoan);
- adingabeentzako entzunaldi bakarrak komeni dira, hainbat auzi dauzkaten adingabeentzat;

- badaezpadako barnerapenetan dauden adingabeen epaiketetan atzerapenak izaten dira, eta horrek zenbait kasutan zigorgabetasun sentipena sortzen du, eta beste batzuetan badaezpadako barnerapenak hilabetetan luzatzea;
- ikuspegi kritikoa babes sistemetan: erantzunik ez delituak etengabe egiten ari diren 12 urtetik 14ra bitarteko adingabeen egoerei; babes zentroetatik ihes egiten dutenen gainean; adingabe atzerritarrentzako programa gutxiegi; profesionaltasun gutxi arabieraz mintzatzen direlako kontratatutako zenbait hezitzailerengan...;
- adingabe biktimekin jarduteko protokolorik ez...

## 5. Hainbat gogoeta orokor eta hobetzeko proposamen

Azkeneko urtean egindako bisita eta bileretan jasotako datu eta informazioetatik behin eta berriz agertzen diren hainbat kontu atera daitezke, bereziki kezkagarriak edo hobetu beharrekoak direnak. Hemen erakunde honen eskubide bermatzaile ikuspegitik garrantzitsuen iritzi diegunak azpimarratuko ditugu:

1. Datu guztiek neurriak ikaragarri gehitu direla adierazten dute eta, ondorioz, adingabe lege-urratzaileei erantzuten inplikatuta dauden zerbitzu eta instantzien lana ere gehitu dela. Hazkundea, hein handian, 5/2000 Legea indarrean jarri eta ondorioz zigor adina jaitsi delako etorri da. Kasuak gehitu *ez eze*, larritasuna, esku hartzeko zailtasuna, neurrien iraupena... ere areagotu dira.
   Beharrak gehitze horri erantzuteak taldeak sendotzea edo zerbitzu berriak sortzea eskatu du: talde psiko-sozialak, neurriak ingurune irekian aplikatzeko taldeak ugaltzea...
   Ahalegin garrantzitsuak egin diren arren, badirudi sistema ahalbideen mugan dagoela beti, edo ondo funtzionatzea eragozten dioten zenbait hutsune dituela: epaitegietan gainezka daude eta horren ondorioz atzerapenez dabiltza; barnerapen zentroetan mugatuta daude...
   Bereziki kezkagarria badaezpada barneratuta dauden adingabeen egoerak ematen du, hilabetetan egoten baitira epaitegiak dagokien neurria erabaki zain.
   Bilbon adingabeentzako bigarren epaitegia irekitzeak (2003ko urtarrilean), egoera hau hein batean gutxienez zuzendu beharko luke. Baita aurreikusitako zentro berriak edo barnerapen neurrietarako baliabide berriak zabaltzeak ere, horrek sarearen berregituraketa erraztuko bailuke.
   Baliteke ere kateako beste maila batzuk ere indartu behar izatea, hala nola, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren mendeko Gazte Justiziako Zerbitzua, berea baita neurriak betearazteko ardura eta, denbora laburrean, lana biderkatu baitzaio. Kudeaketa lana *ez eze*, baita jarraipenekoa edo beste instantzia batzuekin koordinatzekoa ere.
   Beharren gehitze horri prozesuaren fase guztietan giza baliabideak eta baliabide materialak ere hainbestean gehituz erantzun behar zaion.

2. Benetan kezkagarria da barneratutako adingabe lege-urratzailerik gehienak babes zerbitzuetatik datozela eta, zehazkiago, talde horretan bakarrik dauden adingabe atzerritarren proportzioa oso handia dela ikustea. Datu horrek, jasotako beste balorazio askorekin, babes sistemetan zerbait huts egiten ari dela pentsarazten digu.

Horri esku hartzearen jarraipen edo koordinaketako beste arazo batzuk gehitzen zaizkio: adingabe atzerritarren dokumentazioaren izapideen gaineko irizpideak; asteburuko bisitak edo irteerak; egoitzetako ahalbideak eta 18 urtetik aurrera buru jabetzen laguntzeko sostenguak; jarraitasuna eskola edo hezkuntza artapenean...
Beharrezkoa ematen du erakunde erantzuleek (batetik Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila eta bestetik Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailak), irizpide edo jarduera protokolo bateratuak ezar ditzaten, zentroetako profesionalen lanaren eragingarritasuna errazteko eta, azken batean, adingabe horien beharrentzako erantzuna hobetzen laguntzeko.
Ararteko erakundeak ofiziozko jarduerak abiatuko ditu esandako sail horien aurrean eta, jasotzen den informazioaren arabera, oinarrizko akordio batzuetara heldu behar dutelako gomendiorik bat egingo die.

3. Terrorismo delituetan inplikatutako adingabeei dagokienez, horietan Entzutegi Nazionalak esku hartzen du, erakunde honek behin eta berriro esaten jarraitzen du neurriak familia ingurunetik gertuago bete ditzaten ahalbidetzeko formulak garatu behar direla. Egiaz, kasu gutxi dira, eta legeak neurriak betearazteko eskumena Administrazio zentralarena dela dio, baina lankidetza itunik balego errazago litzateke zigorrak betetzeko baldintzak egokiagoak izatea, eta Justizia alorraren hitzaurrean azaldutakoak bezalako egoerak saihesteko modua legoke (ikus txosten honetako II. 8 azpiatala, Justizia alorreko hitzaurrea).
Erakunde honek foro desberdinetan, eta hainbat bider, adierazi du zalantzak dituela 7/2000 Lege Organikoak adingabeen zigor erantzukizunaz sartutako erreformaren beharraz, eragingarritasunaz baita konstituzioko hatsarretarako egokitasunaz. Uste dugu Autonomia Erkidego honetan bizi diren adingabe zigortuen interesen defentsak lehentasuna izan behar duela bertoko Administrazioarentzat eta, horregatik, administrazioak eskura dituen ahalegin guztiak egin behar ditu Entzutegi Nazionalak erabakitako neurriak betearazteko lankidetzarako formulak ezartzen saiatzeko.

4. Erakunde honek arestiko proposamen hori, beste batzuekin batera, Nafarroan azkeneko urtean izandako Arartekoen Koordinaketarako XVII. Jardunaldietan planteatu zuen. Izan ere, ararteko erakunde desberdinak bat datoz adingabe lege-urratzaileekin esku hartzearen gaineko kezkan, hala erakusten dute behintzat jardunaldi horien aztergaien zerrendan gai hori sartu izanak, jardunaldia izan baino lehen berariazko lan taldea eratu izanak, non guk ere parte hartu baikenuen, edo txosten honetan jasotzen diren hainbat proposamen onetsi izanak (ikus I atala, 3.1.).

   Jardunaldi horietan, Arartekoak *"Ahultasun bereziko adingabeak eta erakundeen erantzunak"* komunikazioa aurkeztu zuen, non esku hartzeko eta hobetzeko hamar zailtasun eta ahalbide aztertzen baitziren, asko eta asko hemen esandako kontuekin lotuta daudenak (ikus komunikazioaren testua III. eranskinean, txosten honetan).

5. Oraindik zerbitzuen araudizko arauketa egiteke dago, alderdi guztientzat berme izan dadin beharrezkoa dena: adingabeentzat, zerbitzu profesionalentzat, erakunde arduradunentzat edo ikuskaritzaz arduratzen direnentzat... Gai honetaz, txosten honen 1.1.5 azpiataleko azkeneko epigrafean esaten dena ikusi ("Haurrak babesteko legea").

Gainera, estatu mailako oinarrizko araudiaren gainean, oraindik ez da adingabeen zigor erantzukizuna araupetzen duen 5/2000 Lege Organikoaren Arautegia onetsi. Badago zirriborro bat, gutxienez, 2002ko ekainaren 11koa, aztertu ahal izan dena.

6. Iazko txostenean beste gai garrantzitsu batzuei buruzko hainbat datu eta informazio xehetasunez islatu ziren. Esaterako, ondokoen gainekoak:

   - Barnerapen zentroetako profesionalen lan egoera.
   - Hezkuntza, osasun edo beste gizarte zerbitzu batzuekiko koordinaketa eta lankidetza.
   - Barnerapen zentroetan bertan ematen den hezkuntza artapena.
   - Irteera eta buru jabetzarako aukerak.
   - Adingabeen lege-urraketen biktima diren pertsonei eskainitako arreta.

   Halako gai askotan, orduan jasotako datu eta gogoetak erabat indarrean daude oraindik ere, eta hemen berriro ere gogora ekar genitzake. Edonola ere, gerorako jarraipenetarako erreferentzia elementu izaten segitzen dute.

### 1.1.7. SAN FRANTZISKO ALDEAN POLIZIAK ATZERRITARREKIN IZANDAKO ZENBAIT JOKAERA DIRELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziak egindako jarduerekin lotuta Arartekoak izan duen esku-hartzea 1997 urtean hasi zen. Harrezkero eta 1998 urte osoan burututako egintzak urte hartako Arartekoaren urteko txostenean jaso ziren labur-labur (1998ko Txostena, I. Kapitulua, 1.6 atala). Gainera, 1999ko ekainaren 17an, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordearen aurrean urteko txostena aurkezteko izan zenean, gai honi buruzko dossier osoa eman eta aurkeztu zizkien Legebiltzarreko taldeei.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak, 1999ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, Bilboko San Frantzisko auzoko egoera liskartsuari buruzko legez besteko proposamen bat eztabaidatu eta onartu zuen, eta, besteren artean, ondoko hau erabaki zuen: *"3.- Legebiltzarrak eskatzen du Arartekoak Bilboko San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziaren jardueren gaineko txostenean azaldutako gomendioak aplikatzea eta inplikatutako Administrazioek gomendio horiek betetzeko konpromisoa hartzea. Hori egiaztatzeko, Arartekoari eskatzen zaio sei hilabete barru jakinarazi ditzala egindako gomendioak zenbateraino betetzen diren eta horren gainean egiten duen balorazioa."*

Legebiltzarraren erabaki hori betetzeko, Arartekoak 2000ko otsailaren 29an Eusko Legebiltzarreko buruari txosten mardula eman zion: "San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziaren jarduerekin lotuta Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari egindako gomendioak betetzearen jarraipena". Txosten honetan jasotako datu guztiak bildu eta baloratzen ziren. Txosten honen laburpena, balorazioan oinarrituta, edo, zehatzago esateko, Arartekoaren gomendio eta proposamenak zenbateraino betetzen ziren, 1999ko txosten arruntean sartu zen (ikus I. atala, 1.1.8.).

Aipatutako jarraipen txosten hori osatzeko datu bilketan ahalegin garrantzitsua egin behar izan zen eta bost informazio iturri, osagarriak batzuetan, oso balio desberdinekoak bestetan, erabili ziren: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arduradunen datu eta balorazioak; elkarteen datuak eta balorazioak; erakundean jasotako kexak; epaitegietako ebazpenak; prentsan agertutako albisteak. Informazioa eskuratzeko eta sistematizatzeko ahalegin handia egin eta Legebiltzarrak berak eskatutako txostena izan arren, Legebiltzarrean ez da horren inguruko inolako ekimenik edo eztabaidarik egon .

Horregatik, eta Arartekoa erakundearen ezaugarriak ikusita, gaiak zaila dela kontuan hartuta, azken bi urte hauetan ez da inolako jarraipen sistematiko eta berezirik egin. Jarraipen mugatua eta zeharkakoa egin da bakar-bakarrik: jasotako kexak, prentsan agertutako albisteak, alde horretako elkarteekin egindako bilera eta elkarrizketak, Hontza gaueko zentroa zabaltzearekin edo HIESaren Kontrako Batzordearen eguneko arreta zentroarekin zerikusia duten esku-hartzeak eta polizia etxe batzuetara egindako bisitak.

- Poliziaren jarduerei buruzko kexei dagokienez, urtean hiru kexa jaso ditugu: bi lekuko moduan ikusi duten pertsonek aurkeztuta eta bestea etorkin batek jarritakoa, zenabit aldiz identifikatzeko eskatu eta atxilotu dutelako. Erreklamazio-egileek eurek deskribatzen zituzten gorabeheretan salatzen zutenez, agenteek ustezko jokabide

baztertzailea erabili zuten, itxuran edo atzerritarra izatean bakarrik oinarritzen ziren esku-hartzeko. Informazioa eskatuta, polizia-arduradunek ziurtatzen ziguten aurrez legez kanpoko egintzak egon zitezkeela somatzen zutenean esku hartzen zutela, eta inoiz ere ez xenofobo-izaerako ezerk eraginda. Bertsioak hain desberdinak direla eta balorazioa egiteko elementu objektiborik ez dugula ikusita, erakunde honek ezin du ezer egin, gai horri buruz egindako aholkuak berrestea baino.

- Inguru horrekin lotutako albisteak komunikabideetan ematen zaien trataerari dagokionez, aurreko txostenetan azaldutako arazoak antzematen dira oraindik ere zenbait informaziotan, batez ere informazio-iturria polizia bera denean. Hala ere, alde hori ikuspegi positibotik ikusten dutenak gero eta gehiago dira: esate baterako, erakundeek hobekuntza-proiektu jakinak zabaltzen lagundu dute, gizarte-agenteek solidaritate-ekimenak kulturara hurbiltzekoak egin dituzte.
- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundearekin izandako harremana, azken urte honetan, polizia kontuetan barik, beste bide batzuetatik joan da, hiri izaera edo auzoko zerbitzu azpiegituran eragina duten gaiak landu dira.
- Hontza gaueko arreta-zentroa (Zamakolan) zabaltzearen eta Bailen kaleko HIESaren Aurkako Batzordeak kudeatzen duen eguneko arreta zentroaren birmoldaketaren inguruko esku hartzeek agerian utzi dituzte auzokideen kolektiboen artean jarrera eta sentsibilitate desberdinak daudela eta hainbat interes eta eskubide desberdin bateratzeko zailtasunak daudela. Askotan, erakunde honen esku-hartzeek zerikusia izan dute, hain zuzen ere, poliziaren jarduketekin, zerbitzu horiek behar bezala garatzeko eragin negatiboa zutelako.
- Azkenik, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren etxe batzuetara egindako bisiten eta hainbat kexen bidez, frogatu egin da, gomendatutakoaren kontra, biluzik gorputza miatzea ohiko jarduera dela oraindik ere, nahiz eta hori egin beharra argi geratzen ez den edo justifikatzeko arrazoiak beren beregi jasota uzten ez diren (2001eko VI. kapituluan gai honi buruzko gomendio orokorra dago eta 2002ko txosten honetan, I., 1.1.11 azpiatalean eta Herrizaingo Sailari dagokion alorrean aipamenak egiten dira).

Erakunde honen iritziz, inguru horretan aurreikusitako jarduera eta esku-hartze proiektu garrantzitsuek egoki zenean aurkeztutako arazo konpontzen lagundu beharko dute (izaera orokorreko gomendioetan zein jarduera polizialei buruzko gomendio espezifikoetan), bidea eman beharko dute inguru horretako gizarte-eragile eta elkarteekin elkarlanean jarduteko eta, azken batean, eragina izan behar dute auzoan bizi edo lan egiten duten pertsonen -tartean dira atzerriko jatorria duten pertsonak- kolektibo zabalaren bizitzeko baldintzetan.

## 1.1.8. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERAREN JARRAIPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen ezohiko txostena 1999ko abenduaren 22an atera zen jendaurrera eta eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko buruari. Gerora, 2000ko otsailaren 2an, Gizarte Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen. Bestalde, 1999ko urteko txostenean egindako azterlanaren laburpena jaso zen, eskubideen ikuspegi bermatzailetik, gure erakundearen iritziz kezkagarrienak ziren zazpi alderditan zentratuz.

2000 urtean lan bilerak izan genituen txosteneko edukien gainean oinarrizko unitateetako profesionalekin eta udaletako eta foru aldundietako zerbitzu hauen arduradunekin, lurralde historiko bakoitzean. Alorreko profesionalen partaidetza handiari (300 bat pertsona lau bileretan), eta Gizarte Ongizateko foru diputatuek laguntza aktiboari esker, txostenaren edukiak eta gomendioak zerbitzuaren artapenaren ardura daukaten pertsonengana zabaltzea eta haiekin harremanak izan eta, ondorioz, praktikan zerbitzua hobetzeko aukerak gehitu ahal izan ziren. Beraien arazo eta eskari batzuk zuzenean ezagutu ahal izan genituen, hala nola, gainditutа zeudelako sentipena, gizarte lana egiteko zailtasuna landa eremu edo toki sakabanatuetan; lurralde eta udalerrien arabera ordainsari eta estatus profesionalen alde garrantzitsuak; behin behinekotasun egoeren proportzio handia; mugak gizarteratze itunak burutzeko; arazoak beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko, zalantzak laguntza edo programa jakin batzuetarako kudeaketa formularik komenigarrienen inguruan (udalarena edo zentralizatua)...

Oinarrizko gizarte zerbitzuek iritsitako garapen mailaren gaineko gogoeta estrategikoa egin beharra zegoelako iritzia oso zabalduta zegoela antzeman zen, txostenean ere jasotako beharra, baita gizarte ongizateko politiken funtsezko elementu gisa etorkizunean zer izan behar duten gaiari buruz ere.

Orduan Gizarte Ongizateko hiru foru diputatuekin izandako bilerei esker arazo batzuk denon artean aztertzeko, hobetzeko aurreikuspenak eta aurrekontuzko zein eskumenezko muga nagusi batzuk ere ezagutzeko aukera eduki genuen.

Azkeneko horiek direla-eta, 2001eko otsailaren 8an erakundeen arteko ituna sinatu zen, gizarte programa eta zerbitzu desberdinei zegozkien erantzukizun eta eskumenak argitzea bilatzen zuena, hain zuzen -besteak beste, oinarrizko gizarte zerbitzuenak - erkidego mailako, lurralde mailako zein udal mailako erakundeen aldetik.

Bai itun orokorrak bai Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan sinatu ziren lurralde akordioek ere, EUDEL, hiru lurralde historikoetako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak biltzen zituen Erakundeen Arteko Mahaiak gizarte zerbitzuen 5/1996 Legea garatzeko 2000ko azaroaren 9ko proposamena zehaztea zekarten. Proposamenak hainbat oinarrizko hatsarre ezartzen ditu: zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakarraren ardura izango da; foru aldundiek eta udalek elkarri eskumenak eskuordetzeko aukera daukate, zerbitzuen prestazio eragingarriagora lortzeko; beren kabuz moldatzen diren pertsonen artapena udalei dagokie, eta besteren mende daudenena foru aldundiari...

Oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Lurralderako 2001eko otsailaren 9ko Akordio-Markoak aitortzen du dagoen egitura ez dela nahikoa; bertan dio "*herritarren informazioa, balorazioa eta orientazioa, beren eskubideei eta dauden gizarte baliabideei dagokienez, udal eskumenekoak izango direla*", eta "*gizarte zerbitzuen sistema osorako sarrerako ate gisa*" definitzen ditu, eta "Gipuzkoako Gizarte

Zerbitzuen mapa" egiteko konpromisoa jasotzen du, *"zerbitzuen prestazioari exijitzeko maila ezarriko duena, beren beregi lurralde, eskualde, azpi-eskualde eta udal mailako oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez"*.

Bizkaiko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz, lurralde horretarako 2000ko abenduaren 29ko akordioak hauxe dio: *"Zerbitzu hauen mantentzea, langileen kostea sartuta beti, udalen eskumena izango da"*. Eta beste hau gehitzen du: "*Foru Aldundiak prestakuntza, aplikazio, gurutzaketa informatikoetan laguntzearen eta aplikazio esparrua Bizkaia deneko gizarte programak ezartzeko koordinaketaren kalterik gabe izango da*".

Iazko gure txostenean agerrarazi genuen bezala, lortutako akordioek adierazitako arazoak konpontzeko eta Arartekoaren hainbat txosten monografikotan egindako gomendioak aplikatzeko borondate garbia erakusten zuten, oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko berariazko atalean barik beste batzuetan ere. Gure erakundearen ustez, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko eginkizunak argitzeko bidean urrats garrantzitsua ere baziren, eta ondorengo jarraipenetarako erreferentziazko bitartekoa ziren.

Aurtengo jarraipena egitera begira akordio horiek oinarritzat hartuta, Arartekoak ofizioz, Gizarte Ongizateko foru diputatuetako bakoitzarengana eta EUDELeko buruarengana jo zuen, informazio eske.

Eskatutako informazioa funtsean, ondokoei buruzkoa zen:

1. Lurralde edo eskumen esparru bakoitzean gure 1999ko txostenean egindako 21 gomendioetako edozeinetan egindako aurrerapenak.
2. Lau erakundeetako bakoitzak akordio horiek aplikatzeko orduan aurkitutako oztopoen edo akordio horietatik sortutako hobekuntzen gainean egiten duen balorazioa.
3. Zenbait konpromiso zehatzetan, hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Akordio Markoan jasotako Gizarte Zerbitzuen Maparen egintzaren garapenean egindako aurrerapausoak.

Informazio horiek 2002ko azaroaren 27an eskatu ziren, eta berriro eskatu ondoren, txosten hau idazten amaitzen ari ginenean, azkeneko egunetan jaso ditugu erantzunak. Jarraian erantzun bakoitzaren edukia laburbilduko dugu.

A) **Arabako Lurralde Historikoa**

Arabaren kasuan, Foru Diputatuarekin eta saileko arduradunekin urriaren 14an izandako bileran, jada aurreratu ziguten diru laguntzen eta tokiko erakundeei laguntzeko bideen gainean, oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko hainbat datu, edo landa eremuko gizarte laguntzako langileen multzoan lortu nahi zen ratioa.

Ondoren, gure eskariari erantzunez, Gizarte Ongizateko Foru Diputatuak txosten luzea helarazi digu, oinarrizko gizarte zerbitzuen prestaziorako 20.000 biztanletik beherako udalerriekin sinatu behar diren itunak araupetu behar dituzten irizpideak onesten dituen 2002ko abenduaren 17ko Foru Dekretuaren testua erantsita. Idatziak, lehenengo atalean, gure gomendioak betetzeko burututako jardueren gaineko datu ugari ematen ditu, eta bigarrenean Sailak erakundeen arteko akordioaz duen balorazioa adierazten du. Ondoren funtsezko edukiak laburbilduko ditugu:

- Gomendioa: oinarrizko gizarte zerbitzuen xedeak eta betekizunak zehaztea.
  - Elkarlana Eusko Jaurlaritzarekin 2002an Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Dekretuaren eta gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutunaren zirriborroen prestakuntzan jardun den erakundeen arteko batzordean.
  - Elkarlana Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Dekretuaren beste zirriborro bat idazten, Eusko Jaurlaritzak eskatuta eratutako gizarte laneko diplomatuen Bazkun Profesionalean sortutako Lan Batzordea.

- Gomendioa: herritar guztien eskubide eta zerbitzuen informazioa zabaltzea.

  Idatziak 1999-2002 tartean egindako jardueren zerrenda dakar; funtsean ekinaldiak egitea, esku orriak, argitalpenak edo web orriak prestatu eta zabaltzea. Hartara, esaterako:

  a) Sentsibilizazio orokorrekoak:
  - Adingabeen aurkako sexu gehiegikerien prebentzio ekinaldia (1999-2002)
  - *“Ahalmen urriko pertsonen artapeneko sare informala”* argitaratzea (1999)
  - *“Nola lagundu amaierako fasean dagoen pertsonari”* esku orria (2000)
  - *“Nekazaritzako sasoikako langileak”* ekinaldia eta esku orria (2001-2002)
  - *“Ezgaitasuna-Adineko pertsonen eskubideak babesteko bermea”* esku orria(2002)
  - “*Besteren mende bizi diren adineko pertsonen eskubideen gutuna*” esku orria (2002)
  - *“Adineko pertsonei emandako tratu desegokiaren gaineko Jardunaldiak”* Argitalpena (2001-2002)

  b) Dauden baliabideen (zentroak) eskaintzarekin zerikusia dutenak:
  - Zentro, taldeko etxebizitza, egoitza eta abar desberdin bakoitzaren gaineko esku orriak…
  - “*Gizarte Ongizatea*” esku orria eta CD-ROM (2002)
  - “*Gizarte Ongizateko programa eta zerbitzuen gida- 2002*” Argitalpena
  - WEB-IFBS orrialdearen edizioa (2002)

  c) Dauden programekin zerikusia dutenak:
  - “*Larrialdietako telefono zerbitzua*” esku orria (1999)
  - *“Etxeko erasogileak artatzeko zerbitzua”* esku orria (1999)
  - *“Haur atzerritarren adopzioa”* esku orria-gida (1999)
  - *“Etxez etxeko laguntza zerbitzua”* esku orria (1999)
  - “*Ikasle eta adineko pertsonen ostatua*” esku orria (1999)
  - *“Familian hartzeari buruzko zure galderen erantzunak”*esku orria (2000-2001)
  - *“Nazioarteko adopzioko gida”* esku orria (2001)
  - *“Familietako harrerako programa”* esku orria (2001-2002)
  - *“Hirugarren adineko zentroetako oinarrizko estatutua”* esku orria (2001)

- Gomendioa: langileen etengabeko prestakuntza
  - Landa eremuan jarduten diren gizarte langileen kolektiboaren koordinaketa.
  - Ondokoen gaineko ikastaroak:
    - Zahartzaroko dementziadun pertsonen eta beren senideen artapena. Senideekin harremanak zaintzaileei laguntzeko (2001).

- Baztertutako pertsonak gizarteratu eta laneratzearen inguruko esperientzien gaineko topaketak (2000).
- Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako tratu txarren alorreko ikastaroak. Esku hartzeko prozesuak (2001).
- Gizarte bitartekarientzako ikastaroak (2001)
- Datuak Babesteko Legea (2001)
- Administrazio hizkuntza sexu ñabardurarik gabe erabiltzea (2001)
- Generoa eta aukera berdintasuna (2001)
- Familia tratu txarren egile edota axolagabeekin lan egitea (2001)
- Euroa gizarte bitartekarientzat (2001)
- Etxeko tratu txarrak eta eraso sexualak (HAEEk antolatuta) (2002)
- Informatikari buruzko hainbat ikastaro (Acces, Microsoft Outlook 2000, Datu pantailen arriskuen prebentzioa).
- Lan segurtasuna bulegoetan (2001).

- Zuzenean antolatu ez diren beste ikastaro batzuetara joateko diru laguntzak.

- Gomendioa: administrazio lanak erraztea eta gizarte lana sendotzea.

  Idatziak dioenez, “*Landa eremuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei dagokienez, erakunde honek, 1999tik 2001era barruko eta kanpoko analisiak egin ditu (azkena SIISen bidez), zerbitzu horietatik hartzen diren erantzukizunen eta jardueraren gainean; zehazki, administrazio lanen zamaren eta gizarte lanaren zamaren gainean, aldagai gisa artatutako kasuak, toki bakoitzean bizi diren herritarrak, zerbitzu bakoitzeko udalerri eta herri gune kopuruak, eremuan kudeatzen diren programak eta zerbitzuak, sakabanaketa eta beste adierazle garrantzitsu batzuk hartuta.*

  *Horren ondorioz, abenduaren 17ko Diputatuen Kontseiluaren 66/2002ko Foru Dekretua 2003ko urtarrilaren 8an argitaratu da, non 20.000 biztanletik beherako udalerriekin, beren lurralde mugetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak betetzeko itunak sinatzeko jarraitu behar diren irizpideak ezartzen diren.*

  *Dekretu horrek landa eremuko Oinarrizko Gizarte ZErbitzuen sailen sarea birmoldatzea planteatzen du, herritarrei ematen zaien artapenaren kalitatean maila egokia mantentzeko, eta finantzaketan aldarazpen bat egiteko ere, orain arte lortu gabe zeuden finantzaketarako irizpide bateratuak definituz, egim dauden desberdintasunak zuzentzera begira.*

  *27/98 Foru Arauan oinarrituz egindako lehenengo eremu banaketa aldatu egin da, Añana, Laguardia-Arabako Errioxa, Agurain eta Zuia Koadrilletan dauden sailak gehituz, eremu bakoitzean sail bat gehiago, horri esker artatu beharreko biztanleen ratioak 2.323 eta 4.329 biztanle izanik.*

  *Era berean, zerbitzuaren jarduera administratiboki sostengatzera begira, Koadrila bakoitzeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetarako administrazioko laguntzaile prestakuntzako pertsona bat finantzatuko da.*

  *Dekretu honen bidez egiten den finantzaketa zerbitzuaren kostearen gehienez %80ra heltzen da.*

  *Neurri honek kontuan hartzen du Eusko Jaurlaritzak, urtero, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak sendotzeko Langile Teknikoen kontratatziorako Diru Laguntzen Aginduan ezartzen duen laguntza*”.

- Gomendioa: tokiko planak.
  - *"Bereziki zailak diren kasuetako artapenari dagokionez, hala nola, babes bereziko haurren kasuetakoa, oinarrizko gizarte zerbitzuek, Haurrentzako Lurraldeko Lan Taldetik ematen zaien laguntzaz eta baliabideez gain, beste profesional batzuen laguntza behar izatea eragin lezaketen kasuetakoa (psikologoak, familien hezitzaileak...), erakunde honek iaz, urtearen amaieran, Euskal Herriko Unibertsitatearekin Lankidetza Ituna hasi zuen."*
  - Profesionalei kanpoko aholkularitza eta laguntza ematea, oinarrizko gizarte zerbitzuak koordinatzen dituen eta funtzionalki zerbitzu horiek mende hartzen dituen Informazio eta Gizarte Artapeneko buruaren bidez.
  - Aholkularitza programa eta zerbitzu desberdinen arduradunei (Bazterkeriaren aurkako Borroka, Aldioroko Prestazioak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak, Alorrez Alorreko Programak, Berdintasunerako Aholkularitza...).
  - Droga mendetasunen prebentzioko eta erkidegoko garapeneko programei sostengua, landa eremu osoan jarduten diren erkidegoko prebentzioko hiru teknikarien bidez.
  - Alorrez alorreko zerbitzuen taldeak gizarteratzen aditua den teknikari sartu berria, bere jarduera landa eremura bideratzen duena; horrela hiru dira gizarteratze gaietako profesional adituak.
  - Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin batera inmigrazioan espezializatutako egitura sortzeko asmoa, oinarrizko gizarte zerbitzuei alor horretan laguntzeko.
  - SARTU elkartearekin lankidetza ituna, Salvatierra/Agurain eta Ayala/Aiara koadrilei udal esparruan gizarte eta lan gaietarako hiru bitartekari profesional eskaintzen diena.

- Gomendioa: irismena, intimitatea eta sostengu teknikoak.
  Idatziak hauxe dio: *"Lokalen irismenari, erabiltzaileen intimitatearen errespetua bermatzeko baldintza fisikoei, eta administrazio lanak eta gizarte lana errazteko aurrerapen teknikoak eransteari dagokienez, Aldundi honek urtero Herri Erakundeentzako Laguntzen Deialdia argitaratzen du, ekipamendua zaharberritu, txukundu eta egokitzeko eta Zentro eta Gizarte Zerbitzuen bide zuzenetan lanerako erabiltzeko materiala erosteko"*, eta 2000n, 2001ean eta 2002an emandako diru laguntzen eta udalen zerrenda jasotzen du Zambrana, Iruña Oka/ Iruña de Oca, Artziniega, Amurrio, Salvatierra/Agurain, Valdegovía udalak, eta Campezo/Kanpezu, Zuia koadrilak, Oyón/Oion, Laguardia eta Ayala/Aiara .
  - Bestalde, hauxe ere esaten da *"Gizarte Ongizateko Foru Institutuak gizarte programa eta zerbitzuen eskarien kudeaketa eta tratamendu informatizatua egiteko sistema dauka"*.

- Gomendioa: administrazio prozedurak erraztea.
  - *"Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren mendeko programa eta zerbitzuen erabiltzaileentzako Irismen eta lekualdaketa araudi berria diseinatzen lan egitea. Araudia ekitaldi honetan argitaratuko da eta profesionalentzat eta balizko erabiltzaileentzat argigarriagoa izaten lagundu nahi du"*.
  - *"Erakundeen arteko komunikazioak hobetzea, datuak lortu eta elkar trukatu ahal izateko, gizarte zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonek ematen ibili*

*beharrik gabe; hori guztia Datu pertsonalak Babesteko Legearen aginduak errespetatuz".*

* * *

Sailak 2001eko otsailaren 8ko akordioan ikusitako hobekuntzei edo horren aplikazioan aurkitutako zailtasunei buruz egiten duen balorazioari dagokionez, Foru Diputatuaren erantzunean, besteak beste, ondoko ohartarazpenak egiten dira:

1. *"Arabako lurraldearen errealitate demografikoa ikaragarri desberdina da, biztanlerik gehienak hiriburuan, Gasteizen bizi baitira, eta gutxiengo bat probintziaren gainerakoan atomizatuta eta sakabanatuta. (...)*
   *Errealitate saihestezin horrek, aldi berean, garapenaren aldetik udal konpromiso maila desberdinak dituzten gizarte zerbitzuen sistema dakar. Batetik, Gasteizko udala dago, gizarte zerbitzuen gaian eskumenak Eusko Jaurlaritzarik, Foru Aldundiei eta Udalei esleitzen dizkien baina erakunde bakoitzak jorratu behar dituen berariazko alderdiak zehazten edo mugatzen ez dituen Eusko Legebiltzarraren urriaren 18ko 5/1996 Legearen babesean garatutako gizarte baliabide eta zerbitzu askoren titular dena. Horixe da, hain zuzen, 2001eko otsailaren 8an lortutako akordio politikoaren helburua, ondoren Eusko Jaurlaritzak gizarte zerbitzuen gaietako betekizunak zehazteko uztailaren 30eko 155/2002 Dekretuaren bidez araupetu zuena. Eta bestetik, probintziako gainerako udalerriak daude, ekonomia eta aurrekontuen aldetik askoz ere ahalbide murritzagoekin, oso biztanleria sakabanatuarekin, demografiako dentsitatearen aldean, eta horrek guztiak ikaragarri zailtzen du erkidegoko edozein gizarte baliabideren plangintza, optimizatzea eta finantzaketa udal ikuspegi soiletik bideratzea.*

2. *Arabako Foru Aldundiak, errealitate horretaz jabetuta, Arabako landa eremuko gizarte baliabideak finantzatzeko formulak artikulatu izan ditu 1989 urtetik. Hala koadrilen Foru Arauaren bidez nola udalekin itunak sinatuta, Foru Administrazioak horiek nagusiki, gutxienez ehuneko 80an finantzatzeko konpromisoa finkatu da, zenbait kasutan ehuneko ehun ere finantzatzeraino helduz, baina erkidegoko gizarte baliabideen erantzukizun zuzen edo berehalakoa tokiko erakundeen gainean lagata (koadrila edo udalak).*

3. *Egoera honek, hasieratik, 155/2001 Dekretuan ezarritako eskumenen irizpideak landa eremuetako udaletara aplikatzea eginezin bihurtu zuen. Udal hauek ez daukate zerbitzuen horien kosteari aurre egiteko behar beste diru baliabiderik eta ez daukate esperientziarik, ez eta halako zerbitzuek ondo funtzionatzea ziurtatzeko behar diren kudeaketako administrazioko azpiegiturarik ere. Egoeraren analisi hau berdina da Arabako EUDELen ikuspegitik zein Foru Aldundiaren ikuspegitik egin, eta horren ondorioz, alderdietako batek ere ez dio besteari probintziako landa eremuan dauden gizarte baliabideen sarean lehen aipatutako Dekretu hori hitzez hitz betetzerik eskatu. Udalek eta koadrilek gizarte zerbitzuak kudeatzeko eta foru aldundiak baliabide horiek nagusiki finantzatzeko lehenagoko kudeaketako*

*irizpideak mantentzen dira baita, eremuan gizarte programa eta zerbitzu berriak sortu eta abian jartzera begira, gizarte politikak bultzatzekoak ere. Nolanahi ere, irizpide horiek ez dira 155/2001 Dekretuan ezarritakoetatik asko urruntzen, baliabideen finantzaketaren egozpenari dagokionean ezik, zeren hori, betekizunen Dekretuaren arabera, udal eskumen eta finantzaketakoa baita, baina funtsean Foru Aldundiak ordaintzen jarraitzen ditu.*

4. *Gasteizko udalarekin, ordea, etengabe eta iraunkorki harremanetan egon gara, behin eta berriz aipatutako eskumenen Dekretuaren jarraibideak gauzatzeko. Ahalegin tekniko eta politiko handiak egin ondoren, akordio markoa lortu zen, Lankidetza Itunaren forma juridikopean, Dekretu horretan ezarritako eskumen antolamenduko irizpideak aplikatzen zituena, alderdiek ondoko konpromisoak beren gain hartuz:*
   a) *155/2001 Dekretuak hizpide dituen baliabide, zentro, zerbitzu eta programak identifikatzea, norenak diren, zein erakundek hartzen duen finantzatzeko ardura eta kudeaketaren ezaugarriak zehaztuz, baterako edo besterako eskuordetze akordioak egoteari dagokionez (Aldunditik Udalera edo alderantziz).*
   b) *Oinarrizko eta balio ugariko, erkidego esparruko eta oro har biztanleria osoari zuzendutako, baita arazo eta arrisku egoera zehatzei aurre egiteko eta udal eskumenekotzat jotzen diren Gizarte Zerbitzuen izenpean biltzen diren baliabideak zehaztea, berariazko kolektiboengana bideratzen diren eta foru eremuan sartzen diren beste zerbitzuen aldean.*
   c) *Horien partaidetza formulak eta hedapena definitzen ziren, baita finantzaketa irizpideak ere, bi erakundeentzako finantzaketa orekaren eta neutraltasunaren oinarrizko irizpidearen mende.*

5. *Akordio marko hau eta baliabiderik garrantzitsuenak onuradunen kopuruaren eta diruzko kosteen arabera antolatzeari ekiten zion lehenengo itun edo garapen eranskina (ELZ, Larrialdiko Telefonoaren Zerbitzua, San Prudentzioko egoitzaren mendeko pertsonentzako tokiak, eta Haur Etxeak) blokeatuta geratu dira aplikazioan, udal gobernuko taldeak ez zuelako behar beste babes lortu Udalaren Osoko Bilkuran onesteko, eta hori beharrezkoa zuen, tokiko araubideko legediaren arabera, akordioa sinatzeko".*

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizateko sailetik jasotako erantzun luze eta zabal honek lurralde horretako, batez ere landa eremuko oinarrizko gizarte zerbitzuen hobekuntzan egindako aurrerapenak eta aurkitutako oztopoak zeintzuk izan diren ikusteko beste datu eta balorazio eskaintzen dituela uste dugu. Agerian jartzen dituzte, halaber, lurraldearen ezaugarriak eta jasotako informazioen arabera etorkizunerako jarraipen bide berriak planteatzeko aukera ematen digute.

### B) **Bizkaiko Lurralde Historikoa**

Gure informazio eskariari erantzutean, Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak erakundeen arteko eskumen banaketako akordioak aipatzen ditu, eta *"Foru Sail honetatik ezin dugu horren gaineko informazio xehaturik eman, baina akordio*

*horren ostean denoi ukitzen diguten gaietan komunikazio arina eta ugaria daukagula jakinarazi behar dizut*" gehitzen du, eta uste du EUDEL dela guk galdetutako gai horien erantzun xehatua eman ahal izango duena.

Atal honen amaieran EUDELengandik jasotako erantzuna laburbilduko da. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak daturik ez ematea ikaragarri desberdin ikusten dugu Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Gizarte Ekintza Sailetatik jaso dugun informazio ugariaren eta xehatu eta doituaren aldean.

### C) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Foru Diputatuarengandik 2003ko otsailaren 7an jasotako idatziak, gure informazio eskarian planteatutako hiru gaien erantzuna bereizita ageri da:

1. Gomendioak betetzen egindako aurrerapenak.
2. Erakundeen arteko akordioak aplikatzeari buruzko balorazioak.
3. Gizarte Zerbitzuen mapa prestatzen egindako urratsak.

Jarraian funtsezko edukiak jasoko ditugu.

#### 1. Gure txosteneko gomendioen gainean lurraldean egindako aurrerapenak.

Idatziak gogoratzen du Eusko Jaurlaritzari dagokiola legea arautegi bidez garatzea, eta oinarrizko gizarte zerbitzuak udalaren eskumenekoak direla, argi eta garbi, eta horregatik gomendiorik gehienenak gauzatzea udal bakoitzaren ardura dela. Hala ere, pentsatzen dute Gizartekintzak horietakoren bati dagokionez paper aktiboa izan duela. Zehazki:

- Langileen etengabeko prestakuntzan: "*oinarrizko gizarte zerbitzuen profesionalen multzoari zuzendutako eta jakintzetan egunean jartzera eta berriak hedatzera bideratutako prestakuntza eskaintza iraunkorraren bidez*".
- Profesionalentzako kanpoko aholkularitzan eta sostenguan: "*Foru Aldundiak lehiaketen bidez kontratatutako Eskualdeko Sostengu Taldeak sortuz. Talde horietan haurretan, familiekiko gizarte lanean eta plangintzan adituak daude, eta lurralde estaldura eta betekizunak hedatuz eta osatuz joan dira Lurralde osoraino heldu arte –Donostiara ezik, duen antolamenduzko garapenarengatik ez baitu halako aholkularitzarik behar-.*

  *Gomendio honekin lotuta, Gipuzkoako landa udalerrietako gizarte zerbitzuak, udalerri horienganako bereizketa positiboko marko egonkorraren bidez sendotzera beren beregi bideratutako HURBILTZEN planaren diseinua azpimarratu behar dugu. Gaur egun, planaren hasierako diseinua ukitutako arduradun eta politikariekin kontrastatzen ari gara, 2002ko martxoan formalki onestera begira*". (Pentsatzen dugu 2003ko martxoa esan nahi dutela).

Beste gomendioei dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak uste du "*gehienek indarrean segitzen dutela eta, bereziki, ondokoak egitea beharrezkoa dela*":

- *Halako zerbitzuetarako berariazko araudi bat prestatzea.*
- *Lana egiteko moduak birbideratzea.*
- *Zerbitzuen erakunde irudia sendotu eta bateratzea.*"

**2. Sailaren balorazioa, EUDELekiko akordioaren aplikaziotik etorritako hobekuntzen edo horretan aurkitutako oztopoen gainean.**

Foru Diputatuaren erantzunak akordioaren eta bere garapenaren balorazio orokor ona egiten du, eta zenbait aurrerapen adierazten ditu, honelaxe: *"Balorazio orokorra ona da; bai akordio-markoa sinatzea bai eskumenen dekretuaren ondorengo onespena mugarri izan dira gure gizarte zerbitzuen garapenean. Horren ildotik, eta garapen hau Arartekoaren 99ko txosteneko gomendioei lotuz, funtsezko alderdia gizarte zerbitzuak udal erantzukizun gisa sendotzea da. Izan ere, txostenaren gomendio askok lanaren antolamenduko, langileriako, soslai profesionaletako, taldeen sendotzeko, eta abarreko alderdiak azpimarratzen dituzte, giza baliabideen sailekoak azken batean. Behar diren aldaketak planteatu ahal izateko, ezinbestekoa da administrazio eskudunak giza baliabide horiek beretzat hartzea, eta jarrera hori sendotu egin da akordio horren ondorioz.*

*Horren adierazgarri dira Donostia edo Irun bezalako udaletan figura profesional berriak sortzea, edo zenbait gizarte langile langileria organikora sartzea, zenbait lanpostu behin betiko zuzkitzeko lehiaketak deitzea, udal lehiaketa publikoak iragartzea lehenago Aldundiak diruz laguntzen zituen zerbitzuak kudeatzeko, eta abar.*

*Gizartekintzaren ikuspegitik, akordioak bere berezko erantzukizunetarantz argiago bideratzea ahalbidetu du eta, horrek, beharrezkoak izan arren historikoki atzeratuz joan diren erabakiak hartzea (esaterako, adineko pertsonentzako tokiei eusteko eta finantzatzeko eredua, Plangintza Zerbitzua sortzea, edo eskariak kudeatzeko extranet informatikoa garatzea), barruko prozesuak hobetzea (kalitate prozesuak, agintedunen koadroak, itunak sistematikoki ikuskatzea gizarte ekimenarekin) eta artapen ereduak, programak eta ekipamenduak ikuspegi autonomoagoetatik definitzea ekarri du."*

Zailtasunak maila desberdinetan jartzen ditu:

- *"Erakunde edo politika mailan, eskumenen dekretuan herritarrei trantsizio epean zerbitzu berberak eskaintzea bermatzeko aurreikusten diren finantzaketako birdoitzeak praktikan jartzea. Gizarte zerbitzuek akordioaren aurretik udalerri bakoitzean zuten egoeraren berariazko errealitateak (udal aurrekontuzko ahaleginaren eta arduradun politiko bakoitzaren sentsibilitate desberdinen terminoetan) doitzearen lurralde mailako ondorioak edo ondorio orokorrak kasu bakoitzean desberdin izatea dakar. Horren haritik, Gizartekintzak informazio eta adostasunerako oso ahalegin handia egin du, trantsizioko diru fondoa sortzeaz gain. Hala ere, horrek ez du eragotzi hainbat udalek erakundeen arteko harremanak araupetzen dituen Ituna ez sinatzea.*

- *Maila profesional edo teknikoan, gizarte zerbitzuen ereduaren beraren berezko zailtasunak, zerbitzu horiek udal teknikariek oinarrizko artapena ematen dutenekoak eta sistemarako baliabide guztietara, udal eskumeneko izan ez zein, sartzeko atea direlarik. Izan ere, eskumenen doitzeak programa askoren arauketan eta horiei lotutako kudeaketa prozesuetan hainbat aldaketa egitera behartu du, bai Aldundiak bai udal bakoitzean. Bata bestearen ostean eta segidan egindako aldaketa eta doitze horiek definiziorik gabeko eta "behin behinekotasuneko" tarteak ekarri ditu, eragin txarra izan dutenak. Gaur egun epe hori ia gaindituta dago.*

- *Maila mistoan (bai arduradun politikoen bai teknikoen mailan) sakoneko arazoak sortu dira "mendetasuna - autonomia" (adinekoen kasuan) eta "babesik eza - arriskua" (haurren eta familien kasuan) binomioen definiziorako metodologiaren gainean, kontzeptu biek dituzten eskumen eta diruzko inplikazioen ondorioz. Gai honetarako hainbat batzorde misto egin behar izan dira, baina gaurko egunez oraindik ezin dugu esan gaia itxita edo dagoenik."*

**3. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa prestatzeko egindako urratsak.**

Mapa prestatzea Gizartekintzak eta EUDELeko Gipuzkoako Lurralde Batzordeak 2000ko abenduan sinatutako akordioan jasotako konpromisoa da. Lurralde historikoaren multzo osorako artapenaren plangintza eredu bat edukitzeko beharrari erantzuten dio. Hara zer dioen Foru Diputatuaren erantzunak: *"Gerora, Gipuzkoako udal bakoitzarekin sinatutako Lankidetza Itunek dokumentu hori prestatzeko konpromisoa beren beregi jaso zuten.*
*Gizartekintza prozesuaren aitzindari izan zen adineko pertsonen esparruko xedeen eta lurralde antolamenduko marko baten zirriborroaren hasierako aurkezpenarekin. Aurkezpenak eskualde mailan egin ziren, 2001eko azaroan, eta ia udal guztiak etorri ziren. Lehenengo atal honetarako alegazioen epea zabaldu zen.*
*2002ko otsailean bigarren atala aurkeztu zen, ezgaitasunaren, haurren eta gizarte bazterkeriaren alorretako xedeekin. Alegazioen epearen ondoren, zirriborro osoa udaletako arduradun politikoei eta teknikoei helarazi zitzaien, baita hainbat gizarte erakunde, talde profesional, eta abarri ere, beren ekarpenak egin zitzaten eskatuz. Ekarpen horiek sartu ondoren, Mapa Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu zen, 2002ko martxoaren 22an.*
*Mapak gizarte zerbitzuen prestazioan lurralde esparru desberdinetan iritsi beharreko zenbatezko eta zer-nolakoen helburuak ezartzen ditu, eta udalen eta foru aldundiaren jardueren plangintza eta programaketa egiteko oinarri izan behar du.*
*Dokumentua bost atal nagusitan egituratuta dago:*
*1. Eremu banaketa*
*2. Adineko pertsonen artapena*
*3. Ezgaituen artapena*
*4. Arrisku eta babesik gabeko egoeretan dauden haurren artapena*
*5. Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka.*
*2003ko martxoan garapenaren lehenengo ebaluazioa egingo zaio, koherentzia gehitzeko eta inplikatutako erakundeek dauzkagun behar eta baliabideen bilakaerara moldatzeko, bereziki aldi berean diseinatutako alorrez alorreko planekin kontrastatuz."*

D) **EUDELetik etorritako erantzuna**

Gure informazio eskariari erantzuteko heldu zaigun EUDELeko buruaren idatziaren gai nagusia, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legea indarrean jarri zenetik, erakunde desberdinen artean eskumenen banaketa zein den argitzeko egindako urratsak dira. Argitzeko ahaleginei dagokienez, adibidez, esaten du *"2002ko lehenengo hiletan erakundeen arteko batzorde teknikoa eratu dela, bi araudiren testua prestatzeko,*

*hau da, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaile eta Profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutuna, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak araupetuko dituen Dekretua.*

*Hartara, 2000 urtean aurrerapen nabarmena egin zen bi arautegien idazketan, eta batez ere lehenengoaren idazketan, esku hartu zuten alderdi guztiek adostutako dokumentua aurkeztuz. Testu horretan, goiburuak berak adierazten duen bezala, gizarte zerbitzuetako profesionalen eskubideak eta betebeharrak xehatzen dira, horiek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen aipatutako Dekretu Zirriborroaren pronuntziamenduekin batera, 1999ko txostenean egindako gomendiorik gehienei erantzungo liekete."*

Ildo berean, jasotzen du gizarte zerbitzuetako eskumenen banaketaren erakundeen arteko 2001eko otsailaren 8ko akordioak, baita bere lurralde zehaztapenek ere, eta gizarte zerbitzuetako eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren onespenak ere bai. Idatziak aipatutako dekretuaren balorazioa egiten du eta, azkenean, egiten ari diren zenbait jarduera aipatzen ditu, honelaxe:

*"Dekretu honek Administrazioek gizarte zerbitzuen gaian dituzten betebeharrak zehazteko oinarriak finkatzen ditu. Aurrerapen handia da Gizarte Zerbitzuen legearen definiziorik ezaren aurrean, bakoitzari bere jarduera eremua zer zerbitzuk osatzen duten jakiteko aukera ematen baitio, Gizarte Zerbitzuen Legeak aldarrikatzen duen beharrezko administrazioen arteko lankidetzara eta eskumenen aurreikusitako eskuordetzera begira, elkarlanean jarraitzearen kalterik gabe.*

*Dekretu hau martxan jarri ostean lurralde jarduera ugari egin dira gizarte zerbitzuak nola eman zehazteko.*

*Oro har, Gizarte Zerbitzuen Erakundeen Arteko Mahaitik etorritako ekintzak garatzen jarraitzen da, eta horretan laguntzeko duela gutxi Erakundeen arteko Batzorde Mistoa sortu da. Zehazki, gaur egun, besteak beste, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Dekretuaren zirriborroa berriro hartzeko, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua araupetuko duen gerorako Dekretua jorratzeko, eta finantzaketa fluxuak birdoitzeko lanetan ari gara. Gai horiek guztiek 1999ko txostenean jasotako gomendio batzuei erantzun liezaiekete".*

* * *

Ondorioz, erakunde honen iritziz, jasotako informazioak oinarrizko gizarte zerbitzuak hobetzeko eta gure gomendioak betetzeko bidean izandako aurrerapena eta oztopoak hobeto ezagutu ahal ditugu; lurraldeen arteko desberdintasunak ikusten ere uzten du, eta ondorengo jarraipenak egiteko balia genitzakeen elementuak eskaintzen dizkigu. Nolanahi ere, komeni da gogoratzea oinarrizko gizarte zerbitzuen sakabanaketak eta beren udal eraketak oso egoera desberdinak izatea dakarrela, eta profesionalen jarduerari eta herritarrei izatez ematen zaien zerbitzuari lotuago dauden gaien gaineko jarraipena egitea oztopatzen dute.

## 1.1.9. EAEn BURU-GAIXOEI EMATEN ZAIEN GIZARTE-ARRETAREN GAINEKO JARRAIPENA

Burutik gaixorik dauden pertsonentzako gizarte arretari buruz Arartekoaren erakundeak eginiko aparteko txostena 2000ko ekainaren 19an kaleratu zen, Eusko Legebiltzarreko buruari eman zitzaion eta Giza Eskubideen eta Hiritarren Eskabideen Batzordean urte horretako urriaren 26an eztabaidatu zen. Era berean, txosten horren kariaz, Osasun sailburua Legebiltzarraren Osasun Batzordearen aurrera azaroaren 16an agertu zen, berak eskatuta.

Txostenean, zehazki, hainbat administrazio ukitzen dituzten 18 gomendio daude, hortaz, Osasun Saila bakarrik ukitzen ez dutenak. Hain zuzen ere, buruko gaixotasun kronikoak zituzten pertsonen beharrizanei erantzuten hainbat administrazio eta zerbitzuk parte hartzea gaiari ekin eta erantzukizunak mugatzerakoan egondako zailtasunetako bat izan zen, eta egindako aurrerapenak baloratzerakoan dagoen zailtasunetakoa da, halaber.

2001ean, gomendioak bete ziren jarraitzeko, bi bide osagarri bakarrik erabili ziren: FEDEAFESen sarturiko buru-gaixoen senideen elkarteen ordezkariekin informazioa trukatzea eta Osasun sailburuari datuak eskatzea. Sailburuari datuak nahiko era zabalean eskatu zitzaizkion: haren sailaren jarduketa-eremuei buruz egokietsiko zuen informazioa helarazteko eskatu genion, txostena ekarri zuen lana bukatu ondoren egindako jarduketei buruzkoa zehazki. Beraren esku utzi genuen gure jarraipenerako interesgarria izan zitekeen informazioa bidaltzeko era edo metodoa, berak egokien zeritzon era edo metodoa erabili ahalko zuelarik: datu esanguratsuak ekartzea, eskumen esklusibo edo konpartituko gomendioei begirako jarduketa eginak, txostenean zehazki aztertutako talde jakin batzuentzako zerbitzuei buruzko ekimenak, hala nola, adin txikiko pertsona taldeentzakoei buruzkoak.

Datu eta informazio orokorrak ezezik, eskatu genuen pertsona buru-gaixoen senideen elkarteek beraiekin izandako bileran azalduak zizkiguten kezka nagusietako batzuei buruzko informazio zehatza ere. Horren bitartez, elkarteek azaldutako lau oinarrizko arazori buruzko Osasun Saileko arduradunen balorazioak jaso gura genituen. Lau arazo horiek honakook ziren:

- Eraginik gabeko psikosiaren atalaren mugak.
- Borondatezko zentrorapenei buruzko irizpide-ezberdintasunak, lurraldeen artekoak.
- Kasuen jarraipenerako eta profesionalen arteko koordinaziorako arazoak.
- Buru-osasuneko zentroetako lan-zama handiegia eta beraren ondorioak.

Osasun Sailaren erantzuna Osakidetzaren Psikiatri Laguntza eta Buru Osasuneko buruak egindako agirian zetzana izan zen. Berarekin batera Arabako Psikiatri Ospitalaren Eraginik Gabeko Psikosiaren Atalaren lehenengo urteko ibileraren balorazioa ageri da. Agirian azterturik zeuden, lehenengo zatian, txosteneko 18 gomendioetariko bostekin loturiko gaiak, eta, bigarrenean, lehen azaldutako lau gai zehatzak. Erantzuna eman zitzaien bost gomendioak honakook ziren:

- Bitarteko baliabideen sarea indartzea (Txosteneko 5. gomendioa).
- Adin txikiko biztanleentzako zerbitzuak gehiagotzea (6.a).
- Errehabilitazio-aukera bermatzea (10.a).

- Zerbitzuen kalitatea kontrolatu eta ebaluatzea (12.a).
- Babes-fundazioak sortzea sustatzea (15.a).

Horrela bada, erantzunak bost gomendiook izan zituen ardatz nagusi. Beraietan gabetasun jakin batzuk aintzatetsi ziren, zenbait zerbitzu berriri eta hartutako akordio batzuei buruzko informazioa eman zen. eta hobetzeko etorkizuneko jarduketak hobetsi ziren, zehaztapen maila ezberdinekin. Hura 2002ko urtarrilaren 31n jaso eta iazko txostenean laburtu eta sartu zen. Bai gomendioei buruzko datuez bai senideen elkarteek azaldutako lau gaiei erantzuteko emandakoez ari gara (2001eko txosteneko 1.1.9 at., kop.).

Azken urte honetako jarraipenak orain arte idaztoharturiko gaietako bi izan ditu ardatz nagusi:

1. Babes-fundazioen egoera.
2. Borondatezko zentrorapenen gaiarekin loturiko judizializazio anbulatorioaren gaia.

1. **Babes-fundazioak** sortzeko Arartekoaren gomendio zehatzari zegokionez, Osasun Sailaren erantzuna honakoa izan zen hitzez hitz: "*Bizkaia zen gai honetan problematikoena zen Lurraldea. 2001ean zehar gizarte eta osasun guneko arduradunaren bitartez lan-bilerak finkatu ziren. Beraiek direla bide, babes- edo tutoretza-beharrizanak duten gero eta psikiatri gaixo gehiago Bizkaiko Babes Fundazioratzeko protokoloa finkatu da. Bai Arabak bai Gipuzkoak beren tutoretza-mekanismoak ezarririk zituzten, laguntza-sistemaz gain.*"

   Azken urtean zehar hainbat aldiz azaldu zaizkio tutoretza-beharrizanak kezkatzeko zio bezala Arartekoari: Batzuetan, senideen elkarteek edo babes-fundazioek eurek kexa agertu dute; eta, bestetan, laguntza-zerbitzu jakin batzuk bisitatu dira.

   Komenigarria bide zen hiru lurraldeetako bakoitzeko erantzunari begirako beharrizanak, eskariak, mugak eta aukerak ezagutzea. Horretarako, Arartekoa Gizarte Ongizateko hiru foru diputaturengana ofizioz zuzendu zen eta hiru Probintzi Entzutegietako fiskaltzen lankidetza eskatu zuen, halaber.

   Funtsean, erakunde bakoitzari zuzendutako idazkietan, egun batean egindako gomendioaren gomendioa gogora ekarri eta lurralde bakoitzeko egoerari buruzko informazio eguneratua eskatu zen.

   Babes-fundazioak sortzea sustatu beharrari buruzko gomendio zehatza, *Buru-gaixotasunerako erkidegoko arreta*ri buruzko aparteko txostenean egina, honelaxe bildu zen:

   *"Beren buruaren jabe izateko gaitasun osorik ez duten gaixo asko daude, defentsarik ezean babes-funtziorik burutu ezin duen ahaide edo beste pertsonarik ez duten eta ezgaikuntza eskatzen dutenak. Hori dela eta, beharrezkoa da buru-gaixoaren ingizatea, segurtasuna eta babesa nahi duten nortasun juridikoak eratzea. Babes-fundazioa da erarik egokiena. Horregatik, hura sortzea sustatu behar da.*

*Seniderik ezare aurrean ezgaituaren egoera jurdikoa hobetu behar da. Hobeto zehaztu behar da egitatezko zaintzaileen eta tutoretzaren egoera eta izaera juridikoa, eta senideen eta gizarte babeserako erakundeak sustatu behar dira, baldin eta ezarritako beharkizun eta berme guztiak betetzen badira. Era berean, familiak epai-tutoretzara subsidiarioki jotzea bultzatu behar da, pertsona ezgaituaren senide tutorea hiltzen den kasuetarako".*

Orain eskatutako informazioa datu eta balorazio batzuetan zehaztu zen:
- Zein babes-fundazio dagoen lurraldean eta zenbat pertsona babesten duen.
- Zenbat babes-eskabide jaso diren azken bi urteetan (2001ean eta 2002an) eta zergatik jaso diren, eta zenbat izan diren haiekiko baiezko erantzunak eta ezezkoak.
- Zein beharrizan eta zein zio zehatzek dakartzan babesak: buru-atzerapenak, buru-gaixotasunak minusbaliotasunak, adinak...
- Dagoen sarea egungo eta etorkizun hurbileko beharrizanak asetzeko nahiko direla uste duten, eta lurraldean babes-fundazio publikoa sortzekio proiekturik dagoen (Bizkaiko kasuan, zer dagoen aurreikusita sortuta dagoen fundazioari begira).
- Dauden babes-fundazioak ekonomikoki buruaski izan daitezkeela uste duten edo haiek horrelakoak izatea nahi duten, eta, hala denean, zein diren haiek Aldundiarengandik jasotzen dituzten laguntzak.

Txosten hau behin betiko idatzi aurre-aurretik egunetan doakien erakunde guztien erantzunak jaso ditugu. Kasu batean (Arabako Fiskaltzarenean), erantzuna ahozkoa izan da; eta besteetan idatzizkoa, txosten hau egin aurre-aurretiko hilabeteetan idatzia (Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Fiskaltza).

Gainera, Bizkaiko kasuan, Foru Aldundiaren erantzunak Tutoretza Institutuari buruzko datuak bai baina Gorabide Babes Fundazioari buruzko daturik agertzen ez zuela kontuan harturik, beronengana jo genuen zuzenean, beraren datuak jasotzera eta, horrela, osotasunari buruzko ikusmolde globala eman ahal izateko asmotan.

Egia esan, erantzun bakoitzak gai batzuk edo beste batzuk ditu ardatz eta datu gehiago edo gutxiago ekarri ditu. Horrek ondorio globalak lortzea zailtzen du. Alabaina, hemen interes handienekotzako alderdiak biltzen saiatuko gara, edo egungo egoera, lorpenak eta beharrizanak hobeto ezagutzea ahalbidetzen dutenak.

a) Zein diren dauden babes-fundazioak eta zenbat pertsona babesten duten erantzuteko, jasotako datuak honelaxe labur daitezke:

- Arabako Lurralde Historikoa
  - Usoa Babes Fundazioa, APDEMA elkarteari (Arabako Adimen urrikoen aldeko Elkarteari) lotua:
    2001: tutoretzapeko 16 pertsona; 2002: 17 pertsona.
  - Buru-gaixoen Babes Fundazioa ASAFES elkarteari (Familien eta Buru-gaixoen Arabako Elkarteari) lotua:
    2001: tutoretzapeko 32 pertsona; 2002: 40 pertsona.
  - Egoitza-zentroetako zuzendaroek zahar ezgaituekiko burutzen dituzten tutoretzak: 7 (9 egoitza-zentroen 700 bat erabiltzaile daude guztira).

- Bizkaiko Lurralde Historikoa
  - Bizkaiko Tutoretza Institutua, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpekoa:

| | 2001 urtea | 2002 urtea |
|---|---|---|
| • Tutoretzak | 54 | 149 |
| • Kuradoretzak | 7 | 11 |
| • Ondasun-administrazioa | 1 | 5 |
| • Ondasun txikiagoen administrazioa | 19 | 22 |
| • Epailearen defentsa | - | 125 |
| • Sinatzekoak | - | 10 |

  - Gorabide babes-fundazioa.

  Fundazio pribatu honek pertsonen gaineko tutoretza 1992az geroztik du, famili problematika larriko, erabateko umezurztasuneko, abandonuko edo abusuko eta tratu txarretako egoerei erantzuteko. Kontuok, normalean, buru-atzerapenari edo buru-gaixotasunari lotuta egoten dira. Azken bi urteetako tutoretzei buruzko daturik esanguratsuenak honela labur daitezke:

| | 2001 urtea | 2002 urtea |
|---|---|---|
| • Tutoretzak | 58 | 64 |
| • Kuradoretzak | 1 | 1 |
| • Egitezko zaintzak | 1 | 3 |
| • Eskuorde edo tutoreen kopurua | 38 | 40 |
| • Tutoretzak onartzeko konpromisoak (tramitatzen ari diren edo testamentuzkoak diren tutoretzak onartzekoak) | 18 | 12 |

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa
  - Hurkoa fundazioa: “*fundazio pribatu honek pertsona zaharrak edo bestelakoak babestea du xede, baldin eta gai ez badira, senide-harremanik ez badute edo beraiek defendatu ahal dituen beste loturarik agertzen ez badute*”, eta “*AGIFESekin (Gipuzkoako Buru-gaixoen Senideen Elkartearekin) buru-gaixoentzako aholkularitza, defentsa eta tutoretzarako hitzarmenik sinaturik du.*”
    - 2000: tutoretzapeko 136 pertsona
    - 2001: tutoretzapeko 150 pertsona (Fiskaltzaren idazkiaren arabera: 88 tutoretza, 7 kuradoretza eta tramitatzen ari diren beste 16 tutoretza).

  - Atzegi fundazioa: “*fundazio pribatu honen egitekoa pertsona atzeratuak babestea da, berauek beren gurasoak galdutakoan beraiekiko ardurarik hartu ahal duen senide edo lagunik ez badute*”.
    - 2000: tutoretzapeko 32 pertsona
    - 2001: tutoretzapeko 34 pertsona (Fiskaltzaren arabera: tutoretzapeko 40 pertsona).

b) Azken urte bietan aurkeztutako tutoretza-eskabideei eta berauetarako baiezko edo ezezko erantzunei zegokienez, erantzuteko gaitasuna benetako eskarietara zein neurritan doitzen zen jakin gura genuen.

Tutoretza-eskariei buruz ia ez da zenbakizko daturik jaso, eta, orokorrean, kontsultatutako erakundeen ustez, estaldura ematen ari zaie "*ezgaitasuna lortu ahal duten ia pertsona guztiei*". Nolanahi ere den, talde zehatz batzuekiko arazoak aintzatetsi dira. Gai hori hurrengo atalean aztertuta dago.

Bizkaiko ezgaitasun-eskariei buruzko datuak bakarrik ditugu. Justizi Auzitegi Nagusiko Fiskaltzaren idazkian aipatuta dagoenez, "*2001ean Fiskaltzak guztira 398 ezgaitasun-eske jarri zituen; eta 2002an, 673*". Horren arabera, eskeak eta, hortaz, erantzun-beharrizanak askoz gehiagotu dira.

c) Hainbat taldek azaldutako beharrizan zehatzei buruzko informazioa, jaso duguna, hainbat aipu zehatz dituena da:
- Egoitzetan hartutako 65 urtetik gorako pertsona taldea. Aipatu den bezala, 7 kasutan tutoretza Arabako GOFEren egoitza-zentroetako zuzendariek berenganatu dute.
- Gazteak edo adin ertainekoak diren buru-gaixoen taldea.
  Gipuzkoako kasuan, dirudienez, Hurkoa fundazioaren eta Aguifes elkartearen arteko akordioaren bitartez bideratu da, aldez behintzat, arazo hau. Hala ere, lurralde horretako Fiskaltzaren idazkian ageri denaren arabera, "*buru-gaixoentzako bitarteko material nahikorik ez dagoela uste dugu. Pertsonon problematika haiek sendabidea jasotzeko sartuta dauden zentroetatik irteten direnean azaltzen da. Normalean, Psikiatri Ospitaleetatik irteten direnean, beren familiengana itzultzen dira. Hala ere, batzuetan, familiak ezin du edo ez du nahi gaixoarekiko ardura hartu, eta hura ez da egoitza batean sartu ahal den pertsona zaharra. Horrelakoetan, alta jasotzen dutenean, ez dute nora jorik, inork ez die medikamentua hartzeko kontrolik ematen, gizartean isolaturik edo bakarrik daude, haien ekintzak ezin dira kontrolatu (hori dela eta, fundazioon jarduketa ia ezinezkoa da) eta, horren ondorioz, azkar deskonpentsatzen dira eta haiek berriz zentroetaratzea beharrazkoa da, eta berriz hasten dira lehen aipatutako jazoerak.*
  *Horregatik, haien babesaren ikuspuntutik arazoak urriak direlakoan bagaude ere, gure ustez, beharrezkoa da administrazioek gero eta zabalagoa den pertsona talde honen arazoak konpontzea, zentroak edo tutoretza-pisuak sortuz, zeinetan Psikiatri Ospitaletik irteten den gaixoarentzako eta etorkizuneko tutorearentzako erreferentziazko pertsona dagoen*".
- Gaituta ez dauden iragaitzazko pertsonen taldea
  Bera zaintzen oso zaila da, bere ezaugarriengatik, Gipuzkoako Fiskaltzaren idazkiarekin bat etorririk.
- Bizkaitik kanpora lekuz aldaturiko pertsona minusbaliatuak.
  Beraiek gaituta dauden ala ez jakin behar da, eta nork burutzen duen haien tutoretza edo nork dituen haien tutorearen funtzioak.

- Pertsona drogazaleak
  Iraupen luzeko kasuetan gaitasunik ezeko ahalbideak edo haiek ohitura kentzeko zentroan beren gogoz kontra sartzeko aukerak.

d) Tutoretza-fundazio publikoren bat sortzeko proiektu eta etorkizuneko beharrizanei erantzuteko egungo sarearen gaitasunari dagokionez, erantzunak oso ezberdinak dira lurralde bakoitzaren arabera.

- Arabako Foru Aldundiak adierazi du ezen ez duela tutoretza-erakunde publikorik sustatu. Lurraldeko bi fundazioek dituzten profesionalen datuak ekarri ditu, eta kasu bakoitzean erabilitako erakunde-laguntzaren zenbatekoa eta bidea, 2002an 173.000 €, APDEMA elkartearentzat, Usoa Tutoretza Fundazioa menpean duenarentzat, lankidetzarako hitzarmenaren bitartez.
  16.773,63 €, Buru-gaixoen Tutoretza Fundazioari, GOFEren laguntzetarako eta diru-laguntzetarako urteko deialdiari bitartez.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, lurraldean dauden fundazioek "*oso ondo estali ahal dituzte sortutako beharrizanak, gizartean nahiko finkatuta baitaude, Gizarte Zerbitzuen markoan esperientzia baitute eta Herri Administrazioak ageriko laguntza ematen baitie.*
  Horri begira, ez da xede hori duen norbanakoen erakunde berririk sortu behar. Izan ere, gizarte izaerako erakundeak atomizatzea eta sektorekatzea saihestu behar da. Egin-eginean, horrek helburuak lortzeko ahultasuna ekarriko luke eta herri gastu handiagoa sortu.
  *Ez dago fundazio publikorik sortzeko proiekturik. Izan ere, interesgarriagoa da beharrizanok Administrazioak laguntzen dien gizarte izaerako erakunde pribatuek estaltzea*".

- Bizkaiko kasuan, aldiz, tutoretza-erakunde publikoa sortzea erabaki zen egun batean. Egin-eginean ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunak aipatu erakundearen ibilerari buruzko balorazioak eta datuak bakarrik ditu oinarri. Era berean, Fiskaltzaren idazkian gai hori aztertu zen zehazki, bertan garatutako hiru puntuak alegia:
  1. *"Bizkaiko erakunde publikoak azken urtean bereganatutako tutoretzak, kuradoretzak eta judizioko defendatzaileen karguak askoz gehiagotzea.*
  2. *Tutoretza-erakunde publikoaren esku-harmenaren balizkoak gehiagotzea, aurreikusitakoaren arabera.*
  3. *Herri erakundeek, hala nola, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak, tutoretza-funtzioak burutzeko ikusten diren halako abantaila edo erronka batzuk, berenganatu beharrekoak."*

  Bertan bilduta daude bilakaera-datuak, aurreikusita dago eskeak askoz gehiagotuko direla, nabarmenduta daude aipatu erakundea sortzeak haren iritziz ekarri dituen elementu onak, aipatuta daude hobekuntzaren bat (esate baterako, eskuorde tutorearen figura sartzea) sartzeko haren aukerak eta mugak, eta, hori guztia oinarri harturik, honakoa ondorioztatu da:

*"Aurreko ondorioak ikusita, Bizkaiko Lurralde Historikoan Tutoretza Erakundeak ordezkatuta dauden baina lurralde osoan funtsezkoak diren horrelako erakundeen lan garrantzitsua nabarmendu behar dugu. Izan ere, etorkizunean, uste denez, haien egitekoa funtsezkooa izango da beren gaixotasun fisiko edo psikikoaren ondorioz zaurtu ahal diren pertsonak behar bezala garatzeko eta berauei arreta egokia emateko. Hori guztia funtsezkoa da gaixotasun hori bazterketa-karia barik maila guztietan gizarteratzeko zioa izateko".*

e) Tutoretza-fundazioen ekonomi buruaskitasun posibleari dagokionez, Gipuzkoak Foru Aldundiak bakarrik eman du gai horretarako zuzeneko erantzuna, honela:

*"Hobe eta izan daitekeena da dauden tutoretza-fundazioak ekonomikoki buruaski izatea. Ildo horretatik, gure ustez, tutoretzak sortzen dituzten legatu posibletatik datozen finantza-baliabide pribatuek eta ekonomi bitarteko publikoak izan behar dira. Baina Administrazioak haien egitura-egonkortasuna bermatuko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak honako laguntzok eman dizkie tutoretza-fundazioei azken ekitaldietan:*
*HURKOA: 24.040,48 € (2001); 48.080,97 € (2002).*
*ATZEGI: 22.069,16 € (2001); 30.050,61 € (2002)".*

Bizkaiko kasuan, Gorabide Babes Fundazioak ekarritako ekonomi informazioarekin bat etorririk, Foru Aldundiarengandik 8.448 euro jaso ziren 2001ean, eta 8.786 euro 2002an. Hori, gutxi gorabehera, erakundearen sarrera guztien %3 da.

* * *

Horrela bada, hemen laburturiko datuetan ikus daitekeen bezala, tutoretza-eskei tutoretza-fundazioen bitartez emandako erantzunak eta erakundeen ekimenotarako laguntzak lurralde bakoitzean forma ezberdinak hartu ditu. Ez da erraza egungo sarea eskariei erantzuteko nahikoa den baloratzea. Nolanahi ere den, eskariak gero eta ugariago dira eta erantzuteko zailtasun handiagoak daude talde zehatz batzuei begira. Seguraski, faktore horiek baldintzatuko dukete etorkizuna. Hori adierazi du Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak bere idazkian:
*"Bistan denez, egungo gizarte egoerak, bizi-itxaropena luzatzeak, famili gunea banantzeak eta beste faktore batzuek aipatutako babesik ezeko, abandonuko edo gatazkako egoerak gehitzea dakarte, eta, hortaz, herri erakundeak gehiagotan esku hartu beharra aurreikustea. Ildo horretatik, ugari dira etorkizunean pertsona zaharrak eta, baita, psikiatri gaixoak eta atzeratu psikikoak gehiagotuko direla aurreikusirik duten soziologi azterketak. (...) Hau da, tutorearen karguko erantzukizuna bereganatzeko famili eremurik ez dagoen edo eremu hori horretarako nahikoa ez den egoerak gehiagotuko dira orokorrean.*
*Horrelakoetan, tutoretza bereganatu eta beharrezko babes-neurri guztiak hartzen dituen herri erakundearengana jo beharra dago".*

Gero eta handiagoa den beharrizan horri begirakoa da tutoretza-fundazioak sustatu beharrari buruzko Arartekoaren erakundearen gomendioa.

2. **Judizializazio anbulatorio**aren arazoa batzuetan azaldu digute senideek eta, baita, Osakidetzaren Buru Osasuneko arduradunek.

   Egin-eginean ere, iazko txostenean aipatuta zegoen hori, honela:

   *"Gai honi dagokionez (borondatezkoak ez diren zentrorapenez ari da) beste bat azaldu da: judizializazio anbulatorioa. Hau da, horrek gaixoak, anbulatorioki eta epaileak esku hartuta, borondatezkoa ez den zentrorapena saihes dezakeen sendabidean jartzera behartu ahal izatea dakar. Ildo horretatik, adibide gisa, Gipuzkoan jarraitutako eredua azaldu da, eta bera beste epaitehi eta lurralde batzuetara zabaltzeko aukera dago. Horretarako, Arartekoaren lankidetza eskatu da."*

   Eskaera hori abiapuntu harturik, Arartekoaren erakundeko langileak Psikiatri Laguntza eta Buru Osasuneko buruarekin bildu ziren, senideen elkarteen jarrerari buruzko informazio gehigarria eskatu zuten eta kudeaketak egin zituzten Eusko Jaurlaritzaren Justizi Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendariaren aurrean. Txosten hau idaztean, aurreikusi eta deituta zegoen baterako bilera, zertarako-eta arazo hori aztertu eta konpontzen saiatzeko.

   Beste alde batetik, atal hau bukatzeko, adierazi behar da ezen buru-gaixoentzako gizarte arretari buruzko txosten hau ontzat hartu dutela arlo honetan lan egiten duten profesionalek. Ildo horretatik, Arartekoa Erkidegoko Buru Osasunaren gaineko Lehenengo Biltzar Iberiarrera gonbidatu zuten, Lisboako Estorilen 2002ko urriaren 24-26 egin zen biltzarrera alegia, "Buru-gaixoen eskubideei eta legezko erantzukizunari" buruz hitz egin zezan, aipatu txostenaren edukiak oinarri nagusi harturik.

## 1.1.10. EAEko HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Erakunde honek egindako *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* izeneko txostena argitaratu eta Legebiltzarreko presidenteari eman zitzaion 2001eko ekainaren 22an, eta urte horretako abenduaren 12an Legebiltzarrean eztabaidatu zuten.

Iazko txosten arruntean txosten horren laburpena jaso zen eta bereziki kezkagarriak diren arazoak eta egindako aholkuak azpimarratu genituen. Horrela, bada, eskubideak bermatzearen ikuspegitik gehien kezkatzen gaituzten arazoei buruz, hamar nabarmendu genituen, gure erakundearen ustez lehentasuneko arreta behar dutelako. Hauek dira:

- Eskolako araudiaren eta jardunaren artean dagoen jauzia.
- Gizarte-bazterkeria ez da behar beste kontuan hartzen.
- Hezkuntza-premia bereziei arreta egiteko orduan, eskola-sareen artean dauden aldeak.
- Arreta egiteko orduan lurraldeen artean dauden aldeak.
- Ikastetxe batzuk ez dute erantzuteko ahalmen handirik eta emaitza eskasak dituzte.
- Hezkuntza-premia bereziei erantzuteko orduan zailtasunak daude hezkuntzako komunitate osoa inplikatzea lortzeko.
- Aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziei arreta egiteak Bigarren Hezkuntzan duen egoera.
- Hezkuntza-premia berezien prebentzioan eta horiei arreta egitean dauden gabeziak.
- Zerbitzuen korrdinazioa eta hezkuntza-sistemaren eta familien eta elkarteen arteko harremana.
- Balorazioa eta ohitura onak elkartrukatzea.

Eta Hezkuntza-administrazioari bidali genizkion 21 aholkuen artetik, aurreneko bostak azpimarraztu genituen, duten garrantziagatik eta gure hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrean eta sistemaren lehentasunetan eragina dutelako. Hain zuzen ere, honako gaiak eta arazoak jasotzen dituzte bost aholku horiek:

- Bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna ematea eta, hortaz, kontuan hartzea lehentasun hori Haur Hezkuntzako zero eta hiru urte bitarteko tartea arautzen denean.
- Baliabideak esleitzerako orduan diskriminazio positiboa egitea bazterturiko ikaslerik gehien duten ikastetxeen alde.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza erantzuna antolatzeari buruzko ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuan jasotako aurreikuspenak eta horien ahalmenak erabat garatzea, talde horri erantzun hobea emateko.
- Lanbide hastapeneko ikastetxeen egoera argitzea eta arauturiko nahiz arautu gabeko irakaskuntzaren arteko artikulazioa berrikustea.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea, esaterako, hauek: ikastetxe guztientzat gehieneko eta gutxieneko ratioak ezartzea; matrikulazioari buruzko

arautegia berriz aztertzea, ikasle horien banaketa orekatuagoa ahalbidetzen duten mekanismoak edo tresnak bertan sartzeko, beharrezkoa bada; ikasle horien ikastetxe aldaketak aztertzea, bidezkoak ez diren deribazioak edo estalitako kanporatzeak detektatzeko eta administrazio neurri egokiak hartu ahal izateko

Beste 16 aholkuak ere jaso genituen; horietako asko kualitatearen arloko hobekuntzei begira daude, besteak beste, ikastetxeetan, profesional-taldeetan, lan-prozeduretan, eskola barruan sartzea lortzeko baliabideetan, gizarteko beste agente batzuetan…

Geroago, 2002ko ekainaren 17an, Hezkuntza sailburuarekin eta sail horretako arduradun nagusiekin bildu ginen; bileran, beste batzuen artean, txostenarekin lotutako gaiak aztertu genituen eta txostenean jasotako aholkuen jarraipena egiteko premia adierazi.

Bilera hartan ahoz esandakoarekin bat etorrita, erakunde hau, 2002ko azaroaren 4an, ofizioz zuzendu zitzaion Hezkuntza sailburuari hasierako informazioa, orokorra, biltzeko asmotan.

Ezarritako epean erantzunik jaso ez genuela ikusita, 2003ko urtarrilaren 22an eskaera bidali genion, informazio berriroa eskatuz.

Txosten hau idatzi eta ixteko unean (2003ko otsaila), ez dugu inolako erantzunik jaso eta, horregatik, ezin izan dugu garaiz jakin zenbateraino bete diren gure gomendioak, ezta haien berri eman ere. Erantzuna, azkenean, martxoaren 6an jaso dugu, txosten hau bete-betean argitaratze-prozesuan dagoenean. Beraz, datorren urteko txostenean jakinaraziko eta aztertuko dugu.

## 1.1.11. ERTZAINTZAREN ZIEGETAKO ETA UDAL GORDETEGIETAKO EGOERAREN JARRAIPENA

1990ean Arartekoaren erakundeak *Ziegak. Udaleko atxilolekuak eta Ertzaintza* izenburuko txosten monografikoa egin zuen. Eusko Legebiltzarrari eta, orokorrean, iritzi publikoari leku horien egoera eta baldintzak ezagutarazi behar zaizkie. Izan ere, lekuotan ordutan edo, are, egunetan egon behar dute pertsona atxilotuek, harik eta epai-agintaritzaren eskuetan jartzen dituzten arte.

Harrezkero, instituzio honetako langileek atxilolekuak bisitatu izan dituzte, aipatutako txostenarekin jarraitzeko, eta bertan dauden gomendioak zenbateraino betetzen diren bertatik bertara ikusteko. Horren ondorioz, ziegak ikusi ohi dira, bereziki.

Ertzaintzaren atxilolekuei zegokienez iazko txostenean oharrarazi genuenez, gure esku-harmenak atxilotzekoa atxilotu ondorengo ziegetako polizi eginerak ikuskatzekoak ziren eta izango ziren bereziki, ziegen ezaugarri fisikoak ere ikuskatu egin behar zirelarik. Egin-eginean, ziegak birmoldatzeko eta hobetzeko planak, Herrizaingo Sailak gure txostena eta Tortura prebenitzeko Europako Batzordearen gomendioak ikusita abian jarriak, ziega-aldeak berritu eta egokitzea ekarria zuen. Ziegetako egoera ikuskatzekoak izan dira Gasteizko Arkauteko eta Oiartzungo ertzain-etxeetara 2002an zehar eginikako bisitak ere.

Atxilotuen udaleko gordetegiei dagokienez, gordetegi guztiak eta, are, asko, bisitatu ezinik, urtean zehar kexak eragin dituzten Udaltzaingoko atxilolekuetara bakarrik joan gara.

Jarraian laburtuko ditugu bisita horiek egin ondoren ateratako ondorioak.

### 1) Ertzaintza. Gasteizko Arkauteko eta Oiartzungo ertzain-etxeak

Arartekoaren erakundeak 2002an ordurarte bisitatu gabe egondako Ertzaintzaren bi atxiloleku ikuskatu ditu bereziki. Oiartzungo ertzain-etxea eraiki berria den polizi gune zabala da. Arkauteko ziegak zaharrak dira. Alabaina, Gasteizko ertzain-etxe berria ibiltzen jarri zenez geroztik, haiek oso birmoldatu dira. Birmoldatzeko obrak zirela eta, haiek ezin izan genituen ezagutu, nahiz eta lehen hori aurreikusia genuen.

Beste alde batetik, 2002an zehar Ertzaintzak egindako atxiloketa batzuetan jasotako tratuari buruzko kexak jaso zituen instituzio honek. Kexa horiek, zehazki, polizi zentro biotako tratuak eragin omen zituen.

Bisitak 2002ko urriaren 17an (Oiartzun) eta abenduaren 12an (Arkaute) egin ziren. Ertzain-etxe horietara agertu ziren erakunde honetako bi aholkulariek egiaztaturikoaren arabera, orokorrean, ziega-aldeek pertsona atxilotuak edukitzeko baldintza egokiak beterik zituzten.

Egia esan, ertzain-etxe biek antzeko ezaugarriak ageri dituzte. Izan ere, beraietan kokatuta daude trafiko-unitateak krimen-poliziaren beste unitate batzuekin batera. Ziega-aldeek kanpotiko sarbide lokabea dute eta biak bereizitako alde bitan zatituta daude. Oiartzungo haietariko lehengoak, trafiko-unitatearen eskuetan dagoenak, pertsona banarentzako zortzi zigor-gela ditu, 7na $m^2$-ko gutxi gorabeherako azalera dutenak. Zigor-gelok altzari bakarra dute: hormari atxikita dagoen karel biribileko apala. Badaude beste zigor-gela bi ere, burdinsare eta kristalezko ateak dituztenak (klaustrofobi kasuetan erabiltzen direnak). Gelek argi naturala jasotzen dute kristal bulkanizatuaren bitartez,

eta aire- eta berokuntza-sistema dute sabaian. Bigarren aldean aurrekoen antzeko tamainuko zortzi zigor-gela daude, elkarren ondoko ate bina dutenak. Ateen artean atondo txikiaren modukoa dago.Kanpoko ateak ez du ataleiho edo behatxulorik. Erakunde honen gomendioak gorabehera, argi artifiziala gogorra da eta ezin da intentsitatea erregulatu.

Arkautekoari dagokionez, lau zigor-gela handi daude, gutxi gorabehera 8 $m^2$-ko azalera dutenak, trafiko-unitateak erabiltzen duen lehenengo aldean; eta bina ateko zazpi zigor-gela, bigarrenean. Ziega-alde osoak ez du argi naturalik eta bertan ere da argi-intentsitatea erregulatzeko sistema instalatu.

Ertzaintzaren beste egoitza batzuetan bezala, erabili eta botatzeko burusiak daude pertsona atxilotuentzat.

Bi ertzain-etxeetan ziega-aldearen ohiko itxura ikus daiteke. Zigor-gelez gain, beste gela batzuk daude bertan, esate baterako, argazki- eta hatz-aipamenak egitekoa, identifikazio-saioak egiteko prestaturiko lokala eta langela bezala hornitutako gelaren bat.

2001eko txostenean agerrarazi genuenez, ziega-aldeetan bideo-grabazioen bitartez kontrolatzeko sistema Ertzaintzaren egoitzetan instalatzen hasia zela jakin genuen. Sistema hori abian jartzea 1999an gomendatu zuen instituzio honek. Instalatzen izandako atzerapena dela eta, polizi geletako egoera egiaztatzea azken urte bietan egindako bisiten helburuetakoa izan da.

Erakunde honen ordezkariek egiaztatu zuten ezen Oiartzun bideograbazio-sistema digitala instalatua zela, jakinarazi zitzaigunaren arabera, mugimenduren bat detektatzen duenean aktibatzen da, segunduko irudi bat hartzen du eta grabazioak ordengailu baten disko gogorrean biltzen dira. Ordenagailu horretan ezin dira ertzain-etxeko langileak sartu. Hasiera batean, mekanismoak Arartekoak eskatutako baldintzak betetzen bide ditu, baina funtsezko urritasuna agertzen du: kamerak ziega-alde bietako batean bakarrik instalatu dira, trafiko-unitatearenean. Zigor-gelen erdia kontrol-sistematik kanpo dagoenez gero, berau ez da lortu gura den xede bermatzailea iristeko egokia.

Gasteizko ertzain-etxeari zegokionez, bisitaren unean artean ez zen instituzio honek gomendatutako grabazio-sistema instalatu; hala ere, zirudienez, beraren osagaiak eskuratuak ziren. Nolanahi ere den, bereizitako eta lotu gabeko bi ziega-alde daudela eta, Oiartzunen bezala, kontrol-sistemak biok barnean hartu behar ditu; bestela, ez da nahikoa.

Ertzaintzaren beste atxiloleku batzuetan gertatzen den bezala, ertzain-etxeok ere ez dute adin txikiko pertsonak atxilotzeko gela zehatzik. Hori ez dator bat adinez txikien zigor-erantzukizuna araupeturik duen Legearen 17.3 artikuluan xedatutakoarekin. Hori konpondu egin behar da.

Datuak erregistratzeko eta atestatuak egiteko sistemari zegokionez, instituzio honen ordezkariek *kale borrokaz* akusaturik atxilotutako pertsonei buruzko zenbait espediente berrikusi zituzten. Oiartzunen egiaztatu zuten ezen unitate bakoitzak bertan atxilotutakoak erregistratzen zituela eta ez zuela gainerako unitateen datuetara sartzerik. Gainera, antzinako «atxilotuen liburua» ezabatu da. Hortaz, jakinarazi zigutenez, ez dago ertzain-etxe horretan egindako atxiloketa guztiei buruzko datuak *in situ* berrikusi edo ezagutzeko biderik. Gipuzkoako ertzain-etxeko geletan, ez zen patxadaz errepasatu informatikoki artxibatutako atestaturik, baina egiaztatu zen ezen programak berak eskubideak eskaintzeko ematen duen akta ez dela aldarazi instituzio honek iradokitako moduan.

Egin-eginean, 2001eko txostenean agerrarazi genuenez, behin eta berriro salatu dugu atxiloketaren zioak aktan oso modu eskasean islatzea. JKLen 520. artikuluarekin bat etorririk, ukituriko pertsonari «*egozten zaizkion* ***egitateak*** *eta bera askatasunez gabetzeko dauden* ***arrazoiak***» jakinarazi behar zaizkio. Hala ere, atestatuaren dokumentazioan aipatuta hura akusatzen den delituaren izena bakarrik dago. Baliteke atxilotuari ematen zaizkion ahozko azalpenetan informazio hori zabaltzea; baina, legearekin bat etorririk, pertsonak egitateak ezagutu behar ditu, egitateen lege-kalifikazioa barik. Bermatu beharreko hori indartzea lortzeko idatziz agerrarazi behar dira egotziari eman zaizkion datuak aktaren lehenengo ahapaldian. Proposatutako aldarazpena oso erraza da (eta horrela aitortu dute polizi arduradunek). Hori dela eta, ez dugu ulertzen zergatik ez duten egiten.

Arkaute, ukiturikoek tratu txarrak salatu zituzten zenbait atxiloketa gertatu baino geroxeago bisitatu genuen. Hori zela eta, patxada handiagoz berrikusi genituen atestatuoi buruzko idaztohar informatikoak. Horrela, berriro egiaztatu genuen ezen, sarritan-edo, grabatzen ziren eta grabatu ostean ezin alda zitezkeen informazioek okerrak zituztela. Eginbideak egin diren orduei buruzko datu zinez kontraesankorrak daude. Beste batzuetan, informazio hutsuneak egoten dira: esate baterako, ez da agertzen non egon zen atxilotua atxilotu eta lehenengo orduetan. Batzuetan, beste informazio-iturri batzuekin egiaztatuta zehatzak ez diren datuak agertzen dira.

Benetan esanda, detektatutako akatsak erazkoak dira eta, hasiera batean, ez dakarte funtsezko irregulartasunik. Hala ere, opakotasun-sentsazio eta gardentasun falta eragiten dute, erakunde bermatzaile honi doakion polizi jardueraren kontrola objektiboki zailtzeaz gain.

Atestatuen erregistro informatikoan ikusitako okerrak ikusita, Arartekoaren aholkulariak gero atestatuen papereko kopiak artxibatzen ziren Ertzaintzaren geletara joan ziren eta tratu txarrak zirela eta salaketak piztuak zituzten polizi eragiketei buruzkoak sakon berrikusi zituzten. Erregistro informatikoari eransten ez zaizkion informazioak (txosten medikoak, adibidez) lortzeaz gain, berretsi dugu ezen okerrak daudela erregistro horretako datuetan. Hala ere, agerian jarri behar denez, azken atestatuetan ikusi zen instruktoreek akatsak eta inkongruentziak konpontzeko ahaleginak egin zituztela. Haiek hori ia osoki lortua zuten.

Jarduketa horren bitartez jaso genituen beste gai batzuen gaineko azalpenak ere. Gai horiek honakook ziren: familiari informatzea, atxilotuak ospitalera eramatea…

Bermatzeko perspektibatik, bistan da atxiloketa egin den era baloratzea ezin etor daitekeela atestatuak berrikuste hutsetik. Hala ere, gure ustez, lan hori egin behar da prebenitzeko eta polizi eginerak etengabe ikuskatzeko, berau legeak Arartekoari eratxiki dion lana delako. Horrela, inoizkako joera edo eginera okerrekoak detektatzeaz gain, proposamenak egin edo mekanismoak antolatzea iradokitzea dago, zilegi ez diren jarduketak saihesten dituzten edo, hala denean, berauei antzeman eta beraiek zigortzea ahalbidetzen duten mekanismoak antolatzea alegia.

### 2) **Atxilotuen Donostiako udal gordetegia**

Arartekoaren erakundeak zenbait aldiz bisitatu ditu Donostiako Udaltzaingoaren gelak. 1996an (urteko txostenean islatu den bezala) huts nabarmenak ikusi ziren ziega-aldearen itxuraketan eta artapenean. Hori zela eta, instituzio honek haiek hobetzeko

hainbat gomendio eman zituen. Gure iradokizunei berariaz erantzun ez zigutenez gero, 1997an berriz ikusi genituen atxiloketak egiten ziren baldintzak. Horrela egiaztatu zen ezen aldaraketa nabarmenak burutuak zirela.

Lehenik, oztopo arkitektonikoei ekiditeko mekanismo bat instalatua zen, pertsona minusbaliatuei udaltzain-etxeko gela orokorretara sartzea ahalbidetzen ziena.

Zigor-gelei zegokienez, hiru egokitu ziren, aurrekoek baino neurri egokiak zituztenak (7 bat $m^2$). Era berean, argiztatzeko sistema hobetu egin zen, argi erregulakorra jarrita, eta zigor-geletan ohe bezala balio duen apalean karelak biribildu ziren. Lurrean baldosa jarri zen eta hormak garbitu ahal zen pinturaz estali ziren, zigor-gelak errazkiago garbitu ahal izan zitezen.

Orduan uste izan genuen ezen itxura orokorra hobetua zea eta aurreko bisitan esparrua narriatuta zegoelako sentsazioa eragin ziguten heztetasun-arazoak konponduak zirela. Hala ere, 2002ko urriaren 17an egin genuen bisitan ikusi genuen ezen zigor-geletako hormak oso hondatuta zeudela eta, orbanez eta markez gain, hezetasunak eragindako altxatuak agertzen zituztela.

Ziega-aldean ez dago berokuntzarik, ezta alboko langeletan ere, baina erabiltzaileek adierazi dute ezen ez dagoela tenperatura-arazorik. Aitzitik, adierazi dute ezen eskasagoa dela aireztapen-sistema, udan bereziki.

Osasun-instalazioek itxura ona zuten. Hala ere, oraindik ez dute dutxarik. Dirudienez, hori konpontzea zaila da, horretarako berrikuntza handia behar baita.

Donostiako atxilolekuak ez du, EAE osoan ohikoa den bezala, adin txikiko pertsonak atxilotzeko gela zehatzik. Polizi arduradunen esanetan, adinez txikiek gaua komisaldegian eman behar dute -hori saihesten saiatzen direla adierazi dute-, zigor-gelan atea zabalik dagoela egiten dute lo. Polizi ikuspuntutik, arazorik zailenak adin txikiko pertsona atzerritarren atxiloketetan sortzen dira (dokumentaziorik ez izateagatik, adina zehazteko azterketa medikoa egiteko atzerapenengatik…).

Bisitan zehar, Arartekoaren ordezkariek gai askorekiko interesa agertu zuten (atxiloketen kopurua eta iraupena zein zen jakin gura zuten, baita plantila egokitzen zen eta etengabeko prestakuntzarik gertatzen zen ere). Gaiotako batzuk direla bide, informazioa eskatu zaio udal agintaritzari. Aipatu gaien artean, honakook nabarmenduko ditugu hemen:

a) Donostiako Udalak instituzio honen 24/2000 gomendioa onartu zuen, gorputzak biluzik arakatzeko eginbidea bateratzen ziren inguruabarrak banan-banan baloratzeak neurri hori behar-beharrezko eta proportziozko bihurtuz gero bakarrik egiteari buruzkoa.

Bisitan gai honi buruzko galdera egin genienean, gure solaskideek ziurtatu zuten ezen pertsona atxilotuak inoiz ez duela bere barruko arropa erantzi behar eta inoiz ez ez zaizkiola gorputz-barrunbeak ikuskatzen, eta ez duela egoera laidogarririk jasaten. Hala ere, bisitaren unean atxilotuta zegoen pertsonak, berari hori galdetu genionean, berez eta berehala azaldu zuen ezen osorik biluztu eta flexioak egitera behar zutela.

Atxilotuaren esanak guk sinestea merezi du, hark esana esandako moduagatik. Hala ere, ez da Udaltzaingoak aipatu gomendioa betetzen ez duela ondorioztatzeko nahikoa. Nolanahi ere den, gomendio hori bultzatzen jarraitu behar dugu.

b) Zaintza-sistemari zegokionez, egiaztatu genuen ezen, gure oharrarazpenak gorabehera, zebilenari eutsita zeudela, hau da, TBko zirkuitu itxia erabiltzen zutela eta zigor-gelen barruan kamerak zituztela atxilotuak begiz etengabe kontrolatu ahal izateko. Instituzio honen irizpidearen arabera, ziega-aldearen tamainuak edo ziegen antolaerak

ez du justifikatzen segurtasunaren aurrean pertsona atxilotuen intimitaterako eskubidea osoki sakrifikatzen duen zaitza-sistema jartzea.

Herrizaingo arloari buruzko atalean azalduta dagoen bezala (II.7.2 kap.), Donostiako Udaltzaingoaren jarduketen gainean 2002an zehar jasotako kexetako batean ageri zenaren arabera, hiritar batek atxiloketan zehar bere intimitatea zaurtu ziotelako sentsazioa izan zuen. Gaia, auzitegietaratu denez gero, guk ez dugu aztertu nahi izan, baina uste dugu ezen gaian sakondu behar dela eta jokoan dauden ondasun juridiko bien arteko haztapena egin behar dela, haietariko bat babesteak bestea erabat hustea justifikatu ezin duelarik.

Ildo horretatik, aipatu polizi kidegoari oharrarazi genion ezen, zigor-gelen barruan kontrolatzeko sistemari eustera, berau ezin zela etengabea izan, lantzean behingoa baizik, hau da, korridoretik begiz egin daitekeenaren antzekoa. Bisitan egiaztatu genuen irizpide hori berenganatu ez zutela eta zaintza etengabea zela. Izan ere. Hartuta zigor-gela bakarra zela eta, pantailan etengabe egoten zen kamera horrek emandako irudia.

c) Datuak erregistratzeko eta atestatuak egiteko sistemak berriro ikustean, instituzio honetako aholkulariek pertsona atxilotuari bere eskubideei buruz ematen zaion informazioarekiko interesa agertu zuten. *Eskubideak informatzeko eginbide*aren kopia eman zitzaigun. Hura euskaraz eta gazteleraz idatzita dago, behar den bezala. Alabaina, agiri horren edukia ez da osoa. Alde batetik, alde batera utzita dago pertsonak zein egitate egozten zaion eta zergatik atxilotu duten jakiteko duen eskubidea. Horrek ez dakar berez legea ez betetzea, baina eman diren azalpenak idatziz agerrarazteak eskubidea benetan errespetatu delako bermea indartzen du.

Beste alde batetik, *Eginbide*ak pertsona atzerritarrentzako bi esku bideak ahazturik ditu, kontsularen bulegokoei atxiloketa jakinarazteko aukera eta haiek interpretariak lagun diezaien duten eskubidea. Egia da orduan eskatu ez genuen arren, kexa-espediente bat tramitatzean beronek eskubideak informatzeko aktaren bertsioak beste hizkuntza batzuetan -frantsesez, behintzat- dituela jakin dugula eta bertan aipatu eskubide biak bilduta daudela. Nolanahi ere, ez bide da komenigarria agirien edukia haien hartzailearen arabera ezberdina izatea. Gainera, kontuan hartu behar da ezen beti egongo direla aipatu eginbidea idatzi den hizkuntzetako ezeinez ez dakiten eta hura gaztelerazko bertsiotik itzuliko zaien etorkinak. Hortaz, eskubideren bat alde batera uzteko arriskua dago.

### 3) **Atxilotuen Sestaoko udal gordetegia**

2002ko azaroan kexa bat jaso genuen eta bertan salatu ziren Bizkaiko Sestaoko Udaltzaingoaren atxilolekuak agertzen zituen baldintza txarrak. Horregatik, hil beraren 29an bertako gelak bisitatu genituen. Jarraian aipatuko ditugu gure zenbait iritzi.

Udaltzaingoak jatorriz ikastola izatekoa zen eraikina harturik du 1995az geroztik. Horrek oso baldintzatzen du haren egungo erabilera, eta aldean dakartza halako egitura-urritasun batzuk. Antza denez, Hiritarrak babesteko zerbitzua, egun bigarren solairuan dagoena lekuz aldatzeko egitasmoa dago. Horrela, polizi gelak birmoldatu eta egokitu ahalko dira.

Akatsik nabarmenenak segurtasun-sistemarenak (adibidez, leihoek barrak dituzte eta ez dago suterik egonez gero eraikinari barrotatik alde egiterik, ez dago ke-detektagailurik, su-itzaltzekoak galdaren aldean bakarrik daude...) eta

ailegaerraztasunekoak dira: eraikineko ate nagudian zazpi mailako eskailera bat dago, eta minusbaliatu fisikoek ez dute oztopo hori gainditzeko modurik. Ziega-aldeak ibilgailu-aparkaleku edo patiotik sartzeko bide lokabea du, baina baditu zenbait eskailera ere. Beste alde batetik, atxilotuak patioaren zatia (bertako sarrera zabalik dago) zeharkatu behar duela eta, bilurrak erabiltzeko irizpidea ezarri da. Hori batzuetan neurriz kanpokoa suertatu ahal izaten da.

Udaltzaingoaren zerbitzuak eraikineko behe solairuan daude. Ziega-aldeak tamainu egokiko zigor-gela bakarra du, 7 bat metro karratukoa, babes-beira bikoitzeko leiho txikitik argi naturala jasotzen duena. Zigor-gelaren ezkerraldeko horman apala (bertan etzan daiteke pertsona atxilotua), konketa eta komuna daude lerrokaturik. Ez dago dutxarik eta ur hotzeko instalazioa bakarrik dago.

Hormak eta apala alikataturik daude. Material hori ez da haiek estaltzeko egokia, baldosa apurtuz gero zorrotz agerturik ebakitzailea izan baitaiteke. Hori aldatu beharraz oharrarazi genituen solaskideak, eta berauekziurtatu ziguten ezen inoiz ez zela haustura-arazorik egon. Alabaina, bere kexa instituzio honetan aurkeztu zuen erreklamatzaileak nabarmendu zuen ezen gelaren akats nagusietako bat ate inguruko izkinek bukaera kamutsik ez izatea zela. Gainera, haiek estaltzeko plastikozko izkina-estalgarria apurturik zegoen, bizarrak kendurik, eta zati zitekeen. Hori zela eta, makinaz ebakitako axuleiuaren karela airean geratu zen. Ebakia egiteko arriskua zegoen eta, gainera, beste tresna bat zorrozteko erabili ahalko zen.

Arartekoaren ordezkariak horrezaz guztiaz konturatu ziren eta, alde batetik, egiaztatu zuten ezen apalaren karelak biribildu eta behar bezala errematurik zeudela. Beste alde batetik, atearen markoa inguratzen duen eta bertatik irteten den hormen zatia artean pintatu gabe zegoen zurezko marko lodiaz estalia zen. Bistan denez, egoera hobetu da era berean instituzio honetara jo zuen hiritar atxilotuaren protestaz geroztik. Baina, ohartu ginen eta oharrarazi genuen ezen markoa hormari lotzen zioten torlojo handiak begi bistan geratzea ez zela guztiz segurua.

Pertsona atxilotuari ematen zitzaion erosotasunari zegokionez, ziurtatu ziguten ezen erabilera bakoitzaren ostean garbitzen den burusia ematen zitzaiola, baina ez da berriz jarri lehen zegoen eta apurtu zen zerria.

Atxiloketako polizi eginerei begira, hainbat gai aztertu ziren: atzerritar pertsonen atxiloketak, abokatuek gauez laguntzeko atzerapenak, eraso sezistak salatzen dituzten emakumeenganako arreta... Beraien artean, aurreko atalekoen antzeko alderdiak nabarmen daitezke. Horregatik, beraiek aipatu bakarrik egingo ditugu:

a) Gorputza arakatzeko eginbideari zegokionez, egiaztatu genuen ezen agenteek ez zekitela inola ere instituzio honek 2001ean Eusko Legebiltzarrari eginiko txostenean sartu zuen gomendio orokorraren berririk. Gure solaskideek baieztatu zuten pertsona atxilotua osorik biluztea nahiko ohikoa zela eta, are, hura flexioak -"makurtzekotxoak"- egitera behartzen zutela gauzaki edo substantziaren bat gorputzean ezkutaturik eraman ahal zuelako susmorik izanez gero.

Behin baino gehiagotan esan diogu Sestaoko Udaltzaingoari zertan datzan aipatu gomendio orokorra.

b) Pertsona atxilotuari eskubideak informatzeari dagokionez, programa informatikoko agiria gazteleraz bakarrik dago idatzita. Hori gabetasun nabarmena da, baina agenteek hori konpondu gura dute, horretarako prestatutako euskarazko testua irakurriz. Beste alde batetik, kontsultatutako atestatuan atxiloketaren zio bezala

agerrarazita zegoen zigor-garrantzia izan zezakeen egitate-zerrenda. Delitu motaren izena bakarrik agertzen ez bazen ere, ez zeuden deskribaturik atxilotuari egozten zitzaizkion egitateak.

c) Pertsonaren argazki- eta hatz-aipua nola egiten zen azaltzean, agenteek ertzain-etxearekin akordio bat zutela azaldu ziguten. Akordio horren arabera, ertzain-etxe horretara eramaten zituzten atxilotuak bertan beren aipua egin ziezaieten eta, horrela, polizi erregistroko informazioa konpartitzeko eta handitzeko. Kexaren eragileari zegokion atestatuan ageri zen, halaber, *Atxilotua Ertzaintzarengana eramateko eginbide* bat. Instituzio honen iritzitan, jarduteko modu hori ez da zuzena, eta hori jakinarazi diegu Sestaoko udaleko arduradunei.

## 1.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK GIZARTERATZEKO DITUZTEN AUKEREI BURUZ EGINGO DITUGUN GAI BAKARREKO TXOSTENAK

Iazko txostenean, pertsona minusbaliatuak gizarteratzeko ordura arte emandako urratsen berri eman genuen. Lan hura lehentasunezkotzat jo genuen zehatz-mahatz aztertzeko eta gizarteko talde ahulen egoera hobetzea bultzatzeko, horixe izan baita erakunde honek egin dituen txosten berezi gehienetan agertu dena. Eta minusbaliaturen bat duten pertsonen arazo zehatzei buruzko informazioa aurrez bildu beharra eta aztertzea bide desberdinetatik justifikatzen genuen:

- Norbanakoek edo elkarteek egindako kexak, arkitekturako eta hirigintzako trabak, kasu batzuetan zergaren arloan emandako tratamendua, lana edo etxebizitza lortzeko aukerak, minusbaliak onartzeko sistemak eta irizpideak direla-eta …
- Azken urte hauetan minusbaliatuen elkarteen, euren familien eta laguntza-taldeen elkartea askorekin egindako bilerak.
- Aurreko beste txosten batzuk, arazo jakin batzuk aztertzerakoan: irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak oinarrizko unitateetan –oinarrizko gizarte-zerbitzuei buruzko txostena-, lan egiteko aukerak –buruko gaixotasunen arreta komunitarioari buruzko txostena, eskolaratzeko aukerak –hezkuntza-premia bereziei buruzko txostena…-.

Era berean, onartzen genuen arazo horiei emandako erantzunak, oro har, partzialak izan zirela; kexa zehatzak izapidetzea; elkarteei lagundu eta haiekin lankidetzan aritu; arkitekturako eta hirigintzako trabei buruzko jarduketak, ofizioz; pertsona minusbaliatuentzako zerga-politikari buruzko gomendio orokorra…Eta onartzen genuen alderdi horietakoren batean, eraikin publikoetako irisgarritasunaren inguruko jarduketetan, esaterako, zailtasunak izan genituela benetako egoeraren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta komeni zela lan hori egiten lagunduko luketen irizpideak edo tresnak edukitzea.

Horregatik guztiagatik, gaibakarreko txostenaren bidez, arazo horietako batzuk gogoz eta ikuspegi orokorrago batetik jorratu nahi genuen, premiak, aukerak eta hobetu daitezkeen alderdiak nabarmenduta. Baina arazo argia genuen: azterketaren eremua zehaztea. Amaitzeko, minusbaliatasunen bat duten pertsonek Arartekoari behin eta berriro aurkeztu dizkioten arazo guztien artetik (trabak, fiskalitatea, lanerako aukerak, etxebizitza eskuratzeko aukerak, minusbaliatasunen balorazioa, errehabilitazio fisiologikoa, arreta gozitiarra, egoitzetan ostatu hartzea, laguntza teknikoak, arreta informala eta zaintzaileen arazoak…), aukera batzuk kontuan hartu eta beste batzuk bazterrean utzi behar izan genituen eta azkenean, gaibakarreko lan bi egitea erabaki genuen, helburu desberdinak dituzten arazo jakin biri buruz.

Lehenengo ikerlanean **eraikin publikoetako irisgarritasuna** izan dugu aztergai. Eta helburuak, honako hauek izan dira:

- Eraikin publikoetako arkitekturako trabak kentzeko EAEko udalerrietan dauden planak eta egitasmoak ezagutzea.

- Tresna bat prestatzea, eraikin publikoetako irisgarritasun-maila neurtzeko, indarreko araudiarekin bat etorrita (Irisgarritasuna Sustatzeko Legea eta eraikin publikoetako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak garatzen dituen Dekretua).
- Irisgarritasun-maila neurtzea, gehien erabiltzen diren eraikin publikoetako batzuetan.

Ikerlanaren alderdi teknikoa prestatze SIIS Dokumentazio eta Ikerlanen Zentroari esleitu zitzaion eta hasiera batean, 2002. urtean bukatuko zutela uste bagenuen ere, epea luzatu egin behar izan dugu udal askotan datuak jasotzeko zailtasunak eta atzerapenak egon direlako. Txosten hau idazteko eta amaitzeko unean, ikerlana ia bukatuta dago eta egindako lanaren emaitzak laster jasotzea espero dugu. Behin lana berrikusi eta osatuta, Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dugu.

Bigarren ikerlanean, ostera, **pertsona minusbaliatuak lanean integratzeko aukerak** aztertu ditugu. Hauek izan dira oinarrizko helburuak:

- EAEn lana sustatzeko neurriak zenbateraino aplikatzen diren ezagutzea eta beste ingurune batzuetakoekin alderatzea.
- Minusbaliatasunak dituzten pertsonen lan-kalitatea aztertzea.
- Gizarteratzeko neurrietara bildutako enpresa kontratatzaileen eta horiek kontratatutako pertsonen ezaugarriak aztertzea, laneratzea zailtzen edo laguntzen duten faktoreak zeintzuk diren ikusteko.

Honako honetan, ikerlana Datlan S.L.ri esleitu zitzaion eta 2002. urtea osorik eman dute horretan: datuak batu eta aztertu, bilerak elkarteetako eta erakundeetako ordezkariekin, elkarrizketak minusbaliatasunak dituzten pertsonekin, zenbait kapitulu idatzi…

Abenduan ikerlanaren lehenengo bertsioa eginda zegoen. Bertsio hori aztertu eta zuzendu ondoren, berriro idatzi zen, azken orduan jasotako datu eta guzti.

Urteko txostena idatzi eta amaitu dugunerako, esku artean izan dugu ikerlanaren bertsio eguneratua; une honetan, berrikusten eta aztertzen ari gara. Behin zuzenduta eta gomendioekin osatuta, Eusko Legebiltzarrari bidaliko diogu.

Horrela, bada, uste dugu txosten biak datozen hilabeteetan argitaratuko ditugula, 2003. urtearen barruan, eta, hortaz, beste ekarpen bat izango dela pertsona minusbaliatuen Europako Urtean.

## 1.3. GENERO-INDARKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEEI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EMATEN ZAIEN ARRETARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA

Iazko txostenean genero-indarkeria jasaten duen emakumeei Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zaien arretari buruzko lana, gaibakarrekoa, egiteko erabakiaren berri eman genuen. Harako hartan, Ararteko andreak erabaki hori hartzeko izan zituen arrazoiak azaldu genituen.

Azterlanaren bidez, indarkeria jasaten duten emakumeei administrazio desberdinek eskaintzen dizkieten zerbitzuei (laguntza juridikoa, psikologikoa, harrera- etxeak, eta abar) buruzko informazio guztia sistematizatu nahi genuen, zerbitzu horien kalitatea eta emakumezkoen beharrizanei egokitzen diren baloratzeko.

Oinarri horiek kontuan hartuta, azterlana Emaiker enpresari esleitu zitzaion 2002an eta harrezkero, informazio biltzen eta aztertzen jardun du.

Azterlan honen helburua da genero-indarkeria jasaten duten emakumeen premiei erantzuteko erakundeek duten gaitasuna baloratzea da, bai eta administrazio-egiturak eta era honetako egoerei aurre egiteko baliabide bereziak hobetzeko proposamenak zehaztea ere: gizarte-arreta eta arreta psikologikoa, orientazio juridikoa eta behin-behinean ostatu ematea, beti ere aipatu ditugun arazoei behar bezala erantzun ahal izateko.

Azterlana, bada, honako hauetan oinarritzen da:

1. Hiru foru aldundiek eta udalerri askok genero-indarkeria jasaten dutenei laguntzeko abian jarri dituzten jarduketak: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, harrera-etxeak, lanerako zerbitzuak, eta abar.
2. Erasoak salatzen dituzten emakumeei poliziak eskaintzen dien laguntza, bai eta era horretako delituak erregistratzeko sistemak eta estatistikak, analisiak…, azken batean, ikuspegi edo alderdi horretatik egiten diren esku-hartzeak.

Ikerlana ikuspegi pragmatikotik diseinatu da, hau da, aztertzen dituen alderdietan aldaketa positiboak edo hobekuntzak iradokitzea du helburu. Txostena amaitzeko, bada, gomendioak emango ditugu, aldaketetan oinarrituta, baldin eta horiek beharrezkoak badira honako gai hauen inguruan: baliabideak esleitzea, zerbitzuen administrazioaren barne-egitura, erakundeen arteko koordinazioa kanpoko beste zerbitzu batzuekin, genero-indarkeria gertatzen denean esku-hartze integrala bermatu ahal izateko…

Ondorio horiek ateratzeko, ondoko helburuak jarri dira eta nahitaez bete behar dira:

1. Foru eta udal zerbitzu guztiek emakumeei laguntza zuzena emateko gaur arte burutu dituzten jarduketak aztertzea hain zuzen ere, honakoen analisia egingo da: etxean tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua; etxean erasotzen duten gizonezkoei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua; emakumei orientazio juridikoa emateko zerbitzua eta harrera-baliabideak. Ertzaintzak eta udaltzaingoek eskaintzen duten laguntza ere hartuko da kontuan.

2. Zerbitzu horien eragina zer-nolakoa den jakitea, laguntza jasotzen duen pertsona-taldeei eta horien arazoei dagokienez; beste era batera esanda, zerbitzu horiek aplikatzeak duen eragina eta euren esku-hartzearen ondorioak.

3. Ikergai ditugun zerbitzuetan laguntza jaso duten pertsonen ibilbidea zein den aztertzea. Horretarako, zerbitzuen arteko koordinazio-mota aztertu behar da, bai eta tratu txarren arloan jarduten duten beste erakunde batzuekiko (osasun zerbitzuak, zerbitzu judizialak eta polizia-zerbitzuak, batez ere) koordinazioa ere.

Azterlanaren edukia koalitatiboa da nagusiki, baina badu hala ere azterketa koantitatiboa ere, Euskal Autonomia Erkidegoan tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen egoera zein den gutxi gorabehera ezagutzen lagunduko diguna. Lana hiru fasetan egin da:

Lehenengo fasea: Eskaintzen diren zerbitzuak eta programak aztertzea.
Bigarren fasea: Laguntza jaso duten pertsonen ezaugarriak aztertzea eta jasotako laguntza baloratzea
Hirugarren fasea: Laguntza-sistemaren balorazio orokorra.

Txosten hau amaitzen dugunerako (2003ko otsaila) honako lan hauek burututa egongo dira:

## LEHENENGO FASEA

### 1. Dokumentazioa biltzea eta aztertzea

### 2. Eskaintzen diren zerbitzuak eta programak aztertzea

#### 2.1. Gizarte-zerbitzuak

Dokumentazioa batu da eta elkarrizketak egin dira hiru foru aldundietako emakumeen zerbitzuetako arduradunekin, edo horiek izendatutako pertsonekin, bai eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeei arreta egiteko zerbitzuren bat duten udalerrietako arduradun edo ordezkariekin (foru aldundiek eurek emandako informazioan oinarrituta).

- Araban: Vitoria-Gasteiz eta Laudio.
- Bizkaian: Bilbao, Galdakao, Getxo, Leioa, Busturialdeko Mankomunitatea, Lea-Artibaiko Mankomunitatea, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Ermua, Uribe-Kostako Mankomunitatea, Mungia, Portugalete eta Sestao.
- Gipuzkoan: Donostia-San Sebastián, Andoain, Arrasate, Beasain, Eibar, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Errenteria eta Zumarraga.

#### 2.2. Polizia-zerbitzuak

- Ertzaintza

Informazioa bildu dugu eta elkarrizketak egin ditugu Sailburuaren Bilboko Kabineteko Zuzendaritzako eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Idazkaritza Teknikoko teknikariekin. Ertzaintzaren zenbait komisaldegi ere bisitatu ditugu, hauek:

- Araban: Vitoria-Gasteiz eta Laudio
- Bizkaian: Bilbao, Gernika eta Sestao
- Gipuzkoan: Donostia-San Sebastián, Bergara eta Tolosa

- Udaltzaingoa

Aurrekoetan bezala jardun dugu, hau da, informazioa bildu eta elkarrizketak egin. Oraingoan, 30.000 biztanletik gorako udalerrietako (horiei Eibar gehituta) udaltzaingo batzuk aukeratu ditugu, hauek:

- Araban: Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaian: Bilbao, Barakaldo, Basauri, Getxo eta Portugalete.
- Gipuzkoan: Donostia-San Sebastián, Eibar, Irun eta Errenteria.

### 2.3. Beste elkarrizketa batzuk

- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko Biktimei Laguntzeko zerbitzuak, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko justizia jauregietan daudenak.
- Laguntza psikologikoa eta juridikoa emateko enpresa adjudikaziodunak, Arabakoak eta Bizkaikoak.
- Gizpuzkoako psikologoen eta abokatuen elkargo ofizialak.
- Clara Campoamor elkartea.

Elkarrizketa egin gabe daukagu oraindik lurralde bakoitzean dihardute emakumeen elkarteekin, guztiekin batera, eta Emakunderekin.

## BIGARREN FASEA

### 3. Laguntza jaso duten pertsonen ezaugarriak aztertzea

Aurreikusita zegoen moduan, elkarrizketak izan ditugu Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumeekin. Arabakoekin oraindik ez gara elkartu, beharrezko datuak eskuratzeko zailtasunak direla-eta.

## HIRUGARREN FASEA

Hirugarren fasea, laguntza-sistema orokorrean baloratzea, 2003ko lehenengo hiruhilekoan hasi da.

Horrela, bada, orain arte eman ditugun urratsak eta aurrera begira ditugun aurreikuspenak ikusita, pentsatzekoa da datozen hileetan lana amaitu egingo dugula eta 2003an bertan argitaratzeko moduan egongo dela.

# 2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

## 2.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK

Urteotako esperientziak erakutsi digunez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Haiek beren aldararrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, haiek administrazioei hiritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte koheso handiagoa ahalbide daiteke.

Aurreko txostenetan berretsi den bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteok benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak. Egin-eginean ere, sarritan defentsa edo babesa beharrenik duten pertsonak dira erakundeengana urrikien jotzen dutenak: haiek daudela ez dakitelako edo dagozkien eskubideak ez dakizkitelako, oinarrizko gizarte trebetasunen faltagatik, aurretiko esperientzia txarren ondorioz atzera egiteagatik, erakundeenganako edo arazoak konpontzeko duten gogo edo gaitasunarekiko mesfidantzagatik... Pertsona horietarik askok ez dute kexarik agertzen, zeren eta hori egin dezaketela ez baitakite edo hori nola egin ez dakitelako.

Horregatik, 2002an ere, Arartekoaren erakundeak gizarte-eragileekiko arauzko harremanak lantzen jarraitu du, baztertuta dauden pertsonei laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak bereziki. Talde horiek honakook dira: giza eskubideen aldeko taldeak, atzerritar pertsonei laguntzekoak, askatasunik gabekoei laguntzekoak eta baztertuta daudenei laguntzekoak, buruko gaixotasuna duten pertsonen senideak...

Gure Erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori, aldi berean, gizarte bizitasunaren seinalea eta haiekin lankidetzarako harreman egonkorrak-edo izan gura dituenarentzako erronka da. Gure kasuan, mugak kontuan harturik, gure lankidetzarako gogoa gauzatzen saiatzen jarraitu dugu. Horretarako, erabili ohi diren bide osagarriak baliatu ditugu:

- Beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoa azaldu duten talde eta elkarteei baietz erantzutea.
- Aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan urtero jarraitzea, hori posible izan denetan.
- Sektore bereziki problematikoekin edo une horretan lan egiten gabiltzan sektoreekin lan egiten duten talde jakin batzuekin harreman berriak finkatzeko aurrea hartzea.
- Antzeko interesak edo jarduera-eremuak dituzten elkarteen arteko koordinaziorako plataformak egotea aprobetxatzea.

Horrela, 2002an zehar, Arartekoaren erakundeak lankidetza-harreman biziak-edo izan ditu beren gizarte ekintza eremu batzuetan garatzen duten elkarteekin. Eremu horiek honakook dira:

- Babesik gabeko haurrak eta nerabeak hartzea.
- Justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta.
- Gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen defentsa eta beraientzako arretarako programak garatzea.
- Minusbaliotasun edo ezintasun era ezberdinetarako gizarte erantzuna.
- Atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizarteratzea.
- Ijito taldearen beharrizan zehatzekiko planteamendua eta erantzuna.
- Buruko gaixotasunak dituzten pertsonei eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea; buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea.
- Pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbiltzea lortzea.
- Pertsona hiesak joenganako laguntza eta harrera.
- Terrorismoaren biktimentzako arreta edo haien eskubideen defentsa.
- Sasoikako langileentzako eta beraien familientzako arreta.
- Hezkuntza-beharrizan bereziei erantzutea.
- Babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adinez txikiak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea.
- Giza eskubideak defendatzea eta beraien beste herri batzuetako bortxaketak salatzea.
- Hezkuntzarako eskubidea defendatzea.
- Hizkuntz eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea.
- Droga-menpekotasunari buruzko arazoak dituzten pertsonei arreta ematea.
- Hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna.
- Etni gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea.
- Zona bereziki deprimituetako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea.
- Bakezaletasuna eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea.
- Tratu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea.
- Baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte-osasunezko arreta.
- Hainbat talde profesionalen defentsa.
- Animaliak etikoki tratatzea.
- Gune publikoetara sartzeko erraztasuna.
- Osasun-eremuko intimitaterako eskubidea defendatzea.

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute. Bestetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kexa zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahiko izan dira ahozko edo idatzizko informazio-trukeak, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea…

Modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean zehar taldeekin, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira. Talde horiek honakook izan dira (alfabetikoki ordenatuta):

- Acidesa
- Adebisa
- Adro-Gizaki Proiektua
- Afrika Etxea
- Agipad
- Lurraldeetako alkoholiko anonimoak
- Aldarriketa
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- APDEMA
- APNABI (Bizkaiko Haur Autisten Gurasoen Elkartea)
- Aransgui
- Arazoak (Arabako haur autisten gurasoen elkartea)
- Droga Gehiegi Hartza ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkartea (AGIPAD)
- Juana Mugarrieta elkartea
- Mujeres Hegaldi elkartea
- Erromoko Emakumeen Elkartea
- Euskal Herriaren Giza Eskubideen aldeko Elkartea
- Ijitoen Idazkaritza Nagusiaren Elkartea
- Adsis-Bestalde Gizarte Ekimeneko Zerbitzuen Elkartea
- Buru-osasuneko euskal elkartea
- San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako elkarteak eta laguntza-taldeak
- Barakaldo ijito-elkartea
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Beste herri batzuen giza eskubideen aldeko elkarteak
- Torturaren aurkako talde eta elkarteak
- HIESaren aurka borrokatzeko elkarteak: Gipuzkoako Hies-kontrako Hiritar Elkartea, Bizkaiko Hies-kontrako Batzordea, Errotatxo, GHAT, Harri-Beltza, Hies-Ekimena, Txo-Ihesa, T-4, Arabako Hies-kontrako Batzordea
- Hainbat lurraldetako gor-elkarteak
- Hainbat ikastetxetako ikasleen aita-amen elkarteak eta federakundeak
- Hirigintza-planek, ingurugiro-arazoek eta zerbitzu-sareko hutsek ukituriko auzotar elkarteak eta erkidegoak (Aldapa, Abanto, Ulia, Zuatzaurre, La Salve, Deusto, Lasarte-Oria, Ereño (Bedia), Hondartza, Aizaharbe, Trespuentes…)
- ASPACE
- Aspasor
- ATEA (Animaliak etikoki tratatzeko elkartea)
- ATECE
- Atzegi
- AZRAF
- Berriztu
- Besarka, harrera- eta adopzio-elkartea
- Bidaideak
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidesari

- BIGE
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Lurraldeetako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Bizkaiko Zezenketa-aurkako talde animaliazalea
- Euskadin errefuxiaturik dauden kolonbiarren taldea
- Era Berri taldea
- Adarra Pedagogi Taldea
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Taldea
- BIGEko irakaskuntza berezien batzordea
- Hiru lurraldeetako Hies-kontrako hiritar batzordeak
- Hainbat ikastetxetako eskola-kontseiluak
- Bizkaiko Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundea
- Arabako Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundea
- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala birgaitzeko taldeen koordinakundea
- Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko GKEko koordinakundea (honako kideok dituena: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, SOS-Arrazismoa, Euskadiko Txinatarren Elkartea, Senegaldarren Elkartea, Etorkinekin Bat…)
- Hiru lurraldeetako Gurutze Gorria
- DEE
- Hainbat sindikatu, talde eta elkarte profesional
- EDEX
- Eginaren eginez
- Ehlabe-Lantegi Batuak
- EKI-Eguzki
- Ekimen
- Ijito irakasleak
- Euskal Naturista Elkartea
- Etxerat
- Hainbat herritako pertsona atxilotu edo kartzelaratuen senideak
- FEDEAFES (Gaixo Psikikoen Senideen Elkarteen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horretan sartuta dauden elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Ikasleen gurasoen elkarteen federakundea
- Euskal Gorrak Gor elkarteen euskal federakundea
- Vicente Abreu federakundea
- Foronda
- Ametzagaña fundazioa
- Eragintza fundazioa
- Etorkintza fundazioa
- Fernando Buesa fundazioa
- Izan – Gizaki Proiektu fundazioa

- Leizaola fundazioa
- Peñascal fundazioa
- Arabako buruko gaixoak babeteko fundazioa
- Gorabide babes-fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gautena
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Bakearen aldeko Batzordea
- Gizaberri (Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkarte Profesionala)
- Gizalan
- Goiztiri
- Gorabide
- Arazo ezberdinak dituzten ikastetxeetako aita-amen taldeak
- Lankidetza-programen kariaz edo beren problematika hedatzearren gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Gurasoak
- Hezilan
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia
- Hontza (drogazaleei arreta emateko zentroa)
- IGON
- Iniciativa Gitana-Ijito Ekimena
- Lurraldeetako Gizarterapen Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Kalé dor Kayikó
- Kamelamos Adikerar
- Lantegi batuak
- La Madrasa
- Langai
- Lur gizen
- Mugarik gabeko medikuak
- Haur Hezkuntzaren aldeko Mahaia (hainbat elkarte eta sindikatuk osatua)
- Nahia
- ONCE
- Presondegietako Pastorala
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Tolosako eta Amezketako presoei laguntzeko plataforma
- Kartzela eta osasun plataforma
- Gasteizera plataforma
- Geugaz plataforma
- Martutene plataforma
- Hainbat lekutako oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizaki Proiektua
- Saharar Errepublikaren ordezkariak
- Salestarrak
- Lurraldeetako Salhaketa

- Senideak-Etxerat
- Hezkuntzako zerbitzuak (Berritzeguneak, Hezkuntza Bereziko zerbitzuak, ISEI-IVEI, udal zerbitzuak...)
- Sindikatuak edo atal sindikalak (ELA, UGT, UAGA, CCOO)
- Lurraldeetako SOS-Arrazismoa
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Hirugarren Ordenako Kaputxinoak
- Abokatuen elkargoen presondegietako laguntzarako txandak (PLT)
- Unesco Etxea
- UNICEF-Euskal Herria
- Uribe Kosta

Askotan finkatu da edo egun batean hasi zen elkarteekiko lankidetza Arartekoaren erakundeak egindako lan monografikoaren markoan. Lankidetza mota horrek, informazioa lortzekoa eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzekoa askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean zehar. Eremu horiekin honakook ditugu: adin txikiko pertsona lege-urratzaileekin esku hartzea (Berriztu eta Gaztaroan Ekin hezkuntza-elkarteak); sasoikakoak (Era Berri, Hezilan, UAGA, Cáritas...); buruko gaixotasunerako erkidego-arreta (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...); laguntasunik gabeko adinez txiki atzerritarrekin esku hartzea (Harresiak Apurtuz koordinakundea, Gurutze Gorria-Gipuzkoa, Hirugarren Ordenako Kaputxinoak, AZRAF); kartzelaratutako pertsonei laguntzea (ADSIS-Bestalde, Goiztiri, Izangai, Gizaki Proiektua, Bilbo-Etxezabal, Presondegietako Pastorala...). Bestetan, elkarteekiko harremanak elkarteok antolaturiko ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatuz.

Egia esan, lankidetza edo informazio-truke guztietatik ez dator instituzio honen jarduerarik, berehalakorik bereziki. Alabaina, askotan, izandako bileretatik abiatuta, aldeen arteko lankidetzaren ondorioz eta aldeon jarduerarako askatasuna erabat errespetaturik, ildo honetako jarduerak sustatu dira:

- Elkarteek eurek aurkezturiko kexak (taldekakoak eta banakakoak) tramitatzea.
- Elkarteek agerian jarritako arazoak konpontzeko Arartekoaren ofiziozko jarduerak, Administrazioaren hainbat sailen aurrekoak.
- Herri erakundeen eta elkarteen arteko harremanak hobetzeko proposamen edo edo bitartekotza-lanak.
- Giza eskubideetako sentsibilizazio edo prestakuntzarako programetan parte hartzea.
- Hainbat taldek sustaturiko elkartasunezko ekitaldi edo kanpainetarako erakunde-laguntza.
- Arauak aldarazteko proposamenak aurkeztea.
- Lanerako informazio eta agiri baliagarriak trukatzea.
- Eremu jakin bat gogoz ikertzea (lan monografikoak).
- Zerbitzu jakin bat edo berehala etortzekoa den arazo bat saihesteko presazko kudeaketak, agintaritzen aurrekoak.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Arartekoaren erakundeak lankidetza-marko honetan 2002an zehar burututako zenbait jarduera esanguratsu. Horrela:

- Elkarte askok jardun dute pertsona minusbalatuak laneratzea ikertzen. Hori dela bide, beraien proposamen eta ikuspegiak jaso ditugu zenbait bileratan eta zuzenean, eta errelitatea ezagutzeko eta arazoak eta hutsuneak detektatzeko balio handikoa den beren testigantza edo beren bizitzako historia eman duten elkarteetako pertsonengana heldu gara. Horixe ikusi ahalko da gaiari buruzko hurrengo aparteko txostenean (ikus 1.2 azpiatala).
- Terrorismoaren biktimen elkarteekiko harremanak, edo biktimekikoak eurekikoak edo haien senideekikoak, lehentasunezkotzat jo ditu instituzio honek, zeinek haiei bere elkartasuna eta laguntza adierazi eta eman baitie. Zenbait kasutan, are, instituzio honek bere burua eskaini du biktimen ahotsa entzunarazteko. Hori gertatu zen Eusko Legebiltzarrak 1999an eta 2000n "Gure herrian sortutako indarkeriaren biktima guztien egoera"ri buruz emandako txostenean. Zorionez, oraintsukoan, terrorismoaren biktimen elkarteek "Terrorismoaren biktimen egoera eta beharrizanak" izenburuko hitzaldian esku hartzea erabakitzeko baldintzak gertatu dira. Hitzaldi hori Eusko Legebiltzarrean garatu izan da 2002an. Arartekoaren erakundeak berak hitzaldi horretan esku hartu du: biktimen egoerari buruzko bere iritzia eman du (I. eranskina).
- Pertsona presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek aldez ordeztu du presondegietara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu (ikus txosten honetako 1.1.1 azpiatala).
- Tratu txarrak edo torturak salatu dituzten pertsona atxilotuen senideekin elkarrizketan aritu edo/eta bildu gara. Hori dela bide, horrelako ekintzak prebenitzeko eta ezabatzeko gomendioak eman ditugu, erakunde bermatzaileekin edo ikerketa-erakundeekin informazioak eta proposamenak trukatu ditugu, judizio-bideetatik at, atxilolekuak bisitatu ditugu edo polizi atestatuak eta araketak berrikusi ditugu.
- Haur Hezkuntzarako Plataformarekin bildu gara. Horregatik, instituzio honek 0-3 urte bitarteko etapa hori araupetu beharrari buruz behin eta berriz egindako gomendioak berriz hartu ditugu, Hezkuntza Saileko arduradunekin lan-bilera izan dugu eta ezarritako araupeketarekiko gure kezka adierazi diegu.
- Sasoikakoen problematikan parte hartzen duten hainbat elkarterekin harremanak izan ditugu. Beraien bitartez, urte hauetan guztietan zehar jarraipen hobea egin ahal izan dugu eta datu gehiago ditugu. Horren ondorioz, errealitatera doituago dauden esku-harmenak, proposamenak eta gomendioak egin ahal izan ditugu. Harreman horiek balio izan dute gai honi buruzko txosten monografikoa egiteko datu-iturri bezala ere (ikus txosten honetako 1.1.2 azpiatala).
- Zerbitzu jakin batzuei egindako bisita eta haietan lan egiten duten profesionalekiko elkarrizketek eta bilerek hainbat gauza aztertzeko balio izan dute: elkarteen eta administrazioen arteko zenbait hitzarmenen ezaugarriak, egindako zerbitzuaren jarraitasuneko eta lan-baldintzetako haien eragina eta zerbitzu batzuen eta besteen arteko koordinazioko arazoak. Horrek erakunde arduradunen aurreko ofiziozko jarduera batzuk eta haien egoeraren jarraipena ekarri ditu (ikus txosten honetako 1.1.5 eta 1.1.6 azpiatalak).
- Minusbaliatu fisikoen federazioek azaldutako problematikak ofiziozko jarduera jakin batzuk bultzatzeko, haien kezkak eta lehentasunak hobeto ezagutzeko eta

haien eskariak kontuan hartzeko balio izan dute. Izan ere, haien eskariak kontuan hartu dira eraikin eta zerbitzu publikoetara sartzeko erraztasunari eta haiek lana eskuratzeko dituzten aukerei buruzko hurrengo lan monografikoak ikuspegiztatzerakoan (ikus txosten honetako 1.2 azpiatala)

- Hirigintzako plan eta jarduerei eta berauen ingurugiroko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolaturiko pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietariko batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintza- eta ingurugiro-arloei buruzko azpiataletan (II. atala).
- Hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin harremanak izan ditugu. Haiek bultzatuta, instituzio honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen globala aurkeztu zion eta, proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetza-bekatarako deialdia egin zuen. Beka horiek beren emaitzak ematen joan dira (ikus txosten honetako 2.3 azpiatala). Horrela, argitaraturiko materialak ikastetxe guztietara eta giza eskubideetako hezkuntzarekiko interesa agertu eta horretarako konpromisoa hartu duten elkarteetara eta taldeengana bidali dira (ikus txosten honetako 2.3 azpiatala).
- Burua gaixorik dutenen senideen elkarteekin eta babes-fundazio batzuekin izandako harremanak faktore determinatzaileak eta laguntzak izan dira haiei gure Erkidegoan ematen zaien erkidegoko arretari buruzko lan monografikoan pertsonon arazoak gogotik aztertzeko eta artean jarraitu ez zitzaien arazoetako batzuei jarraitzeko (ikus atal honetako 1.1.9 azpiatala).
- Laguntza-elkarte batzuek atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzeari edo kanporatzeko aginduari, jasotako polizi tratuari edo haiek herri enplegurako deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzei begira aurkeztu dituzten salaketek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak tramitatzea, ofiziozko jarduerak...
- Hainbat herritako presoak kartzelatik ateratzeko plataformekiko bilerak direla bide, hainbat saili (herriaren defendatzaileari eta Tortura prebenitzeko Europako Batzordeari) haien egoera azaldu diegu. Izan ere, Arartekoak taldeoi jakinarazi gura die nolako jarrera duen hainbat gairi buruz, hala nola, presoak hurbiltzeari, kartzelen eta kartzeletako egoerari eta haiek hainbat ziorengatik kartzelatik ateratzeari buruz.

Batzuetan, elkarteekiko harremanek balio izan dute haien ibilera-arazoak jasotzeko ere: beren lana burutzeko dituzten zailtasun eta oztopoak, haien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetza egonkorrerako bideak finkatzekoak, beren programekin jarraitzekoak, erakundeekiko topaguneak izatekoak, erakunde-planetan eta zerbitzuetan parte hartzekoak... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea; elkarte-erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasun-mahaia eta ijito-herriaren partaidetzarako Kontseilua, Bolondresei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetza-hitzarmenetako erantzukizunak argitzea...

Instituzio honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta herri zerbitzuen eta administrazioen arteko lankidetza sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte-eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek hiritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien lidergoa berenganatu. Ildo horretatik, iazko txostenean (ikus VI. atala) jasota zegoen elkarteek askotan kudeatzen zituzten talde zaurkorrentzako zerbitzuak sortzeko erakunde-lidergoari buruzko gomendio orokorra. Azken urte honetako txostenean ikus daitezke, halaber, zentzu oneko aipuak (Administrazioa buru duten ekimenak) eta zentzu txarrekoak (zerbitzu jakin batzuk sortzea gaitzesteko gizarte erantzunak).

## 2.2. ARARTEKO ERAKUNDEAK DEITU DITUEN IKERKETA BEKAK

Aurten, ikerketa-lanek gai hauek jorratu dituzte: gizarte-bazterketaren arazoak, enpleguak gure gizartean duen esangura eta oinarrizko errentaren aplikazioa (iaz adjudikatu zen beketako bateko aztergaiak). Datu-bilketa aurreratu samar dago eta lehenengo kapituluak idatzita daude dagoeneko; ikerketa-lanaren bidez, gaur egungo gure gizarte-ereduko funtsezko alderdi batzuk berrikusi eta alternatibak eskaini nahi dira.

Ararteko erakundeak beste ikerketa-beka baterako deialdia egin du 2002ko urriaren 9ko Ebazpenaren bitartez (EHAA, 224. zk.); beka hori Beatriz Sicilia Oñari adjudikatu zaio.

Bere lanean aztertuko du giza-eskubideen defentsa Europako Batasunaren eremuan, gai horri buruz egiten ari diren araudi erreforma garrantzitsuen markoan.

Era berean, iaz eman eta adjudikatu zen bekari dagozkion lanak ere egin dira. Beka hura gai hau aztertzeko eman zen: EAEn finkatuta dauden magrebtarren arteko gutxiengoek euren bizitza kultural propioa izateko, euren erlijioa praktikatzeko eta eta euren hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea.

Aurten, 2002ko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez, ikerkuntza aplikatuko beste beka baterako deialdia egin zen. Guztira, 22 pertsona edo talde aurkeztu ziren euren proiektuekin; hona hemen horietako batzuk:

- Inmigrazioari lotutako egoerak
- Adingabeei lotutako egoerak
- Gizarte-egoera ahuleko edo baztertuta izateko arriskuan dauden taldeei lotutako egoerak (ijitoen komunitatea, minusbaliotasunen bat dutenak, gay eta lesbianak...).

Txosten hau bukatuta, oraindik ez da amaitu beka adjudikatzeko prozesua.

## 2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLAN ERABILTZEKO MATERIALA EGITEKO BEKAK

Lau urtetan, jarraian, Ararteko erakundeak deitutako bi beketako batek izaera espezifikoa eta helburu zehatza izan ditu: giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea. Deialdi hauek erakunde honen kezka eta konpromiso iraunkor bati erantzun diote: belaunaldi berriak demokrazia bereizten duten balioetan gizarteratzeak giza eskubideen aldeko hezkuntzan, bake eta tolerantziarentzako hezkuntzan du bere oinarrietako bat; eta balio horiek haurtzaroan eta gaztaroan ikasi eta finkatzen lagundu ahal eta behar duten tresnetako bat eskola sistema da, bakarra ez den arren.

Gure gizarteko bake etorkizunerako funtsezkoa den auzi honi buruz, hainbat ekimen eta proposamen aurkeztu ditugu, hala nola, “Bakerako hezkuntza” izenburupean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuari egoki zenean aurkeztu zitzaiona, baita koordinazio-jardunaldietan gainerako defendatzaileen aurrean egin ziren proposamenak ere.

Beka deialditan jasotako erantzunak –guztira ia 100 proiektu aurkeztu dira deialdi horietara- agerian utzi du pertsona ugarik giza eskubideen hezkuntzarekin interesa eta konpromisoa duela. Deialdiek euren fuitua eman dute, batez ere azken bi urteotan. Horrela, bada, lehenengo bekari dagokionez, behin eskola dinamikan integratzeko jarduera eta proposamenen prestaketa-lana amaituta, eta berrikusi eta esperimentatu ondoren, karpeta lodi bat argitaratu zen, euskaraz eta gaztelaniaz: *Materiales para la educación en derechos humanos. Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak*. Karpeta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietara banatu zen (DBH eta Batxilergoa) bai eta hezkuntza laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zerbitzuetara ere.

Lan horren ostean, beste karpeta bat argitaratu zen giza eskubideen aldeko hezkuntzako material didaktikoekin: *Nuestros derechos. Gure eskubideak,* honako honetan Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Karpeta honetako materiala haurtzaroak berezkoak dituen eskubideetan oinarritzen da, 1989 urteko Haurraren Eskubideei Buruzko Batzarrean finkatutakoak, alegia. Hezkuntza alorreko profesional-talde batek prestatu ditu, egitura bereko 30 unitatetan antolatu dira lan sistematikoa errazteko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara eta hezkuntza zerbitzuetara bidali da.

Hirugarren bekaren fruitu, iaz ere, giza eskubideen aldeko hezkuntzarako materialen kutxa argitaratu zen, *Los derechos en juego. Eskubideak jokoan* argitaratu eta zabaldu zen. Material hori DBHrako prestatu zen bereziki. Kutxa honek karta-jokoak eskaintzen ditu, 27 giza eskubideekin lotutako edukiak lantzeko behar diren elementuak, jokoa eta hausnarketa bateratuz eta hainbat talde-dinamika erabiliz. Material hori ere gure Erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzuetan banatu zen.

Egin den azken deialdiak multimedia euskarrian materialak lortzea izan zuen helburu, aurreko deialdien aldean berrikuntza eta baita zailtasun bat gehiago ere. Beka Mugarik Gabeko talde bati esleitu zitzaion, material mota hau prestatzen aurretik eskarmentua dauka-eta. Aurten sorkuntza lanean jarraitu dute, emakumezkoen eskubideetan oinarrituta. Datorren urtean amaitzea espero dugu eta, behin aragitaratuta, ikastetxeetara bidaliko dugu.

Deitutako beka guztiek xede soil eta bakarra izan dute: eskola komunitateari hezkuntza zereginak garatzeko material erabilgarriak eskaintzea. Aldi berean, erakunde honek jarraitu nahi du kontu honen inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion erantzukizuna azpimarratzen, eta, ahal duen neurrian, giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin konpromisoa duten –eskolaren eremuan edo bertatik kanpo- pertsonen eta kolektiboen arteko harremanak eta kolaborazioa bultzatuko ditu. Ildo honetan, urtean zehar ikastetxeetatik eta beste leku batzuetatik –harrera-zentroetatik, aisialdiko taldeetatik, gazte-taldeetatik eta gazteekin edo adingabeekin diharduten elkarteetatik- izan ditugun material eskariei erantzuten saiatu gara.

Batzuetan, beste erkidego batzuetako herri-defendatzaieek interesa erakutsi dute gure matarietan eta hortaz, berriro argitaratzeko eta eskatu duten erkidegoetako ikastetxeetara bidaltzeko aukera aztertzen ari gara. Horrela, bada, Andaluziako Herri-defendatzaileak 2003ko urtarrilaren 22an egindako eskariari dagokionez, erakunde biek lankidetza-hitzarmena sinatu dugu haurren eskubide bereziei buruzko material didaktikoko karpeta berriro argitaratzeko; horrela, karpeta hori Andaluziako ikastetxeetan banatuko da.

Arartekoaren erakundea oso pozik dago argitaratutako materialek izan duten harrera ikusita. Hala ere, uste du erakundeak eskola-komunitateari egiten dion ekarpenak ez duela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren erantzukizuna ordeztu behar, lehen ere esan dugunez. Horregatik, behin helburuak beteta, aurten ez du material didaktikoak prestatzeko beka-deialdirik egin. Material horiek irakaskuntzan duten benetako erabilgarritasuna jakiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxetan datuak bildu eta baloratu nahi ditugu.

## 2.4. "GIZA ESKUBIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK" GAIARI BURUZKO JARDUNALDIAK, EHUk ANTOLATURIKO UDAKO IKASTAROETAN

1997. urteaz geroztik, Arartekoak giza eskubideei buruzko ikerketa eta eztabaida jardunaldiak egiten ditu, EHUk antolaturiko Udako Ikastaroetan. Aurreko aldietan bezalaxe, aurten ere giza eskubideen eremu zabal bat landu nahi izan da, gaur egungo ikuspegitik.

Seigarren jardunaldi hauetan, "Giza eskubideak eta teknologia berriak" gaia aukeratu zen. Teknologia berrien on-gaitzak aztertu ziren, bi ikuspegitatik: alde batetik, eskubideak urratzen dituzten tresnak izan daitezke, eta, horregatik, babes-bideak ezarri beharko dira; baina, bestetik, eskubideak gauzatzeko tresnak ere izan daitezke, horiek ahalbidetuz edo neurri handiagoan zabalduz.

Jardunaldi horren aurkezpenean, Mertxe Agúndez arartekoak bere nahi hau agertu zuen: jada abian den iraultza teknologiko hau ez dadila izan hain modu erradikalean ezarri den nazioarteko eta gizarteko ordena iraunaraziko duen faktore sakabanatzailea, baizik eta, aitzitik, lagungarri izan dadila pertsona guztien berezko duintasuna hobeto errespetatuko duen mundu solidarioagoa eraikitzeko.

Pablo Lucas Murillo de la Cuevak, Konstituzio Zuzenbidean katedradun eta Auzitegi Goreneko magistratuak, honako txosten iradokitzaile hau aurkeztu zuen: "Aurrerapen teknologikoak eta oinarrizko eskubideak. Aurrerakuntzaren arriskuak".

Aurrerakuntza zientifiko eta aurrerapen teknologikoa eta behar berriak aztertu zituen. Sortzen ari diren eskubide berriak hausnartu zituen eta, zehazkiago, errealitate berriei eta horien erantzun juridikoei hurbildu zitzaien. Osasuna eta identitate sexuala; ingurumenaren babesa; herrien elkartasuna eta garapena; elkartasuna eta gizarte-bazterkeria; identitate sexuala eta ezkontza; osasuna babesteko eskubidea eta bizi-testamentua; informazio alorrean norberak erabakitzeko eskubidea; horiek guztiak aztertu ziren lan horretan, eskubide guztiek, berri nahiz zaharrek, sustrai berbera dutelakoan -gizakiaren duintasuna-, eta oinarrizko osagai berberak -askatasuna eta berdintasuna-.

Azalpen bikain horren kontrapuntu teorikoa Gregorio Díaz Dionis NIZKOR Taldearen zuzendariak jarri zuen, giza eskubideak gauzatzearen ikuspegitik. Haren txostenak izenburu hau zuen: "Giza eskubideen aktibismoa eta teknologia berrien bitartez egindako kontrol politiko eta soziala".

NIZKOR Taldea giza eskubideen nazioarteko erakunde bat da, mundu osoan jarduten du eta agiri digitalez munduan dagoen zentro garrantzitsuenetariko bat mantentzen du.

Txosten kezkagarri batean, NIZKOR Taldearen zuzendariak teknologia berrien eta askatasun zibilen arteko harremana jorratu zuen. Erne egoteko adierazi zigun, alde handia baitago komunikazioetan gertatu diren aurrerapen zientifiko-teknikoen eta nazioetan nahiz nazioartean dauden arau eta prozedura juridikoen artean. Berak salatu zuenez, modu desegokian erabiltzen dira satelite bidezko komunikazioen kontrola, "kontrol politiko eta sozialerako sistemak" izenekoak, "hilgarriak ez diren armak". Ruanda edo Kolonbiako kasuak aipatu zituen bere salaketaren erakusgarri. Bestalde, eskubideak babesteko nazioarteko erakundeek beren jardueretan teknologia berriak nola erabil ditzaketen adierazi zuen.

Bi txosten horien ondoren, mahai-ingurua egin zen, hiru hitzaldi arras interesgarriren bitartez.

EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesaleko irakasleak, Francisco Etxeberria Guridik, gai hau izan zuen hizpide: "Ikerketa penalean ADNari buruzko datu-baseetan bermerik ez izatea".

Etxeberria irakasleak onartu zuen teknika genetikoak garrantzizkoak direla egintza kriminalak ikertzerakoan, baina salatu zuen Espainiako oraingo araudian ez dagoela ADNari buruzko datu-baseen edo fitxategien bermerik.

Ukatu egin zuen ADNari buruzko Datu Baseak arautzeko Legearen aurreproiektuaren zirriborroan, arrazoien azalpenean egiten den adierazpen hau: "*hemen arautzen diren gaiek ez dute eraginik oinarrizko eskubideetan edo askatasun publikoetan*", eta, jarraian, bere ustez eragina jasaten duten eskubideak aztertu zituen. Horrela, zehatz-mehatz analizatu zituen askatasuna edo nortasuna libreki garatzea, intimitate genetikorako eskubidea, informazio alorrean norberak erabakitzeko eskubidea.

Bukatzeko, bere hitzaldi osoan nagusitu ziren zehaztasun eta seriotasunez, analisi genetikoetako hipotesi objektiboak azaldu zituen, eta emaitza genetikoak gero datu-baseetan nola sartzen diren.

Beste alde batetik, EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Konstituzionaleko irakasleak, Ana Rosa González Muruak, gai honetaz hitz egin zuen: "Datuak Babesteko Agentzia, herritarren eskubideak bermatzeko tresna gisa".

González Murua irakasleak, lehen-lehenik, xeheki azaldu zuen datuak babesteari dagokionez Espainian azken 25 urteotan izan den bilakaera, bai doktrinan, bai legegintzan, bai jurisprudentzian ere.

Ondoren, gogoeta egin zuen Estatuko Datuak Babesteko Agentziaren jardunaz eta autonomia erkidegoetako datu-babeserako agentziez, batez ere Madrileko Autonomia Erkidegokoez.

Azterketa interesgarri hori bukatzeko, datuak babesteko agentziek beraien artean dituzten harremanak aipatu zituen, baita ere agentziok Herriaren Defendatzailearekin eta horren kide autonomikoekin dituztenak.

Azkenik, jardunaldi hauen amaieran, Iñaki Vicuña Nicolás Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiko legelariak honako hau izan zuen hizketa-gai: "Teknologia berrien erronkak Justizia administrazioan".

Informazioaren gizarteak jurisprudentzian duen eragina azaldu zuen egile honek, eta Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusia burutzen ari den jardueren berri eman zuen.

Plan, adierazpen programatiko eta arau orokorrak aztertu zituen, besteak beste, informazioaren gizarteko sektore publikoaren informazioari buruzko liburu berdea, E-Europe 2000 Ekintza Plana, zerbitzu publikoak hobetzeko liburu zuria -"Administrazio berri bat herritarren zerbitzura" izenburukoa-, INFO XXI Plana edo Euskadi Plana informazioaren gizartean.

Hitzaldia bukatzeko, jurisprudentzian datu pertsonalak nola ezabatzen diren azaldu zuen, alegia, nola egiten den "informazio pertsonalaren ezabaketa" delakoa.

Jardunaldi hauek burutuz, eztabaida bat sustatu nahi da gure eskubideak gauzatzeko garrantzi izugarria duen gai honen gainean.

# 3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

## 3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XVII. JARDUNALDIAK

Arartekoaren eta autonomietako mandatarien arteko hartu-emanek koordinazioa eta kooperazioa dituzte oinarri. Urtean zehar, erakunde horiek hartu-eman estuak dituzte euren eguneroko ekimenetan.

Koordinazioari buruzko jardunaldiak eztabaidarako foroa izan dira eta komunean dituzten arazoak trukatzeko antolatzen dira.

XVII. Koordinazio Jardunaldiak Iruñean egin ziren, Senatuaren Jauregian, 20002ko urriaren 28an eta 29an, Nafarroako Herri-defendatzaileak antolatuta.

Lehenik eta behin, esan beharra dago jardunaldiotan berrikuntza metodologiko interesgarria egon dela. Alde batetik, jardunaldietako eztabaidagai nagusia gizarte-eskubideak eta inmigrazioa izan ziren eta bestetik, XVII. Jardunaldien aurretik, Iruñean eztabaidatzekoak ziren gai nagusi horiek jorratzeko hiru tailer antolatu ziren.

Irailaren 9an eta urriaren 8an, Alacanten, legeetan egindako berrikuntzen ostean adingabeek duten egoerari buruzko tailerra egin zen.

Irailaren 17an eta urriaren 7an, Sevillan, bigarren tailerra egin zen: “Eragingarritasuna herri-defendatzaileen kudeaketan”.

Azkenik, irailaren 23an eta urriaren 22an, Madrilen, “Oinarrizko eskubideen defentsa oinarrizko zerbitzu publikoak pribatizatu ostean”.

Hiru tailer horietako ondorioak XVII. Jardunaldietan aurkeztu ziren, laneko dokumentu modura.

Era horretan, Arartekoaren idazkari nagusi Faustino López de Forondak “Eragingarritasuna herri-defendatzaileen kudeaketan” gaiari buruzko ondorioen zirriborroa aurkeztu zuen. Eztabaidaren ondoren, behin betiko onetsi zen testua. Hona hemen hitzez hitz:

> *“Bat.- Herri-defendatzaileek eurei eskatu zaizkien eginkizunak beren gain hartzen dituzte, herritarrei eta erakundeei –horien barruan daude- zerbitzu egokia eskaintzeko asmotan, beti ere Konstituzioko eskubideak eta askatasunak benetan bermatzeko eragingarritasuna eta asebetetzea helburu.*
>
> *Herri-defendatzaileen lanak gardena eta informaziozkoa izateko ahalegina eskatzen du, herritarrekiko, parlamentuekiko eta administrazio publikoekiko harremanetan egiten diren esku-hartzeetan.*
>
> *Bi.- Administrazioaren jardunaren kontrol-lanetan, garrantzitsua da herri-defendatzaileen erakundeek euren ebazpenen edo erabakien edukia zorrotz zaintzea: ebazpen eta erabakiak argi azaldu behar dituzte eta neurtzeko modukoak behar dute izan, kasuan kasuko administrazioak ebazpen eta erabaki horiek zenbaterainoko onartzen eta aplikatzen dituen zehaztu ahal izateko.*

*Herri-defendatzaileeek emandako argudioen aurrean baiezko erantzuna jasotzea abiaburua besterik ez da erantzun hori benetan abian jartzeko. Horregatik, ezinbestekoa da administrazioek hartutako konpromisoen jarraipen- eta zaintza-lana egitea; lan hori zenbatero eta zenbat aldiz egingo den, kasuak aginduko du. Hori guztia ebaluazio eta kritika lana indartzeko egiten da, herri-defendatzaileen esku-hartzeen azken eragingarritasun-mailaren araberakoa den lana, alegia.*

*Hiru.- Herri-defendatzaileek komenigarritzat jotzen dute euren jardueraren emaitzak azaltzeko orduan parlamentuen aurrean aurkezten dituzten txostenetan edo memorietan lortu den eragingarritasun-maila deskribatzeko ahalegina egitea. Nolanahi ere, urteko txostenen estatistikako eta zenbakizko edukiek ez lukete izan behar mandatarien jardueren aritmetikako adierazpide huts eta soil.*

*Era berean, beharrezkotzat jotzen dute, gai garrantzitsuenak azpimarratzea, berez katramilatsuak izan eta oihartzun handia dutenak herritarren eskubideen eta askatasunen babesean. Horiei zabalkunde handiagoa emanez gero, zehatzago finkatu ahal izango dira herri-defendatzaileen eta administrazio publikoen arteko harremanen emaitzak eta, hala bada, herri-defendatzaileak prestatutako gomendioak abiaburu hartuta, edo lankidetza eragingarria ezarri edo arretarik eza gaitzetsi ahal izango da, kasuan kasu.*

*Lau.- Gure erakundeen funtzionamendu-dinamika bera dela-eta, eragingarritasunari dagokionez, batzuetan baliteke kontraesana agertzea: baliteke azaldutako gatazka bati irtenbide indibiduala ematea baina eta egin zaigun arazoaren oinarrian dauden egitura-arazoak oraindik hor egotea.*

*Horrelakoetan, beharrezkoa da kexa egin duen pertsonaren interes norbanakoa eta legezkoa eta bestelako interes orokorrak bateratzea, interes orokor horiek, hain batean, kaltetuta gertatuko direlako espedientea erabakitzean; hori egitea beharrezkoa da administrazioak, bere jardunean, banan-banako erantzunak bakarrik eman ez ditzan, gatazka konponduko luketen oinarrizko arazoei irtenbiderik eman barik.*

*Hori dela-eta, horrelako egoeren aurrean, komeni da ikertzeko bidea ofizioz erabiltzea, administrazioari eskatzeko, norbanakoari erantzuteaz gain, oinarrizko gatazka konpontzeko behar diren neurriak har ditzala.*

*Bost.- Parlamentuekiko harremanen eremua –parlamentuetako mandatari dira herri-defendatzaileak- egokia izan daiteke herri-defendatzaileek euren jarduerak azaltzeko eta egindako jarduketen emaitzak zehatz-mehatz azaltzeko.*

*Urteko txostenak aurkezten dituztenean izaten dute, eragingarritasunaren ikuspegitik, herri-defendatzaileen erakundeek eta euren parlamentuek harremanik estuena. Herri-defendatzaileen ustez, garrantzitsua da parlamentuen egoitzetan txosten horiek sakonago aztertzea bultzatzea, parlamentuek txostenotako edukiak aztertzeko, euren eginkizunen arabera jokatzeko dituzten eskumenak gorabehera.*

*Izapide arrunt horretaz gain, herri-defendatzaileek badituzte beste bide batzuk ganbarek eta parlamentuetako taldeek euren mandatarien jarduketen aurrean egiten dituzten ekarpenak bultzatzeko: txosten bereziak egiteko eta horiek eztabaidatzeko aukera dute, parlamentuetako batzordeetan eta gainerako organoetan sektoreka agertzeko eta baita horiek osatzeko bestelako ekimenak ere; bide horiek urratzea interesgarria izan liteke harreman estuagoa izateko eta, ahal den heinean, lortu nahi den eragingarritasun-maila erdiesteko.*

*Azken batean, presentzia areagotzeak herri-defendatzaileen eta parlamentuen arteko harremana aberasten lagun dezake, bai eta parlamentuak esleituta dituzten eginkizunen bidez eragingarritasun-maila handitzen ere.*

*Sei.- Herri-defendatzaileek beharrezkotzat jotzen dute administrazio publikoen ustezko lankidetzarik eza gainditzea, horretarako lankidetzarako lege-betebeharraren aurrean errespetua helburu duten neurriak arian-arian eta derrigorrean aplikatuz.*

*Kexak gainbegiratzeko eta ikertzeko lanetan lankidetzarik eza agertzeak, batez ere, zailtasunak jartzen dizkio gure erakundeen erabakitzeko gogoari eta esku-hartze eragingarriari. Hortaz, ahal dela, lankidetza-maila handia lortu behar da kexan gertatu diren inguruabarrei buruz informazio azkarra eta benetakoa eskuratu ahal izateko; behin hori eginda, arauek ezartzen dituzten neurriak aplikatuko zaizkie berez laburrak eta informalak izaten diren prozedurei. Ildo horretan, nabarmentzeko modukoak dira parlamentuetako aldizkari ofizialetan argitaratzeko ezarri diren formula jakin batzuk, lankidetzarik agertu ez denetarako, edota parlamentuen aurrera agertzeko eskatzea, trabak jartzeko jarreren berri emateko.*

*Beste alde batetik, trabak eta eragozpenak jartzeko jarrera agertzen denean zigor-legedian aurreikusita dagoen errekurtsoa zuhurtasunez eta erabakigarritasunez erabili behar da, kontuan hartuta era horretako arazoak berez korapilotsuak izaten direla.*

*Neurri larri hori iragartzeak asmoa kentzen du baina hala ere, ez da jarrera ez lar kontsekuenteekin ahuldu behar, egindako ohartarazpenei jaramon egingo ez zaiela behin eta berriro esanez gero. Eta, era berean, zigor izaerako neurriak sustatzeak berarekin dakar delako kasua kontu handiz erabakitzea, kasuaren balorazio juridikoa eta prozesuak arrakasta izateko ahalik eta seguruen egotea bat etorriz.*

*Zazpi.- Herri-defendatzaileek eginkizun bereziak dituzte egotzita konstituzio-eskubideak defendatzeari dagokionez, eta eginkizun horiek ahalegin eta konpromiso handiagorekin bete beharko lituzkete gure erakundeek, batik bat Justizia Administrazioaren funtzionamenduan; izan ere, herritarrentzat garrantzitsua da eta sentibera agertzen dira arlo horretan.*

*Arlo horri buruzko kexa asko jaso dituzte parlamentuetako mandatariek eta herri-defendatzaileek konstituzio-eskubideak babesteko konpromiso etengabea*

*dute; hori dela-eta, jarduketa bereziak ere egin behar dira, Justizia Administrazioko organo eskudunekin koordinatuta, aurrera egin ahal izateko eta hobetu ahal izateko, kontuan hartuta gure erakundean aurkezten diren kexarik gehienak Justizia Administrazioaren funtzionamenduaren ingurukoak izaten direla.*

*Ondorio horietarako, herri-defendatzaileek uste dute komenigarria dela harremanak formalizatzea Justizia Administrazioko organo eskudunekin, elkarrekin lanean jarduteko eta elkarri laguntzeko mekanismoak hobetzeko tresnen bidez.*

*Zortzi.- Herri-defendatzaileek administrazioekin, parlamentuekin eta gizarte ekimenekin dituzten harremanen eragingarritasun-maila, konstituzio-eskubideak eta askatasunak babesteko organo diren aldetik, euren jarrera transmititzeko eta euren argudioak azaltzeko gaitasunak baldintzatzen du.*

*Herri-defendatzaileek egiten duten pertsuasio-magistratutzaren emaitzaren eragingarritasuna, iritzi publikoa osatzen duten elementuen aurrean harkortasuna eta solbentzia irabazteko gaitasunaren araberakoa izango da. Horregatik, dituzten bitarteko guztiak erabili behar dituzte euren ekarpenak iritzi publikoan islatzeko eta gizarteari jakinarazteko herri-defendatzaileen erakundeek eskaintzen duten zerbitzua eta lana.*

*Herri-defendatzaileek gardentasuna eta zabalkundea irizpide hartuta jardun behar dute euren lanean, beti ere herri-defendatzaileen erakundeak egon daudela argi utziz, erakunde-maila ausardiaz eskatuz eta, zentzu demokratikotik, erakunde horien izateaz eta eragingarritasun-mailaz herritarrek duten iritzira makurtuz".*

Valentziako Komunitateko Síndic de Greuges-aren laguntzaile Carlos Morenillak bigarren tailerrean landutakoari buruzko agiria aurkeztu zuen: "Adingabeen egoera, azken lege-berrikuntzen ondoren".

Aurkezpenaren osteko eztabaidan, erakunde bakoitzak bere ikuspegia agertu zuen eta behin ekarpen berri guztiak agiriari batu eta gero, ondorio hauek onartu ziren:

*"Autonomia erkidegoetako herri-defendatzaileak Nafarroan bildu dira Estatuko herri-defendatzailearekin eta XVII. Jardunaldietan jorratu beharreko gaietako bat erreforma-neurrien pean dauden adingabeen egoera izatea erabaki dute; izan ere, giza eskubideen babesaren eremuan sentiberatasun handiko gairik izatekotan, haur eta nerabeak tarteko diren gaiak dira.*

*Adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa indarrean jarri izanak eta indarrean jarri zenetik igaro diren urte eskas bi hauetan lege hori aplikatu izanak eman digun esperientziak arreta berezia eskatzen die herri-defendatzaileei, are gehiago kontuan hartuta arlo horretan autonomia erkidegoek bere gain dituzten erantzukizunak. Autonomietako herri-defendatzaileek eta Estatukoak gai horretako euren esperientziak eta ezagutzak azaldu dituzte denen aurrean eta, erreforma-neurrien pean dauden neskato-mutiko eta nerabeei dagokienez, ondoko ondorioak atera dituzte:*

***Bat.-*** *Adingabeen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa lege-marko onargarria da, adingabearen eskubideak errespetatzearen ikuspegitik eta arlo horretan adingabeei lehentasuna ematearen ikuspegitik. Hala ere, gai jakin batzuetan gabeziak antzeman dira eta herri-defendatzaileen ustetan, gabezia horiek ongitu egin beharko lirateke. Hori dela eta, ondorio hauen asmoa da hausnarketarako elementuak eskaintzea, behar-beharrezkoak diren erreformaren nondik-norakoak zeintzuk izan litezkeen iradokiz.*

***Bi.-*** *Gaurko lege-markoan dagoen lehenengo gabezia Estatu mailako araudi orokorrik ez egotea da, ez eta horri lotutako autonomietako araudirik ere, Legea osatu eta garatzeko; izan ere, araudi orokorra ezinbestekoa da bereziki adingabeen oinarrizko eskubideak ukitzen dituzten alderdiak zehatz-mehatz arautzeko, barneratze-zentroetako araubide arruntari eta diziplinazkoari dagokion oro arautzeko, bai eta erregimen irekiko neurriak betetzearekin lotutako alderdiak ere.*

***Hiru.-*** *Zenbait egoeratan autonomia erkidegoek abian jarritako babes-sistema ez dago behar beste garatuta adingabe-talde jakin batzuei eragingarritasunez arreta egiteko. Esate baterako, hori gertatzen da delituren bat egin duten 14 urtetik beherako adingabeekin, 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremutik at geratzen baitira eta Lege Organikoa barik, babes-sistema orokorra (3. art.) aplikatzen zaie baina sistema orokorrean ez dago aurreikusita adin horretako taldeari inolako tratamendu berezirik ematerik. Beste horrenbeste gertatzen da delituirik egin ez baina jokabide-nahaste argiak erakusten dituzten 18 urtetik beherako adingabeekin. Egoera bi horietan, kezkatzekoak dira zentroetan diziplina edukitzeko dauden zailtasunak, adingabeen eskubideak murriztu gabe, beharrezkotzat jotzen diren hezkuntza-programen bidez eurekin egiten den lana bideragarria izateko.*

*Beste alde batetik, buruko gaixotasunen bat duten adingabeei laguntzeko baliabide eskasia egotea kezkatzekoa da, horientzat beti ez baita egoten programa terapeutiko egokirik.*

***Lau.-*** *5/2000 Lege Organikoan, prozedura bakarra dago delitu guztiak epaitzeko eta komenigarria litzateke, delitu txikiak direnean, Legean aurreikusitakoa baino izapide erraz eta arinagoak egotea.*

***Bost.-*** *Atxilotutako adingabeen deklarazioan, lege-ordezkaririk ez dutenean, bigarren fiskala egoteak ez du zentzurik (17.2 artikulua); izan ere, adingabearen eskubideak babestu ahal dira adingabearen ordezkari defendatzen duen abokatua edota tutoretza bere gain duen erakunde publikoa izendatuta.*

***Sei.-*** *5/2000 Lege Organikoko VIII. Tituluan jasotzen den erantzukizun zibila arautzeko sistema gogaikarria eta funtzionaltasun gutxikoa da, Prozedura Kriminaleko Legean pertsona helduen zigor-zuzenbiderako aurreikusi den ohiko*

*sistema hartu behar da; horren arabera, kaltetuak ekintza zibila erabili dezake adingabeari instruitzen ari zaion zigor-prozesuaren barruan.*

***Zazpi.-*** *Indarreko lege-markoan indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta arreta egiteko abenduaren 11ko 35/ 1995 Legearen aldaketa bat aurreikusi beharko litzateke, lege-marko horretan adingabeek egindako delituak direnean biktimei laguntza emateko aukera sartzeko.*

***Zortzi.-*** *Herri-defendatzaileak konturatu dira zenbaitetan, lege-aurreikuspenak ez direla betetzen edo egiten diren interpretazioak ez datozela bat haren izpirituarekin. Esate baterako, horietako bat da zenbait abokatu-elkarteren arintasun eza adingabeen interesak defendatzeko ofiziozko abokatuak izendatzeko orduan; gainera, atxilotutako adingabeari laguntzeko ofiziozko abokatu bat izendatzen dute eta beste bat, desberdina, prozeduraren gainerako izapideetarako, zentzuzkoena bietan abokatu bera izatea denean. Beste alde batetik, arlo honetan eskumena duten administrazioek adingabeei abokatuen laguntza eman ahal izateko behar beste diru jarri beharko lukete ofiziozko txandako beharrizanei erantzuteko, horrela, zerbitzua behar bezala emateko, funtsezkoa baita hori adingabearen prozesu-eskubideak jagoteko.*

***Bederatzi.-*** *Era berean, Bitartekaritza Programak eta Bitartekaritza-Konponketa Programak oraindik abian jarri ez dituzten lekuetan abian jarri beharko lituzkete eta horiek erabiltzea bultzatu; horretarako, bitartekaritza-prozesuak izapidetzeko ardura duten Adingabeen Fiskaltzetako talde teknikoetako baliabide materialak eta giza baliabideak gehitu behar dira (19. artikulua).*

***Hamar.-*** *Herri-defendatzaileek beharrezkotzat jotzen dute behar beste profesional egotea adingabeen justiziaren eremuan jarduten duten estamentu eta erakunde guztietan eta horien prestakuntza Legearen xedeak betetzeko espezializazio-eskakizunei erantzuteko modukoa izatea; bereziki, epaitegietako ekipo teknikoetako langileak aipatu nahi ditugu, behar-beharrezkoa baita langileez hornitzea eta plantilak osaturik egotea, hortxe antzeman baitira gabeziarik handienak nahiz eta Legeak oso eginkizun garrantzitsua ematen dien.*

***Hamaika.-*** *Erregimen irekiko neurriak sustatu beharra dago eta horretarako, administrazio publikoei eskatu behar zaie adingabeen epaileen esku jartzeko beharrezko dituzten baliabideak, tartean neurri horiek betearazi eta kontrolatuko dituzten profesionalak, administrazio publikoak era aktiboagoan parte hartuz, neurri horiek gehiago erabil daitezen ahalbidetzeko.*

***Hamabi.-*** *5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen bezala, beren beregi adingabeko atxiloketetarako zentroak edo egoitzak prestatu behar dira, Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak, autonomietako poliziek eta udaltzainek erabil ditzaten, beti ere Lege bereko 17.3 artikuluan aipatzen diren zerbitzuak ematea helburu.*

***Hamahiru.-*** *Herri-defendatzaileen ustetan, ezinbestekoa da barneratze-zentro gehiago eta zentro terapeutiko edo espezifikoak sortzea premia bereziak dituzten*

*adingabeentzat; zentro horien arkitekturako egitura Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 14an emandako 45/113 Erabakian onartutako 31-37 arauetara eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 40/33 Erabakiaren bidez onartutako Adingabeen Justizia Administraziorako Gutxieneko Arauetatik 27.era egokitu behar da. Zentro horietan, Legearen xedeei erantzuteko behar diren hezkuntza-programak garatuko dira eta adingabeei euren hezkuntza, osasun eta aisia premiak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskainiko zaizkie eta profesional egoki eta behar bezala prestatutakoek zainduta.*

***Hamalau.-*** *Une honetan dauden zentroei dagokienez, zentroetako titular diren administrazioei arren eskatzen zaie aurreko ondorioan aipatutako arauei ahalik eta gehien egokituko zaizkien gutxieneko arauak argitaratzeko eta ahal denik eta denbora laburrenean zentro horiek gutxieneko arau horietara moldatzeko, beti ere Legearen xedeei eta adingabeen premiei behar bezala erantzuteko.*

***Hamabost.-*** *Herri-defendatzaileek egiaztatu dute askotan ez dagoela koordinaziorik lurralde bereko administrazio-sailen artean (Hezkuntza, Gizarte Ongizatea eta Osasuna) eta horrek kalteak eragiten dizkie adingabeen interesei eta Legearen xedeak betetzeari; hori dela-eta ezinbestekoa da arazo horiek konpontzea, tartean dauden administrazio guztiak batera jardutea eta adingabeei, behar dutenean, arreta espezializatua eskaini ahal izateko erakunde-hitzarmenak sinatzea.*

***Hamasei.-*** *Herri-defendatzaileek uste dute adingabeentzako zentroetako hezkuntza-programek eta gizarteratze-programek, bai eta aske daudenean bete behar dituzten neurriekin batera dauden programek ere, atzerriko adingabeen premia bereziei (hizkuntza, ohiturak, trebetasunak...) erantzun behar dizkietela, bakarrik edo helduen laguntzarik gabe daudenean.*

***Hamazazpi.-*** *Gogoratu beharra dago 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak betearaztea eta horiek ondo ateratzearen erantzukizuna administrazio publikoena da, neurriak erakunde edo instituzio pribatuek kudeatuta ere. Horregatik, administrazioek aldiro-aldiro ikuskatu eta kontrolatu behar dituzte erakunde horien eginkizunak (Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko 25. artikuluarekin bat etorrita), adingabeen eskubideak behar bezala bermatzeko.*

Laneko tailerrak batera jartzeko lanaren ostean, Herri-defendatzailearen laguntzaile Mª Luisa Cava de Llano andreak hirugarren tailerreko agiria aurkeztu zuen: “Herritarren oinarrizko eskubideen defentsa oinarrizko zerbitzu publikoak pribatizatu ostean”

Gai horri buruz hitz eginda, ondorio hauek onartu ziren:

*“II. ONDORIOAK*

*Bat.- zerbitzu publikoak emateko titulartasun publikoko enteak bitarteko moduan erabiltzeari dagokionez, horien sorrera-arauetan honakoak bermatu behar dira:*

- *Ahalak, beti ere, botere publikoaren titularrarenak dira eta beraz, entea sortzeko arauan entearen norainokoa eta haren errespetu osoa bermatzeko teknikak definitu behar dira.*
- *Egon litezkeen gatazkak konpontzeko beste bide batzuk, izaera judizialekoak ala ez, egon badaitezke ere, beharrezkoa da tutoretza eta kontrol-sistema bat egituratzea. Sistema horrek botere publikoaren barruan egon behar du, herritarrek onartuta dituzten eskubideak erabat errespetatzen direla bermatzeko bertara jo ahal izango dute.*
- *Zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresen kaudimena bermatuta egon behar da eta hortaz, kanpotiko kontrolak, auditoretzen bidez, arretatsu egin behar dira. Kanpotik egiten diren kontrolak zerbitzuaren tutoretza duen edo zerbitzu ematen duen lurraldeko administrazioaren aginduz egingo dira.*
- *Zerbitzu publikoak emateko asmotan erabiltzen diren teknikak gorabehera, konstituzioko printzipioak errespetatuko dira: legezkotasuna, eragingarritasuna, berdintasuna, segurtasun juridikoa, arbitrariotasuna galaraztea...*

*Bi.- Zerbitzu publikoak pribatizatzeak, dela eragingarritasun-arrazoiek bultzatuta, dela merkatu bakar liberalizatua sortu delako, ez dizkio, inolaz ere, bermeak murriztuko kontsumitzaileari eta erabiltzaileari; izan ere, pribatizatzea kontsumitzailearen eta erabiltzailearen onerako da, ustez.*

*Hiru.- Merkatu berriko arauak botere publikoek finkatu behar dituzte, lehia askea optimizatzea eta gizarte elkartasuna eta kohesioa bateragarriak izan daitezen, beti ere herritarren duintasuna bermatzea helburu; hain zuzen ere, horrek esan nahi du berdintasuneko baldintzak daudela komunitatearentzat funtsezkoak diren zerbitzu jakin batzuek erabiltzea eta gozatzea.*

*Lau.- Ondasunak emateko zerbitzuak pribatizatzen direnean, komeni da Europa mailan edo estatu mailan liberalizatu diren zerbitzuei buruzko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua egitea eta zerbitzu-gutuna egitea merkatuko operadoreek, arauak betetzen direla zaintzeko ardura duten erakundeek gainbegiratuta.*

*Bost.- Komeni da erakunde publikoek eta merkatuko operadoreek informazioa emateko argitalpenak editatzea kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko bermeez eta teknikez.*

*Sei.- Botere publikoei dagokie jagotea eta ofizioz jardutea merkatuko operadoreek liberalizatutako zerbitzuak arautzen dituzten arauetan ezarritako helburuak betetzen ez dituztenean.*

*Gaur egun arauak sakabanatuta daude eta gainera, herritarrentzako zerbitzu hauek jendearengan eta orokorrean oihartzun handia dute; herritarrek, esate baterako, etxebizitza duina eta gutxieneko bizi-kalitatea izateko, ez dute besterik zerbitzu horiek erabili baino. Horregatik, aukera egon beharko litzateke legegileak*

*oinarrizko zerbitzu publikoen erabiltzaileen eskubideak eta bermeak jasoko dituen gutxieneko estatutua prestatzeko, administrazio publikoen fiskalizazioa edo kontrola bultzatuz eta diziplina-araubidea zehaztuz.*

*Gure erakundeen jarduna eragingarriagoa izate aldera, komeniko litzateke arau horietan gainbegiratzeko dugun eskumena gogoraraztea, hain zuzen ere merkatuan lehia askearen bidez ematen diren zerbitzuen jarduna gainbegiratzeko, beti ere jarduera publikoak egiten diren alderdiak badira eta arauotan jasota badago.*

*Auzitegi Konstituzionalak oraintsu - 2002ko urriaren 12an- emandako epai batean, gizarteari zerbitzuak eskaintzen dizkioten enpresen kontrolerako interpretazioa egin du; interpretazioaren arabera, gure erakundeen jarduera-eremua zabaldu egin daiteke, orain arte ulertutakoarekin alderatuta. Epaian jarduera-eremua zabaltzeko oinarria enpresa publikoaren kontzeptua ulertzeko moduan datza, hain zuzen ere parte-hartze publikoa duten enpresak, parte-hartzea oso txikia izanda ere, enpresa publikotzat jotzean; horren ondorioz, botere publikoek enpresa horiek kontrolatzea legezkoa da.*

*Zazpi.- Merkatuan lehian aritzen diren enpresetan bete-betean jardun ahal izateko, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen aldeko erakundeak gararazi egin behar dira, hartara administrazioaren gainbegirale baino eskubideen defendatzaile izango lirateke-eta.*

*Zerbitzuen pribatizazio-prozesuak bermeen sistema aldatu du eta hortaz, esku-hartzeko erakundeen bilakaera beharrezkoa da. Aipatutako bilakaera hala eskumenetan nola jarduteko prozeduran gertatu behar da.*

*Bitartekaritza sistema egokitzat jotzen da herritarren eskubideak eta interesak bermatzeko, merkatuan lehiatzen diren enpresen zerbitzuak ematerakoan; bitartekaritza-lana zerbitzua ematen duen enpresan zuzenean esku-hartuta egingo litzateke.*

*Hala ere, bitartekaritzarako eskumena izatea, oinarrizkoa bada ere, ez da nahikoa; formularen bat aurkitu beharko litzateke enpresek parlamentuetako mandatariekin lankidetzan aritu beharra izateko.*

*Zortzi.- Gure ustetan, zerbitzu publikoen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat gure erakundeek zeresan handia izan behar dute, iradokizunen eta proposamenen bidetik, Europako merkatu askean kontsumitzaileen eta erabiltzaileen konstituzio-eskubideak bermatzeko sistemaren eraikintzan. Zerbitzua ematen duen operadorea zeinnahi dela ere, konstituzio-eskubide bat urratzen denerako babes publikoko bideak hezurmamitu behar dira, nahiz eta hori eragozpen ez izan jurisdikzio funtziorako".*

Hurrengo lansaioan hitzaldi eta komunikazio batzuk aurkeztu ziren "gizarte zerbitzuen dimentsio bat inmigrazioaren ikuspegitik" gaiari buruz. Esate baterako,

Valentziako Komunitateko sindic de greuges Bernardo del Rosal jaunak “Gizarte zerbitzu publikoak erabiltzeko eskubidea” gaiaz jardun zuen.

Herri-defendatzailearen bigarren laguntzailea, Manuel Aguilar jauna, “Gizarte zerbitzuak ongizate Estatuan” gaiaz mintzatu zen eta erakunde bereko idazkari nagusiak, María del Mar Españak, “Etorkinek gizarte ongizateari egiten dioten gizarte ekarpena” izan zuen hizpide.

José Ramón Vázquezek, valedor do pobo denak, “Etxera itzuli diren etorkinak. Ikuspegia Galiziatik” hitzaldia aurkeztu zuen.

Andaluziako herri-defendatzaile José Chamizo jaunak “Ostatua eta etxebizitza” gaiari buruz hitz egin zuen.

Mercedes Agúndez arartekoak “Inmigrazio planen eragingarritasuna” gaia izan zuen hizketagai. Hitzaldi hori, oso-osorik, II. eranskinean sartu dugu.

Gaztela-Mantxako herri-defendatzaile Henar Merino etorkin adingabeak hartu zituen gaitzat, “Hezkuntza harrera-fasean” hizpide hartuta. Kataluniako Síndic de Greuges-en haurren arloko laguntzaileak, Jordi Cotsek, “eskola-gettoen” egoera azaldu zuen.

Ararteko erakundeak, gainera, komunikazio bat ere aurkeztu zuen, “Egoera bereziki ahuletan dauden adingabeak eta erakundeen erantzuna”. Txosten honetako III. eranskinean dago.

Jardunaldi hauetan, Nafarroako herri-defendatzaileak esperientzia interesgarri bati eman zion hasiera: Giza Eskubideei buruzko Lehenengo Foroa. Foroa irekia izan zen Nafarroako gizartearentzat eta A Coruñako Unibertsitateko Antonio Izquierdo katedraduna ere han izan zen “Inmigrazioa eta gizarte zerbitzuak. Ikuspegi prospektiboa” hizpide hartuta.

## 3.2. EUROPAKO OMBUDSMANEN SEIGARREN BILTZARRA (Krakovian, 2002ko maiatzaren 22tik 24ra)

2002ko maiatzaren 22tik 24ra Europako Ombudsmanen Seigarren Biltzarra egin zen Krakovian (Polonia). Biltzarrean, Ombudsmanen Europako Institutuak (OEI) Europako herri-defendatzaileen intereseko zenbait gai jorratu ziren.

Esate baterako, Kosovoko herri-defendatzaileak "Ombudsmanaren eginkizuna muturreko baldintzetan eta baldintza berezietan".

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisionatu Álvaro Gil-Roblesek "Ombudsmana eta errefuxiatuen eskubideen babesa, nazioarteko legeriak dioenaren arabera" gaiaz mintzatu zen.

Beste alde batetik, A. Ziekinskik, Poloniako herri-defendatzaile eta Ombudsmanaren Europako Institutuko lehendakariodeak "Ombudsmanaren jardueren eragingarritasuna" izan zuen hizpide bere hitzaldian.

Biltzarrean Ombudsmanaren Europako Institutuaren batzar nagusia egin zen; batzar horretan, zuzendaritza-talde berria hautatu zuten eta aurrera begira egingo dituzten jarduerak eztabaidatu zituzten.

## 3.3. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO MANDATARI ETA LEHENDAKARIEN FEDERAZIOAREN ZAZPIGARREN BILTZARRA

2002ko azaroaren 18tik 20ra bitartean, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren (IOF) VII. Biltzarra egin zen Lisboan (Portugal). Jardunaldi hauek eztabaida foroa dira eta gainera ombudsmanen figura herri iberoamerrikarretan ezartzea lagundu nahi dute. Biltzar horretan giza eskubideekin eta komunitate iberoamerikarrarekin lotutako hainbat gai eztabaidatu ziren.

Biltzarreko gai nagusia “Ombudsmana; eskumen berriak, eginkizun berriak” izan zen. Gaia aztertuz, agerian jarri nahi izan ziren ombudsmanaren eginkizunen eskumen berriak –esate baterako, orain arte ez bezala, administrazio publikoetatik kanpo esku-hartzea, alegia, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresekin–, edota ombudsmanaren jarduketa berriak –administrazio publikoen politikak monitorizatzea eta neurtzea, bidezko administrazioaren kontrola, administrazioaren eta herritarraren arteko bitartekotzako alderdi berritzaileak–.

Gaia jorratzeko lau lansaio burutu ziren:

- Lehenengo saioa: Ombudsmanaren bitartekaritza administrazioaren eta herritarren arteko gatazketan.
- Bigarren saioa: administrazioko jokabide onaren kodea
- Hirugarren saioa: administrazio publikoen politikak monitorizatzea eta neurtzea.
- Laugarren saioa: Ombudsmana sartzea eta enpresa pribatuek zerbitzu publikoak eskaintzea.

Jardunaldiotan IOFren batzar nagusia egin zen.

VII. Biltzarra amaitzeko, “Lisboako adierazpena” onartu zen. Hona hemen hitzez hitz:

*“Herri desberdinetako herri-defendatzaileak eta giza eskubideen aldeko herri-batzordeetako prokuradore, justizia-hornitzaile, buru eta presidenteak, Lisboan (Portugal) bildu dira 2002ko azaroaren 18tik 20ra bitartean, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren Urteko VII. Biltzarra egiteko. Biltzarrean ondoko ADIERAZPENA onartu dute:*

1. *AZPIMARRATZEN DUTE Ombudsmanen bitartekotza lana herritarren eta botore publikoen arteko harremanetan, beti ere gatazkak konpontzearen alde eginez.*

2. *PENTSATZEN DUTE administrazio egokia funtsezkoa dela gobernagarritasunerako, oinarrizko eskubideak eta askatasunak erabiltzea bermatzen duelako, herritarren parte-hartzea bultzatuz eta erabakiak hartzerakoan gardentasuna bilatuz, zerbitzu publikoei kontuak eta erantzukizuna eskatuz.*

3. *ONARTZEN DUTE zerbitzu publikoetako politikak gainbegiratzea eta ebaluatzea garrantzitsua dela, horiek diseinatzean eta betearaztean giza eskubideak errespetatu daitezen.*

4. *IDENTIFIKATU DITUZTE zerbitzu publikoak ematean gehien suertatzen diren arazoak: sarbidea behar bestekoa ez izatea, tarifa altuak eta zerbitzuaren kalitate eskasa. Arazo horiek gatazkak eragiten dituzte Estatuko enpresen edo enpresa pribatuen eta erabiltzaileen artean. Era berean, badakigu Ombudsman garenok konstituzioaren eta legeen aginduetara gaudela giza eskubideak babesteko orduan, batez ere sektorerik pobreenenak.*

5. *ADIERAZTEN DUTE pribatizatzeko prozesuek ez dituztela pertsonen eskubideak urritu behar; horrelakoetan, Estatuari dagokio pertsonak babestea.*

6. *AZPIMARRAZTEN DUTE giza eskubideen eta zuzenbide-estatu demokratikoen artean elkarrekikotasun harremana dagoela, sistema demokratikotik at giza eskubideak ez baitira errespetatzen eta sistema demokratikoa ezin baita perfektua izan giza eskubideak errespetatu barik.*

7. *BERRETSI egin dute erabat alde daudela Nazioarteko Zigor Gorteak, izaera orokorrekoa, justizia era globalean administratzeko eginkizunari lehenbailehen ekin diezaion, genozidioaren, lesa gizateriaren kontrako krimenen, gerra- eta eraso-krimenen aurrean.*

8. *KONPROMISOA HARTZEN DUTE eragiteko, nork bere herriaren barruan, Erromako Estatutua berrets dadin eta dagoeneko berretsi dutenetan, euren barne-legeriari egokitzeko eta euren estatuek alde biko hitzarmenik sina ez ditzaten, era horretako krimenak egiteagatik akusatutako pertsonak Gortearen eskumenetatik kentzea helburua badute.*

9. *BERRIRO DIOTE salatzen dituztela era guztietako eraso terroristak, zergatiak gorabahera, eta ELKARTASUNA ERAKUSTEN DIETE eraso horiek jasan dituzten biktima eta herriei. Halaber, onartzen dute Nazioarteko Zuzenbidea eta giza eskubideak zorrotz errespetatuta egin behar zaiola aurre terrorismoari.*

10. *ADIERAZTEN DUTE kezkaturik daudela hala Amerika Latinoaren barruko nola kontinenteen arteko migrazio-fenomenoarekin; fenomeno hori pobrezia handitzeak eta, batez ere, bizitzako aukera berdintasunik ezak ekarri dute. KONPROMISOA HARTZEN DUTE giza eskubideen bultzatzaile eta babesle jardungo dutela era aktiboagoan, bizi dugun egoera dela-eta sentiberatasun berezia behar dela kontuan hartuta, kontinenteen arteko ohiko elkartasuna benetakoa izan dadin.*

11. *AITORTZEN DUTE kanpo-zorraren kostua handia izateak ordaindu ezina dakarrela eta ondorioz, Latinoamerikako herriei ukatu egiten zazkiela*

*garatzeko eskubidea, autodeterminazio ekonomikoa eta giza duintasunez bizitzeko moduko bizi-maila.*

12. *AITORTZEN DUTE Giza Eskubideen Batzorde eta Gorte Interamaerikanoaren lana, Estatu Amerikarren Erakundeko kide diren herriei aholkatuz behar besteko aurrekontua eman dezaten hemisferioan giza eskubideak bebesten eta bultzatzen egiten duten lan garrantzitsuarekin jarraitzeko.*

13. *BERRIRO DIOTE, Haurren Nazioarteko Egunean, umeen eta nerabeen eskubide guzti-guztiak errespetatzea garrantzitsua dela.*

14. *BABESA EMATEN DIOTE Kolonbiako Herri Defendatzaileari, hamar urtetan ingurune zailean egin duen lanagatik; izan ere, bere lana arrisku handikoa da, barruko gatazka armatua gogortu egin baita eta giza eskubideak behin eta berriro urratzen baitira.*

15. *BABESTEN DUTE Guatemalako Giza Eskubideen aldeko prokuradoreak, giza eskubideen aldeko gobernuz besteko defendatzaileekin batera, segurtasuneko isilpeko aparatuak eta legez kanpoko kidegoak ikerketzeko batzordea eratzeko egin duen ahalegina, Argitze-lan Historikorako hitzarmena betetzeko.*

16. *ADIERAZTEN DUTE kezkatuta daudela Venezuelako Errepublika bizitzen ari den egoerarekin eta BABESA ESKAINTZEN DIOTE esku-hartzen ari diren aldeei, PNUD, OEA eta Centro Carter barnean direla, horiek egiten ari diren ahaleginagatik irtenbide baketsua, demokratikoa eta konstituzioaren barrukoa lortzeko.*

17. *AITORTZEN DUTE Argentinako Nazioaren Herri-defendatzailearen lana, jabetzako giza eskubidearen alde egindakoagatik, eskubide hori urratu egin baita finantza politikako eta banketxeen polikako erabakietan oinarrituta.*

18. *AITORTZEN DUTE Nikaraguako Giza Eskubideen Prokuradoregoaren lana, nekazaritzako produktuen bidezko merkataritzaren aldeko nazioarteko kanapaina hasi duelako; kontuan hartu behar da nekazaritza dela Ertamerikako herrietako ekonomiaren oinarri.*

19. *BABESTEN DUTE Salvadorreko Giza Eskubideen Prokuradoregoa egiten ari den lana eta GAITZESTEN DITUZTE haren zeregina gutxiesteko ekintza guztiak.*

20. *AZPIMARRAZTEN DUTE ombudsmanen erakundea inoren menpe egon ez dadin, nahikoa aurrekontu-baliabide behar dituela bere eginkizunak betetzeko, bata ezin baita lortu bestea gabe.*

21. *BERRESTEN DUTE emakumezkoen eskubideei arreta integrala eman ahal izateko erakunde-mekanismo bereziak eratu edo sendotu behar direla eta euren onespena ematen diote Federazioko kide diren erakundeetan Emakumezkoen Eskubideei buruzko programa bereziak abian jartzeari.*

22. *BERRESTEN DUTE konpromisoa hartuko dutela euren jarduera guztietan era guztietako bereizkeria-motak aztertu eta hausnartzeko ikuspegia erabiliko dutela, bereziki gizonezkoen eta emakumezkoen baldintza eta premia bereziak direnean, hartara genero-ikuspegia sartuz.*

23. *ERREGUTZEN DIETE Brasilgo, Txileko eta Uruguayko parlamentuei euren herrietan Ombudsmanaren figura sortu dezaten, erakunde demokratikoen funtzionamendu-baldintzak hobetze aldera eta pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzeko; era berean, ARREN ESKATZEN DUTE Errepublika Dominikarrean lehenengo Herriaren Defendatzailea laster izendatu dezatela.*

24. *ONGI ETORRIA egiten diote ekialdeko Timorreko Errepublika Demokratikoaren independentziari eta ZORIONAK EMATEN DIZKIETE euren konstituzioan Giza Eskubideen eta Justiziaren defendatzailearen figura sartu dutelako.*

25. *ONIRITZIA EMATEN DIOTE Sérgio Vieira de Mello Nazio Batuetako Giza Eskubideen goi-mandatari izendatu izanari.*

26. *ADIERAZTEN DUTE euren konpromisoa Ombdusmanen bulegoen elkarrekiko laguntzarako, lankidetza horizontalaren bidez.*

27. *ONARTZEN DUTE giza eskubideen defendatzaileak funtsezko lana egiten ari direla giza duintasuna errespetatzearen alde eta ARREN ESKATZEN DUTE euren eginkizunak betetzeko behar beste berme eta baliabide emateko.*

28. *ESKERTZEN DUTE Batzar Nagusian egotea Clare Lewis Ontarioko (Kanada) Ombudsmana eta Ombudsmanen Nazioarteko Institutuko presidente hautatu berria eta Mark Thomson Torturaren Prebentziorako Elkarteko idazkari nagusia.*

29. *AITORTZEN DIOTE Giza Eskubideen Institutu Interamerikarri IOFko Idazkaritza Tekniko moduan egiten duen lana, bai eta Ombudsmanaren figura erregioan indartzeko egiten duen sustapen-lana ere.*

30. *ONIRITZIA EMATEN DUTE Iberoamerikako Herri-defendatzaileen Aldeko Erregioen Programa gauzatu delako; programa hori Europako Batasuneko eta Nazioarteko Laguntzarako Espainiako Agenziaren fondoei esker garatzen da.*

*31. AGURTZEN DUTE IOFren zuzendaritza-kontseilua eta zuzendaritza-batzordea, gestio honetan egindako lanagatik.*

*32. ESKERRAK EMATEN DIZKIOTE Henrique Nascimento Rodigues Portugaleko Justizia Banatzaileari, VII. Biltzarra antolatu duelako; era berean, eskerrak ematen dizkiote Portugaleko herriari, abegitsu eta arretatsu hartu dituelako eta ADIERAZTEN DUTE euren nahia honako erabaki hauek LISBOAKO ADIERAZPENA izenarekin ezagutaraz daitezen.*

*Portugaleko Lisboa hirian, 2002ko azaroaren hogeian."*

# II. ATALA

# ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kexak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarrizko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.253 kexak eta 2002 urtean hasi ditugun ofiziozko 91 jarduerak askotariko arazoen erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal hiritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe -ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa bidez-. Hala ere, ofiziozko espedienteak "OF" erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, "erreklamazioa" atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedientea aztertzea eta ebaztea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Bestalde, nabarmendu behar da gaikako banaketa baten arabera egiten dela alorren ohiko egituraketa. Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoen berariazko tratamendu batek osatu behar du banaketa material hori.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoen berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharrizanei beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira erakundearen jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakinen alde burutu diren jarduerak:

Berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:

- emakumeak
- adinekoak
- adin txikikoak
- atzerritarrak
- ezgaitasunen bat duten pertsonak

# A) ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

## 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

### 1.1. SARRERA

Erakunde honek, 2002an, guztira 19 kexa espediente izapidetu ditu Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo alorrean, hau da, erakunde honen ekitaldi honetako jardueraren % 1,94 alor honen inguruan izan da.

Kexa hauetan, herritarrek lehendar alorreko, edo nekazaritza, abere hazkuntza, arrantzu alorreko, bigarrendar alorreko, edo industria alorreko, eta hirugarrendar alorreko edo zerbitzuen alorreko berariazko arazoak aurkezten dituzte Arartekoaren irizpenerako.

Bideratutako espedienteetan zein euskal herri administraziori ukitzen zaion begiratuta, kexak honelaxe sailkatzen dira:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........... 10
- Foru administrazioa ........................................................................ 9
- Tokiko administrazioa ...................................................................... 1

Sailkatzeko irizpen gisa kexetan islatzen diren arazo zehatzak hartzen baditugu, azpiatal hauei ukitzen diete:

| | |
|---|---|
| Nekazaritza, abere hazkuntza eta arrantzua | 6 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 6 |
| Industria | 4 |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| Kontsumoa | 1 |
| Turismoa | 1 |

Lehendar alorraren esparruan -hau da, nekazaritza, abere hazkuntza eta arrantzutik datoren jardueran- nekazari txiki batek kexa bat aurkeztu zigun, herri bat ereiteko patataren ekoizpen esklusibotzat joko zen zehazteko orduan, enpresa handiak eta ekoizle txikiak elkarren aurka jartzen dituzten interesen auziak agerrarazten zituenekoa. Desadostasunak sortzen dira, herri horietan ezin delako ereiteko patataren ekoizpena kontsumorako patataren kontsumoarekin bateratu. Era berean, berez esparru horretan eragin ez arren, ekologisten eta animalien babesleen taldeek Arartekoari aurkeztu dizkioten kexak ere aipa daitezke, non herriko jai eta ferietan animaliez baliatzearekin ados ez zeudela adierazten zuten.

Gure irizpenerako aurkeztu dira, era berean, aurten, Gipuzkoako Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, 2001-2002 ehiza denboraldian, burutu dituen hainbat jarduera, batez ere ondokoen gainean: administrazioaren isiltasuna erabiltzea ehiza baimenen eskariak ukatzeko teknika gisa; ehiza debekuen aginduaren aplikazioaren prozesuan ehiza eskubiderako mugak sartzea, behar den araudi babesik gabe; eta pertsona

interesatuen eta Ehizako Lurralde Federazioaren partaidetza, baimenak emateko prozeduran. Sailari gomendioak egin dizkiogu, etorkizunean kexetan salatutako egoerak berriro gerta ez daitezen.

Euskal Autonomia Erkidegoan industria jardueraren ariketari dagokionez, kexak erakunde honen lanean behin eta berriro agertu diren gaietaz izan dira, baina ez dute, horregatik, gaurkotasunik galtzen, eta aipatzea merezi dute. Horren haritik, irakaskuntzako herri eskola bateko gurasoen elkarteak aurkeztu dizkigun kexak nabarmenduko ditugu, non tentsio altuko hari elektrikoak hiri guneetatik pasatzean lurperatu behar zirela azpimarratzen zuten. Era berean, automobil baten titularrak ibilgailuen azterketa teknikoen (IAT) ondoriozko emaitzekin ados ez zegoela adierazi zuen. Zehazki, gai hauetako lehenengoan, tentsio altuko lineak lurperatzea aurtengo gomendio orokorra izan da. Aipatutako bigarren gaia kapitu honetan laburtzen da, kexen sorta hautatuan.

Euskal herritarrak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beren erreklamazioen aurrean hartzen dituen ebazpenekin ados ez daudelako sortzen diren kexei dagokienez, kopuruak jaisten jarraitzen du, iaz gertatu zen bezala.

Azkenik, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak jarraitzen duen jarduera prozeduran eta funtzionamenduan eragina daukaten gaiak ere aztertu dira. Jarraian horietako kexa bat laburbilduko dugu. Kexa Konekta Zaitez diru laguntzen egitarauaren bidez ordenagailua erosi ahal izateko, ordenagailuen bete behar zituzten baldintza teknikoak aldarazi zirelako etorri zen.

## 1.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Nekazaritza, abere hazkuntza eta arrantza

⇒ *Mugak ustiapen askatasunari: ekoizpen esklusiboko eremuak* (1414/2001)

• Erreklamazioa

Nekazari batek Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Zuzendariak, 2001-02 ekinaldian, ereiteko patata esklusiboki ekoizteko sailkatuta zegoen herri batean, 0,40 bat hektareako gainazalean, kontsumorako patata erein zuelako ezarri zion zehapenarekin ados ez zegoela adierazi zuen.

• Azterketa

Honen gainean, kexa izapidetzeko onartu ondoren, erakunde honek Nekazaritza eta Arrantzu Sailarengana jo zuen, zehapen espedientea nola bideratu zen, eta zer irizpide edo arrazoitan oinarritu ziren azkenean ezarri zioten zehapena graduatzeko jakiteko.

Erantzunean, Eusko Jaurlaritzako Sail horrek esan zuen, zehapena zenbakitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek duten zehapen ahalmena araupetzen duen otsailaren 20ko 2/98 Legearen 14. artikuluan ezarritako irizpideei jarraitu zietela. Hartara, urraketaren ondorioz ateratako mozkina hartu zen kontuan, produktua konfiskatzerik egon ez zelako eta urraketan berriro eroritakoa zelako,

erreklamaziogileari espediente honetan leporatzen zitzaizkion egitate berberengatik 2000 urtean ere zehapena ezarri zioten-eta.

Ingurumaria horien ondorioz, zehapenaren gradu ertaina aplikatu zitzaion, % 50ean gehituta, martxoaren 30eko 11/71 Legearen 23.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz (1971ko apirilaren 1eko 78. BOE).

Zehapen espedientearen izapidetzeari berari dagokionez, prozedurak urraketaren ustezko erantzuleari aitortzen dizkion bermeak edo eskubideak bete ziren ala ez begiratu genuen.

Eskubide horietako lehenengoa da Administrazioak zehatzeko duen ahalmena ezin dela besterik gabe ezarri, hau da, Administrazioak, zehatzeko, prozedura bati jarraitu behar diola eta zehapen espediente bat izapidetu behar duela, nahitaez.

Salatuak daukan bigarren eskubidea da leporatzen zaizkion egitateak, egitate horiek izan daitezkeen urraketa eta urraketarekin datozen zehapenak, espedientea nork egitaratzen duen, zehapena jartzeko agintaritza eskuduna zein den, eta zein arauk esleitzen dion eskumen hori.... jakinarazi behar zaizkiola, eta horrek guztiak jakinaraziak zitzaizkion erreklamaziogileari.

Ukitutako herritarrari dagokionez, ordea, daukan eskubiderik garrantzitsuena da alegazioak egin ditzakeela, eta bere defentsan egokien irizten dien froga bitartekoak balia ditzakeela. Berme horiek ere, kasu zehatz honetan, errespetatu ziren.

• Emaitza

Erreklamaziogileari jakinarazi genion ez genuela inolako irregulartasunik antzeman Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantzu Sailak jarraitutako espedientearen izapideetan.

## B) **Merkataritza**

⇒ *Eskulangintza azokak: saltokien esleipena* (1168/2001)

• Erreklamazioa

Arabako Foru Aldundiak halako kontuetarako kudeatzen duen zentsuan izena emandako emakume eskulangile batzuek kexa bat aurkeztu zioten Arartekoari.

Erreklamazioa Gasteizko udalak Gabonetako eta Andra Mari Zuriaren jaietan antolatutako eskulangintza azokei buruzkoa zen eta, zehazki, tokiko erakunde horrek eskatzaileei saltokiak esleitzeko orduan erabiltzen zituen lehentasun irizpideen gainean. Halako irizpide baten arabera, lehentasuna eskulangilea non bizi zen edo tailerra non zeukan garrantzitsua zen esleipenak egiteko orduan.

• Azterketa

Interesatuek kexarekin batera ekarri zituzten dokumentuen arabera, ondorioztatzen zen irizpide horren gainean Estatuko Arartekoak bere irizpena ere emana zuela, etorkizunean irizpide hori ez erabiltzeko gomendatuz. Era beran, udal erakundea, itxuraz behintzat, gomendio hori betetzearen alde ageri zen.

Jarritako kexan bazegoen bereziki deigarria zen elementu bat, izapidetzera onartzeko orduan erabakigarria izan zena, hau da, erreklamaziogileek, berariazko

gertakari batzuen aurrean egonik –eskulangintza azokak- eskarien edo erakusleen multzoaren barruan bi talde bereiz litezkeela zioten, lehentasun ordena erabakitzeko. Lehenik eta behin, eskulangileak leudeke, hau da, beraiek egindako gauzak saltzen zituztenak, eta bigarren, besteren batek egindako eskulangintzako gauzak saltzen zituztenak, hau da, birsaltzaileak.

Hartara, kexa jarri zutenek emandako ikuspegiak estatuko gure kidearen jardunaren aldean berritasuna zekarren eta, printzipioz, ez zegoen Estatuko Arartekoak gomendatutakoarekin kontraesanean zere, lehenago esan dugun bezala, hark esan baitzuen komeni zela pertsonaren bizitokiari edo tailerraren kokalekuari garrantzirik ez ematea.

Kexatu zirenek argudiatzen zuten, halaber, saltokiak banatzeko sistema Estatuko Arartekoak proposatu zuen bezala aldarazten bazen, hau da, zozketaren irizpidea onartzen bazen, ez litzatekeela ondo ulertuko aldi berean espazioren batean alorreko elkarte batek erabakitzea nori egokituko zaion saltoki bakoitza.

Kontu hauek guztiak Udalari jakinarazi zitzaizkion, zer iriztan zien jakiteko, hark pentsatzen zuena ere kontuan izan behar baitzen.

Kexaren gai nagusiari dagokionez, udalak, erantzunean, esan zuen aurrerantzean azoketan ez zituztela beren edo besteren gauzak saltzen zituzten erakusleak bereiztuko.

Horren gainean, geneuzkan datuen arabera eta lege antolamenduarekin alderatu ondoren, ondorioztatu genuen hura ez zela oinarririk gabeko erabakia, edo erabaki arbitrarioa.

Erreklamaziogileen asmoak zilegiak izan arren, ez zegoen udal erakundearen aldetik asmo horiek nahitaez betebeharrik, zeren udala halako azokak antolatzeko dauzkan zuhurtziarako mugen barruan mugitzen baitzen.

Espazioren batean (elkarte batek kudeatutako tokia) gerta litekeen egoerari dagokionez, udalaren erantzuna ikusita, Aldundiarekin egindako akordioren bat legoke. Horren gainean, jakin genuen kexatu zirenak aldundiarekin harremanetan jarriak zirela, kontua argitzeko.

• Emaitza

Egindako ohartarazpenetan oinarrituz, gai horretako gure esku-hartzea amaitutzat jo genuen, administrazioaren aldetik irregulartasunik egin ez zela ulertuta.

## C) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Zilegizko konfiantzaren printzipioa urratzea Konekta Zaitez egitarauko laguntzak ematean* (442/2001)

• Erreklamazioa

Herritar batek erakunde honengana jo zuen SPRI Industria Sustapen eta Birmoldaketako Sozietatearen jarduera baten aurkako kexa jartzeko, eskuko ordenagailu bat erosteko Konekta Zaitez diru laguntzen egitarauko laguntza ukatu ziotelako.

Interesatuak, erosteko asmoa zeukan ekipoak diru laguntzei eutsi ahal izateko egitarauaren iragarki ofizialak eskatutako baldintza teknikoak beteko ez zituela ikusita,

hasieran laguntzari ez eskatzea erabaki zuen. Horregatik, ordenagailua iragarkian finkatutako data baino lehenago erosi zuen.

Erosi eta egun batzuetara, ordea, SPRIk hasieran ezarritako baldintza teknikoak erabat aldarazi eta nasaitu zituen, hainbesteraino non interesatuak jada erosita zeukan ordenagailuak eskatutako baldintzak betetzen baitzituen, RAM memoriarena ezik. Aldaketa horretan oinarrituz, interesatuak zegokion laguntza eskatu zuen baina ukatu egin zioten, SPRIk ordenagailua egitarauak finkatutako data baino lehenago erosi zela, eta RAM memoriari zegokionez exijitutako baldintza teknikoak ere betetzen ez zituela esan zuelako.

• Azterketa

Diru laguntzen egitarauaren deialditik eta ondoren egin zitzaion aldarazpenetik abiatuta (hurrenez hurren, 2000ko azaroaren 16an eta 30ean argitaratu ziren Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean), gure ustez eroslearen erabakia –ordenagailua egitarauaren lehenengo iragarki ofizialean ezarritako data baino lehenago erostea- ezin da SPRIren aurretiazko jardueratik banatu, zeren SPRIk egitaraua aurkeztu zuen bezala aurkeztean, interesatuari uste sendoa ezarri baitzion, lehenengo iragarkian finkatutako baldintza teknikoak azkenean eskatuko zirenak izango zirelako ustea, edo gutxienez baldintza horiek ezin denbora tarte batean horrela mantenduko zirelakoa.

SPRIren jarduera honen sortutako ustea ez zen hautsi, gure iritziz, diru laguntzen hasierako arauketak berak diru laguntzei eutsi ahal izateko exijitutako baldintzak aldarazteko ahalbidea jasotzeagatik, zeren aukera hori teknologiaren bilakaeraren mende geratzen baitzen, espresuki eta, gure ustez, ez zuen zentzurik ez eta logikarik ere teknologiaren bilakaerak hasieran exijitutako betekizunak hain denbora laburrean nabarmen aldaraziko zituenik eta, gainera, teknologiaren bilakaera horren ondorioz, eskatutako baldintza teknikoak murriztuko zirenik pentsatzeak.

Gure iritziz, behin diru laguntzen baldintzak ofizialki argitaratu ondoren, baldintza horien funtsezko edozein aldarazpenek, esaterako, SPRIk egindakoak, behar ziren mekanismoak hartu behar zituzkeen kontuan, lehenengo iragarkiak bultzatuta, iragarki haren eta egitarauan jarritako erosketa dataren artean egin ziren erosketek, lehenengo iragarkian ezarritako gehiegizko baldintza tekniko haiek betetzerik inola ere izango ez zutelakoan, ere diru laguntza haiei eutsi ahal izateko; zeren horrela bakarrik errespetatuko zukeen egindako aldarazpenak egitarauaren hartzaileengan aurretiaz sortutako ustea.

SPRIk ez zuen, ordea, halakorik bermatzeko inolako mekanismorik artikulatu. Eta aurreikuspen ez horren ondorioz, gure iritziz, erosleak ezin izan zuen, kexan dioen bezala, bere ordenagailuak laguntzei eusteko betekizun teknikoak betetzen zituenik jakin aurretiaz finkatutako denboraren baldintza jada betetzea ezinezkoa zitzaion arte.

Horregatik, SPRIren jarduerak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. artikuluan positibizatutako zilegizko ustearen hatsarrea urratu zuela ondorioztatu genuen. Hatsarre horren aplikazioak, gure ustez, interesatuak eskatu zuen laguntza eman ez zekion eragozten zuen, egitarauaren hasierako arauketarengatik berak erosi nahi zuen ordenagailuak diru laguntza horiei eutsi ezin ziela uste izanagatik eta ordenagailua esaten zen data baino lehenago erosi izanagatik soilik, antza, ekipoaren RAM memoriarena ezik, ondorengo aldarazpenean finkatutako gainerako baldintza guztiak betetzen zituenean, eta RAM memoriari zegokionez, bera, esan zigunarengatik, hori ere betetzeko behar ziren egokitzapenak egiteko prest zegoenean.

• Emaitza

Gomendio bat egin genion SPRIri, interesatuak eskatutako laguntza onar zezan, bere ordenagailuaren RAM memoria eskatutakora moldatzekotan.

SPRIk ez zuen gomendioa onartu.

## D) **INDUSTRIA**

⇒ *Zehapen prozedurako frogaren gainean* (1175/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona batek kexa bat jarri zuen Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren erabaki baten aurka, non Ibilgailuen Azterketa Teknikoaz (IAT) arduratzen den enpresa baten jarduerarekin ados ez zegoela baitzioen.

• Azterketa

Ustezko kaltetuak bigarren eskuko automobila erosia zuen, ibilgailuaren ikuskaritza ondo pasatu zuena. Hurrengo urtean kontzesionario berak pneumatikoetan akats larri bat igarri zion, eta pneumatikoak, bere alegazioen arabera, erosi aurreko ikuskaritza gainditzean zituen berberak ziren.

Bestela esateko, espedientean zehar argudiatutakoa xehetasunez azaltzera sartu gabe, erreklamaziogilearen ustez, izatezko suposamendu bera (ezaugarri jakin batzuetako pneumatikoak) modu desberdinean kalifikatu zen urte batetik bestera. Baliozkotzat jota egotetik desegoki izatera igaro ziren, horrek berari sortzen zizkion diru kalteekin.

Aurkeztu zigun gaiak dimentsio pribatua izan zezakeen, esku hartzeko gure ahalbideen esparruetatik kanpo geratzen zena: ibilgailu baten salerosketa kontratu baten ondorioz partikularren artean sortzen diren auziak.

Horri dagokionez, pentsatu genuen erakunde honen oinarrizko eginkizunen artean euskal administrazioen eta horien mendeko erakundeen jarduera ikuskatzea dela, legezkotasunaren barruan egon daitezen zainduz.

Hartara, oraingoan sail horrek garatutako jarduerak gure agiraka merezi zuen ala ez aztertu behar genuen, hau da, IAT zerbitzuaren kontzesioa zeukan erakundeak egindakoan administrazio urraketarik izan zen ala ez baloratu behar genuen.

Geneuzkan elementuak aztertu ondoren, ondorioztatu genuen gorabideko errekurtsoa ezestea erabakitzen zuen ebazpenak behar zen oinarria zeukala eta, gure iritziz, ezin zela arbitrariotzat jo.

Zehazki, kontu honetan funtsezkoa zen espedientean zehar ez zirela frogatuta geratu interesatuak egindako alegazioak eta hori, zehapenen alorrean, amaierako erabakia errotik zehazten duen faktorea da.

• Emaitza

Azaldutakoan oinarrituta, gure ondorioak helarazi genizkion kexa jarri zuenari, eta gai honen inguruko gure jarduera bertan behar utzi genuen.

# 2. GIZARTE ONGIZATEA

## 2.1. SARRERA

Gizarte ongizatearen alor honetan, 2002 urtean 83 kexa espediente abiatu dira. Hona hemen nola banatu diren, ukitutako administrazioaren arabera:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 25 |
| - Foru administrazioa | 45 |
| - Udal administrazioa | 15 |

Sailatalen araberako banaketari begira, honelaxe sailkatzen dira:

| | |
|---|---|
| Familiari laguntzea | 24 |
| Diruzko gizarte prestazioak | 19 |
| Ezinduei laguntzea | 9 |
| Adinekoei laguntzea | 9 |
| Haur eta nerabeei laguntzea | 8 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 8 |
| Bestelakorik | 4 |
| Arreta bereziko taldeei laguntzea | 2 |

Aurten aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan egindako gomendioen jarraipena ere egin da. Horretarako egin diren bisitak txosten honen I. Kapituluan jasota daude.

2001 urtea gizarte zerbitzuen gaian eskumenak birbanatu zireneko urtea izan bazen, 2002 urtea erabakiak betetzeko eta hasitako bidean jarraitzeko urtea izan da.

Euskal administrazioek herritarrei artapen osoagoa eskaintzeko zerbitzuak koordinatzeko lanean segitu dute. Horren harira, pozik gaude Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta euskal udalerrien elkartearen –EUDEL- artean gizarte eta osasun artapenerako akordioa lortu dutelako. Erabaki honek benetan espero zen eskariari, eta gizartearen eta osasunaren ikuspegiak batzen dituen arreta eskatzen duten egoeren aurrean gero eta beharrezkoago irizten zaion eskariari erantzutera dator. Txosten hau idazten ari garenean oraindik akordioaren dokumentua sinatzeko dagoen arren, espero da dokumentu hori aurki sinatzea, baita hori garatzeko erabakiak ere.

"Seme-alabak dauzkaten familiei laguntzeko erakundeen arteko plana" deritzonaren emaitzetako bat uztailaren 16ko 176/2002 Dekretua izan da, bigarren seme-alabarengandik aurrerako jaiotza eta adopzioetarako, eta erditze eta adopzio ugarietarako laguntza unibertsalak jasotzen dituena.

Erakunde honetan dekretu horretaz hartutako kexen artean, hirugarren edo edo hurrengo seme-alabaren laguntzaren eta erditze edo adopzio ugarien laguntzaren artean aplikatzen den bateraezintasunaren araubideari buruzkoek aipamen berezia merezi dute. Hartara, honako egoera honekin egiten dugu topo: hiru seme-alaba dituen familia batek, lehenengo biak bikiak badira, bi laguntza kobratzen ditu (hirugarren seme-alabarena, 5 urte betetzen dituen arte, eta erditze ugariarena, bikiek 10 urte bete arte), baina bikiak nagusienak ez badira, laguntza bakarra aplikatzen da, erditze ugariarena, zeren seme-alaba berberari ukitzen dioten laguntzak bateraezintzat jotzen baitira.

Gure iritziz, aipatutako laguntza horiek kudeatzen dituen sailak jarraitutako interpretazio irizpide horrek ez dio araupetzen dituen dekretuak dioenari erantzuten, dekretuan 4 eta 5. artikuluetan jasotako diru laguntzen bateraezintasuna aipatzen baita (10.1 art.), besterik gabe, diru laguntzaren zioa seme-alaba berbera den ala ez inolako ñabardurarik gehitu gabe.

Gure ustez, ordea, arauaren hitzez hitzezko aplikazioak –hau da, bi laguntza moten arteko erabateko bateraezintasunak- ez luke konponbide baketsurik ekarriko, zeren hala eginez gero erditze ugarietako seme-alabak dituzten familia ugariek ezin izango bailukete inoiz familia ugarien laguntzarik jaso. Horri ere ez deritzogu ondo, ez daukalako zentzurik, gure ustez, familia ugaria eta erditze ugaria, banatuta gertatzen direnean, bereziki babes ditzaten herri boterek eta, biak batera gertatzen direnean, ordea, horietako egoera bat soilik babestea, besteari inolako jaramonik egin gabe.

Arazo hau Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi diogu. Txosten hau idazten ari garen unean, haien erantzunaren zain gaude.

Familia loturarik ez daukatelako, eta tutoretza edo zaintzaren irudi juridikoen bidez pertsona horien ordezkaritza bere gain hartu nahi duen inongo erakunderik ez dagoelako, jarduteko arazoak dituzten pertsonen arazoak ere aipatu nahi ditugu. Gure autonomia erkidegoan badira fundazio batzuk –pribatuak eta publikoak- horretarako, baina uste dugu oraindik estali gabeko hutsuneak daudela, kolektibo edo pertsona batzuei ukitzen dietenak.

Horregatik, ofiziozko jarduera batzuei ekin diegu, pertsona horien benetako egoera zein den jakiteko, eta konpondu edo hobetzeko egin litezkeen proposamenak aztertzeko. Horren harira, gizarte ongizateko ardura duten foru diputatuei idatzi diegu, eta hiru lurralde historikoetako fiskal buruei ere bai, gaiari buruzko hainbat datu eskatzeko. Txosten honen I. kapituluan gai honen inguruko informazio gehiago ematen da.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokionez ere ofiziozko hainbat jarduerari ekin diogu, gure Autonomia Erkidegoko udalerri desberdinetan estaldura mailan alde handiak daudela ikusi ondoren. Alde horiek, gure ustez, asteburuetan eta jai egunetan izaten dira, baita zerbitzua eman ohi duen pertsona, oporrengatik, gaixotasunarengatik edo beste edozergatik ez dagoen garaietan ere.

Benetako egoera zein den ezagutzeko, zoriz hautatutako biztanleria kopuru desberdinetako 49 udalerriri datuak eskatu dizkiegu. Informazio hau aztertzen dugunean, zer proposamen egin daitekeen ikusi ahalko dugu. I. kapituluan gai honi buruzko informazio gehiago ematen da.

Kexa bat baino gehiago eragin duen beste gai bat, orain aztertzen ari garena, Bizkaiko Foru Aldundiaren ezinduentzako egoitzetako tokien herri prezioen kontua da. Prezio horien eguneratzeak ez ditu bat ere poztu ukitutako pertsonen senide eta arduradunak.

Beste gai batzuetara igarota, gizarte zerbitzuetan kalitate gorena lortzeko apustuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sari baten deialdiaren lehen edizioa antolatu du. Gipuzkoan halako zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeei zuzenduta dago, eta pertsonentzako zerbitzuen prestazioa etengabe hobetzeko dauden ekimenei ezagumena aitortzeko da.

Aipatu nahi dugu, halaber, Gasteizko udalaren ekimen bat, adineko pertsonak zaintzen dituzten familiei laguntzeko bere Plana onartu dutelako. Planean familia bizitzari on egiten ez dioten egoerak saihesteko neurriak ezartzen dira, baita familia horiek adineko pertsona etxean mantentzeko eta ahalik eta ongizate material eta afektiborik handiena

emateko egiten duten ahalegina eta ardura saritzeko ere. Neurri horien artean, adineko pertsonarekin bere etxean ordu batzuez (hilean 16 ordura arte) egon eta artatzeko pertsona bat esleitzen duen laguntza eta zaintza profesionalarena nabarmendu behar da, berria delako. Etxez etxeko laguntzaren aldagai bat da, ohiko zaintzaileari berarentzako astialditxoa edukitzeko, eta egitarauan antolatutako artapen psikosozialeko banan-banako eta taldeko programetara joateko aukera eskaintzen diona.

Interesgarri deritzogu gizarte zerbitzuen esparruan gertatzen ari den bioetika edo laguntzazko etikarako hurbilketa. Hainbat foru aldundi hori jorratzen ari dira, gai horretarako aholkularitza batzordea sortzeko asmoz. Gizarte zerbitzuen alorrean kultura berria sortzen ari dela adierazten du horrek, zerbitzu horren hartzaile diren pertsonen eskubideei lotutako kultura.

Bizkaiak, bere aldetik, egoitzazko eta eguneko zentro berriak sortzeko planarekin jarraitzen du, bai adineko pertsonentzat bai ezinduentzat. Ahalegin handia eskatzen du, ahalik eta jenderik gehien artatu nahi delako, eta ezgaitasunen bat daukatelako lurralde honetatik kanpoko egoitzetan zaintzen dituztenei etxekoengandik hurbilago egoteko aukera eskainiko duelako.

## 2.1. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Artapen bereziko taldeei laguntzea

⇒ *Hontza zentroa: etxerik gabeko drogen mendeko pertsonak artatzea* (925/2001; 22/2002OF; 23/2002OF)

• Erreklamazioa

Caritas-Bizkaiak kudeatzen duen Hontza gaueko harrera zentroaren jarduera, horretarako Zamakola aldean prestatutako lokal batean, gorabehera eta arazoz josita egon da hasieratik. Obrak amaitu ondoren, zentroak 2001eko uztailaren 4an ekin zion zerbitzuari. Handik egun batzuetara, auzokoen protestak kontuan izanik, zentroa ixtea eta elkarren aurkako jarrerak hurbiltzeko modua bilatzeko ahalegina egin zen. Ondoren, alderdietako batzuen adostasuna lortu eta gero (gotzaintza eta alkatetza), eta auzokide batzuk aurka zeudela, zentroaren ateak berriro zabaldu ziren abenduan, eta 2002 urte osoan lanean jardun du, poliziak babestuta. Sarritan, arazoak komunikabideetan islatu dira.

2001 urtean, Ararteko erakundearen esku-hartzea Zamakola 9ko jabeen erkidegoak, ehunka sinadurarekin batera, aurkeztutako kexaren, Caritasek esku hartzeko luzatu zigun eskariaren eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundeak helarazitako kezkaren ondorioz etorri zen. Lehenengo kasuan, zentroa zabaltzeak, beren iritziz, auzoari ekarriko lizkiokeen arazo eta kalteak azpimarratzen ziren, eta zentroa ixteko eskatzen zuten; besteetan, ordea, erakunde honen esku-hartzea edo bitartekaritza eskatzen zen, zentroak bere lana baldintza egokietan egin ahal izateko.

2002an, arartekoak esku hartu zuen, ofizioz, komunikabideetan agertutako albiste batzuengatik eta zentrora arazoak, erabilpen datuak eta etorkizunerako igurikapenak bertatik bertara ezagutzeko egindako bisitaren ostean.

• Azterketa

Kexa bat zela-eta lehenengo jarduera 2001eko uztailean abian jarri zen arren, izatez, Ararteko erakundeak askoz ere lehenago esku hartu zuen zerbitzu honen beharrari zegokionez. Bereziki, La Najako kaia hustu zenean, non etxerik gabeko eta drogen mendeko pertsona asko bizi eta lo egiten zuten (1999). Inguruan inplikatutako elkarte desberdinekin, gizarte zerbitzuekin eta udaleko arduradunekin izandako bilerei esker, aurretiaz bageneukan antzemandako beharren eta egindako proiektuen berri. Erakundea, une oro, zerbitzu hauen beharra defendatzearen eta sor zitezen sustatzearen alde egon zen. Bazegoen, gainera, proposamen ez-lege bat horren gainean, Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onetsitakoa.

2001ean jasotako kexei eta zentroa abian jartzeari buruz sortutako arazoei dagokienez, baziren gutxienez bi plano, argi eta garbi bereizita: hirigintzakoa eta gizartekoa. Hirigintzako kontuei, eta zehazki zentroa zabaltzeko udal lizentziari dagokionez, erakunde honek jarraitutako prozedura berrikusi zuen, auzokideei jakinarazi behar zitzaiela, eta behin haien alegazioak jaso eta aztertu ondoren, lizentzia arauen arabera eman behar zela defendatu zuen. Gizartearekin zerikusi handiagoa daukaten kontuei dagokienez, alderdiak hurbiltzeko bideak proposatu eta sustatu ziren, bai egitasmoaren eztabaida faseetan bai garapenean, behin zerbitzuari berrekinda.

Esku-hartzea udal arduradunekin izandako bilera batzuetan, auzokideentzako, Caritasentzako eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundearentzako informazio idatzietan, zentroaren instalazioetarako bisitetan, jarrerak hurbiltzeko bileraren batera bertatuz, polizia jardueren gaineko gestioetan... gauzatu zen.

Bilboko udalari egindako gomendio formalari dagokionez, bera baita zabaltzeko lizentzien gaietan eskuduna, 2001eko urriaren 15ean egin zitzaion. Gomendatu genion Udalak formalki eta premiaz onar zezan Hontza zerbitzua zabaltzea; jarduerei ondo funtzionatzeko bermerik handienez berrekiteko behar ziren urratsak egin zitezen, bai zerbitzuaren erabiltzaileentzat bai auzokideentzat; eta antzeko beste zerbitzu batzuk sortzeko oinarri izan litezkeen jarraipena egin zedin.

Gomendioaren edukia inplikatutako alderdi guztiei jakinarazi genien eta, auzokideen ordezkarien kasuan, ondoren ere hainbat idatzi bidali genion elkarri, gauzak argitze aldera.

Bestalde, proiektuaren egintzaren eta zentroa zabaltzearen esperientzia eta auzokideengan ikusitako erreakzio batzuk kontuan izanda, bai kasu honetan bai beste zerbitzu batzuen sorreraren aurrean, Ararteko erakundeak, iazko txostenean, "Erakundeen buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean" gaiari buruzko gomendio orokorra egin zuen (cfr. 2001eko txostena. 461. orrialdea eta hurrengoak).

Hirigintzako kontu hori argitu eta ebatzi ondoren, 2002ko ofiziozko esku-hartzeak polizien kontuetara eta zerbitzuaren funtzionamendura eta jarraipenera bideratu dira.

Hartara, auzokoen jarduera batzuen eta polizien balizko inhibizioaren aurrean, informazio objektiboa izatera begira, erakunde honek Caritaseko langileei hainbat astetako eguneroko gorabeheren kontakizuna bidaltzeko eskatu zien. Gainera, egoera bertatik bertara ezagutzeko, gure erakundeko langile batzuk zentrora joan ziren, erabiltzaileei gau batean lagunduz, eta inplikatutako kolektibo guztiengandik informazioa jasoz: erabiltzaileengandik, zentroko langileengandik, boluntarioengandik, segurtasuneko

langileengandik, Udaltzaingoaren arduradun eta langileengandik, eta bertan zeuden Ertzaintzaren operatiboaren arduradun eta langileengandik.

Bildutako informazioari esker, hainbat ondorio aipagarri atera ahal izan genituen. Hara:

- kontsensu hedatua zegoen, egun haietan auzokideen presioa gehitu zela, eta esku-hartze garbiagorik tartekatu ezean, gertakariek har zezaketen bideak ikaragarri kezkatuta zeukan jendea;
- polizien jardueren gainean ere irizpideak desberdinak ziren, zein taldek esku hartzen zuen edo arduraduna zein zen arabera;
- froga elementuak zeuden (bide grabaketak), auzokideen jarduerenak, gertakariak argitzeko eta, izatekotan, neurri zuzentzaile edo zigorrezkoak hartzeko balia litezkeenak.

Horren ildotik, Arartekoak ofiziozko beste bi espediente hasi zituen, bata Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren aurrean, eta beste bat Bilboko Udalaren aurrean, gai horien gainean.

Ondoren, zerbitzua Zamakolatik San Antonera lekualdatzeko hasieran aurreikusitako data baino aste batzuk lehenago, erakunde honek berriro jo zuen Bilboko udalarengana, informazio eske, bereziki lekualdaketaren aurreikuspenen, koordinaketa eta jarraipeneko mekanismoen, eta Hontzaren erantzun ahalmen mugatua osa lezaketen drogen mendeko pertsonak hartu eta artatzeko beste zerbitzu batzuk sortzeko aurreikuspenen gainean.

Gainera, gizarte eragileek baliabide horien diseinuan eta funtzionamenduan duten inplikazioari dagokionez, Ararteko erakundeak aukera izan zuen "Drogen mendekoen artapeneko baliabideei lotutako ekintza erkideko estrategien diseinu, ezarpen eta jarraipenerako gida metodologikoa" dokumentua zuzenean ezagutu, baloratu eta bere ekarpenak Eusko Jaurlaritzaren Droga Mendetasunen Zuzendaritzara helarazteko. Dokumentu hori Zuzendaritza horren mandatuz egina zen, arestian aipatutako gure gomendioaren ildotik.

• Emaitza

Bilboko udalak zerbitzua Zamakolako instalazioetan zabaltzeko baimena 2001eko azaroaren 19ko ebazpenaren bidez eman zuen. Alderdiak hurbildu eta biltzeko ahalegin ugarien ondorioz, hasierako proiektuari aldarazpen nabariak egin zitzaizkion, azaroaren 28ko dokumentuan islatu zirenak, eta denbora epe bat ezarri zen (2002ko abenduaren 31) zerbitzua beste instalazio batzuetara eramateko. Zentroaren ateak abenduaren 10ean zabaldu ziren berriro. Handik urte betera, hau da, 2002ko abenduaren 23an, hau da, hitzartutako muga data baino egun batzuk lehenago, zerbitzua San Anton elizan atondutako instalazio berrietara lekualdatu zen, hasieran gaueko 14 tokirekin eta gehienez 30 pertsona hartzeko ahalmenaz.

Jarraipen Batzordea eratu da, zentroaren funtzionamendu ona zaintzeko, non hainbat erakunde, elkarte eta zerbitzuren ordezkariak dauden.

Pertsona hauek hartzeko beste zerbitzu batzuk sortu eta abian jartzeari dagokionez, udalak Arartekoari bidali dion azkeneko erantzunak hauxe dio: *"Bilboko udalak San Antonen normaltasuneko funtzionamenduko eskema baten barruko ebaluazioa egin nahi du eta, hortik abiatuta, komunikabideetan iragarri den bezala, gure ustez halako*

*beste dispositibo batzuk jarri behar dira martxan, baina oraindik ez dugu non kokatuko diren erabaki, ez eta zenbat erabiltzailerentzat izango diren, nola kudeatuko diren ere. Xehetasun horien guztien jakinaren gainean jarriko zaitut, guk erabaki ahala".*

Izan ere, zentroaren zerbitzuaren hilabeteetan zehar, harik eta lekualdatu arte, 240 pertsona desberdin artatu zituzten, eta gau bakoitzerako tokien erreserba sistema bat antolatu behar izan zen. Urtean bildutako datuen arabera, baliabide gehiago behar dira, erakunde honek behin baino gehiago planteatu duen eta planteatzen jarraituko duen bezala.

## B) **Ezinduei laguntzea**

⇒ *Okupazio zentro batera zihoazen pertsonen garraioa egiten zuen autobusaren segurtasun baldintzak* (1133/2001)

• Erreklamazioa

Pertsona batek Arabako herri desberdinetatik Gasteizko okupazio zentro bateraino hainbat ezindu egunero garraiatzen zituen autobusaren segurtasun baldintzen gaineko kontu bat planteatu zigun. Zentroa Arabako Foru Aldundiaren mendekoa zen, eta autobusa zentroaren beraren zerbitzua zen, esleitu zitzaion enpresa pribatuak betetzen zuena.

Erreklamaziogileak zioen autobus hark, aspaldi, hainbat akats tekniko zituela, eta ez zuela bidaiarien segurtasuna behar bezala bermatzen. Ateak ez ziren ondo ixten, eta beste elementu batzuetan, esaterako, kapotean akatsak zeuden baina, halere, autobusa horrelaxe ibiltzen zen autobidetik.

Azkenik, gehitzen zuen arazo hori zerbitzua ematen zuen konpainiari eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari ere aurkeztu ziela, baina konpondu gabe segitzen zuela.

• Azterketa

Garraiabide orok bidaiarien segurtasuna bermatu behar du baina, kasu honetan, suposamendu bereziaren aurrean geunden, bidaiarien ezaugarriengatik. Horregatik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailari txostena eskatu genion.

• Emaitza

Linearen esleipendun enpresak handik gutxira autobus hura kendu eta berriagoa jarri zuenez, arazoa konponduta geratu zen.

Arabako Aldundiak esan zigun, halaber, zerbitzu hori kontratatzeko lehiaketa berria deitzeko asmoa zeukala, zerbitzu hori bete behar zuen ibilgailu mota eta ezaugarriak zehaztasun handiagoz adierazteko.

⇒ *Ezindu psikiko bat egoitzaz aldatzea* (80/2002)

• Erreklamazioa

Bizkaitar gazte ezindu psikiko batek Autonomia Erkidego honetatik kanpoko zentro batean herri egoitza bateko tokia betetzen zuen. Tarte batez han egon ondoren, aitak

pentsatu zuen hura ez zela bere semearen baldintzetarako zentro egokia. Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiari semea aldundiak tokiak itunduta zeuzkan beste zentro batera aldatzeko eskatu zion. Proposatutako zentroa ere gure Erkidegotik kanpo egon arren, bestea baino hurbilago zegoen.

Foru erakundeak eskaria ukatu zion, gaztea zegoen zentroa egokia zela argudiatuz. Bien bitartean, gazteak esleitutako tokia utzia zuen eta gurasoen etxean zegoen, eta egunean zeharreko artapen zentro batera joaten zen.

• Azterketa

Zentro baten balorazioa eta kasu zehatz bati egokitzen zaion ala ez erabakitzea irizpide teknikoen arabera egin behar da. Horren harira, erreklamaziogileak aurkeztu zigun dokumentazioan ez zitzaigun gaiaren muina argitzeko elementu objektiborik ageri. Horregatik, aldundiko Gizarte Ekintza Sailarengana jo genuen, eta gazteari buruzko hainbat txosten eta gaiaren inguruko informazioa helarazi zizkigun.

Hori guztia aztertu ondoren, eskatutako aldaketa gomenda zezakeen arrazoirik bazegoela iruditu zitzaigun. Aipatutako foru sailarekin zenbait gestio egin genituen, eta azkenean gaztearen aitak eskatutako lekualdaketa onartzea erabaki zuten, baina beste zentroan tokirik libre egotearen baldintzapean.

• Emaitza

Arestikoaren ildotik, Bizkaiko Foru Aldundiak aitak semearentzat proposatutako zentroan toki bat eskatu zuen, eta zentroaren erantzunaren zain geratu zen.

## C) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Udalaren alderdi bakarreko jarreraren aurka defendatzeko ezintasuna* (717/2001)

• Erreklamazioa

Elkarte batek ituna sinatu zuen Gasteizko udalarekin, pisu babestu bat kudeatzeko. Ondoren, udalak ituna bertan behera utzi zuen, erabat, eta gainera elkarteak kudeatutako pisuko ateko giltza ere aldatu zuen. Hori egin eta gero, udalak elkarteari ahoz jakinarazi zion ituna etenda zegoela, inolako espedienterik abiatu gabe.

• Azterketa

Kexak bazuen bere oinarria, udalaren jarduera elkarteak jakin gabe burutu baitzen, kautelazko etenerako aurreikusitako neurririk hartu gabe. Premiazko arrazoiak onartuta ere, elkarteak zergatik egiten zen jakin behar zuen, eta ez zen halakorik gertatu.

Udalari erabaki hori zergatik hartu zuen argitzeko eskatu genion, eta ea behin erabaki hori hartuta, espedienteren bat abiatu zuten ala ez. Esan ziguten egin zutena ituna ez luzatzea izan zela, eta hori ez zela etetea.

Etena ituna indarrean zegoela egin zela kontuan izanik, ezin zitekeen onar ez luzatzeko erabakiaz mintzatzea, eteteaz baizik. Itunak berez ez berritzeko aukera ere badaramala onartuta, edo aurretiaz eteteko aukera ere bai, horiek egiteko behar ziren izapideak bete behar ziren.

Udalak argudiatutako premiazko arrazoiak ez ziren argi eta garbi adierazten. Argitasunik eza guk aztertu genuen dokumentazioan antzematen ziren kontraesanen ondorio zen: ituna kudeatzeaz arduratzen zen zerbitzuaren txostenak gertakari batzuen gainean informazio negatiboa ematen zuen eta udalaren eteteko erabakiak, berriz, gertakari berberen balorazio positiboa egiten zuen.

Udalak modu generikoan zioen etena polizia eta epaitegietako eginkarietan oinarritu zela.

Alderdi hori aztertu genuen, ordea, eta ikusi genuen etetearen erantzulea zen zinegotzitzaren txosten batek egikari horien edukia zein zen ez zekiela zioela. Beraz, arrazoi hori ere juridikoki garrantzirik gabea zen, juridikoa baitzen kexaren xede ziren jarduerak aztertu behar zireneko ikuspegia.

Azkenik, elkarteak jarritako errekurtsoa ondoren ebatzi zuen udalaren erabakiak eteteko erabakiaren erabateko zuzentza baliorik gabe lagatzen zuen eta, gero, zergatik ulertzerik ez dagoela, errekurtsoa ebatzi zuen ebazpen berean balioztatu zuen.

Aurreko balorazio horiek guztiek erabaki arbitrarioa zela ondorioztatzera eraman gintuzten, oinarririk ez zeukalako eta aurrekariekin kontraesanean zegoelako.

• Emaitza

Gertakarien analisian eta udal korporazioak argudiatutako arrazoietan oinarrituz, Ararteko erakundeak gomendioa helarazi zion Gasteizko udalari, jarduereten atzera egin eta ituna eteteko prozedura abia zezan, prozedura horren barruan erabaki ahalko baitzen ituna eteteko arrazoi objektiborik zegoen ala ez.

Udalak ez zien gure gomendioaren balorazioa eskatzeko bidali genizkion beste bi idatziri erantzun. Horregatik, pentsatu genuen ez zeukala betetzeko inolako asmorik. Hala jakinarazi genion Alkate jaunari, eta interesatutako elkarteari ere bai. Elkartean, azkenean, epaitegietara jotzea erabaki zuen.

⇒ *Aurretiaz egoile izateko betekizuna oinarrizko errentaren onuradun izan ahal izateko* (438/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen, oinarrizko errentaren bere eskaria ezestearekin ados ez zegoelako.

Berak zioenez, eskaria ezetsi zioten ez zelako Erkidego honetan urte bete lehenagotik erroldatuta ageri. Hori egia izan arren, berak argudiatzen zuen beste dokumentu batzuen bidez frogatutako egoitza denbora kontuan izanez gero, baldintza hori materialki bai betetzen zuela, bertako egonaldia erroldan ageri zena baino luzeagoa baitzen.

• Azterketa

Bi ziren gai honetan inplikatutako herri administrazioak: Urtuellako udala eta Bizkaiko Foru Aldundia. Lehenengoa, udal errolda egin behar duena delako, eta bigarrena, eztabaidako prestazioa onartu ala ukatuz ebazteko eskuduna delako.

Udal Administrazioaren arreta behar zuen erantzuna jaso ez zuen interesatuaren eskari batera bideratu genuen. Interesatuak erroldan egoile gisa antzinatasun jakin batekin agertzeko eskatuz egindako erreklamazio bat zen.

Horren gainean, behin eta berriro ekinda, eskari hori ezetsi zela eta hala jakinarazi zitzaiola baiestea lortu genuen.

Ikuspegi material batetik, interesgarriago iritzi genion gure ahaleginak foru erakundearengana bideratzeari zeren, jakina denez, bera baita dagokion Sailaren bidez halako kontuen gaineko azken erabakia hartzen duena.

Hartara, kexa azaltzeko geneuzkan aurrekariekin, Aldundiarengana jo genuen, eta jarraian esango ditugun ohartarazpenak egin genizkion.

Foru erakundeak prestazioa ukatu zuen, erreklamaziogileak eskabidea egin zuenean ez zeramalako gutxienez urte bete Erkideko honetako udalerriren batean izena emanda, erroldan ageri ziren datuen arabera.

Eragozpen horren aurka, kexa jarri zuenak argudiatzen zuen bera euskal autonomia erkidegoaren lurraldean biztanleriaren erroldan ageri zen data baino lehenagotik bizi zela, eta hori bere garaian ere alegatua zuela.

Hau da, argudiatutako eta udalaren egiaztagiriaren bidez frogatutako izatezko elementuaren arabera, udalerrian betekizun hori askogatik gainditzea zekarkion denboraz bizi zela agertuko litzateke.

Egia da erroldako antzinatasun baldintza hori halako diru laguntzen onuradun izan ahal izateko betekizun izan ohi dela, Gizarte Eskubideen Gutunaren abenduaren 27ko 10/2000 Legearen 6. artikuluak dioen bezala.

Baina, halaber, ezin dugu oharkabean igaro suposamendu hori oinarrizko errentaren onuradun izatea gure Erkidegoan nolabait errotuta egotearekin lotzeko erabakiaren ondorio litzatekeela, eta horregatik eskatzen dela Erkidegoko egoile hainbat denboraz izatea.

Interesatu bakoitzarengan errotze hori baden ala ez den zehazteko, aipatutako arauak errolda aipatzen du. Hala ere, esandako xedea ikusita, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez eta aurretiaz urte beteko egonaldia eramatea kreditatzea denez, ez dago zertan egoitza hori frogatzeko ahalbideak erroldatik ondorioztatzen denera mugatu.

Gainera, ezin da ahaztu bitarteko horretan ageri diren datuak egoitza eta ohiko bizilekua udalerriaren izatearen froga sinesgarria diren arren, sendotasun berberaz aitor daiteke aurkakoa ere froga litezkeela, erroldak aldarrikatutako ustezkotasun hori indargabetuz.

Edonola ere, bereziki azpimarratzea interesatzen zaiguna da erreklamaziogileak Euskadiko Autonomia Erkidego udalerri bateko herritarra aplikatzeko araudian exijitzen denboraz izana zela ondorioztatzen lagatzen zuten dokumentuak aurkeztu zituela, eta horrela aztertzen ari garen betekizuna betetzen zuela.

Bestela esanda, biztanleen erroldatik ateratako egiaztagiriak ez dira zertan udalerriko bateko egoile izaera frogatzeko bitarteko bakarrak izan.

Eskuartean daukagun gaiko legediak biztanleriaren zentsutik datozenez bestelako irizpen elementu batzuk baloratzera jotzea eragozten ez duenean, gure ustez foru erakundeak eztabaidan dagoen erabakia berriro azter lezake, araurik urratu beharrik gabe eta interpretazioko gehiegizko ahaleginik gabe.

Gure komunikazioa amaitzeko, besteak beste, erantzunaren idatzian arestiko ohartarazpen hauen gaineko iritzia eman zezan eskatu genion aldundiari. Jasotako

erantzunak aurkako bi erreakzio eragin zituen. Lehenengoa, negatiboa, zeren erroldaren arabera frogatutakoari lotutako legezkotasun zorrotzeko kontuetan luzatuz, arazo zehatz hau berriro aztertzea ezetsi baitzuen.

Esan behar da eskuartean daukagun kasu honetan, kexa espedientearen izapideen ondorioz, ukituak eskatutako egoitza erroldaren idazkunen arabera frogatzeko beste denbora igaroa zela.

Aldi berean, Aldundiak bidali zigun erantzunean faktore positibo bat ere bazegoen. Aldundiak zioen jabetzen zela deneko udal erroldako datuak eta izatezko egoitza bat kreditatzeko baliatu nahi diren beste dokumentu batzuetako datak bat ez datozen kasuetan sortzen diren arazoez. Gorabehera horiek dakartzaten disfuntzioen jakitun, esan zigun bazeramatela denboratxoa gauzen oraingo egoeraren alternatibak aztertzen, arauen interpretazio zorrotzak nahi ez diren ondorioak eragin baititzake.

• Emaitza

Azaldutakoan oinarrituz, eta interesatuari egin genuenaren berri eman ondoren, gai honetako gure lana hortxe amaitu genuen.

# 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

## 3.1. SARRERA

2002 urtean alor honetan guztira 24 kexa jaso dira. Honelaxe banatu dira:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 13 |
| - Foru administrazioa | 4 |
| - Udal administrazioa | 7 |

Gaiaren arabera honelaxe sailkatu dira:

| | |
|---|---|
| Elebitasuna | 12 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura. | 5 |
| Kirola | 3 |
| Eskubideak eta askatasunak | 2 |
| Bestelakorik | 1 |
| Kontratazio, ondare eta administrazio erantzukizuneko araubidea | 1 |

Kulturaren alorrarekin zerikusia duten zenbait kexatan ukitutako administrazioen funtzionamenduari buruzko hainbat konturekin zegoen desadostasuna adierazten zen.

Pentsa daiteke herri administrazioek herri botere guztien jardueren buru egon behar diren eragingarritasun eta lankidetza hatsarreekin bat datorren modura jokatu izan balute, zenbait kexa ez zatekeela jarriko, ez behintzat planteatu ziren ildotik. Hartara, txosten honetan laburbildutako kirol gaietako hainbat errekurtsoren ebazpenaren prozeduraren gaineko kexak administrazioaren funtzionamendu arin eta eragingarriaren garrantzia erakusten du, bi horiek planteatutako arazoei erantzun diezaieten erabakiak ekar ditzaten modura.

Hirigintzako ikuspegi zorrotzetik esklusiboki azter daitekeen ondarearen babesak ere kexa bat eragin du, oraingoen jabeek iritzi baitiote hirigintzako plan baten berrikuspenean ez zela beren baserria babestea sartzen.

Bestalde, ETBk emandako albisteetan informazioaren eskubidearen ariketa ere kexa gai izan da.

Komunikabideek albisteak ematen dituzten moduak iritzi desberdinak sor ditzake, baina modu horiek juridikoki kargu hartzea mereziko badute, intimitatearen edo norbere irudiaren eskubideei ukitu behar diete. Suposamendua aztertu genuen, eta egitateen egiazkotasuna, baita informazioaren garrantzia ere, kontuan izanik, ez genuen informaziorako eskubidearen erabilpen neurrigaberik izan zenik pentsatzeko moduko daturik ikusi.

Elebitasunaren atalean, Osakidetzako enplegu publikoko eskaintzaren onespenak ofiziozko jarduera hastera eraman gintuen, deialdietan euskara jakiteko exijentzia nola hartuko zen kontuan jakiteko.

Ez dago esan beharrik herritarrak administrazioarekiko bere harremanetan euskara erabiltzen duen eskubidea gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dela artatzen duen pertsonak euskaraz jakitea. Hala ere, gogoratu behar dugu, printzipioz, langile guztiak ez daudela

euskaraz jakitera behartuta, baizik eta Administrazioa bera dela herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean mintzatzeko duten eskubidea bermatu behar duena.

Horren ondorioz, enplegu publikoari eusteko euskara jakitea exijitzen denean, betekizun horren beharra objektiboki frogatuta geratu behar da.

Horixe da, hain zuzen, Osakidetza euskalduntzeko planak bete behar duen helburuetako bat, lanpostuetarako hizkuntza eskakizunak zehaztuz.

Testuinguru honetan, gerora gai berarengatik jaso genuen kexaren aldi berean, Ararteko erakundeak hainbat jarduera burutu zituen (ikusi alor horretako kexen laburpena). Gure jarduera euskalduntzeko planaren aurreikuspenetan oinarrituz neurriren bat har zitekeen jakitera bideratu zen, planaren onespenak berandutzen segitzen zuelako.

Berandutzea aipatzen dugunean, ez zaizkigu oharkabean joaten Osakidetzak euskararen ofizialtasun kidetasunari buruz egindako jarduerak. Baina plan horrek jarduera horietako edozeinen baino garrantzi handiagoa daukala azpimarratu behar dugu, hizpide dugun hizkuntza eskubidearen ariketa errazteko behar diren neurriak hartzeko segurtasun juridikoa emango duen bitartekoa baita.

Bestalde, egoera jakin batzuen aurrean, euskararen jakintzak are garrantzi handiagoa hartzen du. Lehenagoko txostenetan ere aipatu ditugun suposamenduez ari gara: gaztelaniaz mintzatzeko arazoak dituzten eta, horregatik, medikuarengana lagunduta joan behar izaten duten adineko pertsonak, medikuak euskaraz ez badaki. Hizkuntza alorreko jarduerak kokatu behar direneko esparru orokorraren kalterik gabe, halako egoerek aipamen berezia merezi dute, kontuan har daitezen.

Aurten, herritar talde batek kexa bat aurkeztu du Arartekoarenean, justizia administrazioan beraiek aukeratutako hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea erabat gauzatzeko aurkitzen dituzten zailtasunak azalduz.

Euskararen Erabilpenaren Normalizaziorako Oinarrizko 10/1982 Legeak mekanismo zehatz batzuk jartzen ditu justizia administrazioan arian-arian neurriak har daitezen ahalbidetzeko, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Botere Judizialean dagozkion organoekin akordioak egin ditzan sustatzea. Esparru honetan hizkuntzaren normalizaziorako bultzatzen ari diren jarduerak ukatu nahi barik, baina kexen zilegitasunari ere adituz, kexa hau organo eskudunei helarazi genien, har daitezen neurriak izatezko zaintza judizialaren eskubidea erabat gauzatzera soilik bideratu behar ez direla esanez, hizkuntza eskubidearen ariketa ere bermatu behar baita. Horregatik, herri botere guztiek bi hizkuntzen ofizialtasuna izatez lortzeko behar diren neurriak hartu behar dituzte.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak, txosten xehatu batean, bere eskumenen esparruan burutzen ari den jardueren berri eman zigun. Horretarako inplikatutako alorren laguntza eta partaidetza dauzka, funtsezkoak direnak, are gehiago gai horretan borondatearen hatsarreak zuzentzen dituen epaile, fiskal eta idazkari judizialez ari garenean. Txosten berean Estatuko Fiskaltza Nagusia euskara jakitea fiskal ordezkoentzat meritu gisa baloratzeko egiten ari zen ahalegina ere aipatzen zen.

Jakina denez, euskara erabiltzeko eskubidearen funtsezko oinarri bat hizkuntza ofizial gisa ezagutzea da.

Batzutan, herritarrek administrazioarekiko beren harremanetan euskara erabiltzeko duten eskubidea murriztu egiten da. Egia da sarritan euskaraz erantzun ahal izatea bermatuko duten bitartekoak hartzeak pixkana ezartzea exijitzen duela, baina horrek ez du eragotzi behar kasu zehatz bakoitzean euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea materialki ezinezkoa dela frogatzea.

Aurreko txostenetan motibazio horren garrantzia azpimarratu izan dugu, horrek adieraziko baitigu, eskubidea murriztu baino lehen, une horretan izan diren baliabideekin artatzeko ahalegina egin dela behintzat. Ohartarazpen honi garrantzitsua deritzogu, zeren batzutan igartzen baitugu ez dela horrela jokatzen, eta ziurrenik hizkuntza eskubidearen pertzepzio okerrean oinarrituta gertatzen dela.

Gure iritziz, hori euskaraz hitz egin nahi duen pertsonak gaztelaniaz ere badakielako usteari lotzen zaionean gertatzen da, eta lotura hori absolutuki egiten da, herri botereen edozein jarduera edo esku-hartzeren gainean.

Guk eztabaidatzen ez dugun uste hori oinarritzat hartuta, pentsa daiteke herritarraren gaitasuna eta, izatekotan, entzun dezaten duen eskubidea salbu geratzen direla.

Hala ere, uste horretan oinarritutako interpretazio hedagarri batek hizkuntza eskubidearen izaera aldatzea ekar lezake, eta euskararen kasuan, hizkuntza eskubidearen funtsezko oinarrietako bat bere ofizialtasuna da. Arriskua dago, euskara erabiltzeko eskubidearen oinarria jarduteko ahalmenari eta entzun edota defendatzeko eskubideei lotzeko, eta horiek salbu geratzen direla pentsatzeko, baldin eta horretarako gaztelania aukeratzen duten herritarrei ahalegin erantsia eskatzen bazaie.

Hizkuntza eskubidearen kontzepzio horren adibide izan daiteke herri administrazio batek herritar baten kexa zela-eta Arartekoari erantzun ziona. Erantzunean honela mintzatzen zen interesatuak euskara erabiltzeko bere eskubideaz baliatzeko asmoaz: *"...intentó en todo momento obstaculizar con esa actitud las actuaciones administrativas..."*, hau da, uneoro, jarrera horrekin administrazioaren jarduerak oztopatzen saiatu zela.

Administrazio horri esan genion erreferentzia horrek argitzea merezi zuela, edo bestela kargu hartzea, euskararen ofizialtasunaren pertzepzio okerra iradokitzen duelako.

Ez zen herritarraren eskubideari jaramon egiteko inolako ahaleginik egin zenik frogatu, eta ez genuen ulertzen zergatik jaso zen akta batean herritar batek harremanak euskaraz izateko asmoa administrazioaren eginkariak oztopatzeko jarrera gisa, benetan gertatu zena herritarrari, oinarrituta edo oinarririk gabe, euskara erabiltzeko eskubidea murriztu zitzaiola izan zenean.

## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) **Elebitasuna**

⇒ *Euskararen ofizialkidetasunari buruzko jarrera* (1149/2001)

• Erreklamazioa

Ertzain batek protesta ekitaldi baketsu batean parte hartzen ari zen pertsona bati identifikatzeko eskatu zion. Manifestariak, euskaraz, hizkuntza horretan mintzatzea nahi zuela erantzun zion, eta zion poliziak gaztelaniaz egindako aginduzko deiari jaramonik egin.

Ertzainak jarrera hori desobedientzia gisa hartu zuen, ez zuelako identifikatu nahi, eta atxilotu egin zuten. Ertzain etxean euskaraz mintzatzea nahi zuela aldarrikatzen jarraitu zuen, eta horren ondorioz atxiloketa luzatu egin zitzaion harik eta hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahal izan zuen arte.

• Azterketa

Ertzaintzaren txostenean oinarrituz, falta epaiketa abiatu zen, eta zegokion epaia eman zen. Horren kalterik gabe, Ararteko erakundeak ikusi zuen kexa eragin zuten egitateetan bazirela zenbait kontu argitzeko, eta komeni zela horien gainean Herrizaingo Sailari hainbat ohartarazpen egitea.

Interesatuari identifikatzeko eskatzeari dagokionez, iradoki genien hurrengoetan, halako egoeretan, beste ezer baino lehen ertzain euskaldunik zegoen begiratzeko. Planteamendu hori egin genuen ez zuelako ematen egoera hark berehalako jarduerarik eskatzen zuenik, zeren bestela euskararen ofizialtasun kidetasuna ezinbestean mugatzea onartu beharko baitzen.

Poliziaren aktaren edukiari dagokionez, txostenak honelaxe adierazten zuen interesatuak euskaraz mintzatzeko bere eskubideaz baliatu nahi izatea: *"intentó en todo momento obstaculizar con esa actitud las diligencias policiales"*, hau da, une oro jarrera horrekin, poliziaren eginkariak oztopatzen saiatu zela.

Litekeena da, eskueran dauden bitartekoak zeintzuk diren kontuan izanik, herritarrek euskara erabiltzeko beren eskubidea mugatuta aurkitzea. Baina zaila zen onartzea herritarraren asmo hori txostenean poliziaren eginkariak oztopatzeko jarrera gisa jasota gera zedin, benetan gertatu zena herritarrari, oinarrituta edo oinarririk gabe, euskara erabiltzeko eskubidea murriztu zitzaiola izan zenean.

Horregatik, ondorioztatu genuen txostenean hizkuntza aukeraren balorazio okerra jasotzen zela, une oro, manifestaldian atxilotu zutenean *ez eze*, jarrera oztopagarritzat jotzen baitzuten.

• Emaitza

Hainbat hilabete igaro ondoren jaso genuen azterketa horri emandako erantzuna. Alabaina, erantzuna zehatza ez zenez gero -horrek pentsarazten zuen ez zirela behar bezala ikertu kexa hau sortarazi zuten egintzak-, berriro idatzi genion Herrizaingo Sailari, gure oharrak adierazteko. Txosten hau idazteko unean, azken balorazioaren zain gaude oraindik.

⇒ *Euskara erabiltzeko normalizazio plana Osakidetzan* (12/2002OF)

• Erreklamazioa

Osakidetzako langileentzako baremoak eta euskararen exijentzia funtsezko alderdiak dira gaixoen hizkuntza eskubideei jaramon egingo zaiela ziurtatzeko.

Horregatik, Osakidetzaren 2002rako Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zenean, kexa gai izan ohi diren gaien jarraipenean, deialdietan oraindik onartzeko zegoen euskalduntzeko planaren aurreikuspenak kontuan izango ziren ala ez argitzeko eskatu genuen.

• Azterketa

Hizkuntza eskakizunen sistema (euskalduntzeko planaren barruan) euskara jakiteko exijentzia objektibatzeko bitarteko bat da, eta hizkuntza eskubidea izateak oinarritzen du. Bitarteko horrek jokoan dauden eskubideak orekatzen lagunduko duenez, hau da,

enplegu publikoari eusteko eskubidea, eta erabiltzaileek euskara erabiltzeko duten eskubidea, ezinbestekoa zen deialdiak euskararen erabilpenaren normalizaziorako planarekin lotzea, oso aurreratuta egonik ere oraindik onartu gabe dagoen planarekin, alegia.

Ingurumaria horietan, Ararteko erakundeak Osakidetzarengana jo zuen, deialdi haietan planaren aurreikuspenak kontuan hartuko ziren ala ez galdetzeko.

Hizkuntza eskakizunik ezean, zaila zen deialdietan euskararen exijentzia artikulatzea. Plana onartzea atzeratzen ari zelako zegoen egoeratik abiatuta, Osakidetzari planteatu genion, oso aurreratuta zegoela uste genuen planaren aurreikuspenetan oinarrituz, planak euskara jakitea exiji zezakeela aurreikusten zen plazak hurrengo deialdi baterako gordetzeko.

• Emaitza

Osasunaz bestelako beste esparru batzuetan ez bezala- non enplegu eskaintzetarako lanpostu kopurua finkatzen den, baina zehazki zenbat izango diren hautapen prozesua amaitu arte atzeratzen den-, Osakidetzak jakinarazi zigun beren alorrean hori zehaztuta zegoela, OPEa onetsi baino lehen, planak lanpostuetan euskara jakiteaz aurreikusten zuena kontuan hartu gabe.

Ondorioz, egitateen unean, ez zegoen gure proposamena gauzatzerik.

Informazio beraren arabera, eta espediente honen xedearekin zuzenean lotuta, esan ziguten ziurrenik plana lekualdaketen hurrengo deialdirako indarrean jarriko zela.

## B) **Kirola**

⇒ *Kirol lizentzien izapideak. Segurtasun juridikoaren printzipioaren mende jartzea eta denbora joatearen eragozpenak gaiaren muinean* (264/2002)

• Erreklamazioa

Arraun talde batek kexa bat jarri zuen Euskal Federazioaren aurka, ez zuelako hainbat kirol lizentzia izapidetzea onartu. Federazioak bere ezezkoa argudiatzeko beste talde batean izapide zizkien aurreko lizentzietatik bi urte igaro ez zirela esan zuen.

Taldeak, bere aldetik, uste zuen lizentziak izapidetzeko ezarrita zegoen epea urtebetekoa zela, eta ez bikoa, eta horregatik errekurtsoa aurkeztu zion Kirol Justiziako Batzordeari.

• Azterketa

Euskal Federazioak bi urteko betekizuna exijitu zuen, Arrauneko Euskal Federazioaren Batzar Orokorrak hartutako erabaki batean oinarrituta. Erabaki honek lehenagoko urtebeteko epe hori aldarazi zuen.

Federazioak, ordea, ez zuen euskal kirolaren gaineko ekainaren 11ko 14/1998 Legean esandakoa bete, zeinen 29.3 artikuluaren arabera arautegiak Kirol Erakundeen Erregistroetan inskribatu behar diren. Ingurumaria hori funtsezkoa zen kirol lizentzien iraupena urtebetetik bi urtera aldatzea xedatzen zuen Batzar Orokorraren erabakiaren edukiari balioa emateko.

Kexaren unean, taldeak Kirol Justiziaren Batzordeari aurkeztutako errekurtsoa ebatzi gabe zegoen. Hala ere, arraun denboraldia gertu zegoela kontuan izanik, kexa izapidea onartu genuen, eta Batzordeari gure balorazioa helarazi genion.

Errekurtsoa ebatzi zuenean, Batzorde horrek esan zuen Euskal Federazioaren erabakiek ez zutela baliorik, lizentziak izapidetzeko eskarien ezezkoak bi urteko exijentziak oinarritu zirelako, eta baldintza hori, Batzar Orokorrak ezarri arren, ez zela Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu, aginduzkoa den bezala.

Errekurtsoa ebatzi ondoren, Euskal Federazioak arautegia Erregistroan inskribatzeko izapideak egin zituen. Baina bere aldetik erabaki zuen, era berean, inskripzioari atzerako balioa ematea eta, horrekin, izatez, errekurtsoa jartzea eragin zuen kasuan bezala, bi urtetik beherako lizentziak izapidetzeko ukoa mantentzen zuen.

Horrela jokatuz, Arraun Federazioak Kirol Justiziako Batzordearen baliogabetasun adierazpena indargabetzen zuen, baliorik gabe utzitako erabateko eskubidezko egitateak balioztatzerik ez dagoelako kontuari jaramonik egin gabe, eta ondorioz, arraun taldea Batzordeari beste erreklamazio bat egitera behartuz.

Azkenean, maiatzaren 30ean Batzordeak beste ebazpen bat eman behar izan zuen, interesatuek beren kirol lizentziak urtebeteko baldintzarekin izapidetzeko zuten eskubidea berretsiz, baldintza hori zelako indarrean zegoena kirol lizentzia horiek aurkeztu ziren garaian.

• Emaitza

Ez zegoen Batzordearen azkeneko erabakiaren aurkako inolako eragozpenik jartzerik, eta azkenean Arrauneko Euskal Federaziak onartu egin zuen.

Hala ere, sortuz joan ziren gaiak ebaztea luzatu zenez, ukitutako arraunlariek lizentziak ezin izan ziren garaiz izapidetu, eta ezin izan zuten lurralde guztietako lehiaketetan libreki parte hartu.

Horregatik, Kirol Justiziako Batzordeari berandutzearengatik kargu hartu genion, eta iradoki genion aurrerantzean halako erabakien azpian egon litezkeen denbora ingurumariak kontuan har zitzaten, erreklamazioak ebazten diren bitartean izaten diren lehiaketekin duten loturarengatik.

# 4. HEZKUNTZA

## 4.1. SARRERA

2002 urtean guztira 59 kexa jaso dira Hezkuntza alorrean, hau da, tarte honetan guztira aurkeztutako kexen % 5,94.

Hona hemen nola banatu diren, ukitutako administrazioaren arabera:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........... 52
- Udal Administrazioa ........................................................................ 3

Izapidetutako gaien edukiari edo, bestela esanda, hezkuntza azpiatal desberdinei aditzen badiegu, hara nola banatu diren:

| | |
|---|---|
| Eskubideak eta betebeharrak | 21 |
| Unibertsitateko irakaskuntza | 10 |
| Ikastegiak | 7 |
| Bestelakoak | 6 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta adm. prozedura. | 5 |
| Hezkuntza berezia | 2 |
| Arte irakaskuntzak | 2 |
| Eskolaz kanpoko jarduerak | 1 |
| Haur hezkuntza | 1 |
| Derrigorrezko bigarren hezkuntza | 1 |
| Lanbide heziketa. | 1 |
| Kontrataz., ondare eta admin. erantzukizun araubidea. | 1 |

Aurten, berriro ere, erakunde honek zerotik hiru urtera bitarteko haurren hezkuntzan esku hartu du. Hartara, 0-3 Haur Hezkuntzaren Defentsaren Mahaiak eskatuta, eta behin eta berriro saiatu ondoren, joan den ekainean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren arduradunekin bilera egiteko aukera izan genuen.

Topaketa horren markoan, eta orduan erreferentziakoa zen Dekretuaren zirriborroa kontuan hartuta, Arartekoak ondoko iradokizunak planteatu zituen –Eusko Legebiltzarrari urtero egiten zaizkion txostenetan sartutako gomendio orokorrak erakusten duten jarduera ildo jada finkatuaren haritik-.

Batetik, hezkuntza eskaintzaren plangintza egin behar da, gizarte eta ekonomia mailarik gutxieneko eremuak lehentasunez artatzeko modukoa, baita hezkuntza behar bereziak eta hizkuntza beharrak dituzten ikasleei erantzuteko ere, Euskal Eskola Publikoaren legearen 92. artikuluak dioen bezala. Horren gainean, erakunde honek beti esan izan du ziur dagoela hezkuntza arduradunek izan behar dutela zerotik hiru urtera bitarteko ziklo horren ezarpen prozesuaren aitzindari.

Bestalde, ziklorako beren beregiko onarpen arau edo irizpideak ezarri behar dira. Gure ikuspegitik, ez da nahikoa beste hezkuntza etapa batzuetan jarraitzen zaien irizpideak honetara ekartzea, zikloaren errealitatea oso bestelakoa baita. Izan ere, ez gaude eskolatze orokorraren aurrean, hiru urtetik aurrera gertatzen den bezala, eta

horrek, eskaintza murriztua denez, onarpen irizpideen birtualtasuna ahalik eta gehien zorroztera behartzen du, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 92. artikuluak hizpide dituen ikasleei lehentasunezko artapena ematen saiatzeko edo ematea ziurtatzeko. Puntu honetan nabarmendu behar da, halaber, irizpide horiek haur eskolek estali nahi duten beste helburuetako bat lortzen izan lezaketen eragin handia, hau da, haurrak zaindu behar dituzten pertsonek beren familia eta lanbidezko erantzukizunak uztartu ahal izatea lortzen.

Txosten hau prestatzen amaitzen ari garen unean, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua argitaratu berri da, zeinen bidez zerotik hiru urtera bitarteko umeentzako haur eskolak araupetzen diren, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetarako (EHAO, 249, abenduak 31).

Dekretu honen lehenengo balorazio batek ez du, erakunde honek egindako gomendioak betetzen diren ala ez aldetik, behin betiko iritzirik ematen lagatzen, zeren, iragankorra izateaz aparte, dekretu onartu berri hau, nekez txertatzeko modukoa den haur eskolen mapa egiteko irizpideak ezartzera mugatzen baita, eta gizarte eta ekonomia maila gutxieneko eremuak eta, oro har, hezkuntza behar bereziak edo hizkuntza beharrak dituzten haurrak lehenesteko, eta herri titularitateko haru eskolak indartzeko asmoa baiesten den bitartean, hiru urtetik beherakoen egungo eskaintza finkatzea ere planteatzen baita, eta eskaintza horretan titularitate pribatuko gaur egungo haur eskolak sartzen direla ulertu behar da.

Bestalde, dekretu horren testuak ondoren onarpen irizpideak araupetuko dituen antolamendura bidaltzen gaitu, gu, kontu horretaz behin eta berriro esan dugunez, gutxienez gure ikuspegitik, bereziki garrantzitsua denean, eskola horiekin erantzun nahi zaien beste helburuetako bat lortzen saiatzeko, familiei pertsona eta lanbide mailako erantzukizunak uztartzen laguntzea lortzen saiatzeko, hain zuzen.

Hartara, beldur gara haur eskolen mapa honen prestakuntza, baita eskola horien funtzionamenduarekin zerikusia duten alderdi desberdinak ere (baimenak, ikasleen onarpena, diru laguntzak, eta abar), gerorako kexen iturri ez ote diren izango.

Hala ere, puntu honetan Hezkuntzaren kalitatearen gaineko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organiko argitaratu berria aipatu eta espresuki ekarri behar dugu hona, zeren, LOGSEk ez bezala, haurtzaroko etapa hori bereiztuta jasotzen baitu, eskolaurreko beren beregiko hezkuntza etapa gisa, eta hasierako haurtzaroaren hezkuntza eta artapen xedea esleitzen baitio, bere plangintza eskumeneko administrazioei, ez hezkuntzakoei soilik, egotziz.

Edonola ere, zerotik hiru urtera bitarteko hasierako ziklo honek izan lezakeen gerorako bilakaera albo batera utziz, egia da 2002 urtea ez dela salbuespena izan hasierako ziklo horren berezko kexen izapideei dagokienez, zeren batez ere bi urteko haurren onarpenarekin zerikusia duten kexak jasotzen jarraitu baitugu.

Jaso ditugun kexa guztien artean, haur ezgaitu baten gurasoek aurkeztutakoa azpimarratu behar dugula uste dugu, erakunde honek behin eta berriro defendatu duen ildotik beraien eskabidea lehenestea nahi baitzuten. (Xehetasun gehiago kexa hautatuen sortan sartutako 300/2002 erreferentziapeko laburpena ikusi). Zoritxarrez, kexa hau izapidetzean ohartu gara hezkuntza Administrazioak jarraitzen duela ahalmen urritasunek jotako eta txiki-txikitatik eskolatu nahi dituzten haur horientzako diskriminazio positiboko neurriak behar direla barneratu barik, praktikan behintzat.

Hezkuntza behar berezien gaiarekin jarraituz, eta EAEko hezkuntza beharrei erantzuteko txostenaren jarraipenari dagokion atalean egiten diren iruzkinez gain, ASPANOVAS, minbizia daukaten haurren gurasoen elkarteak helarazi dizkigun proposamenak aipatu nahi ditugu; halako ikasleak eskolatzeko baldintzentzat tratamendu hobea eragingarritasun handiagoz lortzeko ekimen berriak bila daitezen eskatzen dute, haur horiek ospitaletako egonaldi luzeak jasaten dituztelako, behin eta berriro, eta ondoren etxean sendatu eta indartu arte egon behar izaten dutelako.

Era berean, ezin dugu ezgaitasunen bat eta hezkuntza behar bereziren bat daukaten haur eta gazteen artapena modu orokorrean jorratu behar dela aipatu gabe utzi, etxetik urrun dauden ikastegietan eskolatutako ikasteak direnean, egungo hezkuntza antolamenduan hezkuntzarako eskubidea eratu den ildotik behar bezala estali eta beteta geratzeko behar diren zerbitzu osagarri guztiak ere –garraioa, esaterako- kontuan hartuta (ikusi 1041/2002 kexaren laburpena).

Azken horren haritik, izan ere eskola garraioaren zerbitzu osagarri horrekin zerikusia duten kexak aurkeztu direla esan behar dugu. Egiazki, lehenago ere esan dugun bezala, halako zerbitzuen irismena, gaur egungo hezkuntza antolamenduan, onartutako hezkuntza plangintzaren arabera egokitu zaizkien ikastegietatik urrun bizi diren ikasleak behar bezala artatu eta eskolatzeko ezarrita dauden baldintza objektiboak betetzetik edo ez betetzetik soilik etorriko da. Hala ere, egindako kexek zerbitzu osagarri horiek egokiro kudeatzeko beharra aldarrikatzera behartzen gaituzte, azpimarratuz, batez ere, komeni dela ikastegiak herritarren aurrean hezkuntza Administrazio berarengandik banatuta eta loturarik gabe dauden errealitate gisa ez aurkeztea, ikasle berriak onartzeko eskarien erakargarri legez ez dagoen garraio zerbitzu osagarriaren eskaintzaren ahalbidea baliatzen saiatzeko (ikusi 1070/2002 kexaren laburpena).

Beste kontu batzuetara aldatuz, 2002 urtean hizkuntza mailako hezkuntza proiektu jakin batzuen gaineko kexak jaso ditugu. Aurrekoetan bezala, kexa hauek hezkuntzako hizkuntza ereduak familien euskalduntze mailaren arabera aplikatu nahi dituzten hezkuntza proiektuen gainean ziren. Bada, jarraian eransten den kexaren laburpenean (492/2002) azaltzen den bezala, erakunde honek berriro azpimarratu du hezkuntza zentroen kudeaketaren autonomiak lagatzen dituen mugen barruan sartzen diren antolakuntza eredu guztiak onartu behar direla, baina horrek ez duela ikasleen onarpena edo eskola garraioa bezalako prozesu edo zerbitzuen kudeaketan ondoriorik ekarri behar.

Aipatuko dugu, era berean, duen planteamendu bereziarengatik, ama batek EAEn dauden ikastegi atzerritarretan ikasten duten ikasleek jasotzen duten mesedezko tratua salatzen zuenekoa zeren, berak zioenez, ikasle horiek euskara ikastetik salbuetsita baitaude. Egia da Espainiako ikastegi atzerritarren araubidearen gaineko egungo antolamenduak (maiatzaren 28ko 806/1993 E.D.) zentro horiei beste herrialde batzuetako hezkuntza sistemei dagozkien ikasketa ez-unibertsitateko irakaskuntza ematen lagatzen diela. Hala ere, zentro horiek espainiar ikasleak hartu ahal izateko, hezkuntza sistema atzerritarreko ikasgaiez gain, aldi berean espainiar hizkuntza eta kultura eta dauden autonomia erkidegoko hizkuntza ere irakatsi behar dituzte, osagarri modura. Hartara, EAEn dauden ikastegi atzerritarretan unibertsitatekoak ez diren ikasketetan ari diren espainiar nazionalitateko ikasleek euskarazko ikasgai osagarriak ere egin behar dituzte.

Harritu gaitu, halaber, berria delako, ikuskaritzak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle bat protagonista izan duen gorabehera batean izandako jardueraren gaineko kexak. Oraingoan, gure erakundeak (ikusi 955/2002 zenbakiko kexaren laburpena) hezkuntza Administrazioari gogorarazi dio berrikuspeneko edozein erabakik motibatuta eta oinarrituta egon behar duela, ikasleen ebaluazioa araupetzen duten arauen arabera.

Azkenik, irakasleriaren prestakuntzarako proiektu baten antolamendu eta finantzaketari buruz jasotako kexa ere aipagarria dela uste dugu. Kexatu zen pertsonaren iritziz, hezkuntza Administrazioak, ordezkaritza organo gorenak prestakuntza proiektuari hasieran emandako adostasuna (finantzaketako ezinbesteko baldintza deitutako laguntzei eusteko) kentzea erlijio zioengatik baztertzea ahalbidetzen ari zen, zeren onespen hori kentzearen azalpen bakarra prestakuntza proiektua burutzeko arduraduna bahai fededuna zela baitzen.

Erakunde honen ustez, hezkuntzako prestakuntza eta berrikuntzako proiektuak egiteko laguntzei eutsi ahal izateko aurretiaz OMR delakoaren adostasuna eduki behar hori Euskal Eskola Publikoaren Legean ikastegien autonomia pedagogikoen gainean jasotzen diren aurreikuspenen nahitaezko ondorioa da, eta salbuespen bakarra izan dezake: OMRk baimendutako prestakuntza eta berrikuntza proiektuak eskubideren bat urratzea, edo lege antolamenduaren nolabait aurkakoa izatea, kasu honetan itxuraz zen bezala.

Baina jokabide baztertzaileak frogatzeko zailtasunak, frogaren zamari buelta eman ahal izateko, gutxienez, halako alegatuaren aldeko itxura eta susmo arrazoitua sor dezaten zantzuak izatea eskatzen du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailarekin behin eta berriro saiatu arren, ez genuen bide horretako gutxieneko zantzurik ezartzerik lortu.

Hezkuntza alorrean izapidetutako gaien gainbegiratu honekin amaitzeko, unibertsitateko irakaskuntzaren mailaz mintzatuko gara. Esparru honetan EHUren jarrera ona azpimarratu nahi dugu, aurreko urteetan ikasleak onartu eta matrikulatzeko prozesuetan antzemandako disfuntzio serio eta larrien aurrean erreakzionatu baitu. Halako prozesuak kudeatzeko barneko araudi berriarekin amaitu dira lehenago bereiztuta zeuden onarpen eta matrikula epe desberdindu horiek. Neurri honen oihartzuna baloratzeko iazko auzi larria gogoratu besterik ez dago, non Arte Ederrak ikasi nahi zituzten ikasleak kexatu baitziren behin matrikulatzeko epea agortuta, 50 toki hutsik geratu zirelako, eta gure erakundeak horretan esku hartu behar izan zuen.

Onak direlako ere aipatu behar dira EHUk ikasle ezgaituak integratzeari dagokionez egindako urratsak. Ahalmen urritasun larri eta handiak jotako gazte batek (ikusi 620/2002 kexaren laburpena) jarritako kexari egindako jarraipenari esker, gure erakundeak ondoko neurriak ezarriz joan direla ikusi ahal izan du: barrera arkitektonikoak ezabatuz eta espazio fisikoak moldatuz joan direla, ikasleentzat behar duten sostengu langileak jarri direla eta, azkenik, garraio moldatuko beharrak finantzatzeko laguntza sistema ere artikulatu dela.

Kontrapuntu eta nota negatibo gisa, irakasle talde batek Unibertsitateak beren sailaren barneko ikuskaritzako txosten bat ematea ukatu dielako jarritako kexa aipatuko behar dugu. Kexa honen xehetasunak 785/2002 erreferentziapeko laburpenean daude.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta betebeharrak

⇒ *Haur hezkuntza. Hezkuntza behar bereziko haurren eskolatzea lehenestea* (300/2002)

• Erreklamazioa

Hezur displasiak eta heldutasun atzerapenak jotako haur baten amak gugana jo zuen, EAEko ikastegi publiko batean bi urteko ikasleak onartzeko prozesuan bere semearen hezkuntza behar bereziak kontuan hartu ez zirela salatzeko.

• Azterketa

Egia da hezkuntza behar bereziak dituzten hiru urtetik beherako haurrak eskolatzeko ahalbideak hezkuntza arduradunek ezartzen dituzten programaketa eta plangintza irizpideek zuzenean baldintzatzen dituztena. Horren ildotik, hezkuntza arduradunek baliabide eta sostengu egokiak dituzten eskola puntuak programatzen dituzten heinean soilik plantea daiteke hezkuntza behar bereziak dituzten haurren eskolatzea, baina, hala ere, Euskal Eskola Publikoaren Legean jasotzen diren arian-arian ezartzeko irizpideei aditu behar zaie, non izan ere esaten baita hezkuntza behar bereziak dituzten haurren eskolatzera bideratutako programazioa lehenetsi behar dela.

Hori suposatu ondoren, behin hezkuntza Administrazioak nahikoa sostengu eta baliabide dituzten haur hezkuntzako eskola unitateak aurreikusi eta funtzionatzeko baimena eman duenean, lehentasuna eman behar zaio hezkuntza behar bereziak dituzten haurren eskolatzeari, agindu bikoitzari adituta. Batetik, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 9.2 artikuluaren agindua, zerotik hiru urtera bitarteko haurrak pixkana eskolatzeko, hezkuntza behar bereziak dituzten haurrei berreziki adituz, eta bestetik ikasleak onartzearen gaineko antolamenduak eta hezkuntza behar bereziko haurrei hezkuntzazko erantzuna emateko berariazko antolamenduak aurreikusten duten hezkuntza bereziko behardun haurren eskolatzea lehenesteko agindua.

Ondorioz, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitateko eta Ikerkuntza Sailari zerotik hiru urtera bitarteko haur hezkuntzako zikloak hezkuntza behar bereziko ikasleen eskolatzea lehenesteko aginduari jaramon egin diezaion gomendatu zion (29/2002 gomendioa, uztailaren 8koa)

• Emaitza

Arartekoak ez bezala, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak hezkuntza berezien beharra duten ikasleen eskolatzea lehenesteko zerotik hiru urtera bitarteko hezkuntza etapa oro har ezarrita dagoen testuingurura jotzen dute, nahiz eta paradoxikoki –hala genioen guk gure gomendioan- testuinguru horretan ikasleak onartzeko irizpideak hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak lehenesteko agindua betetzeko nahikotzat jotzen diren. Bien bitartean, egun bezala eskolatzea orokorra ez den egoera batean lehentasunezko egiazko irizpideak benetan erabakigarri eta beharrezkoak direnean, hezkuntzako arduradunek eskolatzea lehenesteko inolako ekintzarik planteatu gabe jarraitzen dute, oraindik etapa hori nahikoa sostengu eta baliabiderekin ezartzeko dagoela argudiatuz.

Erakunde honen iritziz, kexa honetako haurrari gertatutakoak argi eta garbi erakusten du hezkuntza Administrazioaren jokabide honen errealitatea. Bizi den herriko eskola publikoan eskolatzea baztertzen da, hezkuntza behar berezi goiztiarrekoak ez diren beste haur batzuen aldean lehentasunezko eskolatzea bermatzeko nahikoak ez diren onarpen irizpideak aplikatuz eta, ondorioz, familiak herriko beste ikastegi batera jo behar izan du (itunpeko ikastegi pribatua). Gainera, esan behar da, nahitaez, ikastegi horrek ez duela ikasgela publikoaren ezaugarriez gozatzen, finantzaketari dagokionez behintzat.

⇒ *Ikasleen ama hizkuntzaren arabera bereiztutako hizkuntza tratamenduko hezkuntza proiektua* (492/2002)

• Erreklamazioa

Guraso batzuk kezkatuta agertu zitzaizkigun eskola publiko batean D ereduko haurrak ama hizkuntzaren arabera banatzeko hartutako erabakiarengatik, zeren horrela zenbait gelatan 23 haur eta beste batzuetan 15 edo 16 haur geratzen baitziren. Era berean, beldur ziren neurri horrek ikasleak onartu edo garraio eskola antolatzeko orduan izan zezakeen eraginaz.

• Azterketa

Erakunde honetatik planteatutako esku-hartzean zehar, Ikastegietako Zuzendariak txosten bat helarazi zigun, non ikastegian ikasleen ama hizkuntzaren arabera hizkuntza tratamendu desberdina emateko curriculum proiektua zegoela baiesten zen –proiektua Hizkuntza Politikarako Idazkaritzako Kabinete Teknikoak abalatzen zuen- eta balizko desorekak zuzentzeko lehen hezkuntzako etapan zenbait neurri osagarri aurkezten zituen. Hartara, esaterako, irakurketa eta idazketa, eta matematikak bezalako ikasgaietarako gelak erdibitzea, talde-ikasgelaz bestelako multzoak egitea, hala nola, zikloka antolatutako tailerrak… aipatzen ziren.

Txostena irakurtzean ohartu ginen zalantzan jarritako hezkuntza proiektuak eredu arrazoitu eta proportzionatuari erantzuten ziola, euskal eskola publikoei aitortzen zaizkien pedagogia eta kudeaketa autonomiaren barruan sartzen zela. Beraz, ikasleei ematen zitzaien hizkuntza tratamendu desberdindua ezin zen baztertzailetzat jo. Horren ildotik, aitortu behar da, ezinbestean, ikastegien kudeaketa autonomiak aurretiaz eratutako muga batzuen barruan sartzen diren antolakuntza eredu guztiak –esaterako, gela bakoitzeko gehienezko ikasle kopuruak-, nolabait justifikatuta badaude, ados ez egon arren, objektiboak eta arrazoituak badira, nahi eta neurriekin ados ez egon, onartzera behartzen duela aitortu behar da, ezinbestean, eskuartean daukagun kasuan bezala. Aurkakoak antolakuntza eredu bakarra ezartzera eramango luke, ikastegiei ezer antolatu edo prestatzeko aukerarik eman gabe.

Desberdin gertatzen da, ordea, ikasleak onartu eta garraio zerbitzua atontzeari dagozkion alderdiak direnean. Izan ere, prozesu eta zerbitzu osagarri horien izapideak eta kudeaketa legez ezagututako hezkuntza ereduei (A, B eta D) doitu behar zaizkie, ikastegi horretan jarraitutako eta *murgildu* eta *mantendu* izenez ezagunagoak diren curriculum proiektu bereziek, horretan inolako ondorerik izan ez dezaketelarik.

• Emaitza

Ondorio horiek kexa jarri zutenei helarazi genizkien, eta beraiek ez digute ikasleak hizkuntza zioengatik ustez baztertzen direneko tratua dagoenik oinarri eta argudioz eusteko datu berririk eman.

### ⇒ *EHU. Ikasle ezinduen integrazioa* (620/2002)

• Erreklamazioa

EHUn ikasten hasia zen gazte ezgaitu batek gugana jo zuen, eskolatzeko baldintza egokiak jar ziezazkioten esku har genezan.

• Azterketa

Kexa hori guretzat berria zenez, Arartekoak bereziki baloratu zuen gaztearen eskolatze baldintzen jarraipena egitea komeni zela, ezgaitasunen bat daukaten unibertsitateko gazteen integrazio baldintzen errealitatea kontrastatzeko balio zezakeelakoan.

Hartara, egiaztatu ahal izan genuen Unibertsitateak barrera arkitektonikoak ezabatzeko eta hainbat espazio fisiko moldatzeko neurriak hartuak zituela, gaztea ikasten ari zen zentrora hobeto sartzeko.

Era berean, jakin ahal izan genuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak eta EHUk ituna sinatuta zeukatena, unibertsitatekoaz bestelako irakaskuntzaren alorrean hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleez arduratzen diren profesionalek –hezkuntza bereziko laguntzaile gisa ezagutzen direnak- beren jarduera ezgaitasunei aurre eginez unibertsitatean ikasten jarraitzen nahi duten ikasleengana hedatzeko. Horrek, zalantzarik gabe, aurrerapen handia dakar eguneroko bizitzako ohiko eginkizunetarako ere behar den autonomiarik ez duten ezgaitasun larriko ikasleei artapen egokia ziurtatzeko.

Kexa honen izapidetzeak, ordea, beste alderdi bat zehaztu beharra utzi zuen agerian, garraioaren zerbitzu osagarriaren antolakuntzarena, hain zuzen, gure ustez ikasle horientzat funtsezkoa baita.

Horren gainean, gure iritziz, ezinbestekoa da Unibertsitateak ezarri nahi duen Integrazio Planak berak argi eta garbi adieraztea noraino heltzen den ikasle ezgaituen integrazioarekin zerikusia duen konpromisoa, EHUn ikasi nahi duten ikasleentzako egokitzapenen eta laguntzen zer-nolakoak definitu eta zeri euts liezaioketen finkatu ahal izateko.

Horrela, Unibertsitate honen konpromisoa unibertsitateko esparru estuan irakaskuntza ziurtatzeko behar diren egokitzapen eta laguntzetara mugatuko balitz, erakunde honen ustez, baldintza horiek agerian jarri beharko lirateke ikasle hauen matrikulak izapidetzen diren unean, zeren egokitzapenen eta ematen diren laguntzen mailak erabat baldintzatzen baitu ikasle hauek nahi dituzten ikasketak egin ahal izatea ala ez.

Puntu honetan, ezin izan dugu esan gabe utzi Unibertsitatearen konpromisoa unibertsitateko esparru estuan irakaskuntza ziurtatzeko behar diren egokitzapen eta laguntzetara mugatuko balitz, Integrazio Plana partziala dela besterik ez genezakeela

esan, zeren izan ere duten ezgaitasun maila handiarengatik laguntza osagarriak behar dituzten ikasleen beharren artapena –kexa jarri duen gaztearena kasu- saihestuko bailuke.

Bestalde, EHUk ikasle ezgaituen integrazioari dagokionez duen konpromiso maila oso datu garrantzitsua da, unibertsitateko ikasle ezgaituen artapenean presentziarik izan nahi duten erakunde eta administrazio desberdinen erantzukizun mailaren inguruko zalantzak argitzen utziko bailuke.

Dena dela, kexa izapidetzean, erakunde honek jakin ahal izan du Eusko Jaurlaritzaren egiazko ekimen bat dagoela, beren ezgaitasunarengatik ohiko garraiabideak erabili ezin dituzten ikasleentzat moldatutako garraio beharrak finantzatzeko laguntzen sistema artikulatzen saiatzeko. 2002ko abenduaren 3ko Agindua da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuarena, ikasle ezgaituentzako unibertsitaterako garraioko gastuak ordaintzeko 2002-2003 ikasturterako laguntzen deialdiaren gainean (EHAO 237, abenduaren 12koa).

• Emaitza

Kexa izapidetzeko egin genituen gestioei esker, ezgaitasunen bat daukaten unibertsitateko ikasleen integrazioa ziurtatuko duten baldintza egokiak bilatzeko ahalegin erabakia zegoela jakin ahal izan genuen.

### ⇒ *Derrigorrezko bigarren hezkuntza. Amaierako ebaluazioaren erreklamazioa* (955/2002)

• Erreklamazioa

Bigarren hezkuntzako institutu bateko irakasle batek erakunde honen aurrean zalantzan jarri zuen hezkuntzako arduradunek hartutako erabakiaren zuzentasuna. Hezkuntzako arduradunek onartu egin zuten ikasle batek azterketara aurkeztu ez zelako jarri zioten ez-gaindituarengatik ipinitako erreklamazioa, eta ikasleari, arrazoi medikoengatik aurkeztu ez zela justifikatu ondoren, bigarren aukera bat eman zioten.

• Azterketa

Egiaz, irakasleak dira ikasleen ikaskuntza ikastegiko curriculum proiektura sartutako xede eta irizpideen arabera ebaluatzeko prozesuaren arduradun nagusi eta benetakoak.

Hala ere, irakasleen berezko ebaluazio eginkizun edo lan hau ezin da modu absolutu eta mugagabean ulertu, legezko aginduz espresuki ikasleen etekin akademikoaren balorazioa ezaugarritu behar duten notak kontuan izan behar direlako. Hartara, LOGSEk bere garaian ekarri zuen hezkuntza sistemaren antolamendu berriak dei berezia egiten du ikasleen ebaluazio lana, batez ere derrigorrezko bigarren hezkuntzan, modu jarraitu eta integratzailean egin dadin (22. art. 22); nota horiek, bestela ezin izanik, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren gaineko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuaren uztailaren 16ko Aginduan ere nabarmenduta ageri dira (2.1. art.).

Era berean, ebaluazio eginkizun honen kontrapuntuan ikasleek beren etekin akademikoaren balorazioa irizpide objektiboen arabera egin dadin duten eskubidea dago. Hartara, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak, unibertsitatekoak ez diren EAEko ikastegietako ikasleen eskubideak eta betebeharrak sistematikoki garatzean, espresuki

aipatzen du ikasleek beren eskola etekina objektibotasun osoko irizpideen arabera balora dadin duten oinarrizko eskubide hori, eta bere edukian ikasleek –edo beren legezko ordezkariek- ebaluazioen kalifikazioen aurka erreklamatzeko duten eskubidea sartzen du. Xehetasun handiagoz, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren gaineko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuaren uztailaren 16ko Agindua, hezkuntzako etapa zehatz horretan ikasleen ikaskuntza araupetzean, objektibotasun osoko irizpideen araberako ebaluazioaren bermeez arduratzen da espresuki, amaierako ebaluazioen erreklamazioetarako prozedura bat ezarrita (25. art.).

Hara, bada, planteamendu horretatik abiatuta, eta kexan laburbiltzen ziren salaketa zehatzak aztertzera sartuta, erakunde honen ustez ikaslearen legezko ordezkariek jarraitutako erreklamazioen bidea , derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren gaineko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuaren uztailaren 16ko Aginduko aurreikuspenetara doitu zen.

Zailtxoagoa izan zen, ezbairik gabe, Lurraldeko Ordezkariak hartutako eta ondoren Hezkuntza Sailburuordeak berretsitako ebazpenaren mamia baloratzea, ikasleak bigarren azterketa edo froga egin ziezaioten egin zuen eskariari baiezkoa erantzun ziotenekoa.

Puntu honetan berriro jo behar izan genuen derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren gaineko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuaren uztailaren 16ko Aginduaren aurreikuspenetara. Hara zer dioten Agindu horretako 25.4 eta 27 artikuluek:

> *"Lurralde Ordezkaritzak ebatziko du, aurretiaz Hezkuntza Ikuskaritzak gehienez zazpi egutegi egunen buruan egingo duen txostenarekin, Agindu honetan, PCCn* ***oinarrituz****, zein diren deneko arlo edo ikasgaiaren programaketa, gutxieneko eskakizunak eta jendaurrera ateratako kalifikazio irizpideak, ikaslearen ariketak, lanak, frogak eta azterketak eta, izatekotan, kalifikazio bereko eta ikasleak berarentzat eskatzen duen kalifikazioko beste ikasle batzuenak. Kontuan hartuko dira, bereziki, Agindu honen 27, artikuluak hizpide dituen frogen emaitzak, froga horiek egin badira." (25.4. art.)*
>
> *"Ikasleek beren etekina objektibotasun osoko irizpideen arabera ebalua dakien duten eskubidea bermatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikastegi Publiko eta Pribatuetara joaten denean, Agindu honetan xedatutakoa betetzen dela kontrolatuko du, Eskola Liburuak, Ebaluazioen Aktak eta Espediente Akademikoak bete eta zaintzen diren begiratuko du, eta* ***bere ekimenez edo erreklamazio bat medio frogak edo ariketak proposatu ahal izango ditu.*** *Hezkuntza Ikuskaritzak berak deneko arlo edo ikasgaiko irakasleek zein horretarako mandatua ematen zaien besteren batek egindako froga horiek zuzenean ikuskatu ahal izango ditu. Edonola ere, gai jakin batean froga osagarriak proposatzeko eta horiek ikuskatzen norberak parte hartzeko erabakia deneko arlo edo ikasgaian adituak diren ikuskatzaileek hartu beharko dute" (27. art.).*

Arauketa horren arabera, agerikoa zirudien irakasleek egindako hasierako ebaluazioa berrikusteko aukera zegoela, baina betiere berrikuspen hori behar bezala motibatuta eta oinarritua egotekotan, agindu horren artikuluetan ere esaten den modura.

Arestikoa kontuan izanik, gure irizpenerako aurkeztutako ebaluazio gorabehera hori baloratzean, erakunde honek pentsatu zuen hezkuntza ikuskaritzaren esku-hartzea ez zela esandako aurreikuspen horietara doitu, zeren lurraldeko ordezkariak azkenean hartu zuen erabakiaren oinarri izan zen ikuskaritzaren txostenak ez baitzuen azaltzen, ezta argudiatzen ere, erabakitako berrikuspen hori eta ikasleari beste azterketa bat egiteko aukera ematea, ikaslea joan ez izanaren balizko justifikazioa bazegoela iradokitzera mugatu besterik ez baitzen egiten, baina ingurumaria horrek nola balia zitezkeen zehaztu gabe.

Are gehiago, gure iritziz, hezkuntza ikuskaritzak saihestu egin zuen ikaslea aurkeztu ez izanaren ingurumariez gutxieneko ikerketa edo frogak egitea, ez eta ez joateren ondorengo justifikaziorako exijentziarik eta justifikazio horren egiazkotasunik ikertu ere, behin justifikazioa ekarrita.

Jarduera oker horren aurrean, ez genekien ziur zein zen azken batean ikaslearen eskariari baiezkoa emateko eta beste froga bat egiteko aukerarako ebazpena eragin zuen zio zehatza. Hori erabakigarria zen ikastegiaz bestelako hezkuntza instantzien esku-hartzea derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren gainean onetsitako antolamenduan biltzen dituen aurreikuspenen arabera garatu zen ala ez baloratu ahal izateko.

• Emaitza

Erakunde honek arestiko ondorioak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari helarazi zizkion, antzemandako akatsez jabetuta, kexa jartzea eragin zuena bezalako ebaluazio gorabehera gehiagorik gertatzea saihesteko neurri egokiak har zitezen.

⇒ *Hezkuntza behar berezidun neskatoa, ASPACEren itunpeko ikastegi batean eskolatuta. Eskola garraioa* (1041/2002)

• Erreklamazioa

Zerebroko paralisiak jota eta ASPACEk kudeatutako hezkuntza bereziko ikastegi batean eskolatutako hiru urteko neskato baten gurasoek gure erakundeari esku hartzeko eskatu zioten, beren alaba eramateko garraio zerbitzu egokirik ez zegoelako.

• Azterketa

Kexaren tratamendura sartzean, erakunde honek ondoko ingurumaria hauek eduki zituen kontuan:

Lehenik eta behin, neskatoaren adina: hiru urte. Horrek –Euskal Eskola Publikoaren legearen aurreikuspenak kontuan hartuta- eskolatze orokor eta doakoaren etapan kokatzen gintuenez, hezkuntza Administrazioak izan beharko luke neskatoaren beharrei erantzun egokia ematearen arduradun nagusia, gizarte eta osasun esparruan dauden beste administrazio batzuen balizko lankidetzaren kalterik gabe.

Bigarren, ASPACE elkarteak kudeatutako ikastegi honen eta beste ikastegi batzuen izaera pribatua, eta gainera, zerebroko paralisiak jotako haurrak eskolatzeko bereziki egoki eta hornitutako ikastegiak direla.

Azkenik, hirugarren, beren etxetik urrun dauden ikastegietan eskolatutako haurrentzako eskola garraioko zerbitzu osagarria arbitratu beharra.

Era berean, gure esku-hartzea planteatu baino lehen, hezkuntza Administrazioak ASPACE elkartearekin sinatuta dituen itunen irismena ezagutzeko aukera izan genuen. Horretaz jasotako informazioaren arabera, itun horietan ez da aurreikusten –beren beregi ez behinik behin- garraioaren alderdia, eta horregatik balizko laguntza guztiak urteroko eskola garraiotako banan-banako esleipenen deialdien bitartez kudeatzen ari direla ematen du.

Datu hori kontuan hartuta, laguntza hauen azkeneko urteko deialdiaren zioen azalpenak begiratu genituen.

> *"Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak ikasturtez ikasturte Eskola Garraioko Zerbitzua antolatzen du, irakaskuntzaren osagarri gisa, urrun bizi diren ikasleen eskolatzearen xedea betetzeko.*
> *Zerbitzu hori ibilkizun jakin batzuetan antolatzen da, ikasleen kopurua, tartea eta denbora kontuan hartuta.*
> *Badira ikasle batzuk, aipatutako ibilbide horietara egokitzen ez direnez, egunero ikastegira etorri ahal izan dezaten alternatiba bat behar dutenak, eta alternatiba hori joan-etorrien kostea Eskola Garraioko Banan-Banako Esleipenen deialdiaren bidez ordaintzea da."*

Hartara, laguntza horiek aurretiaz antolatutako garraio zerbitzu osagarrien subsidiario gisa eratzen direla ikusi genuen, eta horiei eusteko aukera onartzen zaiela, ez-ohiko legez bada ere (eta hala behar luke ASPACEk kudeatutako ikastegietan eskolatutako haurren kasuan) ondokoei: beren bizitokiaren eragin eremuan hezkuntza maila eta hizkuntza eredu egokiko ikastegi publikorik ez dagoelako, itunpeko ikastegietan dauden ikasleei, eta –uste dugu- horri ikastegia 2 kilometro edo gehiagora egon dadin gehitu behar zaio.

• Emaitza

Hara, bada, arestian iruzkindutako aurrekari guztiak kontuan izanik, erakunde honek ulertu zuen hezkuntza Administrazioaren ardura zela ASPACEk kudeatutako ikastegietan eskolatutako haurrentzako garraio zerbitzua arbitratzea (beren bizitokiaren eragin eremuan hezkuntza maila eta hizkuntza eredu egokiko ikastegi publikorik egon ezean), bai aurretiazko zerbitzua antolatuz, bai banan-banako laguntza edo esleipenak kudeatuz. Bi kasuetan haur horien behar bitxiak bereziki kontuan hartu beharko lirateke, haur horietako gehienek garraiabide egoki eta moldatua behar izan dute-eta.

Txosten hau amaitzeko unean, baietsi digute kexa honetako neskatoaren kasuan, hezkuntza Administrazioak onartu egin duela, gure erakundeak iradoki zion bezala, ASPACE elkarteak antolatutako garraio moldatuko zerbitzuaren kostea ordaintzeko aukera ematen duen banako laguntza.

### ⇒ *Eskola garraioa* (1070/2002)

• Erreklamazioa

Gasteizen B ereduko herri ikastegi batean eskolatu zen hiru urteko neskato baten gurasoek gure erakundearengana jo zuten Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak haurraren

eskolatzearen baldintzak berrikusteko hartutako erabakiaren ondoren, bi alternatiba planteatzen zitzaizkielako: garraio zerbitzua galtzea (eskolatuta zegoen ikastegian jarraitzekotan), edo eremuarengatik zegokion beste ikastegi batera aldatzea. Neskatoa Gasteiztik urrun zegoen Arabako herri batean zegoenez, garraio zerbitzu osagarria funtsezkoa zen berarentzat.

• Azterketa

Kexa jarri zutenek ziotenarengatik, alaba Gasteizko B ereduko herri ikastegi batean onartu eta matrikulatzeko izapideak egin zituztenean, eskola garraioaren beharra zeukatela adierazi zuten, eta ikastegiak ez zien horretaz inolako eragozpenik jarri. Izan ere, 2002-2003 ikasturtea hasi zenetik, neskatoak egunero hartzen zuen herri berean bizi ziren beste haur batzuk ere eramaten zituen autobusa. Beste guraso batzuek garraio zerbitzua luzeegia zelako jarri zuten kexa izapidetzean soilik, ohartu zen Administrazioa neskato honi, eremuen irizpideak aplikatuz zegozkion ikastegien artean ez zegola matrikulatu zuteneko hura. Horregatik planteatu zioten garraio zerbitzua galtzea (bertan jarraitzekotan) ala eremuz zegokion beste eskola batera aldatzea.

Gure erakundearen iritziz, ezin zen defendatu ikastegi baten hasierako jarduera, haurraren matrikulazioa onartzea, ikastegian onartzearekin zituen garraio beharrak ere onartu behar zituela jakinik, akats huts gisa jo zedin, berme handiagorik gabe egoera hori berraztertzeraino helduz.

Gure ustez, kexaren ikuspegi egokiak ikastegiko gurasoek neskatoaren matrikula gestionatu eta gauzatzean mantendu eta defendatutako jarrera argitzea eskatzen zuen. Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari eskatu genion, hezkuntza Administrazioaren partetzat jo behar den ikastegiak emandako informazioak, gurasoei alaba onartzeak garraio zerbitzua erabiltzeko aukera zekarrela benetan pentsarazi ahal izan zien ala ez egiaztatzeko.

Hori egiaztatu eta ezezko zantzurik igartzekotan, kasu honetan gurasoen erabakia neskatoari eremu irizpidez zegokionaz bestelako ikastegi baten aldeko aukera libretzat jo liteke, baina aukera horrek zerbitzu osagarriez baliatzeko eskubiderik sortzen ez duela garbi edukita.

Bestela, hau da, informazioak garraioa bermatuta zeukatela pentsarazi ahal izan bazien, gure erakundearen ustez, ezin liteke familia horrekin hartutako ardura saihestu eta, hartara, hezkuntza Administrazioa behartuta legoke neskatoak bere herritik egin beharreko eguneroko bidaiak ziurtatzera edo nolabait konpentsatzera.

• Emaitza

Erakunde honen esku-hartzeari erantzuteko, hezkuntza Administrazioak eskola garraioaren ibilkizunak xehetasunez azaldu zituen, B ereduaren oraingo plangintza eta gune banaketa kontuan izanik, guraso horiek eskatutakoa bezalako garraio zerbitzu osagarririk eskaintzea ezinezkoa zela argudiatzeko. Ohartarazi ziguten, halaber, ikastegiko zuzendariak esan zuela ez ziotela inoiz familiari eskola garraioaren zerbitzu osagarriaren aukerarik aipatu.

Txosten hau amaitzeko orduan, kexa jarri zuten gurasoek oraindik ez dute ateratako ondorioak aldarazteko zantzu berririk aurkeztea lortu.

## B) **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

⇒ *Erlijio irakaskuntzarako erabiltzen den eskola materialaren edukien analisiaren gainean* (684/2001)

• Erreklamazioa

Elkarte gay bateko buruak kexa bat aurkeztu zigun, laburbilduz, itunpeko ikastegi pribatu batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan erabiltzen zen erlijio katolikoko liburu baten sexu ñabardurako edukien tratamenduarekin, bereziki homosexualarekin ados ez zegoela zioen.

• Azterketa

Gugana jo baino lehenago, desadostasun hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari jakinarazia zion. Sail horrek Hezkuntza Berritasuneko Zuzendaritzaren bidez erantzun zion, baina erantzunarekin bat ez zetorrenez, gaia gure irizpenaren mende jarri nahi izan zuen.

Lehenengo hurbilketa batean, hezkuntza Administrazioaren erantzuna ez zitzaigun oinarririk gabea iruditu; bertan, administrazioak zalantzan jarritako testuaren gainean esku har zezan eskariaren aurrean, Sailak zioen erlijioko eskola materialen edukien egokitasuna erabakitzea elizaren kontua zela, eta erreklamaziogileari, aldi berean, bere asmoak bideratzeko hainbat bide eta toki proposatu zizkion: materialaren argitaletxea, edukia baimentzen erlijio erakundea, liburua hautatzen duen eskola kontseilua.

Arrazoibide horri oinarria ikusten genion aldi berean, arazoan biltzen ziren alderdiak xehetasunez aztertu genituen eta, jarraian esango ditugun balorazioen arabera, kexa izapidetzea erabaki genuen.

Egia da, aipatutako erantzunean esaten den bezala, erlijioaren irakaskuntzarako erabiltzen den materialaren edukiak aztertzea Elizaren kontua dela. Ondorio hori ateratzen da EAEko eskoletan erabiltzeko eskola materialen baimena araupetzen duen azaroaren 3ko 295/1998 Dekretuak (azaroaren 27ko EHAO) xedatzen duena ikusita. Hartara, dekretu horren 12. artikuluak hauxe dio:

> *"Erlijioa ikastearen berariazko eta borondatezko izaerari adituz, material horien baimena ematea materialen edukia finkatzearen arduradunei egokituko zaie. Eskola material horiek formatu independentean editatuko dira".*

Aurreikuspen honen haritik, I. eranskinean, non material motaren arabera egitekoa den egokitasun analisia zehazten den, Elizak eduki horiek aztertzeko duen eskumena jasotzen da, bera baita, jakina, aurretiaz, eduki horiek finkatzen dituena.

Hara, bada, ulertu genuen aurreikuspen horiek ez dutela esan nahi hezkuntza Administrazioak gaian ez esku hartzeko agindurik dagoenik. Dekretuak berak dioen bezala, eskola material baten egokitasunak, bere ezaugarriak kontuan izanda, hizkuntzaren azterketa eta analisi teknikoa egitea ere eska lezake; hau da, ez edukiena soilik. I. eranskinean, azkeneko esparru horri dagokionez, Elizaren eskumena islatzen denean, horrek ez du esan nahi elizaren esku daudenik egokitasun analisiaren balizko beste bi esparru horien analisia eta, horrela, erlijio agintaritzen kontroletik kanpo geratzen dira.

Edukien plano zehatzetik ere, esan liteke aitorpen desberdinetako agintarien esku jartzerik ez dagoen gutxieneko bat ere badagoela, erlijioaren irakaskuntzarako erabiliko diren liburu eta materialak aukeratzeko orduan eta, oro har, deneko erlijio fedearen irakaskuntzaren curriculumaren gainean. Beraien esku jartzerik ez dagoen gutxieneko horren kontrola hezkuntza administrazioen gainera soilik etor daiteke, beraiek baitira horren bermegileak eta hezkuntza sistema osoa ikuskatzearen arduradunak. Ez dezagun ahantzi sistema horrek egun erlijioa gai ebaluagarri gisa eratzen duela, Unibertsitatearen aurreko mailetako gainerako irakasgaiak bezala, harira ez datozen salbuespen batzuk kenduta.

Horretara helduko ginateke, gutxienez, erlijioaren irakaskuntza araupetzen duen abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretua irakurri ondoren (1995eko urtarrilaren 26ko BOE); 4.2 artikuluak, zehazki, hauxe dio:

> *"Erlijio irakaskuntzaren curriculumeko liburuak eta materialek beren testu eta irudietan konstituzioaren aginduak eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 2.3. artikuluak hizpide dituen hatsarreak errespetatuko dituzte".*

Behar hori, oro har, orduko Hezkuntza eta Kultura Ministerioak kudeatutako lurraldeari erantsita geratu zen, uztailaren 31ko 1744/1998 Errege Dekretuaren bidez (irailaren 4ko BOE). Hara zer dioen bere 4.1. artikuluak:

> *"Ikasleen eskueran jartzen diren curriculumeko material guztiek beren testu eta irudietan sexuen arteko berdintasunaren hatsarreak islatuko dituzte, bazterkeria oro errefusatuko dute, jokabide demokratikoko ohiturak sustatuko dituzte, eta ikasleen balio etiko eta moralei adituko diete, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 2. artikuluaren 3. atalean jasotako hezkuntza hatsarreen ildotik."*

Formulazio horiek bat datoz azaroaren 3ko 295/1998 Dekretuaren 10.1.b) artikuluak Erkidego honetarako xedatzen duenarekin.

Gainera, gure lurralde esparrutik irten gabe eta kexak hizpide dituen hezkuntza eta fede mailetara mugatuta, 1994ko irailaren 6ko Agindua (irailaren 23ko EHAO) aipatu behar dugu, zeinen bidez EAErako eskuduna den eliza agintaritzak DBHrako ezarritako Erlijio Katolikoaren gaiaren curriculuma iragartzen den.

Ez dirudi zentzuzkoa denik hezkuntza curriculumik argitaratuko denik administrazioak horren edukirik egiaztatu ez badu, curriculum horrek eragina izango baitu irakaskuntzan erabiliko diren liburu eta materialetan, horien erreferente eta euskarri den aldetik.

Gehiago uste dugu argitaratu bada, aurretiaz aztertu delako argitaratu dela, eta azterketa horretatik besteren esku jartzerik ez dagoen gutxieneko eremu horri lotutako irregulartasunen bat egiten ari dela ondorioztatzen bada, azterketa egiten duen administrazioa izango da curriculuma ezarri duen erlijio agintaritzarengana joko duena, behar den zuzenketa egin dezan.

Gogoeta horiek aipatutako sailari helarazi genizkion, beraiek emandako erantzuna iradokitako ikuspegi honetatik erabat egokitzat jo genezakeela gehituz;hau da, erantzuna

erreklamaziogilearen alegazioak kolokan jarritako liburuaren edukiarekin alderatu direneko prozesuaren benetako ondorio bada.

Bidalketa horrek hezkuntza Administrazioaren eta Arartekoaren artean hainbat gutunen joan-etorria eragin zuen, baina ez zen aipatzeko moduko ikuspegi berritzailerik izan; hori bai, administrazioak erreklamazioa ebatzi zuenean jada adierazi zuen ideiari eusten zion.

Jarduerari amaiera emateko, berriro jo dugu Sail horrengana, auzitan dagoen liburu horren konstituzioaren aginduak eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 2.3. artikuluaren hatsarreak urratzen dituen ala ez uste duen jakinaraz diezagun eskatzeko.

• Emaitza

Lerro hauek idazten ari garenean oraindik ez digute eskariari erantzun; beraz, kexak behin betiko ebazpenaren zain jarraitzen du.

## C) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *EHU. Barne ikuskaritzako txostenak ikusi ahal izatea* (785/2002)

• Erreklamazioa

EHUko irakasle talde batek bitartekaritza eskatu zigun bere sailari buruzko kontularitza informazioaren berri izatea lortzeko eta, bereziki, sailaren jarduera ekonomikoaren gainean egindako barne ikuskaritzako txosten batena.

• Azterketa

Erakunde honen hasierako esku-hartzeari erantzuteko, EHUko Idazkari Nagusiak, Ekonomia Gaietarako Errektoreordearen eskariz bidalitako Lege Aholkularitzako txosten batean azaldutako pentsamendu eta iritziak bere eginez, jarraian jasotako ondorioei eutsi zien:

> *"* Saileko Kontseiluko kideek eskubidea daukate beren saileko kontularitzako dokumentazioa ikusteko, Sailaren organo kolegiatuko kide gisa dagozkien betekizunen jardunean, eta saileko eskumenen jarduerarako.*
> ** Ez ordea sailaren jarduera ekonomikoaren gainean egin ahal izan den ikuskaritza txostena ikusteko, kontseilu horretako kideei ez baitagokie Sailaren barruko ekonomia eta finantzen kontrola egitea, Unibertsitateari baizik, eskumeneko organoen bidez, eta organo horiek, ikuskaritza egin ondoren, ikuskatutako organoaren titular den Sailaren Zuzendariari soilik bidali beharko diote.*
> ** Saileko Kontseiluak Zuzendaritzaren kudeaketaren aurrean bestelako kontrol biderik artikulatu ahal izango du, baina ez dira barruko ekonomia eta finantza kontrolatzeko neurriak izango, horiek, edonola ere, Unibertsitateko Errektoreari baitagozkio..."*

Oraintxe idatzi ditugun ondorio horiek kexa jarri zutenen asmoak betetze zituzten, gure ustez, sailaren kontularitzako dokumentazioa ikusi ahal izateari zegokionez, baita

sailaren zuzendaritzaren kontrolerako barruko ekonomia eta finantzen kontrol berariazkoaz bestelako kontrola egiteari zegokionez ere.

Ez zen hala gertatzen, ordea, sailaren jarduera ekonomikoaren gainean egindako barruko ikuskaritzaren txostenarekin..

Azkeneko horren inguruan, EHUtik bidalitako txostenean bi ohartarazpen egiten ziren:

Batetik, saileko kontseiluak barruko ekonomia eta finantzen kontrolerako eskumenik ez zeukala adierazten zen, Unibertsitateko Estatutuen aurreikuspenetara jota, baita Unibertsitateko Errektoregoaren egitura eta funtzionamendu eremuen eta eskumenak eskuordetzearen gaineko Errektorearen ekainaren 14ko Ebazpenean jasotako arauketara ere (EHAO 131, uztailaren 10ekoa), eta ohartarazpen horren aurkako eragozpenik jartzerik ez geneukan.

Bestalde, EAEko ekonomia eta kontularitza kontrolerako arautegia onesten duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako arauketa ere aipatzen zen, saileko kontseiluari jada egindako barneko ikuskaritza txostenak ikusten ez lagatzea justifikatzeko.

Egia da EAEko ekonomia eta kontularitza kontrolerako arautegia onesten duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 22.3 artikuluan, Unibertsitaterako horra jotzen du –ez dakigu oso ondo zertarako-, kontroleko txostenekin zer egin hartzaileek soilik erabaki ahal izango dutela dioena, beraiek baitira ondo erabiltzearen eta zaintzearen arduradunak.

Hara bada, dekretu horrek EAEko Ekonomia eta Kontularitza Kontrolaren ekainaren 30eko 1/1994 Legearen 19.3 artikulua garatu eta osatzen du, zein hauxe esatera mugatzen baita: *"arauz zehazten denaren ildotik, txostenak kontrolatutako erakunde edo organoetara, Sailetako Kontseilariei eta Gobernu Kontseiluari bidaliko zaizkie."*

Hartara, gure iritziz, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 22. artikuluak egiten duen arau garapenari eslei dakiokeen birtualtasun bakarra –*"txostenen banaketa"* goiburupean-, ikuskaritza lanaren emaitzazko behin betiko txostenak administrazioko zein kargudun edo arduraduni bidali behar zaizkion zehazten duela da, horiei ondo zaindu eta erabiltzeko betekizuna emanez. Baina hortik ezin da, inola ere, arau horrek barruko txosten horiek isilean gorde behar direnik ondorioztatu, esaterako, ikerketa lanetan zehar erabiltzen diren lan paperekin gertatzen ez den bezala, halakoetarako bai esaten baita isilekoak direla eta Ekonomia Kontroleko Bulegoak soilik erabili eta ikusi ahal dituela.

Horregatik, gure erakundearen ustez, urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren arauzko aurreikuspen zehatz honen irismenaz sor litezkeen kasuan kasuko zalantzak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen (LRJAP) 37. artikuluak herritarrei administrazioaren dokumentuak ikusi ahal izateko eskubidea ziurtatzearen alde egiten duen interpretazioarekin ebatzi behar dira.

Izan ere, Konstituzioaren 105 b) artikuluan aitortutako eskubideaz LRJAPren 37. artikuluak egin duen lege eraketa gutxieneko bermeen oinarrizko arauketa gisa hartu behar da, eta berme horiek berariazko araubideen gainetik ere nagusitu behar dira-esaterako, ekonomia eta finantza kontrolaren gaiko txostenak ikusi ahal izateko araubidea izan litekeenaren gisara-, legean bertan espresuki aurreikusitako salbuespen eta mugez bestelakorik gabe, konstituzio mailako garrantzia duten beste ondasun edo eskubide batzuei adituz.

• Emaitza

Erakunde honek berriro jo behar izan zuen EHUrengana laguntza esker, EAEko ekonomia eta kontularitza kontrolerako arautegia onesten duen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 22.3 artikulura jotzeaz harantzago, kexa hau jarri zuten interesatuek eskatutako barneko ikuskaritzako txostenak ikusi ahal izatea ukatzea justifika lezakeen salbuespen edo mugarik zegoela motibatzeko. Txosten hau amaitzeko orduan EHUk gure eskariari erantzun gabe jarraitzen du eta, ondorioz, LRJAPren 37. artikuluan araupetutako ikusteko eskubide horren balizko urraketa edo kaltearen inguruko zalantzak mantentzen dira.

# 5. FUNTZIO PUBLIKOA

## 5.1. SARRERA

Funtzio Publikoaren alorrean, denetara 120 kexa jaso ditugu 2002. urte honetan, hau da, tramitaturiko kexa guztien % 12,28.

Kopuru hori 2001. urteko datuekin alderatuz gero, 2002an 246 kexa gutxiago izan direla ikusiko dugu. Hori horrela izan da ekitaldi honetan ez delako taldeko kexarik aurkeztu, eta aurrekoan, berriz, horrelako kexak aurkeztu zituztela osasun sektoreko bitarteko enplegatuek (119 kexa) eta IRALE programan sarturiko irakasleek (145 kexa).

Ukituriko herri administrazioen arabera, kexak honela daude banaturik:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........... 65
- Foru administrazioa ........................................................................ 11
- Tokiko administrazioa ...................................................................... 25

Tramitatu diren gaien edukia kontuan hartuz gero, kexak honela bana daitezke azpiarloka:

| | |
|---|---|
| Funtzio publiko orokorra | 64 |
| Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa | 22 |
| Osasun alorreko funtzio publikoa | 21 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 8 |
| Poliziaren alorreko funtzio publikoa | 4 |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 |

### Funtzio publiko orokorra

Arreta berezia eskaini genien, 2001. urteko txostenean, EAEko Administrazio Orokorreko 2000ko EEPn (Enplegu Eskaintza Publikoa) iragarri ziren aukeraketa-saioen inguruko kexei. Horrelako kexak jasotzea, berez, gauza pozgarria iruditu zitzaigun, erakunde honek behin eta berriz salatu duen arauz kanpoko jokabide bat amaitu zela erakusten zigulako, alegia, urtez urte enplegu eskaintza publikorik ez egitea. Egoera horren erruz, jakina denez, bitarteko langileak euren zerbitzuen zerrenda normalizatu ezinik zeuden, beste ondorio batzuen artean.

Zoritxarrez, aurten ez dugu pozik egoteko arrazoirik, zeren eta, zenbait auzitegitan eman diren epaiek hartaraturik, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak azkenean eten egin behar izan baititu hasita zeuden aukeraketa-prozedura gehienak. Beraz, beste geldialdi batean aurkitzen gara, eta ez atzera-ez aurrerako egoera horrek ez ditu 2000ko EEPren esparruan iragarritako aukeraketa-prozesuak bakarrik ukitzen, lehenagoko prozesu batzuetan ere badu eragina, esate baterako, 1998ko deialdian iragarri zen lekualdatze-lehiaketan.

Harritu egin gaitu egoera horri buruzko kexa askorik ez jasotzeak, arestian aipatu ditugun epaiek gure esku-hartzeari jartzen dizkioten mugez jabeturik egon arren. Aurkeztu diren kexa bakanen egileek agerian jarri eta salatu nahi izan dute EAEko Administrazio

Orokorrean ari diren langileentzat ezinezkoa dela aldi baterako barne-sustapena lortzea, adibidez, goragoko mailako poltsetan edo ordezkoen zerrendetan sartuz. Beldur gara, nolanahi ere, erantzun murritz horren arrazoia ez ote den langileen asperdura eta etsipena; izan ere, kasu gehienetan, aldi baterako zerbitzuetan jarduten jarraitzeko aukera behintzat ziurtaturik daukate.

Dena dela, eta goian aipatu ditugun epai horiei zor diegun begirunearen kalterik gabe, nahitaez nabarmendu behar dugu arazo larri hau, EAEko Administrazio Orokorreko giza baliabideen ohiko kudeaketan dituen ondorioak larriak eta oso kontuan hartzekoak baitira.

EAEko Administrazio Orokorrean ez bezala, tokiko administrazio batzuetan, Vitoria-Gasteizko Udala kasu, ohiko eran jarraitu dute EEP tramitatzen, 2001. urteko txostenean azaldu genuen modu berean. Hain zuzen ere EEP horretan iragarritako kategorietako bat, administrari laguntzaileei dagokiena, 2002. urte honetan guztira 22 kexa tramitatzeko zio izan dugu. Oposizioko bigarren ariketa praktikoa nola egin zen salatu da kexa horietan guztietan; nolanahi ere, ikerketan ez dugu zantzu nahikorik aurkitu ariketa hori berrikus dadila proposatzeko, kexen egileek eskatzen ziguten bezala.

Funtzio publikorako sarrera kontuetan ere, zenbait komunikabidek argitaratu dituzten berriek ofizioz jardutera bultzatu gaituzte, egoitzadun atzerritarrek aukera izan dezaten EAEko herri administrazioek enplegua eskaintzeko egiten dituzten deialdietan parte hartzeko, eta lan-poltsetan, ordezkoen zerrendetan eta aldi baterako kontratuetarako zerrendetan sartu ahal izan daitezen (ikusi 7/2002 kexaren laburpena).

Aipagarria da, halaber, antzinatasuna eta beste prestazio osagarri batzuk hartzeko eskubidea lortu nahi zuen foru enplegatuaren kexa; aukeraketa-prozeduran ez zuen lortu karrerako funtzionario izenda zezaten, baina geroago epaileak prozedura baliogabetu egin zuen eta hura berrikusteko agindu zuen. Ezinezkoa izan da kexaren egileak eskatutako moduan eskubide horiek aintzatestea, zeren eta, epaiaren ostean ere, interesatuak aukera hutsa baino ez zuen izendatua izateko (ikusi 548/2002 kexaren laburpena).

Dagoeneko ohitura denez, hainbat kexa aurkeztu dira lizentzia eta baimenak emateko edo ukatzeko moduari buruz. Aztergai dugun urtean azpimarratzekoa da, gaia berria delako, udal enplegatu batek aurkeztu zuen kexa; beraren ustez ez da bidezkoa, senideen gaixotasun larriagatik lizentzia ematen denean, gaitzaren lehen eraso klinikoa gertatzen den egunak, eta, hala denean, gaixoa ospitaleratzen den egunak, lizentzia gozatzeko aldia erabat baldintzatzea.

Erakunde honek kexaren egokitasuna onartu zuen, eta horrelako lizentziak ematerakoan baldintza bakarra jartzeko gomendatu zuen, alegia, norberaren senideak gaixotasun larria duela froga dadila eskatzeko, eta epeak direla-eta halako baldintza berezirik ez ipintzeko. Bada, nahiz eta kexa hori tramitatu zenean administrazioak erakunde honen gomendioa ez onartu, gero ikusi dugunez, tokiko administrazioaren eremuan lan-baldintzak arautzeko akordioek (Efalbea) Arartekoak defendatutako ildoari jarraitu diote, hots, lizentzia emateko baldintza malguagoak ezarri dira, honakoa xedatuz: *"lizentzia-egunak hurrenez hurren edo tarteka har daitezke, eta lehenengo lizentzia-egunetik azkena arte gehienez egutegiko hamalau egun igaroko dira."*

Amatasunagatiko lizentzia gozatzeko baldintzak ere kexagai izan dira. Oraingoan, EAEko Administrazio Orokorraren zerbitzuan diharduen emakume funtzionario batek lizentziaren gaurko egitura salatu du, liberazio-orduen kopurua desberdina izaten delako, lizentzia-aldia suertatzen den garaian nolako lanaldia egiten den: lanaldi eten normalizatua

ala lanaldi jarraitua. Arartekoak ez ditu bere egin kexa horretan azaldutako argudioak, 288/2002 zenbakiko kexaren laburpenean ikus daitekeenez.

Azkenik, aurreko kexaren ildo beretik, EAEko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak egiten jardun duen emakume batek salatu egin du urteko lanaldiaren banaketa irregularrak desberdintasunak sortzen dituela, benetan egiten diren dedikazio-orduen kopuru osoari dagokionez.

Egia esateko, eperik gabeko kontratua egiten denean edo aldi baterako egoerak urte osoa irauten duenean, urteko lanaldiaren banaketa irregularra konpentsatu egiten da lanaldi-moten artean (lanaldi eten normalizatua eta lanaldi jarraitua) halako moduan non emaitza urteko lanaldi itundua bera baita. Horrela, urteko lanaldi osoaren eta kontraprestazio gisa itundutako ordainsariaren arteko erlazio ezin egokiagoa ezartzen da. Aldi baterako egoerak urtebete baino gutxiago irauten duenean, ostera, lanaldiaren banaketa irregularrak oreka hori eragozten du eta gerta liteke behin-behineko lan-kontratua duten bi pertsonak, zereginen metaketa dela-eta, ordainsari berdina jasotzea, nahiz eta haien benetako dedikazioen artean alde nabarmena egon, ordu-kopuruari dagokionez.

Kexa arretaz aztertu ondoren, erakunde honek komenigarritzat jo zuen desberdintasunezko egoera hori gainditzen saiatzeko bideak jorratzea, agian lanaldiaren araubidea doituz, urtebete baino gutxiago dirauten aldi baterako kontratuen kasuan, lanaren eta ordainketaren arteko beharrezko oreka ziurtatzeko. Errealitate horretaz jabeturik, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza ere prest agertu da irtenbideak bilatzen saiatzeko, langileen ordezkariekin aurrerantzean egingo dituen negoziazioetan.

## Osasun alorreko funtzio publikoa

2001. urteko txostena amaitu genuenean, esan genuen zain geundela Osakidetzako arduradunek noiz azalduko ziguten zergatik erakunde horrek ezetza eman zion azaroaren 21eko 16/2001 Legearen bidez onetsitako aparteko prozesua aplikatzeari, estatutupeko langileen lanpostuak sendotu eta hornitzeko; izan ere, arazo hori zela-eta 119 kexa jarri ziren.

Jakina denez, aparteko prozesu hori, kontuan izanik ezen, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia irmoaren arabera, funtzio publikorako aparteko sarreraren aukera aintzat har zitekeela EKren 23.2. artikuluko xedapena urratu gabe, behar adinako mailako prozesu bakan eta salbuespenezko gisa konfiguratu zen, eta horretarako argudiatu zen aldi baterako langileak gehiegi zirela eta beraiek normalizatu ahal izateko ez zirela nahikotzat jotzen ohiko aukeraketa eta horniketa sistemak.

Bada, prozesu horri dagokionez, Osakidetzako arduradunek erakunde honi adierazi zioten EAEko osasun arloko Administrazioa ez zetorrela bat azaroaren 16ko 16/2001 Legearen zioen azalpenean ageri den deskripzioarekin. Horren froga gisa, 1990, 1995 eta 1997. urteetan egindako EEPak eta 1995, 1997 eta 2000. urteetako lekualdatze-lehiaketak ekarri zituzten gogora. Ildo horretan adierazi zutenez, lekualdaketa eta sarrera prozesu horiek guztiak unean uneko arautegi arruntaren arabera tramitatu ziren eta denak ere arazorik gabe burutu ziren, jende asko biltzen den lehia-prozesuetan ohikoak diren gorabeherak alde batera utzita.

Erakunde honen iritziz, Osakidetzako arduradunek, erabaki hori hartu zutenean, azaroaren 16ko 16/2001 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ematen zaien ahalmena erabili zuten, modu arrazoituan erabili ere. Izan ere, xedapen horrek dioenez,

Gizarte Segurantzako osasun-laguntza kudeatzeko eskumenak dituzten autonomia erkidegoek euren kabuz erabaki dezakete salbuespenezko sistema hori erabiliko duten ala ez, euren beharrizanetarako egokitzat jotzen duten bidea hartuz. Horregatik, azkenean, gure esku-hartzeari amaiera ematea erabaki genuen.

Dena dela, aldi baterako enplegua sendotzeko aparteko prozesu horren aplikazioari ezetza eman eta gero, EAEko osasun arloko Administrazioak ez du zalantzarik izan aukeraketa-bide arruntetara berriro ere jotzeko eta berehala iragarri du 2002ko Enplegu Eskaintza Publikoa.

EEP hori dela eta, uste dugu azpimarragarriak direla mediku fakultatibo talde batek aurkeztu dituen kexak. Osasun arloaren Antolamenduari buruzko Legearen (LOS deritzona) hirugarren xedapen iragankorraz egiten ari den aplikazioak, aurretiko esperientziaren lehentasuneko balorazioari dagokionez, tratu-desberdintasuna eragiten duela salatu dute mediku horiek.

Egia da, izan ere, Osakidetzaren zerbitzuan 1989ko uztaila baino lehenagotik diharduten langile-kolektiboei tratu desberdina ematen zaiela, osasun arloko funtziorako sarreraren ondorioetarako aurretiko esperientzia baloratzeari dagokionez, nahiz eta, hain zuzen ere, eta haien izendapenen formalitate hutsaz gain –bitarteko langile funtzionarioa edo estatutupeko bitarteko langilea- helburu bera lortu nahi duten: sistemako estatutupeko langile bihurtzea. Ezin dugu alde batera utzi inguruabar hori, eta ez dakigu zein arrazoi objektibo egon daitekeen estatutupeko langile izaera lortu nahi dutenenganako tratu-desberdintasun hori azaldu eta bidezkotzeko (ez bada erakundearekin izandako aldi baterako harremanetan batzuk bitarteko funtzionario izan direla eta beste batzuk estatutupeko bitarteko langile izan direla, baina hori formalitate hutsa da). Era berean, ez dakigu nola egokitu litekeen antolamendu juridikoan salbuespenezko sistema bat, zein, osasun arloko oinarrizko legerian aurreikusita ez dagoelarik, bitarteko langile funtzionarioei bakarrik aplikatu baitzaie, eta ez estatutupeko bitarteko langileei.

Edonola ere, EAEko osasun arloko funtzio publikoan sartu nahi dutenak erabiltzeko modu hori ez da berria. Izan ere, LOS onetsi zenetik Osakidetzaren esparruan iragarri diren enplegu eskaintzak eta aukeraketa saioetarako egin diren deialdiak –gogora dezagun, gertueneko aurrekari gisa, 97ko EEP- antzera konfiguratu izan dira.

Gai nagusi horiez gainera, nabarmendu egin nahi dugu 2002ko EEP honen esparruan administrari laguntzaileen lanpostuak betetzeko saioetan parte hartzera zihoan emakume baten eskariz tramitaturiko kexa. Interesatua minusbaliatua da (minusbalioa aintzatetsita dauka) eta erakunde honen bitartekotza eskatu zuen, behar zituen moldapen teknikoak lortzeko; batez ere, saioa egiteko denbora gehiago lortzeko, zeren eta aukeraketa prozesuaren barruan saio praktikoa egin behar zen testu-tratamendurako tresnak erabiltzeko gaitasuna eta trebezia ebaluatzeko, eta emakume horrek hain zuzen ere eskuin eskuan dauka minusbalioa. Zorionez, erakundeko arduradunak prest agertu ziren lehiakide guztien benetako aukera-berdintasuna ziurtatzen saiatzeko. Horretarako, behar ziren moldapen guztiak antolatu zituzten, baita saioak egiteko denboraren luzapena ere, kexa horren egileak azaldutakoaren antzeko kasuetarako (ikusi 226/2002 kexaren laburpena).

Lizentzia eta baimenen inguruko arazoei buruz ere hainbat kexa aurkeztu dira osasunaren arloan. Bereziki aipagarria da bitarteko langilea den emakume batek aurkeztu zuen kexa. Hauteskunde egunean lizentzia eman zitzaion baztertu ezinezko eginbeharrak betetzeko, baina ospitaleko kudeatzaileek ez zioten ordaindu nahi izan igande eta jaiegunetako lanarengatiko osagarria.

Arartekoak babesa eskaini dio kexa horri, zeren eta, beraren iritziz, hauteskunde egunean mahaikide izateko betebehar publiko saihestezinak -bidezko arrazoia lanera ez joateko baimena eman dadin, ordainsari eta guzti- ez baitu inola ere ekarri behar onetsita dauden lan-karteldegien arabera langileari dagozkion ordainsarien murrizpenik (ikusi 1396/2001 kexaren laburpena).

## Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Hasieran 2002. urterako ezarrita zegoen EEPren gerorapena dela eta, beste urte batez luzatu da aurreko ekitaldian ere aztergai izan genuen behin-behineko egoera. Hala eta guztiz ere, irakaskuntzako EEP hau luze gabe gauzatuko da, itxuraz, eta oraintsu argitaratu diren aginduak kontuan izanik (2002ko uztailaren 31ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena; horren bidez hezkuntzako Administrazioaren enplegu publikoaren eskaintza onetsi da; EHAA, 171 zk.koa, irailaren 10ekoa).

EEP geroratzeko erabakia hartu zenean, erraz uler daitekeenez, erakunde honetan aurkeztutako kexak ere bertan behera geratu ziren, baina beldur gara kexa berberak laster izango ditugula berriro esku artean, horien iturria irakaskuntzaren sektoreko arazo zailenetakoa baita, alegia, irtenbideak bilatu behar zaizkiela euskarari buruzko hizkuntza-eskakizunak betetzen dituztenik oraindik ezin frogatu izan duten irakasleei, IRALE prestakuntza programan sartu ahal izateko liberazioak erraztu eta sustatze aldera aurretik hartu diren neurriak gorabehera.

Hain zuzen ere, IRALEko prestakuntza ikastaroak egiteko interesak bultzaturik aurkeztu zigun bere kexa ikastetxe pribatu bateko irakasle batek. Irakasle horrek eskatu zuen aintzat har zedila berak egindako saioa (ikastaroetan sartu aurretikoa), eskabidea garaiz aurkeztu ez bazuen ere, eta horretarako argudiatu zuen IRALEko ikastaroetarako sarrera-deialdien zabalkundea ez zela egokia, beraren iritziz.

Interesatuaren ustez, ikastaroetarako deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu behar da derrigorrez, bestela urratu egiten baitira publizitatearen eta segurtasun juridikoaren printzipioak. Esan beharra dago, hala ere, ikastaroetarako deialdia argitaratu beharrekoa dela bai, baina ez argitalpen ofizial batean nahitaez. Prozedurak aldizkari ofizialean argitaratu behar dira baldin eta kasuan kasuko arauetan hori egiteko agintzen bada (kasu honetan inon ez dago horrelako agindurik). Gainerakoetan, prozeduraren publizitatea, Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan bete behar diren gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioei zuzenean loturik dagoen betebeharra izanik ere, beste bide batzuetatik egin daiteke. IRALE programako ikastaroen berri emateko, EAEko hezkuntza-zentro guztietan “informazio liburuxka” banatu da, eta jendeak gero eta gehiago erabiltzen dituen hedabideetatik ere ikastaroen berri zabaldu da, Internetetik, esate baterako.

Beste alde batetik, ordezkapenei edo behin-behineko beharrizanak betetzeko lanari buruzko kexak aurkeztu dira, aurreko urteetan bezala. Kexa horiei erantzunez, erakunde honek ahaleginak egin ditu, ohi duenez, lanpostu hutsen adjudikazioan eginiko akatsen ondorioak jasan dituzten pertsonen interesak erabat leheneratu daitezen, eta, gutxienez ere, akatsen ondorioz ezin egin izan dituzten zerbitzuak aintzakotzat har daitezen etorkizuneko ordezkapenei begira.

Atal berean, baina gai zehatzago bati erreparatuta, azpimarratzekoa da pertsona batek kexa aurkeztu duela hezkuntzako Administrazioak ez diolako merezimendutzat hartu nahi izan Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan elkarrizketa-laguntzaile

gisa egiaztaturik daukan lanbide-esperientzia (ikusi 770/2002 kexaren laburpena).

Era berean, aipagarria da, gaia lehenengoz azaldu delako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lehen zikloan ordezkapenak egin nahi izan dituen lizentziadun baten kexa. Emakume horrek ezbaian jarri du hezkuntzako Administrazioak hezkuntza-maila horretako ordezkapenetarako zerrendak kudeatzeko darabilen sistema. Izan ere, sistema horretan lizentziadunei ez zaie ukatzen DBHko lehen zikloan ordezkapen zerbitzuak egiteko aukera, baina baldintza hau ezartzen zaie: bete beharreko lanpostu hutsean aurretik egon dena bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioa izan behar da (ikusi 154/2002 kexaren laburpena).

Azkenik, irakas lana eta familiako bizitza bateratu ahal izatea helburu omen zuten proposamenak ere jaso ditugu; zehazki, seme-alabak zaindu behar dituzten irakasleei lanaldia laburtzeko baimenak emateari buruzko proposamenak.

Jakina denez, Arartekoak beti aldarrikatu du Administrazioak ahalbide guzti-guztiak agortu behar dituela eta, ahal dela, lanaldia laburtzeko baimena eman behar diela langileei haurrak zain ditzaten, baita langileak irakaskuntzako bitarteko funtzionario ez-egonkorrak direnean ere, eta egiten dituzten ordezkapenak ikasturte osorako hutsik geratu diren lanpostuetakoak ez direnean ere bai. Badakigu, noski, horrelako jokabideak arazoak ekar ditzakeela kudeaketa lanetan. Hala eta guztiz ere, uste dugu oztopo horiek ez direla nahiko arrazoi, berez, baimen horiek ukatzeko. Aitzitik, zailtasunek bultzatu egin behar gaituzte beste bide batzuk jorratzera, emakumeei lan-merkatura sartzea errazten dieten neurriak noizbait arau gisa ezarri ahal izan daitezen eta ez salbuespen gisa.

Dena dela, aurkeztu zaigun kexan azaltzen den kasua ikertu ondoren, egiaztatu ahal izan dugu kontua ez dela hezkuntzako Administrazioak lanaldia murrizteko aukera ukatu ziola ikasturte osorako hutsik geratu zen lanpostuan ari zen ordezko langileari. Aitzitik, Administrazioak hauxe besterik ez zuen planteatu: beharrezkoa zela langileek ikasturtearen hasieran heltzea lanaldia murrizteko aukerari; horrela, ordezko irakasleei familiarekiko betebeharrak edota beharrizan pertsonalak asetzeko aukera emateaz gainera, ikastetxeetako plantilak ahalik eta egonkorrenak izan zitezen lortu ahal izango zen; nolanahi ere, ez zen baztertzen ezusteko gertaeren ondorioz sortutako egoera berezietan irakasleei tratamendu berezia ematea, gertaerak behar bezala egiaztatuz gero.

### Poliziaren alorreko funtzio publikoa

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jarraibide zehatzak emanak ditu EAEko lurralde barruan egiten diren bidai gastuak likidatzeko, EAEtik kanpo bizi diren ertzainek euren ibilgailuak erabiltzen dituztenean, baimendutako joan-etorrietan. Jarraibide horien arabera, egoitza EAEtik kanpo duten ertzainek euren ibilgailuetan joan-etorri baimenduak egiten dituztenean, bidai gastuak likidatzerakoan, ibilbidearen abiapuntu gisa hartu behar da, edo, egoki denean, amaierako puntu gisa, ertzainak etxetik lantokira eta alderantziz egiten duen ibilbide logikoan dagoen kilometro-punturen bat, auzoko autonomia erkidegoarekin muga duen EAEko udalerriren batean dagoena. Neurri hori EAEtik kanpo bizi diren ertzainei bakarrik aplikatzen zaie. Ertzain bat ez zegoen ados horrekin; erakunde honengana jo zuen eta ezbaian jarri zuen gastuak likidatzeko irizpide hori, bereizkeria egiten zela esanez.

Izan ere, ezin uka daiteke egoitza-betebeharrak funtzionario-harremanaren zenbait alderditan izan dezakeen eragina, eta alderdi horietariko bat zerbitzuaren zioz har daitekeen kalte-ordaina da. Hala ere, ezbaian jarritako jarraibideak arretaz aztertu

ondoren, Arartekoak ondorioztatu du beharrezkoa dela Herrizaingo Sailak zehatz definitu eta azaldu dezala, polizi funtzioaren garapen egoki eta zuzena bermatzeko komenigarritzat jotzen badu, Ertzaintzako funtzionarioen egoitza-betebeharraren erreferentzia gisa hartu beharreko lurralde-eremua, baina, beti ere, kontuan hartu behar dituela kasuan kasuko baldintza geografikoei eta azpiegiturei dagozkien irizpideak. Izan ere, uste izaten bada adierazi den bezalako zonifikazio hori ez dela komenigarria edo egokia, edo halako erabakia ez dela beharrezkoa edo egokia, orduan Herrizaingo Sailak nahitaez utzi behar du indarrik gabe edozein jarraibide edo barne-arau, baldin eta hura egoitzaren irizpidean oinarritzen bada ertzainen funtzionario-harremanaren alderdiren bat zehazteko; horixe gertatu da oraingoan aztergai ditugun zerbitzuarengatiko kalte-ordainekin.

Zenbait herritarrek akats berbera egotzi diote, hots, berdintasun-printzipioaren aurkakoa izatea, polizi funtzio publikoan sartzeko baldintzetariko bati, gutxieneko garaierari, hain zuzen ere. Alabaina, baldintza horrek badu behar besteko babes juridikoa; alde batetik, berariaz aurreikusten da hura jartzea uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 4.c) artikuluan (dekretu horren bidez Euskal Herriko poliziako kideak aukeratu eta prestatzeko Araudia onetsi da); bestetik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian maiz onartu izan da funtzio publikoan sartzeko baldintzak jartzea, nahiz eta baldintzok kasuan kasuko eginkizunetarako egokiak eta zentzuzkoak izan behar direla ohartarazi, beharrezkoa baita beraiek merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioei loturik egotea, berdintasun-printzipioa urratu ez dadin. Hala, bada, gutxieneko garaiera, oro har, poliziako funtzionarioen eginkizunak berak ezarritako baldintza dela esan liteke. Zentzuzkoa da, izan ere, halako gorputz ezaugarri zehatzak eduki behar izatea agenteei dagozkien polizi eginkizunetan egin behar izaten diren esku-hartzeetan egokiro jardun ahal izateko (ikusi 448/02 kexaren laburpena).

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

⇒ *Ordezkapenak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan* (154/2002)

• Erreklamazioa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lehen zikloan irakasleen ordezkapenak egin nahi izan zituen lizentziadun batek ezbaian jarri zuen hezkuntzako Administrazioak hezkuntzaren maila horretako ordezkapenetarako zerrendak kudeatzeko darabilen sistema, zeren eta, lizentziadunei DBHko lehen zikloan ordezkapen zerbitzuak egiteko aukera ukatzen ez bazaie ere, baldintza hau jartzen baitzaie: bete beharreko lanpostu hutsean aurretik aritu dena bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioa izatea.

• Azterketa

LOGSEko xedapenetan, zehatzago, laugarren xedapen iragankorreko hirugarren idatz-zatian, hauxe ezarri da: lanpostu hutsen behar besteko kopurua erreserbatu behar

dela, maisu-maistren kidegokoak izanik DBHko lehen zikloko hezkuntza-maila honetako irakas lanean jarraitu edo hasi nahi duten funtzionarioek lekuz aldatzeko ahalbidea izan dezaten. Erreserba hori, beraz, maisu-maistren kidegoko funtzionarioentzat egin behar da, eta lekuz aldatu ahal izan daitezen soilik. Legeak ez du ezer zehazten hezkuntza-ziklo honetako aldi baterako beharrizanen kudeaketari buruz; bestalde, hezkuntzaren etapa horretako irakas lanean aritu ahal izateko, legearen 24. artikuluak dioenez, lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo titulazio baliokidearen jabe izan behar da, eta gainera, irakas lanerako espezializazio egokia eduki behar da.

Aldi baterako beharrizanen estaldura edo hornidurari buruzko aurreikuspen zehatzik ez dagoenez, ezinbestez onartu behar dugu hezkuntzako Administrazioak nahi duen eran erabil dezakeela gai hori. Administrazio horrek, bere burua antolatzeko daukan ahalmena erabiliz, egoki deritzon erabakia har dezake bere baliabideak hobeto eta eraginkortasun handiagoz antolatzeko. Horrek egokitasunaren eremuan kokatzen gaitu, zeinetan erakunde honek esku hartzeko dituen aukerak -legezkotasun hertsiaren kontrolera murriztuak- jokabide arbitrariorik ezaren fiskalizaziora mugatzen baitira; horren arabera, ezbaian jarritako administrazio-erabakiaren zioak behar bezala azal daitezela eskatu behar du erakunde honek.

Bada, erakunde honen esku-hartzeari erantzunez, hezkuntzako Administrazioak gai horri buruz hartua duen erabakiaren nondik norakoak azaldu zizkigun, alegia, DBHko lehen zikloko tarte horretako ordezkapenak antolatzerakoan kontuan hartzen duela zein kidegotakoa den ordeztu beharreko irakasle titularra; eta arrazoibide gisa, adierazi zigun hautagai lizentziadunen gaitasun edo prestakuntza pedagogikoa eta maisu-maistrena ez direla berdinak, eta berak bestela jokatuz gero bidegabeko desberdintasunak sor litezkeela, une hauetan indarrean dauden ordainsari-baldintzen ondorioz.

• Emaitza

Administrazioak emandako informazioa ikusirik, erakunde honek interesatuari ondorioen idazkia helarazi zion; bertan, erakunde honek onartu egiten zuen bidezkoa izan zitekeela hezkuntzako Administrazioak azalduriko arrazoiekin bat ez etortzea, eta, desadostadun horren haritik, bidezkoa izan zitekeela, halaber, bestelako erabaki edo irtenbideak proposatu eta sustatzea, DBHko lehen hezkuntza-ziklo honetan aldi baterako beharrizanen estaldura antolatzeko. Baina, beste alde batetik, agerian jartzen genuen ezen, legezkotasunari hertsiki lotuz gero, nahitaez onartu behar zela arrazoi horiek beroiek nahikoa oinarri zirela hezkuntzako Administrazioak bere iritziaren arabera jarduteko daukan ahalmenaren erabilera zuzenari eusteko, eta horrek, azken batean, Administrazioaren jokabidetik arbitrariotasunaren aztarnarik txikiena ere ezabatzen zuela.

⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Europako Batasuneko herrialdeetan izandako lanbide-esperientziaren balorazioa* (770/2002)

• Erreklamazioa

Irakasleen ordezkapenak egin nahi izan zituzten pertsona batzuek erakunde honi salatu ziotenez, hezkuntzako Administrazioak ez zuen merezimendutzat jo nahi izan

Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan (Frantzia eta Belgika) pertsona horiek izandako lan-esperientzia, ordezkapenetarako zerrendetan zenbatgarren tokian kokatuko ziren erabakitzeko orduan.

• Azterketa

Orain dela urte batzuk, 1997an hain zuzen, Ararteko erakundeak abenduaren 23ko 172/1997 Gomendioa eman zuen. Bertan eskatu zuen aintzat har zitezela Europako Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetan egindako zerbitzuak –baldin eta herrialde horietako hezkuntza-sistemetako irakaskuntza arautuetan eginiko zerbitzuak baziren-, EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-zentro publikoetan ordezkapenak egiteko zerrendetan hautagaien hurrenkera erabakitzeko orduan. Garai horretan Langileria Kudeatzeko zuzendaria zenak onartu egin zuen gomendio hori.

Oraingo kexaren ondorioz erakunde honek lehenengoz esku hartu eta gero, hezkuntzako arduradunek berriz ere adierazi zuten prest zeudela aurreko gomendio hori betetzeko, baina berariaz honakoa ohartarazi zuten, aurkeztutako kexei zegokienez: *“elkarrizketarako laguntzaile lanek ez dute parekorik gurean indarra duen hezkuntza-sistemako inongo lanpostu edo espezialitatetan; horregatik, eginkizun horiek nekez jo genitzake irakaskuntza arautuan egindako zerbitzutzat.”*

Izan ere, bidezkoa izan daiteke elkarrizketarako laguntzaile zerbitzuak aintzakotzat hartzeko eskaerari emandako ezezkoa, horren arrazoi objektiboak azaldu baitira: elkarrizketarako laguntzaile plazak bereziak direla, kultur lankidetzarako alde biko programei lotutakoak, eta, beraz, ez dutela zerikusirik irakaskuntza arautuko hezkuntza-zerbitzuekin.

Hala ere, interesatuek behin eta berriz baieztatu zuten beste hautagai batzuei ontzat hartu zitzaiela mota horretako lanbide-esperientzia, irakasleen ordezkapenetarako hautagaien zerrendetan izan behar zuten tokia erabakitzerakoan. Horrela, bada, erakunde honek berriro jo zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarengana eta arren eskatu zion arretaz kontrola zitzala lurralde-ordezkaritzetan erabiltzen ari ziren irizpideak.

Bigarren esku-hartzeari erantzunez, hezkuntza arloko Administrazioak honako hau jakinarazi zigun: *“Esperientzia-mota hori beste hautagai batzuei aintzat hartu zaielako baieztapenari dagokionez, esan behar dugu inongo ordekaritzatan ez dela ageri elkarrizketarako laguntzaile zerbitzuen baloraziorik, eta bai, ostera, Europako Batasuneko herrialdeetako irakaskuntza arautuko ikastegi publikoetan egindako eta behar bezala egiaztaturiko beste zerbitzu batzuen balorazioa; hain zuzen ere, erakunde horren gomendioa jaso eta gero hasi ginen horrelako zerbitzuak baloratzen.”*

• Emaitza

Kexaren tramitazioan horraino helduta, kontuan izanik hezkuntza arloko Administrazioak ziurtatu egin zuela inongo lurralde-ordezkaritzatan ez zela baloratu elkarrizketarako laguntzaile gisa egindako zerbitzurik, eta, bestalde, kontuan izanik elkarrizketarako laguntzaile gisa egindako zerbitzuak aintzat ez hartzea bidezkoa zela, erakunde honek espedienteari amaiera ematea erabaki zuen.

## B) **Funtzio publiko orokorra**

⇒ *Hemen bizi diren atzerritarrak lan kontratuko enplegu publikoetan sartzea* (7/2002OF)

• Erreklamazioa

Hedabide batzuetan agertu diren berriei esker, erakunde honek jakin du zenbait ekimen burutu direla hemen bizi diren atzerritarrek lan izaerako enplegu publikoetara iristeko duten aukeraz. Zehazki, ekimen horien bitartez agerian jarri nahi da legea urratzen dela EAEko hainbat herri-administraziok iragarritako enplegu-eskaintzetan, batez ere udalen alorrekoetan, eta, hortaz, egoera hori konponduko bada, ezinbestekoa dela horren kontra irmoki jardutea.

• Azterketa

4/2000 Lege Organikoak, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoak -8/2000 Lege Organikoak aldatu du-, hauxe dio 10.2 artikuluan: *"Espainian bizi diren atzerritarrak Europako Batasuneko kide diren estatuetako herritarren baldintza berean sartu ahal izango dira administrazio publikoan, lan-kontratuko langile gisa. Eta hori, berdintasun, meritu eta ahalmenei buruzko konstituzio-printzipioei, eta baita ere publizitateari buruzkoari jarraiki. hori dela-eta aurkeztu ahal izango dira administrazio publikoek emandako lan publikoaren eskaintzetara".*

Horrela bada, berariaz adierazi da biztanle atzerritarrek herri-administrazioetako langile izateko eskubidea dutela, lan-kontratuaren bidez. Zehatzago esanda, biztanle atzerritarrak herri-administrazioek iragarritako enplegu-eskaintzetara aurkez daitezke, eta ordezkapen edo aldi baterako kontratuetarako poltsa edo zerrendetan sartzeko aukera dute.

Horregatik, kontuan izanik HAEEk bereziki esku hartzen duela euskal administrazio publikoetako langileen hautaketan, egokia iruditu zitzaigun erakunde horretara jotzea, laguntza eskatzeko eta, halaber, enplegu publikoak lortu nahi dituzten biztanle atzerritarren eskubidea egiaz bete dadin zer jarduera burutzen ari ziren jakiteko, halakorik egiten ari bazen.

Gure eskariari erantzunez, HAEEk adierazi zigun EAEko udal guztietara txosten zehatz bat bidaltzea erabaki zuela, euskal administrazio publikoen aukeraketa-prozesuetan herritartasunaren baldintza nola erabili argitzeko. Txosten horretan bereziki aipatzen du 4/2000 Lege Organikoan jasotako araudia, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa. Lege hori, geroago, 8/2000 Lege Organikoak aldatu zuen, eta hor espresuki adierazten da Espainian bizi diren atzerritarrek badutela herri-administrazioetan kontratu bidez lan egiteko eskubidea.

• Emaitza

Erakunde honen iritziz, HAEEk hartutako erabaki hori oso ekimen egokia da hemen bizi diren atzerritarrak enplegu publikoan sartzeko bidea normalizatzeko eta, hartara, onartuta dauden arauak betetzeko. Edonola ere, aurrerantzean EAEn iragartzen diren deialdiak ikuskatu beharra dago.

⇒ *Amatasunagatiko lizentzia eta urteko lanaldiaren banaketa irregularra* (288/2002)

• Erreklamazioa

EAEko Administrazio Orokorraren zerbitzuko emakumezko funtzionario batek kexa aurkeztu zuen, amatasunagatiko baimenaren oraingo egiturarekin ados ez zegoela agertzeko. Funtzionario horrek ondokoa salatu nahi zuen: liberazio-orduen guztizko kopurua aldatu egiten da, amatasunagatiko baimena hartzea suertatzen den garaian nolako lanaldia egiten ari den, lanaldi eten normalizatua ala lanaldi jarraitua. Interesatuaren kalkuluen arabera, aldea 130 ordura ere irits daiteke. Horregatik, asmo gisa, honakoa azaltzen zuen: haurdunaldi eta erditzapenagatiko lizentzia hori asteka hartu beharrean orduka hartzeko aukera egotea, lanaldi-motaren ondorioz bereizkeriarik gerta ez dadin.

• Azterketa

Langile publikoei ematen zaizkien baimen eta lizentziak oso helburu zehatzetarako ematen dira, eta hain zuzen ere helburu horien arabera zehazten da haien iraupena. Gaixotasunagatiko lizentziek, adibidez, medikuak alta eman arte irauten dute. Senideen gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik ematen diren lizentziek, berriz, lanegun batzuk irauten dute, baina nahitaez hartu behar dira ezbeharra gertatzen den egunetan. Azkenik, saihestu ezineko eginbehar publiko edo pertsonalak betetzeko ematen diren lizentziek eginbehar horiek burutzeko adina irauten dute.

Ildo horretan kontuan hartu behar dugu ezen, baimen eta lizentzia horien iraupena unean uneko lanaldi-motaren araberakoa izango balitz (lanaldi eten normalizatua edo ostiraletako eta udako lanaldi jarraitua), baimen eta lizentzien helburua erabat zapuzturik eta desitxuraturik geratuko litzatekeela. Izan ere, horrelako baimenak eta lizentziak ematen direnean benetan lortu nahi dena langile publikoei zenbait egoera edo premia pertsonaletarako babesa ematea da, beharrezkotzat jotzen delako; horrexegatik ematen zaie baimena -ordainsaria kendu gabe, kasu batzuetan- aldi batez lanera ez etortzeko.

Gauza bera gertatzen da haurdunaldi eta erditzapenagatiko lizentziak ematen direnean. EAEko Administrazio Orokorreko emakumezko langileek 17 asteko lizentzia hartzeko eskubidea dute, batetik, erditu ostean suspertu daitezen, eta bestetik, ume jaioberria zaindu ahal izan dezaten. Lizentzia hori hartzeko eskubidearen aintzatespenaren zio eta oinarri diren inguruabarrak, noski, haurdunaldia, erditzapena eta umearen jaiotza dira. Atsedenaldia 17 astekoa izango dela ezarri da, eta ez du batere axolarik, beraz, eguneko lanaldia zein motatakoa den.

• Emaitza

Erakunde honek ez zuen bidezko ziorik aurkitu kexagilearen asmoaren alde esku hartzeko.

⇒ *Aukeraketa-prozesu baten baliogabetzea eta berrikuspena, epai baten ondorioz. Izendapen berrien eragina eta ondorioak* (548/2002)

• Erreklamazioa

Foru langile batek erakunde honen bitartekotza eskatu zuen, bere funtzionario-egoera juridikoaren erabateko berrezarpena lortzeko. Berrezarpen horretan, beraren

iritziz, eta alde batera utzita beste konpentsazio batzuk, izan ere gehiegizkoak baitziren eta, ondorioz, bidegabekoak (A taldera igotzea etab.), aintzinatasuna aintzatetsi behar zitzaion, eta bai Foru Mutuako eta Elkarkidetzaren pentsio planeko prestazioak ere, baina ondorioak aukeraketa-prozesua gainditu izan balu izendatuko zuketen egunetik aurrerakoak izan behar ziren. Esan beharra dago interesatuak Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela aukeraketa-prozesu horren kontra.

• Azterketa

Kexan salatutako foru administrazioarengana jo genuen eta jarduketa egokiei ekin genien. Foru administrazio horrek EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren hainbat iritzi-adierazpen ekarri zituen gogora, funtzionario-egoera juridikoa kexan eskatzen zen moduan berrezartzerik zergatik ez zuen onartu azaltzeko. Adierazpen guztien laburpen gisa, hona hemen 2000ko martxoaren 30eko 315/2000 Epaiak dioena: *"errekurtsogilearen lehengo egoera juridikoa, baliogabetasunak aldarazia, berriro ezartzeko, baliogabetasuna gertatu zen unean zeukan egoera juridikoa itzuli behar zaio errekurtsogileari, hau da, Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaien merezimenduak baloratu aurretxoan zeukan egoera itzuli behar zaio; horrenbestez, errekurtsogileak eskubidea izango du merezimendu horien balorazio zuzena egin dadin, legea eta deialdiko arauak betez eta Epaimahaiak berak bere ahalmenak erabiliz ezartzen dituen irizpideei jarraituz. Balorazio berria egin arte, izendapena lortzeko eskubidea aukera hutsa izango da, eta gorago esandakoa eginez gero, aukera hori zeharo berrezarrita geratuko da."*

Horrela, bada, adierazpen horien ildoari jarraituz, foru administrazioak ohartarazi zigun epaimahai kalifikatzaileak artean egin gabe zuela proposamen berria, interesatuaren eskariz hasitako Administrazioarekiko auzibidean emandako epaian aipatutakoa alegia, eta, beraz, kexagileak izendatua izateko aukera baino ez zuela; hortaz, ez zen bidezkoa kexagileak eskatu zuen bezalako berrezarpenik onartzea.

Inoiz gertatu izan da funtzionarioek kalteen ordaina eskatzea, berandu izendatu dituztelako eta horrek ondorio kaltegarriak ekarri dizkielako, eta EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak berak funtzionarioen asmoen aldeko epaia ematea, ondare-erantzukizuna eskatzeko baldintza guztiak betetzen zirelakoan. Baina, hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago kasu horietan guztietan Salak ñabardura garrantzitsuak erantsi zituela, azaroaren 2ko 972/2000 Epaiak agerian jartzen duenez (JUR 2001\76409): *"judizio honetan aztergai duguna bezalako kasuetan, Jurisprudentziak beste betekizun bat ezarri izan du, hona: 'auzitegiek erabakitako deuseztapenaren gaia ez da izan behar kontzeptu juridiko zehaztugabeen aplikazioan edo zuhurtziarako ahalgoen egikaritzan Administrazioari dagokion estimazio-tartea, zeren eta horrelako ahalmenik dagoenean interesatuak nahitaez jasan behar baititu egokitasun-irizpideen sarrerak edo estimazio-eragiketaren emaitzaren arauzko zehaztapenik ezak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak (Auzitegi Gorenaren 1997ko azaroaren 4ko Epaia [RJ 1997\8203], non 1996ko otsailaren 5ekoa aipatzen baita [RJ 1996\987])'. Bada, hain zuzen ere horixe gertatu da Auzitegi honi ebazteko aurkeztu zaion auzi honetan: honako kasu hau ez da lehiaketa eta oposizioak baloratzen dituzten epaimahaien zuhurtziarakotasun teknikoko kasua."*

Kexan ageri den informazioaren arabera, interesatuak eskaturik hasitako Administrazioarekiko auzibideari amaiera eman zion epaian eskubide hauek aintzatetsi

zitzaizkion interesatuari: (1) lehiaketa-aldian azaldu zituen merezimenduak berriro baloratuak izateko eskubidea, (2) borondatezko euskara azterketako ahozko saioa eta borondatezko informatika azterketa berriro egiteko eta, ondoren, saio horiek berriro baloratuak izateko eskubidea, eta, azkenik, (3) idatzizko euskara saioa berriro baloratua izateko eskubidea.

Aipatu ditugun epaietariko azkenaren edukia eta bertan azaldutako jurisprudentziazko irizpidea kontuan izanik, argi eta garbi onartu beharra zegoen honako hau: interesatuaren asmoen aldeko epaian epaimahai kalifikatzaileari estimazio librerako hainbesteko tartea eman zitzaionez, baztertu egin behar zen -foru administrazioak argudiatu zuen bezala- kexagileak nahi zuen moduko ondare-erantzukizuna eskatzeko aukera.

• Emaitza

Aurreko hausnarketa horiek interesatuari jakinarazi genizkion, eta esku harzeko ziorik ez genuela ikusten adierazi genion.

## C) **Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

⇒ *Poliziaren alorreko funtzio publikorako sarrera. Gutxieneko garaieraren baldintza* (448/2002)

• Erreklamazioa

Ertzaintzan sartu nahi izan zuen herritar batek erakunde honengana jo zuen eta ezbaian jarri zuen Ertzaintzan sartzeko baldintzetariko bat, gutxieneko garaiera alegia, zeren, beraren iritziz, baldintza hori jarriz bereizkeria egiten baita.

• Azterketa

Izan ere, gizonezkoek 1,70 m-ko garaiera izan behar dute, gutxienez, Ertzaintzan sartu ahal izateko, eta emakumezkoek 1,65 m-koa; betekizun hori uztailaren 19ko 3151994 Dekretuaren 4. artikuluan dago; dekretu horren bidez Euskal Herriko poliziako kideen aukeraketa eta prestakuntzari buruzko Araudia onetsi zen. Hala, bada, EAEko polizi kidegoetan sartzeko egiten diren deialdietan -dela Ertzaintzarako, dela toki polizia desberdinen kidegoetarako-, nahitaez ezarri behar da baldintza hori.

Edozelan ere, azter dezagun baldintza horretan bereizkeriarik ote dagoen, kexagileak salatu duen bezala. Horretarako, kontuan hartu behar dugu berdintasun-printzipioa ez dela oztopo tratu juridiko desberdinak aplikatzeko; beti ere, tratu-desberdintasun hori -jurisprudentziazko doktrina irmoaren arabera- zio objektibo eta zentzuzkoetan oinarritu behar da, eta, gainera, proportzionaltasun-lotura egokia eduki behar du kasu bakoitzean lortu nahi den helburuarekin.

Gauzak horrela, aztertu egin behar da ea ezaugarri fisiko jakinak -garaiera kasu-nahikoa arrazoi izan daitezkeen zenbait lanpostutan sartzeko orduan herritarrei tratu desberdinak emateko.

Badira auzitegien iritzi-azalpenak arazo horri buruz; besteak beste, Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 2000ko apirilaren 7ko Epaia (RJCA 2000\788). Epai horrek

ebatzi zuen auzian, aurka egiten zitzaion Mossos d'Esquadra polizi kidegoko ikuskatzaile plazetarako deialdi bati. Beste gauza batzuen artean, deialdian bereizkeria egin zela alegatu zen, hain zuzen ere garaieraren baldintza zela-eta. Epaian honakoa ohartarazi zen berariaz:

> *"Polizi eginkizunen izaeratik beretik dator betekizun hori. Hain zuzen ere, polizi kidegoko kideen gorpuzkera zehatz bat, eta ez bestelakoa, egokia izan daiteke beraiek egiten dituzten esku-hartzeetarako eta beraien eginkizunetarako; horregatik eskatzen dira ezaugarri fisiko zehatzak, horien artean garaiera, eta ikuspuntu honetatik arrazoizkoak dira.*
> *Zentzuzkoa iruditzen zaigu, era berean, gizonezkoei eta emakumezkoei gutxieneko garaiera desberdinak eskatzea, haien egoerak ere desberdinak direlako. Sexu batekoek eta bestekoek ez dute batez besteko garaiera bera, eta gizartean erabili ohi diren balorazio-kontzeptuak desberdinak dira pertsonaren sexuaren arabera. Hala, bada, garaiera bera duten gizon bat eta emakume bat ikusirik, esan genezake gizonezkoak garaiera ertaina duela gizarte-kontzepzioaren arabera, eta emakumezkoa, berriz, pertsona garaia dela. Beraz, egoerak bereizi egiten dira izatez desberdinak direlako, eta bereizketa hori bat dator arrazoizkotasun eta proportziotasunaren irizpideekin."*

• Emaitza

Erakunde honek aurreko hausnarketa horien berri eman zion interesatuari, eta jakinarazi zion, azkenik, poliziaren arloko funtzio publikoan sartu ahal izateko ezartzen den gutxieneko garaieraren baldintza horrek baduela behar besteko babes juridikoa.

## D) **Osasun alorreko funtzio publikoa**

⇒ *Baztertu ezineko eginbeharretarako lizentzia. Ordainsariak* (1396/2001)

• Erreklamazioa

Erizaintzako laguntzaile batek, Osakidetzako bitarteko langilea bera, kexa jarri zuen, ospitaleko kudeatzaileek ez ziotelako ordaindu nahi izan igande eta jaiegunetan lan egiteagatiko osagarria 2001eko maiatzaren 13an; egun horretan hauteskundeak egin ziren eta langile horri lizentzia eman zitzaion baztertu ezineko eginbeharrak betetzeko, bere eremuko hauteskunde-batzordeko lehen mahaikide izendatuta zegoelako.

• Azterketa

Kexa honen azterketari ekitean, erakunde honek kontuan hartu zuen, alde batetik, interesatuari eginbehar publiko saihestezina betetzeko eman zitzaiola baimena. Izan ere, 2001eko maiatzaren 13an Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeak egin ziren, eta bere eremuko hauteskunde-batzordeko lehen mahaikide izendatuta zegoelako eman zitzaion baimena langile honi. Hauteskundeei buruzko arauetan berariaz ezarrita dago hauteskunde-mahaietako mahaiburu eta mahaikide karguak egokituz gero nahitaez

bete behar direla. Bistan da, beraz, eginbehar hori, herriarentzat garrantzi handikoa izateaz gainera -kargu publikoetan arituko direnak hautatzeko prozesuaz ari gara-, baztertu ezinekoa dela. Are garbiago ikusten dugu izaera hori hauteskunde-delituei buruzko xedapenetan: zigortzeko moduko jokabidetzat jotzen dute, beren beregi, hautesmahaietako mahaiburuak eta mahaikideak euren eginkizunak betetzera ez agertzea (ildo horretan, ikus Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Orokorraren 143. artikulua). Hortaz, interesatuari eman zitzaion baimena ez zen izan, inondik inora, interes pertsonal edo pribatuen ondorio. Aitzitik, baimen horren helburua herriaren eskakizun edo beharrizan bat asetzea izan zen, alegia, interes orokor ukaezineko hauteskunde-prozesuaren garapen egokia bermatzea.

Beste alde batetik, erakunde honek kontuan hartu zuen ezen interesatuak baimena erabili zuen eguna, 2001eko maiatzaren 13a, igandea izan zela, eta interesatuari egun horretan klinikako laguntzaile lanak egitea zegokiola goizeko txandan, ospitaleko kudeatzaileek aurretik onetsita zeukaten eta inoiz ere ezbaian jarri ez zuten karteldegiaren arabera.

Hala, bada, bi premisa horietatik abiatuta, erakunde honek ondorio hau atera zuen: langileari eman zitzaion baimena ordainsari eta guzti ematen diren horietarikoa zela, eta, beraz, interesatuak 2001eko maiatzaren 13ko jardunaldi hartan baimenik hartu izan ez balu egingo zituzkeen zerbitzu guztiak hartu behar zitzaizkiola aintzat, eta, ondorioz, zerbitzu horien ziozko ordainsari guztiak ordaindu behar zitzaizkiola. Egun hura jaieguna (igandea) izanik, gure iritziz, derrigor aitortu eta onartu beharra zegoen ezen langileak goizeko txandan zegozkion zerbitzuak egin izan balitu osorik kobratuko zukeela igande eta jaiegunetan lan egiteagatiko osagarria. Egia da lan-baldintzei buruzko Akordioan honako osagarri honen zenbatekoak unitateka zehaztu direla, eta ez hilabeteka, beste osagarri batzuetan bezala, baina horrek ez du axolarik. Arazoari beste ikuspegi batetik helduta, esan genezake hautesmahaian mahaikide jarduteko betebehar publikoa nahitaez betetzera joateak -lanera ez etortzeko baimena, ordainsari eta guzti, jasotzeko bidezko arrazoia dena- ez duela inola ere ondoriotzat ekarri behar jadanik onetsita dauden lan-karteldegietan aurreikusitako ordainsarien murrizpena. Horrelako murrizpenik onartuko balitz, ordainsari eta guzti ematen diren baimen horien eraginkortasuna kolokan jarriko litzateke; osagarrien konfigurazioaren aitzakian -uniteka/hilabeteka- ordaindu gabe utzi ahal izango lirateke lan-karteldegian aurreikusita eta onetsita dauden zerbitzuengatiko ordainsariak, nahiz eta zerbitzu horiek bertan behera uzteko arrazoi bakarra eginbehar publiko saihestezina izan, interesatuaren interes pertsonal edo pribatuekin inolako loturarik ez duena.

• Emaitza

Erakunde honek Osakidetzari ondokoa gomendatu zion: bere erabakia berriro azter zezala eta interesatuari igande eta jaiegunetan lan egiteagatiko osagarria ordain ziezaiola (maiatzaren 23ko 19/2002 Gomendioa).

Lehenengo erantzunean, osasun arloko Administrazioak hauxe esan zigun: aurrerantzean, lan-baldintzei buruzko negoziazioetan, kontuan hartuko zuela aztergai izan dugun motako lizentziarekin batera ematen den ordainsaria erakunde honek proposatutako moduan arautzeko aukera.

Erantzuna ikusirik, berriz ere eskatu genion geure gomendioa onartzeko. Hala ere, osasun arloko Administrazioak ez zuen berrikusi nahi izan kexagileari ordainsaria zela-eta emandako tratamendua.

⇒ *Ezintasuna duten pertsonak. Aukeraketa-saioak egiteko denboraren luzapena* (226/2002)

• Erreklamazioa

Herritar minusbaliatu batek (minusbalioa aintzatetsita dauka) erakunde honen bitartekotza eskatu zuen. Osakidetzak administrari laguntzaile plazak betetzeko iragarritako aukeraketa-saioetan parte hartzera zihoan, eta moldapen teknikoen beharra zuen; batez ere, ariketak egiteko denbora gehiago eman ziezaioten lortu nahi zuen. Izan ere, aukeraketa-saioan ariketa praktikoa egin behar zen testu-tratamendurako tresnak erabiltzeko gaitasun eta trebeziak neurtzeko, eta pertsona honek hain zuzen ere eskuin eskuan zeukan minusbalioa.

• Azterketa

Gaur egun denok onartzen dugunez, funtzio publikoan sartzeko aukera-berdintasuna egiazkoa eta eraginkorragoa izan dadin, ez da nahikoa, ezintasuna duten pertsonen kasuan, merezimendu eta gaitasunetan oinarritutako ohiko baldintza objektiboak ezartzea, gainerako hautagaiei ezartzen zaizkien bezala. Hain zuzen ere, pertsonaren minusbalioa edo ezintasuna, berez, berdintasun-printzipioaren urratze naturala dela esaten da, eta printzipio hori kasu guztietan bete behar denez, bereizketa positiboa egin behar zaiela minusbaliatuei. Bereizketa positiborako neurriak, besteak beste, erreserba-kuotak eta saioak egiteko moldapenak dira, eta horien bitartez konpentsatu egin nahi dira minusbalioa duten pertsonek besteen aldean gainditu behar dituzten zailtasunak.

Funtzio publikoaren antolamenduan argi eta garbi ageri da irisgarritasunerako neurrien beharra. Hala, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak dioenez, minusbaliatuei gainerako hautagaiek dituzten bezalako aukerak emango zaizkie hautaketa-saioetan, baldin eta eginkizuna betetzeko gaitasun-baldintzak betetzen badituzte. Ondoren, hauxe dio hitzez hitz *"aukeraketa-saioetan, behar diren moldapenak egingo dira, denborari eta bitartekoei dagokienez, minusbaliatuek saioak egin ahal ditzaten"*.

Osakidetzaren Enplegu Eskaintza Publikoari dagokionez, legearen agindu horrekin bat etorriz, Osakidetzaren zuzendari nagusiak berak, apirilaren 26ko 278/2002 Ebazpenean (administrari laguntzaileen kategoriako estatutupeko langile izaera eskuratzeko aukeraketa-saioetarako deialdia) ondokoa ezarri zuen: *"minusbalioa aintzatetsirik duten pertsonek eskabidean adierazi behar dute zer-nolako moldapen teknikoak egin behar zaizkien, euren iritziz, aukeraketa-saioak egin ahal izan ditzaten"*.

Xedapen horien argitasuna eta irmotasuna gorabehera, noizean behin ikusten dugu ekintza edo kudeaketa normalizatu gabe dagoela, eta egoera horren froga dugu herritar honek aurkeztutako kexan, azkenaldiko deialdietako aukeraketa-saioetan aurkitu dituen zailtasunak azaldu baitizkigu.

Beraz, egoeraz kezkaturik, Osakidetzarengana jo genuen, ezintasuna duten hautagaientzat zer-nolako moldapenak aurreikusten dituen jakiteko.

• Emaitza

Zorionez, Osakidetzako arduradunek hautagai guztien arteko benetako berdintasuna lortzen saiatzeko konpromisoa agertu zuten, eta horretarako behar ziren moldapen

guztiak ezarriko zirela esan ziguten, baita saioak egiteko denbora gehiago eman ere, kexagileak azaldutakoaren antzeko kasuetan. Horrenbestez, gure esku-hartzea amaitutzat eman genuen.

# 6. OGASUNA

## 6.1. SARRERA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) administrazio honek gizarte-politika arautzeko tresna gisa gehien erabiltzen duen zerga-irudia da. Hori dela-eta, normalean, foru-zerga izaten da instituzio honetan kexa gehien jasotzen duena. Oraingo arau-diseinuarekin indarrean sartu zela lau urte betetzeko gutxi falta dela, maizen egiten diren erreklamazioak familiaren zergei buruzkoak izaten dira. Esate baterako, honako eskaerak egiten dira: izatezko bikoteen erregulazioa eta ezkondutako bikoteek dutena parekatzea, haurrengatik kenketa egitea –%50 galtzen da gurasoetako batek jasotzen duen lan-sarreren bolumena zergarengatik aurkeztu beharreko aitorpenean finkatutako mugaren azpitik badago–, zergak batera ordaintzeagatik kenketa txikiagoa egitea guraso bakarreko familia-unitateei bi gurasoko familia-unitateei baino, etab. Kexa horietan guztietan agertzen den kontua da ez direla Administrazioren ekintza jakin bati burukoak. Aitzitik, zalantzan jartzen dute araudiaren beraren balioa eta, batzuetan, baita konstituzionaltasuna ere.

Zerga-administrazioek, PFEZrekiko dituzten betebeharrak bete ditzaten, herritarrei lana errazteko eskaini dizkieten zerbitzuei eta sistemei dagokienez, nabarmendu behar dugu aurten Bizkaiko Foru Ogasunak jarri duena, "Rentanet Etxean" izenekoa. Aurrez aukeraketa bat egindakoan, administrazio honek zergadun jakin batzuei likidazio-proposamen bat bidali die, aitorpenak aurkezteko epea hasi baino pixka bat lehenago. Proposamen hori datu ekonomikoak aurkeztera behartuta dauden enpresek eta erakundeek Administrazioari aurkeztu dizkioten datu ekonomikoetan oinarritzen da, eta aurreko urtean aurkeztutako aitorpenean agertzen diren datu pertsonalak eta familia-datuak kopiatzen ditu. Sistema honek, beste foru-ogasun batzuek aurreko kanpainetan abian jarri zituzten sistemekin alderatuta, duen bereizgarritasun eta alde nagusia da ez dela nahitaezkoa hartzailea ados dagoela berariaz esatea. Era horretan, hartzaileak aurka dagoela esan ezik, ondorioztatzen den zenbatekoa sartzen zaio eta, gero, likidazioaren agiria bidaltzen zaio. Horren ondoren, hartzaileak agiri horren kopia sinatu, eta administrazioari itzuli beharko dio.

Sistema berri hau abian jarri denetik, hainbat kexa jarri dira, erreklamatzaileek oztopoak izan baitituzte administrazioarekin harremanetan jartzeko datuak argitu behar izan dituztenean edo likidazio-proposamena aldatu behar izan dutenean. Itxura denez, zerbitzu horretarako zegoen telefonoa kolapsatuta egon da eta aurkeztu ziren idazkiak ez ziren garaiz izapidetu. Gure iritziz, ezaugarri horietako sistema bat arrakastatsua izango bada, Administrazioak ohiz kanpoko baliabideak jarri behar ditu abian, bestela, zergadunari betebeharrak betetzeko bidea erosoago egin beharrean, kontrakoa gerta daiteke. Alabaina, ziur aski, antzeman diren arazoak arian-arian konponduz joango dira datozen kanpainetan, eta aurreneko urte honetako eskarmentuaz baliatuz, Administrazioa ohartuko da zergadunari informazio osoa eman eta zerbitzu eraginkorrak jarri behar zaizkiola eskura.

Tokiko zergen esparruan, aurreko urteetan bezala, ez da zerga horien jakinarazpena egin, eta horrek kexak eragin ditu. Horri dagokionez, aintzat hartu behar da Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) bezalakoek aldian behin kobratzen

direla, ordainagiri bidez. Horrek esan nahi du, zergen jakinarazpenari buruzko gaiak arautzen dituen arau orokorraren aurka (horrek jakinarazpenak berariaz, zuzenean eta banan-banan egiteko betebeharra ezartzen baitu), Zerga Lege Orokorrak 124.3 artikuluan salbuespen garrantzitsua egiten dio zerga-mota horretako printzipio horri, zeren lehenengo likidazioa besterik ez baitzaio zuzenean eta banan-banan jakinarazi behar zergadunari, eta hurrengo urteetako ordainagiriak ediktuen bidez jakinarazi ahal baitzaio talde osoari batera.

Zergadunaren egutegiari begira egon behar ez izateko eta izan litezkeen errekargu gogaikarriak ordaindu behar ez izateko, herritar askok beren ordainagiriak helbideratzea erabakitzen dute. Hala ere, bankura helbideratuta ere, arazoak sortzen dira sarritan. Batzuetan hala gertatzen da zergadunak uste duelako, zerga bat ordaintzeko kontu-zenbakia emanda, berak udalari ordaintzen dizkion gainerako udal-zergak ere bankura helbideratuko direla automatikoki. Beste batzuetan kexaren arrazoia zergan alta edo baja egitea izaten da, edota etxebizitza edo ibilgailua aldatzea… Izan ere, herritarrak, horrelakoetan, pentsatzen du lehen zegoen banku-helbideratzeari eutsiko diola zergapeko egitate berrian eta, hori dela-eta, ez du banku-helbideratzea berriztatzen.

Ezin dugu ukatu banku-helbideratzeak horrelako nahasmena sortzen duela, ordaintzeko sistema horrek dakartzan betebeharrak eta izan ditzakeen ondorioak behar bezala ezagutarazi ez direlako; eta hori gertatzearen errudunak, neurri batean, tokiko administrazioak dira –ez baitituzte alderdi horiek argitzen–. Dena dela, gure legeriak ez die administrazio publikoei aipamenik ematen banku-helbideratzeei ofizioz alta emateko, hau da, zergadunek ordaintzeko era hori zergapeko egitate horretarako berariaz onartu gabe. Horrela, bada, zergadunek banku-helbideratzeak egin behar dituzte ordaintzen duten zergapeko egitate bakoitzeko, eta, autoa edo etxebizitza aldatzen badute, berriz onartu behar dute.

Ildo horretatik, Bilboko Udalak abian jarri duen ekimen bat aipatu behar dugu, "Eskatu ahalako ordainketa" izenekoa. Udal-zergadunek, zerga guztiak bankura helbideratuz ordaintzen badituzte, tokiko udalak zatika ordaintzeko aukera izango dute. Arazoa da, ordainagiri guztien zenbatekoa ordaindu ondoren, herritarrei ez zaiela bidaltzen zergak ordaindu izanaren egiaztagiria, zeren udal horrek uste baitu ez diela banku lankideei pertsonen intimitatean eragina izan dezaken daturik eman behar, esaterako, jabetzak non dituzten, zein motatako ibilgailuen titular diren… Ildo horretatik, Bilboko Udalari gomendatu zaio, bera baita zerga kudeatzeaz arduratzen dena, bera izateko ordaindutako zergen frogagiria ofizioz ematen duena ere.

Era berean, ekitaldi honetan indarrean sartu dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondasun higiezinen katastro-balorazioen berrikuspenak, eta hori dela-eta zenbait kexa egin dira instituzio honetan. Kontua izan da, gehienbat, ondasun higiezinei egin zaizkien balorazioei errekurtsoa jarri dietela, eta horiek ondorioak izan dituztela, baina Foru Aldundiak ez dituela errekurtsoak ebatzi ukitutako pertsonek haien kontra jarritako errekurtsoak ebatzi aurretik.

## 6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Bilketarako zerga-prozeduran ediktuaren jakinarazpena egiteko betekizunak* (10/2001)

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoari azaldu zion Bilboko Udalak berarekin izandako jokabidea, tasa baten zenbatekoa ordaintzeko eskatu baitzion, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kontzeptu pean.

Kexan, ukitutakoak onartzen du halaxe dela, 1992. urtean obra-lizentzia eskatu ziola Bilboko Udalari lonja bat egokitzeko, eta Udalak lizentzia hori eman ziola. Berak pentsatu zuen, une hartan ordaindu zuen zenbatekoarekin, zor guztia ordaindu zuela.

Alabaina, ez zuen zorra osorik kitatu eta, beraz, Bilboko Udalak ordaintzeko eskatu zion, eta prozedura betearazle bat hasi zuen, tasa eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga kobratzeko. Ukitutakoak adierazi zuzen ez zegoela ados jarduketa horrekin, prozeduran eginiko egintzak ez baitzitzaizkion jakinarazi.

Horri dagokionez, herritarrak esaten du 2000ko abuztuan izan zuela aurreneko aldiz premiamenduzko prozedura horren berri, 118.000 pezeta kendu baitzizkioten kontu korronteetatik. Errekurtsoa jarri zuen Bilboko Udalean, eta horren bidez zorra preskribituta egon zitekeela azaldu zuen, baina Diruzaintzako zinegotzi delegatuak errekurtsoa ezetsi zuen.

Ebazpen horrek oinarrian dituen arrazoiei dagokienez, erreklamazio-egileak Ordainarazpideko Zerga Bilketako Atalak egin duen txostenaz nabarmentzen du; txosten horren arabera, hartzaileari ezin izan zioten jakinarazpenik egin, etxetik kanpo zegoelako.

Txostenean agertzen ziren helbideei dagokienez, kexa jarri duenak esaten zuen helbide hori ez zela bere etxekoa ezta obrak egin ziren lonjarena ere. Era berean, esaten zuen obrak egin ziren lonja 123 zenbakiko etxabean zegoela, ez txostenean jasotako 23. zenbakikoan. Horiek horrela, bere iritziz ez zen bidezkoa ediktu bidezko jakinarazpena egitea, jakinarazpenak ez baitziren sekula bidali bere etxera, ez obrak egin ziren merkataritzako lokalera, nahiz eta Bilboko Udalak toki horien helbide zuzenak jakin.

• Azterketa

Ogasun eta Finantza Sailak aurkeztutako agirien arabera, helbide egokietara bidali zituzten jakinarazpenak. Hala ere, espedientea aztertzean, konturatu ginen 1993. urtean ez zirela behar bezala jakinarazi instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga eta obrengatiko tasa, eta, hortaz, Bilboko Udalak geroago bide betearazlean egin zituen jarduerak baliorik gabe geratu ziren eta, gainera, igarotako denbora zela-eta, zuzentzeko aukerarik gabe. Hala, bada, Bilboko Udalari azaldu genion enbargoa egin zen unean zorra preskribituta zegoela eta, beraz, enbargatutako zenbatekoa itzuli behar zuela.

Zehatzago esateko, 1993. urtean likidazioak ediktu bidez jakinarazi zirenean, ez ziren Bilboko Udaletxeko ediktu-taulan jendaurrean jarri.

Esan beharra dago horrelakoetan iragarkiak nahitaez jarri behar direla udaletxeko iragarki-taulan eta hori administrazio-espedientean jaso behar dela, are gehiago tokiko

erakundeak era horretan egindako likidazioaren komunikazioak jakinarazpenak dituen ondorioak izatea nahi badu. Esan nahi baita, udaletxeko iragarki-taulan ikusgai jartzea ez dela forma hutsezko betekizun bat, baizik eta ediktu bidezko jakinarazpena egiteko bermea. Izan ere, herritarrari zuzeneko eta bana-banako jakinarazpena legez egin zaiola fikzioz sortu da, eta gero herritarrak ezin du likidazioa premiamenduzko prozeduran ezeztatu, nahiz eta Administrazioak hamaika akats juridiko egin.

• Emaitza

Azkenik, Bilboko Udalak ordainagiriak baliogabetzea onartu zuen, eta kexa egin zuenari enbargatutako zenbatekoak itzultzeko agindu zuen.

⇒ *Bahitura-agindua* (987/2001)

• Erreklamazioa

Donostiako herritar bat ez zegoen ados Donostiako udalak bere ibilgailua bahitzeko erabili zuen prozedurarekin.

Gai horren gainean, zera zioen: 2001eko abuztuan, udalak bere autoa herri-bidetik kendu eta udal-gordailura eraman zuen. Autoa jaso ahal izateko, Udalaren Zerga-bilketa Zerbitzuan zor zuen kopurua ordaindu behar izan zuen aurretik, hau da, 64.800 pezeta (43.000 pezeta, zor nagusia; 8.600 pezeta, gainkarguak; eta 13.200 pezeta kostuak: garabia erabiltzeagatik, 9.700 pezeta eta trafikoa, 3.500 pezeta).

Kexagileak, bere idazkian, onartzen zuen TAO eremuan aparkatzeagatik hainbat isun borondatezko epean ordaindu ez zituelako sortu zela ordainarazteko espedientea. Hala ere, gehiegizkoa iruditzen zitzaion udalak bere ibilgailua bahitzea.

• Azterketa

Ordainarazteko espedienteko zertzeladak eta erabili zen bahitura-agindua argitzeko asmoz, erakunde honek bi txosten-eskari egin zizkion Donostiako udalari. Txostenen bitartez zera jakin nahi genuen: ea kexagilearen beste ondasun batzuk -bahitzeko lehentasun hurrenkeran, ondasun higikorrak baino lehenago zeudenak- bahitzen alperrik saiatu ondoren bahitu zioten autoa ala, aitzitik, administrazio horrek zuzenean agindu ote zuen bahitura.

Donostiako udalak bidalitako txostenetan, bere jokaera zuzenbidearen araberakoa izan dela adierazi zuen, izan ere, bahitura une hartan administrazio horrentzat ezagunak ziren zordunaren ondasunei ezarri omen zitzaien; kaltetuaren gain uzten du, beraz, zerga alorreko legeriak ezarritako bahitura-hurrenkeran lehentasuna duten eta bahitu daitezkeen beste ondasun batzuk daudela jakinarazteko betebeharra.

Donostiako udalak zioenez, bahitura egin aurretik kexagileak ez zuen inoiz jakinarazi bahitzeko lehentasuna zuten beste ondasun batzuk zituela.

Halaber, herritarrek laguntzen ez badute, haiek zein ondasun dituzten jakiteko trabak aurkitzen dituela zioen udalak. Lehen aipatutako moduan, berriz, zorra kobratu behar duen udalarentzat prozedura arinagoa eta eraginkorragoa dela onartu zuen azkenean.

Aurrekoaren ildotik, Zergak Ordainarazteko Sailak adierazi zuen oro har baloratu behar dela zerga alorreko legeriak bahiturarako ezarri duen lehentasun hurrenkera, eta

proportzionaltasuna, bizkortasuna eta eraginkortasuna bilatu behar direla udalaren jardueran.

Urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arauak zehazten du -Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Arau Orokorrak-, 131. artikuluan, zein lehentasun-hurrenkera duten ondasunek bahitura batean, eta gauza bera adierazten du Zerga-bilketazko Araudiak 101. artikuluan. Azken araudi honek zera agintzen du:

> *"1. Bermerik ez badago edo aurreko artikuluan aipatzen direnak askiezak badira,* ***enbargoan honako ordena hau bete beharko da:***
>
> *1. Eskudirua edo Gordailu Entitateetan irekitako kontuetako dirua.*
>
> *2. Une berean edo epe laburrera buru daitezkeen kreditu, efektu, balore eta eskubideak.*
>
> *3. Soldata, alokairu eta pentsioak.*
>
> *4. Ondasun higiezinak.*
>
> *5. Merkatal eta industri establezimenduak.*
>
> *6. Metal preziatuak, harribitxiak, bitxiak, zilarreria eta aintzinatekoak.*
>
> *7. Mota guztietako fruitu eta errentak.*
>
> *8. Ondasun higigarriak eta ibilkorrak.*
>
> *9. Epe luzera buru daitezkeen kreditu, eskubide eta baloreak.*
>
> *(…)*
>
> *3. Zordunak, ondasun enbargagarrien talde bakoitzaren barruan, Tributu Bulegoko Buruaren eritziz zordunketaren ordainketa berma dezaten ondasun jakin batzu seinalatu ahal izango ditu.*
>
> *4.* ***Zordunak espresuki eskaturik, enbargo eginbidean kontsignatuz, ondasunen ordena aldatzerik izango da aurreko zenbakiaren arabera, baldin eta Tributu Bulegoko Buruaren eritziz eta honen erantzukizunpean, seinala daitezen ondasunek lehenespenez bahitu beharrekoek bezainbesteko eraginkortasun eta azkartasunez bermatzen badute zorraren kobrantza.***
>
> *5.* ***Tributu Bulegoko Buruak, prozedura edo beste bideren bat dela eta, enbargoen ordenaren aldaketak hirugarren bati kalterik eragiten diola edo, ustez bederen, eragin diezaiokeela jakiten badu, ezezkoa emango dio zordunaren eskari orori."*** (sic)

Kontuan izanik arauak zer dioen eta arau hori, batik bat, hitzez hitz ulertu behar dela, Zerga-bilketazko Araudiak finkaturiko bahitura hurrenkera nahitaez bete beharrekoa da, eta, beraz, ez dago aldatzerik administrazio zerga-biltzailearen nahiaren arabera.

Gauza bera adierazten dute justizia auzitegiek ere, ezereztu eta inolako balio edo eraginik gabe utzi baitituzte bahitura-eginbideak, baldin eta bahitzeko agindua urratuz burutu bada ondasunen bahitura.

Horrela, bahitura-agindua betez, administrazio zerga-biltzaileak ondasunak bahitu behar ditu, zorraren zati nagusia, gainkarguak, korrituak eta kostuak ordaintzeko bezainbeste, eta, betiere, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz (Zergei Buruzko Foru Arau Orokorraren 131. artikulua). Hau da, administrazioak, ondasun-bahitura erabakitzeko orduan, ahaleginak egin behar ditu ondasun horiek zorra ordaintzeko nahikoa izan daitezen, baina beren balioak zorraren zenbatekoa nabarmen gainditzen

ez duela. Aztergai dugun kasuan, ordea, bi milioi pezeta balio dituen ondasun bat bahitzea erabaki zen, 51.600 pezetako kopurua ordainarazteko.

• Emaitza

Udalari gomendatu genion ofizioz ezezta zezala ordainarazteko espedientean agindutako bahitura-eginbidea, izan ere, bahitura hori proportzionaltasun printzipioa eta bahitu zitezkeen ondasun-eskubideen lehentasun hurrenkera urratuz erabaki zen. Jakina denez, urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arauak -Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Arau Orokorrak-, 131. artikuluan, eta Zerga-bilketazko Araudiak 101. artikuluan ezartzen dute ondasunen lehentasun hurrenkera.

Donostiako udalak ez zuen gomendio hori onartu.

## B) **Foru zergak– PFEZ**

⇒ *Familiako kenkariak: Egoera zibilaren araberako bereizketa* (1040/2001)

• Erreklamazioa

Gipuzkoan bizi den hiritar batek kexa aurkeztu zion erakunde honi. Adierazi zuenez, bidegabeko bereizkeria dago, PFEZ arautzen duen 8/1998 Foru Arauan. Arau horren 71.4 eta 72 artikuluen arabera, bereiztutako pertsonei, dibortziatutako pertsonei edo ezkontza deuseza egin dutelako epaia duten pertsonei bakarrik emango zaizkie familietako kenkariak. Seme-alabekin bizi ez diren baina epailearen erabakiz elikadurako pentsioa ematen dieten ezkongabeek ordea, ez dute eskubide hori. Hiritar honek salatu duenez, eskubide hori duten pertsonekiko ezberdintasun bakarra egoera zibila da.

• Azterketa

Auzitegi Konstituzionalaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, berdintasunaren printzipioak ez du esan nahi kasu guztietan nahitaez legezko tratamendu berbera aplikatuko denik, garrantzi juridikoa duten elementu bereizleak baztertuz. Aitzitik, *“legezko tratamendu bereizi honek muga bat dauka: bazterkeria. Hau da, bereizketak justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izatea da muga”*.

Gure ikuspegitik, 71.4 artikuluak (seme-alabengatiko kenkaria) eta 72. artikuluak (seme-alabak elikatzeko pentsioagatiko kenkaria) egiten duten bereizketa hori, seme-alabekin bizi gabe haien mantenuan laguntzen duten ezkongabeen aldean, bereizkeria da eta ez da zilegi. Izan ere, ezkontza bidezko lotura hautsia izateak ez du zerikusirik seme-alaben mantenuan laguntzeko betebeharrarekin. Horrenbestez, ez du zentzurik, bi kenkari horiek aplikatzeko, arauak ezkontza haustea ezinbesteko baldintzatzat hartzea.

Beraz, Konstituzioaren 14. artikuluaren ustezko zaurtzearen aurrean geundelakoan, Gipuzkoako Aldundiarengana jotzen genuen, gure kezka adierazteko eta bere balorazioa eskatzeko. Aldundiaren erantzunak ez zuen argitu gure planteamenduari buruz zuten jarrera. Horregatik, gomendioa egin genuen, Batzar Nagusietan PFEZ arautzen duen abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 71.4 eta 72 artikuluak aldatzeko proposamena aurkez zezan. Gomendaturiko aldarazpen horren arabera, euren seme-alabekin bizi ez

diren eta epailearen aginduz beraien mantenuan lagundu behar duten ezkongabeak aplikazio eremuan sartuko lirateke.

• Emaitza

Gomendioa onartu egin zen, eta artikulu horiek maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren bidez aldatu ziren. 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izan zituen ondorioak aldaketa horrek.

⇒ *Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria: Okupatzeko hamabi hilabeteko epearen salbuespenak* (328/2002)

• Erreklamazioa

Interesatuak, 2000ko ekitaldiko PFEZaren aitorpenean, ohiko etxebizitzan inbertsioa egiteagatiko kenkaria aplikatu zuen. Izan ere, 1999. urtean Gasteizen etxebizitza bat erosi zuen xede horrekin, hipoteka mailegu baten bidez finantzatuz. Adierazpen hau aztertzean, Arabako Foru Ogasunak adierazi zuen hamabi hilabeteko epea ez zela bete. Epe hori PFEZaren araudian ezarri zen: etxebizitza ohiko bizilekua dela jo ahal izateko, hamabi hilabeteko epean okupatu behar du. Horregatik, behin-behineko likidazioa igorri zion, kenkaria deuseztatzeko.

Behin-behineko likidazio horren aurka eginiko erreklamazio ekonomiko-administratiboan, interesatuak alegatu zuen ezinezkoa zela arauan ezarritako epeetan etxebizitza okupatzea, egoera berezian zegoelako. Izan ere, berak eta emazteak, etxebizitza erosi aurretik, adingabeak hartzeko hitzarmena sinatua zuten Gasteizko Udalarekin, "erakunde bidezko ordezko familia" modalitatean. Hitzarmenean, udalak lagatako etxebizitza batean bizitzeko baldintza bete behar zen. Etxebizitza hori Gasteiztik hurbil dagoen udalerri batean dago, eta euren bi seme-alabak eta hartutako bost umeak ondo bizitzeko baldintzak betetzen ditu.

Arabako Erakunde Juridiko eta Administratiboak adierazi zuen erreklamatzaileak alegatutako egoera ezin zela sartu Zergaren Araudiaren 61. artikuluko salbuespenetako ezeinetan (salbuespen horiek etxebizitza okupatzeko epea kontuan ez hartzeko dira). Horregatik, erreklamazioa gaitziritzi zuen.

Interesatua ez zegoen ebazpenarekin ados, eta erakunde honi bere egoera azaldu zion.

• Azterketa

PFEZaren Araudiaren 61. artikuluko 2. idatz-zatian ageri diren salbuespenak hauek dira, erositako etxebizitzan bizitzen hasteko hamabi hilabeteko epea betetzeko betebeharrean:

"…

a) *Zergaduna hiltzen denean edo etxebizitza okupatzea galarazten duten bestelako inguruabarrak gertatzen direnean, artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako terminoetan.*

b) *Zergadunak ohiko etxebizitza karguagatik edo lanagatik daukanean, eta erositako etxebizitza horregatik erabiltzen ez duenean. Kasu horretan,*

*hamabi hilabeteko epe hori kargua edo lana uzten duenetik aurrera zenbatuko da."*

Bestalde, 1. idatz-zatian, epeak betetzeko salbuespenen zerrenda irekia dago. Salbuespenerako inguruabarrak hauek dira, horren arabera; ezintasun kasuetan etxebizitza egokiturik ez egotea, ezkontzea, ezkontzako bereizketa, lantokia lekuz aldatzea, lehen enplegua edo enplegu berria eskuratzea, eta antzeko egoerak.

Beraz, kontuan izanik azaldutako arautegiak kexa hau egin duenaren egoera sobera jasotzen duela, Arabako Foru Aldundiarengana jotzen dugu, bere jarrera berriro azter dezan eta erreklamatzaileari kenkaria egiteko eskubidea aitor diezaion, bere ohiko etxebizitzan inbertsioa egin duelako, harik eta harrera egoerak iraun arte. Denbora hori ez litzateke kontuan izango kenkaria egiten zaion etxebizitzan bizitzen hasteko exijitu ohi den hamabi hileko eperako.

• Emaitza

Arabako Foru Aldundiak erreklamatzaileari PFEZaren aitorpenean kenkaria aplikatzeko eskubidea onartu zion, etxebizitzako inbertsioagatik, guk planteatu genituen termino berberetan.

⇒ *Baterako aitorpena: Familia unitatean adinez nagusi diren kide guztien sinadura ezinbesteko baldintza da zergak ordaintzeko modalitate honetan* (444/2002)

• Erreklamazioa

Hiritar batek, 1998ko ekitaldiko PFEZaren aitorpena aurkeztean, zergak batera ordaintzeko laukitxoa markatu zuen, modalitate honi dagokion eskala aplikatuz, baina emaztearen diru sarrerak eta sinadura jarri gabe.

Handik eta egun batzuetara, foru ogasunak behin-behineko likidazio bat igorri zion. Baterako modalitateari eusten zitzaion likidazioan, eta hiritar horren emaztearen diru sarrerak sartu ziren. 90.000 bat pezetako kuota ordaindu behar zela ondorioztatu zen. Interesatuak, likidazio horren aurka egin zuen birjarpenezko errekurtsoan, likidazio berria egiteko eskatu zuen, banakako modalitatean. Alegatu zuenez, banakakoa egitea izan zen bere benetako asmoa eta horregatik ez zeuden bere aitorpenean emaztearen diru sarrerak ezta sinadura ere. Gero, arauzko epearen barruan, emazteak bere aitorpena aurkeztu zuen, banakako modalitatean.

Birjarpenezko errekurtsoa gaitziritzi zen, eta interesatuak erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen, baina hori ere gaitziritzi egin zen. Ebazpen bietan, zerga ordaintzeko aukera ezeztatu ezina dela izan zen oinarria, PFEZaren 7/1991 Foru Arauaren 88. artikuluan ezarri zenez. Interesatua ez zen ados gelditu ebazpen horiekin, bere alegazioek ez zutelako erantzunik jaso. Horregatik, erakunde honetan kexa aurkeztu zuen.

• Azterketa

Aitorpenak sinatzeari buruz, 7/1991 Foru Arauaren 96.5 artikuluan honakoa adierazi zen:

*"Baterako zerga aitorpenean, aitorpena adinez nagusi diren familia unitateko kideek aurkeztu eta sinatu behar dute, unitate horretako adingabeen ordez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren terminoetan".*

Bestalde, arau horretako 89. 4 artikuluan, honakoa adierazi zen baterako zerga ordainketari buruz:

*"Pertsona horiek era baterako eta solidarioan geldituko dira zergaren mende, subjektu pasibo gisa. Hori gorabehera, euren artean zerga zorra laintzeko eskubidea dute, bakoitzari dagokion errenta zatiaren arabera.".*

Artikulu biok irakurrita, ondorioztatzen dugu familia unitateko kideek sinatzea (senar-emazteek, kasu honetan) ezinbesteko baldintza dela baterako adierazpenean. Izan ere, sinadura da, gure ustez, aitorpen berean dauden pertsona guztiak ados daudela bermatzeko, arauak aukeratu duen tresna. Gainera, uste dugu norberaren baimen horren bidez (sinadura batez adierazia) sortzen dela betebehar solidario eta baterakoa, zergari dagokionez.

Baina birjarpenezko errekurtsoaren ebazpenean eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpenean ez ziren aipatu erreklamatzailearen emazteak sinatu ez izanak dituen ondorioak, nahiz eta gai hori erreklamazio bien argudio nagusia izan zen.

Bestalde, administrazioaren jarrera, erreklamatzailearen emazteak eginiko banakako aitorpena ez onartzearena, aipatutako foru arauaren 88. artikuluko lehen paragrafoarekin erabateko kontraesanean zegoen. Hauxe dakar hitzez hitz lehen paragrafo horrek:

*"Baterako zerga ordainketa hautatzean, familia unitateko kide guztiak hartu behar dira kontuan. Haietakoren batek banakako aitorpenik aurkeztuz gero, gainontzekoek ere hala egin beharko dute."*

Kontu bi horiek, sinadurarik ez egotearen ondorio baliogabetzailea eta ezkontideetako batek banakako aitorpena epean aurkeztu izana, izan ziren erakunde honen argudioak Bizkaiko Foru Aldundiari igorritako idazkian, aldundiak bere erabakia berriro hausnar zezan eskatzeko.

• Emaitza

Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen sinadurarik ez egotearen ondorio baliogabetzailea eta, horrenbestez, erreklamatzaileak aurkeztutako aitorpena ez dela baterakoa. Ondorioz, aurreko ebazpenak ezeztatzea eta likidazioak banakako modalitatean egitea erabaki zuen.

## C) Foru zergak: Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

⇒ *Hiri higiezinen balorazioa* (1144/2001)

• Erreklamazioa

Hiritar batek etxebizitza erosi zuen Gasteizen, eta Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga autolikidatu zuen, 24.700.000 pezetako balioa emanez. Aitzitik, Arabako Foru

Aldundiak behin-behineko likidazioa igorri zion. Bertan, etxebizitza horren balorazioa 35.388.403 pezetara igo zen.

Interesatua ez zegoen balorazio berri honekin ados eta likidazioaren aurkako birjarpenezko errekurtsoa egin zuen. Bere eskubideen alde alegatu zuen salerosketa eskrituran aitortutako balioa, zergaren autolikidazioan, erosketaren benetako balioa zela. Gainera, erreklamaziogileak adierazi zuzenez, aldundiak ezarritako balorazio arauek ez zuten kontuan izan higiezinaren narriadura, kasu honetan nahiko nabarmena zena. Izan ere, arau horien arabera, katastroko balioen gaineko eguneratze-koefizienteak aplikatu baino ez zen egin balorazioa ateratzeko.

Errekurtsoa jarri zuenetik lau hilabete igaro ziren administrazioaren erantzunik jaso gabe, eta likidaziotik ondorioztatutako kuota ordaindu zuen mugaegunean. Orduan, interesatuak esku hartzeko eskatu zigun.

• Azterketa

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren 11. artikuluan ezarri zenez, oro har, zerga oinarria bat dator eskualdatutako ondasunaren benetako balioarekin. Bereziki, landa eta hiri izaerako ondasunei dagokienez, manu horretan bertan adierazi zenez, Arabako Foru Aldundiak ematen dituen arauekin bat etorriz baloratu behar dira. Arau horiek urtero eguneratuko dira balioak errealitate ekonomikoari egokitzeko. Horretarako, aurreko urteko kontsumorako prezioen indizea gehitzen edo urritzen dena (kasuan kasu) erabiliko da gutxieneko tasa gisa.

Gaur egun, 78/2000 Foru Dekretuan higiezinak baloratzeko arauak daude, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari eta Ondarearen Eskualdaketen gaineko Zergari aplikatu beharrekoak. Horiek aplikatzetik gutxieneko balio bat ateratzen da, eta berarengan oinarrituta egin behar da aitorpena, likidazioa edo autolikidazioa. Hori gorabehera, administrazioaren egiaztapenaren araberakoak egin beharko dira.

Arabako aldundiarekin harremanetan sartu ginen, espediente honen tramitazioaren egoeraz galdetzeko, eta errekurtsoaren ebazpena ahalik eta gehien azkartzeko konpromisoa hartu zuen aldundiak. Aldundia Katastroko Zerbitzuaren balorazio txostenaren zain zegoen, higiezinaren banakako peritazioaren ondorioekin idatzi beharrekoa.

• Emaitza

Aldundiak izendatutako perituak eginiko balorazioa behin-behineko likidaziokoa (balorazio arauak aplikatuz egina) baino askozaz ere txikiagoa izan zen: 28.250.000 pezeta, 35.388.403 pezetaren ordez). Horrenbestez, jarritako errekurtsoa zati batez onetsi zen ebazpen baten bidez, eta ordaindu zuen kuotaren gehiegizko zatia itzuli zitzaion interesatuari, bere alde sortutako interesekin batera.

## D) **Udal zergak**

⇒ *Titularkidetasunaren eragina OHZren likidazioetan* (662/2002)

• Erreklamazioa

Gasteizko bizilagun batek kexa aurkeztu zion Arartekoari, Gasteizko Udalak honek berari bakarrik igortzen ziolako lursail baten OHZ, nahiz eta lursailaren jabetza 15 pertsonari zegokion.

Pertsona hori 72 urteko andre bat da, diru sarrera ertainak dituena. Berak adierazi zuenez, bere ekonomia xumearentzat oso kaltegarria zen ordainagiriaren zenbateko osoa ordaindu behar izatea. Gainera, gainontzeko jabeei zerga honetan zeuzkaten kuotak eskatzeko eragozpenak azaldu zituen; izan ere, finkaren titularkidetasuna zuten pertsonetako asko ez zituen ezagutzen, ez zekizkien haien helbideak, eta ez zuen bitartekorik gainontzeko jabeei euren kuotak ordaintzeko agintzeko eta behartzeko. Egoera horren ondorioa, adierazi zuenez, ondasunaren OHZ berak bakarrik ordaindu behar izatea izan zen.

Horregatik, zerga igortzerakoan, bere partaidetza kuota bakarrik igortzeko eskatu zuen. Gainera, nabarmendu zuen higiezinaren portzentajerik handienen titularrak eraikuntza enpresak zirela. Horiek bitarteko gehiago zituzten udalari ordaintzeko eta kuotak jasanarazteko.

• Azterketa

Zergen Lege Orokorrean, beren beregi aurreikusten da ordainketa solidarioko betebeharra ogasun publikoaren aurrean, baldin eta zerga egitatean bi titular edo gehiago badaude. Baina, betebehar hori noraino heltzen den zehaztean, epaitegien doktrina kontuan izan behar da. Ildo horretan, adierazi genuen auzitegiak banakako likidazioak egitearen aldeko direla guztiz eta, horrenbestez, titularretako edozeini zor osorako likidazio bakarra igortzearen aurkako direla, baldin eta administrazioak banakako likidazioak datu egoki eta nahikoen berri badu.

Horri buruz, kontuan izan behar da banakako likidazioak egiteak ez diela inolako zailtasunik sortzen administrazio ordainarazleei. Gainera, administrazio horiek premiamenduzko bidea erabil dezakete ordainketa erreklamatzeko, titularkideren batek ez badu dagokion zorraren zenbatekoa ordainarazpidean ordaintzen.

• Emaitza

Gasteizko Udalak interesatuaren eskaera onartu zuen eta ordainagiria deuseztatu zuen. Izan ere, orain dela gutxiko jurisprudentziaren arabera, izaera solidarioaren arau orokorra bakarrik erabili behar da baldin eta zerga egitate berean titular bat baino gehiago badago eta denak baldintza beretan badaude. Halaber, udalak onartu zuen, izaera solidarioaren printzipioa aplikatu ahal izateko, zorduna aukeratzean ezin dela jabeetako batentzat emaitza ez bidezkoa gertatu.

## E) **Udalaren tasa eta prezio publikoak**

⇒ *Zaborraren tasa ordaintzeko betebeharra* (18/2002)

• Erreklamazioa

Lokal baten titularrak kexa egin zuen erakunde honen aurrean, lokalak zaborrik sortu ez arren “Servicios de Txingudi/Txingudiko Zerbitzuak”ek zaborren tasa kobratzen ziolako.

• Azterketa

Zaborrak biltzeko zerbitzua emateari buruz, esan behar dugu geure tokiko legerian (zehazki, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legean) udalerri guztiei ezarri

zitzaien zaborrak biltzeko zerbitzua emateko betebeharra, euren kabuz edo beste batzuekin elkarturik.

Halaber, kontuan izan behar da zaborrak biltzeko zerbitzua tasa dela juridikoki. Beraz, derrigor hartu beharreko zerbitzua dugu hau. Hau da, zaborra sortu nahiz ez sortu, udalerrian higiezin bat daukan jabe orok tasa ordaindu behar du, zerbitzua erabili ahal izate hutsagatik. Beraz, hutsik dauden pisu, lokal, komertzio eta abarren jabeek ere tasa ordaindu behar dute.

Ukitutakoari argitu zitzaion Irungo Udalak 1997. urtean erabaki zuela Hondarribiako Udalarekin mankomunitate modura ematea zaborrak biltzeko, eta hiri hondakin solidoak tratatzeko eta suntsitzeko zerbitzua. Horretarako, sozietate publiko bat sortu zuten, “Servicios de Txingudi, S.A./Txingudiko Zerbitzuak”. Horregatik, mankomunitate horrek onetsi zuen hiri hondakinak biltzeko, tratatzeko eta suntsitzeko edo aprobetxatzeko zerbitzuaren tarifak arautzen dituen zerga ordenantza, Irunen indarrean dagoena.

• Emaitza

Erreklamatzaileari adierazi genion ez genuela irregulartasunik ikusten “Servicios de Txingudi/Txingudiko Zerbitzuak”en jardunean.

### ⇒ *Uraren udal tasan, zergadunaren ordezkoa* (162/2002)

• Erreklamazioa

Gasteiz udalerrian dagoen lokal komertzial baten titularrak kexa aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, lokalaren errentariak ordaintzeke utzi zituen ordainagiriak berari erreklamatu zizkiolako AMVISAk. Hau da, erreklamatzaileak adierazi zuen ez zegoela ados zergadunaren ordezko izaera jasotzearekin, ura hornitzeko eta saneamenduko zerbitzua ematen zaien higiezinen jabeen ordez.

• Azterketa

Ura hornitzeko eta hondakin urak tratatzeko udal zerbitzua ematea arautzen duen ordenantzan, Gasteizko Udalak ezarri zituen aurreikuspenak tasen eta euren ondorio juridikoen ezaugarriak baino ez dira. Horrela, ordenantza honetan aurreikusi zenez, *“uraren kontsumorako eta arazketarako ordainagiriak ordaintzeko, jabeak maizterraren ordezko izango dira, pertsona fisiko zein juridikoak izan”.*

• Emaitza

Halere, erreklamatzaileari adierazi zitzaion justizia auzitegiaren aurrean ager zitekeela lokal komertzialaren errentariaren aurka, errentak eta ordainagiriak ez ordaintzeagatik. Gainera, jakinarazi zitzaion urte horretan kapital higiezinaren etekinak eskuratzeko egin behar izan dituen gastuek kenkariak sor zitzaketela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenean. Hau da, errentariak ordaindu gabe utzi zituelako berak ordaindu behar izan zituen argiaren, uraren eta abarren zenbatekoak aurkeztu ahal zituen eta kenkariak lortu, zenbateko horiek ordaintzea ezinbestekoa zelako lokal komertzial hori alokatzeagatik jasotzen dituen errentak eskuratu ahal izateko.

# 7. HERRIZAINGOA

## 7.1. SARRERA

2002 urtean Ararteko erakundeak Herrizaingo alorraren gaineko 128 kexa jaso ditu, hau da, ekitaldian aurkeztutako kexen % 13,1 Horrek esan nahi du 2001ean arlo horretan erregistratutako kexen aldean % 66,23 gehitu direla.

Kexak, zein herri administraziori dagozkion arabera, honelaxe banatu dira:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........... 44
- Foru administrazioa ........................................................................ 6
- Tokiko administrazioa ..................................................................... 83

Kexen gaien arabera, hona hemen banaketa zein izan den:

| | |
|---|---|
| Trafikoa | 79 |
| Eskubideak eta askatasunak | 13 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 13 |
| Herritarren segurtasuna | 12 |
| Jokoa eta ikuskizunak | 9 |
| Atxiloketa zentroak | 1 |
| Beste batzuk | 1 |

Gainera, ofizioz hasitako 12 espediente izapidetu dira, honako azpialor hauetan: eskubideak eta askatasunak (4), atxiloketa zentroak (3), trafikoa (3) eta herritarren segurtasuna (2).

Aurreko urteetan bezala, **trafikoaz** aurkeztu diren kexarik gehienak zehapen araubideari buruzkoak izan dira.

Zehapenak jartzeko eta premia bidetik nahitaez betearazteko jarraitutako prozedurak kexa zio sarrienetakoa izaten segitzen du. Aurten kexarik gehien eragin duen prozedurazko bizioa, jendea egon edo aurkitu ez denean, jakinarazpenak oker egin direla izan da. Izapide hori ondo betetzeak ukitutako pertsonek defendatzeko duten eskubidea bermatzeko duena garrantziak txosten honetan gai honen gaineko gomendio orokorra sartzera eraman gaitu.

Zehapenak nahitaez betearaztea, aurretiaz direneko administrazio errekurtsoak ebatzi gabe, izan da tarte honetan azaleratu den beste gai garrantzitsu bat.

Aipagarriak dira, halaber, zenbait zehapen prozeduraren izapide eredu eta aurretiaz prestatutakoen ondorioz jarri diren kexak, izapide horiek defentsa eskubidea nabarmen urratzen baitute, egiten diren alegazioak jarraitutako ereduak kontuan hartzen dituenen bestelakoak direnean.

Bilboko Trafiko eta Aparkalekuen Arautegi berriak (TAO), urte hasieran onartu zenak, kexa ugari ekarri ditu. Antolamendu berriaren alderdirik arazotsuenen artean araupetutako eremuan estazionamendu txartela lortzeko eskatutako baldintzak aipa daitezke –bereziki, ibilgailu misto moldagarriei exijitutako baldintza teknikoak, egoitza udalerrian izatea kreditatzeko modua, eta udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez edukitzea-, eta ezgaituentzako estazionamenduko berariazko araubidea ezartzeko baldintzak ere

bai. Kexa horietako bi (402 eta 420/2002) laburbildu ditugu, aipatutako bi gai horien gainekoak baitira, hurrengo atalean ageri den kexa hautatuen sortan.

Ezgaituentzako gordetako aparkalekuen erabilpen okerra eta hainbat udalek horren aurrean duten pasibotasuna kexa gai izan dira aurten ere.

Berdin gertatzen da kaletik bertan utzita daudelako zantzuak ikusi eta eramandako ibilgailuekin –ondo aparkatutakoak-, aurreko urteetan bezala, gaiak aurten ere zenbait kexa ekarri ditu-eta.

**Herritarren segurtasunari** dagokionez, Donostiako Udaltzaingoaren jarduera berriro ere aurkeztu zaigu 2002an, gure irizpena eman dezagun, atzerritarren jarritako bi kexatan, non polizia batzuek eman zieten gehiegikeriazko tratua salatzen baitzuten. Horietako kexa bat hurrengo ataleko sortan laburbildu dugu (604/2002).

Ez da erakunde honi halako auzi bat aurkezten zaion lehen aldia. Gogoan izan behar da 2000ko txostenean ere, Herrizaingo alorrean, horien antzeko kexa bat jasota utzi genuela (377/2000). Orduan gorputza erabat biluzik miatzeko diligentzia egiteko moduaren gaineko gomendioa egin genuen, eta txosten honen I. kapituluan bere jarraipenaren berri ematen dugu, atxilotuen udal egoitzetako egoeraren gaineko atalean (1.1.11 atala).

Aipatu behar da, esparru berean, 9 urteko ume baten gurasoek Ertzaintzaren patruila baten aurka jarri zuten kexa. Ertzainek umea eta adin bereko bere hiru lagun jolasten ari ziren jostailuzko pistolak atzeman zituzten, ikastegitik irtetean, eta gurasoak kexatu ziren polizien diligentziak adingabeekin zuzenean, gurasoak aurrean egon gabe eta gurasoei ezertarako deitu gabe egin zirelako, eta ingurumaria horietan, ertzainek adingabeei atzemate akta sinarazi zietelako.

**Eskubideen eta askatasunen** esparruan, esanahi berezia dauka Ertzaintzak elkarretaratze batean, identifikatzera ukatzeagatik, zauritu zuen herritar batek jarritako kexa. Interesatua kexatzen zen, batez ere, poliziaren txostenean ez zelako ondo islatzen benetan gertatu zena, berak baitzioen ez zuela inolako erresistentziarik jarri, eta ez zuela inolako indarkeriarik erabili, eta horrela frogatu zela gertakari haiengatik bideratu zen zigor prozeduran. Baina, bere ustez, gainera, elkarretaratzean zeuden guztien artean bera zentzuzko zantzurik gabe, zoriz hautatu zuten, elkarretaratzearen antolatzaile gisa identifikatzeko. Azkenik, bere iritziz, polizia egoitzetan nola miatu zuten ere gehiegizkoa izan zen zeren, antza, biluzarazi baitzuten.

Azkeneko ohitura hori, erakunde honek behin eta berriro kargu hartu dien ohitura, beste herritar batek ere salatu du aurten. Herritar hau Ertzaintzak atxilotu zuen, elkarretaratze berean, identifikatzera ukatzeagatik.

Gai honetan Bilboko San Frantzisko auzoko andre batzuek helarazi ziguten kexa ere aipatu behar da. Ertzaintzak auzo hartan, martxoan, egin zuen operazio batez ari ziren, eta beren ustez, poliziaren jarduera neurrigabea izan zen, eta miatu eta identifikatzeko hautatu zituzten pertsonak atzerritarrak zirelako eta, zehazki, larruaren koloreagatik soilik eta bakarrik aukeratu zituzten.

Beste bi pertsonek, zigor aurrekaririk eduki ez arren, Ertzaintza beren argazkiak, delitugile gisa erakusten ari zela jakin zutenean aurkeztu ziguten kexa ere aipatu behar dugu. Kexa honen xehetasun gehiago hurrengo epigrafean aurkituko duzue (114/2002).

Gure erakundeak 2002 urtean burututako hainbat jardueraren ondorioz, jakin ahal izan dugu oraindik ez dela erabat bete Herrizaingo Sailari 1974/1998 kexa espedientean egin genion gomendioa: alegia, polizien atxiloketetan tratu txarrak

ekiditeko, ertzain-etxeetako ziegen eremuan bideo grabazioetarako sistema jartzeko proposamena –1999 urteari buruzko txostenean laburbildua-. Halaxe da, gure informazio-eskaera ugariei emandako azken erantzunean, sail horrek dio kontrol-sistema *Ertzaintzaren atxiloketa zentro guztietan ezarri dela;* hala ere, 2002ko azken hiruhilabetean bi komisariatara egin ditugun ikustaldietan, ziegen alde batzuk grabaketa digitalezko kamaren kontroletik kanpo geratzen direla egiaztatu genuen (ikus I atala, 1.1.11 puntua).

Bestalde, Herrizaingo Sailak ez digu eman grabaketak kontrolatzeko ezarri dituen prozedurei buruzko azalpen garbirik. Gai horren gainean, gogoratu behar dugu gomendioak gutxieneko baldintza batzuk betetzearen mende jartzen zuela sistemaren eragingarritasuna: besteak beste, grabatutako materiala sistematikoki ikuskatzeaz eta hasierako ikuspenean igarritako gorabeheren ondorioak aztertzeaz arduratuko zen pertsona edo batzordea zein izango zen erabakitzea.

Gomendioak garrantzi berezia hartzen du aurten, Ertzaintzak egindako atxiloketa batzuen inguruko hainbat tortura salaketaren berri izan baitugu.

Esan behar dugu, bestalde, salaketa horiei dagokienez, batez ere bi jarduera burutu ditugula: bata Herrizaingo Sailaren aurreko ofiziozko espediente baten bidez, eta bestea, kale borrokako hainbat ekintzaren salaketapean Ertzaintzak atxilotutakoen gaineko polizien txostenak aztertuz.

Lehenengo kasuan, Herrizaingo Sailari Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) Ertzaintzak 2000 eta 2001ean egindako atxiloketetan bildu eta argitaratu zuen ustezko tratu txarren gaineko informazioa helarazi genion –2000ko guztirako 76 kasuetatik 32renak eta 2001eko 68tik 7renak-. Gaia, hasieran, gure erakundeko pertsona batzuek polizien arduradunekin izandako bilera batean aztertu zen. Ondoren, herrizaingo sailak eskatu genion informazioa eman zigun, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko Torturaren gaineko Kontalari Bereziari bidalitako erantzunak, hain zuzen. Dokumentazio luzea da, 300 orrialde inguru, eta txosten hau egiteko orduan, oraindik aztertzen ari ginen.

Bigarrenean, erakundearen jarduerak urteko azkeneko hiruhilekoan garatutako polizia operazioetan atxilotutako pertsonen senideek (gurasoek) helarazi dizkiguten informazio eta kexengatik egin dira. Esku hartzeko gure ahalbideak kasu guztietan epaitegiko bidea zabaldu delako murriztuta geratu diren arren, erakundeak egiten duen prebentzio lanari jarraituz, egindako operazio guztietako polizien txostenak aztertu ditugu, atxilotutakoen eskubideen bermean eraginik handiena izan lezaketen kontuei bereziki adituz: epaileen baimenak, epaitegiko idazkaria etxeen miaketetan egotea, mugimendu guztiak, auzitegietako medikuen bisitak eta epaitegietako segizioak, ospitaletarako irteerak eta medikuen azterketak dokumentuetan islatzea eta abar. Behin lortutako informazioa baloratu ondoren, hobetzeko proposamenak egitea aurreikusten dugu.

Azkenik, aipatzekoa da erakunde honek ofizioz burutu zuen jarduera bat, hain zuzen, irailaren 14an *Gora Euskalherria* lemarekin Bilbon antolatu zen manifestazioa desegitean Ertzaintzak izan zuen jokaeraz. Izan ere, manifestaziora joan ziren pertsonetatik askok uste osoa zuten ekintza hura ez zela legez kanpokoa. Horregatik, Herrizaingo Sailera jo genuen, manifestazio hura legez kanpokoa zela jendeari jakinarazteko zein neurri hartu ziren galdetzeko. Halaber, ertzainek indarra erabili zutenean proportzionaltasun eta arrazionaltasun printzipioak errespetatu ote zituzten ere galdetu genion. 2003ko otsailaren hasieran jaso dugu erantzuna, baina emandako informazioa ez zaigu nahikoa iruditzen; horregatik, informazio osagarria eskatuko dugu.

**Administrazioaren funtzionamenduari** dagokionez, aipagarria da arabar lurraldean izandako zirkulazio istripu batean lau senide galdu zituen familiak jarritako kexa. Kexatu ziren, batez ere, Ertzaintzak heriotzazko istripu haren ondorioz egin behar zituzten tramiteen gainean eman zien informazioa okerra eta nahasia izan zenez, familiak, halako une latzetan, Bilbo eta Errioxako beren etxeetatik Arabako hiriburuko hainbat tokitarako joan-etorriak egin behar izan zituztela, alferrik. Baina istripuaren inolako komunikazio ofizialik izan ez zutelako ere kexatzen ziren, eta Ertzaintzak ez zielako istripuaren tokian jasotako hildakoen gauzak Bilboko polizia etxean eskuratzeko aukerarik eman, beraiek eskatu zuten bezala.

Aipagarria da, era berean, tratu txarrak jasandako emakume batek jarritako kexa, beste eraso baten ostean Gasteizko Udaltzaingoarengana bigarren salaketa jartzera jo zuenean, ez zuelako kexa jartzea lortu, kontatu zigunarengatik, artatu zuten udaltzainek burutik kendu ziotelako eta, gainera, berarekin zuzen jokatu ez zutelako.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Ertzaintzak delitu baten egileak identifikatzeko izapidean zigor aurrekaririk gabeko pertsonen argazkiak erakutsi zituen* (114/2002)

• Erreklamazioa

Bi pertsonak gugana jo zuten, kontatu zigutenez, ustekabean, jakin zutelako Ertzain etxe batean beren argazkiak erakusten ari zirela, delitugileak bailitzan, lapurreta baten egileen argazkien bidezko identifikazioaren izapidean.

• Azterketa

Erreklamaziogileak, antza, Ertzaintzak behin atxilotu zituen, lapurreta salaketapean, eta horren ondorioz zigor jurisdikzioak aurretiazko diligentziak abiatu zituen, gerora artxibatu zirenak, behin behineko auzi-uztea erabakitzean.

Herrizaingo Sailak, ordea, ez zituen polizia ikerketan zehar interesatuengandik lortutako datu pertsonalak ezabatu, eta ertzain etxeetako fitxategietan eta argazki bildumetan erregistratuta ageri ziren. Eta horrexegatik, hain zuzen, erabili zituzten erreklamaziogileen argazkiak, lapurreta baten egileak identifikatzeko orduan, bien zigor aurrekaririk izan ez arren.

Interesatuek Herrizaingoari horrekin ados ez zeudela jakinarazi zioten, eta beren argazkiak kentzeko eskatu zioten.

• Emaitza

Kexa izapidetzen zen bitartean, erreklamaziogileek jakinarazi ziguten Herrizaingo Sailak hasita zeukala beren datu eta argazki fitxak ezabatzeko prozedura eta, geroago, prozedura horretan datuok ezabatzeko hartutako erabakiaren berri ere eman ziguten.

Gure irizpenaren mende jarritako arazoa interesatuen datuak ezabatzearekin konponduta zegoela pentsatuta, espedientea itxi egin genuen.

B) **Herritarren segurtasuna**

⇒ *Polizien jarduerak atxiloketan zehar* (604/2002)

• Erreklamazioa

Emakume atzerritar batek Donostiako udaltzain batzuen jardueraren gaineko kexa jarri zuen. Erreklamaziogileak zioen behin, goizaldean, polizia etxera joan zela beste bi lagunekin batera, bere automobila non zegoen argitzeko, ea garabiak eraman zuen galdetzera. Berak zioenez, artatu zuen udaltzainak zakarki erantzun zion, eta "negra" deitu zion, erdeinuz.

Erreklamaziogileak segitzen zuen, esanez, erreklamazioen liburua eskatu zuenean udaltzain bera honelaxe mintzatu zela: *"¡lo que faltaba, una puta extranjera pidiendo derechos!" (besterik ez genuen behar, atzerritar puta bat eskubide eske!),* besotik gogor heltzen zion bitartean, mehatxuzko jarreran. Kexa bat jartzea ezinezkoa izango zela ikusita, lagunekin Udaltzaingoaren etxetik irten eta Ertzaintzari telefonoz deitu zion. Ondoren, berriro sartu zen, bakarrik, Udaltzaingoaren egoitzetara, eta udaltzainek beheko solairura joatera gonbidatu zuten. Berak uste zuen kexa han idatzi behar zuela. Behin behean, polizia altu batek besotik heldu eta bihurtu zion eta, ondoren, sabelpean ukitu zuen. Erreklamaziogileak emakume poliziaren bat etor zedin erregutu zion baina- baiesten duenez- horrek ez zuen eragotzi hainbat poliziaren artean, gizon eta emakume, lurrera bota, bultzatu, kolpatu eta esku eta oinak zinta isolatzailearekin lot ziezazkioten. Azkenik, moto kasko bat ipini zioten eta, negarrarekin, ezin zuen ia arnasarik hartu.

Erreklamaziogileak azaltzen zuen, izututa, zorroan zeraman lasaigarri bat eman ziezaioten eskatu zuela, baina ez ziotela eman. Handik tarte batera- ez daki zenbat denbora joango zen, erlojua kendu ziotelako- substantzia ezezagun bat txertatu zioten, hasieran min handia eta ondoren logura eman ziona. Loak hartu zuen, eta esnatzean, lokarri eta kaskorik gabe zegoen. Biharamunean epaitegira eraman zuten, eta aske geratu zen. Atxiloketan jasandako tratuaren ondorioz, jasandako lesioengatik medikuaren laguntza behar izan zuela zioen.

Bestalde, interesatuak zioen ziur zegoela polizia etxeko ziegetako bere egonaldia bideoz grabatu zutela eta, hori –bere iritziz- intimitate pertsonalerako eskubidearen urraketa dela.

• Azterketa

Kexa aurkeztu zuen unean, interesatuak jakinarazi zigun azaldutako egitateak gau eta eguneko epaitegian ere salatuta zeuzkala. Horregatik, Arartekoak ezin zuen epaitegien irizpenaren mende jarritako gairik aztertzera sartu. Hala ere, egoki iritzi genion Udalera jotzeari, erreklamaziogileak atxiloketaren biharamunean Udaltzaingoan bertan jarri zuen kexa zela-eta, egitateak nola gertatu ziren eta udaltzainek zuzen jokatu zuen argitzeko barruko ikerketarik abiatu zen galdetzeko. Jakina, erreklamaziogileak jarritako salaketaren ondorioz zigor prozedurarik hasi bazen, aipatutako informazio diligentzia horien izapidea eten beharko genuke, baina prozedura artxibatu edo absoluziozko epaiaren bidez amaituko balitz, berriro ekiteko aukera izango genuke.

Bestalde, ziega barruan bideo kamerak egotearen kontua erakunde honek Autonomia Erkidegoko polizia egoitzetara egiten dituen ohiko bisitetan ikuskatzen duen gauzetako bat da. Horregatik, erreklamaziogilearen atxiloketan zehar grabazio sistemaren

bat erabili zen ere galdetu genuen, baita emakume hura ziegetan sartuta egon zen bitartean zaintzarako baliatutako mekanismoaren ezaugarriak zein ziren ere.

• Emaitza

Udaltzaingoaren arduradunak bidali zigun erantzunaren bidez, jakinarazi ziguten erreklamaziogileak salatutako gertakariak ikertu zirela eta, jasotako informazioengatik, udaltzainek zuzen jokatu zutela ondorioztatu zutela. Txostenaren kopia bat ere eman ziguten, eta jakinarazi ziguten txostenaren ondorioz aurretiazko diligentzia batzuk egin zirela. Atxiloketan zehar egindako bideo grabazioei zegokienez, instrukzioko epaitegiak autoetara eransteko eskatua zuen.

Hori guztia ikusita, kexa espedientearen izapideak eten behar genituela erabaki genuen, bertan aipatutako kontu guztiak epaitegietan zeudelako. Hala ere, Udalari gogorarazi genion kexa eragin zuten gertakarien diziplinazko espedientea berriro zabal litekeela, behin zigor prozedura amaituta, epaiak udaltzain haiek absolbitzekotan, polizien jarduera, zigor aldetik ondoriorik izan ez arren, ikuspegi deontologikotik bidegabea jo zitekeen aztertzeko.

Bestalde, Administrazioaren erantzunetik ondoriozta zitekeen, erreklamaziogilearen irudia bai grabatu zela polizia etxean atxilotuta egon zen bitartean. Arartekoak ezin zuen kasu zehatz hartan intimitate urraketarik izan zen ala ez begiratu, baina gai hori Donostiako polizia egoitzetarako beste bisita batzuetan ere orokorki planteatuta zegoenez (Eusko Jaurlaritzarentzako 1996 eta 1997ko urteko txostenetan jasota), 2002ko urrian egin genuen bisitarekin hasitako ofiziozko jardueran berriro aztertzea erabaki genuen. Edukia udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren atxilo guneen egoeraren gaineko jarraipenari buruzko atalean daukazue (I. Kap., 1.1.11)

## C) **Trafikoa**

⇒ *Salatutako gertakaria ikusi ez zuen agintaritzako agente baten salaketaren ondorioz abiatutako zehapen prozeduraren baliorik eza* (705/2001)

• Erreklamazioa

Pertsona batek Bilboko udalaren aurkako kexa bat jarri zuen zeren, bera tartean suertatu zen zirkulazio istripu baten ondorioz, trafikoko urraketa batengatik isuna ezarri baitzioten, eta zehapen prozeduran –berak zioenarengatik, nahitaezko salaketarengatik hasi zena- ez baitzioten salaketa unean bertan jakinarazi.

• Azterketa

Bilboko Udalak baietsi zigun zehapen prozedura, izatez, udaltzain batek egin eta unean bertan jakinarazi ez zen salaketa batengatik abiatu zela. Esan zigun, halaber, udaltzain salatzaileak ez zituela salatutako gertakariak ikusi, eta salaketa ez zela urraketa egin zen unean egin, geroago baizik, udaltzainak trafikoko txostena prestatzean, kexa jarri zuena tartean suertatu zen zirkulazio istripuari buruz egindako balorazioko epai baten ondorioz.

Gure ustez, horrela jarritako salaketa batek ez zuen zigor prozedura bat abiatzeko balio, ez ziolako udaltzain salatzaileak salatutako gertakariaren egiaztapen zuzen eta

pertsonalari erantzuten, Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Zehapen Prozeduraren Arautegiaren 3. artikuluak exijitzen zuen bezala, udaltzain horrek gertakari horren gainean emandako balorazioko epai bati baizik.

Salaketa hori, gure iritziz, organo eskudunak, bertan azaltzen ziren egitateetan oinarrituz, zegokion zehapen prozedurari ekiteko balio zezakeen, baina ez, gertatu zen bezala, prozedura bera hasteko.

Ondorioz, pentsatu genuen zehapen prozedura behar ez bezala hasteak lehenengo jarduera horrek eragindako ondorengo administrazio jarduerak ere baliorik gabe uzten zituela, eta hala jakinarazi genion Udalari.

• Emaitza

Bilboko Udalak ondo iritzi zion gure balorazioari, eta indarrik gabe utzi zuen kexa eragin zuen isuna.

⇒ *Zehapen prozeduraren iraungipen epea noiz hasten den, nahitaezko salaketa unean bertan jakinarazi ez denean* (1042/2001)

• Erreklamazioa

Pertsona batek Getxoko Udalaren aurkako kexa bat jarri zuen, zehapen prozedura batean isuna jarri ziotelako, berak zioenarengatik iraungita zegoen trafiko urraketa batengatik.

• Azterketa

Erreklamaziogilearen gertakarien bertsioaren arabera, udaltzain batek salaketa bat jarri zion, behar ez bezala aparkatzeagatik, ibilgailu urratzailearen titularrari, baina unean bertan jakinarazi gabe. Pertsona horrek jakinarazpena jaso zuenean, Udalari argitu zion salatutako egitatearen unean bera zela ibilgailuaren gidaria, eta bere identifikaziorako datuak eman zizkion. Ondorioz, Udalak zehapen prozedura berria hasi zuen, kexagilearen aurka.

Prozedura berria erreklamaziogileari isuna jarrita amaitu zen, eta horren berri Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Zehapen Prozeduraren Arautegiaren 16. artikuluan ezarritako iraungipen epea, prozedura abiatu zenetik zenbatuta, agortuta zegoenean eman zioten.

Kasu horri Epaitegi Gorenak 2000ko azaroaren 15ean, arau horrek finkatutako iraungipen epearen hasierako datari dagokionez, emandako epaiak (RJ 10064) finkatutako legezko dotrina aplikatuz , non esaten baita "*prozeduraren iraungipenaren ondoreetarako, epeen zenbaketan hasteko eguna organo eskudunak urratzailearen nortasuna, urraketa egin zuen unean jakinarazterik egon ez zelako, jakiten duenetik prozedura abiatzen duen eguna izango da, baina ondore horietarako ezin izango da data udaltzainak salatu zuen egunetik zenbatzen hasi*", ulertu genuen zehapen prozedura iraungita zegoela, eta hala jakinarazi genion Udalari.

• Emaitza

Getxoko Udala bat etorri zen gure balorazioarekin, eta esan zigun erreklamaziogileak kexaren gai zen zehapenaren aurka jarritako administrazioko errekurtsoa onetsiko zuela.

⇒ *Ibilgailuei bidea ixtea, Anoeta inguruan, Donostian, kirol edo bestelako ekitaldirik dagoenean hango kirol instalazioetan* (1503/2001)

• Erreklamazioa

Donostiako Anoeta inguruan dauden ostalaritzako instalazio batzuk ustiatzen dituen enpresak kexa bat jarri zuen Donostiako Udalaren aurka, neurrigabea irizten ziolako ibilgailuek bere instalazioetara heltzeko zeukaten bide bakarra ixteari, Anoetako kirol eremuan edozein motatako ekitaldirik ospatu baino hamar ordu lehenagotik, bere bezeroen eta tarte horretan berarentzat lan egiten ari diren pertsonen automobilei beste biderik eskaintzeko neurririk hartu gabe.

Kexa jarri zuenak zioenez, Udalaren jarduerak, gainera, Udalaren lehenagoko erabaki bat berez baliorik gabe uztea zekarren, erabaki hartan ibilgailu horiek ostalaritzako instalazioetara baldintza jakin batzuetan sartzeko baimena ematen baitzen.

• Azterketa

Gure ustez, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen 7 a) artikuluak udalerriei trafikoa antolatzeko ematen dien ahalmenari adituz, Udalak zuhurtziarako tarte zabala zeukan Anoetako kirol instalazioetan ekitaldiak ospatzen zirenean trafikoa araupetzeko neurri zehatzak erabakitzeko.

Baina Epaitegi Gorena esparru honetan moldatuz joan den dotrinaren arabera, ikusi genuen, halaber, zuhurtziarako jarduera horrek ere muga batzuk zituela, Udalak errespetatu beharrekoak, hala nola, ahalmenaren elementu erregulatuak eta Zuzentzako hatsarre orokorrak; eta iritzi genion, hatsarre orokor horien artean, zuen garrantziarengatik, proportzionaltasunaren hatsarreak arreta berezia merezi zuela.

Udalak eman zigun informazioak ez zigun, ordea, ikuspegi horretatik, kexaren gaiaren kasuan zuhurtziarako ahalmenaren erregulartasuna egiaztatzeko aukerarik ematen. Horregatik, informazio gehiago emateko eskatu genion, egiaztapen hori egiteko behar ziren datuak erantsiz.

Enpresa erreklamaziogileari lehenago ibilgailu jakin batzuk bere instalazioetarako heltzeko emandako baimenari zegokionez, Udalari jakinarazi genion baimenari jaramon egin behar ziola, eskubideak aitortzen dituzten egitateetarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak exijitutako modura berrikusten ez zuen bitartean.

Udalari gure balorazioaren berri eman genion, eta jakinarazi zigun kexaren gai berberaren gainean, enpresa erreklamaziogileak eskatuta, administrazioarekiko auzi bideko errekurtso bat izapidetzen ari zela.

• Emaitza

Gai horren inguruko gure esku-hartzea amaitutzat jo genuen, Ararteko erakundea araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua aplikatuz.

⇒ *Bilboko Udalarekiko betebeharren ordainketan egunean egon beharra, TAO eremuan egoiliar txartela eskuratu ahal izateko* (402/2002)

• Erreklamazioa

Bilbon bizi diren zenbait pertsonak Arartekoarengana jo zuten, 2002ko urtarrilaren 31n onetsitako Bilboko Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berriak Udalarekin zorrik ez edukitzea exijitzen zuelako, TAO eremuko egoiliar txartela eskuratu ahal izateko.

• Azterketa

Izan ere, Arautegiaren 19.5 artikuluak “*Bilboko Udalarekiko betebehar guztiak, bai zergetakoak bai beste edonolakoak, ordainduta edukitzea*” exijitzen zuen, baita “*txartela eskatzen zaion ibilgailuarekin zerikusirik daukaten betebehar guztiak ordainduta edukitzea ere*”.

Arau honetan jasotako exijentziaren antzekoaren balioa, baina Zirkulazioko Udal Zergara mugatuta, aztertua zeukan jada Epaitegi Gorenak 1987ko uztailaren 13ko Epaian (RJ 6893). Epai horretan esaten zen exijentzia hori ez zela legezkoa, batetik, neurri horrek dirua biltzeko duen asmoa kasu hartan gauzatzen ari zen antolamendu juridikoak trafikoa araupetzeko esleitutako ahalmenari lotuta ez zegoenez, boterearen desbideratze bizioa zelako, eta bestetik, ez ziolako jaramonik egiten administrazio egintzak nahitaez betearazteko ahalmena gauzatzea legezkotasun hatsarrearen guztiz mende dagoelako kontuari, eta ezin duelako zordunaren egoera larriagotu, zorduna den heinean ordaindu ez izanaren legezko ondorioak jasan beharko baititu, baina ez eskubideen bestelako mugatzerik, esaterako, estazionamendu murriztuko eremuan egoiliar txartela eskuratzerik ez izatea.

Epai horretan oinarrituz, eta erakundeak antzeko gaietan izandako irizpideari jarraituz –1998, 1999 eta 2000ko ohiko txostenetan jasota dago-, ulertu genuen kexaren gai zen exijentzia ezabatu behar zela, eta exijentzia horren babesean garatutako nahitaez betetzeko egitateak berrikusi behar zirela.

• Emaitza

Bilboko Udalari gure balorazioaren berri eman genion, baina txostena hau egiten ari garenean, oraindik ez dugu erantzunik jaso.

⇒ *TAO eremuan estazionatzeko ezgaituentzako berariazko araubidea, Bilboko Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berrian* (420/2002)

• Erreklamazioa

Abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araupetutako ezgaituentzako estazionamenduko txartel bakarraren titular batek, Bilboko Udalak 2002ko urtarrilaren 31n onetsitako Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berriak pertsona horientzat ezarri zuen TAO eremuko estazionamenduko araubide bereziaren aurkako kexa aurkeztu zigun, besteak beste, araubide horri eutsi ahal izateko, arauketa berriak ez ziolako nahikoa irizten txartel hori izateari, eta Udalaren txartel berri bat izatea eskatzen zuelako, eta txartel berri hori txartel bakarraren Bizkaiko egoileei eta, aldi berean, joan-etorrietarako erabiltzen zuten ibilgailuaren jabe eta gidari zirenei soilik ematen zitzaiela.

• Azterketa

Gure analisiaren abiapuntua abenduaren 5eko 256/2000 Dekretua izan zen, lehenago zegoen ezgaituentzako txartel autonomikoa europar batasuneko eredu bateratura moldatu zuena, Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an, estatu kideek guztiek onartzeko moduko txartel bakarra ezar zezaten, onetsitako gomendioari jarraituz, txartel bakar horren titularrek berari lotutako estazionamenduko

erraztasunez Europa osoan gozatu ahal izateko. Arau hori erreferentziatzat hartuta, iruditu zitzaigun Bilboko Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berrian ezarritako aparkamendu abantailei eutsi ahal izateko beste txartel bat eskatzea, batasuneko txartela sortzea eragin zuen txartel bakarraren izpiritu bategile eta elkarren ezagumenduzkotik erabat urruntzea zela.

Pentsatu genuen, gainera, ez zegoela beharrezko proportzionaltasun erlaziorik Arautegiak estazionamenduko neurri bereziei eusteko exijitzen zuenaren eta neurri horiek hartzeak behar zuen helburu integratzailearen artean, kasuari aplikatzekoa zitzaion araudiaren arabera (irismena sustatzeko abenduaren 4ko autonomia erkidegoko 20/1997 legea, ezgaituentzako estazionamendu txartelak araupetzen dituen abenduaren 5eko 256/2000 Dekretua, eta ahalmen urrikoak gizarteratzeko Estatuko apirilaren 7ko 13/1987 Legea).

Exijitutako betekizunak eta lortu nahi zen helburua elkarri moldatzen ez zitzaizkionez, pentsarazi zigun, bestalde, Arautegiak estazionamenduko txartel bakarraren jabe izanik, lehen aipatutako baldintza erantsiak betetzen zituzten ala ez begiratuz, batzuei eta besteei ematen zien tratu desberdinduak ez zeukala justifikazio egokirik.

Ezarritako helburu integratzaileari adituz, azkenean erabaki genuen araubide horri eusteko garrantzitsuena ezin zela izan ezgaitua joan-etorrietarako erabiltzen zuen ibilgailuaren jabe edo gidari izatea. Gure iritziz, ikuspegi horretatik, garrantzitsuena ibilgailua pertsona horren joan-etorrietarako erabiltzea zen, gidari zein bidaiari modura, horixe baitzen, izan ere, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak erabilitako irizpidea. Pentsatu genuen, Udalaren irizpidea mantentzekotan, beren ezgaitasunarengatik hain zuzen ibilgailurik gidatzerik ez zeukaten pertsonak, paradoxikoki, estazionamendurako erraztasunetatik kanpo geratuko zirela.

• Emaitza

Bilboko Udalari gure balorazioa helarazi genion eta, adierazi genion, gure iritziz, Trafiko eta Aparkamenduko Arautegi berriko ezgaituentzako berariazko araubideak aurreikusten zituen aparkatzeko erraztasun eta abantailak abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araupetutako estazionamenduko txartel bakarraren titular guztiengana hedatu behar zirela, txartel horrez edo Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako baliokideaz bestelako txartelik exijitu gabe.

Txostena ixteko eguna iritsita, Udalak oraindik ez dio gure balorazioari erantzun.

# 8. JUSTIZIA

## 8.1. SARRERA

Arartekoak justiziarekin zerikusia duten kontuetan duen esku-hartzeak zenbait bitxitasun erakusten ditu erakunde jarduerar en beste esparru batzuen aldean. Justizia banatzeko eskumena botere judizialaren monopolioa da eta, hein horretan, legeak gure erakundeari administrazioko organoen funtzionamenduaren gaineko kontrolerako esleitzen dion eginkizunetik kanpo geratzen da. Horregatik, Justizia deritzon eremuan gai desberdinak biltzen dira, zeinen lotura epaitegien jarduerarekin duten zerikusi zuzen zein zeharkakoan dagoen. Baina definiziorako elementu horren ondoan, badago beste betekizun negatibo bat, Arartekoak ezin baitu jada jurisdikzio- organo batera aurkeztutako gai bat aztertzera sartu. Kexak atzera botatzeko zio hori –erakunde hau sortu eta araupetzen duen 3/1985 legearen 13. artikuluan jasotakoa- aurten 22 aldiz aplikatu behar izan dugu.

Ez dira, halaber, eremu honetako espediente gisa Estatuko Arartekoari edo beste herrialde batzuetako antzeko erakundeei bidali zaizkion gaiak zenbatzen, nora bidali diren arabera sailkatzen baitira, legeen aplikazio judizialarekin duten lotura dena delarik. Ondorioz, 26 dira eskuartean daukagun eremuaz izapidetzera onartu ditugun kexak, eta honelaxe banatzen dira:

| | |
|---|---|
| Justizia Administrazioaren funtzionamendua | 9 |
| Jarduerak espetxe gaietan | 8 |
| Abokatu eta prokuradoreen bazkunak | 5 |
| Doako laguntza juridikoa | 2 |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| Kontratazio, ondare eta administrazio erantzukizuneko araubidea | 1 |

Arestiko datu horien artean deigarria da zentzu estuko **justizia administrazioaren funtzionamenduaren** gainean oso espediente gutxi dagoela, gai hori eremu honetako muintzat jo genezakeen arren. Batetik, Arartekoak esparru horretan dituen ahalbideak oso urriak dira, jasotzen dituen kexak ebazteko ahalmena duen organoari jakinaraztera mugatu behar baitu. Bestalde, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak 1/1998 Arautegia, epaitegi eta auzitegien funtzionamenduari buruzko kexa eta salaketak izapidetzeari buruzkoa onetsi zuenetik, halako erreklamazioei erantzuteko bide zuzena zabaldu da, eta Kontseilua bide hori arintzen saiatzen ari da.

Erakunde honen esku-hartzerik gehien eragin duten gaiak prozedura judizialen atzerapenak dituzte hizpide. Luzamenduek ia jurisdikzio esparrurik gehienak hartzen dituzten arren, nabarmena da Justizia Epaitegi Gorenean izapidetzen diren administrazioarekiko auzi bideko prozesuen iraupen luzea. Kasu batean salatu ziguten Arabako enpresa bateko hainbat lan auziren ikustaldia izan zenetik epaia eman zen arte hilabete batzuk joan zirela. Bizkaiko Entzutegi Probintzialean gai zibiletako apelazio errekurtsoen iraupenaz, aurreko urteetan erreklamazio bat baino gehiago eraginik, 2002 urtean bakarra izan da, eta aitortu behar da kexaren oinarria benetako auziaren larritasunean zegoela –andre zahar gaixo bati ukitzen zion etxebizitza baten jabetzaren gaineko eztabaida-, prozeduraren iraupena luzeegia izatean baino.

Justiziaren "denborak" eta herritarrenak bat ed datozelako arazo berbera antzematen da auzi arrunten azpian historia pertsonal latzak dauden kasuetan. Baten bat aipatzekotan, erditzean hildako haur baten heriotzaren epaiketan epaitegiko medikuaren txostena egiteko atzerapena, edo ibai batean hilotz agertu zen gazte baten autopsiaren emaitzaren jakinarazpeneko luzamendua aipatuko genituzke. Halako kasu batean ere ez zen epaitegiaren aldetik axolagabekeria edo arrazoirik gabeko geldotasunezko jarduerarik sumatzen, ukitutako pertsonei hori ulertzea ikaragarri zaila egiten zitzaien arren.

Zigor prozedura batean izandako atzerapen objektiboko kasu bat ETAk Ortega Lara ankerki bahituta izan zueneko zuloa eraiki zuen industria pabilioiaren jabeak salatu zuen. Erreklamaziogilea lokalaren barruan zeuden makina eta gauzen gordelari izendatu zuten eta, zigor prozedura 2000ko irailean amaitu zen arren, egoera ez da aldatu, eta hori kalte ekonomiko nabarmenak ekartzen ari zaio, ezin duelako higiezinaz baliatu eta ez duelako inolako konpentsaziorik jasotzen.

Kexa horren aurrean, Arartekoak ulertu zuen, herritar guztiek justizia administrazioari lagundu behar dioten arren, gordelari eginkizuna denboran hainbeste luzatzea ukituari sakrifizio neurrigabea eragiten ari zitzaiola, hala ikuspegi ekonomikotik nola ikuspegi moral hutsetik, erabat gogoz eta borondatez kontra tartean suertatu zeneko historia gaitzesgarriari amaiera emateko modurik ez zuelako. Horregatik guztiarengatik, planteatutako arazoa, garai hartan, Ministerio Fiskalaren irizpenaren mende zegoenez, Entzutegi Nazionaleko fiskal nagusiari kexaren berri emateari komenigarri iritzi genion.

Handik hilabete batzuetara, Arartekoak Auzitegi Goreneko teniente fiskalaren idatzia jaso zuen, non aipatutako fiskal buruaren ikuspegia jakinarazi zitzaigun. Haren iritziz, autonomia erkidegoetako legebiltzarren mandatarien eta Entzutegi Nazionaleko Fiskaltzaren arteko harremanak Estatuko Arartekoaren bitartez bideratu behar ziren. Teniente fiskala ere irizpide horrekin bat zetorrenez, eskatutako informazioaren zain geratu ginen, estatuko gure kideari bidali ziotelakoan.

Gure Arartekoaren eta Estatuko Arartekoaren arteko harremanak, bakoitzari dagozkion eginkizunetan, lankidetza eta koordinaketa hatsarreetan oinarritu direnez beti, pentsatu genuen hark –erakunde hau sortu eta araupetzen duen 3/1985 Legearen 9.2. artikuluan xedatutakoa betetzeko- *"justizia administrazioaren funtzionamenduaren gaineko kexak... ikertu edo ebazteko gaitasuna duen organoari"* bidaltzen dizkionean, ez dela kontrol betekizunetan ari, baizik eta planteatu zaion arazoa esku hartzeko gaituta dagoen agintaritza judizialari helaraztera mugatzen ari dela.

Jakinarazpen edo helarazpen eginkizun hori geure gain hartzean daukagun helburua herritarrei beren kexak aurkezten lagundu eta erraztera bideratzen da, herritarrak artatzea baita gure ardura nagusia. Ikuspegi honetatik, uste dugu Estatuko Arartekoaren bitartekaritzak ez duela erakundeen arteko koordinaketa areagotzen eta, aitzitik, gaiak izapidetzeko orduan konplexutasun eta geldotasun handiagoak ekar litzatekeela. Edonola ere, kexa eragin zuen kasuko gure interesa gordailu judizialaren luzapenaren ondoriozko arazoak konpon zitezen zen. Horregatik, Entzutegi Nazionaleko Fiskaltzaren inolako erantzunik jaso ez genuenez, berriro jo genuen harengana, prozedurari buruzko gure iritzia azaltzeaz gain, egokitzat jotzen zuen fiskal nagusiaren bidez auziaren mamiaz zerbait argitzeko eskatuz. Txosten hau idazten ari garenean, oraindik ez dugu erantzunik jaso.

Fiskaltzari –Bizkaiko Entzutegi Probintzialekoari- planteatu genion beste gai bat, irregulartasunik antzeman ez zeneko beste bat, genero indarkeria kasu bat izan zen,

non mehatxatutako emakumeak bere erasogileak ebazpen judizialak ez zituela behin eta berriro betetzen salatzen zuen. Erasogileari hiru urteko espetxe zigorra ezarri zioten, eta biktimarengana hurbiltzeko debeku gehigarria ere ipini zioten. Alterazio psikikoko aringarri ez-osoren bat ere antzeman zenez, era berean, askatasunik gabeko zigorra bete baino lehen tratamendu psikologiko espezializatuaren mende jarri behar zuela ere ezarri zioten.

Erreklamaziogileak gizonari zigorra ezarri zion epaitegiari jakinarazi zion zigortua tratamendua hastera ere ez zela joan, eta nonbait sartzea erabaki behar zen azter zezaten eskatu zuen, epaian ez zelako aukera hori baztertzen. Ebazpenik ez zegoenez, handik lau hilabetera berriro salatu zuen tratamenduaren neurria betetzen ari e zela, baina erakunde honengana jo zuenean –hilabete eta erdi geroago- Entzutegi Probintzialak ezer erabaki gabe jarraitzen zuen, antza, zigortuari deitzeko arazoengatik. Kasuaren ardura zuen fiskalak jakinarazi zigunez, handik gutxira zigortuari aginduzko deia egin zioten, hamar eguneko epean tratamendua hasi ezean espetxe zigorra gauzatuko zela ohartaraziz.

Bestalde, emakumeak zioen erasogileak berarengana hurbildu eta harremanetan jartzeko debekua ere behin eta berriro urratu zuela. Egitate hori salatu zuen, ikaragarri izutzen zuelako, eta horrek zigor prozedura berria abiaraztea ekarri zuen. Instrukzio epaileak, ordea, ez zion beharrezko iritzi kautelazko neurririk hartzeari.

Azaldutako kasu hori ez da genero indarkeria jasaten duten emakumeek justizia administrazioaren aldetik artapen egokirik ez dagoela, polikiegi doala edo erantzunak eraginkorrak ez direla salatzen duteneko bakarra. Sarritan Arartekoak ezin izaten du halako auzietan esku hartu, egitate horien gaineko jarduera judizialak abian daudelako. Zio horrengatik atzera botatako kexen artean, emazteari mehatxu egitearen ustezko delituarengatik badaezpada espetxean zegoen gizon batengandik zetorrena zegoen, eta berak egoera erabat bidegabea zela ikusten zuen.

Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko arazo larrien aurrean, erakunde bermatzaileek esku hartzea daukate protesta polizia kidegoen edo bestelako instantzia publiko batzuen jardueraren aurka doanean.Herrizaingo sailaren hitzaurrean (A atala, kapitulu honetako 7.1), emakume batek Gasteizko Udaltzainen erantzunarengatik jarritako kexa aipatzen genuen. Emakume hark zioen, era berean, ez zegoela pozik Almerian eraso sexual larria jasan zuen emakume bati poliziek eman zioten erantzunarekin. Probintzia horretako Guardia Zibilari jokabide desegokiak egozten zizkionez, gaiak Estatuko Arartekoari bidali genion. Bertsioen desberdintasunak ez zuen inolako irregulartasunik antzematen utzi, baina eskubideen defentsaren erakunde bermatzaile honek herri botere guztiek gizartea eta, bereziki, funtzionarioak indarkeria sexistaren garrantziaren eta hedapenaren gainean sentsibilizatzeko ahalegin handiagoak egin behar zirela azpimarratzen zuen.

Erreklamaziogile berberak, halaber, bera aztertu zuen epaitegiko emakume medikuari ere modu desegokian tratatu zuela leporatzen zion, baina Estatuko Arartekoak ez zuen kontu hori beren beregi jorratu.

Emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideen urraketa larria dakar eta, horri dagokionez, Arartekoaren beste esku-hartze bat ere aipatu behar dugu, erasogilea Getxoko Udaltzaingoko funtzionarioa delako egin ahal izan dena. Tratu txarra salatzen zuen gazteak –udaltzainaren alaba- lehendik ere behin baino gehiagotan jo zuen gugana, eta guk udal agintariei udaltzainaren gaineko hainbat kontrol neurri hartzeko iradoki genien. Oraingoan erreklamaziogileak jakinarazi zigun udaltzainari, besteak beste, urte

eta erdiko espetxe zigorra ezartzen zion epai sendoa zegoela, senideen aurkako ohiko indarkeriaren delituarengatik.

Ebazpen hori ikusita, udal horrengana jo genuen eta, esan genion, Euskal Herriko Poliziaren Legearen 92.2.a) artikuluaren arabera, askatasunik gabeko zigorra daraman doluzko delitua den edozein jokabide oso hutsegite larritzat jo behar dela, eta horregatik aipatutako funtzionarioari diziplinazko espedientea ireki behar zitzaiola. Bestalde, beste zigor prozedura batean urruntzeko emandako agindua indarrean zegoenez, Udaltzaingoaren arduradunek udaltzain haren lana salaketagilearen etxe inguruan, eta ibili ohi zen tokietan ibil ez zedin modura antola zezaten aukera planteatu genuen. Era berean, udaltzainak bere arauzko arma zeraman jakin nahi izan genuen.

Erantzunean, Udalak esan zigun bazirela hainbat hil udaltzain hura armarik gabe zebilela, berak bere borondatez utzia baitzuen Udaltzaingoaren egoitzetan. Jakinarazi ziguten, halaber, lanerako esparrua aldatua ziotela eta, gerora, jakin genuen udal garabiak eramandako ibilgailuen gordailura bidalia zutela. Diziplinazko espedienteari zegokionez, esan ziguten berehala irekiko ziotela. Txosten hau idazten ari garenean, oraindik ez dugu espedientearen berri egiaztatzerik izan, baina gaiari jarraipena egingo diogu.

Justizia administrazioaren funtzionamenduaren gaineko gain-begirada amaitzeko, gai desberdinak aipatuko ditugu, esaterako, badaezpada espetxean dagoen pertsona batek planteatutakoa, non zegokion instrukzio epaitegiari jarduera bidegabeak leporatzen zizkion. Portugaleteko (Bizkaia) Erregistro Zibilera joan zen herritar batek –hara joateko enpresan baimena eskatu behar izan zuen- bulegoa zabaltzeko zain egon zen, eta zegokion funtzionarioarengana zuzendu zenean, hark erantzun zion ezin ziola jaramonik egin, "epaiketak zeuzkalako". Erreklamaziogileak zioen, azalpenak eta protestak egin arren, beste egun batean itzuli behar izan zuela, horrek lan mailan sortu zizkion kalteekin.

Kultura eta Elebitasunaren hitzaurrean (II. kap., 3.1), hainbat pertsonak justizia administrazioarekin harremanak euskaraz izateko aurkitzen dituzten zailtasunez egindako kexa azaldu dugu. Bestalde, Estatuko Arartekoari erreklamaziogileak ordainketa eta kontsignazio judizialen Zerbitzuaren funtzionamendua zalantzan jartzen zuen, baita harremana banku erakunde pribatu batekin (BBVA) esklusiboki izatea ere.

Lehenago aipatu den bezala, ugaritxoak dira herritarrek **erabaki judizialekin desadostasuna** adierazten duteneko kasuak, baina erakunde honek ezin du horietan sartu ebazpen judiziala izan dutelako –edo izateko zain daudelako-. Epaiarekin pozik ez egoteak, edo auzitegiek funtsezko auziari benetako konponbiderik eman ez diotelako sentipenak jurisdikzio guztiei ukitzen diete, baina ugariagoak dira familia kontuei (banaketak, seme-alaben zaintza, eta abar) eta zigor-bidekoei dagozkienean.

Azkeneko horien artean, komeni da azpimarratzea egitate zigorgarri baten biktimek zigor sistemak ez dituela beren beharrak ulertu eta ez diela behar bezala erantzun salatzen dutenean. Horixe zen, esaterako, mehatxuzko gauza eta mezu argiak jaso zituen adingabe baten kasua, hasieran bere inguruneko beste nerabe batzuei leporatu zitzaizkienak. Aurretiazko entzunaldiaren ostean, Gipuzkoako Entzutegi Probintzialeko Adingabeen Fiskaltzak salatutako adingabeen aurkako zigor erantzukizuneko espedienterik ez abiatzea erabaki zuen. Kexa erabaki hori mehatxuak jasan zituen familiari jakinarazteko moduarengatik etorri zen. Kaltetuei hitzezko inolako azalpenik ez emateaz gain –pertsonalki ikaragarri eragin zien arazoak-, bidali zitzaien Fiskalaren Dekretua gaizki idatzita zegoen, ez zegoen nondik hartu eta ulertu, eta zien ezespenaren oinarri izan ziren zioen inolako berririk ematen.

Aitortu behar da, biktimen artapenean, izen hori daraman zerbitzuak oso lan ona egiten duela. Hala ere, horrek ez ditu organo judizialak beren ebazpenak arrazoitzeko eta ukituek ulertzeko moduan adierazteko beharretik askatzen, batez ere letratuak esku-hartzerik behar ez den kasuetan.

Errefusatutako kexen artean, badira bat baino gehiago zigor epaiketetan ezarritako zigorrekin, baita askatasunik gabeko kautelazko neurriekin desadostasuna adierazten dutenak. Gai horiek **espetxean dauden pertsonek** planteatzen dituzten kontuen antzekoak dira, zenbait alderditan. Iaz ere gertatu zen bezala, kexa horiek gehiengoa dira eskuartean daukagun alorrean, presoek zein beren senideek espetxe administrazioaren balizko jarduera irregularrekin zerikusia duten gertakariak salatzen dituzten idatzi guztiak Estatuko Arartekoari helarazten dizkiogun arren, eta horrek erakunde honen beste jarduera alor batean zenbatzea dakarren arren.

Espetxeen funtzionamenduaren gainean estatuko gure kideari dagokion kontrol ahalmenari dagokionez, terrorismo delituengatik zigortutakoen egoerari buruz hainbat kolektibo eta erakundeek aurkeztutako kexak helarazi dizkiogu. Elkarteren batek pertsona jakinen gaineko gai zehatzak planteatzen dituenean (bisitak, gutunak, ikasketak, eta abar), Estatuko Arartekoa haiengana zuzendu ohi da informazio osagarria eskatzera eta, erantzunik jaso ezean, presoak kexa horretan amore eman duela ulertzen du.

Presoen kolektibo berari lotuta, aurten ere Arabako hainbat gizarte elkarte, talde eta erakunderengandik heldu zaizkigun kexa mordoa bidali diogu, non zigorraren hiru laurdenak bete arren espetxean mantentzen zituzten arabarrengatik arduratuta ageri baitziren. Antzeko gaiak planteatu dizkigute hainbat udalek beren herrietako presoen gainean. Oro har, Estatuko Arartekoak horretan esku-hartzerik ez duela azalduz erantzuten du, espetxe administrazioaren aldetik inolako jarduera bidegaberik ikusten ez delako, zigor kodeak baldintzapeko askatasuna emateko eskatzen dituen betekizun guztiak bete daitezen exijitzera mugatzen baita, besteak beste, berriro gizarteratzearen aldeko iragarpena egotea.

Etxerat elkarteak sinadurak bildu zituen Alcala-Mecoko espetxean giltzapetuta zeuden hainbat euskal gazteren bizi baldintzak salatzeko, baita Alcoleako espetxean (Kordoba) barkatze moduluetan dauden talde armatuko presoen egoera salatzeko ere. Salaketa horiek Estatuko Arartekoari jakinarazi genizkion, baina berak ez zuen berariazko esku-hartzerik behar zenik, nahikoa zelakoan espetxeetara aldioro egin ohi dituzten bisiten bidez burutzen duten ikuskaritza.

Presoengandik heldu zaizkigun bestelako kexa batzuk –guk, halaber, Estatuko Arartekoari bidali dizkiogunak- Basaurin bisitarako aurretiazko hitzordua hartzeko telefonozko zerbitzua penagarri dabilela, Langraitzeko hainbat presok batera espetxe horretako zenbait egoitzatan gabeziak eta baldintza eskasak daudela, EAEz kanpoko espetxeetan espezialisten osasun artapena gutxiegi dela, hirugarren graduan sailkatuta dauden presoek INEMen izena emateko zailtasunak dituztela eta halakoak izan dira.

2001eko txostenean jada azaldu genuen bezala, espetxe zigorrak betetzeko tokiaren gaineko kexak Estatuko Arartekoari bidaltzeari utzi diogu, espetxe administrazioari presoen xede espetxea aukeratzeko orduan erabakitzeko hain tarte zabala eskaintzen zaionez, normalean ez delako presoaren ohiko bizitokitik urrun dauden espetxeetara bidaltzean inolako irregulartasunik sumatzerik izaten. Hala ere, erakunde honek defendatzen segitzen du, oro har, espetxe zigor guztiak zigortuaren bizitokitik gertu dauden espetxeetan bete daitezen komeni dela.

Ikuspegi honetatik, 2001 urtearen amaieran, Arartekoak egoki iritzi zion EAEn helbideratuta dauden zenbat pertsona dagoen zigorra lurralde honetatik kanpo betetzen jakiten saiatzeari. Horregatik, eta datu horiek eskatzen zizkigun kexa bati ere jaramon eginez, Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiarengana jo genuen, zeukaten informazioa eskatzera. Erakunde horren ustez, estatuko Administrazioaren funtzionamenduaren gaineko kontrola Estatuko Arartekoari dagokionez, datu horiek lortzeko harengana jo behar genuen. Gure eskarian espetxe erakundeen funtzionamenduaren inolako kontroletarako gogorik ez zegoela jakin arren, esan ziguten modura jokatu genuen.

Aurten, urtearen erdialdera edo, erantzuna jaso genuen, baina edukia aztertzean ohartu ginen, akats edo isiltzeren batengatik, emandako datuak ez zetozela errealitatearekin bat. Berriro luzatu genien eskaria, eta txosten honen idazketa bukatu dugun une berean, Espainiako Herri Defendatzaileak zenbait argibide bidali dizkigu; horien arabera, jatorriz EAEkoak diren 652 pertsona daude preso lurralde honetatik kanpo.

Estatuko gure kideari bidalitako gaiak gainbegiratu ondoren, "espetxe gaietako jarduerak" izenpean bildutako kexak laburki aztertuko ditugu. EAEko herri erakundean nolabait inplikatuta daudela ikusten deneko gaiei buruzkoak, zein erreklamazioak berariazko inolako erregulartasunik aipatzen ez duenez, gure lana informazioa ematera mugatzen denekoak dira.

Presoek helarazten dizkiguten idatziek haien espetxeko bizitzako alderdi guztiak hartzen dituzte: sailkapen kontuak, edo baimen ukapenak, gabeziak droga mendetasunen edo buruko patologien tratamenduan, gaixotasun larriak dituzten pertsonak espetxetik ez ateratzea, zergapean ez dauden ezgaitasuneko pentsioen ukapenak, espetxe aldaketak, TB edo ordenagailuen erosketa eta garraiorako arauketa, eta abar.

Jada iaz atera zen gai bat ere aipatzea komeni da, berritasun handiak izan direlako. Espetxeko egonaldiaren ostean aske irteten diren pertsonek diru laguntzak eskuratzean igarri den atzerapenaz ari gara eta, bereziki, espetxetik ateratzearen ondoriozko langabezi sorospena gozatzera bitarteko luzamenduaz. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila arazoaz arduratzeko konpromisoa hartu zuen, eta aurten sorospen laguntza hori aurreratzeko lau euskal kreditu erakunderekin ituna sinatu du. Horri esker, espetxetik irteten diren pertsonek legeak ezartzen dituen diruzko prestazioak jasotzen hasteko denbora nabarmen laburtu da. Erakunde honek ikuspegitik, Gizarte Ongizateko Sailburuordetzaren jarduera hori askatasunik gabeko egoera pairatu dutenak gizarteratzeko bultzada handia izan da (ikus I. kap., 1.1.1 atala).

Aurreko urteetan bezala, aurten ere gure erakundearengana Euskal Herrian dauden espetxeetako batean zigorra betetzen ari diren atzerritarrek jo dute. Lehenago aipatu dugu identifikazio gisa pasaportea besterik ez daukaten eta, gainera, espetxe administrazioak dokumentu hori atxikitzen dien etorkinen arazoa. Horrek esan nahi du bizibide irekian irteten direnean, ez daukatela espetxeak berak baietsitako fotokopia bat besterik, eta hori, berez, lana aurkitzeko, kontu korronte bat zabaltzeko eta abarretarako oztopoa baino ez da. Dokumenturik ez daukatenek dokumentuak lortzeko edo egoitza edo lan baimenak berritu behar dituztenek baimen horiek berritzeko ere, arazoak besterik ez daude, espetxeek ez dituztelako –gure ustez– kontu horiek behar den arduraz lantzen.

Beste etorkin batzuk gugana etorri dira, ahozko epaiketara interpreterik agertu ez dela, edo UNEDen matrikulatzeko izandako zailtasunak salatzera. Hurrengo atalean

emakume eta atzerritar izateak berezko bazterkeria areagotzen dutela erakusten den kasu bat sartu dugu. Bertan euskal espetxeetan emakumeek hiru urtetik beherako beren seme-alabekin bizitzeko moduko modulurik ez egoteak dakartzan arazoak aipatzen dira. Kasu guztietan dauden zailtasunei, emakumea atzerritarra denean, familiaren sostengurik eza gehitzen zaio eta horrek, esaterako, hemengo zentroan jarraitu nahi izanez gero, ezagun bakarrak hemen dituelako –preso, langile zein boluntarioen artean- haurrengandik banandu beharra dakarkie sarritan.

Azkenik, aurten ere preso baten heriotzaren gaineko kexa jaso dugu. Elkarte baten bidez, Langraitzeko zenbait presok kide bat hil zela jakin zutela eta, beren ustez, zergatik hil zen garbi ez zegoenez, arduratuta zeudela jakinarazi ziguten. Lehenik eta behin fiskal nagusiarengana jo genuen, eta esan zigun aurretiazko eginkari batzuk zabaldu zirela eta artxibatzea erabaki zela, autopsiak bilakaera lasterreko miokardio infartuz hil zela esan zuelako. Arartekoaren ustez jarduera judizialek heriotzaren ingurumariak argitu zituen. Hala ere, pentsatu zuen kasua medio, Euskal Herriko espetxeetan bihotzeko arazo larrien aurrean berehala eta modu eragingarrian erantzuteko lanabes medikorik daukaten ikuskatzeko parada egokia zela. Horregatik, urtearen amaieran, gaia Estatuko Arartekoari helarazi genion.

Arartekoaren aldetik arreta etengabea eskatzen duen beste esparru bat, justiziaren eremuan, **adingabe lege urratzaileena** da. I. kapituluan (1.1.6 atala), 1998an egindako ezohiko txostenaren jarraipen gisa egindako jarduerak ikusgai daude. Hemen gai horri buruzko bi kexa besterik ez ditugu aipatuko.

Iaz gure erakundearengana Guardia Zibilak ustez *kale borrokan* zebiltzalakoan atxilotutako hainbat gazteren senideak etorri ziren. Besteak beste, Gasteizen bi adingaberen atxiloketaren gaineko kexa jarri zuten. Beraiek ziotenez, epaitegira eraman ondoren, Entzutegi Nazionaleko fiskalak gaua Aramaioko adingabeen zentroan emango zutela jakinarazi zien, eta handik, biharamunean, Madrila eramango zituztela. Gazteek zergatik ez dakitela, ordea, azkenean gaua Guardia Zibilaren Legutioko kuartelean igaro zuten. Bi adingabeek gau hartan zaintzen ari zitzaizkien zenbait guardia zibilengandik tratu txarrak jasan zituztela salatu zuten, ia lorik egiten ere utzi ez zietenak.

Agerrarazi behar da, Adingabeen Zigor Erantzukizuneko 5/2000 Lege Organikoan (LORPM) 7/2000 Lege Organikoak sartutako aldaketaren ostean ezarritakoaren arabera, atxiloketa hori Madrilgo Gobernuak Entzutegi Nazionalaren esku jarritako zentro batean burutu behar zatekeela. Hala ere, Arartekoak komenigarri iritzi zion Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren bertsioaren berri jakiteari –sail hori baita Aramaioko zentroaren titularra-, baita zergatik ezin izan zuten, ingurumaria zehatz haietan, bi gazte haiek Guardia Zibilaren egoitzetan egotea eragotziko zuen uneko akordio batera heltzea lortu ere.

Lehenengo erantzun baten ostean, eta argitasun eta informazio gehiago eskatu ondoren, euskal Administrazioak erantzun zuen berretsiz beraiek ez daukatela erantzukizunik Entzutegi Nazionalak ezarritako kautelazko neurriak betetzeko eta, horregatik, helduengandik bereizitakoez bestelako egoitza egokirik ez izatea –LORPM 17.3 art.- Guardia Zibilaren arazoa zen, haiena bakarrik. Dena dela, Ertzaintzak ere adingabeak atxilotuta edukitzeko egoitzarik ere ez duela aipatu genienean, sail horrek jakinarazi zigun Herrizaingo sailarekin elkarlanean ari zirela hori lortzeko.

Bestalde, Arartekoak, indarreko arauketan aurreikusita dagoen bezala, estatuko administrazioak eta autonomia erkideek itunak sina ditzaten ahalbideaz ere galdetu zuen, Entzutegi Nazionalak agindutako neurriak autonomia erkidegoetako lurraldeetan bete

ahal izan daitezen. Horren gainean, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zigun Justizia Ministerioak ez ziela gai horretan beraien laguntzarik lortzeko inolako proposamenik egin.

Erakunde honek foro desberdinetan esan izan du, behin eta berriro, zalantzak dituela 7/2000 Lege Organikoak adingabeen zigor erantzukizunaren arauketan sartutako erreformaren beharraz, eragingarritasunaz eta baita konstituzio oinarriez ere. Hala ere, Autonomia Erkidego honetako biztanle diren adingabe zigortuen interesen defentsak lehentasuna izan behar duela bertoko administrazioarentzat eta, horregatik, eskueran dituen ahalegin guztiak egin behar dituela Entzutegi Nazionalak agindutako neurriak betetzen laguntzeko formulak ezartzen saiatzeko.

Gai honetaz jasotako beste kexa bat zehapen neurriak betearazten lan egiten duen fundazio batek aurkeztu zuen. Kezkatuta ageri zen LORPM arautegi bidez garatu gabe zegoelako. Lege hutsune horrek arazo garrantzitsuak sortzen dituelako kontuan bat gentozen arren, esparru horretan arauak jartzeko eskumena estatuari dagokionez, gaia Estatuko Arartekoari bidali genion.

Justiziaren eremuko ibilbide hau amaitzeko, **abokatu eta prokuradoreen bazkunen** gaineko kexak aipatu behar ditugu. Agerrarazi den bezala, aurten gutxi izan dira euskal herritarrek bazkun profesional horien funtzionamenduaz jarritako kexak. Erabiltzaileak zenbait letraturen jarduerekin –beraien ustez zuzenak izan ez direnak- pozik geratu ez direneko kasu batzuen berri izan dugu baina, auzi pribatuak direnez, erakunde honek ezin izan du horiek aztertzera sartu. Hala ere, erreklamaziogileei dagokien bazkunera jotzeko aukera daukatela jakinarazi diegu, bazkun horiek direlako lanbidearen jarduera kontrolatu behar dutenak.

Esan behar dugu, iazko txostenean Bizkaiko Abokatuen Bazkunak lagundu nahi ez zuelako sartu genuen salaketari dagokionez, 2002ko irailean haiekin izandako bileraren ostean, 1999tik zain genituen informazio eskaririk ia gehienen erantzuna jaso genuela. Konpondu dira, halaber, aurten gaien ebazpenen atzerapenarengatik zeuden kexak.

Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari dagokionez, bazkunen erabakiei jarritako errekurtsoen izapideak gehiegi luzatzen direlako zenbait salaketa ere jaso ditugu, baina gehienak konpondu egin dira. Ez da berdin gertatu–2001ean ere aipatu genuen-, interesatuari jada ebatzita zegoen diziplinazko espediente batean bildutako dokumentazioa ikusten lagatzen ez zitzaiolako jarritako beste kexa batekin. Bestelakoa da hurrengo ataleko kexa laburpenean planteatutako gaia.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Abokatu eta prokuradoreen bazkunak

⇒ *Abokatutzaren Euskal Kontseilua: malgutasuna bazkunen erabakien aurkako errekurtsoen formazko akatsen aurrean eta herritarrekiko harremanetan euskara erabiltzera behartuta egotea* (563/2002)

• Erreklamazioa

Emakume batek gugana jo zuen Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren (CVA) funtzionamenduaren gaineko hainbat kontu planteatzeko. Lehenik eta behin, organis-

mo horren aldetik izandako atzerapena aipatu zuen, aurreko urteko martxoan bidalitako idatziari otsailean erantzun ziolako. Kexaren zio nagusiak, ordea, beste batzuk ziren, batetik, CVA ez zela berak Gipuzkoako Abokatuen Bazkunaren ebazpen baten aurkako errekurtso gisa formulatu nahi izan zuena ebaztera sartu. Bestetik, erreklamaziogileak bere desadostasuna adierazi zuen CVA berari gaztelania hutsean zuzendu zitzaiolako, berak aurkeztutako idatzi guztiak euskaraz joan zirenean.

• Azterketa

Arartekoak interesatuak errekurtsoa aurkezteko baliatu nahi izan zuen idatzia ikusi ez zuen arren, ez eta –esan zuenarengatik- CVAri erantzun eske zuzendu zizkion beste bi ere, erakunde honetan erreklamaziogilearen zenbait idatzi jasoak genituenez, jabetu ginen zeintzuk ziren erakunde hark erreklamaziogilearen asmo edo nahiak zein ziren ulertzeko izan zitzakeen arazoak. Edonola ere, berak CVAri, antza, baliorik gabe uztea nahi zuen Abokatuen Bazkunaren komunikazioaren kopia bat bidali zionez, pentsatu genuen jasotako erantzuna ez zela nahikoa –berak planteatutako gaiak CVAren eskumenekoak ez zirela besterik esaten ez zitzaion-. Horregatik, aipatutako elkargo horrengana zuzendu ginen, jarrera berraztertzeko ahalbideaz galdetzeko, eta formazko akatsak izan arren errekurtsoa jarritzat onartuz, errekurtsoaren gaineko ebazpena eman zezan.

Era berean, CVAri jakinarazi genion gure ustez, erreklamaziogileak idatzi guztiak euskaraz idazten bazituen, euskaraz erantzun beharko lioketela.

Lehenengo erantzun batean, CVAk esan zigun ezinezkoa zela erreklamaziogileak planteatutako gaiak berraztertzea, batetik idatziak argi ez zeudelako eta bestetik idatzietan erabilitako tonua bat ere egokia ez zelako.

Hala ere, erakunde honek uste zuen Kontseiluari dagozkion ikuskaritza eginkizunek herritarren abokatuen euskal bazkunen erabakien inpugnazioei jaramon egitera behartzen dutela, erreklamaziogileak adierazpideetan asmatu zein ez. CVAk eginkizun bermatzailea dauka, bazkunen ebazpenen aurkako errekurtsoak onartzeko orduan izugarri malgua izatera eraman behar dutenak eta, ahal dela, formazko akatsengatik errefusatzea saihestu behar du.

Gure iritzia helarazi genion kontseilu horri, baina baita gure ohartarazpena ere, kasu zehatz hartan gaia berraztertzeko erabakia benetan zailtzen zuten arrazoiak zeudela, hain zuzen. Batetik, denbora luzea joana zen erreklamaziogileak errekurritu nahi zuen erabakia hartu zenetik, atzerapenik handiena Kontseiluaren beraren erantzunean ikusten zen arren, erantzuten hamaika hilabete berandutu baitzen. Bestalde, bazirudien erreklamaziogilearen idatziak ez zekarrela errekurtsoaren inolako oinarririk, beraz, nekez eragin zezakeen inpugnatutako ebazpena baliogabetzea.

Ondorioz, erakunde honek ez zen tematu erreklamaziogileak planteatutako gaiaren mamia ebaztera sartzeko iradokizunean, baina bai berretsi zuen komeni zela CVAk jarrera malgua har zezan herritarrek aurkeztutako errekurtsoen formari dagokionez, ahalegin berezia eginez jakintza tekniko–juridikorik ez daukaten pertsonen eskubideak bermatzeko.

Bestalde, Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala den euskara erabiltzea hautatzen duten pertsonekin harremanak, gutxienez idatzizkoak, euskaraz izateko beharrezko bitartekoak artikulatzeari dagokionez, CVAk idatzian ezer erantzuten ez zuenez, berriro luzatu genion galdera bera.

• Emaitza

Bigarren idatzian, CVAk erakunde honi baietsi zion bere jarrera guztiz malgua dela bazkunen erabakien aurkako inpugnazioak onartzeari dagokionez. Errekurtsoen izapideak formazko exijentziarik gabe errazten zituela zioen, eta bazkunei ebazpenarekin ados ez zeudela besterik adierazten ez zitzaieneko eskuz idatzitako gutunak, errekurritzeko inolako asmorik ageri gabe ere onartuak zituela gehituz.

Kexa eragin zuen kasuan horrela jokatu ez zen arren, Arartekoak pentsatu zuen CVAk mantendutako irizpideak zuzenak zirela.

Herritarrekiko harremanetan euskara erabiltzeari dagokionez, kontseiluak onartzen du pertsonak beraiengana EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan zuzen daitezkeela. Adierazten du, halaber, duela zenbait urtetik, argitalpenak eta komunikazioak bi hizkuntzetan egiten dituela. Erakunde honek pentsatu zuen planteamendu hori egokia zela etorkizunera begira, baina agerian utzi zuen kexa eragin zuen kasuan erreklamaziogileari bidalitako erantzuna gaztelaniaz soilik idatzi zela, eta aurrerantzean halakorik ez egiten saiatu beharko luketela.

## B) **Justizia administrazioaren funtzionamendua**

⇒ *Badaezpadako espetxealdia luzatzea. Ama-umeentzako modulurik ez dago Euskadiko espetxeetan* (805/2002)

• Erreklamazioa

Emakume etorkin bat Martuteneko espetxean zegoen Arartekoarengana ondoko arazo hau azaltzeko jo zuenean:

Herri osasunaren aurkako ustezko delitu batengatik badaezpadako 16 hilabeteko espetxealdia zeraman arren, zigor kausa artean Instrukzio Epaitegian zegoen eta zuen ematen ahozko epaiketa laster izango zenik. Erakunde honengana jo zuenean, 2002ko uztailean, erreklamaziogilea bikien haurdunaldiko seigarren hilean zegoen.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetako batean ere ez dagoenez Amen Saila deritzona, non emakume presoek beren seme-alaba jaioberriekin bizi daitezkeen, espetxe administrazioak eskaintzen zion aukera bakarra Palentziako espetxera eramatea zen, jaioberriengandik bereizteko prest egon ezean. Espetxe aldaketa ikaragarri kaltegarria zen presoarentzat, bere harreman eta sostengu bakarrak Martutenen preso zeukan senarra eta espetxean ezagutu zituen hainbat elkartetako boluntarioak zirelako. Esan behar dugu espetxeetan gizarte eta hezkuntza lanetan aritzen diren lau elkartetako lau kidek ere sinatzen zutela erreklamaziogilearen idatzia, eta bere sostengua adierazten ziotela. Izan ere, GKE batek kudeatutako zaintzapeko pisu batean toki bat gordea zioten haurdun zegoen emakumea hartzeko eta, bere garaian, jaioberriak ere bai.

Ziurreneko espetxe aldaketaren eragozpenez gain, erreklamaziogileak zioen bikien bere haurdunaldiak, zenbait osasun arazok nahastuta, giro osasungarri eta tentsiorik gabean bizitzea eskatzen ziola, dietaz eta berariazko kontrol medikoez gain, eta hori guztia nekez bermatzen dela espetxean. Era berean, azpimarratzen zuen paradoxikoa zela jada epaitu eta zigortu izan balute, bere jokabide onari esker hirugarren graduan

sailkatuta egon litekeela –talde teknikoko profesionalek esan ziotenez- eta hartara bere umetxoekin espetxetik kanpo bizitzeko aukera izango zukeela.

• Azterketa

Garbi zegoen erreklamaziogileak aurkeztutako arazoak gure erakundearen eskumenetatik kanpo geratzen zirela, gaia epaitegietan zegoelako. Hala ere, haurdunaldiaren garapenerako eta jada gertu zegoen amatasunerako baldintza hobeak lortzea komeni zela kontuan hartuta, baita zigor prozesua behar ez bezala luza litekeelako zantzuak ikusita ere, eskumeneko Entzutegi Probintzialeko fiskal nagusiarengana jo genuen.

Kasua aztertu ondoren, Ministerio Publikoko ordezkariak ondorioztatu zuen instrukzioaren konplexutasunak, zenbait auzipetu eta abokatu desberdinak izanik, azaltzen zuela prozeduraren iraupena eta, beraz, ezin zitekeela behar ez zen atzerapenik zegoenik esan. Beste alde batetik, bai kasuaz arduratutako fiskalak bai instrukzio epaileak ihes egiteko arriskua zegoela iritzi ziotenez, ez zegoen behin behineko askatasunik ematerik.

Interesatuari informazio horren berri eman genionean, jakin genuen bere abokatuak Entzutegi Probintzialean askatasunaren ukapena errekurritua zuela.

Haurdunaldia oso aurreratuta zegoenez ez zuten Palentziara eraman, baina erditu ostean ospitaletik eraman behar zuten, Martutenen ez dagoelako jaioberririk hartzeko baldintzarik, ez eta egun gutxirako ere.

Emakumea urrian erditu zen baina umeetako bat lesio larri batekin jaio zen eta ebakuntza egin eta jaioberrien zaintza berezietako sailera sartu behar izan zuten. Ingurumaria horrek egoera nabarmen korapilatu zuen zeren, baldintza normaletan, amari eta biki osasuntsuari egun gutxira senda agiria eman behar zieten eta horrek berehala Palentziara eramatea zekarren. Beste haurtxoak, bere aldetik, zaintza bereziak behar zituen artean ere, baina Palentziatik bera egoteko moduko ospitalerik gertuena Valladolidekoa zen, eta ospitale horretan ere ez daukate jaioberrientzako zaintza bereziko sailik.

Bien bitartean, Emakundek, Justizia Sailburuordetzak eta gure erakundeak egindako borondate oneko gestioei esker lortu genuen ospitaleak, kasuaren ingurumaria ezohikoei adituz, amaren eta ebakuntzarik izan ez zuen bikiaren egonaldia egun batzuk gehiago luzatzea.

Beste arazo bat ospitaleko poliziaren zaintzatik zetorren. Ospitalean ez zegoen presoentzako berariazko sailik eta hori, batetik, presoarentzat abantaila zen arren, beste amen arreta eta zaintza berbera ematen ziotelako, beste alde batetik poliziak gela barruan egotea eskatzen zuen, eta hori emakumearen intimitaterako urraketa nabarmena da. Eskuartean daukagun kasuan, ospitaleko egonaldia banako gela batean izan zen, beste inori trabarik ez egiteko moduan. Era berean, hasiera batean poliziak uniformez jantzita egoten ziren arren, hurrengo egunetan irizpide hori aldatu eta eguneko txandako ertzainek ez zuten uniformerik eramaten, bai ordea gaueko txandakoek.

Arartekoaren ustez jokamolde horrek zaindutako pertsonaren intimitate eskubidea hobeto errespetatzen du. Hala ere, hori ez da Ertzaintzak egin ohi duena eta , horregatik, Herrizaingo Sailera jo dugu irizpidea aldatu eta horrela joka dezaten eskatzera.

• Emaitza

Erreklamaziogilearen arazorik berehalakoenak erditu eta hamabi egunera konpondu ziren, Entzutegi Probintzialak, kasuko ingurumariak behin behineko askatasunaren ukoari

jarritako errekurtsoa aztertu behar izan zuenean jakinik, behin behineko askatasuna eman baitzion. Gerora, emakumeak eta umetxoek espetxean ezagututako emakume elkarte baten ordezkariaren babesa eta gizarte zerbitzuen laguntza izan dituzte beti. Uste dugu, hala ere, historia honek argi eta garbi agerrarazten dituela, batetik, EAEn ama presoek umetxoekin bizi ahal izateko modulurik ez izateak eta, bestetik, zigor kausak luzatzeak –sarritan gehiegi– eta ondoriozko badaezpadako espetxealdiak ere luzatzeak sortzen dituzten arazoak.

# 9. INGURUMENA

## 9.1. SARRERA

Arlo honetako kexen kopurua 69 izan da 2002. urteko ekitaldian; jaso diren kexa guztietatik % 7,06 hain zuzen ere.

Ukitutako administrazioen arabera, era honetara sailka ditzakegu kexa horiek:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 4 |
| - Foru administrazioa | 1 |
| - Tokiko administrazioa | 65 |

Edukiari dagokionez, honela multzokatu ditzakegu:

| | |
|---|---|
| Jarduera sailkatuak egoitza-lurretan | 56 |
| Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk | 8 |
| Jarduera sailkatuak lur urbanizaezinetan | 2 |
| Administrazioaren jardunbidea eta prozedura administratiboa | 2 |
| Jarduera sailkatuak industri lurretan | 1 |

Ostalaritzako establezimenduek (taberna, pub, kafetegi, diskoteka eta abarrekoek) egiten dituzten zaratak jendearentzat gogaikarriak dira eta Ararteko erakundea bere sorreratik beti arduratu da herritarren eskubideak arlo horretan defendatzeaz, horrelako eragozpenetatik babestuz; arazo hori, izan ere, erakundearen kezkabide nagusietakoa izan da. Dagoeneko hainbat kexa jaso ditugu herritarrengandik; urtetik urtera gero eta salaketa gehiago jartzen dira sailkatuak deritzen jarduera horiek zaratatsuak direlako eta ez direlako ixten horretarako ezarrita daukaten orduan.

Azken urteotan, autonomia erkidego honetako herritar askori entzun diegu nola asteburuetan lo egin ahal izateko etxeko sukaldean babestu beharra izan duten; edo etxeko guztiek barruko patiora dagoen gela bakarrean eman behar izan dutela gaua, edo ume txikiak dituzten familiek asteburu guztietan etxetik alde egin behar izaten dutela nahitaez.

Hortaz, uste dugu benetan latza eta kezkagarria dela herritar horiek jasaten duten egoera.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko apirilaren 18an, legez besteko proposamen hau onetsi zuen:

*"1. Legebiltzar honek babesa eskaini nahi die ostalaritzako establezimenduen ordutegiei buruzko dekretuaren aurkako arau-hausteen ondorioak etengabe jasaten ari diren herritarrei.*

*2. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari premiaz eskatzen diogu lan-ildo egokia ezar dezala, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluaren bitartez eta arazo honek ardura dien administrazioekin batera, helburu hauek betetzeko:*

- *Administrazio eskudunek ordutegiei buruzko dekretua betearaz dezatela.*

- *Behar diren neurriak har daitezela ostalaritzako establezimenduz gainezka dauden hirialdeei arnasa emateko, eta formula egokiak ezar daitezela 3 eta 4. multzoetako jarduera-lizentzia gehiegi ez emateko, batez ere ostalaritzako establezimenduz beterik dauden aldeetan, eta hori guztia egokitzat jotzen diren gizarte-eragileen iritzia kontuan hartuz egin dadila.*

*3. Udalei premiaz eskatzen diegu ahalegin guztiak egin ditzatela arlo honetan indarrean dauden arauak betearazteko."*

Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak, aurrekoaren ondorioz, berariaz Ordutegietarako Batzordea sortu du, Eusko Legebiltzarrak ezarri dituen helburuak lehenbailehen eta modu eraginkorrean betetzeko neurri zehatzak har daitezen.

Erakunde honek "Establezimendu publikoetako zaraten arazoari buruzko hurbilketa juridikoa" izenburupean 1991. urteko ekitaldiko txostenean argitaratu zuen azterlan monografikoan, gaiaren alderdi guztiak batera jorratzeko saioa egin zen; herri erakundeek bere gain hartu behar zutela arazoa azpimarratu zen, eta ingurumena hondatzen duen zarataren gaitzari aurka egiteko eta aurrea hartzeko ahalegina lehentasuneko eta presako helburu gisa hartu behar zutela. Ildo horretan, herritarren eguneroko bizitzan hainbesteko eragina duen arazo honi ekiteko premiari buruz erakunde arteko eztabaida zabala antolatu eta sustatzeko eskatu zen azterlan horretan.

Aspaldi eskatu zen arren, eskertzekoa da azkenik eratuta egotea arazoaz arduratuko den Batzorde hori. Edozein ekimenek erakunde honen oniritzia eta babesa jasoko ditu, baldin eta zaratak ingurumenari egiten dion erasoa murriztera eta herritarrek kalitateko ingurunean bizitzeko daukaten eskubidearen erabilera erraztera jotzen badu.

Jarduera sailkatuetarako lizentziak funtzionamendu-lizentzia ezagunen multzokoak dira. Funtzionamendu-lizentzia emanez gero, administrazioak etenik gabe kontrolatu behar du jardueraren funtzionamendua hura amaitzen den arte, horrelako jarduerek ingurumenerako arrisku etengabea sortzen dutelako.

Sarri jasotzen dira kexak ostalaritzako establezimenduek egiten dituzten zaratek eragindako eragozpenengatik, dela lokalek behar bezalako isolamendu akustikorik ez dutelako, dela soinu-ekipoak gaizki erabiltzen direlako, potentziaren mugagailuak eta ainguratze-sistemak manipulatuz, edo itxiera-ordutegiak betetzen ez direlako.

Halaber, airea egokitzeko, airea berritzeko eta keak eta usainak kanporatzeko aparatuek sortutako eragozpenengatik kexa ugari jasotzen da. Batez ere, jatetxeetan izaten dira horrelako arazoak.

Erakunde honek behin eta berriz ohartarazi duenez, udal askok ez dituzte aintzakotzat hartzen establezimendu publikoak ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak. Maiz, ez diete behar adinako arreta ematen, eta jartzen dituzten baliabide materialak eta langileak ez dira nahiko beraiek egokiro kudeatzeko.

Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 61.2. artikuluan xedaturik dagoenez, udalak irekiera-lizentzia eman aurretik, nahitaez, udal teknikariek establezimendua ikuskatzera joan behar dute eta egiaztapen-akta egin behar dute, establezimendua ireki daitekeela esanez, behin egiaztatu eta gero instalazioa bat datorrela onetsitako proiektuarekin eta autonomia erkidegoko edo foru aldundiko ingurumen arloko organoak agindutako zuzenketak egin zaizkiola, halakorik egin behar denean.

Prozeduraren fase horretan, udal agintaritzak lokaletako isolamendu akustikoaren ahalmenaren neurketa egokiak egin behar ditu, alegia, airetik zabaltzen den zaratarako isolamendua aztertu behar du, inguruko bizilagunek zarata dela-eta eragozpenik jasan ez dezaten. Gutxi dira, hala ere, zarataren neurketa horiek egiten dituzten udalak, aginduzkoak izan arren.

Bestalde, azken urteotan ikusi dugunez, nahiz eta hasieran egiaztatu lokalaren intsonorizazioa egokia dela, gerta liteke hala eta guztiz ere inguruko etxebizitzetan bizi direnek zaratak entzutea, eta horrelakoetan ez da lan erraza izaten establezimenduen kontrolari eustea. Gehienetan, bistan denez, musika-ekipoa da zarataren iturria eta aparatuaren aginteak darabiltzan pertsonaren esku dago zarata egitea edo ez egitea. Horregatik, auzokoek zarata entzuten duten unean bertan eman behar diote horren berri udal agintaritzari, teknikariak berehala etor daitezen ikuskapena egitera.

Herritar askok erakunde honengana jo dute, ordea, deitzen dutenean Udaltzaingoak ez duela erantzuten salatzeko, eta, Ertzain Etxera deituta, horrelako ikuskapenak Udalaren ardurapekoak direla eta eurek ezin dutela esku hartu erantzuten dietela.

Erakunde honek, 1996ko txostenean, gai horri buruzko gomendio orokorra eman zuen izenburu honen pean: "Ostalaritzako establezimenduetako musika-ekipoek eragiten duten kutsadura akustikoaren kontrolaz." Tokiko Administrazioari arren eskatu behar diogu lehenbailehen jarrera irmoa har dezala eta ahalegin etengabea egin dezala horrelako arazoak konpontzeko, zuzeneko eragina baitute herritarren bizi-kalitatean. Tokiko Administrazioak behar besteko bitartekoak bildu behar ditu, indarra duten legeek ezarri dizkioten ikuskapen eta kontrol eginkizunak egokiro betetzeko.

Oraintxe ziur esan dezakegu oso gutxi egin dugula aurrera eta hainbat direla ingurumen egoki eta osasungarrirako eskubideaz gabetutako pertsonak. Kezkagarria da, benetan, ostalaritzako establezimenduek sortutako arazoei aurre egiteko EAEko udal askok ageri duten ezgaitasuna.

Industri jardueren ondorio den kutsadura atmosferiko eta akustikoak sortutako eragozpenengatik jaso ditugun kexak ere azpimarragarriak dira. Espedienteak izapidetzean ikusi ahal izan dugunez, herri txiki batzuetako udalek ahalegin handia egiten dute jarduera kutsagarri horiek legeztatzeko modukoak izan daitezen lortzeko, hau da, indarreko antolamendu juridikoan ezarritako mugaren gainetik kutsa ez dezaten. Kontuan hartu behar da jarduera horietariko gehienek hamarkadak daramatzatela lanean, eta erabakigarriak direla udalerriaren ekonomiarako.

Pertsonek animaliekin izaten dituzten arazoengatik ere hainbat kexa aurkeztu zaizkio erakunde honi. Kexagileek salatzen dutenez, toki erakundeek ez dute ezer egiten, nahiz eta jendeak eragozpen eta enbarazuak jasan, esate baterako, etxebizitzetako balkoietan txakur handiak egoten direlako…

Erreklamatzaileek diotenez, udalerri askotan animalien edukitza eta babesari buruzko udal ordenantzak onetsi dira, animaliak izaki bizidunak diren aldetik errespetatu egingo direla eta, aldi berean, jendea animaliek eragin ditzaketen eragozpen eta arriskuetatik babesturik egongo dela ziurtatzeko. Hala ere, erakunde honengana jo duten pertsonek salatu dutenez, ez dira betetzen ordenantzetako arauak, auzokoei eragiten zaizkien eragozpenei eta animalien jabeek auzokide eta oinezkoei eragozpen eta enbarazurik ez sortzeko hartu behar dituzten neurriei dagokienez, eta udal agintariek ez dituzte betearazten.

## 9.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Jarduera sailkatuak egoitza-lurretan

⇒ *Jatetxe-erretegi batetik datozen zaratak, usainak eta keak* (883/2000)

• Erreklamazioa

Algortako bizilagun batek salaketa jarri zuen, esanez bere etxebizitzara zaratak, keak eta usainak heltzen zitzaizkiola higiezineko beheko solairuan zegoen jatetxe-erretegitik.

Erakunde honek, kexa tramitatzeko onartu eta gero, Getxoko Udaleko alkatetzari informazioa eskatzea erabaki zuen, jarduera horren administrazio- eta hirigintza-egoera zehaztu ahal izateko.

• Azterketa

Getxoko Udalarengandik informazioa jaso ondoren, Arartekoak berriro ere informazio-eskaera igorri behar izan zion toki erakundeari; hona hemen:

> *"Dakizunez, erakunde honetan kexa-espedientea tramitatzen ari gara, jatetxe-jarduera baten funtzionamendua arauz kanpokoa dela salatu digutelako (...). Gai honi buruz eman diguzun informazioa azterturik erakunde honek ikusi duenez, Alkatetzaren irailaren 19ko 5.113/00 Dekretuaren bitartez ezetza eman zitzaion titulartasuna aldatzeko eskaerari, ez zirelako aintzakotzat hartu interesatuak aurkeztu zituen alegazioak. Izan ere, aurretik, Alkatetzaren uztailaren 24ko 3.185/00 Dekretuaren bidez, titulartasun-aldaketari ezetza emateko proposatu zen, eta interesatuak alegazioak aurkeztu zituen horren aurka. Kontua da establezimendua legeztaezina zela, ez zituelako betetzen orduan indarrean zeuden arau subsidiarioetako betekizunak, eta horrexegatik ukatu zela titulartasun-aldaketa. Gainera, interesatuari hilabeteko epea jarri zitzaion jarduera bertan behera uzteko, eta betiko itxi behar zuela adierazi zitzaion.*
>
> *Hala ere, 2000ko urriaren 25ean egin zen ikuskapen teknikoan ikusi zen nola jatetxea jendearentzat irekirik eta jardunean zegoen. Harrezkero, zuk emandako informazioaren arabera, badakigu Udalak ez duela inolako kontrol-neurririk hartu Alkatetzaren irailaren 19ko 5.113/00 Dekretu horretan agindutakoa bete dadin; beraz, ez du ezertxo ere egin jarduera hori geldiarazteko. Udalaren ardurarik ezaren ondorioz, inguruko bizilagunak atsedena eragozten dieten eta euren bizitza-kalitatea txartzen duten eragozpenak eta zaratak jasaten ari dira.*
>
> *Hori dela eta, erabakigarritzat jotzen dugu udal arkitektoaren 2000ko maiatzaren 25eko txostenean azaldutakoa. Bertan ondorio hau ageri da: 'ez da bidezkoa izen-aldaketaren aldeko txostena ematea, instalazioa legeztatzerik ez dagoelako, ez indarrean dauden Arau Subsidiarioen itzalpean (jatetxea sotoan dago eta ez du aireztapen-biderik gainalderaino), ez etorkizuneko Plan Orokorraren itzalpean, azken horren arabera teilaturaino bi aireztapen-bide*

*eduki behar baititu, eta fatxadatik ez doazenak, gainera). Beste arau batzuen urratze larriak ere badaude.' Hain zuzen ere, azpimarratu behar dugu txosten horrek agerian jarri duela suteetarako neurriei buruzko arauaren urratzea (CPI-96 araua). Txostenak dioenez, lokalak ez du behar bezalako larrialdi-irteerarik, ebakuazio bideak luzeegiak baitira, eta arrisku nabarmena dago establezimendura joaten diren pertsonen segurtasunerako.*
*Erakunde honek makina bat aldiz adierazi duenez, udalek, euren eskumeneko eremuetan, ezin dituzte alde batera utzi udal baimena behar duten jardueren gaineko kontrol eta zaintza eginkizunak, eta, horregatik, behar diren neurri guztiak hartu behar dituzte indarreko legeak betearazteko, establezimenduen inguruetan bizi diren herritarren intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea bermaturik egon dadin.*
*Horregatik guztiagatik, eta udal erakunde horrek udal baimena behar duten jarduerak etengabe gainbegiratzeko eginkizunen aurrean agertutako jarrerari buruz Arartekoak atera dituen ondorioak berretsi baino lehen, berriro ere laguntza eskatzen dizugu, hots, 15 eguneko epean informazioa emateko eskatzen dizugu, Alkatetzaren 2000ko irailaren 19ko 5.113/00 Dekretuan agindutakoaren betearazpenari buruz."*

• Emaitza

Udalak, bigarren eskaera horri erantzunez, udal ebazpen bat bidali zigun; horren bidez xedatu zen jarduera eten egin behar zela,.zuzenketak egin behar zitzaizkiola eta ezin izango zela berriro abian jarri harik eta zuzenketa horiek eginda zeudela egiaztatu arte.

⇒ *Udalak ez du kontrolatzen ostalaritzako establezimendu baten funtzionamendua gaueko orduetan* (958/2000)

• Erreklamazioa

Durangoko bizilagun batzuek taberna bateko zaratak salatu zituzten; arazo berberagatik, aurreko ekitaldietan ere kexa-espediente bi tramitatu ziren.

Auzokoek ziotenez, intsonorizazio obrak egin ziren baina emaitzak ez ziren behar bezalakoak izan.

• Azterketa

Interesatuek ekarritako agiriak aztertu genituen, baita Durangoko Udalak eman zigun informazioa ere, eta ondorioztatu genuen udal agintaritzak ez zuela kontrolatzen ostalaritzako establezimenduen jarduera gaueko orduetan eta hortik zetorrela arazoa. Hala, bada, Durangoko Udalari idazki hau bidali genion:

*"Dakizunez, erakunde honetan kexa-espedientea tramitatzen ari gara, zuen herriko Barrenkaleko taberna baten arauz kanpoko funtzionamenduaren ondorioz.*
*Hori dela eta, hauxe esan behar dizugu: nahiz eta goian aipatutako jarduerak, toki erakunde horren iritziz, Ostalaritzako Jardueren eta antzekoen Instalazio*

*eta Funtzionamenduari buruzko Ordenantzan xedatutakoa bete, kexa aurkeztu duten bizilagunek behin eta berriz salatu dute zaratak entzuten dituztela eta udal agintaritzak ez diola jaramonik egiten jarduera horren funtzionamenduari, batez ere gaueko orduetan.*

*Aurrekoari buruz Arartekoak ohar hauek egin nahi ditu:*

*Erakunde honetan ostalaritzako establezimenduen inguruko kexa-espediente ugari tramitatu dugu eta konturatu gara potentziaren mugagailuak manipulatzen errazak izan ohi direla, eta establezimenduetako jabeek, batzuetan, musika-ekipoa aldatu ere egiten dutela, behar bezala ainguraturik edo prezintaturik egon arren.*

*Oso garrantzitsua da, beraz, auzokoek zaratak salatu eta gero, behar diren neurketak eta egiaztapenak egitea, eta are gehiago zaratak gaueko orduetan izaten direla salatzen bada.*

*Ez dugu ahaztu behar ostalaritzako establezimendu publikoak udal lizentzia behar duten jarduerak direla. Ondorioz, Udalaren esku-hartzea ez da amaitu behar jarduera abian jartzen denean; aitzitik, horrelako establezimenduak etengabe egon behar dira udal agintaritzaren kontrolpean, jardunean dirauten bitartean, eta aldian-aldian ikuskapenak egin behar zaizkie.*

*Jarduera-lizentziek lotura iraunkorra sortzen dute eta lotura horren xedea da herriaren interesak babestea, baimendutako jarduera egiten den bitartean gerta litezkeen gorabeheren aurrean. Ildo horretatik, baimena jaso duen instalazioak baldintzapean diharduela ulertu behar da isilbidez, herriaren interesen menpean egongo baita beti.*

*Herriaren interesen zaintzailea den aldetik Administrazioak ahalmena du baimendutako jardueran esku hartzeko, neurri egokian beti ere, eta jarduerararen arduradunei behar diren zuzenketak eta egokitzapenak egin ditzatela agindu ahal die, are ofizioz. Hori egin ezik, Administrazioak ez lituzke behar bezala beteko ordena publikoaren arloan dituen eginbeharrak.*

*Erakunde honek sarri adierazi izan duenez, udalek aintzat hartu behar lukete ezen, indarra duen legeriarekin bat etorriz, jardueren funtzionamenduaren jarraipena, ikuskapena eta kontrola udalek nahitaez egin beharreko zerbitzuak direla, eta zerbitzuok funtsezko garrantzia dutela jarduera gogaikarrien ondorioak jasaten dituzten herritarrentzat, euren bizitza-kalitatean eragin nabarmena baitute.*

*Horregatik, udalek langile kualifikatuak behar dituzte ostalaritzako establezimendu publikoen funtzionamendua ikuskatzeko; bitarteko material egokiak ere behar dituzte, behar bezala artaturik; eta beti eduki behar dituzte eskura kontrol-bisitak egiteko prestaturiko langileak, edozein ordutan eta batez ere gaueko orduetan.*

*Badakigu ez dela beti edozein toki erakundek egin dezakeen gauza gaueko orduetan egiaztapenak eta neurketak egitea, ostalaritzako jardueren funtzionamenduaren jarraipen egokiak eskatzen duen bezala.*

*Hala ere, toki erakundeek zeharbidez egin dezakete zerbitzu hori, alegia, zerbitzuen errentamendu-kontratua egin dezakete arloko enpresa espezializaturen batekin, eta horrela enpresako langileek egingo dituzte zarataren neurketak udal agintaritzak ezin duen orduetan.*

*Bistan denez, ostalaritzako jarduerak arau tekniko-juridiko egokien menpean jartzen ez badira beraien instalazioak gatazka larria sor dezake, eta sortu du dagoeneko, ostalaritzako establezimenduen titularren banakako interesen eta herriaren interes orokorraren artean, halakotzat jo behar baita horrelako instalazioen inguruetan bizi diren herritarren intimitaterako eta segurtasunerako eskubidea. Ez da bidezkoa herritar batek ere horrelako instalazioen funtzionamenduak sortutako eragozpenen ondorioz lasaitasunik ez izatea.*

*Ez dugu ukatuko instalazio horiek zaindu eta kontrolatzeko eginkizunen zailtasuna, eta, ildo horretan, uste dugu oreka bilatu behar dela jarduera egiteko eskubidearen eta auzokoek ingurune garbi eta lasaian bizi izateko daukaten eskubidearen artean.*

*Dena dela, gure antolamenduaren arabera, eta azalpen honetan zehar horixe adierazten saiatu gara, herri administrazioek interes orokorraren alde egin behar dute, berau norbanakoen interesekin gatazkan gertatzen denean, eta hori horrela izan behar da beti, baita norbanakoen interesak legebidezkoak direnean ere.*

*Orain arte azaldutako guztiagatik, eta kontuan izanik erakunde honek ezin duela bertan behera utzi berarengana jotzen duten herritarren eskubideak babesteko lana, eta erakunde honek nahikoa egiaztatu duenez asteburuetan eta gaueko orduetan Durangoko udalerrian ez dela egiten ostalaritzako establezimenduak ikuskatu eta kontrolatzeko zerbitzurik, ezinbestekotzat jotzen dugu erakunde horrek behar diren neurriak har ditzala udalerri horretan ostalaritzako establezimenduak ikuskatu eta zaratak kontrolatu daitezen gaueko orduetan, eta zehatzago, hizpide dugun tabernaren jarraipena egin dadin, Durangoko Barrenkalean."*

• Emaitza

Eskaera horri erantzunez, Durangoko alkate-udalburuak 2002ko apirilaren 8an hartutako erabakia bidali ziguten.

Erabaki horren bidez, Udalak titularrari zuzenketa gehiago egiteko agindu zion, eta Udaltzaingoari, berriz, egiaztapen egokiak egiteko agindu zion, xedatutakoa bete zedin.

⇒ *Edarien biltegi eta denda batek eragozpenak sortzen zituen zarata eta usainengatik* (430/2001)

• Erreklamazioa

Billabonako biztanle batek salatu zuenez, bere etxabean zegoen edarien biltegi eta denda batek legez kontra ziharduen.

Zehazki, kexu zen lokalaren jardunak zarata sortzen zuelako, eta baita horren haizebideetatik usainak eta lurrinak heltzen zirelako, bere etxebizitzatik bi metro baino gutxiagora jarrita baitzeuden.

Billabonako udalari galdetu genion ea jarduera horrek zarata-eragozpenik sor zezakeen; eta, hala balitz, ea otsailaren 27ko 3/1998 Legeak -Euskal Herriko Ingurumena

Babestekoak- 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera legeztatu behar zen jarduera hori. Gure eskariari erantzunez, alkatetza horrek udal aparejadorearen txosten bat igorri zigun. Txosten horretan zera adierazi zen erakunde honek galdetutakoaren gainean:

*"Que por lo que se ha podido comprobar no existen pruebas de que por la actividad puedan causarse molestias de ruidos y olores al vecindario ni se observan motivos de causa de dichas molestias, por lo que la Corporación decidió archivar el expediente.*
*Por otra parte, debo aclarar que a mi criterio la actividad no está sujeta al procedimiento de legalización del artículo 55 y siguientes de la Ley 3/1998 y se encuentra entre las que componen el apartado 2.2 del Anexo III del Decreto 165/1999, de 9 de marzo, puesto que se trata de un almacén de venta de vino a granel y pequeño comercio de productos envasados, conservas, etc.*
*Igualmente señalo que sobre las posibles molestias de olores a través de los respiraderos, nos hemos venido pronunciando repetidamente no viéndose motivos de tales molestias, tal y como figura en el expediente.*
*No obstante, si pudiera existir una manera objetiva de demostrar las molestias o el grado de las mismas que sobrepase lo tolerable, estaría gustoso de saberlo."*

• Azterketa

Udal aparejadorearen txostenean adierazitakoa kontuan izanik, Arartekoak laguntza eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailari, eta lokal horretan ikusketa teknikoa egin zezala eskatu zion, instalazio hori indarreko legeriari egokitzen zitzaion jakiteko.

Horrela, Ingurumeneko Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek zera jakinarazi ziguten:

*"2001eko irailaren 4an, eguerdiko 12etan, teknikaria bertara joan zen alde interesatuei (ardo almazenari eta auzokoari) aurretik ezer jakinarazi gabe. Lokaleko atea zabalik zegoela, kanpoan eta etxeko atariko ate parean gai alkoholdunen usain pixka bat nabari zen. Ondoren, etxera sartu eta egongelako eta sukaldeko leihoetatik saiatu zen jardueratik gela horietara etor zitezkeen usainak usaimenez identifikatzen, baina emaitza negatiboa izan zen.*
*Soinuari dagokionez, ez zuen nabaritu dendatik edo biltegitik iritsitako soinu neurgarri, etxebizitzarako gogaikarria izan zitekeenik.*
*Lokalean ikusi zenez, ardo eta edariak txikizka saltzeko jarduera bat da hangoa, eta kontserba begetalak ere neurri txiki batean saltzen ditu. Jarduerako denda eta biltegia bereizita daude eta bien azalera, guztira, 40 m2 da, gutxi gorabehera. Dendaren zatia (...) etxebizitzako sukalde-egongelen azpian dago, eta biltegiaren zatia barrengo patioko aprobetxamenduan, eraikineko etxebizitzen lerro bertikaletik kanpora ateratzen dela. Biltegiko solairuko altuera etxebizitzakoaren parean dago, eta biltegiak, patio aldera paramentu bertikalean duen bao saredun bati eta bi argizulori esker, aireztapena eta argia ditu.*

*Biltegiratutako salgaia oso gutxi da: jatorrian ontziratutako botilak eta ontziratu gabeko ardoa altzairu herdoilgaitzezko hiru depositutan.*
*Saltokian merkataritzan ohikoa den jarduera nabari zen, eta bisita egindako unean ez ziren zamaketa lanik egiten ari.*
*2001eko azaroaren 13an, lokalak etxebizitzatik duen hotserako isolamendua neurtu eta lokalean pitzadurarik ote zegoen ikusteko ke proba bat egin zen. Hauek izan ziren emaitzak:*
*Parte interesatuak (jardueraren titularra eta auzoko kaltetua) bertan zirela, lokalak etxebizitza edo lokal kaltetuenetik zenbateko hots isolamendua duen neurtu genuen.*
*Hotserako isolamendua neurtzeko hots iturri normalizatu bat erabili zen, eta soinu presio maila ahalik eta uniformeena sortu zen (eremu zehaztugabea), (...) etxebizitzako egongela eta sukalde azpiko saltokiko esparru publiko guztian.*
*Neurketak egiteko, aipatutako hots iturria jarri zen martxan. Segidan bolumena igo zen, goiko etxebizitzako fondoko hotsaren interferentziarik gabe neurketa egin ahal izateko seinalea ($L_1$) lortu arte.*
*Ondoren, heldutako hots seinalea ($L_2$) neurtu zen aipatutako etxebizitzako egongelan, hori baitzen soinua gehien heltzen zen tokia.*
*Segidan, hots iturria itxita, egongela horretako fondoko hotsa neurtu genuen. Neurketa tokian aditzen zen fondoko hotsa apala zenez gero, garbi-garbi antzeman zitekeen neurketak oztopa zitzakeen bestelako edozein hots. Ate-leihoak itxita egin genuen neurketa.*
*Segidan ageri dira etxebizitza horretako egongelan hartutako neurketa balioak. Neurketak egin ziren egongelan (lokal hartzailean) altzariak zeudenez erreberberazio denbora 0,5 segundokoa zela jota, lokal igorleko eta lokal hartzaileko mailen arteko diferentzia eginez neurtu genuen isolamendua (isolamendu gordina $D=L_1-L_2$).*
*Legezko erreferentzia gisa, neurketak egiterakoan, arautegi hau hartu genuen oinarritzat: hots eta bibrazioei buruzko ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak (EHAA, 134. zk., 1985-06-29koa) 1. atalburuko 1. ATALEAN ezarritakoa.*
*Horrekin batera, kontuan hartu dira, alde batetik, BEQUINOR BQ M3.30 araua, bizigune hiritarren barrenean edo inguruan dauden industria jarduera eta instalazioek igorritako hots maila neurtzeko metodologia ezartzen duena, eta bestetik, UNE-74-040-84 (4.zatia).*
*Brüel & Kjaer etxeko doitasunezko soinumetro modularra: 2260 tipokoa, 2283398 serie-zenbakia duena; UNE-EN 60651:96 eta 60651/A1 tipo1 eta UNE-EN 60804:96 y 60804/A2 tipo1 arauak betetzen ditu; 4189 motako mikrofonoaz hornituta dago; frekuentzia gama guztia hartzen du, eta aldi bereko erantzunak ematen ditu zortzi parametro ezberdinetan. Mikrofonoa oktaben iragazkiz eta erregistragailuz hornituta dago.*
*Neurketak egin aurretik eta ondoren, goian azaldutako neurgailuaren fideltasuna egiaztatzeko, 1234117 zenbakidun 4230 motako (93 dB-1000Hz) soinu-mailaren kalibratzailea erabili genuen, 0,0002 mikrobarreko soinu presioarekin.*
*Bi aparatuek badituzte dagozkien kalibrazio ziurtagiriak.*

*Neurketa horren emaitzak ikusita, esan behar da lokalak (...) etxebizitzatik duen aireko hotserako isolamendu gordin orokorra (D) 37.4 dB (A) dela; hortaz, lokala ez dago behar den neurrian hosgabetua, eraikinetako baldintza akustikoei buruzko NBE-CA-82/88 Eraikuntzako Oinarrizko Arauko 11. artikuluak bi jabe edo erabiltzaileren lokalen arteko pareta bereizleetarako eskatzen dituen gutxieneko balioak neurritzat hartuta.*

*Ondoren, saltokia etxebizitzatik bereizten duen estankotasuna neurtzeko proba egin genuen, ke kartutxoak erabilita. Haiek piztu eta dentsitate handi samarreko ke gris bat zabaldu zen saltoki osoan.*

*Proba horren emaitza izan zen egongelako tarima errematatzen duen zokalo batetik kea agertu zela.*

*Hara, bada, ke eta gasetarako estankotasuna neurtzeko proba horren ondorioz esan daiteke bi lokalak ez direla estankoak bata bestearentzat. Hortaz, onartzen bada keak egindako bidea ardo eta edarien usain berezien ibilbidearen erakusgarri dela, baliteke usain horiek etxeko egongelara iristea, batez ere saltokiak atea itxita duenean. Gogaikarritasuna usain horren intentsitatearen araberakoa da, noski.*

*Neurketa horietatik kanpo, ikusi genuen saltokia eta etxebizitza elkarrengandik bereizteko ez dagoela gapirioak eta tarima besterik; beraz, saltokian surik gertatuz gero ere, etxebizitzek ez dutela suaren kontrako egiturazko elementu babesgarririk.*

*Gogorazi nahi dugu sute barrutiak (merkataritza eta etxebizitza erabilpenak) bata bestetik bereizten dituzten solairuek behar duten suaren kontrako iraunkortasunak eta erresidentziak gutxienez ordu eta erdikoak izan behar dutela (hurrenez hurren, EF-90 y RF-90), suteen aurkako NBE-CPI-96 arauko 14. eta 15. artikuluek diotenez. Aztertu den solairuari buruz, esan behar da horko elementu bereizleak ez duela suaren kontrako babes denborarik batere, ez baita ke, gas eta abarretarako estankoa.*

*Arauak ez betetze hori konpontzeko, lokalaren titularrari eskatu beharko litzaioke behar adinako hots isolamendua eta suaren kontrako babesa eman diezazkiola lokalari, aipatu ditugun arauan ezarritako gutxienekoak betetzeko neurrian."*

Txosten horretatik ondorio hau atera genuen: zenbait akats zeudela jarduera horren funtzionamenduan, lokalean ez baitzegoen behar bezalako hots isolamendurik aireko hotsetatik babesteko, eta ez baitziren hartu suteen kontrako neurriak, indarreko legeriak agindutakoak.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean, jarduera-lizentzia lortu beharra aurreikusi zen. Gero, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren bidez, lizentziarik behar ez duten jardueren zerrenda ezarri zen. Dekretu horren 2.1 artikuluak dioenez, bere III. eranskinean aipatutako jarduerek funtzionamendu-baldintza batzuk bete behar dituzte nahitaez, hain zuzen, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan horrelako jarduerentzat ezarritakoak (dekretu horretan onartzen dira etxebizitzetarako hiri-lurrean ezartzekoak diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuek bete beharreko arau tekniko orokorrak).

Gainera, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak, zera dio 64.2 artikuluan: "*Jardueraren funtzionamenduan akatsak*

*daudela ikusten denean, alkateak jardueraren titularrari haiek epe jakin baten barruan konpontzera errekerituko du, eta epea, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango."* (sic)

Horregatik guztiagatik, Villabonako udalari 8/2002 Gomendioa egitea erabaki zuen Arartekoak, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Honela zioen gomendioak: *"Billabonako (...) ardo-biltegiaren titularrari honako hau eska diezaiola: lokal hori hotsetatik behar bezala isola dezala, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuan -ekainaren 11koan- ezarritako baldintzen arabera; eta beharrezko neurriak har ditzala suteetatik babesteko, NBE-CPI-96 arauan eskatutakoaren arabera".*

• Emaitza

Villabonako udalak onartu egin zuen gomendio hori, eta neurri zuzentzaileak har zitzala eskatu zion titularrari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu teknikoek egindako ikerketaren emaitzak oinarritzat hartuta.

⇒ *Taberna batean baimenik gabe instalatutako musika-ekipoak zarata gogaikarria egiten du* (1439/2001)

• Erreklamazioa

Iurretako familia batek esku hartzeko eskatu zigun. Esan ziguten etxean zaratak entzuten zituztela beheko solairuko tabernatik eta salaketa jarri arren Iurretako Udalak ez zuela ezertxo ere egin.

• Azterketa

Iurretako Udalari informazioa eskatu genion eta bai jaso ere. Informazio horren arabera, alkatetzaren dekretu bidez udal agintaritzak irekiera-lizentzia eman zuen, baldintza honen pean, besteak beste: tabernan ez zen erabiliko soinu-aparaturik, irratia, telebista eta hari musikala izan ezik, eta berauek soinu-mugagailu ainguratuak eduki behar zituzten, tabernako edozein lekutan neurtuta 75 dB(A)-ko maila ez gainditzeko moduan.

Interesatuak berak eskatu zuen neurri hori, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailak ontzat eman zuen, 2000ko martxoaren 7ko 695 Foru Aginduan.

Alabaina, erakunde honek jakin bazekien establezimendu horrek musika-ekipoa instalaturik zeukala. Auzokoek esan ziguten, eta gainera halaxe ageri zen udal arkitektoak lokala ikuskatu eta gero 2002ko urtarrilaren 16an eman zuen txostenean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Sailak ematen dituen kalifikazio-txostenak udal agintarientzat lotesleak dita, beraietan ezarritako zuzenketa-neurriei dagokienez, horrela xedatu baita Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko 3/1998 Lege Orokorraren 59.2. artikuluan. Horregatik, Arartekoak beharrezkotzat jo zuen Udalak jarduketa egokiak antolatzea udal lizentzian ezarri ziren baldintzak beteko zirela bermatzeko, hau da, Udalak berehala agindu behar zuen musika-ekipoa kentzeko, eta, behar izanez gero, aparatua prezintatu egin behar zuen.

Hortaz, Arartekoak berriro jo zuen Iurretako Udalarengana informazioa eskatzeko xehetasun horiei buruz edo egitekoak ziren jarduketei buruz, halakorik egiteko asmorik bazegoen.

• Emaitza

Erakunde honen oharrei erantzunez, Iurretako Udalak, alkatetzaren dekretu bidez, honakoa erabaki zuen: Udaleko arkitekto-aholkulariari egutegiko 10 eguneko epea ematea taberna ikuskatzera joateko eta, txosten tekniko batean, tabernan musika-ekiporik zegoen ala ez argitzeko.

Azkenik, Iurretako udalak ondokoa jakinarazi zigun: udal ebazpen egokiaren bidez, salatutako jardueraren titularrari egutegiko 10 eguneko epea ezarri zitzaion tabernan instalatutako musika-ekipoa kentzeko, behinola jarritako zuzenketa-neurri baten bitartez haren instalazioa berariaz debekaturik zegoelako. Halaber, ohartarazi zitzaion ezen, agindutakoa egiten ez bazuen, udal zerbitzu teknikoek musika-ekipoa kenduko ziotela eta udal biltegira eramango zutela.

Azkenik, musika-aparatua legeztatu nahi izanez gero aurkeztu behar zituen agiri teknikoen berri eman zitzaion jardueraren titularrari.

Udalaren ebazpena ikusirik, eta, goian azaldu dugun agindu hori betez gero, salatutako arazoak konponduko zirelakoan, erakunde honek amaitutzat eman zuen bere esku-hartzea.

## B) **Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk**

⇒ *Kalean instalatutako kutxetak zapaltzean ibilgailuek zarata egiten dute* (646/2002)

• Erreklamazioa

Bilbotar batek kexa aurkeztu zuen, telefoniako enpresa batek kalean instalatutako kutxeten gainetik pasatzean ibilgailuek zarata egiten zutelako.

• Azterketa

Interesatuak emandako agirietatik ondorioztatu genuenez, udal zerbitzu teknikoak behin baino gehiagotan joan ziren zarata-maila neurtzera, eta egiaztatu egin zuten Bilboko Ingurumenaren Babesari buruzko Ordenantzan ezarritako gehieneko maila baino askoz goragokoa zela. Ikuskapenen ondoren egin zituzten txostenetan azpimarratu egin zuten inguruetako bizilagunek zarata zela-eta jasaten zituzten eragozpenen larritasuna.

Udalak telefoniako enpresari behin baino gehiagotan eskatu zion zarata eragiten zuten akatsak konpontzeko, baina, interesatuak esan zuenez, hala ere ez zen aldatu salatutako egoera, eta kalean instalatutako kutxeten erruz oraindik ere zarata gogaikarriak entzuten ziren.

Beraz, erakunde honek Udalari galdetu zion ea egiaztapen-bisitarik egin ote zuen, enpresari akatsak konpontzeko ezarritako epea bukatutakoan; eta, hala egin bazuen eta akatsak konpondu gabe zeudela ikusi bazuen, ea udal agintaritzak zuzenbidez hartu beharreko neurriak hartu ote zituen aurretik hartuak zituen erabakiak betearazteko.

• Emaitza

Udalak ondokoa jakinarazi zigun: akatsak konpondu gabe zeudela egiaztatu eta gero, zehapen-espediente egokia hasi zen instalazioaren jabe zen enpresaren aurka.

Bestalde, kutxeta akastunen ordez kutxeta berriak jarri zirela jakinarazi zigun, eta horrela amaiera eman zitzaiela salatutako eragozpenei.

# 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

## 10.1. SARRERA

Herri lanak eta herri zerbitzuen alorrak biltzen dituen erreklamazioak ondoko gai hauek hartzen dituzte: toki edo foru mailako herri zerbitzuak, garraioaren alorra, herri lanek eta derrigorrezko desjabetzeak partikularren bizitzan duten eragina, Administrazioak herri zerbitzuen jardueren ondorioz kalteak eragiten dituenean bereganatzen duen ondare erantzukizuna. Halaber, alor honetan sartzen dira administrazioaren kontratazioaren edo administrazioaren prozeduraren eta administrazioen funtzionamenduaren ondorengo kontuak ere.

Herri lanak eta herri zerbitzuen alorrean 120 kexa izapidetu ditugu, hau da, aurkeztutako erreklamazio guztien % 12,28.

Ukitutako administrazioen arabera, honelaxe banatu dira:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoaren administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 7 |
| - Foru Administrazioa | 25 |
| - Tokiko Administrazioa | 90 |

Azpi-alorka:

| | |
|---|---|
| Administrazioaren kontratazio, ondare eta erantzukizunaren araubidea | 31 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazioaren prozedura | 26 |
| Tokiko herri zerbitzuak | 25 |
| Lanen betearazpena | 7 |
| Derrigorrezko desjabetzeak | 7 |
| Lan proiektuak | 7 |
| Landa bideak | 5 |
| Garraioak | 5 |
| Beste herri zerbitzuak | 4 |
| Eskubide eta askatasunak | 2 |
| Bestelakoak | 1 |

Alor honetan kexa ugari jaso da apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarrietako 7/1985 Legearen 26.1 artikuluak jasotzen dituen eman beharreko gutxieneko **udal zerbitzu publikoak** ez betetzeagatik edo txarto betetzeak erabiltzaileei eragindako arazoengatik.

Udaleko herri zerbitzuak betetzeari dagokionez, hiriko hondakinak gaika hautatzeko sistemak ezartzeak erakunde honetan jartzen diren kexen gai garrantzitsua izaten jarraitzen du. Zalantzan jartzen da, funtsean, zerbitzu hau betetzeko ezinbestekoak diren edukiontzien kokapena eta erabiltzen diren husteko sistemak, gune hauen inguru gertueneko etxebizitzetako biztanleei zarata eta usain trabak ekartzen dizkieten neurrian, edukiontziak husteko eragiketak gaueko orduetan egiteko joera dagoelako. Neurri hori kamioiek ibilgailuen trafikoa ez oztopatzeko ezarri da, baina eragin negatiboa dauka zaborra jasotzeko gune hauen inguru gertueneko etxeetan bizi diren pertsonen bizitza kalitatean.

Etxez etxeko ur horniduraren zerbitzuagatik ere aurkeztu dira kexak Arartekoaren aurrean. Bereziki, bi dira erreklamazio hauetan biltzen diren auziak: nori dagozkion hustubideak konpontzeko gastuak bere gain hartzea eta noiz dagoen zerbitzua jasotzeko eskubidea. Oro har, konponketak udal zerbitzuen pentzura egin behar direla baiezta daiteke, bai sare orokorretan, bai hartune partikularretan, baldin eta hartuneak herri bidean badaude. Planteatutako kasuetan, hustubidea apurtzeak kaltea ekarri zien herri erabilerako lur pribatuaren azpiko hartune partikularrei. Hortaz, hustubidearen jabeak diren auzokideen elkarteari zegokion hura konpontzea. Hots, udalak banaketa sareen titularrak direnez gero, hustubideak mantentzeko eta konpontzeko gastuen erantzukizuna hartu behar dute. Hala ere, hartunetik eta horren maniobra-giltzetatik tutueria instalazio partikularra da, halako moldez non hura konpontzea eta mantentzea titularren pentzura egin behar baitira. Zerbitzua betetzeari dagokionez, eraikuntza baten ur horniketaren arazoa, ikuspegi juridikoaren aldetik, 7/85 Legearen 26.1.a) artikuluaren barruan kokatzen da, honek esaten baitu etxeetako ur horniketa bermatzea udalen betebeharra dela. Hala ere, betebehar horri xehetasunak erantsi dizkio beti epaitegietako jurisprudentziak, eta hauek diote betebehar hori hiri guneetara mugatzen dela eta, beraz, ez dela urbanizatzeko gai ez den lurretako eraikuntzetara, hau da, landa lurretan dauden eraikuntzetara zabaltzen.

Bediako Ereño auzoko auzokide elkarte batek jakinarazi zigun auzo horretako etxeek ez zeukatela hornidura elektriko egokirik. Nahiz eta hornidura elektrikoa Tokiko Araubidearen Oinarrietako Legearen 26 artikuluak udalak betebeharreko zerbitzuen barruan sartu ez, Udalarengana zuzendu ginen eta adierazi genien gaur egungo gure gizartean elektrizitatearen hornidura ezinbestekoa dela, bertan bizi direnek eta alde horretan lanean dihardutenek bizitzeko moldaerazko oinarrizko baldintza duinak izan ditzaten.

Herri guneetara iristeko errepide edo bideei dagokienez, Abantoko auzokide talde batek gure irizpidearen mende jarri zuen Abanto eta Zierbena udalerriko Kotorrio auzoko etxebizitzetara doazen “Galdameseko bidea” izenarekin ezagutzen den errepidea eta gainerako bide eta bide-adarren egoera. Halaber, udalerriko alderdi horretan zeuden beste arazo batzuk azaldu zituzten, herri argiztapeneko eta hondakinak biltzeko zerbitzuaren arazoak alegia. Erakunde honen aholkulari batek bisita egin ondoren, egiaztatu genuen errepide nagusiak ez ezik, baserriak lotzen dituzten aldameneko gainerako bideak ere egoera penagarrian daudela. Hartara, Abanto-Zierbenako udalak bide hauek hobetzeko ahalegina egin behar zuela iritzi genion, bertan bizi den jende kopurua eta jasaten dituzten iristeko arazoak kontuan izanda, kasu batzuetan premiazko edo laguntzako osasun zerbitzuak galarazi ere egiten dituztelako.

Amaitzeko, aipatu behar ditugu bideen erabilerak sortzen dituen auziak, bideen titular diren tokiko erakundeek beren menpeko eremu publiko horietan dagozkien polizia zereginak betetzen ez dituztelako eta, ondorioz, bide horietako esku-hartze pribatizatzaileen aurrean ezer egin gabe gelditzen direlako (mugakideek egindako itxidurak…). Dena dela, beste batzuetan, tokiko erakundeekin izaten den liskarra, bidea jabetza pribatukoa dela ez jakitearen ondorioz sortzen da, Udalari, administrazio batzordeari…. herri erabilpenerako zabalik egon arren jabetza pribatukoak diren espazioen mantentzea bere gain hartzeko eskatzen zaienean.

**Garraioaren** alorrean, autonomia erkidegoko herritarren kezkarik handiena herritarrei garraiobideetako irismena bermatuko dizkieten neurriak arin hartzeko

beharrean zentratzen da, batez ere, mugikortasuna larriki eragindako eta mugitzeko gurpildun aulkia behar izaten duten erabiltzaileei. Kexa hauek hasieran hiriko garraio zerbitzuetan zeuden zentratuta, baina orain hirien arteko garraio zerbitzuei dagokienean ere planteatzen dira.

Halaber, aurreko urteetan bezala, garraio publikoaren erabiltzaileek egindako hainbat kontsulta jaso dira erakunde honetan, familia ugariko kideei garraioaren deskontuak aplikatzeari eta herri garraioetan txartelik gabe joateagatik isunak ezartzeari buruzkoak. Zehazki, arreta berezia merezi du Gipuzkoako herritar batek bidaian *zeharreko gehigarriaz* azaldu zigun kexa (ikusi kexa laburpenen atala).

Alor honetan sartzen dira **herri lanen burutzeek**, proiektuak egin eta onetsi bitartean zein ondorengo gauzatze materialean, partikularrei eragiten dieten kalteei buruzko kexak ere. Onetsitako herri lanen proiektuaren egokitasuna zalantzan jarri ohi da, zeren eta, batzuetan, partikularren interesentzat bereziki kaltegarri izaten baita, bere lurraldetik doanean edo bere jabegoaren balioa edo eskubideak murrizten dituenean. Arazoa zuzen ebaluatzeko kontutan hartu behar ditugu Arartekoak autonomia erkidegoko herri administrazioen jarduerak ikuskatu eta lege antolamendura egokitzen diren egiaztatzeko bere esku dauzkan eskumenak.

Gure esku-hartzetik kanpo gelditzen dira egokiera irizpideak, horretarako hautatu diren ordezkapen organoei soilik dagozkienak. Zentzu horretan, Auzitegi Gorenak jurisdikzio berrikuspenerako aukerak mugatu ditu egokiera arrazoietan oinarrituta, kontu horiek berrikustea udaleko organo eskudunei baitagozkie; zehazki, 2001eko otsailaren 26ko epai batek dio *"ez dago aukeramen administratiboa berrikustatzerik jurisdikzio egoitzan komenigarritasun edo egokiera handiagoko edo txikiagoko iritzi edo zioetan oinarrituta"*. Administrazioaren zuhurtziarako tasun tekniko horrek galarazi egiten du bere irizpidea eskatzaileen iritzi subjektiboan oinarritutako batez edo beste irizpide batez ere ordezkatzea, salbu eta boterearen desbiderapen, arbitrariotasun edo hartutako irizpidearen justifikazio bat ere ez badago. Horregatik, Administrazioa kontrolatzeko dauden jurisdikzio organoek edo legebiltzarraren ordezkari hau bezalakoek administrazioaren esku-hartzea kontrolatzeko duten ahalmena, zalantzapean jarritako erabakia, ikuspegi formal edo materialetik, lege antolamenduaren kontrakoa den egiaztatzean datza. Zentzu formal batean, akordioa lortzeko eta erabakia hartzeko bitartean behar ziren izapideak jarraitu diren ala ez, bereziki entzunaldiaren eta alegazioen aurkezpenari dagokienez, planteatutako gaiei banan-banan erantzun behar baitzaie. Herritarrek obrak egiteko eta azpiegiturak kokatzeko erabakietan parte hartzea ikaragarri garrantzitsua da, proiektuaren aurkako iritziei edo balizko auziei aurrea hartzeko. Hartara, erabakia ahalik eta adostasunik handienaz hartu behar da, obren proiektuaren inguruko ahalbide eta aukera guztiak entzun eta eztabaidatu ondoren. Bestalde, onetsitako proiektuaren balio materialari dagokionez, aurreikusitako obra proiektuaren hirigintzako edo alorreko legezkotasunaren kontrola ere egin behar da. 2002 urtean jarraitutako espedienteen artean, aipagarria da Elgoibarreko udalerrian, San Pedro auzunerako bidearen proiektuaren onespenarekin desadostasuna adierazten zuen erreklamazioa (ikusi 1130/2001 zenbakiko kexaren laburpena).

Bide azpiegituren egintza ere kexa-gai izan da, zeren bide horiek eraikitzean lehenagoko sarbideak kendu baitira. Hartara, guraso elkarte batek erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen, Arangoititik eskola batera zegoen bide zuzena ezabatzeak beren seme-alabei eragiten zien endredoarengatik. Traba horiek arintzera begira, Bizkaiko

Foru Aldundiak akordio bat lortu zuen elkarte horrekin, hau da, administrazio hark obrak zirauten bitartean eguerdian adingabeentzako eskola garraioa eskaini eta horren kostea bere gain hartuko zuela.

Errepideen mugakide diren finken titularren artean oso hedatuta dagoen beste nahi bat da finkek errepidetik automobilez sartzeko bidea izan dezaten da. Eskari horiek, batzuetan, ezetsi egiten dituzte, inguruko ibilgailuen trafikoaren segurtasunean eragiten dutelako, edo epe labur samarrean errepide horren bidea hedatu edo aldatzeko asmoa dagoelako. Halako esku-hartzeen adibide gisa, kexa hautatuen sortan kasu bat laburbildu dugu.

Zenbait azpiegituraren kokapenari dagokionez, han bizi ziren herritar batzuek Herri Lan eta Hirigintzako Foru Sailak Apraitzen (Elgoibar) hondar uren araztegia jartzeko pentsatutako kokapenaz kexatu ziren. Apraitzeko EDAR proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onartu zuen, Erdiko Debaren eskualdearen hondar uren saneamenduaren arazoa konpontzeko, Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze eta Elgoibarreko udalerrietatik zetozen urak tratatuz.

Herritarrek araztegi bat bezalako jarduera gogaikarri baten instalazioaren aurka egitea ulergarria den arren, eta are gehiago EDAR hori beste toki batean jartzea badago, Arartekoak horretan ezin du sartu, ez baitzaio Administrazioaren zuhurtziaren ondoriozko erabakirik baloratzeko eskumenik aitortu. Ikusi genuen proiektua onesten zen bitartean herritarrek kokapen horren ordez besterik proposatzeko aukera izan zutela, baina foru aldundiak, motibatuta, guztiak ezetsi zituela. Edonola ere, hondar uren araztegiak sailkatutako jardueren araubidearen mende daude, eta funtzionatzen hasteko udalaren jarduera lizentzia behar dute. Horregatik, instalazioaren sustatzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herri Lan eta Hirigintza Sailak Elgoibarko Udalari jarduerarako behar duen udal lizentzia eskatu beharko dio. Izapide horretan, herritarrek beren interesak defendatzeko egoki irizten dieten alegazio guztiak egin ditzakete. Era berean, jardueraren udal lizentziaren beste izapide bat –jendaurreko erakustaldiaren ostean doana- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak instalazioari, araztegitik etor daitezkeen zarata, gas eta usainen gogaikarritasuna ekiditeko, ezarri behar zaizkion neurri zuzentzaileen gaineko txostenarena da. Neurri zuzentzaile horiek nahitaez bete behar dira jarduera martxan jarri baino lehen, eta funtzionatzen duen denbora guztian, jardueraren lizentziaren baldintza iraunkorrak baitira, EDARek une oro nahitaez bete beharrekoak.

Herri lanek administratuen ondasun eta eskubideetan eragin dezaketen kalteari dagokionez, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legean jasotako erakundeak horri dagokion kalte ordaina aurreikusten du. Prezio justua banatuta izapidetuz finkatzen da, eta desjabetzen duen administrazioak helarazten duen premia bideko orrian zehazten da. Hor egiten den balorazioaren aurrean, ados ez badaude, jabeek prezioa espresuki errefusatu eta, kasurako, Desjabetzeen Lurraldeko Epaitegira jotzeko aukera daukate. Prozedura horretan, prezio justua baloratzeko ildoei jarraituz, Administrazioaren desjabetzeko esku-hartzeak eragiten dien benetako eta izatezko kaltea alegatu eta justifikatu beharko dute.

**Ondare erantzukizunak**, beste ekitaldi batzuetan bezala, administrazioek herri zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz beren burua kaltetutzat ikusten duten herritarren salaketa eta erreklamazioen zio etengabea izan dira.

Ondare erantzukizunaren edukia –Espainiar Konstituzioaren 106. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

Legean jasotakoa-, baita halakorik dagoen egiaztatzeko behar diren administrazioko izapideak ere zerbitzuen titular diren herri administrazioen funtzionamenduan sartu eta txertatuz doaz denborarekin. Hala ere, Arartekoa ikusi ahal izan du oraindik zenbait disfuntziok dirautela, formazko zein edukizkoak, konstituziozko eskubide honen aplikazioan.

Herri administrazioek eragiten dituzten kalteen ordaina ematearen izaera objektiboak ez dauka herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran izandako edozein erru edo axolagabekeriaren beharrekin zerikusirik. Horregatik, administrazioko organoak erreklamazioaren aldeko ebazpena eman beharko du herri zerbitzuen funtzionamendu normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko loturarik dagoela frogatzen denean.

Hala ere, tokiko administrazio asko oraindik tematu egiten dira udal zerbitzuen jarduera axolagabea bilatu behar delakoan, pertsonek kalte ordaina jaso dezaten duten eskubidea dagoela onartzeko. Interpretazio honek ez dio lege antolamenduari erantzuten, ez eta antolamendu horretaz Auzitegi Gorenak hainbeste aldiz egin duen interpretazioari ere. Arartekoak uste du jarrera horrek kalte ordaina jasotzeko eskubidea mugatzea dakarrela, herritarrek, besteak beste denon interesa lortu behar duen administrazioaren jardueraren ondorio mingarri edo kaltegarriak jasan behar ez izatean oinarritzen den administrazioen erantzukizun objektiboaren eskema juridikoarekin zerikusirik ez duen erruaren ondoriozko erantzukizunaren edo erantzukizun *"aquilianoaren"* dotrina *ius-pribatistan* oinarrituta.

Suposamendu horien artean Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ondare erantzukizun baten erreklamazioa ezetsi izana aipatu behar dugu. Ondare erantzukizuna administrazio horrek sustatuta Pasaia Antxoko Zumalakarregi kalean egindako hirigintzako obra batzuen ondorioz jasandako kalteengatik eskatu zen. Arartekoak sail horri gomendio bat helarazi zion, foru sail horrek herri zerbitzuaren prestaziotik zetozen hirigintzako obrak egitearen ondorioz eragindako kalteengatik erantzun behar zuela esanez.

Gasteizko udalak ez ditu gure erakundeak administrazioaren erantzukizun objektiboa aitortu behar dela esanez egin dizkion gomendioak. Horrela gertatu da herritar bati "suzko zezen" izeneko jaietako ekintzarengatik eragindako kalteen kasuan, jai ekitaldiak antolatzeko herri zerbitzuari egoki behar zitzaizkiola iriztean (397/2001); galtzadatik oinez zihoan herritar bat erregistroko putzuaren arketa bat zabalik zegoelako jausi zenean, udalarena baitzen eta herriko kaleen mantentze lanetako herri zerbitzuaren funtzionamenduari eta kaleak ibiltzeko moduan mantentzeko eta zaintzeko herri zerbitzuaren funtzionamenduari egotz baitziezaiekeen (314/2000).

Era berean, Bilboko udalak ez du udal horrek herriko kaleak mantentzeko lanen herri zerbitzuaren funtzionamenduak, salatutako kasuan bezala, galtzaren edo espaloiaren trazatuaren edozein diferentziaz ohartarazi beharrari jaramoni egin ziolako, herritar bati eragindako kalteengatik (472/2001). erantzun zezan egin genion gomendioari Kasu honetan, herritarrak espaloiaren egoeraren ondorioz erori eta min hartu zuen. Espaloiaren gainean Telefonica enpresaren arketa bat irteten zen.

Arartekoak gomendio bat egin dio Lazkaoko udalari, herritar batek bere ibilgailu bati aparkaleku baten irteeran seinaleztapen egokirik gabe jarrita zegoen gontzarekin jotzean, gerora udalak hori zuzendu zuen, eragindako kalteengatik jarritako erreklamazioa (531/2000) onesteko gomendioa bidali dio. Kasu honetan kaltearen

kausa nagusia herriko kaleen antolamenduko udal zerbitzuaren funtzionamenduari egotzi behar zitzaion.

Beste disfuntzio bat Administrazioak, herritar baten erreklamazioa jasotzean, egiten duen bakarra erreklamazio hori aurretiaz asegurua kontratatu dion aseguru etxeari bidali besterik egin ez duen kasuaren antzekoetan agertzen da. Behin baino gehiagotan esan dugunez, Administrazioaren betebeharrak ez dauka Administrazio horrek, erantzukizunaren betebeharra estaltzeko, konpainia pribatu bati kontratatzen dion aseguru poliza baten kontratuarekin zerikusirik. Konpainiaren irizpideak konpainia horrek Administrazioaren erantzukizuna den balizko kalte baten arriskua bere gain har dezakeen ala ez ezartzeko baizik ez du balio, eta horrek ez du esan nahi lege antolamenduak administrazioei egozten dien erantzukizun zuzenetik libratzen direnik. Horregatik, udalak kontratu ez duen erantzukizunaren partea ordaindu behar du; beraz, aseguru etxearen ezezko txostenak ez du esan nahi administrazioa ordaintzetik libre geratzen denik. Prozedura bideratzen duen organoa da, soilik, udal zerbitzuen txostenaren eta interesatuen alegazio eta frogen arabera, herri zerbitzuaren funtzionamenduaren eta erreklamaziogilearen izatezko kaltearen arteko kausaltasun loturarik dagoen erabaki dezakeen bakarra, 429/1993 E.D.z garatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 142 artikuluaren arabera. Hartara, ondare erantzukizuna aseguru etxearen irizpidearen arabera onetsi edo ezestea lege antolamenduaren erabat aurkakoa da. Aseguru etxearen irizpidearen jarraitzean, erreklamazioen izapiderik egin ezaren edo aurreikusitako erantzukizun prozedurara ez moldatzearen suposamendu hau ondoko udal eta korporazio hauei jakinarazi diegu: Abanto Zierbenako udalari (415/2000), Plentziako Udalari(271/2000), Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateari (309/2000), Lasarte-Oriako Udalari (442/2002), Errenteriako Udalari (528/2002) eta Pasaiako Udalari (1000/2002).

## 10.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Obren burutzapena**

⇒ *Ibaien ubideetan egindako mantentze lanak* (1086/2001)

• Erreklamazioa

Osmako Administrazio Batzordeak Tumecillo ibaiak herri horretatik pasatzean mantentzerik ez zuelako kezkatuta zegoela adierazi zuen.

Zehazki, planteatzen zuen bazela urtebete baino gehiago Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilan Sailaren Uren Zuzendaritzari konponbideren bat eskatzen ari zitzaizkiola, sasitzak ibaiaren bidea hartua zuelako eta ibaiak igoerarik izatekotan herria urez estal zezakeelako beldur zirelako.

• Azterketa

Uren Zuzendaritzak Tumecillo ibaiari ukitzen zion arazo desberdin eta konplexua azaltzen zuen txostena helarazi zigun. Zuzendaritza horrek, uholde arriskua baztertu gabe, ulertzen zuen arazo horretan ubidean landareak egoteak ez zuela ia bat ere eraginik.

Aitzitik, zati horretan hustubidearen arazoak zubi bat zegoelako ziren baina, zubiaren balio historikoarengatik eta eremu urperagarrian eraiki zelako, ez zegoen zubiarekin ezer egiterik.

Hala ere, Uren Zuzendaritzak gehitu zuen Osma herrian ubidearen tarte ugaritan garbiketa lanak eginak zituztela, batez ere garraioak, sastrakak eta zuhaixkak kenduz.

• Emaitza

Administrazio Batzordeari gure gestioen berri eman ondoren, espedientea itxi eta artxibatu zen.

## B) **Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura**

⇒ *Izena ematea udaleko biztanleen erroldan, izen emateko eskarian jarritako datuak egiaztatu gabe* (542/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek esku hartzeko eskatu zigun, Bilboko udaleko biztanleen erroldan bere etxean berak ezagutzen ez dituen hainbat pertsona jarri zituztela jakin zuenean.

• Azterketa

Kexagileak adierazi zigun kezkaren bat eginez, Udalarengana jo genuen interesatuaren helbidean oker erroldatutakoak zuzentzeko hartutako zer egin zuten jakiteko eta, oro har, erroldatzea eskatzen duten pertsonek adierazitako datuak egiazkoak direla bermatzeko zer egin ohi duten argitzeko.

Lehenengo galderari erantzuteko, udalak jakinarazi zigun interesatuaren helbidean oker erroldatutakoak zuzentzeko prozedura izapidetzen ari zirela. Bigarren galderari zegokionez, esan zigun ez zutela erroldatze eskarian adierazitako helbidea egiaztatzeko inolako gestiorik egiten.

Hala ere, zenbait komunikabidek emandako informaziotik ondorioztatu genuenarengatik, udalak kontatzen zigun egoera gerora aldatu zen zeren, egunkariek ziotenez, Udala erroldatze eskarian helbide gisa jarritako etxebizitzaren okupazioa zilegia delako titulua aurkeztea exijitzen ari baitzen. Irizpidea aldatu bazen, iturri haien arabera, interesatuek udalean jarritako hainbat salaketen ondorioz erroldaren eta errealitatearen artean desberdintasun bat baino gehiago zeudela jakin zelako izan zen.

Pentsatu genuen, hura baiestekotan, neurriak egokia zirudiela aurrerantzean antzemandako erroldatze irregularren antzekorik egitea saihesteko. Hala ere, pentsatu genuen Udalak laginketa eta kontroleko eragiketa sistematikoak ere egin behar zituela, Tokiko Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketaren Arautegiak hala exijitzen zuelako (77. art.), errolda eta errealitatea bat etor daitezen lortzeko, hain zuzen.

Horregatik, Udalarengana jo genuen, berriro ere, sortutako egoera berriaz eta konpontzeko hartutako neurriez galdezka, baita, egitekotan, erroldaren laginketa eta kontroleko zer eragiketa sistematiko egiten zuten jakin nahirik ere.

Gure eskariari erantzuteko, udalak baietsi zigun, izan ere, interesatuak erroldatzeko eskarian adierazitako helbidea frogatzea erabaki zutela. Era berean, azkeneko hiletan

antzeman zituzten erroldatze okerren berri ere eman zigun, zio desberdinengatik izan zirela, eta erroldako helbidean inoiz bizi izan gabeko pertsonen izen emateak oso gutxi zirela azpimarratuz. Eta azaldu ziguten, halaber, ahal zuten heinean behintzat, laginketa eta kontroleko eragiketa sistematikoak egiten zirela.

Erreklamaziogilearen helbidean erroldatze okerrei dagokienez, jada indarrik gabe utziak zirela jakinarazi ziguten.

• Emaitza

Udalak emandako informazioa ikusita, pentsatu genuen erreklamaziogileak aurkeztutako berariazko arazoa konpondutzat jo genezakeela, eta udalak interesatuek emandako datuak egiazkoak zirela bermatzeko hartuak zituen neurriek, baita aldioro egin behar dituen egiaztapenek ere, pixkana-pixkana, lortu nahi duten helburura heltzen lagun zezaketela: erroldaren datuak eta errealitatea bat etor daitezen, hain zuzen.

Horregatik, gai horretako gure esku-hartzea amaitutzat ematea erabaki genuen, udalari halako helburu neketsuan kontroleko eta laginketako eragiketak behar bezala egitea ikaragarri garrantzitsua dela errepikatuz.

## C) **Obren proiektuak**

⇒ *Bide baten eraikuntza proiektuaren inguruko desadostasunak* (1130/2001)

• Erreklamazioa

Elgoibarko andre batek zioen ez zegoela ados udalerri horretan Ipintza baserritik San Pedrorako bidea egiteko onartutako proiektuarekin. Zehazki, zalantzan jartzen zuen ingeniaritza enpresa bati egindako mandatuz prestatutako zenbait baserritarako irispidearen egokitasuna. Berak zioenez, pentsatutako bidea bereziki kaltegarria zen bere interesentzat, bere jabetzako lurra bitan banatuz zihoalako, eta garatzen ari zen landaketa bat suntsitzea zekarkiolako. Horregatik, proiektuari hainbat alegazio egin zizkion, soluziobide ez hain kaltegarria litzatekeena bilatzen laguntzeko, bere jabetzatik igaro arren ere. Baina alegazioak ezetsi egin zizkioten.

• Azterketa

Arartekoak udalari informazioa eskatu zion, Ipintza baserritik San Pedrorako irispidearen proiektua onesteko egindako izapideen gainean, eta ibilbidea aldatu eta alternatiba egokia aztertzeko aukera proposatzen zueneko erreklamaziogilearen alegazioak ezesteko arrazoibideen gainean.

Gure eskariari erantzuteko, udalaren txostena jaso genuen, proiektua onartzeko jarraitutako izapideen eta planteatutako alternatibak ezesteko arrazoibide teknikoen berri emanez.

Suposamendu horren analisi zuzena egiteko, kontuan izan behar dugu horretarako hautatutako ordezkaritza organoei soilik dagozkien egokiera irizpideak Arartekoaren esku-hartzetik kanpo geratzen direla. Horren harira, planteatutako kasuan, erakunde honi dagokio udalak erabakia hartzeko prozedura egokiari jarraitu dion, jendaurreko informazioko izapiderik eskaini den, eta erreklamaziogileek egindako alegazioei erantzun

dien egiaztatzea. Ez daukagu eskumenik, berriz, udalak hautatu duen aukera zalantzan jartzeko orduan. Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan esan duenez, ezin dira egokiera arrazoiak zalantzan jarri, gai horiek udal organo eskudunen berezko ahalmenen barruan sartzen direlako; 2001eko otsailaren 26ko epai batek dio *"administrazioaren zuhurtziara jokatzeko eskubidea ezin da epaitegietan aztertu, komenigarritasun edo egokiera handiago edo txikiagoko oinarrien arabera"*. Administrazioaren zuhurtziarako tasun tekniko horrek udalaren irizpidearen ordez hirugarren errekurtsogileren iritzi subjektiboan oinarritutako beste irizpide bat jartzea eragozten du, botere desbideratze, arbitrariotasuntzat jotako suposamenduetan edo hartutako irizpidearen inolako justifikaziorik ez dagoenean. Ondorioz, Administrazioaren kontroleko jurisdikzio organoek edo besteren batek, hala nola, legebiltzarraren mandatari honek dituzten administrazioaren esku-hartzearen kontrolaren ahalmenak zalantzan jarritako erabakia ikuspegi formal edo materialetik lege antolamenduaren aurkakoa den ala ez egiaztatzeko dira.

Zentzu formalean, espedientean ageri den informazioan ikusi genuen Elgoibarko Udalak jendaurreko informazioko epea zabaldu zuela eta udal gobernuko batzarrak azkenean hartutako erabakiaren berri emanez erantzun ziela herritarrak jarritako alegazioei.

Administrazioak herritarraren lurretan esku hartzeak haren ondasun eta eskubideei egin zien kaltearen gainean, ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeak dagokion kalte ordaina aurreikusten du. Prezio justua finkatzea banatuta izapidetzen da, eta desjabetzen duen Administrazioak bidaltzen dion prezioaren orrian zehazten da. Orri horretan egindako balorazioari dagokionez, jabeek prezio hori espresuki errefusatu eta, dagokien desjabetzeko lurralde Epaitegira jotzeko eskubidea daukate. Prozedura horretan, hain zuzen, prezio justua baloratzeko ildoei jarraituz, alegatu eta justifikatu beharko dute Administrazioaren desjabetze jarduerak egiten dien benetako eta izatezko kaltea, baita, izatekotan, finka horietan garatzen den ekonomia jarduera amaitu edo lekualdatu beharrak eragindakoa ere.

• Emaitza

Arestiko hori ikusita, ondorioztatu genuen ezin zela esan administrazio horrek modu irregularrean jokatu zuenik, eta guk horretan sartzerik ez genuela ere bai.

### ⇒ *Foru errepide batetik finka batera sartzeko bidea ukatzea* (1318/2001)

• Erreklamazioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren titularitateko errepide batekin mugan zeuden zenbait lurzatiren jabeek esan zuten ez zeudela ados Herri Lan eta Garraio Sailak finka horietarako bi sarbide eraikitzeko beren eskaria ezestearekin.

Funtsean, ezespena erabakitzeko emandako arrazoia zen errepide hori, hamar bat urteko epean, egokitu eta hobetzeko proiektu batean sartuko zela.

• Azterketa

Errepidearen titularra den administrazioak bide horren erabilpenik onena eta kontserbazio egoera iraunkorra mantentzeaz arduratu behar du. Hori behar bezala

betetzeko, gure lege antolamenduak errepideen eraikuntza ekintzen eta erabilpenen eta lur mugakideen (errepideen babes eremu eta eragin eremu deritzenak) erabilpenen kontrol eta antolamendurako eskumen ugari ematen dizkio.

Foru Aldundiak titular deneko errepideen gainean erabaki ditzakeen jarduerak Bizkaiko Errepideen otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauan jasota daude (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 55. zk., 1993ko martxoaren 8koa).

Arau honek 38. artikuluan foru errepideen sarean sartzen diren bideen mugaketa eta berrantolamendua araupetzen ditu. Artikulu honek dio Herri Lan eta Garraio Sailak eskumena duela foru errepideetatik finketarako sarbideak non eraiki daitezkeen mugatu eta ezartzeko, horrek itzulingurutxoa egitea ekarri arren.

Era berean, Errepideen Arauak dio sarbide berririk sortzeko baimena emateko, bidearen erabiltzailerik gehienek etekina ateratzen diotela justifikatu behar da, eta ez soilik eskatzen duten pertsonek, lurren kokapenarengatik jada dauden bideetatik iristeko modu alternatiborik ez badago ezik.

Azkenik, arauak berak dio baimenak Foru Arauan bertan, eta errepideen gaia araupetzen duten lurralde eta hirigintza planetan oinarritutako zioengatik ukatuko direla (43. artikulua).

Arestikoaren haritik, Foru Arauak baimenak ukatu behar direla dio, errepidea hedatu edo aldatzeko planen edo proiektuen aurreikuspenen arabera, 12 urte baino gutxiagoko etorkizunean egingo badira (33. art.).

Halako denbora mugak ohikoak dira hirigintza eta errepideen legerian, eta horien bidez administrazioen baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra lortu nahi da, etorkizunean lurraren desjabetzearen balioa gehitzea ekarriko duten esku-hartzeak legez finkatu ahal izatea saihesteko, denboran urrutira joan barik –gutxienez errepide edo hirigintza planen egintzaren ikuspegitik- lur sail horiek edo zati bat behintzat hartu beharko direla aurreikusita dagoenean.

• Emaitza

Ukituari jakinarazi zitzaion Herri Lan eta Garraio Saila indarreko legeriari doitu zitzaiola.

## D) Kontratazio, ondare eta administrazio erantzukizunaren araubidea

⇒ *Administrazioaren erantzukizuna foru errepide batean jausitako zuhaitz batek eragindako kalteengatik* (1456/2001)

• Erreklamazioa

Pertsona batek, gure irizpena emateko, Arabako Foru Aldundiaren Herri Lan eta Hirigintza Sailak ondarezko erantzukizun baten erreklamazioa ezetsi izana aurkeztu zigun. Erreklamaziogileak automobilean kalteak jasan zituen, foru errepide batetik zihoala galtzadaren gainean eroritako zuhaitz batekin talka egitean.

• Azterketa

Sail horri erreklamaziogilearen asmoa ezesteko jarraitutako arrazoibide juridikoen berri emateko eskatu genion. Erantzunean, Aldundiak zioen kaltea hartu izana hirugarren

baten arretarik eza izan zela –istripua eragin zuen zuhaitzaren jabea-. zuhaitz hura ez baitzen foru errepidearen inolako elementuren osagai.

Bidali ziguten txostena ikusi ondoren, foru erakundeari erantzun horren inguruko hainbat ohar egin genizkion. Hartara, ondare erantzukizunaren oinarriak dio herritarrek merezi duten kalte ordaina jaso behar dutela herri zerbitzu baten funtzionamenduak kalterik eragiten dienean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 139. artikuluak dioenarengatik.

Kasu honetan, erreklamaziogileak zioen hori egozteko Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko errepideen araubide juridikoari buruz dituen ahalmenen gauzatzera jo zuela eta, zehazki, foru errepideak segurtasunerako baldintza egokietan mantentzeko zerbitzuaren prestazioa ondo bete behar zutela. Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren arabera, errepideekin mugan dauden lurren jabeek arauak aurreikusten dituen babes eremuei ukitzen dieten landareak segurtasun baldintzetan mantendu behar dituzte. Baldintza horiek betetzen ez badira, Aldundiak –arauaren 57. artikuluaren arabera-jabeari baldintza horiek betetzeko aginduzko deia luzatu behar dio *“bestela subsidiarioki egin eta jabearen kargu eta kontura egingo direla ohartaraziz”*. Era berean, 66. artikuluak dio, segurtasun zioengatik, hirugarrenek Arabako errepideei eragindako kalteak berehala konpondu behar direla, horren kalte ordainik eskatzearen kalterik gabe. Horretarako ahalmenez baliatuta, bideetan oztoporik ez izateko neurriak hartu behar zituen, automobilak ondo ibiltzea eragozten zuen gure kasu honetako zuhaitzik ere egoteko, esaterako.

Halako kontuetan sartuta, kaltearen zioa Administrazioak esku hartu ez izana zen ala beste ezerk egotz ziezaiokeen argitzeko jarraitutako administrazio espedientean kontuan izan beharreko hainbat gauza zegoela esan genuen. Hartara, errepidean zegoen zuhaitza kaltea gertatu aurreko egunetan hautsi zen, azpitik. Foru Aldundiko kontserbazio eta ustiapen zerbitzuko kontrolgileak ikusi zuen eta mendizainari jabeari arrisku egoeraz ohartarazteko esan zio. Ondoren, kontrolgileak berriro eman zuen arriskuaren berri, zuhaitza errepiderantz jausten hasia zelako, eta *“berehala kendu beharra dago”* adierazi zuen, gainera. Ez dago inolako administrazioaren jardueraren berririk harik eta zuhaitza errepidearen gainera jausi eta kalteak eragin zituen arte.

Garbi dago zuhaitzaren jabea dela segurtasun baldintzetan mantendu behar duena baina, bide segurtasuneko arriskurik dagoenean, Administrazioa da zirkulazioa bermatzeko neurri egokiak hartu behar dituena. Beraz, Administrazioari errepideen kontserbazio eta mantentze zerbitzuetan eta alteratutako segurtasun baldintzak lehengoratzean ez jardun izana leporatzen zitzaion, arrisku iturria ezabatu edo zirkulaziorako trabazko ingurumariak seinalatu ez zituelako. Trabazko ingurumaria horiei ñabardurak egiten zaizkie arrisku faktorea sartzen duen hirugarrenaren esku hartzea dagoenean, baina Administrazioak berari herri zerbitzuaren prestazioak exijitzekoa zaion bezala jardun duela behar bezala frogatzen badu soilik.

Ondorioz, foru Administrazioa erreklamaziogileari eragindako kalteen erantzulea zen, errepidea foru titularitatekoa zelako eta, espedientearen izapideetan, eroritako zuhaitza bidetik kentzeko orduan prestutasunik gabe jokatu zuela agerian geratu zelako.

• Emaitza

Ohartarazpen hauek jaso ondoren, Aldundiak jakinarazi zigun ebazpena berrikusi zuela eta kexa-gai izandako erreklamazioa onetsi zuela. Guk, orduan, gai honetako gure esku-hartzea eten egin genuen.

## E) **Udal zerbitzu publikoak**

⇒ *Bidea gordetzeko lizentzia ukatzea* (183/2002)

• Erreklamazioa

Getxoko emakume bat erakunde honi kexa idatzi bat aurkeztu zion, non Getxoko Udalak bidea gordetzeko eskaria ukatu ziolako ados ez zegoela baitzioen.

Kexarekin batera aurkeztu zuen dokumentazioan agerian uzten zuen udalak ematen zion arrazoia, edo gutxienez 1994an eskariari baiezkorik ez erantzuteko alegatu zuena, pertsona hori bizi zen tokian bertako jabeen erkidegoaren izenean bidea gordetzeko beste plaka baterako baimena emana zuela zen.

• Azterketa

Esandako etxe horretara joan eta ikusi genuen, patio pribatuaren barruan, azkenean, banako bi garajeren ateen gainean bidea gordetzeko bi plaka zeudela, biak udalak esandako zenbakidunak.

Bidea gordetzeko lizentzia automobilekin espaloi gainetik pasatu eta higiezin barrura sartzeko baimena da. Ondorioz, espaloiaren tarte zehatz horretan sartzeko jada udal baimen bat egoteak Getxoko Udalari toki bererako beste baimen bat ematea eragozten zion.

• Emaitza

Kexagileari jakinarazi genion Udalaren jarduera indarreko legeriari doitu zitzaiola.

## F) **Garraioak**

⇒ *Bidaian zeharreko gehigarriaren ordainketa* (1203/2001)

• Erreklamazioa

EuskoTrenen garraio zerbitzuaren erabiltzaile batek *bidaian zeharreko gehigarria* kobratzearekin ados ez zegoela adierazi zigun.

Bere defentsan, pertsona horrek zioen EuskoTrenen Gipuzkoako linea desberdinetan txartelak, ezinbestean, kaietan jarritako makinetan erosi behar zirela, geralekuetan ez dagoelako txartelik saltzen duen enpresa horretako langilerik. Andreak zioenez, makina horiek hondatu ohi ziren, baina gehienetan arazoa txanponak ezagutu edo bereizteko trabak izaten ziren, eta horren ondorioz trena galtzeko arriskua ere izaten zutela, txanponak aldatzera joan behar izanez gero, edo bestela trenera txartelik gabe sartuz gero, bidaian zeharreko gehigarria ordainarazteko arriskua.

• Azterketa

Lurrazaleko Garraioen Antolamenduko Legeak eta, gero, Lurrazaleko Garraioen Antolamenduko Legearen Arautegiak diote txartelik gabe edo bidaiaren ezaugarrietarako egokia edo nahikoa ez den txartelaz bidaiatzeagatik 5.000tik 86.000 pezetara bitarteko isuna jarriko dela (30,05 €tik 516,87 €ra bitartean). Beraz, gure legeriak bidaiaria garraiabidera aurretiaz egingo duen bidaia ordainduta sartzera behartzen du.

Zehatzeko administrazioaren eskubideari dagokionez, berehalako ordainketaren onura onartzen da, eta hori da, hain zuzen, *bidaian zeharreko* 750 pezetako *gehigarria*. Onura horren adibide dira trafiko arauak urratzean zehapen prozedurarekin aurrera ez egiteko ordaintzen diren zenbatekoak, hau da, TAO makinari unean bertan ordaintzen zaion kopurua, okerreko estazionamenduaren edo hasieran ordaindutakoa baino luzaroago estazionatzearen ondoriozko isuna saihesteko; gehiegizko abiadarengatiko isunak % 50 merkatzea...

750 pezetako kopuru horri dagokionez, trenean txartelik gabe doazen, aurretiaz ohartarazi gabe maila altuagoko klasera aldatzeagatik zein bidaia luzatzeagatik bidaiariei gutxienez kobratzekoa gehitzeko Lurralde Politika eta Garraio Sailaren 1983ko abenduaren 27ko Agindutik dator. Agindu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren 1984ko urtarrilaren 25eko 16. alean argitaratu zen, eta ordutik ez da zenbateko hori aldatu.

Egiaztatu genuenez, EuskoTren txartela ordaindu behar dela eta ez ordaintzearen balizko ondorioak zein diren ondo zabaltzen saiatu da. Horretarako, bagoietan argibideen kartelak jarri ditu, baita txartelak saltzeko makina askotan ere, txartelak ordaindu behar direla eta ez ordaintzearen ondorioak zeintzuk diren gogorazteko.

Logikoki, arestiko guztiak ez du EuskoTren erabiltzaileei bidaiak ordaintzeko orduan ahalik eta erraztasunik handiak eskaintzen saiatu beharretik libratzen.

Horregatik, EuskoTreni eskatu genion txarteldegietako gorabeheren kontrolaren eta makina horien erabilpenak planteatzen zituen arazoen berri emateko, hala zela baitzioten herritarrek.

Gai horien gainean, herri baltzuak bidaiariei hobarizko txartel desberdin ugari eskaintzen ziela azpimarratu zigun. Era berean, esan zuen, zenbait makinetan billeteekin ordaintzerik ez dagoen arren, denetan zegoela elektronikoki ordaintzeko aukera. Ordaintzeko modu horrek txanponik ez edukitzearen eta sartutako txanponak atzera botatzearen arazoak desagerrarazten ditu.

Azkenik, trenbide enpresak esan zigun txarteldegiak eurora moldatzeko prozesuari esker salmenta sisteman prestazio berriak eta hobekuntzak sartu ahal izatea azkartu ziela, legez erabilgarriak diren billeteak prozesatzeko ekipoak gehituta. Prozesadore horiek tren zerbitzuaren txarteldegi guztietan sartzekoak ziren 2002 urtean zehar.

• Emaitza

Indarreko legeria eta txarteldegiek eskaintzen dituzten ordaintzeko aukerak ikusita, erreklamaziogileari jakinarazi genion ezin geniola bidaia ez ordaintzearen errua zerbitzua ematen duen enpresaren urraketa bati egotzi.

# 11. OSASUNA

## 11.1. SARRERA

Alor honetan guztira 80 kexa jaso dira, eta ukitutako administrazioen arabera honelaxe banatu dira:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........... 62
- Foru Administrazioa ........................................................................ 1
- Udal Administrazioa ........................................................................ 9

Azpiataletako banaketaren arabera, honelaxe sailkatuko ditugu:

| | |
|---|---|
| Erabiltzaileen eskubideak | 31 |
| Herri osasuna | 20 |
| Osasun artapena | 13 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura. | 7 |
| Buru osasuna | 7 |
| Bese batzuk | 1 |
| Kontrataz., ondare eta admin. erantzukizun araubidea. | 1 |

Eragingarritasunaren hatsarreak berdin hartzen ditu herri administrazio guztiak, baina garrantzi handiagoa izan dezake prestazio eskubideetan, non baliabideen mugak gero eta eskari handiagoari erantzuteko antolamendua eta funtzionamendua ahalik eta egokienak izan daitezen saiatzera behartzen baitu.

Osasun garraio ez-laguntzazkoarekin zerikusia duten kexa batzuk ondo funtzionatzeak gaixoen artapenerako duen garrantziaren erakusgarri dira.

Esleipendun enpresek zerbitzu hori ematen zer baldintzatan ematen duten 2000 urtean ikuskatu zen, eta kalitate kontroleko parametroak ezarri ziren.

Parametro horiek, hain zuzen, kexak eragin dituzten zenbait ingurumariarekin duten zerikusia (atzerapenak programatu gabeko gaixoak hartzean, eta gaixoak zentroetara itundutako orduetan heltzean), eta itunetan sartzeak Administrazioak herri zerbitzu hau zer baldintzatan betetzen den jarraipena egin dezan balio behar du. Erakunde honen aurrean aurkeztutako kexak eta gaixoei aditzeko zerbitzuetan jarriko erreklamazioak behar diren jarraipen batzordeentzako iturri egokiak izan daitezke (Osakidetza, Osasun Saila, eta enpresa esleipenduna).

Eragingarritasunaren hatsarrea, koordinaketaren hatsarrearekin batera, garrantzitsuagoa da, izan badaiteke, gaixoen irismena prestazio horien antolaketa egokiaren mende egon daitekeeneko kasuen aurrean gaudenean. Prestazio guztiak osasun zentro guztietan ematea ezinezkoa denez, ez eta autonomia erkidegoak bere zerbitzuetan prestazio guztiak edukitzerik ere, hatsarre hauek zentro berezia hartzen dute hemen.

Lagundutako ugalketaren zerbitzuen antolaketa, irizpide homogeneoak ezartzea eskatzen duena, edo sexu aldaketarako kirurgia, interbentzio gradu batzuetan duen

konplexutasunak beste autonomia erkidego batzuetako osasun zerbitzuekin koordinatu beharra eskatzen duena, eragingarritasun eta lankidetza hatsarreekin bat datorren funtzionamendu batek prestazio horietara berdintasunez iristeaz ekar lezakeenaren erakusgarri dira. Iazko txostenean gai hauek aipatu genituen, eta aurten Osasun Sailarengana eta Osakidetzara jo dugu honen jarraipena egiteko.

Sexu aldaketari dagokionez, ikusi dugu –eta hala uste du Osasun Sailak- sexuarteko egoera patologikotzat zer ulertu behar den gehiago zehaztu behar dela, osasun prestazioen katalogoaren ondoreetarako. Oraindik ez zaio gai honi heldu Lurraldeen arteko Osasun Kontseiluan baina funtsezkoa da, bai sexuarteko egoera patologikotzat jo behar diren patologiak zehazteko (ez da disforia genetikorik onartzen), bai prestazio hau zer mailatan betetzat hartu behar den argitzeko, kirurgiak hainbat kasutan duen konplexutasunarengatik, esaterako, gizonezko itxurako kanpoko organo genitalak «eraikitzeko» orduan.

Antzutasunaren aurkako tratamenduen gainean, jakinarazi ziguten, jarduera irizpideei dagokienez, gaur egun *«in vitro»* ugalketako tekniketan adituak diren estatuko taldeak egindako eta Estatuko Osasun Sistemako sailetan onartutako gomendioei jarraitzen zaiela. Tratamenduko tekniken informazioaren osteko baiespenaren eta berariazko formulazioen dokumentuen gainean, Osakidetzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzak esan digu, Ugalkortasuneko Espainiar Elkarteak argitaratutako gomendioetatik abiatuta, irizpide erkideak hartzeko lanean ari direla.

Informazioaren tratamendu automatizatuak funtzionatzeko abantaila garbiak dakartza. Batetik, abantaila horiek onartuta, esan behar da herritarrek kautelak planteatzen dituztela beren eskubidetan izan litzaketen ondorioengatik, batez ere intimitate eskubidean.

Konstituzioak berak espresuki aipatzen du, 18.4 artikuluan, datu pertsonalen tratamenduan informatikaren erabilpena mugatu behar dela. Ondorioz, gure jarduera, bai GIB kutsadura berrien informazio sisteman, bai Osabide aplikazioarenean, Osakidetza eta Osasun Sailak antolamenduak datu pertsonalak osasun esparruan babesteko aurreikusten dituen arauak bete dituzten egiaztatzera bideratu dira, alor honetako kexen laburpenean jasotzen den moduan.

Buru osasunaren atalean, buruko gaixotasunaren erkidegoko artapenaren gaineko Txostenaren jarraipena egin dugu, txosten honetako I. kapituluaren barruan, ez-ohiko txostenen jarraipeneko jardueren artean jasotzen dena.

Gaixoaren borondatezkoa ez den buruko gaixoen osasun laguntza espresuki aurreikusita dago, eta ez du arazorik sortzen ospitale batean sartzea dakarrenean. Neurri hau fakultatiboaren iritzian oinarrituta dago, aurretiazko zein ondorengo esku-hartze judizialarekin.

Borondatezkoak ez diren beste tratamendu alternatibo batzuen aplikazioa, ordea, fakultatiboaren aldeko iritzia izanik eta, izan ere, ondorengo barnerapenak saihets litzaketenak izanik, konplexuak eta eztabaidatuak dira beren aplikazioan, eta ez dute beti gaixoaren borondatearen aurkako edozein aukera ezartzeko behar izaten den organo judizialen babesik izaten.

Buruko osasun zerbitzuek gaixoentzako tratamendu anbulatorioen bidez esku hartzea komeni dela planteatzen dute, tratamendu horiek ondoren berriz ospitaleratzea saihestuko duten birgaitzeko irismena izan dezaketenean.

## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Osasun artapena

⇒ *Praktika klinikorako gomendioek ez zuten interbentzio kirurgikorik aholkatzen* (571/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona batek bere desadostasuna agertu zigun mediku espezialistak jakinarazitako erabakiarekin, hau da, kirurgia bariatrikoko ebakuntza bat egingo ez ziolako erabakiarekin.

Pertsona horrek gizentasun morbidoa zeukan, eta horri lotutako hainbat osasun arazo ere bai. Artatzen zuten ospitalean, hasieran, ebakuntza hori egitea pentsatu zuten, eta ebakuntza aurreko zenbait froga egin zioten. Baina kasua zentroko Gizentasun Morbidoko Batzordera heldu zenean, programan ez onartzea erabaki zuten, interesatuak –62 urte- gomendatutako gehienezko adina –55 urte- gainditzen zuelako.

• Azterketa

Osakidetzak kirurgia bariatrikoa programa berezi baten barruan egiten du, halako ebakuntzen ezaugarri bitxiengatik. 2001 urtean, Osakidetzak gaiko aditu talde batek kirurgia bariatrikoaren praktika klinikorako egindako gomendioak onartu zituen. Horrekin jarduera hau garatzen den zentroetan jarduera hori berdindu nahi da, eta behar diren kalitate eta segurtasun bermeekin egin ere bai.

Gomendio horietan, besteak beste, prozesu osoan zeharreko jarduera medikorako protokoloa ezartzen da, eta gaixoek izan beharreko ezaugarriak zehazten dira –horien artean, gehienezko adina -. Esaten da, era berean, litezkeen zalantzak ospitale bakoitzeko Kirurgia Bariatrikoko Batzordean ebaluatuko direla.

Kasu honetan, ikusi genuen gaixoaren adina hasieratik ezagutzen zen datua zela. Horregatik, Osakidetzarengana jo genuen batzordeak gai hura nola baloratu zuen jakiteko, ea ezarritako protokoloari jarraitu zioten argitzeko.

Erantzunean esan ziguten, ebakuntza aurreko frogak egin ondoren, batzordeak kasu zehatza osotasunean baloratu zuela. Adinaren kasuan, esan ziguten elementu hori ez dela bera bakarrik baloratzen, gaixoaren egoera orokorraren gaineko beste datu askorekin, ebakuntzaren arriskuarekin eta ateratzea espero den onurarekin lotuta baizik. Banako ebaluazio honetan, taldeak erabaki zuen gaixoa ez zela kirurgia bariatrikoa behar besteko kalitate eta segurtasun bermeekin egiteko egokia.

• Emaitza

Gaixoari ebakuntzarik ez egiteko erabakia organo kolegiatu batek, gaian adituak ziren profesional ugariko taldeak osatutakoak hartu zuen, eta irizpide tekniko eta medikoetan oinarrituta zegoen. Ez zen, beraz, erabaki arbitrarioa. Horregatik, erakunde honek besterik egiterik ez zuela pentsatu genuen.

Interesatuari guztiaren berri eman genion eta espedientea artxibatu egin zen.

⇒ *Atzerapena froga mediko baten emaitzaren berri ematean* (580/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona bati eskaner froga bat egin behar zioten, mediku espezialistak esanda. Horretarako, hitzordua eman zioten eta beste egun bat finkatu zuten frogaren emaitza jakinarazteko. Bi daten artean bost hilabete zegoen. Hainbeste denbora itxaron beharrari gehiegizko iritzi zion interesatuak eta guregana jo zuen.

• Azterketa

Gaixoaren informaziorako eskubideaz ari ginen, eta ganorazko epeetan egin behar zen. Horregatik, kasua Osakidetzari planteatu genion.

• Emaitza

Osakidetzak informaziorako finkatutako eguna aldatu zuen, eta froga egin eta hamabost egun beranduagorako hitzordua eman zioten. Horrela konpondu zen arazoa.

Horrela, halaber, Osakidetzako erakunde batean ezarritakoa betetzen zen, artapen espezializatuko kanpoko kontsultei zegokienez, zeren esaten baitu froga edo azterketa osagarriak baloratzeko kontsultak ez direla kontsulta arruntak beste berandutu behar.

B) **Erabiltzaileen eskubideak**

⇒ *GIB kutsadura berrien informazio sistema* (52/1998OF)

• Erreklamazioa

Hainbat elkartek Arartekoarengana jo zuten, GIB kutsadura berrien erregistroak intimitate eskubidea urra zezakeelakoan. Zehazki, desadostasunak erregistroko datuek pertsona identifikatzeko balioko duten ala ez gaiaren inguruan ziren.

• Azterketa

Aztertzeko aurkeztu zen erregistro sistema bezalakoa abian jartzeko kautelak duela urte batzuk ere azaleratu ziren. Azkenean, Osasun Sailak eta hainbat elkartek 2002an erregistroaren edukiaren gaineko akordioa iritsi zuten. Bi elkartek ez zuten akordio hura sinatu, eta beren desadostasuna adierazi zuten.

Akordioaren arabera, erregistro sistemak lehenengo eta bigarren abizenen lehenengo letren erreferentziak jasoko ditu, bikoizketarik izatea saihestuko duten baina GIBek kutsatuta daudelako diagnostikoko pertsonak banaka ezagutzeko aukerarik emango ez duten beste identifikagarri batzuekin batera. Eduki hori ikusita, ez genuen erregistratutako pertsonak identifikatzerik egon litekeen zantzurik sumatu, beraz, ez zen datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak datu pertsonalen fitxategietarako ezartzen dituen segurtasun neurrien mende geratzen.

Ados ez zeuden elkarteen ustez, erregistroa, beharrezkoa ez izateaz gain, aurreko datuen gainean hasten zen (1997ko urtarrila). Alegazio honen arabera, akordioak norbanakoen eskubideak urratzen zituen, zeren GIBdunak zirela beren medikuari, beren historia klinikora sartzeko, uste onez aitortu zioten pertsonek akordioaren ingurumariez

bestelakoetan egin zuten, eta orduko ingurumariak oraingo hauek izan balira, agian pertsona haiek ez zuketen datu hura emango.

Alegazioa aztertu ondoren, ondorioztatu genuen informazio sistema berria sortzeko baldintzek ez zietela norbanakoen eskubideei ukitzen, hain zuzen sistema horrek ez zituelako erregistratutako pertsonak identifikatzea ahalbidetzen zuten datuak biltzen, eta ez zuelako, beraz, kutsadura berrien erregistroko datuen eta norbanakoen historia klinikoaren arteko loturarik ezartzeko aukerarik ematen. Horren ildotik, datu pertsonalen isilekotasuna ez zen informazio sistema berri hau sortzean alteratzen.

Arestikoarekin batera, baloratu genuen GIB kutsadura berrien informazio sistemaren iturria historia klinikoan jasotako datu pertsonalak zirela.

Hori kontuan izanik, Osasun Sailari gogorarazi genion datu pertsonal bat (historia klinikoan) pertsonala ez den datu bihurtzeko (GIB informazio sistema) erabiltzaile gisa sartzeko baimena daukan osasun profesionalak soilik esku har dezakeela, eta baimen hori historia klinikoen fitxategiari aplikagarriak diren segurtasun arauei jarraituz eman behar dela, kutsadura horrekin zerikusia duten datu pertsonalen babesa sendotzen ahaleginduz, gainera.

• Emaitza

Osasun Sailari, eta akordioa sinatu zuten elkarteei eta akordioari atxiki ez zitzaizkion elkarteei gure balorazioaren berri eman genien.

Gerora, akordioa sinatu zuen elkarte batek Osabide sistemak horretan izan zezakeen eraginaren inguruko bere zalantzak planteatu zituen. Kontu hori alor honetako laburpenean sartuta dagoen 425/2002 espedientean esaten den moduan aztertu zen.

⇒ *Osasun zerbitzuen gaineko informazioa; irismena administrazioaren erantzukizunean* (46/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona bat osasuneko herri zerbitzuan zegokion zentroan artatzen ari ziren. Bere gaixotasuneko berezko ingurumarietan, jasotzen ari zen tratamendua nahikoa izango ez zelako eta beste bat aplikatzea komeni zitzaiolako zalantza sortu zitzaien.

Tratamendu berria hartzeko, zentro pribatu batera joan zen, eta han egin zioten txostenarekin, herri osasuneko sistemako bere zentrora itzuli zen, medikuari beste zentroan eskaintzen zioten tratamendua zein zen azaltzera. Medikuak esan zion proposatutako tratamendua, bere iritziz, egokia zela, baina herri sistemako zentro hartan ez zeudela burutzeko gaituta.

Ingurumaria horietan, eta bere gaixotasun larriaren bilakaera kontuan hartuta, gaixoak zentro pribatura jotzea erabaki zuen, aurretiaz horretarako baimenik lortu gabe. Hala ere, ondoren gastuak ordain ziezazkioten eskatu zuen.

• Azterketa

Printzipioz, ez ziren herri sistemaz kanpoko zentro bateko artapenarengatik izandako gastuak itzultzea eskatzeko baldintzak betetzen. Ez zuen aurretiazko baimenik

eskatu eta eztabaidagarria zen kasu hura hil ala biziko premiazkotzat jo zitekeen ala ez.

Baziren, ordea, gastuak itzultzeko eskaria ebazteko funtsezkoak izan zitezkeen hainbat alderdi.

Datu horiek aztertzeak ondoko gaiak argitu behar zituen: zentro pribatuko tratamendua eragingarria zen ala ez, eta osasuneko herri sisteman eskueran zegoen tratamendua zen ala ez –funtsezko kontua gastuak itzultzeko espediente baten ikuspegitik–. Bi datu horiek beraiek bezain funtsezkoa zen beste batekin lotu behar ziren: zentro pribatuan tratamenduarekin hasi baino lehen, gaixoa zegokion osasuneko herri zentrora itzuli zela kasua berriro azaltzeko.

Balorazio horretatik abiatuta, Osasun Sailera jo genuen, esandako kontu horiek argitzeko espedientearen berrikuspena abia zezan.

Planteamendu hori egitean, ez genuen oharkabean igarotzen utzi gaixoak ez ziola aurretiaz osasun administrazioari baimenik eskatu. Hori garrantzitsua zen, baina ematen ziren beste datu batzuk ere hala ziren (tratamenduaren eragingarritasuna, herri sisteman eskueran zegoen, eta abar), eta horiek argitzeko eskatu genuen, hain zuzen, espedientea berrikustea.

• Emaitza

Osasun Sailak espedientea berrikusteko eskaria onetsi zuen, eta horren ondorioz arestian kontuan hartu ez ziren datuak edo elementuak gehitu zitzaizkion.

Horri esker, osasun Administrazioak kexa eragin zuen ukapen ebazpena berrikusi zuen. Behin osasun sailak interesatuari berrikuspen horren berri eman zionean, guk geure jarduera eten egin genuen.

### ⇒ *Gaixoen datuen tratamendu automatizatua: Osabide* (425/2002)

• Erreklamazioa

Kexa bat aurkeztu zen Osakidetzan gaixoen datuen tratamendurako sistema bat, Osabide izenekoa ezarri zela-eta. Planteatzen zen tratamendu automatizatuak, modu zentralizatuan egitean, gaixoen datuen isilekotasuna urratzen zuela.

• Azterketa

Konstituzioa espresuki mintzatzen da, 18.4 artikuluan, informatikaren erabilpenaz datu pertsonalen tratamenduan, datu horiek ohoreari eta intimitateari uki liezaioketelakoan.

Aurreikuspen horretatik ez da ondorioztatzen informatika datu pertsonalen tratamendurako erabiltzea debekatuta dagoenik, baina bai erabilpen horretan nolabaiteko muga dagoela. Hori gogoan izanik, guk Osabide informazio sistemak antolamenduak historia klinikoen fitxategiek, intimitatea errespetatuz, beren xedea bete dezaten ezartzen dituen baldintzak zeuzkan ala ez egiaztatu nahi izan genuen.

Horretarako, Osakidetzari informazioa eskatu genion, 994/1999 Errege Dekretuak segurtasun maila altuko datuen fitxategietarako ezarritako neurriak betetzearen gainean.

Segurtasuneko neurri teknikoei lotutako kontuez gain, baziren izaera juridikoagoko beste gai batzuk ere. Zehazki, gaixoen baimenak zenbaterainokoa izan behar zuen bere datuen tratamendu automatizaturako, eta tratamendu horren gaineko informazioa eman ziezaieten beren eskubiderako.

*a) Baimena.* Analisian historia klinikoaren xedea eta inplikatutako aldeetako bati soilik (mediku zein gaixo) eskueran izateko edozein eskumen esleitzeko ondoriozko zailtasuna eduki behar dira kontuan. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak kontuan hartzen du datuen tratamenduarekin gaixoen osasun artapenerako lortu nahi den helburua eta, horretan oinarrituz, zenbait kasutan datu pertsonaletarako oro har ezartzen duen aurretiazko baimenaren hatsarrea salbuesten du. Ondorio horretara heltzen gara 15/1999 Lege Organikoaren 6.2. artikuluak –7.6 artikuluarekin lotuta- xedatzen duena ikustean, non 95/46/CEE Jarraibidearen lerroari jarraitzen zaion, eta Datu Medikuak Babesteko otsailaren 13ko Europar Kontseiluaren 5. Gomendioarekin (97) bat datorrena.

Ondorioz, zenbait ingurumarietan justifikatuta dago ukitutakoaren baimena beharrezkoa ez izatea.

Hala ere, legeak ez du baztertzen zenbait egoeratan gaixoak alor jakin bat bere historia klinikora sar dadin baldintzak jarri ahal izatea. Ez-ohiko egoerak dira, Lege Organikoak 6.4 artikuluan hizpide dituenak, eta banan-banan aztertu behar direnak.

*b) Informazioa.* Printzipioz baimenik behar izan bada, gaixoei datuen tratamenduaren berri eman behar izatea antzua dela pentsa daiteke.

Baina informazioa jasotzeko eskubidea ez dago beti baimenari lotuta, eta ez da indargabetzen interesatuak tratamendu automatizaturako baimena ukatzeko eskumenik ez izateagatik. Informazioa jasotzeko eskubidea eskubide instrumentala da, baimenaz bestelako agerpenak izan litzakeena (datuen berri eduki ahal izatea, zuzentzea eta ezabatzea).

• Emaitza

Osakidetzak maila altuko segurtasun neurrien gaineko gure galderei emandako erantzunean zioen 944/1999 Errege Dekretuan ezarritako atalak betetzen zirela. Aurreikuspenok betetzen direla ulertuta, azpimarratu genuen ondorio hori antzua izan daitekeela, gogoan izan ezean neurri teknikoak bezain garrantzitsua dela jarduera honetan esku hartzen duten eragileak erabiltzen diren datuak nolakoak diren gainean jabetzea.

Baimenari dagokionez, aipatutako erakundeari esan genion beharrezkoa ez zen arren, Lege Organikoaren 6.4 artikuluan aurreikusitako egoeretarako prozedura bat aurreikusi behar zutela. Hara zein dioen artikulu horrek: *"4. Datu pertsonalen tratamendurako ukituaren baimenik behar ez den kasuetan, eta betiere lege batek aurkakorik xedatu ezean, ukituak tratamendu horren aurka azaldu ahal izango du egoera pertsonal zehatzaren gaineko zio oinarritu eta zilegirik dagoenean. Halakoetan, fitxategiaren arduradunak ukituari buruzko datuak tratamendutik kanpo utziko ditu".*

Informazioaren gainean, gure analisiaren ondoriozko balorazioa Osakidetzari jakinarazi genion, eta Osakidetzak gaixoei beren datuen tratamenduaren berri emateko aurreikusitako neurriak jakinarazi zizkigun.

Azkenik, Osabide programan laguntzeko kanpoko enpresarik balego, enpresa horiek 994/1999 Errege Dekretuak datu pertsonalak erabiltzen zituztenentzat exijitzen zituen ikuskaritzak egiten zituzten egiaztatzeko iradoki genien.

## C) **Buru osasuna**

⇒ *Nahitaezko tratamendua edo barnerapena: betekizunak* (189/2002)

• Erreklamazioa

Arazo psikiatrikoak zituen pertsona baten gurasoek SOS Deiak-era deitu zuten, zentro psikiatriko batera eraman zezaten eskatzeko. Deiari erantzuteko Ertzaintza joan zitzaien, eta esan zieten epailearen agindurik edo medikuaren gomendiorik gabe ezin zutela pertsona bat bere borondatearen aurka zentro psikiatriko batera eraman. Azkenean, gurasoek semea konbentzitu zuten familia medikuarengana joateko, eta medikuak txostena egin zion psikiatriako larrialdietara joan zedin.

Gaixoa anbulantzian eraman zuten ospitalera, Ertzaintzak lagunduta, eta Ertzaintzak alde egin zuen psikiatra batek ikus zezan itxaron gabe. Gurasoak heldu zirenerako, gaixoa ospitaletik alde egina zegoen, psikiatrak ikusi gabe.

Kexak zioen ospitalera alferrik eraman zutela, ez zutela zuzen jokatu, semea inork artatu arte atxiki ez zutelako.

Ospitaleak gurasoei esan zien *"segurtasuneko langilea bertaratu eta Ertzaintza jada ez zegoenez, haien semeak atxilotuta zegoen galdetu zuela. Atxilotuta ez zegoela erantzun ziotenean, alde egin nahi zuela esan zuen, eta joan egin zen"*. Erantzunak gehitzen zuen, epailearen agindurik ez zegoenez, segurtasuneko langileak ezin zuela han atxiki.

• Azterketa

Osakidetzak gure informazio eskariari erantzuteko egindako txostenean zioen *"gaixo bat Ertzaintzarekin datorrenean –epailearen aginduz edo agindurik gabe-, Ertzaintza fakultatiboak gaixoa baloratu arte itxaroten duela"*.

Garbi dago epailearen agindu batekin, edo medikuaren aginduz eta ondorioz epaileari jakinarazita soilik har daitekeela gaixoaren borondatearen aurkako neurririk, tratamendu zein barnerapenezkoa. Halatan, falta edo deliturik egin ez bada, ez dago inolako salbuespenik baldintza horietarako, segurtasuneko langile batek barik gaixoa Ertzain batek atxikitzeagatik.

Horregatik, gomendagarria zatekeen ertzainak ospitalean geratzea, baina aurretiaz gaixoaren borondatearen aurkako tratamendu edo barnerapenerako adierazpenik ez zegoenez, gaixoak alde egin nahi bazuen, bertan atxikitzeak zukeen justifikaziorik izango.

Aztertu genituen aurrekariek pentsarazten digute izatezko zaintzak (ez nahitaezko atxikipenak), gaixoa psikiatrak ikusi arte ospitalean gera zedin lagun zezakeela. Baina horrelako zaintza (ez beharrezkoa) baten kasuan, segurtasuneko langileak ere zain zezakeela pentsa daiteke.

Bestalde, arestiko guztiarekin batera, iruditu zitzaigun bazegoela beste faktore bat, gurasoei zenbateraino irits zitekeen argitu ez zitzaiena. Baliteke gurasoek, semea zentro psikiatriko batean sartzeko mediku baten iritzia behar zutela ohartarazi zietenean, familia medikuaren txostena nahikoa izatea pentsatzea.

• Emaitza

Gurasoei gure analisiaren emaitza eta Osakidetzari helarazitako balorazioa jakinarazi genizkien. Hara zer zioten, funtsean:

a) Borondatez kontrako tratamendurako arrazoi medikorik egon gabe ezin zitekeen esan gaixoa atxikitzen saiatu ez zenak oker jokatu zuenik.
b) Osakidetzak gurasoei eman zien informazioa ez zen nahikoa izan, zeren ez batzen inon ageri, semearen borondatearen aurkako barnerapen edo tratamenduaren ondoreetarako, familia medikuaren txostenak zenbateraino balio zuen argitu zitzaienik.
c) Ertzainen jarduera halakoetarako jarduera protokoloa izan behar denari egokitu ez bazitzaion, berriro halakorik gerta ez dadin behar diren neurriak hartu beharko lirateke.

# 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

## 12.1. SARRERA

2002an zehar, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren alorraren barruan 12 kexa aztertu dira. Ararteko erakundeak aurten egindako lan guztiaren multzoaren aldean gutxi direla eman dezakeen arren, alor honek daukan eragina baloratzeko orduan, kontuan izan behar da, batetik, Ararteko erakundearen eginkizuna herritarrak agintaritza eta boterearen aldetik egiten diren gehiegikerietatik eta euskal autonomia erkidegoko herri administrazioen axolagabekerietatik ere babestea dela eta, bestetik, Lan eta Gizarte Segurantzaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparrua txikia dela.

Horregatik, gizarte segurantzaren gaietako auzien zein arazoen gaineko kexak Estatutuko Arartekoari bidaltzen zaizkio, parlamentuaren mandatari horri baitagokio Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduerak aztertzea.

Gainerako kexak, hau da, lanaren gaiari ukitzen diotenak eta euskal herri administrazioen jarduera edo omisioak hizpide dituztenak, gure erakundeak aztertzen ditu.

Kexa hauen edukiak oso desberdinak dira, baina herritarrak segurtasunarengatik eta laneko arriskuen prebentzioarengatik gero eta kezkatuago ageri direla nabarmentzen da. Hartara, 2002 urtean zehar, langile partikularrek eta sindikatuek arazo horrek sortzen dien kezka jakinarazi digute, gure Autonomia Erkidegoan metroaren 2. linea edo Ansioko erakustazoka berria bezalako obra eta azpiegitura handien eraikuntzari ez eze, itxuraz seguruak eman dezaketen beste lanbide batzuetako eguneroko jardunari ere dagokionak. Horren harira, elkarte batek latex naturalak sortzen dituen alergien arazoa eta horretarako neurririk hartzen ez dela planteatu zuen. Gaia aztertu ondoren, jakin genuen Estatuko Osasun Sistemaren Lurraldeen arteko Kontseiluak 2000 urtean jarduera protokolo bat onartu zuela eta, ondoren, Osalanek ere protokolo bat zehaztu zuela, laneko osasun eta prebentzio zerbitzuetara helarazi zena.

Elkarren aurkako eskubideak eta interesak bateratzeak, esaterako, greba eskubideaz baliatzeak eta herri titularitateko zentroetan adineko pertsonen artapenaren kalitatea mantentzeak, gatazkak sor ditzakete, eta halako auzi batzuen irizpena eskatu izan zaio Arartekoari (begiratu 923/2000 kexaren laburpena).

Era berean, lan harremanen esparruan, emakumeen talde batek Arartekoarenean generoarengatik jasandako berariazko balizko tratua salatu zuen. Emakume haiek azaldu zuten, lan egiten zuteneko enpresak hasitako lan harremanak eteteko prozesuak nabarmenago astintzen zituela emakumeak, eta bereziki seme-alabak zeuzkatenak edo haurdun zeudenak (ikusi emakumeen arazoen berariazko artapenaren atala).

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak laneko eta familiako bizitzak uztartzeko diseinatutako neurriei buruzko iritziak ere adierazi dizkigute herritarrek (177/2002 Dekretua, uztailaren 16koa). Hartara, kexa ugari jaso ditugu dekretuaren aplikazioaren esparrua dela-eta, zeren bertan jasotzen diren sostengu neurriak, 2002ko abuztuaren 13tik aurrerako seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburpenei soilik aplikatzen zaizkielako, hau da, dekretua indarrean jarri zenetik aurreko egoerei, eta egun hori baino lehenago hasitakoak estaldurarik gabe geratzen direlako.

Dekretu honetan ondo ikusten ez den beste alderdi bat da gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino diru pizgarri handiagoa jarri izana. Justizia, Enplegu eta Gizarte

Segurantzako Sailak erabaki hori gure gizartean bereizketa positiboko neurriak sartu beharrean txertatu du, gizonezkoak seme-alaben artapenean gehiago inplika daitezen sustatzera begira. Gure iritziz, formula honek balio lezake, bai, baina lortu nahi den emaitza lortzearen baldintzapean jarri behar da, bi gurasoak elkarrekin bizi diren kasuetan. Ez dauka zentzurik, ordea, guraso bakarreko familien esparruan, non familiaren zamak aitaren eta amaren artean modu orekatuan banatzea lortzeko asmoak ez baita lekurik. Halako familietan justifikaziorik gabeko bereizkeria gertatzen da, familia burua gizonezkoa ala emakumezkoa den arabera.

## 12.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Beste alderdi batzuk**

⇒ *Lanpostuaren finantzaketa: ekonomia sozialeko enpresetara sartzeko laguntzak* (352/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona talde batek, enpresa batetik zetozen eta beste batera (kooperatiba bat) sartu ziren langileak, kexa bat aurkeztu zuten bere garaian Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako gaur egungo Sailaren aurrean aurkeztu zituzten dirulaguntzen eskariak ezetsi zizkietelako.

• Azterketa

Kexa jarri zutenak oraingo enpresara bazkide modura sartu ziren, eta horretarako diru ekarpenak egin zituzten. Aldaketa hori zuzenean gauzatu zen, jarraipeneko soluziorik gabe, jatorrizko sozietatetik.

Laguntzen eskariak 2001eko apirilaren 4ko Agindua zela-eta aurkeztu ziren (25eko EHAO), zeinek bazkideak ekonomia sozialeko enpresetara sartzeko laguntzak araupetzen dituen 2000ko uztailaren 12ko Aginduan (20ko EHAO) aurreikusitako epeak 2001 urterako moldatzen zituen.

Legezkotasun zorrotzaren ikuspegitik, ez zen erabakitakoaren aurkako eragozpenik ikusten; ezespenen ebazpenak aipatutako araudia aplikatzera mugatzen ziren, non, besteak beste, laguntza horiei eusteko betekizunen artean, kooperatiba edo lan sozietatean sartu baino lehen langabe gisa izena emanda egotea exijitzen baitzen.

Baldintza hori betetzen ez zenez, haien eskaria atzera bota zen. Horren harira, ezin zitzaion ezer okerrik leporatu laguntzak ez emateko erabakiari.

Hala ere, azaldu zizkiguten argudioak –eskariak bideratzerakoan jada helarazitakoen berdinak-, eta laguntzen beren oinarriak ikusita, gaiaren hasierako azterketak hainbat gogoeta egitera eman gintuzten. Hona hemen, laburbilduta.

Ez genion gehiegizko irizten laguntza deialdi horien funtsezko xedeetako bat, laguntzen abiapuntua ekonomia soziala sustatzeko legebiltzarraren agindua izanik, halako enpresa batera (kooperatiba edo lan sozietatea) bazkide gisa sartzearen kostea diruz laguntzea zela esatea; hau da, lanpostuaren finantzaketa gisa ere ezagutzen dena.

Baiespen horren froga 2000ko Aginduak berak, emandako diru laguntza onuradunak harpidetutako kapitalak inoiz ez duela gaindituko dioenean, jartzen duen

muga da. Horren gainean, ez zen zalantzan jartzen eskatzaileek izatez dirua jarri izana.

Aldi berean, enplegu eskatzailea izateko baldintza betetzat joko litzateke langabe gisa egun bakar batez agertze hutsarekin, eta langabe gisa izena emanda egondako denborak garrantzi berezia izango luke diru laguntzaren zenbatekoa finkatzeko orduan. Horregatik, alegazioetan ziotenez, baldintza hori egiazta zatekeen kontratuak eten izan balira.

Ohartarazpen horiek oharkabean igaro zirenez, edo gogoan izan arren jaramonik egiterik merezi izan ez zutenez, komenigarri iritzi gehion aipatutako sail horrengana jotzeari, informazio eske, gaiaren berri eman ziezagun eta bere iritzia adieraz ziezagun, ea gutxienez etorkizunean hori kontuan hartzeko prest egongo ziren argitzeko.

Erantzunean, sail horrek, hasteko, eskariak ez onartzeko erabakiak justifikatzen dituzten argudio ezagunak aipatu zituen, legezkotasunaren hatsarreari doitzen zaizkionez, ezer leporatzerik ez daukaten argudioak, hain zuzen.

Interesgarriagoa da txostenaren amaieran dioena eta, jakin dezazuen, jarraian idatzi duguna: "*…Hala ere, eta berariazko suposamendu gisa, langabezian izena ematearen irizpide orokorra mantenduz, argitara daitezen hurrengo deialdietarako, deialdiaren unean beste enpresa batzuetatik datozen langileekin zer egin aztertuko da, deialdiaren oinarrietan langile horiek onuradun gisa agertu ahal izateko, beraientzat ezarritako baldintzak betez eta horretarako ezar daitezen zenbatekoetan …*".

Puntu honetara helduta, eta geneuzkan elementuak ikusita, esku-hartzen jarraitzeko gure ahalbideak agortu zirela iruditu zitzaigun.

• Emaitza

Erreklamazioa aurkeztu zigutenei egin genuenaren berri eman ondoren, gure jarduera eten egin genuen.

## B) **Lana**

⇒ *Gizarte zerbitzu baten funtzionamendua greba batean* (923/2002)

• Erreklamazioa

Greba bat zahar egoitza bateko adineko pertsonen artapenean izaten ari zen ondorioei buruzko kexa bat jaso genuen. Gutxieneko zerbitzuei gutxiegi irizten zitzaien.

• Azterketa

Jokoan zeuden eskubideen ikuspegitik –egoitzan bizi diren adineko pertsonek ondo zain ditzaten duten eskubidea, eta langileena, grebarako eskubideez baliatzeko- batak eta besteak ezin dute bestea indargabetu, edukiz husteraino. Funtsezko zerbitzuen ezarpena da legeak bi eskubideen ariketa orekatzen saiatzeko aurreikusten duen bitartekoa.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak eman zigun informazioari esker, jakin ahal izan genuen hasierako zerbitzu batzuk finkatu zirela, baina handik astebetera gehitu behar izan zirela. Gehitu behar zirela Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuek esan zuten.

Lan eta Gizarte Segurantza Saila arazo honi egiten ari zitzaion jarraipenean zehar, halaber, Donostiako udalak egoitzaren higiene eta sanitate baldintzak ikuskatzeko egin zuen bisitaren berri ere eman ziguten.

• Emaitza

Kexa honen gaiak elkarren aurkako interesen aurrean jartzen gintuen. Interesok nolabait harmonizatu behar ziren, batzuentzat eta besteentzat ahalik eta sakrifiziorik gutxienaz, ahal zen heinean bateragarri eginez. Hortik abiatuta, Ararteko erakundeak pentsatu zuen funtsezko zerbitzuak modu motibatuan ezarri zirela, eta adineko pertsonen artapenaren baldintzen jarraipena ere egin zela.

Kexa aurkeztu zigunari ukitutako administrazioek funtsezko zerbitzuak finkatzeko eta horien jarraipena egiteko burututako jardueren berri eman eta gero– batzuk bere kexaren ostekoak-, gure jarduera eten egin genuen.

# 13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

## 13.1. SARRERA

Hirigintza eta etxebizitza politikak behin eta berriro agertzen diren gaiak dira, egunerokoak, Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen kezken gaien artean. Gizartearen kezka horren ondorioz erakunde honek arlo horretan egindako lanaren garrantzia gehitu egiten da. Aurten jaso ditugun kexak 158 izan dira, hau da, urtean burutu dugun jardueraren % 16,17 horra joan da.

Ukitutako administrazioen arabera, honelaxe sailkatzen dira:

| | |
|---|---|
| Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 44 |
| Foru administrazioa | 3 |
| Udal administrazioa | 98 |

Azpiatalei aditzen badiegu:

| | |
|---|---|
| Etxebizitza | 54 |
| Hirigintzako diziplina eta aiurria | 50 |
| Irismena | 16 |
| Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 13 |
| Hirigintza kudeaketa | 10 |
| Hirigintza antolamendua | 9 |
| Besterik | 5 |
| Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazio erantzukizuna | 1 |

Hirigintzak, Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraren plangintzan, garapenean eta egintzan esku hartzen duten eragile desberdinen jarduerak argitu eta errazteko balio dezan bere araudi erreferenterik gabe segitzen du. Gaur egun, Euskadin, oraindik Lurraren Araubidearen eta Hiri Antolamenduaren gaineko 1976ko Legea aplikatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak unean uneko kontuak arautzeko onetsitako hainbat arau indarrean daude: ekainaren 30eko 11/1994 Legea, etxebizitzaren eta hirigintzako bitarteko eta kudeaketako izapideen gaietako premiazko neurriena; martxoaren 6ko 5/1998 Legea, lurraren araubidearen eta hiri antolamenduaren gaietarako premiazko neurriena; edo ekainaren 29ko 20/1998 Legea, lurraren udal ondareen gainekoa.

Konplexutasuna areagotzeko, Konstituzio Auzitegiak 2002ko otsailaren 27ko bere 54/2002 epaiaren bidez apirilaren 20ko 11/1998 Legea baliogabetu du, zeinetan hiri lur finkatuaren jabeek udalari nahitaez eta doan hirigintzako irabazizko aprobetxamenduaren edo, birgaitze kasuetan, gehitzearen %10a eman behar baitzioten.

Erakunde honek, 1999an Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion txostenean, jada aipatzen zuen EAErako lurreko legea onetsi beharra zegoela, eta gomendio hori, orain arte, ez da kontuan eduki.

Hiru dira hirigintzako esku-hartzean eragina duten gaiak: hirigintzako antolamendua edo planeamendua; hirigintzaren kudeaketa edo burutzapena; eta hirigintzako diziplina.

Lurraren **hirigintzako antolamenduan,** lurraren zenbati jabek zalantzan jartzen dute planeamenduko arauek emandako sailkapena edo baita kalifikazioa ere. Udal

administrazioek eskumenak dauzkate udalerrietako hirigintzako planeamendua ezartzeko. Horretarako zuhurtziarako tarte handia daukate, beren hirigintzako arauak diseinatu eta egiteko, edo arauok berrikusteko orduan. Administrazioaren plangintzarako ahalmen hori, udalerrian lurrari emango zaion erabilpena edo hiria zein eremutan garatuko den onesteko ahalmena, lege antolamenduarekin bat dator, betiere motibatua eta interes orokorra gogobetetzearen aldeko arrazoibide objektiboekin bateragarria bada. Garrantzitsua administrazioek horren gainean alegazioak egiteko aukera izan dezaten herritarren partaidetza ahalbidetzea. Administrazioa behartuta dago alegazioei banan-banan erantzutera, interes orokorraren ildotik.

**Hirigintzaren kudeaketari** dagokionez, zatiketa berriko espedienteetan edo konpentsazio proiektuetan sartzen dituzten lur txikien jabeen gaiak behin eta berriro sortzen dira. Beste arazo batzuk hirigintzako obrek egiten diren bitartean auzokideei eragiten dizkieten trabetatik sortzen dira, edo egintzan izaten diren atzerapenetatik.

Aurreko ekitaldietan bezala, **hirigintzako diziplina** da gure erakundeari esku hartzeko eskaririk gehien sortzen duena. Oro har, kexaren zioa tokiko Administrazio eskudunak lurrari emandako erabilpenen aurrean eskurik ez hartzea da, edo obrak behar den hirigintzako lizentziarik gabe egiteagatik, edo emandako obraren lizentziaz bestelakorik egitea. Horren ildotik, Errigoitiko (Bizkaia) herritar baten kexaren laburpena jaso dugu. Finka batean ixteko jarritako hormaren gaian udalak eskurik hartu ez zuelako kexatu zen, horma hura hirigintza araudiaren aurkakoa zen arren (97/2001).

Beste suposamendu batzuetan obrak hirigintzako zuzentzarekin edo eraikuntzaren segurtasun eta osasungarritasunaren bermeekin zerikusirik ez duten parametroen arabera egiteko udalaren baimenik ez izatea planteatzen da. Udalak lurraren erabilpenen eta eraikuntza egintzen gainean esku hartzen badu, legeetara eta udalaren hirigintza planeamendura moldatzen diren egiaztatzeko da. Hirigintzako lizentziak araupeko egintzak dira, eta ezin zaie egokiera iritzirik egin. Administrazioak ez dauka irizpen tarte edo aukerarik, eta eskatutako jarduera aplikatzekoak diren arauetara egokitzen den ala ez ebaztera mugatu behar du.

Eskubide zibilen urraketan oinarrituz –jabetza eskubidea, zorpekoak- , obrak legezkoak diren edo hirigintzako planeamendura egokitzen diren ere galdetu ohi da, eta horrek ez dauka hirigintzako legezkotasunaren defentsarekin zerikusirik. Udalak jabeek beren lurretan egiten dituzten eraikuntzetan duen esku-hartzeak hirigintzako legezkotasunari egokitzen zaion ala ez besterik ez du kontuan hartzen. Eraikitzaileak edo lurraren jabeak obrak egitean Kode Zibilaren arauak urratzen baditu – beste jabe batzuen eskubideak ez errespetatuz-, Udalak ezin du kontu horien gainean ezer ebatzi, bera ez baita eskuduna izaera pribatuko auzietan bitartekari izateko. Hartara, Udal Korporazioen Zerbitzuen Arautegiak, 12.1 artikuluan dio eraikuntza lizentzia eraikuntza proiektuak hirugarrenen eskubideei eragin ahal izatearen kalterik gabe ematen da. Horrek ez du esan nahi –kexa hautatuen sortan azaltzen den udal bide batean itxitura bat jartzeko lizentzia ematen deneko kasuan bezala- Udalak hirigintzako lizentziarik ezetsi behar ez duenik, lurraren titularitatearen gaineko zalantzak dituenean eta, bereziki, herri jabariko ondasunak defendatu behar direnean. Horren ildotik, Epaitegi Gorenaren behin eta berrizko jurisprudentziak dio, hirigintzako legezkotasunaren kontrolari lotuta, herri jabariko ondasunen defentsa ere badagoela.

**Etxebizitza** duina eskuratu ahal izatearen arazoa herritarren kezka nagusietako bat da. Euskal herri botereek aspalditxoan diseinatzen ari diren etxebizitza politikak

hor egon arren, etxebizitza libreen prezio izugarri garestiak etengabe goraka jarraitzen du.

Autonomia Erkidego honetan bizi diren pertsonak kezkatuta daude etxebizitza bat merkatu libreak ezartzen dituen baldintza ekonomikoetan erosteko dauden zailtasunengatik, bereziki, azkeneko urteotan izandako igoeren ostean. Ondorioz, oinarrizko beharra den ondasun preziatu hori eskuratzeko zailtasunak dauzkaten pertsonarik gehien-gehienek administrazioek edo sustatzaile pribatuek, salneurri babestuan, eskaintzen dituzten etxebizitzen sustapenetan jarrita daukate esperantza.

Etxebizitzaren azpiatalean, ere berean, erakunde honi aurkeztutako kexak gehitu direla ikusi dugu, babes ofizialeko etxebizitzen sustapenen kopurua ere igotzearen ondorioz izan daitekeena. Herritarrek planteatzen dituzten arazo nagusiak herri sustapeneko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan beren eskariak, babes ofizialeko etxebizitzen araudiak finkatutako betekizunak betetzen ez dituztenez, kanpoan utzi direlako sortzen dira. Bestalde, gutxiago bada ere, babes ofizialeko etxebizitzetan eraikuntzaren ondoriozko arazo eta akatsak ere planteatzen dira oraindik.

## 13.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Hirigintzako diziplina eta aiurria

⇒ *Udalaren esku-hartzerik eza finka bat ixteko hormaren kontuan, hirigintzako araudiaren aurkakoa izan arren* (97/2001)

• Erreklamazioa

Errigoitiko (Bizkaiko) herritar batek salatu zuen udalak ez zuela ezer egin partikular batek finka bat ixteko egindako obretan Arau Subsidiarioak betetzea exijitzeko eta obra horiek legeztatzeko espedientea hasteko.

• Azterketa

Kexa hau behar bezala bideratzeko, udalari herritarrak hirigintzako arauak urratzeagatik egindako salaketaren ondoren zer egin zuen esateko eskatu genion.

Gure eskariari erantzuteko, Udalak txostena helarazi zigun, non esaten baitzuen erreklamaziogilearen salaketa neurrigabea zela salatutako egitatearen hirigintzako urraketaren aldean. Horregatik, ez zuten legezkotasunaren kontrolaren inolako administrazio jarduerarik izapidetu. Edonola ere, beraien ustez, eraikitako hormak ibilgailuen segurtasuna eta joan-etorriak bermatzeko beste zabalera uzten zuen bidean, eta lurrei eusteko ere balio zuen, pertsona eta ondasunen babesa eta bide segurtasuna gehitzen zituelako. Ondorioz, udalaren iritziz, ez zegoen horretan esku hartzeko beharrik justifikatzeko nahikoa elementu.

Erreklamaziogileak, bere aldetik, beste idatzi bat helarazi zigun, non berresten baitzuen kalearen zabaleraren distantziak udalerrian itxituren hirigintzako antolamenduan exijitutakoak baino txikiagoak zirela. Era berean, hirigintzako legezkotasuna betetzea exijitu behar zela azpimarratzen zuen, antzeko beste kasu batean bezala, zeinetan udalak hirigintzako kontrolari eraikitako itxitura eraisteko aginduarekin eman baitzion amaiera.

Informazio hori ikusita, eta behin eta berriro salatu arren udalak obrak legeztatzeko eta Arau Subsidiarioetako lur zatietako itxituren gaineko zehaztapenak aplikatzeko inolako jarduerarik abian jarri ez zuela ohartuta, Arartekoak Udalari gomendioa helarazi zion, partikularrak egindako obrak legeztatzeko espedientea abian jar zezan.

Idatzian zioen hirigintzako diziplina herri administrazioek –bereizi udal administrazioak- administratuek lurrean egindako edozein jardueraren gainean egiten duten kontrolean oinarritzen dela. Erakunde honen irizpenerako aurkeztutako kasuan, zalantzan jartzen zen Udalak zenbait obraren egintza ez ikuskatzean zuen jarrera, zehazki, beharrezko lizentziarik gabe eraikitako eusteko horma baten egintzan. Horregatik, obrak handiak ala txikiak diren begiratu barik, udal administrazioek interesatuei jarduera legeztatzeko aginduzko deia luzatu behar diete eta, bereziki, hirigintzako lizentzia eska dezaten edo aurreikusitako baldintzetara molda daitezen (1976ko Lurraren Legearen 185 artikulua, eta Hirigintzako Diziplinako Arautegiaren 31. artikulua). Legeztapeneko espedientean, Udalak itxiturako obra horiek finken itxituren baldintzak araupetzen dituen Arautegiarekin bat datozen ikuskatu behar du. Hartara, udalak egiaztatu behar du sustatzaileak itxituraren edo eusteko hormaren eraikuntza ardatzetik 3,5 metrora atzera ematera behartzen duen araudi hori betetzen duen ala ez. Hala ez bada, obrak legeztatzerik ez dagoela ebatzi eta eraitsarazi beharko ditu.

Udalak, bidali zigun txostenean, zioen lur zatia dagoen baserria zaharberritzeko obrak egin zirenetik lau urte joan zirela legeztatzeko edo eraisteko espedientea izapidetzen, eta ezin zuela esku hartu.

Adierazpen berri horren aurrean, jakin genuen kexagileak salatzen zuela hormaren eraikuntza lanak geroago hasi zirela. Udalak ere aitortzen zuen, lehenengo txosten batean, obra horiek beranduago amaitu zirela, berak legeztatzeko eskurik sartu gabe.

Edonola ere, berriro esan genion balizko hirigintzako urraketa baten salaketaren aurrean, herri administrazioak salaketa bideratu behar dutela. Idatzia salaketatzat hartzeak, administrazio eskudunari, abuztuaren 4ko 1398/1993 E.D.ren 11.2 artikulua betetzeko, salaketagileari zehapen prozedurarik abian jartzerik dagoen ala ez jakinarazi beharra dakarkio. Salaketa ondo oinarrituta badago, eta salatutako urraketa egin delako zentzuzko zantzurik badago, legeztatzeko espedientearekin eta hirigintzako diziplinako ondorengo ahalmenekin aurrea egin beharko du.

Administrazioak hirigintzako legezkotasuna lehengoratzeko ekintzak preskribitu duela pentsatu arren ere, ezin du hori besterik gabe ebatzi, interesatutako alderdien kontraesanetarako espedienterik izapidetu gabe. Barkatze hori ondorioztatu ahal izateko, aurreikusitako epea agortu delako frogak aurkeztu behar dira. Epaitegi Gorenak espresuki esan duen bezala, preskripzioaren frogaren zama ez du Administrazioak jasaten, bere borondatez klandestinitate egoeran jarri den administratuak baizik.

Era berean, urriaren 16ko 16/1981 Errege Dekretuaren 9. artikuluarekin lotuta, Testu Berreginaren 185. artikuluan aurreikusitako neurriak hartzeko denbora mugaren lau urteko epea, obrak amaituta daudenean soilik aplikatzen da, eta obrak amaitu direla erabakitzeko multzoan hartu behar dira. Balizko preskripzioak ed dio Administrazioari hasitako prozeduraren gainean espresuki ebaztea barkatzen, 39/1992 Legearen 42.1 artikuluak dioenez.

Udalak, ordea, gure gomendioa betetzeko erreparoak zituen, erakunde honen txostenetan sobera erantzun zitzaizkion argudioetan oinarrituta.

Hartara, bidea gutxi erabiltzeak edo azpian auzokideen arteko harreman arazoak egoteak ez du esan nahi udalak hirigintzako legezkotasunaren kontroleko bere eskumenei muzin egin diezaiekeenik. Ez du balio, era berean, udalak eskurik ez hartzeko udalaren ekintzaren balizko preskripzioari heltzeak, zeren egitateak behar bezala salatu baitira hori baino lehen, eta obrak epea agortu baino lehen amaitu baitira. Obren balizko legeztapenak ere, eusteko horma izanagatik, ez dio udalari jardutea kentzen. Edonola ere, berriro esan genien Udalak onetsitako planeamenduan itxiturak eta eusteko hormak aipatzen direla.

• Emaitza

Erakunde hau aurreko argudio horiekin bat ez etorri arren, egindako jardueren ostean, besterik egiterik ez zeukala ulertu zuen. Ondorioz, amaiera eman zion bere esku-hartzeari, Errigoitiko udalak bere gomendioari jaramonik egin ez ziola ebatziz.

⇒ *Herri jabariko bide batean itxitura egiteko obren lizentzia* (806/2001)

• Erreklamazioa

Herritar batek zalantzan jartzen zuen Lapuebla de Labarcako Udalak beste ondoko auzokide bati udal titularitateko bide baten zabaleran itxitura bat jartzeko eman zion obra lizentzia. Kalea udal frontoiaren atzean dago, eta bertan larrialdi irteera eta zenbait finkatarako sarbidea daude, besteak beste, errekurtsogilearen finkarakoa, eta berak ezin zuen bide horretatik joan, udalak baimendutako itxituraren ondorioz. Ingurumaria horietan, erreklamaziogileak baimena berrikusteko eskaria luzatu zuen, herri izaerakoa zela eta kale horretako biztanleei pasatzen utzi behar zitzaiela alegatuz. Udalak, hala ere, eskatutakoa ukatu zion, lizentzia prekarioan eta hirugarrenen kalterik gabe eman zela alegatuz.

• Azterketa

Erakunde honek udalari kalearen izaera juridikoaren, udalerriko Arau Subsidiarioetan zuen kalifikazioaren eta obra lizentziaren eta hirigintzako araudiaren bateragarritasunaren gaineko informazioa eskatu zion.

Lapuebla de Labarcako udalak txosten bat bidali zigun, non esaten baitzuten udalerriko Arau Subsidiarioetan bide hori herri erabilpen eta jabarikoa dela dioela. Esaten zuen lizentzia prekarioan eman zela, eta hirugarrenen eskubideen kalterik gabe, udal korporazioen zerbitzuko arautegiaren 12. artikulua aipatuz, frontoian ikuskizun publikorik zegoenean jendeari sartzen utzi behar zitzaiolako mugarekin.

Erantzun hori ikustean, udalari hirigintzako lizentzien araubide juridikoaren analisi bat helarazi genion, non esaten baita hirigintzako lizentziak udalerriko hirigintzako araudian oinarrituta ematen diren egintza arautuak direla. Horren haritik, lizentzia emateko egin nahi diren obrak edo eraikuntzak udalerriaren planeamenduaren arauen eta lurraren legediaren babespean egon daitezen besterik ez da eskatzen.

Hartara, behin betiko 1995eko maiatzean onetsi ziren Lapuebla de Labarcako Arau Subsidiarioetan kale hori komunikazioetarako tokiko sistema gisa sartzen zela, *“oinezkoentzako kale modura, egoileen trafikoaren tolerantziarekin”* erabiltzeko. Egitate horretatik ateratzen den ondorio nagusia da, hirigintzako legezkotasunaren

kontrolaren ikuspegitik, udalak ezin zuela, inola ere, kale horretan egoileei ibilgailuekin pasatzen lagatzen dien oinezkoentzako herri erabilpenarekin bateragarria ez zen inolako jarduera edo eraikuntzarik egiteko baimenik eman.

Edonondik begiratuta ere, obren sustatzaileak egindako itxitura obrak ez zituen planeamenduaren aurreikuspenak errespetatu. Horregatik, Udalaren jarduera 1976ko Lurraren Legearen 178.2 artikuluaren aurkakoa zen, zeinek ezartzen baitu lizentziak Lurraren legediaren eta planeamenduko arauen aurreikuspenen arabera ematen direla.

Argudio berdinak merezi ditu "*prekarioan*" ematen delako lizentziaren baldintzak. Epaitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriro esan du lizentziak, hirigintzako araudiari doitzen zaizkio ala ez ikusiz, araututa eman edo ukatu behar diren arren, badirela zenbait kasu Planean aurreikusten denera moldatzen ez diren obrak edo erabilerak baimen daitezkeenekoak. Baina hori, bestelako erabilpenik eragotziko lukeen hirigintzako errealitatearen transformazioa aurreikusita dagoen kasuetan soilik gertatzen da, transformazio hori berehala burutuko ez denean. Kasu horretan baimen liteke baina, herri interesari adituz, ezabatu behar denean kalte ordainik gabe egingo delarik. Halako lizentziak gure lege antolamenduak eskubideak gauzatzeko justifikaziorik gabeko murrizketak saihesteko egiten duen azkeneko ahalegina dira, eta herri intereserako kaltegarriak ez diren obra edo erabilpenak eragotzi behar ez direlakoan oinarritzen dira. Baina horrek ezin du, inola ere, hirigintzako planen aurreikuspenak nahitaez betetzea barkatzeko balio, ez eta emate erreserba bat ezartzeko ere, Lurraren Legearen 57.3 artikuluak eta 1992ko Testu Berreginaren 134.1 artikuluak dioten bezala.

Horregatik, Arau Subsidiarioetan jasotako aurreikuspenen aurka doan baimenik prekarioan ematerik ez dagoela ondorioztatu genuen, are gehiago bidearen herri izaerarekin bateraezina den erabilpena baimentzen denean.

Lizentziak hirugarrenen eskubideen kalterik gabe ematen direlako udalaren argudioari dagokionez, izan ere, udalaren txostenean esaten den bezala, tokiko administrazioek hirigintzako legezkotasuna soilik kontrolatu behar dute, eta ez dute ezer esan behar justizia epaitegi arruntetan aldarrikatu behar diren hirugarrenen jabetza edo bestelako eskubideen gainean.

Horrek ez du esan nahi kasu jakin batzuetan Administrazioak hirigintzako lizentzia ezetsi behar duenik, lurraren titularitatearen gaineko zalantzarik daukanean eta, bereziki, herri jabariko ondasunak defendatu behar direnean. Horren haritik, Epaitegi Gorenaren behin eta berrizko jurisprudentziak dio, hirigintzako legezkotasunaren kontrolari lotuta, herri jabariko ondasunen defentsa ere badagoela.

• Emaitza

Ondorioz, herri jabariko ondasun batean –udal kalean- lizentzia emateak ez dauka baliorik, duen herri erabilpenarengatik. Horregatik, Arartekoak Lapuebla de Labarcako Udalari gomendio bat helarazi zion, kale horretan itxitura bat jartzeko baimena ematen zuen erabakia baliorik gabe uzteko, lizentzia hura Udalerriaren Planeamenduko Arau Subsidiarioen aurkakoa zelako –arau horietan herri erabilpenekoa dela baitio- eta bide hori herri bidea delako.

Udala gomendioa betetzea ukatu zen, zergatik argitzeko erantzunik eman gabe, gure erakundeak behin eta berriro eskatu arren. Udalaren jarrera horren aurrean, gomendioa ezetsitzat jo genuen.

⇒ *Erantzunik ez lizentzia txiki baten eskarian* (261/2002)

• Erreklamazioa

Irungo industria poligonoko bateko merkataritza enpresa bateko jabeak kexa bat jarri zuen, pabilioia dagoen bere jabetzako lurrean gontzak jartzeko obra txikirako lizentziaren bere eskariari erantzun ez ziotelako.

• Azterketa

Irungo udalak udal zerbitzu teknikoen txostena helarazi zigun, non esaten baitzuen zerbitzu horien ustez erreklamaziogileak egin nahi zituen obrek titularitate pribatuko bidea erabiltzen duten hirugarrenei disfuntzioak eragin ziezazkietela. Horregatik, pabilioiaren gainerako jabe eta maizterren adostasuna aurkeztu behar zela uste zuten.

Informazio hori ikusita, Arartekoak tokiko erakunde horri esan zion lurraren titularrek egin nahi zituzten lurraren erabilpen eta eraikuntza ekintzen gaineko udalaren esku-hartzeak, tokiko administrazioek jarduera horiek legezkotasunaren mende zeudela, egokiak zirela eta hirigintzako udal planeamendura moldatzen zirela bermatzeko duten eskumenari erantzuten diotela. Aurreikusitako eraikuntza ekintza eta erabilpen desberdinen gaineko hirigintzako lizentzia horiek egokiera iritzirik onartzen ez duen egintza arautuak dira. Administrazioak ez dauka irizpenerako tarte edo askatasunik, eta eskatutako jarduera aplikatzekoak diren arauetara moldatzen den ala ez egiaztatzera mugatu behar du. Lizentzien izaera arautu hau 1978ko urriaren 31ko epaitik adierazi izan da (RJ 3498\1978), honelaxe: "*hirigintzako xedapenen aurkakoak diren obren lizentziak ukatu behar dira, eta xedapen horietara moldatzen direnak onetsi*". Horregatik, egokiera argudioek edo jabeen harreman juridiko partikularrek ez daukate zerikusirik kontu honetan.

Udalak bidalitako udal zerbitzuen txostenean esaten zen planeamenduak ez zuela obra hirigintzaren ikuspegitik egin ezina zenik zehazten. Esparru hori garatzen zuen plan bereziak ez zuen bidea herri jabari edo erabilpenekotzat jotzen, eta ez zuen esparru horren inolako antolamendurik ere definitzen. Edonola ere, udalak ulertzen zuen hirigintzako proiektuak eremu hura bideari lotutakotzat eta ondo funtzionatzeko ezinbestekotzat jotzen zuela, zeren bestela ez baitzegokeen bide horretara sartutako ibilgailu astunek maniobrarik egiteko modurik. Hala ere, hirigintzako proiektuaren interpretazio horrek ez zeukan bere izaera juridikoa kontuan hartzen. Lurraren Araubidearen eta Hiri Antolamenduaren 1976ko Legearen Testu Berreginaren 15. artikuluak definitzen duenari adituz, hirigintzako proiektua ez da planeamenduko bitarteko bat, planetan aurreikusitako hirigintzako obren xehetasun teknikoak finkatzen dituena baizik. Bere edukiak ezin ditu gauzatzen duen planaren aurreikuspenak aldarazi, ez eta proiektuak ukitutako finken lurraren araubidea edo antolamenduaren zehaztapenak alteratu ere. Azken batean, ezin ditu planeamenduan aurreikusi ez diren jabari mugarik gehitu.

Era berean, jabeak antolaketa okerraren gainean egin duen argudioa –hirugarrenei ukituko lieke- partikularren arteko harreman zibilei dagokienez hirigintzak duen izaera neutrotik urruntzen da, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onetsitako Udal Korporazioen Zerbitzuen Arautegiaren 12.1 artikulutik ondorioztatzen den bezala.

Udalak esparru honetarako aurreikusitako antolamenduan aldarazpenak sartu behar direla uste badu, Lurraren legediak planeamendua aldarazteko aurreikusten dituen

mekanismoen bidez egin beharko du. Hala ere, ezin die jabeei beren jabetza eskubidean muga gehiagorik ezarri, udal arauetan aurreikusitakoez gain.

• Emaitza

Horrek guztiak Irungo udalak obraren lizentziaren eskaria hirigintzako araudiaren zehaztapenak kontuan hartuz ebatzi behar zuela ondorioztatzera eraman gintuen, antolamenduak hirigintzako lizentziei ematen dien izaera arautuaren arabera eta hirugarren pertsonen eskubideen kalterik gabe.

Udalak jakinarazi zigun aurkeztutako errekurtsoa baiesten zuen ebazpena eman zuela, eta merkataritza enpresaren jabetzako lurretan gontzak jartzeko obra txikia egiteko lizentzia eman zuela.

## B) **Hirigintzaren kudeaketa**

⇒ *Etxebizitza batzuk hirigintzan zehaztu gabe egotea, justizia epaitegien erabakiaren ostean* (1187/2001)

• Erreklamazioa

Donostiako Amara auzoko zenbait herritarrek jakinarazi ziguten kezkatuta zeudela beren etxeak, Justizia Epaitegi Gorenaren San Bartolome mendixkako Berriztatzeko Plan Bereziaren gaineko epaiaren ostean, zeuden egoerarengatik. Kexa idatzian epaitegiaren erabaki horren ondorioz, antolamenduz kanpokotzat jo eta hirigintzako esku hartzeko esparru horretako hirigintzako jardueraren burutzearen mende geratzen ziren etxeetako biztanleek pairatuko zituzten ondoreak adierazten ziren. Epai horren ostea, definiziorik gabeko egoerak jarraitzen zuen, eraikuntzei antolamenduz kanpokotzat jotzeak dakarzkien kalteekin. Horregatik jo zuten gure erakundearengana, abagune hori konpontzeko ahalbideak ezagutzeko eta aurreikusitako balizko kasazio errekurtsoaren ebazpena arintzen saiatzeko.

• Azterketa

Erakunde honek ez dauka eskumenik Justizia Epaitegietan aztertzen ari diren edo jada aztertu diren gaietan esku hartzeko. Horregatik, ezin dugu epaiaren edukiaren gaineko gure iritzirik eman, ez eta epaiari balizko kasazio errekurtsoaren gainean ezer egin ere.

Edonola ere, arestiko zehaztapen hori alboratuta, erabaki horrek ukitutako auzotarren kolektiboak definiziorik gabeko egoera konponduko dien akordioren bat lortzeko aukera planteatzen du.

Horrela jo genuen Donostiako Udalarengana, eta AIU CE 05 San Bartolome hirigintzako esku-hartzeak ukitutako eraikinen egoera zein zen galdetu genien, eta udalak zer neurri hartuko zituen Amara Zaharrean ukitutako etxeek birgaitzeko dituzten beharren aurrean epaitegiaren erabaki horren ostean.

• Emaitza

Udalak esan zigun Epaitegi Gorenean aurkeztutako errekurtsoa ebatzi arte, eta hirigintzako jarduera horren egoera zehazki zein den jakin arte, eraikinak birgaitu eta

sendotzeko jarduerak aurreikusita daudela, Lurraren Legean aurreikusitako antolamenduz kanpoko araubidearen ondoreak arintzeko.

### C) **Hirigintzako antolamendua**

⇒ *Udalek konpentsazio batzordeei hirigintzaren zamak bete ditzaten exijitzeko dituzten betebeharren gainean* (793/2000)

• Erreklamazioa

Mendaroko udalerriko eremu bateko hirigintzako garapenak ukitutako etxebizitza baten jabeak udalak, udalerri horretako eremuan eratutako Konpentsazio Batzordeari hirigintzaren kudeaketaren ondoriozko betebeharrak betetzea exijitzeko ezer egin ez zuela eta, zehazki, berak partaidetzako kuota bat zeukan eraikinaren eraispenarengatik inolako kalte ordainik eman ez ziotela salatu zuen.

• Azterketa

Udalak jakinarazi zigun, erreklamaziogilearen idatzia eta gure erakundearen informazio eskea jaso zituenean, Konpentsazio Batzordeari *"idatziei erantzuteko"* eskatu ziola, *"egokien irizten duen modura"*, baina ez zuela inolako erantzunik jaso.

Egoera horren aurrean, Konpentsazio Batzordeko buruari ere informazioa eskatu genion, baina ez genuen erantzunik jaso.

Egindakoak ikusita, Arartekoak udalari kexaren gaiaren inguruko zenbait ohartarazpen egin zizkion.

Hartara, gure ustez Konpentsazio Batzordeak izaera administratiboa, nortasun juridikoa eta beren xedeak, hau da, hirigintzako ekintzan parte hartzea betetzeko erabateko ahalmena dituzten hirigintzako erakunde laguntzaileak dira. Epaitegi Gorenaren jurisprudentziak izaera administratibo hori Administrazioaren eragile modura eratuz funtzio publikoak betetzen ditueneko kasuetara mugatu da. Hona hemen garatzen dituzten hirigintzako betekizunak: lurren nahitaezko lagapena bermatzea, planeamendutik datozen zama eta mozkinak modu orekatuan banatzea, eta hirigintza lanak bere kontura eta hirigintzako planeamenduan ezartzen duen modura egitea. Alde batera geratzen dira partikularrentzat interesgarriak diren beste alderdi batzuk, hirigintzako betekizunetik kanpokoak, Konpentsazio Batzordearen estatutuetan aurreikusitako bideetatik edo instantzia egokietan ebatzi behar direnak.

Jabeek ordaindu behar dituzten hirigintzaren kosteen artean, 1976ko Testu Berreginak –122 artikuluan– planeamendua gauzatzeko eraitsi behar diren eraikuntzen ondoriozko kalte ordainak daude. Kudeaketako Arautegiak 60. artikuluan dio eraisteen ondoriozko kalte ordainak lurren jabeek ordaindu behar dituztela, lurren gainazalen proportzioan, edo konpentsazio proiektuan ezarritako bestelako metodoren baten arabera. Era berean, konpentsazio proiektuak hirigintzako gastu horiengatik eskubideen titularrei kontra-prestazio gisa ordaindu behar zaizkien kalte ordainak islatu behar ditu. Halaber, behin behineko likidazioko kontuan, esleitutako finka bakoitzari hirigintza burutzearen ondoriozko ordainketei aurre egiteko, zenbateko zama ezartzen zaion ere finkatzen da.

Batzordeak zein bere kideek hirigintzako ahalmen horiek garatu ezean, Lurraren Legediak mekanismoak ezarri ditu, Udalak, hirigintzako kudeaketaren herri zerbitzuaren

administrazio titular izanik, erantzukizun hori exiji dezan. TRLSren 130. artikuluak baiesten du Konpentsazio Batzordeak hirigintza lan osoaren erantzukizun zuzena daukala Udalaren aurrean, eta hor hirigintza lan horretatik sortzen diren gastu guztiak sartu beharko liratekeela, baita orubeen eraikuntzaren ondoriozko gastuak ere. Bestalde, Batzordeak bere kideek zor dituzten kopuruak exijitu behar dizkie, Konpentsazio Batzordeak udal administrazioari egindako eskariaren bidez. Ezin da, inola ere, Konpentsazio Batzorderik desegin harik eta Udalak zor diren betebeharrak ordaintzen direla egiaztatu arte, Hirigintzako Kudeaketako Arautegiaren 30. artikuluak dioenez.

Esku artean daukagun kasu honetan, Batzordeak idatzi eta udalak onetsitako konpentsazio proiektuan, jabeek eraikinaren eraispenaren kalte ordain gisa kopuru batzuk hitzartzen dituzte. Kalte ordaina ordaintzeko hainbat epe ezarri ziren, konpentsazio proiektuan bertan.

Epe horiek igaro eta zorra ordaindu ez zitzaionez, jabeak behin baino sarriago erreklamatu zuen Mendaroko udalean, eta udalak erreklamazioa Konpentsazio Batzordeari helarazi zion, gutxienez birritan. Hala ere, ez dago inolako berririk Konpentsazio Batzordeak erreklamaziogileak kalte ordainaz egindako erreklamazioari erantzun diola dioenik.

Bestalde, kexagileak Mendaroko udalari eskatu zion Konpentsazio Batzordea moran jartzeko, eta zor zituen kopuruak ordaintzeko aginduzko deia egiteko, esanez, bestela, subsidiarioki udalak erantzun beharko lukeela. Udalak ez zion eskari honi erantzun.

Gauzak horrela, adostasunik ezak, erreklamaziogileari defentsarik gabeko egoera sorrarazten dio, ezbairik gabe, eta egoera hori antolamenduak administrazio organoen jarduerarik ezaren aurka erreakzionatzeko aurreikusten dituen ahalbideez konpondu behar da. Horretarako, 30/1992 Legearen 42. artikuluak interesatuek egiten dituzten eskariei espresuki emandako ebazpenaz erantzun behar zaiela dio. Horregatik, gure ustez Mendaroko udalak ez zuen antolamenduaren ildotik jokatu, ez baitio aurkeztutako erreklamazioari erantzun. Halaber, udalak bermatu behar du Batzordearen jarduerak agindutako hirigintzako eginkizuna betetzen duela, non hirigintzako gastuei aurre egitea ere sartu behar den –besteak beste eraistearen ondoriozkoak- konpentsazio proiektuan onetsitako modu, epe eta ondoreetan.

Bestela, udalek eskumenak dauzkate betebehar horiek betetzen direla bermatzeko, Hirigintzako Kudeaketako Arautegiaren 182 eta 183 artikuluek 1976ko TRLSren 130. artikuluaren ildotik ezartzen duten bezala.

• Emaitza

Horregatik guztiarengatik, Arartekoak udalari gomendio bat egin zion, ukitutako jabearen erreklamazioari erantzun ziezaion, eta erantzunean Konpentsazio Batzordeak hirigintzako gastuei – eraistearenak barne- aurre egiteko zituen betebeharrak betetzea berma zezan, Konpentsazio Proiektuetan onetsitako modura.

Udalak esan zigun gomendioari jaramon egitea erabaki zuela, eta erreklamaziogileari Konpentsazio Batzordeari jabetzako finkaren balio justuaren ordainketan moran zegoela jakinarazten zitzaioneko, eta ordaintzeko agindua ematen zitzaioneko erabakiaren berri eman zitzaiola. Zorraz gain berandutzako interesak ere ordaindu behar zituela esan zioten Konpentsazio Batzordeari eta, bidenabar, ohartarazi zioten diru hori ordaindu ezean premia bidetik ordainaraziko ziotela.

⇒ *Ibai baten bideratze proiektuaren eta dagoen eraikinaren arteko gutxieneko tartea errespetatu beharra* (347/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek Zarautzen bere jabetzarekin muga egiten duen plan partzial baten onespenaren ondorioz bere baserria nola geratzen zen planteatu zuen. Zehazki, plan partzialaren Testu Berreginaren behin betiko onespenean, EAEko ibai eta latsen ertzen antolamenduen Lurraldeko Alor Planak (PTS) agintzen duen bezala, ibai baten bideratzearen eta bere etxearen artean gutxienez gorde beharreko tartea errespetatzeko aurkeztutako alegazioak jasotzen ez zituela zioen.

• Azterketa

Herritar honek zioen ez zegoela ados plan partzialaren onespenarekin, PTSren aginduak halabeharrez bete behar direla argudiatuz, eta PTSn ibaien ertzetan lurraren erabilpenari eta jarduerei muga batzuk ezartzen zaizkiela, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

Tokiko administrazioek zuhurtziarako tarte zabala daukate beren hirigintzako arauak diseinatu eta prestatzeko orduan, betiere diseinu hori motibatua eta arrazoibide objektiboekin bateragarria bada, eta lurraren legean edo bestelako alor araudiren batean aurreikusitakoa errespetatzen badu. Eskuartean daukagun kasu zehatz honetan, herri jabari hidraulikoaren babesean, Uren Legeak udal plangintzarentzako hainbat afekzio eta muga aurreikusten dituenez –ibai eta latsen ertzen antolamendurako PTSn garatutakoak-, pentsatzen den hirigintzako antolamenduak aurreikuspen horiek jaso behar ditu. Horregatik, alorreko Administrazio eskudunak –kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza- edozein plangintza bitartekoren gaineko txostena egin behar du, egokia dela egiaztatzeko.

Espediente hau behar bezala bideratzeko, kexan azaldutako gaiarekin zerikusi zuzena zuten hiru administrazioengana jo genuen (Zarautzeko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila), jarritako salaketaren ondorioz egindako jardueren berri emateko eskatzera.

Zarautzeko udalak txosten bat helarazi zigun, non udalerriko Arau Subsidiarioen garapenean sartzen den plan partziala onesteko jardueren berri ematen baitzuen. Plana izapidetzen zen bitartean, kexagileak alegazio bat egin zuen, eremuko eraikuntza lerroa bere etxetik begiratuta atzerago eraman zedin eskatuz, eraikuntza berriak izan zezakeen eragina ekiditeko. Horren ondorioz, plan partzialaren behin behineko onespenean, Udalak, udalerriaren antolamenduan dauzkan zuhurtziarako eskumenez baliatuz, alegazioa zati batean onetsi zuen, eraikuntza lerroa metro batzuk harantzago eraman zuelako. Era berean, Udalak zioen zalantzan jarritako ibai bidearen aldeko txostena egin zuela Uren Zuzendaritzak, eta ez zegoela proiektua baserriarekiko mugatik begiratuta aldarazterik, horrek hirigintzaren kudeaketan arazo tekniko eta ekonomikoak sortuko baitzituen.

Bigarren, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzak ibai eta latsen ertzen antolamenduko PTSk dakartzan zehaztapenak plan partzialean betetzearen kontua argitzen duen txostena bidali zigun. Ibai eta latsen ertzen antolamenduko PTS onesten dun abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren aipatutako xedapen iragankorrak, agerian uzten du lurralde plan honen zehaztapen lotesleak

planeamenduko bitartekoei– Arau Subsidiarioak eta plan partziala- hasierako onespena PTS indarrean jarri ostean (1999ko otsailak 19) izan bada soilik aplikatzen zaizkiela.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak plan partzialaren testu berregina behin betiko onesteko kontuan izan zuen antolamendu irizpidea jakinarazi zigun, non aurkeztutako berraztertzeko errekurtsoari erantzun motibatua ematen zaion. Foru Aldundiak ez zion beharrezko iritzi gutxienezko baztertzerik jasotzeari –erreklamaziogileak nahi zuen bezala- bere ustez PTSren informazio irizpideak industria eremu horretako eraikuntza berriei ukitzen zielako, eta ez urbanizatu ezin den lurrean dauden eraikuntzei.

Ondorioz, PTS une hartan indarrean ez zegoenez, uren alorreko administrazioak berak esan bezala, kontuan izan behar da kasu honetan PTSren lotura orientazio gisa eta ez lotesle modura ulertu beharko litzateke, jarduneko administrazioek beren gain hartzen dituzten antolamendu eskumenen barruan.

• Emaitza

Uren Zuzendaritzak plan partzialaren aldeko txostena egin zuen, indarreko herri jabari hidraulikoaren legedian aurreikusitako jabari mugak betetzen zituela iritzita. Arestiko ohar horietan guztietan eta esandako txostenetan oinarrituz, ondorioztatzen da PTSko zehaztapenak ibaiaren bidean plan partzialari dagokionez ez direla lotesleak. Horregatik, ez dago inolako jarduera irregularrik inplikatutako administrazioen eginetan, plana ez baita kasu guztietan loteslea.

### ⇒ *Hiri lurraren sailkapenaren gainean* (728/2002)

• Erreklamazioa

Herritar talde batek kexa bat jarri zuen Bilboko Udalak Ugasko auzuneak(Deustuko Tailerrak izenaz ezagutzen dena) hirigintzaren garapenaren arazoaren ondorioz dagoen egoeran izandako jarduerarengatik.

• Azterketa

Etxebizitza horiek 1928an eraiki ziren, Artxanda mendi oinetan, langileentzako dentsitate txikiko etxebizitzen asentamendurako proiektua onetsi ondoren. Auzoari su eman zioten Gerra Zibilean, eta etxerik gehienak suntsituta geratu ziren. Hamarkadatan zehar, auzunearen berreraikuntza atzeratuta geratu izan da, honengatik edo bestearengatik. Gaur egun, Bilboko Hiri Antolamendurako Planak auzune horretako lurrak lur urbanizagarri ez-programatuaren Artxandako magaleko alor jarraitu gabearen barruan jasotzen ditu, eta erabilpen nagusitzat egoitzazkoa esleitzen dio. Alorra garatzeko, hirigintzako jarduera programa bat eta plan partzial bat bideratzea pentsatuta dago.

Hirigintzaren garapenak zekarren zailtasunaren aurrean, eta Deustuko Tailerrak auzoak zeukan hiri garapen mailan ere oinarrituz, jabeek Bilboko HAPO aldarazteko eta esparru hau PERI baten bidez garatzeko hiri lurtzat jotzeko proposatu zuten. Udalak, ordea, ez zion eskariari jaramonik egin, planeamendua aldarazteko ahalmena estu-estuan udalarena dela iritziz eta, udal zerbitzuek egindako txosten teknikoen arabera, dokumentuan ez zelako 1976ko Lurraren Legearen Testu Berreginaren 78. artikuluan eta Planeamenduaren Arautegiaren 21. artikuluan aurreikusitako baldintzarik betetzen zenik justifikatzen.

Jabeek, ordea, administrazio bideko errekurtsoa aurkeztu zuten, non sailkapen berrian tematzen baitziren, auzunea mendi magalean kokatuta zegoelako bitxitasuna kontuan izanda –Bilboko beste auzune batzuetan ere hala da-, horrek nolabaiteko isolamendua ekarri dielakoan. Era berean, beren ustez oinarrizko herri zerbitzuen prestazioa, hala nola, ur horniketa (ur ahoak edo ur paldoak), ibilgailuentzako bideak edo argiztapena bermatzen duten hirigintzako lanak eginak ziren. Hiri finkapenari dagokionez, hogeita bat etxebizitzako nukleoaren izatea aipatzen zuten, zeinetatik hiru egoitza gisa erabiltzen ari diren eta gainerakoa berreraikitzeko dauden.

Ingurumaria horiek ikusita, hirigintzako sailkapenak hurrenez hurren ezartzen dituen arautzutako eta zuhurtziarako izaeren kalterik gabe, Arartekoak Bilboko HAPOren aldarazpena ezestearen aurkako errekurtsoari udalak emandako erantzunaren gaineko informazioa eskatu zuen. Galdetu zuen, gainera, ea udalak bestelako planeamendu aldarazpenik egitea pentsatuta zeukan, jabeek eskatutakotik kanpo, Deustuko Tailerrak auzoko hirigintzako garapena ahalbidetzeko.

• Emaitza

Bilboko udalak erantzun zigun interesatuek sailkapen berrirako udalaren ukoa inpugnatu zutela administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan.

Horren gainean, erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Arartekoak ezin du epaitegien ebazpenik izan duten edo bide horretan zain dauden kexetan sartu. Horregatik, gai honetako gure esku-hartzea eten egin genuen.

⇒ *Auzokide bat udalerriaren hiri garapena bere jabetzako lurretan gauzatzeko proposamenaren aurka azaltzea* (815/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona batek esan zigun ez zegoela ados Gamiz-Fika udalerriko Arau Subsidiarioetako aldarazpen baten aurrerapenarekin.

• Azterketa

Planeamendua aldaraztearen aurka zegoela zioen –oraindik izapideetan dagoena-, bere jabetzako lur batzuetan bide bat eraiki nahi zutelako eta espazio libreen eremu bat ere sartzen zelako.

Udal administrazioek, udalerri bateko hirigintzako planeamendua ezartzeko beren eskumenen artean, zuhurtziarako tarte zabala daukate hirigintzako arauak prestatu eta diseinatzeko.

Horrek lurren jabeei dagokienez egoera desberdinak sortzen ditu, beren jabetzak erabilpen bat edo besterik sailkatuta ikus ditzaketelako, udalerriaren garapeneko irizpide orokoren arabera. Hiri garapearen ereduaren aukera udalerriko erabaki organoen eskuetan dago. Udalerriaren lurrari emango zaion erabilpena onartzeko ahalmenak herritarren interes partikularrei eragin diezaiekeen arren, lege antolamenduarekin bat dator, betiere motibatuta eta arrazoibide objektiboekin bateragarria bada.

Edonola ere, planeamenduaren aldarazpena prozedura konplexua da (aurrerapena, hasierako onespena, behin behinekoa eta behin betikoa), non

administrazio desberdinek esku hartzen duten eta jendaurreko informazioko izapidea dagoen. Une horretan, edozein pertsonak eta, bereziki, lurraren hirigintzako antolamenduak ukituko dienek, beren alegazioak aurkeztu ahal dituzte. Administrazioa alegazioei erantzutera behartuta dago, denen interesaren ildotik, horregatik partikularren interesetara lotuta egon barik baina.

• Emaitza

Herritarrak udalerriaren antolamenduaz helarazi zizkigun kontuak, erakunde honetan dagoen informazioaren arabera, ez dira Udalaren jarduera irregularrak, inondik inora, hiri garapenerako udal eskumenak gauzatzearen ondorio baizik.

## D) **Etxebizitza**

⇒ *Etxebizitzaren beharra dokumentuen bidez frogatu beharraren gainean* (869/2002)

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak zioen babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratu nahi zuela, baina Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak eskaria ezetsi ziola, Jabetzaren Erregistroan etxebizitza baten jabe gisa ageri zelako. Berak zioen etxebizitza hori herentziaz etorri zitzaiola, baina herentziaren eragileak etxebizitzaren gozamena bere arreba bati, ezgaituari eman ziola.

• Azterketa

Babes ofizialeko etxebizitzen araubidearen eta etxebizitza eta lur gaietako finantzaketa neurrien gaineko abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuak, 7.1 artikuluan dio babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izan ahal izateko, eskatzaileek eskariaren aurreko bi urteetan beren jabetzako, jabetza soileko, gainazala edo gozamen eskubideko etxebizitzarik ez daukatela frogatu behar dute, eta egoera horretan jarraituko dutela salerosketa eskritura publikoaren bidez gauzatu arte edo alokairu kontratua sinatu arte.

Arau horrek, ordea, dio halako etxebizitza baten onuradun izan ahalko direla beste etxebizitza baten jabariaren titular izanik legearen garapen araudian jasotako suposamenduetako batean sartzen direla dokumentuen bidez frogatzen badute.

Suposamendu berezi horiek Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduan jasota daude, esandako dekretuaren edukia garatzeko eman baitzen.

Horren haritik, 3.5. artikuluak dio halako etxebizitza baten onuradun izan daitezkeela herentzia masako etxebizitza baten jabetza soila eskuratu duten jaraunsleek, betiere beste etxebizitzarik ez badaukate.

Horregatik, interesatuari jakinarazi genion, Jabetza Erregistroan zegokion idaztoharra edo idazpena eginez, bere arrebak etxebizitzaren gainean zeukan gozamen eskubidea jaso kreditatu behar zuela, kontuan izanik Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak egindako kontsultan higiezinaren titularitatea besterik egiaztatu ez zietela.

• Emaitza

Azalpen hau kexagileari helarazi zitzaion eta espedientea artxibatu zen.

⇒ *Etxebizitzak ezgaituentzat gordetzearen gainean* (921/2002)

• Erreklamazioa

Ezgaitasun fisikodun pertsona batek zioen ez zegoela ados babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurekin, zeren aplikazioko arauak baitzioen eskaririk ez egoteagatik esleitu gabe geratzen ziren ezgaituentzat gordetako etxebizitzak kupo orokorrean esleitzeko etxebizitzetara igaroko zirela.

• Azterketa

Interesatuari jakinarazi genion aurreikuspen hori aldatu berria zuela Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko aginduak, non hauxe zioen: *"Ahalmen urrikoentzat gordetako etxebizitzak izanik, dagokion Lurralde Ordezkariak, dagoen eskaria ikusita, horiek esleitzearen gainean erabaki ahal izango du, baina babes ofizialeko etxebizitzen onuradun izateko baldintzak betez, ezinduen kupoaren barruko eskarietan sartzen diren bizikidetasun unitateen artean soilik".*

• Emaitza

Aurreikuspen horrekin erakunde honek iazko ekitaldian egindako gomendioari jaramon egin zitzaion.

⇒ *Etxebizitzen esleipenaren prozesutik kanpo uztea, etxebizitza baten jabe izan eta etxe hori etxebizitzaren beharraren ingurumarien arauan aurreikusitako salbuespenetan sartzen ez delako (1008/2002)*

• Erreklamazioa

Familia ugari bateko aitak salatu zuen ezin zuela babes ofizialeko etxebizitzarik eskuratu, bera jada etxebizitza baten jabea zelako. Etxe horrek, ordea, 54 m$^2$ zituen eta ez zen familiako guztientzat nahikoa.

• Azterketa

Planteatutako gaiak, eragin pertsonal garbia zuen arren, ez zuen Administrazioaren jarduera irregularrik erakusten, zeren BOEen salmenta eta deskalifikazioa araupetzen dituen araurik urratzen ez baitzen.

Horren gainean, babes ofizialeko etxebizitzen araubidearen eta etxebizitza eta lur gaietako finantzaketa neurrien gaineko azaroaren 26ko 306/2000 Dekretuaren 4 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, BOE bat eskuratu ahal izateko, bizikidetasun unitateko kide batek ere ez du eskariaren aurreko bi urteetan beren jabetzako, jabetza soileko, gainazala edo gozamen eskubideko etxebizitzarik edukiko, onuradunak aukeratzeko prozedurari hasiera ematen dion Sailburuaren Aginduaren dataren edo, gainerako babes ofizialeko lehenengo eskualdaketetan, behin behineko kalifikazioaren emakidaren dataren

edo, babes ofizialeko etxeen bigarren eta ondorengo salerosketetan salerosketaren kontratuaren aurkezpenaren dataren aurreko bi urteetan.

Hala ere, etxebizitza baten onuradun atera daitezke beste etxebizitza baten jabariaren titular izanik, etxebizitzaren beharraren ingurumarien gaineko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Aginduan jasotako suposamenduren batean sartuta daudela agirien bidez frogatzen dutenak.

Edonola ere, egungo araudiak dio etxebizitza batek ez dituela bizitzeko moldaerako gutxieneko baldintzak betetzen 30 $m^2$tik beherako gainazala erabilgarria badauka, eta hori, 54 $m^2$ zeukanez, ez zen kasu honetan gertatzen.

Erakunde honek kontaktu desberdinak izan zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren arduradun berriekin, berrikus litezkeen suposamenduak zehazteko, zeren, Arartekoari planteatutako erreklamazioak ikusita, 2000 urtean etxebizitzen eskatzaileentzat onetsitako araudian ezarritako zenbait baldintza betetzen zailak ikusten baitzen, ez direlako egungo etxebizitza beharren ingurumarietara doitzen.

Esandako sail horretako arduradunek esandako baldintza hori aldarazi beharra iradokitzen zuten, bizikidetasun unitatean aldaketarik dagoenean, eta etxebizitzak gela bakarra duenean, edo gainazala familiako kideen kopururako desegokia denean, ingurumaria hori nahikotzat jo behar zela ulertuz, egoera horretan zeuden pertsonek gainazal handiagoko etxebizitza bat eskuratzeko ahalbidea izateko.

Esan ziguten hori eta beste kontu batzuk ere aztertzen eta baloratzen ari zirela, aldaraztera begira eta, izatekotan, idazten ari ziren Etxebizitza Plan berrian islatuko liratekeela.

Hartara, 2002-2005erako Etxebizitzen Plan Zuzendarian, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak, familia ugariei dagokienez, etxe txikiegia edo desegokia daukaten kasuetan beste batera aldatzeko ahalbidea ezartzen du, pertsona bakoitzeko gutxieneko metro karratuen ratioa finkatuz. Era berean, BOEen diseinurako araudiak aldaraztea planteatzen du, zenbait kasutan 90 $m^2$ko gehienezko muga 120 $m^2$raino gehitzeko, eta bi ratioen artean dauden etxebizitzak familia ugariei esleitzeko, tamainaren arabera eta halako etxebizitzen eraikuntza sustatzen den promozioetan berariazko erreserba eginez.

Aldarazpen hau egungo araudi esparrua Plan Zuzendarian jasotako aurreikuspenetara moldatuta garatzeko prestatu nahi den araudian islatu beharko da.

• Emaitza

Interesatuari arestian azaldutako kontuen berri eman genion, eta gai honetako gure esku-hartzea amaitutzat jo genuen.

# 14. ZENBAIT GESTIO

## 14.1. SARRERA

Izen zabal horren pean sartu ditugu Arartekoaren bulegoak aurten egin duen era askotako jarduketa-multzoa. Arartekoaren bulegoko eginkizunak egituratzeko, kexetako gaiak arlotan bereizten dira baina atal honetan sartu ditugun kexak, euretan azaltzen den gaien berezitasuna dela-eta, ezin dira arlo horietara bildu.

Izen honen pean batu ditugun kexak askotarikoak dira eta edukiak ere, desberdinak oso; horregatik, zail da batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmentzea eta zail da horietan aztertzen diren gaiak gutxieneko barne-egitura baten barruan sartzea.

Era berean, era honetako espedienteak bitartekotza hutsaren ikuspegitik izapidetzen ditugu, horietan azaltzen diren gaiak jendearengandik hurbil daudelako eta oihartzun zabal dutelako gizartean.

Oso bestelako gaiak aztertu ditugu arlo honetan, esate baterako, ondokoak: administrazioaren jarduketen gaineko kontsulta, nudismoa dela-eta; Santa Fe probintziako Herriaren Defendatzaileak egindako laguntza-eskaria, Euskal Autonomia Erkidegoan argentinar bat hil eta hildakoaren familiakoek heriotzaren nondik norakoei eta autopsiaren emaitzei buruzko informazioa eskuratzeko zailtasunak zituztela-eta.

Era berean, azpimarrazteko modukoa da herritar batek aurkeztutako arazoa: bere datuak, bere izen onaren aurkako komentario eta guzti, web-orri batean agertzen ziren eta web-orri horretara elkarte pribatu baten orriko lotura baten bidez iristen zen. Arartekoak ezin zuen kasu horretan esku-hartu, erreklamazio-egilearen datuak aipatzen ziren atalaren egilea edo sortzailea –ezezaguna- eta web-orriarena berarena ere, bai eta elkartea ere, entitate pribatuak zirelako; beraz, kaltetutakoari jakinarazi genion Datuak Babesteko Agentziara jo zezakeela. Esan beharra dago, horrelakoetan, gugana jo baina gure erakundeak arazoari irtenbiderik emateko ahalmenik ez duenean, kaltetutako pertsonei jarduteko dituzten aukerak azaltzen eta beste nonbaitera bideratzen saiatzen garela.

Bukatzeko, beste adibide bat aipatuko dugu: euskal herritar bat Kuban ezkondu zen baina ezkontza Erregistro Zibilean ez inskribatzeko eskabidea egin zuen, hasieran, jarduketa hori (hemengo Erregistroan inskribatzea) gauzatzeko adierazi zuen arren.

## 14.2. AUKERATUTAKO KEXAK

⇒ *Gasteizko magrebtarrek dituzten arazoak etxebizitzak errentan hartzeko* (38/2001)

• Erreklamazioa

Gasteizen bizi diren Magrebeko 85 etorkinen ordezkariak Arartekoarengana jo zuten (85 etorkinen sinadurak zituzten). Kontu nagusia, atzerriko langileek Gasteizen etxebizitza aurkitzeko arazo larriak zituztela. Haien esanetan, ia ez dago etxerik alokairuan hartzeko eta dauden apurrak oso garestiak dira. Are gehiago, diru-sarrera nahikoa dutenentzat ere ezinezkoa da etxebizitza alokairuan hartzea, atzerritarrak izateagatik etxeen jabeek ez dizkietelako alokatu nahi.

• Azterketa

Kexak jasotzen duen arazoa ez da berez Administrazioak irregulartasunez jardun duelako, kexak gizarte-mailako arazoa jasotzen du eta arazo horretan hainbat faktorek du eragina; hori dela-eta, gure ustetan, Ararteko erakundea ezin da ezer egin gabe gelditu. Beraz, Vitoria-Gasteizko Udalera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailera eta Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailera jo genuen, neurriak har ditzaten, arlo horretan horietako bakoitzak dituen eskumenen barruan, arazo horri irtenbidea ematen ahalegintzeko.

• Emaitza

Aipatutako hiru erakundeek Arartekoari erantzun zioten garai desberdinetan (deigarria izan da Udalaren atzerapena, kontuan hartuta arlo horretan berak dituela erantzukizunik gehienak). Erakundeak, egiten ari diren jarduketak azaltzeaz gain, bat datoz esatean beharrezkoa dela gaiari osotasunean heltzea eta erakunde guztiak batera lan egitea, hartara, inmigrazioaren arazoan eremu desberdinetatik egiten ari diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko.

Aurreko informazioa erreklamazio-egileei jakinarazi eta espedientea amaitutzat jo dugu baina, beharrezkoa bada, administrazioek iragarri dituzten proiektuen jarraipena egingo dugu.

⇒ *Argentinako herritar baten heriotzari buruzko zenbait informazio eskuratzeko zailtasunak* (234/2002)

• Erreklamazioa

Argentinako Santa Fe probintziako Herriaren Defendatzaileak idazki bat bidali zuen gure bulegora. Idazkian laguntza eskatzen zigun, Argentinako herritar baten heriotzari buruzko zenbait informazio eskuratzeko. Argentinar hori Donostian hil zen eta berak zioen haren senitartekoek zailtasunak zituztela heriotza-agiria eskuratzeko.

• Azterketa

Behin espedientea aurkituta, Donostiako Instrukzio Epaitegi batean izapidetu zen, heriotza-agiria eskatu genuen Erregistro Zibilean. Heriotza-agirian heriotzaren arrazoia jasota ez zegoenez, gestio informala egin genuen diligentzien ardura izan zuen epaitegiko ofizialarekin. Haren bidez jakin ahal izan genuen, autopsiaren emaitzaren arabera, kausa naturalen ondorioz hil zela. Era berean, jakinarazi zigun hildako pertsona pentsio batean bizi zela herrikide batzuekin eta, horiek emandako datuei esker, Kontsul-etxeak Argentinako senide batzuk aurkitu ahal izan zituela eta senitartekoak aipatutako funtzionarioarekin harremanetan jarriak zirela.

Antza denez, familiak gorpua herrira eraman zuen baina ezin zion gastuari aurre egin; beste alde batetik, gorputegian, behin autopsia eginda, bost egunetan –gehienez ere- eduki ahal zuten eta beraz, bost egunak igarota, Donostiako hilerrian lurperatu zuten. Epaitegiko ofizialak baieztatu zigunez, berak bidali zizkien familiakoei hildakoaren gauzak, eta lurperatuta zegoen lekuaren gaineko informazioa ere eman zien.

• Emaitza

Aurreko informazioa gure bitartekotza eskatu zuen Herriaren Defendatzaileari bidali genion.

⇒ *Autoa bahituta autoaren jabeetako batek GSINrekin zuen zorra dela-eta* (358/2002)

• Erreklamazioa

Erreklamazio-egileak adierazten du Gizarte Segurantzako Diruzaintzak autoa bahitu diola –autoaren jabeak bera eta ama dira- amak GSINarekin zuen zorragatik. Autoa amarena ez zela frogatzen saiatu den arren, enkantean jarriko dutela.

• Azterketa

Kexa hau gure eskumen-eremutik kanpo zegoen, argi eta garbi, baina argi zegoen baita, gestioa azkar egin ezean, ez zuela eragingarritasunik izango. Beste alde batetik, datu gehiago eskuratzeko erreklamazio-egilearekin izandako elkarrizketan esan zigun kexa Herritarren Defendatzaileari ere bidali ziola. Horregatik guztiagatik, asmo oneko gestioa egitea erabaki genuen Donostiako Diruzaintzako aholkularitza juridikora joz.

Ibilgailua enkantean jartzeko aurreikusitako eguna zein zen esateaz gain, adierazi ziguten arazoa non zegoen: ondasun higigarrien erregistroan automobila amaren izenean zegoen. Diruzaintzak enkanterako oharpena eskatuta dauka eta erregistratzaileak horretarako baimena eman du; bada, horrek esan nahi du erregistro horretan autoa amaren izenean badago, eta Epeka Saltzeari buruzko 28/1998 Legearen 15. artikulua betetzeko, jabetza-presuntzioa dagoela. Presuntzioak aurkako probak onartzen ditu baina horretarako, erreklamazio-egileak hirugarrentza-epaiketara jo beharko luke.

• Emaitza

Aipatutako informazioa jakinarazi diogu interesdunari.

⇒ *Estatistikako Euskal Erakundeari laguntzeko obligazioa estatistikako esku-hartzeak egitean* (561/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona batek esku-hartzeko eskatu zigun Estatistikako Euskal Erakundeak (EUSTAT) eskatu ziolako, familiako beste kide batzuei ere bai, estatistikako eragiketa batean laguntzeko, hain zuzen ere galdera-sorta bati erantzuteko. Beraren ustetan, oraingoan ez zuen zertan erantzun, lehenago beste eragiketa batean parte hartua zelako eta orduan adierazi zitzaiolako amaitu zuela.

• Azterketa

4/1986 Legeak, apirilaren 28koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika arautzen du eta horren arabera, EUSTATi arautegian zehaztutako informazioa ezinbestean eman behar zaio, arautegi berean adierazitako pertsonei dagokienez (10. artikulua). Kasu batean bakarrik izango litzateke borondatezkoa informazioa ematea:

norbanakoaren datu bereizgarriak izan eta ohorearen eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideari buruzko legeriak babestutakoak izatea.

Lege berarekin bat etorrita, informazioa emateko epea igaro eta informazioa, eskatu den eran, eman ez bada, nahikoa da obligazioa bete ez dela jotzeko; gainera, horretarako ez da adierazpenik edo beren beregiko jakinarazpenik egin behar (13. artikulua). Obligazioa ez betetzea, gainera, administrazioko arau haustea da eta hortaz, zehatu egin daiteke (24. artikulua).

• Emaitza

Erreklamazio-egilearengana jo genuen jakiteko zehatz-meatz EUSTATek zer-nolako estatistika kontua erantzuteko eskatu zion berari, baita bere familiako nortzuei egin zitzaien eskakizun bera ere; izan ere, aplikatzekoa den lege-araubidearen arabera, datu horiek jakitea ezinbestekoa zen –kexan ez zizkigun datu horiek eman- guri eskatu zitzaigun jarduketaren nondik-norakoak zehazteko.

Txostena amaituta, kexa-egilea artean gure eskakizunei erantzun barik zegoen.

# B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI

## 1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI

Garatutako gizarteetan banakako eskubideak sakonki babestu dira. Izan ere, sarritan talde batzuk baztertu dira mendeetan zehar: generoaren ziozko bazterketa egon da. Bistan da emakumeen bazterkeriazko egoera latzagoa dela biztanleek oinarrizko eskubide politiko eta sozialak bermaturik ez dituzten herrietan. Gizarte pobrezia eta bidegabekeriazko testuinguruetan emakumeak eta emakumezko umeak beti egoten dira baztertuenik: hezkuntzara edo osasun-arlora sartzea ukatzen zaie eta, gainera, ez dira beren bizitzaren ez beren askatasunaren jabetzakoak ere, jaiotzen uzten bazaie eta abortu edo haur-hilketa selektiboen bitartez akabatzen ez badira.

Emakume horien egoera gurearekin erkatzea munduko aldeen arteko ezberdintasun zaurgarria hutsaltzea izan daiteke. Era berean, egia da emakumeen eskubideen errespetu maila herrien garapen-indizerik argienetakoa dena. Guztiarekin ere, serios-serios hartu behar ditugu kontuan gure gizartean dirauten bazterketak. Are gehiago, esan daiteke ezen herri aberatsetako emakumeen eta herri txiroetakoen artean herri batzuetako eta besteetako gizonen artean baino amankomuneko puntu gehiago daudela. Gure kultur eremuko indarkeria sexistaren iraupen onartezina dateke, beharbada, horren frogarik nabariena.

Alabaina, azpimarratu behar da ezen indarkeria hori emakumeek hemen egun jasaten jarraitzen duten desberdintasun-egoeraren muturrik agerikoena besterik ez dela. Bazterkeriaren beste agerpide batzuk errazki hauteman daitezke lan-eremuan. Gertatzen den hori aitortuta, Europako Parlamentuak beste zuzentarau bat (2002/73/EE) onetsi du, enplegua atzitzeari, lanbide heziketari eta promozioari eta lan-baldintzei dagokieneko tratu-berdintasunaren abiaburua aplikatzekoa. Bertan gogoratu du ezen Europar Batasuna eratu duen Itunbenak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eginkizun eta helburu bezala aldarrikatu duela, hau da, oraindik iritsi ez den jomuga bezala.

Bistan da aipatutako bazterkeketa-arlo biok, genero-indarkeria eta lanerako harrremanak, aipa ditzakegun beste batzuk (etxeko lana banatzea, menpeko pertsonak zaintzea, botere politiko eta ekonomikoan parte hartzea eta abar) bezala, instituzio honen eskumeneko eremutik kanpo geratzen direla: instituzio honen funtzio nagusia euskal administrazioak kontrolatzean datza. Nolanahi ere den, benetako berdintasunasustatzeko konstituzio-agindua betetzeko, herri botereak, apurka-apurka, gero eta parte handiagoa hartzen dabiltza sexu-ziozko bazterkeriaren aurkako borrokan. Hori dela eta, arartekoaren esku-harmena goraka doa.

Ildo horretatik, iaz iragarri genuen *Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako Autonomia Erkidegoko erakunde-arreta*ri buruzko txosten monografikoa egiteko asmoa. Urteko txosten hau kaleratzeko prest uztean, lana egiteko azken fasean zegoen. Bertan bildu nahi izan da administrazioek aipatutako taldeari egiten dizkioten zerbitzuei buruzko informazio guztia (lege eta psikologi aholkularitzakoei harrera-pisuei eta abarri buruzkoa), zertarako-eta haien kalitatea baloratu eta haiek dauden beharrizanei egokitzeko.

Aurtengo beste berritasun garrantzitsu batzuk honakook dira: lan eta famili bizitzak bateratzea bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimenak eta seme-alabak dituzten familientzako diruzko laguntzak. Geroago (3. atalean) aipatuko ditugu neurriak praktikan

jartzeak sorrarazi dituen kexak, baina komenigarria da hausnarketa aurreratzea: laguntzak genero-ziozko rol-banaketa ezberdina sakontasunez errotuta dagoen eremuaren gainekoak direnez gero, gerta daiteke etxeko erantzukizunak gizon eta emakumeen artean orekaz banatzea bultzatu beharrean haiek emakumeak tradizioz emakumeentzakotzat harturiko funtzioekin lotzea indartzea.

Azken batean, dirudienez, ezin da bultzatu bizitza publikoan berdintasuna, lehen edo aldi berean eremu pribatuko bazterkeriazko egoerak astindu barik. Arartekoa, aipatu eremuan esku hartu ezin duen arren, eta horregatik problematika hori islatzen duten kexa asko baztertu behar dituela ere, salatzekoa salatzen saiatzen da, edo, ahal duen neurrian, giza eskubideen kultura zabaltzen. Kultura horren oinarrietako bat pertsona guztien arteko berdintasun osoa da.

Bistan da herriadministrazioen barruko ibileran ere ez dela iritsi nahirikako berdintasun-egoera hori, emakumeek enplegu-eremu horretara sartzeko lehen baino erraztasun handiagoa izan arren. Testuinguru horretan, jakin ditzakegun zeharkako edo ezkutuko bazterkerien kasu posibleak agerian jartzen eta, ahal denean, konpontzen saiatzen gara. Hala ere, bistan da horretan lanik handiena Emakundek egiten duela.

Instituzio hau lanean egunero moldatzeari berari dagokionez, gizon eta emakumeen arteko baldintza-ezberdintasuna beti gogoan izaten saiatzen gara, halaber. Sail betearazlerik osatzen ez dugula eta, genero-perspektiba hartzearen xede nagusia analisia da. Hau da, urtean zehar egindako jarduera aztertzean, bazterkeriazko tratuaren inoizkako balizkoez gain, arazoa protagonistaren emakumezkotasuna dela eta sortu edo latzagotzen den gaiak hautematen saiatzen gara, eta Administrazioaren hasierako jarduketak edo guk esku hartzearen emaitzak emakume taldearentzat ondorio ezberdinak dituen beste batzuk. Hori guztia aztertzean, berdin da kexa azaltzen duen pertsonaren generoa.

Erakunde honen jarduerari buruz egiten den zeharkako azterketa, emakumeen interesak ikustekoa, aplikatzen da bereziki zaurkorrak diren beste talde batzuekin ere: atzerritar pertsonekin, adinez txikiekin, zaharrekin, minusbaliatuekin eta abarrekin. Hitz lauz, giza taldeon barruan genero-perspektiba aplikatu eta haien problematika zehatzaren «emakumezko bertsioa» nabarmendu ahal da. Hala ere, argi azaltzearren, atal bakarra erabili dugu emakumeak bereziki ukitzen dituzten gaiak aztertzeko. Guztiarekin ere, ez dugu ahaztu behar emakumezkotasunak gizartean baztertuta dagoen edozein taldetan bazterkeria ugaritzeko ekarri ohi duen ondorea.

Bukatzeko nabarmendu behar denez, instituzio honek genero-arazoei ematen dien garrantziaren ondorioz, bertako kide batzek gai honen gainean prestatzeko ikastaroetan parte hartu dute edo gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko txostenak aurkeztu dituzte horri buruz eztabaidan aritzeko hainbat gunetan.

Jarraian, instituzio honi 2002an zehar heldu zaizkion kexak aztertuko ditugu, emakumezko erreklamatzaileek aurkezturikoak, azaldutako arazoak zein diren kontuan hartu barik.

## 1. **Emakumeak erreklamatzaile gisa**

Soziologi estatistikari buruzko atalean (III. kap.), pertsona erreklamatzailearen kexa kopuruaren generokako banaketa aipatu dugu. Bertan, kexok dagozkien gaiak aztertzeko kopuruak banakatu gura ditugu, nahiz eta, aurreko urteetan azaldu dugun bezala, zenbakizko datuak abiapuntu hartuta azalpen posibleak aurretik ekartzea erraza ez den.

Erreklamazioak arloka eta generoka batzeari ekin aurretik, ondo ikus dezagun emakumeek aurkeztutako erreklamazioetako ehunekoa. 1998an iritsitako indize altuaren ostean, beheranzko joera ikusia zen, 2001ean berriz alderantzikatua zela zirudiena. Alabaina, ari garen denboraldian, emakumeek ekarritako kexen proportzioa urritu egin da berriz. Honako taula honetan ikus daiteke ehunekoen bilakaera:

| | Emakumeak | Gizonak | Taldeak |
|---|---|---|---|
| 1996 | 36,74 | 46,89 | 16,25 |
| 1997 | 39,88 | 48,72 | 11,90 |
| 1998 | 45,19 | 46,84 | 7,97 |
| 1999 | 38,97 | 45,99 | 14,65 |
| 2000 | 36,55 | 49,80 | 13,65 |
| 2001 | 41,31 | 43,82 | 11,57 |
| 2002 | 38,23 | 47,65 | 13,57 |

Emakumeek mahaigaineraturiko kexak urritu badira ere, 2002an zehar berriz hazi da haiek zuzeneko arretako gure bulegoetara egindako bisiten ehunekoa. Urte batzuetan ehuneko hori % 39 ingurukoa izan zen. 2001ean % 41,26koa izan zen. 2002an % 43,61ekoa izan da. Beste alde batetik, proportzioa berdineragotu egin da hiru lurraldeetan. Handiena, % 46,05ekoa, Gasteizko bulegokoa izan da; eta oso antzekoak (% 42,64koa eta % 42,03koa) izan dira Gipuzkoako eta Donostiako bulegoetakoak, hurrenez hurren. Aurreko datuak bakarrik joaten diren emakumeen aldetikoak izan dira, bisita egin digutenak pertsona taldeak eta bikoteak diren kasuak zenbatu ez ditugularik. Soziologi estatistikaren atalean (txosten honen III.6 kap.), instituzio honen bulegoetara joan diren pertsonen kopuru absolutuak kontsulta daitezke.

Ikus dezagun orain nola banatu diren gaika emakumeek aurkezturiko 479 kexak:

| Arloa | Gizonak | Emakumeak | Taldeak | Anonimoa |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 12 | 5 | 2 | – |
| Gizarte Ongizatea | 27 | 51 | 6 | – |
| Kultura eta Elebitasuna | 10 | 3 | 11 | – |
| Herriaren Defendatzaileak | 32 | 29 | 35 | – |
| Hezkuntza | 20 | 27 | 10 | 1 |
| Funtzio Publikoa | 41 | 67 | 13 | – |
| Hainbat kudeaketa | 7 | 5 | 3 | – |
| Ogasuna | 45 | 30 | 4 | – |
| Barne Arloa | 80 | 33 | 15 | – |
| Justizia | 12 | 14 | 5 | – |
| Ingurumena | 36 | 25 | 8 | – |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 51 | 51 | 18 | – |
| Baztertuak | 92 | 47 | 14 | 6 |
| Osasuna | 34 | 42 | 4 | – |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 5 | 4 | 3 | – |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 93 | 46 | 19 | – |
| **Guztira** | **597** | **479** | **170** | **7** |

Argi dago kopuruak azterturik solik ezin direla ondorioztatu emakumeak arazo batzuk bakarrik mahaigaineratzera eramaten dituzten faktoreak. Beste alde batetik, maiz gertatzen da arazoak zuzenean ukitutako pertsona hura instituziora bidaltzen duena ez izatea. Hori egiaztatuta, oso interesgarria da, gure ustez, emakumeek beren arazoak zein kasutan mahaigaineratzen dituzten aztertzea, eta zeintzuk ari diren zaintzen dituzten pertsonen interesen defendatzaile gisa eta, azkenik, zein arazotan eskuordetzen dioten beren ordezkaritza gizonezkoari. Egun, instituzio honek ezin dio horrelako analisia egiteari ekin, baina nonbait analisi horren bitartez jakin daiteke zergatik joaten diren hiritarrak arartekoarengana, eta pertsonaren generoaren arabera ezberdintasunik agertzen den egiaztatu.

Oraingoz, emakumeek zuzenean azaldutako arazoei buruzko azaleko hausnarketarekin konformatuko gara.

Azken urteetan ohikoa izan den bezala, emakumeek sinatutako kexa kopururik handiena bildu duena Funtzio Publikoa da. Gainera, kopuru hori gizonezkoek gai berari buruz aurkeztutako erreklamazio kopurua baino askoz handiagoa da. Horretan eragina duke, beste faktore batzuen artean, herri enpleguan emakume asko agertzeak. Izan ere, emakumeak baztertuago daude lan-merkatu pribatuan herri enpleguan baino.

Emakumezko taldearen kexak gizonezkoenak baino askoz ugariago diren arloak Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Osasun Arloak dira. Hori ikusi izan da dituela zenbait urtetatik, aldakuntza txikiak egon dira baina (esate baterako, iaz talde bion kexak parekatu ziren Osasunean eta Gizarte Ongizatean). Nolanahi ere den, ekitaldi honetan txit deigarria da azken arlo horretan egiaztatu den ezberdintasun handia. Izan ere, arlo horretan emakumeen erreklamazioak gizonezkoenak ia halako bi izan dira. Izan daiteke ezberdintasun horrek emakumeek menpeko pertsonak zaintzen denbora gehiago ematearekin zerikusia izatea, kexa horietariko askok adinez txikien babesarekin edo/eta tutoretzarekin, pertsona zaharrentzako arretarekin, gaixoekin eta abarrekinzerikusia baitute.

Ingurumen arloan generokako banaketa nahiko orekatuta egoten da eta, are, sarritan nagusi izaten dira emakumeek azaldutako arazoak. Ez da ekitaldi honetan honela gertatu, baina emakumeen kexa asko jarduera gogaikarriei, zarata-arazoei eta abarri buruzkoak dira. Are gehiago, espediente batzuetan erreklamatzaile gisa gizona agertzen den arren, arazoari buruzko informazio zehatza ekartzen duena etxeko lanak egiten dituen eta, horregatik, etxean ordu gehiagotan ematen duen pertsona da.

Antzeko zerbait ikusi dugu Herri Lan eta Zerbitzuen arloaren barruan, herri garraioaren atalean, non ia kexa guztiak emakumeek azaldu dituzten. Izan ere, beraiek gizonezkoek baino sarriagotan erabiltzen dute herri garraioa, beren gizarte taldekoek baino are sarriagotan. Edozelan ere, aurrekoetan gertatu ez den bezala, 2002an talde biok gai honi buruz aurkeztutako erreklamazio kopurua berdina da.

Ez da kexarik gehien gizonezkoek aurkeztu duten arloetan berritasunik ikusi: Nekazaritzan, Industrian, Merkataritzan eta Turismoan; Kulturan eta Elebitasunean; Ogasunean; Barne arloan… Alabaina, 2002an askoz handiagotu da diferentzia Hirigintza eta etxebizitzan. Gainerako arloetan bezala, ezin da karien azalpenik lortu, baina, kexa asko famili egoitzari buruzkoak (esate baterako, babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeari, etxebizitza horiek eraikitzetiko akatsei, hirigintza-legezkotasunaren kontrako obrei eta abarri buruzkoak) direla eta, pentsa daiteke bizikidetza-unitateak bere ordezkaritza gizonari eskuordetzen diola. Horrek iradokitzen duenez, zelanbait bizirik dirau «famili buru»aren kontzeptu patriarkalak.

Beste alde batetik, berriz parekatu dira Justiziako kexak eta Herriaren Defendatzailearengana bidalitakoak. Arlo horietan azken urteetan gizonezko erreklamatzaileen nagusitasuna ikusia zen. Tramitatzeko onartu ezin izan diren arazoen artean, askoz ugariago izan dira, oraindik, gizonek ekarritako arazoak, kontabilizatuak behintzat.

## 2. **Sexuaren ziozko diskriminazioak**

Ikusi den bezala, ez dira ohikoak instituzio honetara Herri Administrazioak eragindako genero-ziozko tratu ezberdina salatzeko heltzen diren kexak. Beharbada Irungo eta Hondarribiko Alardeei buruzko espedienteak dirateke erreklamatzaileek arduradun publikoei bazterkeriazko jarduketa berariaz egotzi dieten kasu bakarrak..

Jakina den bezala, herriotako gatazka 1996an sortu zen. Izan ere, biztanle asko emakumeek herriotako jai-ospakizun nagusian berdintasunez parte hartzearen kontra zeuden. Beren aldetik, herriotako udalek pertsona guztien arteko benetako berdintasuna sustatu ez eta jarrera pasiboa hartu dute, emakumeek parte hartzearen kontra agertu ez badira. Eta egin dute emakumezko taldea baztertzea dakarten ekitaldi publikoak egiteko baimena eman ere.

Zenbait epaik ezarri dute ezen Alardea egitea ez dela manifestazio-eskubidea erabiltzea: antolatzailea edonor dela ere hori sexuagatiko bazterketa onartu ezin den jendaurreko ikuskizuna da. Epai horien ostean, 2002an zehar, ikusmolde neurri batean kontrajarriak agertu dituzten ebazpenak eman dira. Horrela, Auzitegi Gorenak «Alarde tradizional»aren aldekoek jarritako errekurtsoa behin betiko baztertu eta herriko jai-ospakizunetan parte hartzeko emakumeen eskubidea aitortu duen bitartean, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak erakunde pribatuek emakumeei «eskopetari» bezala desfilatzea eragotzita antolaturiko Alardeak egin eta ospatzeko alkate bion baimen banaren baliozkotasuna berretsi du.

Gure aldetik, udaletako agintariek aipatutako jendaurreko ikuskizunak egiteko aukerari buruzko iritzia eman aurretik, udal bioi gure iritzia jakinarazi genien. Gure iritziz, ez zuten biztanleen erdiak emakumeak izateagatik baztertuko zituen jairako baimenik eman behar. Alkate biek 1001ean ez ziguten kasurik egin eta arazoa auzitegietaratu zen. Hori zela eta, ez genuen udalen erabakiei buruzko baloraziorik egin.

Alabaina, legeak eratxiki dion funtzioa betetzeko, arartekoak uste izan zuen ezen Alardeari begira sortutako gizarte gatazkari buruzko zenbait hausnarketa orokor egiten eta eragiten jarraitu behar zuela. Gatazka hori ezin da konpondutzat jo ezelan ere. Horregatik, arartekoak 2002ko urtarrilean alkate biei berriz gogora ekarri die ezen pertsona guztien arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko konstituzio-betebeharrak eta berau zailtzen duten oztopoak astintzeak herri botere guztiak eta, hortaz, udal biak ukitzen dituela.

Erakunde honek uste zuen ezen egungo egoera (emakumeen partaidetza konpainiako kantinera batekoa da) sexu-bazterkeriazkoa zela eta udal korporazioek horrelako egoera gainditzen saiatu behar zutela berdintasunezko Alardea egitea bultzatuz eta nahi zuten personei soldadu bezala eransten utziz.

Horren ondorioz, alkateei esan genien biztanle guziek beren egin ahal zuten Alarde ez baztertzailea egiteko gizarte adostasuna zabaltzeko ekimenak irudikatu, egituratu

eta laguntzeko. Pertsona guztien funtsezko eskubideak errespetatzen dituen kultur eta jai manifestazio edo agerraldiak bakarrik izan ahal du herri botereen laguntza. Eta, halaber, herri botere guztiek (udalek bereziki, hiritarrengandik hurbil baitaude) Alardea egin eta benetako berdintasuna bultzatzeko dagoen era bakarrarekin konpromiso eraginkorra izan behar dute. Horrek jardun beharra dakar, elkarrizketa, jarrera ezberdinen arteko topaketa eta abar bultzatzeko, baita emakumeak baztertzen diren ekitaldi publikoak egiten zuzenean, zeharka (adibidez, tartean jarritako erakundeen bitartez) eta, are, alderauzketa bidez lagundu beharrik ez izatea ere.

Kontu hau bukatzeko, azaldutako udal jarduketen kontra jarrita, Arabako Foru Aldundiak 2001eko San Prudentzioko Danborradari buruz izandako jarrera aipatu behar da. Gastronomi sozietateek emakumeei danborrari bezala parte hartzen utzi nahi ez zietenez gero, Foru Aldundiak oharrarazi zien ezen, haiek bazterkeriazko jarrera horretan irautera, diru-laguntza kenduko ziela. Hori zela eta, sozietateak irizpidez aldatu ziren.

Halaber, alderauzketagatik behintzat Herri Administrazioari egotzi ahal zaion bazterkeriazko egoera ikusi ahal den beste eremu ezberdin bat emakume presoena da. Berriro gogora ekarri behar da ezen presondegietako emakumezko biztanleen bizi-baldintzak gizonezkoenak baino txarragoak direla, sail eta azpiegiturei dagokienean bereziki. Esate baterako, EAEko lurraldean ez dago emakume presoak hiru urtetik beherako beren umetxoekin bizi izan ahal diren modulurik. Justizi arloari buruzko atalean (II.8.2 kap.) honakoa sartu da adibide gisa: Martutenen presoaldi prebentiboan zegoela bikiak izan zituen kolonbiar emakume bati gertatutakoa. Hori ez da jakin dugun kasu bakarra: Palentziara bere umetxoa zaindu ahal izateko lekuz aldatu behar izan zuen Langraitzeko emakume preso baten berri jakin genuen, halaber; hori zela eta, Araban zituen laguntza eta harreman sozialak galdu zituen.

Nolanahi ere den, kontuan hartu behar da ezen emakume presoen arazo hori eta bestelakoak (ordaindutako lana atzitzeko zailtasunak, haientzat araubide irekiko modulurik ez egotea eta abar) beste bazterketa-faktore batzuk aldi berean bateraturik larriagotzen dira. Bistan da generoagatiko bazterketaren ondoreak atzerritar jatorriko emakumezko presoengan, ijito-etniakoengan, drogen menpekoengan eta abarretakoengan.

Orain arte, generoagatiko tratu ezberdineko hainbat egoera ikusi ditugu. Berorietan zuzeneko inplikazioa izan du Herri Administrazioak, eta, hortaz, egoerotan zerikusia du erakunde bermatzaile horrek edo beste batzuek egindako kontrol-lanak. Baina ikuskatzea askoz zailagoa da bazterkeriaren jatorria norbanakoen jokabidea denean. Egin-eginean ere, horrelakoetan, epai-organoek bakarrik ezarri ahal dituzte bateraturiko erantzukizunak eta, hala denean, zigortzeko edo konpontzeko neurri egokiak.

Agerian behin eta berriz jarri dugun bezala, emakumeen aurkako indarkeria da generoagatiko bazterketa adierazteko biderik muturrekoena eta onartezinena. Era berean, azaldu dugu ezen arartekoak giza eskubideak zaurtze larri horren aurka esku hartzea sarritan ezin bideratuzkoa izaten dela, arazoak auzitegietara eramaten baitira. Hala ere, fiskalari emakume baten kexa bidali genion. Egin-eginean, auzitegi epaileak ez bide zuen ezer egin, erasotzaileak ezarri zitzaizkion neurriak bete ez bazituen ere. Bestela, erreklamazioa Herriaren Defendatzaileari bidali zitzaion. Izan ere, sexu-erasoa jasan zuen emakumeak okerreko jarduketa egotzi zien Guardia Zibileko kideei.

Oso gauza berezia gertatu zen: bere emaztearen eta alabaren aurka indarkeria erabili zuen gizona udaltzaina izatea. Hori dela eta, instituzio honek esku hartu du dagokion udalean. Aurreko kasuak Justizi arloaren sarreran (II.8.1 kap.) aipatuta daude.

Halaber, arartekoaren Barne arlok jarduera azaltzean (II.7.1 kap.) aipatuta dago Gasteizko Udaltzaingora tratu txarrak salatzera joan zen emakume baten erreklamazioa. Hark, bere ustez, agente batzuengandik oso arreta kaskarra jaso zuen. Kexa ikusita, instituzio hau hiriko alkatearengana joan zen salatutako polizi jarduketari eta inplikaturiko agenteei espedienteren bat inoiz irekitzeko aukerari buruzko informazioa eskatzera. Ikuspuntu orokorragotik, *etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko 2001eko urriaren 30eko Erakundearteko Akordio*aren bitartez onetsitako jarduketa-protokoloa aplikatzea gura genuen, eta Udaltzaingoko kideei emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskainitako prestakuntzaren berri jakin nahi genuen. Txosten hau idazten ari ginelarik, arartekoaren instituziora Udalaren erantzuna heldu zitzaigun, baina oraindik ez da iritsi horri buruzko ondoriorik.

Beste alde batetik, 2002aren hasieran, Emakundek jakinarazi zigun ezen Ertzaintzak eskatu zuten emakumeei beren salaketaren kopia eman barik zirauela. 1998an instituzio honek zentzu horretako gomendioa egin zuen. Gomendio hori azpimarratu nahi genuen. Ertzaintzari gogora ekarri genion ezen, ahozko salaketen kasuetan, zihoakion pertsonari bere adierazpenaren idatzizko kopia eman behar ziola. Kudeaketa horiek eta Emakundek egindakoak ikusita, Herrizaingo Sailak polizi jarraibideak aldarazi zituen, zertarako-eta tratu txarren eta sexu-erasoen balizko edo kasuetan behar bezala jarduteko, hots, modu horretara jarduteko.

Genero-indarkeriaren ondoriozko problematika larriaren atala bukatzeko, adierazi behar da ezen arartekoak 2002an zehar pertsona guztien benetako berdintasun osoaren aldeko bere jarrera argia hainbat forotan azaltzeko parada izan duela. Horrek berekin dakarrenez, herri botere guztiei indarkeria sexistaren eta, azken batean, emakumeen menpekotasunaren aurkako borrokan ausartasunez parte hartzeko eskatu behar diegu. *Genero-indarkeria jasan duten emakumeentzako Autonomia Erkidegoko erakunde-arreta*ri buruzko txosten monografikoa aurkezten denean, ideiok jorratzeko aukera izango dugu berriz. Txosten hori atal honen sarreran aipatu dugu.

Giza eskubideen kultura zabaltzeko eta bazterkeria salatzeko gure lanean, hemen bi kasu aipatu behar ditugu, lan-eremuan generoagatik ezberdin tratatzearen salaketa bana azaldu zaigun bi kasu alegia.

Haietarik lehenengo kasua 2001aren bukaeran jaso genuen: enplegua erregulatzeko espedientea hasia zuen arabako enpresa bateko emakumezko langileen talde batek ustezko bazterkeriazko tratua salatu zuen. Taldeak azaldu zuenaren arabera, enpresak lan-harremanak iraungitzeko hasitako prozesuak ez zituen berdin ukitu enplegatu guztiak. Izan ere, langile finkoei zegokienean, eragin biziagoa zuen emakume taldearen baitan eta, bereziki, umeak izanak zituzten edo haurdun zeuden emakumeengan. Arazo hori eremu pribatuan sortutako gatazka izan arren, arartekoak uste izan zuen zeozer egin behar zuela jasotako salaketaren aurrean. Hori zela eta, gertatutakoa Lan Ikuskatzailetzari jakinarazi zion.

Erantzun gisa, aipatu erakundeak egindako ikerketari buruzko txosten zabala eman zigun. Espedientearen barruan sartuta emakume proportzio handiagoa egotearen kariak justifikatzeari zegokionean, enpresak argudiatu zuen ezen emakumeen lan-posizioa hertsiki errespetatu zuela eta enplegua erregulatzeko irizpideek ez zutela inplikaturiko langilearen generoarekin zerikusirik izan: haiek lanpostuari egokitzeko irizpide teknikoekin bakarrik zerikusia zutela eta, batez ere, esperientziarekin lotuta zeudela esan zuen.

Lan Ikuskatzailetzak ondorioztatu zuenez, ez zegoen generoagatiko bazterkeriazko tratuen zantzurik. Izan ere, bazirudien espedienteak ukituriko langileen artetiko emakumeen proportzorik handiena irizpide objektiboei (antzinatasun txikiagoari...) zegokien. Gure ikuspuntutik, kasu honetan, detektaturiko ezberdintasun objektiboak emakumezko taldeak lan-eremuan jasaten duen baldintza-gutxiagotasun generikoaren ondorio bat erakusten du.

Arartekoarengana jo zuen enpresa baten lan egiten hasteko aukeratu zen emakume batek ere. Baina, enpresan lan egitera sartu zen egunean, kontratua sinatu baino lehen, haurdun zegoela azaldu zuenez gero, ez zen lan-harremanik egin. Hasiera batean, erreklamatzaileak enpresa hori larrialdi-zerbitzu batzuk kudeatzeko Osakidetzarekin itundutakoa zela esan zuela eta, herri erakunde horren aurrean esku hartzeko aukera aztertu genuen. Alabaina, ez genuen eskurik hartu. Izan ere, Administrazioarekin itundutako ikastetxeekin gertatzen ez den bezala, osasun-legeriak ez du hitzarmena sinaturik duten enpresetako langileen kontratazioari eta enplegu-baldintzei buruzko kontrolik ezarri. Nolanahi ere den, guk erreklamatzaileari Emakundera eta Lan Ikuskatzailetzara jotzeko gomendioa eman genion.

Beste antzeko kontu bat jakinarazi zuen emakumezko hiritar batek. Berak esan zuen ezen, haurdun zegoela eta, udal batek ez zuela Ekintza Positiboko bere II. Plana egiteko kontratatu. Kasu horretan, salatutako gertaerak kexa jarri baino ia bi urte lehenago gertatuak zirelako sortu zen arazoa. Horrek erreklamatzaileak egindako adierazpenak ikertu eta egiaztatzea oso zaildu zuen. Horregatik, erreklamatzaileari argibide zabalgarriak eskatu zitzaizkion II. plan hori egina zen, hori egiteko beste pertsonarik kontratatu zen eta abartu zen jakiteko. Datu horiek ez ziren ekarri eta ezin izan zen salatu zen bezala berdintasun abiaburua inoiz hautsi zen ikertu.

## 3. **Emakumeak bereziki ukitzen dituzten beste kontu batzuk**

Atal honetan ekin nahi zaien gaiak ez dira tratu ezberdineko balizko bezala azaldu, baina emakumeentzako problematika zehatzak edo ondorio ezberdinak agerian jarri dituzte. Horrek sarritan esan nahi izaten duenez, gizarte sistemak sendotutako bazterkeria edo menpekotasun-egoerak daude gai zehatzaren azpian. Gure ustez, horixe gertatzen da famili eta lanbide erantzukizunak gizon eta emakumeen artean banatzearekin zerikusia duten arazoetan.

Gai horri dagokionez, berritasun garrantzitsu bi gertatu dira 2002an zehar. Eusko Jaurlaritzak seme-alabak dituzten familiei diruz laguntzeko, alde batetik, eta, bestetik, lan eta famili bizitzak bateratzea sustatzeko antolatutako neurriez ari gara: 176/2002 eta 177/2002 Dekretuez, hurrenez hurren.

Jakina denez, *Familiei laguntzeko erakunde-plan*ak bigarren ondorengotiko adopzioetara eta jaiotzetarako eta anitzak diren adopzioetarako eta erditzeetarako mundu osoko laguntzak ezarri ditu. Ekimen horrek sorrarazi dituen kexen artean, ugari dira laguntzen denbora-mugarekiko adostasunik ezak eragindakoak. Izan ere, laguntzok haurra 2002ko urtarrilaren 1az geroztik jaio denean bakarrik aplikatzen dira. Komunikabideetan neurriak data hori baino lehenago hedatu zenez gero, gero zapuztu diren igurikapenak sortu ziren.

Data horrek ez du arazorik sortu gainerako laguntzei (familia ugari eta erditze edo adopzio anitzekoei) begira. Izan ere, urterokoak dira eta, proiektuan hasieran aurreikusi ez zen bezala, aurreko adopzio eta jaiotzetarakoak dira, halaber, bakoitzean adierazitako adin-beharkizunak betetzen badira. Aldarazpen hori, arartekoak iradokia zuena, ontzat hartu behar da, baina ez ditu neurriok erakusten dituzten aztarna «natalista»k ezabatzen. Egin-eginean ere, dirudienez, neurri horiek jaiotza sustatzekoago dira plana indarrean jartzean haurrak zaintzen ari zirenei gizarte lanean laguntzeko eta gizarte lan hori aintzatesteko baino.

Gizarte Ongizate arloari buruzko txosten honen atalean (II.2.1 kap.) beste kexa batzuk daude aipaturik, esate baterako, laguntzen arteko bateraezintasunei eta adin-mugek adopzio anitzeko balizkoetan ekarri ahal dituzten arazoei buruzkoak. Laguntza sorrarazi ahal duten egoeren mugagabeko kasuistikak haien zerrenda zehaztea eragozten du. Bukatzeko, gehi dezagun ezen erreklamazioak eragin dituela Estatuko Administrazioak hiru urtetik beherako umeak dituzten ama langile bakoitzarentzat ezarritako ehun euroko laguntza EAEko lurraldean ez aplikatzeak. Foru ogasunek horri buruz hartzen dituzten erabakiak kontuan hartu barik, badirudi emakume enplegatuen eta enplegatuak ez direnen arteko bereizketa nekez zuri daitekeela.

Famili eta lan bizitzak bateratu ahal izateko neurriek ere zenbait kexa eragin dituzte. Berriz ere, Dekretua indarrean jarri denez geroztik hasitako eszedentziako eta lanaldi-txikipeneko egoerei bakarrik aplika dakizkiekeen laguntza-neurriak denbora mugatzeak adostasunik eza ekarri du (Lan eta Gizarte Segurantzaren sarrera, II.12.1 kap.). Bistan da arau orok bera denboran aplikatzeko benetako muga bat ezarri behar duela. Hala ere, deigarria bide da legean berau indarrean jartzen den unean ezarritako beharkizunak betetzen dituzten pertsonek laguntzei heldu ezin izatea. Berriro sortu da herri botereek famili eta lan erantzukizunak bateratzea benetan bultzatu gura duten ala beraien asmo nagusia jaiotza-tasa igotzea den ez jakitearen zalantza.

Zalantzatan jarritako dekretu horren beste alderdi bat eszedentzia eta lanaldia txikitzea eskatzen duten gizonentzat gauza bera egiten duten emakumeentzat baino ekonomi pizgarri handiagoa ezartzea izan da. Argi bide dago neurri hori gizonezkoek haurrak zaintzen parte handiagoa hartzea eta, azken batez, etxeko lanak zuzentasun handiagoz birbanatzea sustatzeko ekintza positiboko neurria dela. Edozelan ere, laguntzak aplikatu diren lehenengo hilabeteetako esperientziak nahirikoaren oso bestelako emaitza azaldu du. Izan ere, enplegu-arduradunen adierazpenen arabera, haien %95 emakumeek eskatu dute.

Lehen nabarmendu dugun bezala, bistan da ezberdintasun ezabagaitzenak famili eta etxe bizitzan rolak gizon eta emakumeen artean ezberdin banatzea oinarri dutenak direla. Instituzio honen ikuspuntutik, aurrerapena bikoteko kideen artean aukeratzea ahalbidetzen ez duten neurrien eskutik etor daiteke beharbada. Adibidez, aitak ez badu amarenari pilatu ezin zaion aitatasun-baimenean pentsatu dugu.

Erakunde-neurriak alde batera lagata, erantzukizunak bateratzeko gaia utzi gabe baina, adierazi behar da ezen Funtzio Publikoaren arloan ere arazo batzuk mahaigaineratu direla. Hezkuntza Administrazioak 2002an onartu zuen aurretik aurkeztutako gomendio bat, egonkorrak ez diren bitarteko funtzionarioei etxekoak zaintzeko eszedentzia lupertzen utzi beharraren gainekoa.

Beste alde batetik, aipatu emakumezko funtzionario irakasleetariko batek erreklamazioa jarri zuen seme-alaba adinez txikiak zaintzeko lanaldia txikitzea ukatu

zitzaiolako. Horrelako neurriak ezartzeak Hezkuntza Administrazioarentzat kudeaketa arazoak ekartzen zituela genekielarik, aipatutako baimenak emateko aukera guztiak agortu behar zirela azaldu genuen. Izan ere, horrela, emakumeak errazkiago enpleguratu ahal dira. Hezkuntza Sailak erantzun gisa azaldu zigun ezen lanaldia txikitzeko aukera ukatu ez zuela baina aukeraketa hori ikasturtean hasieran adierazi beharra arau orokorra zuela, zertarako-eta ikastetxeetan plantilen egonkortasunik handiena izateko. Arartekoak planteamendu hori egokitzat jo zuen.

Aztertutako gaiari dagokionez, aurreko urteetan arreta jarri eta jarrarazi dugu lanbide eta famili erantzukizunak bateratzeari buruzko kexa guztiek emakumeek aurkeztu izanaren gainean. Hori da kasualitate hutsa. Horregatik, gogoeta egin behar dugu: neurri horien bitartez teorikoki lortu gura den helburua famili erantzukizunak gizon eta emakumeen artean orekaz banatzea dela ere, egia esan, emakumeek ia bakarrik heltzen diete horrelako proposamenei. Horrek, berdintasuna sustatzea barik, generoagatiko ezberdintasunak indartzea ekar dezake.

Era berean tradizioaren pisua ikus daiteke beste emakume baten kexan: hark, adopzio-prozedura hasitakoan, jakin zuen ezen adoptatutako umea Erregistro Zibilean erregistratzeko, gizonezko izan bat agerrarazi beharko zuela. Izen hori dagokion dokumentazioan aitaren gezurrezko izen bezala agertuko da. Beharkizun hori Erregistro Zibilaren 1958ko Arauditik dator, baina 1994ko ebazpenean garatu da. Horren indarraldia berretsi da hainbat itaun eta errekurtsotarako oraintsuko erantzunetan.

Manuaren xedea identifikatzeko ondoreak bakarrik dituen datu bat ematea da eta adoptatutako pertsonaren dokumentazioak gainerakoaren berdin-berdina den itxura agertzen du. Hala ere, dirudienez, egungo gizarte testuinguruan neurriak ez du antzinako garaietan izan zuen zentzua, senar-emazteengandik kanpoko jaiotza bazterkeriaren zioa zenekoa alegia.

Gure iritziz, aitaren gezurrezko izen bat sartu beharrak familiari buruz indarrean dagoen ulerkera anitz eta heterogeneoarekin nekez egin dezake bat. Izan ere, zelanbait, amatasun ordekoa gizonezkoarekiko inolako loturarik gabe burutzeko eskubidearen kontrakoa da. Ez bide du bat egiten giza ugalketaren arloko zientzi aurrerapenekin ere. Aurrerapenon arabera, oso eztabaidagarria da aitaren nortasunaren gaineko fikzioa mantentzearen komenigarritasuna.

Beste alde batetik, aztertutako manuak izaera sexistarik agertzen ez badu ere (gezurrezko izena aitarena edo amarena izango da gurasotzakoaren generoaren arabera), egia da ahaide bakarreko familiak osatzea aukeratzen duten gehienak emakumeak direla.

Horregatik guztiagatik, kexa Herriaren Defendatzaileari jakinarazi genion. Erakunde horrek jakinarazi zigunaren arabera, 2000n gomendio bat egin zion Justizia Ministerioari: indarrean zegoen arautegia aldaraztea, zertarako-eta, zehaztuta amaren seme-alabatasuna bakarrik zegoen kasuetan, amak balizko aitaren izena adierazi edo ez adieraztea aukeratu ahal izateko. Gomendioa onartu zen, baina oraindik aztergai dira Erregistro Zibilaren Araudiaren horri buruzko manuak eraldtzeko aukera ezberdinak.

Instituzio honen jarduera-eremu ezberdinetan ezkontza haustetiko hainbat arazo azaldu dira, umeak zaintzearekin loturikoak zehazkiago. Haiek zaintzeko erantzukizuna emakumeek hartzen dute gehienetan. Izan ere, gizartean gizon askok aitatasun-betebeharrak osorik berenganatu gabe jarraitzen dute. Baina adierazi behar da ezen konpartitutako zainketak zabaltzea, edo ondorengoak zaintzeaz arduratzen diren gizon eta emakume kopuruen arteko hurbilketa, pertsona guztien arteko berdintasun handiagoaren seinale izango litzatekeela.

Pentsioak ez ordaintzeari, bisitak arautzeko bideari eta abarri buruzko ohiko arazoez gain, adinez txikiekin bizi ez den gurasoak haiei buruzko informazio zehatz batzuk lortzeko duen edo izan dezakeen eskubideari buruzko kexak jaso dira. Kasu batean aitari, amarekin bizi zen seme bati buruzko erroldaketa-txartela ukatu zitzaion. Udalak alegatu zuenez, arautegiaren arabera, senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, adinez txikien errolda-gaietako ordezkaritza epailearen ebazpenak haiek zaindu eta babestea eratxiki dion gurasoari dagokio.

Arartekoaren iritziz, udalaren jarrera arrazoizkoa zen, baina exegesi murriztailea behar zuen arautegia zabalegi interpretatzea zekarren. Izan ere, arautegi horrek Guraso-agintearen ondoriozko ahalmenak mugatzea zekarren berekin. Beste alde batetik, Udalak alegatu zuen ezen, erreklamatzailearen eskabideari kasurik eginez gero, hari zeharka emango ziola bere ezkontide ohiaren egoitzari buruzko informazioa.

Instituzio honen iritziz, kontuan hartzeko modukoa da aipatutako arazoa. Bistan da familia hausten den egoera batzuetan interes-gatazka sortu ahal dela: alde batetik, seme-alaba adinez txikiekin bizi ez den baina gurasoen ahalgoa duen gurasoak haiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea du; bestetik, haiek zaintzen dituen gurasoak haien intimitatea gordetzeko eta haien datu pertsonalak gordeta mantentzeko eskubidea du. Legebidezko interesen arteko edozein kontrakotasun-egoeratan bezala, elkarren kontrako posizioetako ezein besteari guztiz eskaintzen ez zaion orekazko irtenbidea lortzeko neurtu behar da neurtzekoa.

Argudio guztiak baloratu ondoren, arartekoak Bilboko Udalari erreklamatzaileari eta, orokorrean, hala eskatuko zuten gurasoei beren seme-alabei buruzko erroldaketa-txartela emateko gomendioa egin zion. Horretarako, gurasoek hainen gaineko guraso-ahalgoa izan behar dute eta berdin da haiek zaindu eta babestea egokitzen zaien ala ez. Azaldutako arau orokorretik salbuetsiko dira umeekin bizi ez den gurasoak adinez txikiok beste gurasoarekin zein egoitzatan diren ez dakieneko kasuak. Gomendio hori onartu zen.

Oso antzeko arazoa legezko zaintza esleitu ez zitzaion gurasoak eskatutako eskola-informazioari buruzkoa zen. Kasu zehatzean, egoera oso zaila zen eta epaibideratu zen. Baina, oro har, Autonomia Erkidegoko irakaslekuentzako jarraibideak zeuden. Beraien arabera, guraso biei eman behar zaie ikaslearen eskola-etekinaren berri, baldin eta gurasoen ahalgoa legez kendu ez bazaie.

Emakumeak buru diren guraso bakarreko familiei begira ere arazo konpon edo ebazkaitzaren berri jakin dugu: emakume batek babestutako etxebizitza eskatu zuen eta guraso bakarreko unitateei esleitutako etxebizitzen kupoaren barruan sartu zen; eta zozketan haietako bat adjudikatu zitzaion. Alabaina, gero ezeztatu egin zen adjudikazioa, haren egoera bizikidetza-unitate horiei ez zegokielakoan. Arazoa emakume hori eta beraren haurtxoa adingabe horren aitaren pisuan aldi batera bizitzeak zekarren.

Egitatezko batasunek azaltzen duten lege-problematika abiapuntu hartuta, gure ustez, herri botereek ez diete zigorrik ezarri behar beren harremanak haustea hezitako eran azaltzeko gai izan diren eta aitak bere seme-alabekiko eginbeharrak bereganatzeko modua aurkitu dutenei. Izan ere, hark seme-alabei eta amari aterpea ematen die amak bere etxebizitza lortu arte. Froga-arazoak ez ditugu aparte utzi, baina kontuan hartu behar dira etxebizitza lokaberik lortu ezinik bizi izan nahi ez dutenarekin bizitzen jarraitu behar duten emakume askoren egoerak ere.

Beste alde batetik, emakumeen bizi-itxaropen handiagoa dela bide, emakume gehiago joan dira arartekoarengana herri erakunderen batekin 1985a baino lehenago

izenpetutako higiezinen errentamenduetarako kontratuetako subrogaziorako eskubideei buruz argitzekoa argitzera. Antza, kontratu horietan oso gutxitan sartzen zen kontratuaren titularra zen gizonaren izenaren ondoan haren emazte edo neska-lagunarena.

Azkenik, Osasun arloan sortutako arazo batzuk aipatuko ditugu, emakumezko taldeari buruzkoak. Mamografien programarekin esku hartu da. Izan ere, espezialista batek azaldu zuenez, lehen mailako arretatik propgranan sartuta ez zeuden emakume batzuk bidaltzen ziren. Era berean, urte honetan ugalezintasun-sendabideei buruzko erreklamazioak jaso dira. Kexarik gehienak emakumeek aurkeztu dituzte eta beti izaten dira haiek sendabideak dagozkienak. Ikuspuntu orokorretik, programa horren aplikazioaren gainean, jarraipena egiten gabiltza.

Bazterketa-faktore batzuk ikusi diren beste arazo bat ikusi da emakumezkoen prostituzioaren eremuan. Jakina denez, egun jarduera hori gehienbat atzerritar emakumeek burutzen dute eta beraietarik asko EAEn modu irregularrean bizi dira. Emakundek prostituzioari buruz egindako txostena lehenengoz aztertuta, egiaztatu genuen ezen Gipuzkoako emakumeek sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak diagnostikatzeko zentro zehatzik ez zegoela salatu zutela, beste lurralde historiko bietan gertatzen ez zen bezala. Gertaera objektiboki ikusita ezen zen ondorioztatu talde horrentzako osasun-arreta kalitate eskasagokoa zenik. Hala ere, Osasun Sailari informazioa eskatzea erabaki genuen. Lehenengo erantzunean jakinarazi zigun ezen zentro zehatzik egoteak ez zekarrela berekin laguntza eskasik. Alabaina, zenbait hilabete geroago, prentsa bidez jakin genuen Gipuzkoan zentro zehatza sortzearen berri.

Prostituzioan ari diren atzerritar emakumeentzako osasun-arretari begirako gure esku-harmena oso alderdi zehatzera murriztu bada ere, adierazi behar da ezen arartekoak emakume horiek jasaten duten problematika handiari era zabalagoan heltzeko asmoa duela.

## 2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI

Pertsona zaharrek beste talde batzuek baino oztopo gehiago izan ditzakete Administrazioarekiko harremanetan. Horrek zerikusia izan dezake behar dituzten arreta-zerbitzuak atzitzeko aukerarekin, edo berauek jasotzen dituzten erarekin.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona zaharrei ematen zaien arreta biztanle zaharrentzako gizarte eta osasun arretan eremu publikotik esku hartzen duten sistemak antolakuntzari begira bereizteak baldintzatuta dago. Osasun-sistema eta gizarte zerbitzuen sistema sistema bereiziak dira, pertsona zaharrentzako osoko arreta zailtzen duten antolakuntza ezberdinak dituztenak.

Gure Autonomia Erkidegoan, Europako gainerako herri industrializatuetan bezala, pertsonak gero eta ugariago dira, bizi-itxaropen luzea dute eta, bereziki, 75 urtetik gorakoak menpean daude, eta talde honetako biztanleak emakumeak dira gehienbat. Hori guztia kontuan hartu beharko da taldeontzako osasun-politikak aztertu eta aukeratzerakoan.

Horren ondorioz, gizarte-osasunezko beharrizanak gehiagotu dira, osasun-zerbitzuak talde honi etengabe egokitu beharko zaizkio eta gizabanakoek, familiek eta erkidegoak erantzunkizun handiagoa dute eta izango dute haien osasunaren eta ongizate-egoeraren arriskuen aurrean.

Pertsonok beren adinagatik jasaten duten minusbaliotasunaren ondorioz behar duten osasun eta gizarte esku-harmenak bazterkeriazko tratua sorraraz dezake, osasun-zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen artean dagoen bereizketak askotan ekarria.

Talde honen gizarte beharrizanak gutxitan hartzen dira kontuan ospitale-zentro baten altaren ostean. Horrela, zaila da gaixook beren erkidegora itzultzea.

Osasun-eskuharmenak pertsona zaharren beharrizanen aurrean egokitu behar dira.

Ospitale-zentroetan edo gizarte arretarakoetan (egoitza-zentroetan eta egunekoetan) dauden pertsona zaharrei dagokienez, haientzako laguntzaren kalitatea, neurri handi batean, pertsona zaharrei zuzeneko arreta ematen dieten pertsonen jarreraren araberakoa da. Jarrera negatiboak pertsona zaharrak zenbait abusu-eratarako arriskutan jarri ahal ditu, buru-osasuneko arazoak dituztenak bereziki.

Gizarte Ongizatearen arloan laguntza-etikara hurbiltzeaz aritu gara. Berau gizarte zerbitzuen eremuan pertsona zaharren eskubideei loturiko kultura sortzearen adierazlea da. Hemen egin ditugun hausnarketek pertsonentzako arretan inor baztertu ezina dute oinarri, bere adinagatik ere inor baztertu izana alegia.

1995ean Arartekoaren erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona zaharrentzako egoitzen hautazko laguntza-eskaintzei buruzko txostena egin zuen.

7 urte baino gehiago pasatuta, garrantzitsua da adierazle nagusiei begirako arreta-sarearen bilakaera zein izan den aztertzea. Horretarako, eguneko zentroen egoera aztertzeko txostena hasi da, zertarako-eta gure 1995eko txostenean egin ziren oharrak eta gomendioak eta urriaren 17ko 202/2000 Dekretuak ezarritako beharkizunak betetzen diren ebaluatzeko. Arau horrek menpeko pertsona zaharrentzako eguneko zentroak araupeturik ditu, eta bera onesteko unean, beharkizunak ezartzen ari dira, haren zio-azalpenean adipatuta dagoen bezala.

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan etxerik etxe laguntzeko zerbitzua egitearen gainean jarduteko aukera mahaigaineratu da. Izan ere, egiaztatu da ezen zerbitzuaren estaldura mailan zenbait ezberdintasun daudela, urteko egun zehatz batzuetan bereziki.

Instituzio hau kezkatzen du elkarren jarraiko lau jaiegun edo gehiago daudenean, Aste Santuan bereziki, pertsona zaharrei beren etxeetan laguntza nahikorik ematen ez zaien eta asteburuetako eta jaiegunetako laguntza nahiko estaltzen ez den udalerriak egoteak. Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta pertsona zaharrei beraen beharrizanei urteko edozein egunetan eta, batez ere, famili laguntzarik ez duten egunetan jaramon egingo zaiela bermatzeko neurriak hartu behar dira.

Azkenik, urte honetan zehar egoitza-zentroak eta eguneko zentroak bisitatzeko programarekin jarraitu dugu, haiek nola dauden jakiteko. I. kapituluan horri buruz dagoen atalean bilduta daude bisiten ondorioz egindako oharrak eta administrazioak eremu honetan egiten dabiltzan ahalegin handiak.

# 3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI

Adingabeak, beren ezaugarriengatik, biztanleriako alor bereziki ahula dira, bermatu behar diren berariazko eskubideak dauzkaten pertsonak. Ararteko erakundeak kolektibo honen eskubideen defentsari lehentasunez aditu dio, eta artapena jarduera ildo desberdinetatik gauzatu da:

- kexak ebatzi eta berariazko gomendioak prestatzen;
- adingabe bereziki babesgabeen edo ahultasun handiagoko egoeretan daudenen zenbait talderen arazo zehatzak aztertu eta jarraipena egiten;
- biztanleriaren alor honetan lan egiten duten gizarte eragile, elkarte eta erakundeekin elkarlanean.

Atal honetan urtean zehar adingabe horien eskubideen defentsan aipatutako jarduera ildo bakoitzean burutu diren jarduera nagusiak laburbildu nahi dira. Gainera, azkeneko puntuan aurreko urteetan egindako zenbait gomendio espresuki aipatzen da, legeen zein araudien bidez garatu beharrekoak.

## 1. Kexa eta gomendio berariazkoak

Beste batzuetan esan dugun bezala, gutxi dira erakunde honetan adingabeez berariaz zein zuzenean jasotako kexak; eta are gutxiago beraiek jarritakoak. Hori faktore desberdinengatik izan liteke: beren eskubideen gaineko kontzientziarik ez dutelako, ez dutelako erakunde hau beraientzat ere zabalik dagoen defentsarako bitarteko gisa ezagutzen, erakundeengana jotzeko trebetasun edo ohiturarik ez daukatelako, familiaren zein beste pertsona edo erakunde batzuen mende daudelako… Faktore horietako batzuk ez dira esklusiboki kolektibo horrenak, beste alor behartsu edo ahul batzuengan ere aurkitzen dira-eta.

Biztanleriaren alor horrek harremanik handiena duen Administrazioaren zerbitzua hezkuntza zerbitzua da, zalantzarik gabe. Hartara, ikuspegi zabalago batetik, hazkuntzaren ia eremu osoak, unibertsitateko maila gorenak salbu, harreman zuzena dauka gazteen tratamenduarekin gure Erkidegoan (ikus Hezkuntza Saila, txosten honetako II. kapitulua). Badira beste zerbitzu batzuk (babes, osasun zerbitzuak, zerbitzu judizialak…), adingabeentzat beren beregi. Logikoki, kexa eta esku-hartzerik gehienak alor horietaz izaten dira.

Hartara, aurtengo kexa eta jardueren artean, ondokoak bezalako kontuak aztertu dira:

- Hezkuntza Sailak aurreikusitako 0-3 urteko tartearen arauketa errefusatzea;
- minbizia duten eta sendabide eta ospitaleko egonaldi luzeak dituzten haur eta gazteak eskolatzeko baldintzak;
- PFGZren aitorpenean semen-alabengatik dagoen kenkaria gauzatu ahal izateko hainbat irizpide eta exijentziekiko desadostasunak;
- segurtasunik eza eskolako patioan tentsio altuko poste baten gertutasunarengatik;
- desadostasuna bonobuserako eskubidea izateko irizpideekin, adingabe ezgaitu baten kasuan;
- desadostasuna eskola kirolean haur kategoriak bateratzearekin;
- desadostasuna hizkuntza mailako hainbat hezkuntza egitasmorekin (gure Erkidegoan dauden eredu desberdinetakoak eta ikastegi atzerritarretakoak);

- eguneko zentrorik ez ezgaituentzat;
- langile gutxiegi adingabe atzerritarrak hartzeko zentro batean;
- eskola garraioa: irizpideak eta ondorenak ikasleen matrikulazioan;
- desadostasunak bi urteko haurrak matrikulatzeko irizpideengatik, Bizkaiko zenbait zentrotan; kasu batean ezgaitu baten eskolatzeari lehentasunik ez emateagatik;
- desadostasunak ikasgai baten ebaluaziorako irizpideekin, azterketen aukera berrien ahalbideak, edo Ikuskaritzak ikasleen ebaluazioan esku hartzea;
- poliziak adingabeak nola atxilotzen dituzten;
- nerabeen arteko mehatxuen kasu batean justiziaren esku-hartzearekin pozik ez;
- inguruko hirigintzako egitasmoak eta obrak ikastegi baten sarbidea oztopatzen edo segurtasun baldintzak gutxitzen;
- foru aldundien aldetik zentroetan hartutako bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuetako zaintzaren jarduna eta jarduera irizpideak;
- hezkuntza behar bereziak dituzten adingabeak eskolatzeko baldintzak;
- ahultasun egoeratako adingabeen kolektibo jakin batzuk eskolatzeko baldintzak, bereziki:
    - sasoikako langileen familietako seme-alabak
    - adingabe lege urratzaileak barnerapen zentroetan
    - bakarrik dauden adingabe atzerritarrak
- desadostasuna jasotako artapenarekin eta jarduera irizpideekin babesik gabeko oso haur txikiei aterpea emateko zentro batean;
- koordinaziorik eza edo jarraitasunaren eta irizpide erkideen beharra babes zerbitzuen eta gazteentzako justizia zerbitzuen artean.
- desadostasunak irizpideetan justiziarekin arazoak dituzten adingabeen kasuetan esku hartu duten ekipo desberdinen artean (ekipo judizialen eta neurriak betearazteko ekipoen artean).

Aurreko adibideetan ikusten denez, azkeneko urteko kexa eta jarduerarik gehienak bi eremutara bideratu dira:

- hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, bereziki gizartean aukerarik eta babesik gutxieneko kolektiboentzat, hezkuntzako behar bereziak dituztenentzat edo hiru urtetik beherakoentzat;
- adingabeen babesa: desadostasunak erakundeen esku-hartzeen gainean;

Alor berberak jorratzen dira, modu batera edo bestera baina ikuspegi desberdinaz, hurrengo atalean.

## 2. **Alor bereziki ahulen gaineko arazoen analisia eta jarraipena**

Adingabeen kolektiboaren barruan badira, aldi berean, beren eskubideei dagokienez arrisku bereziko egoeretan dauden talde edo alorrak. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta jarri du aukera gutxiko edo behar bereziko egoeretan dauden haur eta nerabe horiengan. Eta batez ere lan monografiko eta ez-txosten berezien bidez, eta horiei egindako jarraipenaren bidez. Hartara, aurten, jarraipena ondoko bost alor hauetara bideratu da, nagusiki:

- haur babesgabeak (arrisku eta babesik gabeko egoerak);
- bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
- adingabe lege urratzaileak (neurri judizialak betetzearen mende);
- sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabeko benetako egoeretan);
- hezkuntza behar bereziko ikasleak.

- **Familiaren babesik gabeko haurrei** dagokienez, Ararteko erakundeak 1997an ezohiko txostena eman zuen argitara, non berariazko 42 gomendio egiten ziren. Iaz, gomendioak zenbateraino betetzen ziren ikusteko, eta txostena egin zenetik joandako denbora kontuan izanik, erakunde arduradun bakoitzari informazio eguneratu eta xehatua eskatu zitzaion (hiru foru aldundiei eta Gasteizko udalari), izandako aurrerapenak egiaztatzeko eta egiteko geratu ziren beste kontu batzuk argitzeko (ikus 2001eko txostena, I. ataleko 1.1.5. azpiatala). Ahalegin handia egin genuen jasotako datuak islatzen, eta urte eta lurralde desberdinen arteko konparaketa errazteko modura egiten, hobeto ikusi ahal izateko eta joerak baloratu ahal izateko. Izandako bilakaerari dagokionez, hainbat alderdi eta ondorio nabarmendu ziren.
  Aurten, jarraipena artatutako kolektibo baten egoeran eta berari zuzendutako zerbitzuetan ia esklusiboki egin da: bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboan, beren ezaugarriengatik arreta berezia merezi dutelako (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.5. eta hurrengo lerrokada ere bai).
  Haurrei tratu txarrak emateari dagokionez, erakunde honek gomendio orokor bat egin du txosten honetan bertan, erakundeen jarduera koordinatzeko protokolo bat eratu beharraz (ikus VI. atala).

- Oraintxe esan berri dugunez, azkeneko urtean bereziki aditu zaio bakarrik **dauden adingabe atzerritarrei.** Burututako jarduerak txosten honetan laburbildu dira, horien arazoak hizpide dituen berariazko atalean (ikus I. atala, 1.1.5.). Bildutako datuek erakusten dute azkeneko urteotan haziz joan den kolektiboa dela, bereziki, Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta pisu garrantzitsua hartu duela, sarritan erakundeen aurreikuspenak gaindituz. Oro har, foru aldundiak kolektiboari erantzuten saiatu dira, beraientzat beren beregi sortu edo onartutako baliabideak edo zerbitzuak abian jarriz. Gure erakundeko langileak dauden aterpe zentro guztiak ikustera joan dira (Loiun, Urduñan, Martutenen, Urnietan eta Gasteizen) eta egoera desberdinak aztertu dituzte, bai alderdi positiboak bai hobetu behar direla irizten zaienak azpimarratuz. Gainera, beharrezko iritzi zaionean, gure erakundeak ofiziozko jarduerak hasi ditu erakunde arduradunen aurrean, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailean eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean.

- **Adingabe lege urratzaileei** dagokienez, 1998an Arartekoaren ezohiko txostena eman zen argitara, non erakundeei 46 gomendio egin zitzaizkien. Aurten egindako jarraipenari esker, gaur egun gure Autonomia Erkidegoan dauden barnerapen zentroak ikusi eta oraingo egoera ezagutu ahal izan dugu (Andoiu, Ortuella, Aramaio eta autonomiazko bi pisu). Gainera, lan bilerak ere egin dira prozesu judizialean edo neurriak bete eta neurtzen esku hartzen duten profesional talde desberdinekin, zentroen ahalbideak eta arazoak ezagutzeko; baita neurriak betearazteko arduradunekin ere egon gara (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritza). Terrorismo

ekintzengatik atxilotutako adingabeen egoerari buruz ere esku hartu dugu, zeinetan eskuduna Entzutegi Nazionala den.

Bestalde, neurrien betetzearen gaineko datu eguneratuei esker bilakaera ezagutu eta baloratu ahal dugu, arazo nagusiak nabarmendu eta txosteneko hasierako gomendio batzuen betetzea baloratu ere bai. Azkeneko urteko errealitatea markatu duten egitateak, besteak beste, adingabearen zigor erantzukizuneko lege berria 2001eko urtarrilean indarrean jarri izana (ondorioz esku-hartze judizialak eta neurriak ugaritu dira, eta artatutako adingabeen ezaugarriak ere nabarmen aldatu dira), Bilbon adingabeentzako bigarren epaitegi baten beharra sortu izana, eta ondorioz espedienteetan izandako atzerapena edo, barnerapen neurriei dagokienez, egungo zentroen sarearen mugak eta Zumarragako zentroa zabaltzen atzeratu izana. Kolektibo honen egoeraren gainean egindako jarraipena luze eta zabal jasota dago txosten honen I, 1.1.6 azpiatalean.

- Familiekin Arabara mahatsa eta patata biltzera etortzen diren **sasoikako langileen seme-alaben arazoei** dagokienez, erakunde honek urtero-urtero planteatzen duen gaia da, eta aurten ere arreta berezia jarri zaio, eta Legebiltzarrean aurkeztutako *Sasoikako biztanleen egoera Araban* ezohiko txostenean islatu da. Txostenaren kapitulu batean arazo horiek dira hizpide, eta Arabako Errioxako, lautadako eta mendialdeko ikastegietan lortutako eskolatze maila aztertu da, lorpenak eta gainditu gabeko arazoak azpimarratuz. Datu ugari jaso ahal izan dugu, oraindik eskolatu gabe dauden adingabeak zenbatu ditugu, ebatzi gabe dauden arazoak seinalatu, eta zenbait hobekuntza eta gomendio berariazko proposatu, eskolatze moduei ez eze beren bizi baldintzei eta aterpetzako erei buruz ere (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.2.).

- **Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei** dagokienez, erakunde honen prestatutako txosten monografikoan, Legebiltzarrean 2001ean banatu eta eztabaidatu zenean, eskola sistemak ezgaitasun fisiko, psikiko eta zentzumenetakoen ondoriozko beharrei eta gizarte edo kultura aldetik ahulen ziren egoerei lotutako beharrei emandako erantzuna aztertzen zen. Egindako azterlanaren arabera, hamar gai bereziki kezkagarri zeuden, eskubideen bermearen ikuspegitik, eta 21 gomendio egiten zitzaizkion hezkuntza administrazioari, batzuk hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari eta bere lehentasunei ukitzen diotenak, eta ikasle horien banaketa –desorekatua eta berdintasun gutxikoa- eta zentro jakin batzuetan biltzea saihesten ahalegintzen direnak. Txostena aurkeztu zenetik urtebete igarota, eta Hezkuntza Saileko arduradunekin bilera bat egin ondoren, sail horri gomendioak betetzeko egindako jardueren gaineko lehenengo erantzun bat eskatu zitzaion (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.10).

- Bestalde, ziegen gaineko ezohiko txostenaren eta jarraipenean eta **atxiloketa tokietarako** ondoriozko bisitetan, arreta berezia jarri zaie adingabeak atxilotuta egoten diren baldintzei (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.11.).

* * *

– Kolektibo hauetako bakoitzaren arazoak independenteki aztertzeak pentsaraz lezake elkarrekin loturarik edo harremanik ez duten adingabe taldeak direla. Ez da horrela, ordea. Sarritan –agian gero eta sarriago– egun talde horietakoren batekoa den

adingabea bihar beste batean sartuta ageriko zaigu. Esaterako, babes zerbitzuetatik datozen, artapen psikiatrikoko arazo larriak dauzkaten, edo eskolatu gabe egon diren eta barnerapenean dauden adingabe lege urratzaileen proportzio handia. Errealitate kezkagarri horrek agerian jartzen du gure gizartean benetako «bazterketa zirkuituak» daudela oraindik ere, gizarte eta erakundeetatik lehentasunezko artapena behar duten adingabe kopuru jakin bati ukitzen diotenak.

– Aztertutako alor bakoitzak beren beregiko arazoak dauzka. Baina egia da, halaber, denetan edo askotan arazo erkideak ikusten direla. Hartara, esaterako:
  - zerbitzuen artean koordinatzeko dauden zailtasunek (harrera zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarrizko gizarte zerbitzuak…) eragin txarra daukate artapenaren kalitatean eta esku-hartzeen jarraipenean eta koherentzian;
  - erakundeetako artapena, sarritan, denbora tarte jakin baterako da eta, une zehatz batean, hezkuntzako ibilbidea izan litekeenarekin zerikusirik ez duen zerbaitengatik, eten egiten da, eta jarraitasunik gabe geratzen da.

Horren haritik, azkeneko urtean jasotako informazioa kontuan hartuta, bereziki kezkagarriak dirudite, batetik, erreforman dauden adingabeen proportzio handiak (barnerapen neurriez) eta, bestetik, erreforma zerbitzuen eta babes zerbitzuen artean esku-hartzeari dagokionez koordinatzeko eta jarraipenik izateko dauden zailtasunek. Halako arazo "komunei" helduz, Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldietan, Arartekoak komunikazio hau aurkeztu zuen: "Egoera bereziki ahulean dauden adin txikikoak eta erakundeen erantzunak. Hamar eragozpen eta esku hartzeko eta hobetzeko aukerak". Horren testua txosten honetan agertzen da (ikus III. eranskina).

– Erakundeen berezko esku-hartzeez gain, erakunde honi kezkagarri iruditzen zaio komunikabideetan batzuetan esandako kolektibo horietako edo horiek bezain ahulak diren beste batzuetako adingabeekin zerikusia duten albisteak nola ematen diren. Batez ere informazioa poliziaren iturrietatik datorrela dirudienean, eta gizarte alarma edo estereotipoak eta bazterkeria sendotzea eragin dezakeenean. Adingabearen interes gorenak –erakundeen erabaki eta esku-hartze guztien hatsarre zuzendaria- adingabeari ukitzen dioten gaien gainean hedatzen den informazioa gidatu behar du, eta beste edozein interes mediatikoren gainean egon.

## 3. **Gizarte eragileekiko elkarlana eta gizarte sentsibilizazioa**

Biztanleriaren alor honekin zerikusia daukaten kexak gutxi direla azaltzeko, balizko arrazoi gisa, erakundea nolabait ez ezagutzea, edo adingabeek beren eskubideen gaineko, edo eskubideok gurea bezalako instantzia batean defenda ditzaketelako kontzientzia gutxi edukitzea aipatu dira, besteak beste. Azkeneko urtean burututako jarduera batzuk zio horiek moztera bideratuta zeuden, edo zuzenean zein zeharka aldarazi nahi zituzten. Asko, halaber, eskubide horien berri zabaltzeko eta gizarte osoa sentsibilizatzeko asmoz egin dira.

Jarduera horien artean, esanguratsuenak direlakoan, ondokoak azpimarratuko ditugu:

- Lankidetzako lotura edo izandako harremanak arrisku egoeran dauden edo beren beregiko beharrak dituzten adingabeen artapenean lan egiten duten elkarte edo erakunde desberdinekin. Berriztu, Gaztaroan Ekin, Arazoak, Salesianos, Terciarios capuchinos, AZRAF, Iniciativa gitana, Kalé dor kayikó, Gao Lacho Drom, APDEMA, Gorren elkarteak, Atzegi, ASPANOVA, Aspace, Gautena, Uribe-Kosta, Besarka, Era Berri, Cruz Roja, Hezilan, Nuevo Futuro, Unicef, ikastegietako guraso elkarteak… horiek bezalakoekin (ikus txosten honetako I. atala, 2.1).
- Elkarte eta erakundeekiko lankidetza honen esparruan Arartekoaren erakundeko langileek elkarte horiek adingabeen arazoen gainean antolatutako foro edo topaketetan parte hartu duela ere azpimarra daiteke, bai gure Erkidegoan bai hemendik kanpo.
- Euskal Herriko ikastegietan kartelak eta erabilpen pertsonaleko egutegiak banatu dira, haurren eskubideen gaineko Konbentzioa hedatzeko asmoz.
- Erakunde honek hiru Foru Aldundietako Gizarte Ongizate diputatuek sustatutako «Haurren aldeko manifestua» bezalako ekimenei sostengua eman die.
- Ararteko erakundearen web orrialdearen barruan adingabeen arazoen gainean beren beregiko atala jarri da martxan.
- Erakunde hau Gasteizko ikastegietako eskola umeen taldeei aurkeztu zaie, gure egoitza ikustera etorri direnean, udalarekin dagoen lankidetzako egitarauaren barruan.
- Gure erakundea ikasleei aurkezteko bertara joan gaitezen eskatu diguten hainbat ikastegitako esku-hartze zuzena, normalean giza eskubideen gaineko lan sistematikoaren esparruan.
- Giza eskubideen gaineko lan sistematikoan eskoletan erabiltzeko materiala prestatu eta zabaltzeko egindako beken lau deialdien ondorioz, azkeneko bi ikasturteetan ikastegi guztietara jada bidali dira Bigarren Hezkuntzarako materialen karpeta, Lehen Hezkuntzarako haurren eskubideen gaineko beste bat, eta giza eskubideak jolas modura lantzeko baraja, gida eta baliabideen kutxa bat, Bigarren Hezkuntzako ikastegietara eta beste hezkuntza zerbitzu batzuetara. Oraindik amaitzeko eta bidaltzeko daukagu euskarri informatikoko materiala, deitutako laugarren bekaren emaitza (ikus txosten honetako I. atala, 2.3.).
- Lehengo jarduera ildo hori askoz ere ikuspegi zabalagoaren barruan sartu behar da: Arartekoak adingabeen artean giza eskubideen errespetuan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako kultura heda dadin dituen ardura eta konpromisoan. Edozein gizarte demokratikotan beharrezkoa den eta, gurean, hainbeste urtez indarkeria eta hilketaren erabilpen sistematikoarekin bizi garen honetan are beharragoa dena. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorena defendatu nahi izan du, eta bere kudeaketan elkarrizketa, bitartekaritza eta akordioen bilaketa baliatzen saiatu da. Bizikidetasunaren balioak hezkuntza sisteman sistematikoki jorra daitezen proposamenak ere egin ditu. Ikasleen artean giza eskubideen gainean banatzeko eta eskoletan erabiltzeko materialak prestatu eta hedatzea langintza horretako urrats bat besterik ez da.

## 4. Betetzeko dauden araudi izaerako gomendioak

Urte hauetan zehar, erakunde honek, adingabeen egoerari buruz, araudi izaerako hainbat gomendio egin ditu. Batez ere ondokoez ari gara:

- Haur hezkuntza zerotik hiru urtera bitartean araupetu beharra, 1998an erakunde honen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1998ko txosteneko VI. kap., 2. atala), eta gerora hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean berretsi genuena (ikus txosten horretako lehenengo gomendioa).
- Ikastegietako ikasleen eskubide eta betebeharren araudia berrikusi beharra, hori ere gure erakundearen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1997ko txosteneko VII. kap., 7.3 atala).
- Gure erkidegoko haurrak eta gazteak artatuko dituen lege baten beharra, hiru lurralde historikoetarako irizpide berdinak eta exijitzeko oinarrizko baldintzak ezar ditzana (ikus babesik gabeko adingabeen -1997- eta adingabe lege urratzaileen -1998- gaineko ezohiko txostenetan egindako gomendioak eta txosten honetako I. atala, 1.1.6).
- Hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean egindako zenbait gomendio orokor, araudizko aldarazpenak eskatzen dituztenak. (Bereziki, hezkuntza sistemaren egoera orokorrari eta bere lehentasunei ukitzen dieten lehenengo bost gomendioak) (ikus 2001eko txosten horretako 9. kap.).

Daukagun informazioaren arabera, ondoko ohartarazpenak egin ditzakegun zenbateraino garatu edo bete diren argitzeko:

- Zerotik hiru urterako eskolatzea araupetzeari dagokionez, azkeneko urtean, Hezkuntza Sailak prestatutako proiektuaren eta elkarte eta sindikatu ugariren plataformak erakunde honi zuzendutako eskariaren ondorioz, jarduera desberdinak burutu dira. Besteak beste, gairik kezkagarrienak eztabaidatu genituen Hezkuntza Sailburuarekin eta Saileko beste arduradun batzuekin, azkenean, ekainaren 17an egin ahal izan genuen bileran. Gerora, Eusko Jaurlaritzak iragankorki araupetu du gaia, bi ikasturtez. abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bidez. Erakunde honek defendatutako proposamenak ezagutzeko, baita egin berri den arauketa horretaz zer pentsatzen dugun jakiteko, txosten honetako II. 4 atalera jo.
- Hezkuntza Sailari ere dagozkion beste araudi batzuei dagokienez (ikasleen eskubide eta betebeharren gainean eta onurarik gutxien duen biztanleriaren artapenaren gainean), oraindik egiteko daude.
- Gure erakundeak hainbestetan eskatu duen gure erkidegoko haurrak eta nerabeak artatzeko legeari dagokionez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailetik lege zirriborro bat helarazi ziguten. Aztertu genuen eta modu informalean hainbat ekarpen egin genizkien. Uste dugu prestatzeko prozesuarekin jarraituko dutela. Edonola ere, oraindik ez da legebiltzarrean izapidetzeko aurkeztu.

# 4. **BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI**

Aurreko urteetako joerari jarraituz, 2002an oso kexa gutxi jaso dugu atzerritarren berezko arazoen inguruan. Aurreko txostenetan azaldu dugu egoera hori, neurri handi batean, pertsona horien gehiengoak euren eskubideak eta administrazio publikoen jardueren kontrolerako mekanismoak zeintzuk diren ez jakitearen ondorioa dela, bai eta sarritan instituzioen aurrean sentitzen duten mesfidantzaren ondorio ere. Beste alde batetik, dauzkaten arazo ugari atzerritartasun erregimenaren edo estatuko eskumeneko beste arlo batzuen ingurukoak direnez gero, sarritan Herri Defendatzailearengana jotzen dute zuzenean, berari baitagokio, kasu horietan, kontrol lana.

Hala ere, aurten gure erakundean aurkeztu diren kexen artean, estatuko administrazioaren menpeko erakundeen jarduketen ingurukoak Euskal Herriko Administrazioen kontrakoak baino gehiago izan dira. Kexa horiek Herritarren Defendatzaileari bidali dizkiogu, bere eskumenekoak direlako.

Estatuko administrazioaren arloan aurkeztu diren arazoak, gehien bat, egoitza eta lanerako baimenak tramitatzen dituzten administrazio-zerbitzuen funtzionamenduaren ingurukoak dira. Kexen artean hauek dira nagusiak: prozeduren iraupen luzeegia, zerbitzuen antolaketa bera eta ematen duten informazioan akatsak egotea.

Gure jarduera-eremuari dagokionez, jaso ditugun kexa-kopuru txikia, funtsean, poliziaren jarduerak sortu du. Kapitulu honetan kexa horietako bi aipatu ditugu, Barne Sailari dagokion aukeraketan. Bat –Ertzaintzak Bilboko San Frantzisko auzoan egindako operazio baten kontrakoa– sarreran dago, eta bestea –Donostiako Udaltzaingoari buruzkoa– bertan dagoen laburpenean dago (604/2002).

Arlo horretan, gainera, atzerriko emakume bik aurkeztu diguten kexa aipatu behar dugu, Arabako hiriburuko kirol instalazio batzuetan egingo zen musika kontzertu batera zihoazela, Gasteizeko zenbait udaltzainek diskriminaziozko tratua eman zietela uste zutelako. Haien ustez, eurak soilik erregistratu eta identifikatuarazi zituzten, nahiz eta leku hartan jende ugari egon eta horretarako arrazoi objektiborik ez egon.

Era berean, aurten atzerriko emakume batek Bilboko udaltzain baten aurka egin duen kexa aipatu behar dugu. Udaltzain hori erreklamazio-egilearen bizikidetza ziurtagiri bat egiteko informazioa jasotzen ari zen eta, emakumearen ustetan, bere bizitza pribatuan eskua sartzen ari zelako eta mehatxu egin eta jarraitu egin zuelako jarri zuen kexa.

Eragindako pertsonek zuzenean edo haien ordez aritu diren erakundeek aurkeztutako kexetatik eratorri diren jarduerez gain, beste jarduera batzuk burutu ditugu gure kabuz. Hauxe da jarduera horien laburpena.

Bizkaian bakarrik dauden atzerriko adin txikikoak zaintzeaz arduratzen diren Bizkaiko Foru Aldundiko zentro bietara egin dituzte bisitak erakundeko langileek. Bisita horien bidez jakin dugu aurten foru administrazioak funtsean aldatu dituela adin txikikoen egoitza baimena eskuratzeko izapideak foru erakundean hasi behar diren uneari buruzko irizpideak. Jarraibide berriaren arabera, izapideak ezin dira hasi uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretuaren 62.5. artikuluak baimena eskuratzeko ezartzen duen bederatzi hilabeteko epea bukatu baino lehen, lehen egiten zen moduan. Gai horren inguruko jarduera bat egin dugu gure kabuz eta xehetasunak txosten honetako I. kapituluan daude, hau da, bakarrik dauden atzerriko adin txikikoen arazoak aztertzen dituen kapituluan (1.1.5. azpiatala).

Komunikabide batzuetan argitaratutako albisteen bitartez jakin dugu Euskal Herriko zenbait administrazio publiko ez zutela uzten atzerritarrek euren lan eskaintza publikoetan parte hartzea eta ordezkapenak egiteko edo aldi baterako kontratuak lortzeko poltsa edo zerrendetan sartzea. Hori ikusita, gure kabuz jardun dugu. Kapitulu honetan funtzio publikoaren arloko jardueren aukeraketa egin dugu (5.2. paragrafoa) eta jarduera horri buruzko informazio zehatza eman dugu (7/2002).

Bakarrik dauden atzerriko adin txikikoekin eta atzerriko adin txikiko arau-hausleekin lotuta aurreko urteetan egin ditugun jardueretan egindako gomendioen jarraipena eta kontrol-lanak egin ditugu aurten ere. Txostenaren I. kapitulua jarduera horiek azaltzen dira zehatz-mehatz (1.1.5. eta 1.1.6. azpiatalak).

Sasoikako langileek mahats eta patata bilketan daukaten egoerari buruzko txosten berezia egin dugu, langile horien gehiengoa atzerrikoa baita. Txostena azaroan aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. Gai horri buruzko informazio gehiago dago txosten honetako I. kapituluan, txosten bereziei buruzko epigrafean.

Gurea bezalako erakunde berme-emaileek etorkinen gizarteratzearen arazoaren aurrean daukaten kezkaren ondorioz, Nafarroan urrian egindako Herri Defendatzaileak Koordinatzeko XVII. Jardunaldietan, arartekoak immigrazio planen eraginkortasunei buruzko txosten bat aurkeztu du, etorkinen gizarteratzea errazteko politika aktiboak laguntzeko tresna diren heinean. Txostenaren testu osoa II. eranskinean kontsulta daiteke.

Azkenik, erakunde honek eta arazo horrek eragindako giza sektoreek daukaten lankidetza azpimarratu behar dugu. Harreman hori gizarte zibilarekin izandako hartu-emanei buruzko atalean deskribatu da zehazki. Txosten honetako I. atalaren 2.1. azpiatalean aurki daitezke horren inguruko xehetasun gehiago.

# 5. **BERARIAZKO ARRETA PERTSONA EZGAITUEN ARAZOEI**

Europako Batasuneko Kontseiluaren 2001eko abenduaren 3ko Erabakiz, 2003 urtea *Ezgaituen Europar Urtea* izendatu da (2001/903/CE).

Hona hemen Kontseiluak, ezgaituentzat, 2003rako ezarritako helburuak:

*a) ezgaituen bazterkeriatik babestuta egoteko eskubidearen eta beren eskubideez erabat eta hainbatean gozatzearen gainean sentsibilizatzea;*
*b) Europan ezgaituentzat aukera berdinak egon daitezen bultzatzeko behar diren neurrien gaineko gogoeta eta eztabaida sustatzea;*
*c) jarduera onen eta eragingarritasun bermatuko estrategien gaineko esperientziak elkartrukatzea tokian tokiko, estatuko eta Europa mailan;*
*d) inplikatutako alde guztien arteko lankidetza sendotzea, bereziki gobernuen, gizarteko mintzakideen, NKEn, gizarte zerbitzuen, alor pribatuaren, elkarteen, boluntarioen alorraren, ezgaituen eta beren familien artekoa;*
*e) ezgaitasunaren gaineko komunikazioa hobetzea eta ezgaituen irudi positiboa bultzatzea;*
*f) ezgaitasun moduen eta adierazpide ugarien heterogeneotasunaren gainean sentsibilizatzea;*
*g) ezgaituek aurre egin behar dieten bazterkeriako modu ugarien gainean sentsibilizatzea:*
*h) haur eta gazte ezgaituek irakaskuntzako berdintasunerako daukaten eskubideen gainean sentsibilizatzeari arreta berezia eskaintzea, gizartean erabat txerta daitezen lagundu eta sustatuz, eta haur eta gazte ezgaituen irakaskuntzako profesionalen arteko lankidetzaren garapena sendotuz, behar bereziak dituzten ikasleak ikastegi arruntetan edo espezializatuetan eta estatu eta Europa mailako truke programetan integratzea hobetzeko.*

Duela hamarkada gutxira arte, pertsona ezgaituak ia ikusezinak ziren gainerako herritarrentzat. Beren etxeetan egoten ziren, zentro espezializatuetara joaten ziren edo bizi ziren. Errealitate hori, ordea, aldatuz joan da, batez ere ezgaituen elkarteak gizartean lortuz joan diren presentziarekin, kolektibo horren integrazioa benetakoa eta erabatekoa izan dadin lortzeko hartu behar diren neurriak azpimarratuz.

Horren ildotik, aurrerapen garrantzitsua egin da herri botereek ezgaituentzako aukera berdinak izan daitezen lortzera bideratutako politika aktiboen sustapenean. Hartara, oztopoak ezabatzeko neurri berriak hartu dira legegintzaren aldetik, instalazio egokituak prestatu dira eta “guztiontzako diseinuaren” hatsarrea finkatu da.

Hala ere, aurrera egin den arren, oraindik asko dago egiteko. Horregatik, 2003 urtea *Ezgaituen Europar Urtea* izendatzeak ezgaituen irismenean erabateko partaidetza eta berdintasuna gauzatzeko indarra izan behar du.

Erakunde hau, Europako Batasunaren Kontseiluak 2003 urterako luzatutako gonbitea kontuan hartuta, ezgaituen aldeko ekimen honi atxiki nahi izan zaio, gomendio orokorra eginez (txosten honen 6. kapitulua), hedapen eta garrantzi handiagoko beste jarduera batzuekin jarraitzea nahirik. Gomendio honekin euskal herri administrazioei ohartarazi nahi diegu orain arte ezgaituak enplegu publikora heltzeko jarritako neurrietan aurrera egin dezaten, bereziki beraientzat gordetako tokien kuotari dagokionez.

Egindako azterlanetik ondokoen beharra ondorioztatzen da: ezgaituentzat gordetzeko tokien kuotaren egungo portzentajea gehitzea, gordetze horren kuotaren aplikazioa funtzio publikoko edozein prozedura mota eta deialditara hedatzea; gordetze horren kuotaren aplikazioa ahalik eta kidego, eskala eta kategoriarik gehienetara hedatzea, bateragarritasun funtzionaleko irizpide estuen arabera justifikatutako kasuen salbuespen bakarraz.

Erakunde honi Funtzio publikoaren esparruan aurkeztutako banakoen kexen izapideen gainean, erreklamazio bat baino gehiago Arabako Foru Aldundiak eta Osakidetzak egin berri dituzten hautapen prozesuen gainekoak izan dira.

Horren harira, Arabako Foru Aldundiko administrazioko azpi-eskalan sartzeko berariazko frogetan parte hartzeko interesa zuen gazte batek esku hartzeko eskatu zigun. Ikusteko ezgaitasuna zuen pertsona zen, %76ko ahalmen urritasuna aitortuta zuena. Hala ere, azpi-eskala horri dagozkion lanpostuen berezko betekizunak garatzeko ondo gaituta ikusten zuen bere burua.

Kexan zioenez, hautespen prozesu horien iragarkiaz egindako kontsulta batean, esan zioten ezinezkoa zela froga haiek egiteko hauta zezaten, zeukan ahalmen urritasun horrengatik, hain zuzen.

Gure erakundearen esku-hartzeari erantzunez, Funtzio Publikoko zuzendariak interesatuak parte hartzeko ahalbidea baietsi zigun eta, gainera, gorabehera hura ahalik eta lasterren argitzeko eta informaziorik zabal eta osoena emateko asmoa erakutsi zuen.

Bestalde, Osakidetzak administrazioko laguntzaileen tokietarako iragarritako hautapen frogetan parte hartu nahi zuen herritar batek, erakunde honi esku hartzeko eskatu zion, behar ziren egokitzapen teknikoak lortzeko, bereziki frogak egiteko denbora gehiago eman ziezaioten, zeren testuen tratamenduko gaitasun eta trebeziak neurtzeko froga praktiko bat egitea aurreikusita baitzegoen eta, berak, izan ere, ezgaitasuna eskuineko eskuan baitzeukan.

Funtzio Publikoaren alorreko kexen laburpenera jotzen dugu, bertan xehetasun handiagoz jasota baitago gai honen ebazpenean gure erakundeak izandako esku-hartzea (226/2002). Edonola ere, esan nahi dugu Osakidetzako arduradunek, zorionez, hautagai guztien artean benetako eta izatezko berdintasuna ziurtatzeko konpromisoa erakutsi zutela, beharrezko egokitzapen guztiak ezarriz, baita kexagilearen kasuan bezala frogak egiteko denbora gehiago ematea ere.

Hezkuntzaren alorrean, behar bereziak dituzten ikasleen gaiak berriro ere esku hartzera behartu gaitu. Ekitaldi honetan, hezur displasiaz eta heldutasuneko atzerapenaz jotako haur baten amaren erreklamazioa jaso dugu, EAEko herri ikastegi batean bi urteko ikasleak onartzeko orduan bere semearen hezkuntza behar bereziak kontuan hartu ez zituztela pentsatzen baitzuen.

Hezkuntza behar bereziak dituzten hiru urtetik beherako neska-mutilak eskolatzeko ahalbideak hezkuntzako arduradunek ezartzen dituzten programaketa eta plangintzako irizpideek zuzenean baldintzatzen dituzte. Horren ildotik, hezkuntzako arduradunek eskolak baliabide eta sostengu egokiekin programatzen dituzten heinean soilik planteatu ahal izango da, jarraian, hezkuntza behar bereziak dituzten haurren eskolatzea, nahiz eta -honek beste eztabaida bat eskatzen du- Euskal Eskola Publikoaren Legean jasotzen diren arian-arian ezartzeko irizpideek, hain zuzen, hezkuntza behar bereziak dituzten

haurrak eskolatzera begira diezaion programazioa lehenestera behartzen duten.

Hara bada, hezkuntza Administrazioak nahikoa sostengu eta baliabideko haur hezkuntzako eskola unitateen funtzionamendua aurreikusi eta baimentzen duenean, hezkuntza behar bereziko haurren eskolatzeak, era berean, lehentasuna izan beharko du, agindu bikoitzari adituz. Batetik, Euskal Eskola Publikoaren Legearen 9.2 artikuluaren agindua, zerotik hiru urtera bitarteko haurren eskolatzea arian-arian ezarriz joatea, hezkuntza behar bereziak dituzten haurrei bereziki adituz, eta bestetik, ikasleen onarpenaren eta beharrak dituzten ikasleen hezkuntzako berariazko antolamenduek ezartzen dituzten hezkuntza behar bereziko haurren eskolatzea lehenesteko agindua. Horren harira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari uztailarne 8ko 29/2002 Gomendioa bidali genion: *"Zerotik hiru urterako haur hezkuntzaren lehenengo zikloan ikasleen onarpenerako araudiak eta hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei erantzuteak agintzen dutena bete dezan, hori guztia Euskal Eskola Publikoaren Legean ziklo hori arian-arian ezarriz joateko finkatutako lehentasunen ildotik"*.

Sailak ez zuen gure gomendioa onartu. Edonola ere, txosten honetako Hezkuntza alorrera sartutako kexaren laburpenera jotzen dugu.

Bestalde, hezkuntzaren esparruari dagokionez, osteosarkomaz jotako ikasle baten gurasoek jarritako kexa nabarmendu nahi dugu; iazko ekainean teknologiako batxilergoko 2. mailan zegoen ikaslea. Gaixotasun luze eta larriengatik, beren semeak bezala bizitza akademiko normalik izan ezin zuten ikasleentzako laguntza handiagoa eskatzen zuten. Beren semearen eskolatzearen ingurumariak kontatu ondoren, gurasoen eskaria hiru alderdi zehatzetara bideratzen zen:

- Gaixotasun larriak dituzten eta ikastegietara joan ezin duten ikasleek nahitaezkoak ez diren etapetan antolatutako hezkuntzaz gozatu ahal izateko aparteko baliabideen beharra.
- Nahitaezkoak ez diren irakaskuntzak ematen diren ikastegietan ikasle hauen artapenean inplikazio handiagoa izan eta erantzukizun handiagoak hartu behar dutela.
- Beren semearen kasurako ebazpide zehatzaren beharra, bizitza akademikoan normaltasunez integratu ahal izateko.

Kexaren izapideengatik izan genituen harremanetan, gurasoek baietsi ziguten beren semea beste ikastegi batera aldatu zutela, eta hango eskolatze baldintzak nabarmen hobeak zirela. Hartara, kexa honen alderdi zehatza gainditutzat jo genezakeen.

Hala ere halako ikasleak, ospitaletan egonaldi luzeak eta ondoren etxean sendatzeko garaiak egitera behartuta daudenak eskolatzeko baldintzen tratamenduari modu eragingarriagoan ekiteko ekimen berriak bilatu eta planteatu behar direla uste dugu.

Azkenik, EHUn ikasten hasia zen gazte ezgaitu batek gure erakundeari esku hartzeko eskatu zion, eskolatzeko baldintza egokiak eskain ziezazkioten lortzeko.

Kexa hori berria zenez, Arartekoak bereziki baloratu zuen gaztearen eskolatze baldintzen jarraipena egitea komeni zela, ezgaitasunen bat daukaten unibertsitateko ikasleak integratzeko errealitatea kontrastatu ahal izateko aukera gisa.

Hartara, jakin ahal izan genuen Unibertsitateak oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta espazio fisiko jakin batzuk moldatzeko neurriak hartuak zituela, gazteari ikasi nahi zuen unibertsitate zentrora joatea errazteko.

Era berean, jakin ahal izan genuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak eta EHUk ituna sinatuta zeukatena, unibertsitatekoaz bestelako

irakaskuntzaren alorrean hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleez arduratzen diren profesionalek –hezkuntza bereziko laguntzaile gisa ezagutzen direnak- beren jarduera ezgaitasunei aurre eginez unibertsitatean ikasten jarraitzen nahi duten ikasleengana hedatzeko. Horrek, zalantzarik gabe, aurrerapen handia dakar eguneroko bizitzako ohiko eginkizunetarako ere behar den autonomiarik ez duten ezgaitasun larriko ikasleei artapen egokia ziurtatzeko.

Kexa honen izapidetzeak, ordea, beste alderdi bat zehaztu beharra utzi zuen agerian, garraioaren zerbitzu osagarriaren antolakuntzarena, hain zuzen, gure ustez ikasle horientzat funtsezkoa baita.

Horren gainean, gure iritziz, ezinbestekoa da Unibertsitateak ezarri nahi duen Integrazio Planak berak argi eta garbi adieraztea noraino heltzen den ikasle ezgaituen integrazioarekin zerikusia duen konpromisoa, EHUn ikasi nahi duten ikasleentzako egokitzapenen eta laguntzen zer-nolakoak definitu eta zeri euts liezaioketen finkatu ahal izateko.

Horrela, Unibertsitate honen konpromisoa unibertsitateko esparru estuan irakaskuntza ziurtatzeko behar diren egokitzapen eta laguntzetara mugatuko balitz, erakunde honen ustez, baldintza horiek agerian jarri beharko lirateke ikasle hauen matrikulak izapidetzen diren unean, zeren egokitzapenen eta ematen diren laguntzen mailak erabat baldintzatzen baitu ikasle hauek nahi dituzten ikasketak egin ahal izatea ala ez.

Puntu honetan, Unibertsitatearen konpromisoa unibertsitateko esparru estuan irakaskuntza ziurtatzeko behar diren egokitzapen eta laguntzetara mugatuko balitz, Integrazio Plana partziala dela besterik ez genezake esan, zeren izan ere duten ezgaitasun maila handiarengatik laguntza osagarriak behar dituzten ikasleen beharren artapena –kexa jarri duen gaztearena kasu- saihestuko bailuke.

Bestalde, EHUk ikasle ezgaituen integrazioari dagokionez duen konpromiso maila oso datu garrantzitsua da, unibertsitateko ikasle ezgaituen artapenean presentziarik izan nahi duten erakunde eta administrazio desberdinen erantzukizun mailaren inguruko zalantzak argitzen utziko bailuke.

Dena dela, kexa izapidetzean, erakunde honek jakin ahal izan du Eusko Jaurlaritzaren egiazko ekimen bat dagoela, beren ezgaitasunarengatik ohiko garraiabideak erabili ezin dituzten ikasleentzat moldatutako garraio beharrak finantzatzeko laguntzen sistema artikulatzen saiatzeko. 2002ko abenduaren 3ko Agindua da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuarena eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuarena, ikasle ezgaituentzako unibertsitaterako garraioko gastuak ordaintzeko 2002-2003 ikasturterako laguntzen deialdiaren gainean (EHAO 237, abenduaren 12koa).

Kexa izapidetzeko egin genituen gestioei esker, ezgaitasunen bat daukaten unibertsitateko ikasleen integrazioa ziurtatuko duten baldintza egokiak bilatzeko ahalegin irmoa zegoela jakin ahal izan genuen.

Herrizaingo alorrean, oraindik ere ezgaituentzako gordetako aparkalekuen erabilpen okerra eta hainbat udalek horren aurrean duten pasibotasuna kexa-gai dira.

Era berean, batzutan, gordetako toki horiek nahikoa ez direlako, eta baita udalerriren batean halakorik gordetzen ez delako ere kexatu izan zaizkigu.

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio eta Koordinakundeak Donostiako portuaren eremura beren automobiletan sartzerik ez zeukatenez, elkarte horrengana

jo duten ezgaitu askoren erreklamazioetan gure esku-hartzea eskatu du. Gai hori lehenago ere aztertu zuen erakunde honek. Orduan abiatutako kexa espedientean egindako azterlanaren ondorioz Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilan Sailari gomendio bat helarazi genion, Donostiako portuan, aplikatzekoa den lege araubidearen arabera, ezgaituen zerbitzurako behar diren ibilgailuentzako tokiak gordetzeko eta eremu horretako estazionamenduko araubidean apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren aurreikuspenak betetzeko eskatuz.

Bestalde, herritar batek, ezgaituentzako estazionamenduko txartel bakarraren titularrak –abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araupetutakoa- bere kexa helarazi zigun, Bilboko Udalak 2000ko urtarrilaren 31n onetsitako Trafiko eta Aparkamenduko Arautegiaren ezgaituek TAO eremuetan estazionatzeko ezarritako araubide bereziaren aurka. Besteak beste, kexatzen zen araudi horri eutsi ahal izateko, arauketa berriak ez zuelako txartel bakarra nahikotzat jotzen, eta udal txartel berria ere exijitzen zuelako, txartel bakarraren titular eta Bizkaiko herritarrak izanik, aldi berean joan-etorrietarako erabiltzen zuten ibilgailuaren jabe eta gidari zirenei soilik ematen ziena.

Esku-hartze honen laburpena Herrizaingo sailaren alorrean, eta trafikoaren azpiatalean ikus daitekeen arren, hemen esango dugu Bilboko Udalari gure balorazia helarazi geniola, hau da, Trafiko eta Aparkalekuetako Arautegi berriak ezgaituentzako berariazko araubidearen abantailak abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan araupetutako estazionamenduko txartel bakarraren titular ziren pertsona guztiengana hedatu behar zuela, eta ez zuela txartel horrez edo Europako Batasuneko beste Estatu kideetako horren baliokideaz bestelako titulurik exijitu behar.

Ogasun alorrari dagokionez, PFEZn ezgaitasunaren ondoriozko kenkarietan sartutako legegintzako aldaketek ondore praktikoak izan dituzte 2002 urtean aurkeztutako errenta aitorpenetan (2001eko zergaldietakoak), eta ezgaitasunaren zerga tratamendua nabarmen hobetzea ekarri dute.

Batetik, kenkaria ez da jada muga jakin bat gainditzen duen edozein ezgaitasunetarako finkoa eta bakarra, orain hiru tarteko kenkari gisa eratu baita (%33, %65 eta %75eko ezgaitasuna).

Era berean, zergadunaren mende dauden eta kenkariaren aplikazioa baldintzatzen duten pertsonen diru sarreren mugak ere ikaragarri jaitsi dira, eta orain lanbide-arteko gutxieneko soldataren bikoitzean jarri dira.

Kenkari honen bilakaeran azpimarratu behar den beste alderdi positibo bat aplikazio esparrua hedatu dela da, kenkarirako eskubidea ematen duten ezgaituen artean zergadunaren mende bizi diren ezkontidea eta alboko senideak –laugarren gradurainokoak, hori barne- sartzean.

Bestalde, Bizkaian abenduaren 26ko 203/2001 Foru Dekretua indarrean jarri izanak –ezgaituentzako berezko, hitzartutako, itunpeko edo kontratutako zentroetako prezio publikoen arauketa aplikatzea erabaki eta garatzen duena- hainbat kexa eragin ditu azkeneko hiletan, Dekretuaren aplikazioak ekarri dien garestitzearekin, neurrigabetzat jota, ados ez dauden familien aldetik. Une hauetan, Bizkaiko Foru Aldundiak gai horren berri eman diezagun zain gaude.

Ingurune fisikoa eta komunikazioa eskueran izatea funtsezkoak dira herritar guztiek oinarrizkotzat jotako eskubideez gozatu ahal izan dezaten. Horregatik, ezgaituen gizarte,

merkataritza, ekonomia eta politika bizitzan integrazioa eta partaidetza hein handian mugikortasun arazoei ematen zaizkien konponbideen mende egongo dira.

Erakunde honek jarduera ugari burutu ditu ezgaituek ingurunea irisgarriagoa izan dakien proposatutako ekimenak bultzatzen saiatzeko. Hartara, eraikin publikoetan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko esku har dezagun eskatu digute: ikastegi, osasun etxe, eta abarretan. Auzokide erkidego batek ere Bediako Udalaren aurrean esku hartzeko eskatu zigun, beren etxeetako atzealdeko lorategi sortak ezgaituek normal erabili ahal izateko egokitzeko, haietan zegoen desnibela kenduta.

Aldi berean, kexak jaso dira, bai norbanakoenak bai kolektiboenak, ezgaituek Gasteizen zabaldu diren zinema areto berrietan aurkitutako arazoak salatzen dituztenak.

Interesatuek diote arazoak ezgaitu fisikoentzat gordetako tokien kokapenetik sortzen direla, toki horiek guztiak lehenengo lerroan daudelako, eta tokian harmaila modura banatuta daudelako ere bai, horrek ibiltzeko arazoak dituztela zinemara joaten diren pertsonei traba handiak eragiten dizkielako, edo joatea eragozten dielako. Era berean, diote, pantailen dimentsioak kontuan izanik, lehenengo lerro horretatik ikustea oso deserosoa dela, lepoaren jarrerarengatik –gurpildun aulkiek ez daramate buru-sostengurik-, pantaila buruaren paretik oso altu dagoelako, eta hain aurretik ez delako irudia ondo ikusten.

Horregatik guztiarengatik, berdintasun eskubidea urratzen dela uste dute, zeren ezgaituak ez baitaude gainerakoen aldean berdin, ez dutelako non eseri aukeratu.

Alegazio horietan oinarrituz, Gasteizko udalari hiriko merkataritza eremu batean eraikitzen ari diren zinema areto berrietan ezgaituentzako gordetako lekuen aurreikuspenen gaineko informazioa eskatu genion.

Udalak erantzun zigun hiri ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetako irismen baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskineko 6. artikuluko irizpideak aplikatzen direla, logikoki.

Egiaz, dekretu horrek zenbat toki eta non gorde behar diren ezartzen du. Kokapena teknikari proiektugileak zehaztu behar du, arautegiak esandako irizpideetan oinarrituz, eta hor esaten duen bakarra da gordetako toki horiek sarbideetatik eta pasatzeko tokietatik gertu egongo direla. Udaleko Herri Kaleen Zerbitzuak jakinarazi zigun hirian eraikitako azkeneko zine aretoen gainean egindako azkeneko irismen txostenek indarreko legediari egokitzen zitzaizkiola ziotela, hau da, irismena sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeari eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuari doitzen zitzaizkiola eta, beraz, ezin zutela teknikari proiektugilea gordetako toki horiek lokalean zehar sakabanatzera behartu, hori indarreko araudiak agintzen zuena baino harantzago zihoalako. Edonola ere, esaten zuten zerbitzu horrek sustatzaileari eta proiektugileari toki gorde horiek sakabanatzea komeni zela iradoki besterik ez zuela egin, betiere sakabanaketa horrek arloko beste araudiren bat urratzea ekartzen ez badu, edo tokiak igarobide eta sarreretatik kanpo jartzen ez badira, baina kontuan izanik sustatzaileak proposatutako iradokizunei jaramon egiteko prest dagoen ala ez.

Espedientearen izapideen puntu honetaraino helduta, Arartekoak egoki iritzi zion Irismena Sustatzeko Euskal Kontseiluari Gasteizko ezgaituen kolektiboaren zati handi batek, baita norbanakoen aldetik eta gure erakundean gai horren inguruan erantzundako kontsulta ugarien ondorioz ere, erakunde honen aurrean salatutako arazo horien berri emateari. Egia da kasu honetan ez dela indarreko legedia urratzen, baina gure ustez, ezgaituek aldarrikatzen duten bezala, horren gaineko gogoeta egin beharra dago, eta azterlan xehatua ere bai, gordetako eserlekuak lokalean zehar sakabanatuz eta denak

lehenengo lerroan biltzea saihestuz, oraingo harmaila moduko diseinua aldarazi edo berregituratuta, konponbiderik aurkitzerik dagoen zehazteko.

Bestalde, nekez mintza gaitezke ezgaituak gizarte bizitzan integratzearen alde, pertsona horiek bizi diren etxebizitza eta eraikinetako oztopo arkitektonikoak ezabatzen ez badira. Arazo hori gure erakundearengana heltzen da, mugitzeko arazoak dituen pertsonaren etxebizitza dagoen eraikina herri titularitatekoa denean. Horren ildotik, Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak 2002ko azaroaren 29an hartutako erabakia azpimarratu behar dugu, zeinen arabera teknikoki igogailua jartzea dagoen udalaren etxebizitza eraikinetan igogailuak jartzeko behar diren mekanismoak arbitratuko direla erabaki baita.

Aldi berean, babes ofizialeko etxebizitzen araubidean ezgaituen alde sartutako araudizko aldarazpenak ere esanguratsuak izan dira.

Aurten arte, mugitzeko arazoak zituzten pertsonentzat gordeta zeuden eta, eskaririk ezean, esleitu gabe geratzen ziren etxebizitzak kupo orokorrean eslei zitezkeen etxebizitzen multzora igarotzen ziren. Hala ere, aurreikuspen hori duela gutxi aldatu egin du Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuak, babes ofizialeko etxebizitzen esleipen prozeduraren gaineko 2002ko ekainaren 14ko aginduaren bidez. Hara zer dioen 4.3. artikuluan: *"Ezinduentzat gordetzeko esleituta dauden etxebizitzak direnean, dagokion Lurralde Ordezkariak, dagoen eskaria ikusita, horien esleipenaz erabaki ahal izango du, babes ofizialeko etxebizitzen onuradun izateko betekizunak izanik, ezinduen kupoaren barruko eskariak diren bizikidetasun unitateen artean soilik."*

Bestalde, Eusko Legebiltzarrari 2001eko ekitaldiaz egin genion urteko txostenean esaten genuen, kexa espediente bat bideratzean, erakunde honek egiaztatu zuela Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailburuaren etxebizitza beharren ingurumarien gaineko 2000ko abenduaren 26ko aginduaren 3. artikulua aldarazi beharra zegoela. Agindu horrek etxebizitza baten jabe, gainazalaren eskubidedun, gozamen eskubide edo jabetza soildunak diren eta esplizituki esandako egoeretan daudela agirien bidez froga dezaketen pertsonak etxebizitza beharduntzat zein egoera ezohikotan jo daitezkeen zehazten du. Agindu horren 6. puntuak kideren batek ezindua dela, mugitzeko arazo iraunkorrak dituela eta bere etxebizitzaren merkatu libreko balioa babes ofizialeko etxebizitzetarako aurrez ezarritako moduluetatik gorakoa ez dela kreditatzen dueneko bizikidetasun unitate batekoak diren eskatzaileei salbuespena aitortzen die. Aginduari hitzez hitz adituz gero, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko aukera jada babes ofizialeko etxebizitza baten esleipendunak ziren eskatzaileek soilik zeukaten, zeren etxebizitzaz exijitzen zen balorazioa etxebizitza babestuetarako ezarritako moduluari doitu behar baitzitzaion, edo bizitzeko gutxienezko baldintzak zituen etxebizitza baten titularrek, horientzat arauak salbuespen hori aurreikusten baitzuen (3.3. art.).

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren 2002ko apirilaren 12ko Aginduak arau hori aldarazi zuen. Gerora, etxebizitzaren beharraren ingurumarien gaineko Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako 2002ko abenduaren 30eko Aginduak honelaxe idatzita uztea erabaki zuen:

> *"6.- Eskatzaileen artean mugitzeko arazo iraunkorrak dituen ezgaitua dela kreditatzen duen bizikidetasun unitateko kideren bat izatea, betiere ondoko baldintzak ere betetzekotan:*

*a) Hiri eremu, espazio publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetako irismen baldintzen gaineko arau teknikoak onesten dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan ageri diren sarbideei eta igogailuei buruzko zehaztapenak betetzen ez dituen eraikinean dagoen etxebizitza izatea.*

*b) Erosiko den etxebizitzak arestiko atalak aipatzen dituen sarbide eta igogailuei buruzko zehaztapenak bai betetzea.*

*Etxebizitza jabetzan edo gainazaleko eskubidean, edo Administrazio honek sustatutako araubide berezian esleitzen denean, eskatzaileak titular direneko etxebizitza, zamarik gabe eta inor gabe, esleitutakoaren truke aldatzea ezinbestekoa izango da. Gainerako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eskueran jarriko da, zamarik gabe eta inor gabe ere, eta administrazioak berak edo berak izendatzen duenak erosi ahal izango du, erosiko den babes ofizialeko etxebizitzaren prezioan gehienez.*

*Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena edo eskueran jartzea alokairuan bada, beste etxebizitzaren gainazala edo gozamen eskubidearen titularra den bizikidetasun unitateko kideak hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren eskueran, edo sailak izendatzen duenaren eskueran jarri beharko du, alokairuan laga dezaten.*

*Esleipenduna titular deneko etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badago, babes ofizialeko etxearen jabetza izkribuak egin baino lehen edo alokairu kontratua sinatu baino lehen saldu dela kreditatu beharko da.*

*Ondore horietarako, mugitzeko arazo iraunkorrak dituzten ezgaituak, ezintasunaren aitorpen, adierazpen eta kalifikaziorako prozedura araupetzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinean jasotakoen artean, organo eskudunaren egiaztagiriaren bidez ondoko egoeraren batean daudela kreditatzen dutenak izango dira:*

*a) Gurpildun aulkietan ibili behar dutela.*

*b) Ibiltzeko bi makilen erabat mende daudela.*

*c) D)tik H)ra bitarteko ataletan 12 puntu edo gehiago dituztela."*

Aurreikuspen berriarekin, gure ustez egokitu gabeko etxebizitzetan bizi diren eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonei etxebizitza babestuak hartzeko aukera eskaintzen zaie.

Etxebizitzaren esparruari dagokionez, ekitaldi honetan ezgaituei esleitutako etxebizitzetan irismen baldintzak betetzen ez direlako salaketak ere jaso dira.

Iazko txostenean ordura arte ezgaituen gizarteratzearen gaineko azterlana burutzeko egindako urratsen berri eman genuen. Azkenean bi txosten monografiko egitea erabaki zen.

Lehenengo ikerlana **herri eraikinen irismenaz** izan da. Hona hemen zer helburu lortu nahi ziren:

– EAEko udalerrietan herri eraikinetako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko dauden plan eta proiektuen berri izatea.

- Herri eraikinen irismena, indarreko legediaren arabera (Irismena Sustatzeko Legea eta herri eraikinetako irismenaren gaineko arau teknikoak garatzen dituen Dekretua) nolakoa eta zenbatekoa den ebaluatzeko bitarteko bat prestatzea.
- Herri eraikinik erabilienen lagin batean zenbaterainoko irismena dagoen ebaluatzea.

Ikerlanaren prestakuntza teknikoa kasu honetan SIIS Dokumentazio eta Azterlanen Zentroari esleitu zitzaion, eta hasieran 2002 urtearen barruan amaituko zutela zirudien arren, udal askotan datuak biltzeko izandako arazo eta atzerapenek epeak luzatzera behartu gaituzte. Urteko txosten hau idazten eta amaitzen ari garen une honetan txostena ia amaituta dago, eta ikerlanaren emaitzak aurki jasoko ditugulakoan gaude. Behin lan hori aztertu eta osatu ondoren, Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztuko da.

Bigarren ikerlanean **ezgaituek gure Erkidegoan laneratzeko dituzten aukerak** aztertu dira. Hona hemen ikerlanaren funtsezko helburuak:

- Gure hirian enplegua sustatzeko neurrien aplikazioa noraino heltzen den ezagutzea, eta beste testuinguru batzuetakoekin alderatzea.
- Ezgaituen enpleguaren kalitatea aztertzea.
- Gizarteratzeko neurriei heldu dieten pertsona kontratatuei eta enpresa kontratatzaileen ezaugarriak aztertzea, laneratzea laguntzen edo oztopatzen duten faktoreak ikertzeko.

Ikerlan hau Datlan S.L.ri esleitu zitzaion, eta 2002 urte osoan jardun dute horretan: datuak bildu eta tratatu, elkarte eta erakundeetako ordezkariekin bilerak egin, ezgaitasun desberdinak dituzten pertsonekin elkarrizketak izan, hainbat kapitulu idatzi…

Abenduan lanaren lehenengo bertsio bat eman ziguten, aztertu eta zuzendu genuena. Ondoren berriro idatzi zen, azkeneko orduan jasotako datu berriak erantsiz.

Urteko txosten hau idatzi eta amaitzen ari garen unean, badaukagu jada lanaren bertsio zuzendua, eta berrikusten eta aztertzen ari gara. Behin zuzendu eta gomendioekin osatuta daukagunean, Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dugu.

Hartara, bada, guk uste dugu bi txosten horiek datozen hilabeteetan argitaratu ahal izango direla eta ezgaituen europar urterako beste ekarpen bat izango direla.

# III. ATALA

# ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

# 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jarduera zenbakitan bilduko dugu. Beraz, hurrengo orrialde hauetan administrazio ezberdinei eragiten dieten kexen kopurua, aipatu kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren xehetasun osoz agertuko ditugu. Azterketa soziologikoa eginez, erreklamatzeko moduak, erabilitako hizkuntza, etab. ezagutuko ditugu eta zuzeneko arreta eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera zehatz mehatz azalduko dugu. Kopuruak estatistika-kapitulu honetan zehar ematen dira, baina jarraian laburpen gisa honako hiru alderdiak azpimarratuko ditugu: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta biztanleen artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun-maila; eta erreklamatzaileek Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2002. urtean zehar 3.572 kontsulta izan ziren Arartekoaren zuzeneko arretarako hiru bulegoetan. Bisita-kopurua guztira, 2.332, nabarmenki hazi zen, nagusiki Gasteizko bulegoan, eta horietatik guztietatik 691 bisitak kexa eragin zuten, hots, % 29,63. Honek agerian uzten du zuzeneko arretarako bulegoetan aurretiaz egiten den lana, ez baitira onartzen Arartekoak arrazoi ezberdinak medio aztertu ezingo dituen erreklamazioak. Era berean, Internet ere biztanleek erreklamazioa aurkeztu ahal izateko erabil ditzaketen bideetako bat bihurtzen doa. Kexen % 13,73 erakundearen web-orriaren bidez jaso ziren (www.ararteko.net). 2002. urtean biztanleek 1.235 kexa aurkeztu zituzten Arartekoan. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da erreklamazio horietako batzuk ehundaka sinadurek bermatzen dituztela eta horietatik % 13,56 kolektiboren batek aurkeztu dituela.

Urtean zehar, gainera, ofiziozko 91 espedienteri eman zitzaien hasiera. 2002. urtean bertan tramitatu diren kexei dagokienez, 264 kasutan irregulartasunak atzeman ziren, hots, aztertu diren banakako edo taldekako kexen % 26,24an. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak konpondu ahal izan zituen irregulartasunen bat agertu zuten erreklamazioen % 90,32an. Kasu gehienetan (% 92,41) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.

Jarduketa baloratzeari dagokionez, borondatez betetzen dituzten eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso positibotzat jotzen da (galdekizuna erantzuten dutenen % 81,75aren ustez), baita euren arazoa konponduta ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso duten pertsonen artean ere. Gainera, hainbatek baiesten dute beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko lieketela administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

| *Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun maila* | | |
|---|---|---|
| | % | % |
| **Konpondutako irregulartasuna** ............ | | 90,32 |
| Gomendiorik gabe .............................. | 92,41 | |
| Gomendioa onartuta ........................... | 7,59 | |
| **Konpondu gabeko irregulartasuna (gomendioa ez da onartu)** ................... | | 9,68 |

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

2002an aurkeztutako 1.253 erreklamazioetatik 976 izapidetzea onartu da, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Taldeek (ekologista, auzo elkarte eta abarrek) % 13,56 aurkeztu dituzte. Erreklamazioren bat hainbat hamarkada sinaduraren babesaz etorri zaizkigu.

**- Jasotako kexak**

Arestian esan dugunez, 2002 urtean guztira 1.253 kexa jaso dira, denetara, eta horietatik 6 hamarnaka sinaduraren babesarekin etorri dira.

| *Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 - 2002)* | |
|---|---|
| **Urtea** | **Kop.** |
| 1989 | 585 |
| 1990 | 1.159[1] |
| 1991 | 766 |
| 1992 | 781 |
| 1993 | 827 |
| 1994 | 747 |
| 1995 | 1.164 |
| 1996 | 1.674 |
| 1997 | 1.991 |
| 1998 | 2.660[2] |
| 1999 | 1.283[3] |
| 2000 | 1.231 |
| 2001 | 1.513[4] |
| 2002 | 1.253 |

[1] 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.
[2] 1.143k kexa berdinen bi multzo osatzen dituzte.
[3] 62k kexa berdinen multzoa osatzen dute.
[4] 264k kexa berdinen bi multzo osatzen dituzte.

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

**- Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikuluak aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2002 urtean guztira zenbatutakoen artean, lehenengo eta behin, dena delakoarengatik onartu ez diren kexak bereiztu behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegietan planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo gelditzeagatik.

Nolanahi ere, 2002 urtean erreklamazioei ahalik eta estaldura juridikorik handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauei herritarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du herritarrei gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

| ***Onartu gabeko kexak eta egoerak*** | |
|---|---|
| Norbanakoen arteko auzia | 38 |
| Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik | 27 |
| Eskumen eremutik kanpo | 26 |
| Epai bidean | 22 |
| Irregulartasun nabaria | 17 |
| Legezko epeen zain egon beharra | 11 |
| Izenik gabe aurkeztu da | 8 |
| Estatuko Herri Defendatzailearekiko bikoiztasuna | 4 |
| Urtebetetik gora igaro da | 4 |
| Formazko akatsa | 3 |
| Interes zilegirik eza | 1 |
| Guztira | 161 |

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

**- Estatuko Arartekoari edo beste ararteko batzuei bidalitako kexak**

Badira Estatuko administrazioaren jardueraren aurkako kexak, gure Ararteko erakundean zuzenean izapidetzen ez dituenak, ez daudelako gure kontrolpean. Erreklamazio horiek Estatuko Arartekoarengana bideratzen dira. Beste kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako legebiltzarren mandatariengana bideratzen dira, esaterako Andaluziako Arartekoarengana edo Valentziako Erkidego Síndic de Greuges delakoarengana.

2002an 92 erreklamazio Estatuko Arartekoari bidali dizkiogu eta 4 beste ararteko batzuei.

| | |
|---|---|
| Estatuko Defendatzaileari bidalitako kexak | 92 |
| Beste ararteko batzuei bidalitako kexak | 4 |

**- Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, ez direnak zehazki euskal herri administrazio baten jarduera jakin baten aurka zuzendu eta horiek, estatistiken aldetik bereiztuta zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat kudeaketa egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2002an 15 jaso ditugu.

| | |
|---|---|
| Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak .............................. | 15 |

**- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko modua**

Lehenengo hurbiltzea batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduketek eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa kopurua handia egotea estu lotuta dagoela herritarren administrazio horren funtzionamenduarekiko duten iritzi txarrarekin, akatsik nahiz gehiegikeriarik, edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrekoa da aurreko lerrokadan kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela aurretiaz administrazio jakin baten jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egin beharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

## 2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu 2002an aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Hartara, Funtzio Publikoaren arloko kexak nabarmen jaitsi dira iazko aldean (2001ean baino 246 gutxiago), iaz IRALE programan sartutako osasun saileko eta irakaskuntzako bitarteko langileek planteatutako kexa berdin-berdinen multzoak bideratu zirelako. Ogasun arloko kexak ere gutxitu dira.

Aldiz, Hirigintza eta Etxebizitza arlokoak ugaldu dira (2001ean 106 kexa izan ziren eta 2002an 158), eta Herrizaingo sailarekin lotutakoak ere bai (iaz baino 51 gehiago).

***Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera eremuka***

| | **Jasotako kexak** | **%** |
|---|---|---|
| Hirigintza eta Etxebizitza | 158 | 16,17 |
| Herrizaingoa | 128 | 13,10 |
| Funtzio Publikoa | 120 | 12,28 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 120 | 12,28 |
| Gizarte Ongizatea | 83 | 8,60 |
| Osasuna | 80 | 8,19 |
| Ogasuna | 79 | 8,09 |
| Ingurumena | 69 | 7,06 |
| Hezkuntza | 58 | 5,94 |
| Justizia | 26 | 2,66 |
| Kultura eta Elebitasuna | 24 | 2,46 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 19 | 1,94 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 12 | 1,23 |
| Guztira | 976 | 100 |

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

**- Kexen sailkapena azpi-arloka**

2002an jasotako kexak gaika aztertuz gero, hurrengo koadroan azpi-arlo bakoitzak gaikako arlo bakoitzean (Ararteko erakundean horietan sistematizatzen du bere lana), egon diren aldaketetan duen eragina ikusten da.

***Jasotako kexen banaketa jardueraren azpi-arloen arabera***

| | | |
|---|---|---|
| **Hirigintza eta Etxebizitza** | | **158** |
| Etxebizitza | 54 | |
| Hirigintza arauen betetzea eta aiurria | 50 | |
| Irismena | 16 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 13 | |
| Hirigintza kudeaketa | 10 | |
| Hiri antolamendua | 9 | |
| Beste batzuk | 5 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Herrizaingoa** | | **128** |
| Trafikoa | 79 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 13 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 13 | |
| Herritarren segurtasuna | 12 | |
| Jokoak eta ikuskizunak | 9 | |
| Atxilo guneak | 1 | |
| Beste batzuk | 1 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Funtzio Publikoa** | | **120** |
| Funtzio publiko orokorra | 64 | |
| Irakaskuntzako funtzio publikoa | 22 | |
| Osasuneko funtzio publikoa | 21 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 8 | |
| Poliziaren alorreko funtzio publikoa | 4 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 | |
| **Herri lanak eta zerbitzuak** | | **120** |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 31 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 26 | |
| Tokiko zerbitzu publikoak | 25 | |
| Obren burutzapena | 7 | |
| Nahitaezko desjabetzea | 7 | |
| Obren proiektuak | 7 | |
| Landa bide eta errepideak | 5 | |
| Garraioak | 5 | |
| Beste zerbitzu publiko batzuk | 4 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 2 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| **Gizarte Ongizatea** | | **83** |
| Familiei laguntzea | 24 | |
| Diruzko gizarte prestazioak | 19 | |
| Ezgaituei laguntzea | 9 | |
| Zaharrei laguntzea | 9 | |
| Haur eta nerabeei laguntzea | 8 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 8 | |
| Beste batzuk | 4 | |
| Babes bereziko taldeentzako laguntza | 2 | |
| **Osasuna** | | **80** |
| Erabiltzaileen eskubideak | 31 | |
| Osasun publikoa | 20 | |
| Osasun artapena | 13 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 7 | |
| Adimen osasuna | 7 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Ogasuna** | | **79** |
| Udal zergak | 19 | |
| Foru zergak, PFGZ | 18 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 11 | |
| Foru aldundien prezio publikoak | 10 | |
| Udal tasak | 8 | |
| Udal prezio publikoak | 4 | |

| | | |
|---|---|---|
| Foru zergak, BEZ | 3 | |
| Foru zergak, ITP | 2 | |
| Beste batzuk | 2 | |
| Foru aldundiek udal zergak kudeatzea | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Ingurumena** | | **69** |
| Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan | 56 | |
| Ingurumenaren beste ukipen batzuk | 8 | |
| Jard. sailkatuak lurzoru urbanizatu ezinean | 2 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 2 | |
| Jarduera sailkatuak industria lurzoruan | 1 | |
| **Hezkuntza** | | **58** |
| Eskubideak eta betebeharrak | 21 | |
| Unibertsitateko irakaskuntza | 10 | |
| Ikastegiak | 7 | |
| Beste batzuk | 6 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura | 5 | |
| Hezkuntza berezia | 2 | |
| Arte irakaskuntzak | 2 | |
| Eskolaz kanpoko jarduerak | 1 | |
| Haur hezkuntza | 1 | |
| Derrigorrezko bigarren hezkuntza | 1 | |
| Lanbide heziketa | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Justizia** | | **26** |
| Justizia administrazioaren funtzionamendua | 9 | |
| Espetxe gaietako jarduketak | 8 | |
| Abokatu eta prokuradore bazkunak | 5 | |
| Doako laguntza juridikoa | 2 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Kultura eta Elebitasuna** | | **24** |
| Elebitasuna | 12 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 5 | |
| Kirola | 3 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 2 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Nekazaritza, Industria, Merkataritza, Turismoa** | | **19** |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzua | 6 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 6 | |

| | |
|---|---|
| Industria | 4 |
| Kontsumoa | 1 |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| Turismoa | 1 |
| **Lana eta gizarte segurantza** | **12** |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 6 |
| Beste batzuk | 4 |
| Lana | 2 |

## 3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzari adituz, 2002 urtean kexa kopururik gehien jaso duena tokiko administrazioa izan da, guztira bideratutako kexetan % 45,33 administrazio bakoitzari ukitzen dioten kexen proportzioaren arabera. Horrek iazko aldean pixka bat jaitsi dela erakusten du, iazko portzentajea % 49,21 izan baitzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexak, ordea, gehitu egin dira, 2001ean % 33,13 izatetik 2002an % 35,89 izatera.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira aurkeztutako kexetatik % 15,77 erakarri ditu.

Gainera, modu informalean, Estatuko administrazioaren aurkako 12 erreklamazio ere zuzenean ikertu dira.

Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikatutako administrazioak ikertzeak ez duela irregulartasunik egin dutenik esan nahi.

***Zuzenean bideratutako kexen banaketa, ukitutako administrazioen arabera***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Toki administrazioa | 437 | 45,33 |
| Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 346 | 35,89 |
| Foru administrazioa | 152 | 15,77 |
| Estatuko administrazioa | 12 | 1,24 |
| Herri erakundeak | 10 | 1,04 |
| Justizia | 6 | 0,62 |
| Erakunde pribatuak | 1 | 0,10 |
| Guztira | 964 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

A) **Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa arloka**

Uste izatekoa denez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Funtzio Publikoa, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa, Hirigintza eta Etxebizitza) egon da kexa kopururik handiena. Ogasun sailak, berriz, ez dauka hainbesteko pisurik, Eusko Jaurlaritzak gai horretan jarduera esparru txikia daukalako, udal eta aldundien aldean.

***Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka jarritako kexen banaketa arloka***

| | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Funtzio Publikoa | 65 | 18,78 |
| Osasuna | 62 | 17,92 |
| Hezkuntza | 52 | 15,03 |
| Herrizaingoa | 44 | 12,72 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 44 | 12,72 |
| Gizarte Ongizatea | 25 | 7,22 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 15 | 4,33 |
| Kultura eta Elebitasuna | 13 | 3,76 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza, Turismoa | 10 | 2,89 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 7 | 2,02 |
| Justizia | 4 | 1,16 |
| Ingurumena | 4 | 1,16 |
| Ogasuna | 1 | 0,29 |
| Guztira | 346 | 100 |

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

**- Sailen araberako banaketa**

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Herrizaingoa eta Etxebizitza eta Gizarte Gaiak datoz.

| Autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka jarritako kexen banaketa sailaren arabera | Kop. | % |
|---|---|---|
| Osasuna | 88 | 25,43 |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa | 82 | 23,70 |
| Herrizaingoa | 48 | 13,87 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 43 | 12,43 |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 41 | 11,85 |
| Ogasun eta Herri Administrazioa | 16 | 4,62 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 11 | 3,18 |
| Kultura | 7 | 2,02 |
| Garraio eta Herri Lanak | 5 | 1,45 |
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena | 4 | 1,16 |
| Nekazaritza eta Arrantza | 1 | 0,29 |
| Guztira | 346 | 100 |

(Ikus 8. diagrama eranskinean)

B) **Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa lurraldeka**

2002an ere, aurreko urteetan bezala eta alde esanguratsurik gabe, Foru administrazioen aurka jarritako kexa gehien Bizkaiko Aldundiak hartu ditu, guztira aurkeztutako erreklamazioetatik % 53,29 berarentzat izan baitira.

Gipuzkoako eta Araberako Foru Aldundien aurkako kexen portzentajea, % 26,32 eta % 19,74 hurrenez hurren, ez da nabarmen aldatu.

| Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa lurraldearen arabera | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia | 81 | 53,29 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 40 | 26,31 |
| Arabako Foru Aldundia | 30 | 19,74 |
| Bizkaiko Batzar Nagusiak | 1 | 0,66 |
| Guztira | 152 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

**- Banaketa arloen arabera**

Ogasuna eta Gizarte Ongizatea dira foru administrazioen aurka jasotzen diren kexa gehien eragiten duten arloak.

2002an, ordea, Ogasun alorrekoak igo (% 30,46) eta Gizarte Ongizatekoak jaitsi direla (2001eko % 38,84tik 2002ko % 29,8ra) ikusten da.

***Foru Aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, arloaren arabera***

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Ogasuna | 10 | 25 | 11 | 46 | 30,46 |
| Gizarte Ongizatea | 8 | 29 | 8 | 45 | 29,80 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 5 | 15 | 5 | 25 | 16,56 |
| Funtzio Publikoa | 5 | 1 | 5 | 11 | 7,29 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 1 | 7 | 9 | 5,96 |
| Herrizaingoa | - | 4 | 2 | 6 | 3,97 |
| Kultura eta Elebitasuna | - | 3 | 1 | 4 | 2,65 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 1 | 1 | 1 | 3 | 1,99 |
| Osasuna | - | 1 | - | 1 | 0,66 |
| Ingurumena | - | 1 | - | 1 | 0,66 |
| Guztira | 30 | 81 | 40 | 151 | 100 |

(Ikus 9. diagrama eranskinean)

***Beste foru erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak, arloaren arabera***

| Bizkaiko Batzar Nagusiak | Kop. |
|---|---|
| Kultura eta Elebitasuna | 1 |

C) **Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa lurraldeka**

Bizkaiko lurraldeko udalen aurka jarri dira kexarik gehien, tokiko administrazioaren aurka guztira jasotakoetatik % 52,63. Gipuzkoako udalek % 25,62 jaso dituzte eta arabarrek % 17,85.

Uste izatekoa den bezala, biztanlek kopuruarengatik, tokiko administrazioaren aurkako kexa gehien Bilbo (82 kexa), Gasteiz (59) eta Donostiako (40) udalek jasotzen dituzte. Gainera, Bizkaian Barakaldo, Getxo eta Portugalete bezalakoek eta Gipuzkoan Irunek ere kexa kopuru nabarmena izan dute.

***Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bizkaiko udalak | 230 | 52,63 |
| Gipuzkoako udalak | 112 | 25,63 |
| Arabako udalak | 78 | 17,85 |
| Arabako administrazio batzordeak | 8 | 1,83 |
| Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak | 8 | 1,83 |
| Gipuzkoako mankomunitate, partzuergo eta parkeak | 1 | 0,23 |
| Guztira | 437 | 100 |

***Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzordeen aurka aurkeztutako kexak***

| Arabako udalak | Kop. |
|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 59 |
| Artziniega | 4 |
| Laudio | 3 |
| Iruña Oka/Iruña de Oca | 2 |
| Salvatierra/Agurain | 2 |
| Valdegovía | 2 |
| Ayala/Aiara | 1 |
| Iruraiz-Gauna | 1 |
| Legutiano | 1 |
| Leintz-Gatzaga | 1 |
| Villabuena de Araba/Eskuernaga | 1 |
| Zuia | 1 |
| Guztira | 78 |

| Arabako administrazio batzordeak | Kop. |
|---|---|
| Berantevilla | 1 |
| Betoño | 1 |
| Corro | 1 |
| Etxabarri Ibiña | 1 |
| Maestu | 1 |
| Menagarai | 1 |
| Nanclares de la Oca | 1 |
| Villanueva de Valdegovía | 1 |
| Guztira | 8 |

| Bizkaiko udalak | Kop. |
|---|---|
| Bilbo | 82 |
| Barakaldo | 16 |
| Getxo | 16 |
| Portugalete | 15 |
| Santurtzi | 9 |
| Sestao | 8 |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 6 |
| Galdakao | 6 |
| Basauri | 5 |
| Erandio | 5 |
| Durango | 4 |
| Abadiño | 3 |
| Amorebieta-Etxano | 3 |
| Arrigorriaga | 3 |
| Markina-Xemein | 3 |
| Bermeo | 2 |
| Ea | 2 |
| Gernika-Lumo | 2 |
| Leioa | 2 |
| Lemoa | 2 |
| Loiu | 2 |
| Mungia | 2 |
| Urduña | 2 |
| Urtuella | 2 |

| Bizkaiko udalak | Kop. |
|---|---|
| Otxandio | 2 |
| Zalla | 2 |
| Zaratamo | 2 |
| Zierbena | 2 |
| Alonsotegi | 1 |
| Artzentales | 1 |
| Arrankudiaga | 1 |
| Barrika | 1 |
| Berango | 1 |
| Berriz | 1 |
| Etxebarria | 1 |
| Galdames | 1 |
| Gamiz-Fika | 1 |
| Gorliz | 1 |
| Lekeitio | 1 |
| Maruri-Jatabe | 1 |
| Muskiz | 1 |
| Ondarroa | 1 |
| Orozko | 1 |
| Plentzia | 1 |
| Sopela | 1 |
| Ugao-Miraballes | 1 |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | 1 |
| Zeberio | 1 |
| Guztira | 230 |

| Gipuzkoako udalak | Kop. |
|---|---|
| Donostia-San Sebastián | 40 |
| Errenteria | 7 |
| Hondarribia | 6 |
| Irun | 6 |
| Pasaia | 5 |
| Arrasate/Mondragón | 4 |
| Lasarte-Oria | 4 |
| Andoain | 3 |
| Deba | 3 |
| Elgoibar | 3 |
| Hernani | 3 |
| Zarautz | 3 |
| Alegia | 2 |
| Anoeta | 2 |
| Beasain | 2 |
| Eibar | 2 |

| Gipuzkoako udalak | Kop. |
|---|---|
| Orio | 2 |
| Ormaiztegi | 2 |
| Billabona | 2 |
| Aizarnazabal | 1 |
| Astigarraga | 1 |
| Ataun | 1 |
| Azpeitia | 1 |
| Bidegoian | 1 |
| Ibarra | 1 |
| Oiartzun | 1 |
| Tolosa | 1 |
| Urnieta | 1 |
| Urretxu | 1 |
| Zumaia | 1 |
| Guztira | 112 |

**- Banaketa arloka**

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketen eragindako kexak nahikoa berdin-antzean banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean, alegia.

2002an Hirigintza eta Etxebizitza gaietako erreklamazioak gehitu direla ikusten da (% 17,72tik % 22,9ra), baita Herrizaingoarekin zerikusia daukatenak ere (% 12,41etik % 19,39ra 2002an). Aitzitik, toki administrazioaren Ingurumen eta Ogasun arloetako jardueren aurkako kexa gutxiago izan da.

***Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera***

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Hirigintza eta Etxebizitza | 22 | 40 | 36 | 98 | 22,90 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 23 | 47 | 20 | 90 | 21,03 |
| Herrizaingoa | 9 | 61 | 13 | 83 | 19,39 |
| Ingurumena | 5 | 41 | 19 | 65 | 15,19 |
| Ogasuna | 8 | 16 | 8 | 32 | 7,48 |
| Funtzio Publikoa | 10 | 6 | 9 | 25 | 5,84 |
| Gizarte Ongizatea | 4 | 8 | 3 | 15 | 3,50 |
| Osasuna | 2 | 5 | 2 | 9 | 2,10 |
| Kultura eta Elebitasuna | - | 5 | 2 | 7 | 1,64 |
| Hezkuntza | 3 | - | - | 3 | 0,70 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | - | 1 | - | 1 | 0,23 |
| Guztira | 86 | 230 | 112 | 428 | 100 |

(Ikus 10. diagrama eranskinean)

***Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak***

| | Guztira |
|---|---|
| Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa | 5 |
| Imebisa - Metro Bilbao | 2 |
| Bizkaiko Garraioen Partzuergoa | 1 |
| Deba Goienako Mankomunitatea | 1 |
| Guztira | 9 |

### D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparrutik kanpo geratzen diren beste administrazio batzuen jardueren aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, bazkunen eta abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

### E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak

Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikuluak dioenez, Justizia administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, Euskal Herriko Justizia Auzitegiko lehendakariari edo, bestela, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako gestioen berri eman diezaioten.

2002 urtean 5 erreklamazio bideratu dira, Justizia administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez.

| | |
|---|---|
| Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurkako kexak | 5 |

## 4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Arestiko urteetan bezala, kexa kopururik handiena, guztira 643, aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak izan dira, iazkoaren aldean gorabehera nabarmenik gabe. Gipuzkoa 294 kexarekin eta, batez ere, Araba, 268rekin, ikaragarri jaitsi dira, zeren 2001ean gai berberen gainean bi kexa multzo, 250etik kexa zirenak bideratu baitziren.

***Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera***

| | Bizkaia | Gipuzkoa | Araba |
|---|---|---|---|
| 1989 | 288 | 188 | 97 |
| 1990 | 828 (284)[1] | 195 | 125 |
| 1991 | 293 | 244 | 158 |
| 1992 | 332 | 241 | 201 |
| 1993 | 376 | 250 | 182 |
| 1994 | 349 | 234 | 160 |
| 1995 | 528 | 281 | 328 |
| 1996 | 746 | 448 | 446 |
| 1997 | 915 | 663 | 371 |
| 1998 | 1.471 (764)[2] | 905 (471)[3] | 244 |
| 1999 | 649 | 372 (311)[4] | 237 |
| 2000 | 645 | 295 | 256 |
| 2001[5] | 651 | 375 | 444 |
| 2002 | 643 | 294 | 268 |

[1] Kexa bakarrari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[2] Kexa bakarrari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[3] Kexa bakarrari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[4] Kexa bakarrari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[5] Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

**- Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko**

Lurralde banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua lurralde horretako guztirako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanle multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak jasota daude.

***Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko***

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 1989 | 4,3 | 3,3 | 3,0 |
| 1990 | 4,5 | 7,87 (2,7)[1] | 2,9 |
| 1991 | 5,8 | 3,6 | 2,5 |
| 1992 | 7,4 | 3,5 | 2,8 |
| 1993 | 6,7 | 3,7 | 3,3 |
| 1994 | 5,9 | 3,5 | 3,0 |
| 1995 | 11,59 | 4,54 | 4,11 |
| 1996 | 15,92 | 6,55 | 6,66 |
| 1997 | 13,24 | 8,03 | 9,77 |
| 1998 | 8,37 | 12,95 (6,73)[2] | 13,30 (6,93)[3] |
| 1999 | 8,37 | 5,74 | 5,56 (4,64)[4] |
| 2000 | 8,97 | 5,77 | 4,42 |
| 2001[5] | 15,56 | 5,7 | 5,53 |
| 2002 | 9,37 | 5,73 | 4,37 |

[1] Kexa bakarrari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[2] Kexa bakarrari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[3] Kexa bakarrari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[4] Kexa bakarrari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
[5] Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 12. diagrama eranskinean)

**- Kexen banaketa lurraldeetariko bakoitzean**

Herritarren jokabidea ez da berdina kexen egileak non bizi diren begiratzen badugu, hau da, hiriburuan ala lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban, erreklamazioetatik % 83,58 Gasteizen bizi diren pertsonek egin dituzte, Bizkaian % 40,59 Bilbon bizi direnek, eta Gipuzkoan % 45,24 Donostian bizi direnek; zenbaki horiek 2001aren aldean hiriburuetakoak nabarmen gehitu direla adierazten dute.

***Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta***

| **Araba** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Gasteiz | 224 | 83,58 |
| Beste udalerri batzuk | 44 | 16,42 |
| Guztira | 268 | 100 |

| **Bizkaia** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Bilbo | 261 | 40,59 |
| Beste udalerri batzuk | 382 | 59,41 |
| Guztira | 643 | 100 |

| **Gipuzkoa** | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Donostia | 133 | 45,24 |
| Beste udalerri batzuk | 161 | 54,76 |
| Guztira | 294 | 100 |

**- Euskal Autonomia Erkidegoaren kanpotik heldutako kexak**

2002an ere Euskal Autonomia Erkidegotik kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. Horietatik, 41 beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen eta 7 beste estatu batzuetatik.

| Beste autonomi erkidego batzuetatik jasotako kexak... | Kop. |
|---|---|
| Madrilgo A.E. | 10 |
| Nafarroako F.E. | 10 |
| Gaztela-Leongo A.E. | 6 |
| Errioxako A.E. | 4 |
| Kantabriako A.E. | 3 |
| Kataluniako A.E. | 3 |
| Kanariar Uharteetako A.E. | 1 |
| Balear Uharteetako A.E. | 1 |
| Murtzia eskualdeko A.E. | 1 |
| Valentziako A.E. | 1 |
| Asturiasko Printzerria | 1 |
| Guztira | 41 |

| Beste estatu batzuetatik etorritakoak | Kop. |
|---|---|
| Alemania | 3 |
| Argentina | 2 |
| Frantzia | 1 |
| Peru | 1 |
| Guztira | 7 |

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA)

2002 urtean 1.006 espedienteren izapideak amaitu dira. Horietatik 572 urtean zehar aurkeztutako kexei buruzkoak izan dira eta, gainerakoak, 434, aurreko urteetan aurkeztutakoak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin izapidetzerik egon ez zirenak.

Arartek erakundeak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2002an amaitutako 264 erreklamaziotan irregulartasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan, hau da, kasuetatik % 26,24an. Ez da, ordea, inolako irregulartasunik antzeman aztertutako espedienteetatik % 62,23an.

| | Guztira | Administrazioaren irregulartasuna | % | Irregulartasunik ez | % | Beste batzuk | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2002an amaitutako kexak | 1.006 | 264 | 26,24 | 626 | 62,23 | 116 | 11,53 |

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

**- 2002an burututako espedienteak hasierako urtearen arabera banaturik**

Beheko taulan 2002an burututako espedienteak ageri dira (1.006 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

| Hasierako urtea | Kop. |
|---|---|
| 1997 | 8 |
| 1998 | 12 |
| 1999 | 18 |
| 2000 | 49 |
| 2001 | 347 |
| 2002 | 572 |
| 2002an burututako espedienteak guztia | 1.006 |

**- 2002an aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak**

2002an zehar aurkeztutako kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 484 ebazpen eman ditu, eta beste 401 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat ingurumaria agertu dira (beste ararteko batzuekiko bikoiztasuna, epaitegietako ebazpenaren zain dauden auziak, epai bideari ekin izana, eta abar), ikerketarekin aurrera egiten eragotzi digutenak. Espediente horiek «*eratorritako ez-onarpena*» izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

***Kexa espedienteen egoera jarduera eremuen arabera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hirigintza eta Etxebizitza | 36 | 102 | 30 | 72 | - | 7 |
| Herrizaingoa | 104 | 26 | 3 | 22 | 1 | 3 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 53 | 67 | 21 | 43 | 3 | 8 |
| Funtzio Publikoa | 41 | 49 | 12 | 37 | - | 12 |
| Gizarte Ongizatea | 42 | 38 | 4 | 33 | 1 | 5 |
| Ogasuna | 32 | 46 | 12 | 34 | - | 3 |
| Osasuna | 14 | 55 | 15 | 40 | - | 3 |
| Ingurumena | 35 | 34 | 10 | 24 | - | 1 |
| Hezkuntza | 16 | 35 | 7 | 28 | - | 4 |
| Kultura eta Elebitasuna | 10 | 14 | 3 | 11 | - | 1 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 12 | 7 | - | 6 | 1 | 1 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 4 | 9 | - | 9 | - | 2 |
| Justizia | 2 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Guztira | 401 | 484 | 118 | 360 | 6 | 50 |

### - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera

2002an 191 ebazpen eman dira Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 134 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 155etan, ez da inolako erregulartasunik antzeman administrazioaren jardueran.

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa, jarduera eremuen arabera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Funtzio Publikoa | 28 | 31 | 7 | 24 | - | 6 |
| Osasuna | 11 | 48 | 11 | 37 | - | 3 |
| Hezkuntza | 17 | 31 | 7 | 24 | - | 4 |
| Herrizaingoa | 36 | 6 | - | 5 | 1 | 2 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 8 | 34 | 5 | 29 | - | 2 |
| Gizarte Ongizatea | 12 | 13 | - | 13 | - | - |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 4 | 9 | - | 9 | - | 2 |
| Kultura eta Elebitasuna | 5 | 8 | 3 | 5 | - | - |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 4 | 5 | - | 4 | 1 | 1 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 3 | - | 3 | - | - |
| Justizia | 2 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Ingurumena | 3 | 1 | - | 1 | - | - |
| Ogasuna | - | - | - | - | - | 1 |
| Guztira | 134 | 191 | 34 | 155 | 2 | 21 |

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera, Jaurlaritza osatzen duten sailei adituz***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Arrantza | 1 | - | - | - | - | - |
| Kultura | 2 | 5 | 2 | 3 | - | - |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa | 31 | 45 | 12 | 33 | - | 6 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 7 | 7 | 2 | 5 | - | 2 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 5 | 5 | - | 4 | 1 | 1 |
| Herrizaingoa | 37 | 7 | - | 6 | 1 | 4 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 16 | 23 | - | 23 | - | 2 |
| Lurralde Antolamendua eta Ingurumena | 2 | 2 | - | 2 | - | - |
| Osasuna | 23 | 61 | 14 | 47 | - | 4 |
| Garraio eta Herri Lanak | 1 | 4 | - | 4 | - | - |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 9 | 32 | 4 | 28 | | 2 |
| Guztira | 134 | 191 | 34 | 155 | 2 | 21 |

**- Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

Foru administrazioetakoren baten gainean 2002an aurkeztu diren 75 erreklamazioren gainean jada emanda dago ebazpena, eta 17 kasutan irregulartasunen bat antzeman da. Beste 66 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

***Foru aldundien aurkako kexen egoera, lurralde historikoen arabera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia | 39 | 38 | 10 | 27 | 1 | 4 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 15 | 22 | 3 | 18 | 1 | 3 |
| Arabako Foru Aldundia | 12 | 15 | 4 | 11 | - | 3 |
| Guztira | 66 | 75 | 17 | 56 | 2 | 10 |

## *Foru aldundien aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa ........ | 7 | 2 | - | 2 | - | - |
| Gizarte Ongizatea .................... | 22 | 19 | 3 | 15 | 1 | 4 |
| Kultura eta Elebitasuna............ | - | 4 | - | 4 | - | - |
| Funtzio Publikoa...................... | 3 | 5 | 1 | 4 | - | 3 |
| Ogasuna ................................ | 20 | 24 | 7 | 17 | - | 2 |
| Herrizaingoa .......................... | 4 | 2 | - | 2 | - | - |
| Ingurumena ........................... | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak ....... | 9 | 15 | 6 | 8 | 1 | 1 |
| Osasuna ................................ | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza .......... | 1 | 2 | - | 2 | - | - |
| Guztira .................................. | 66 | 75 | 17 | 56 | 2 | 10 |

## *Beste foru administrazio batzuen aurkako kexen egoera*

| | Amaituta | Irregulartasunik ez |
|---|---|---|
| Bizkaiko Batzar Nagusiak ..................... | 1 | 1 |
| Guztira ............................................. | 1 | 1 |

## *Beste foru administrazio batzuen aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera*

| | Amaituta | Irregulartasunik ez |
|---|---|---|
| Kultura eta Elebitasuna ........................ | 1 | 1 |
| Guztira ............................................. | 1 | 1 |

**- Tokiko administrazioen aurkako kexen egoera**

2002an jasotako erreklamazioetatik, Ararteko erakundeak 214 ebazpen eman ditu, eta irregulartasunen bat antzeman da 66 kasutan. Urte amaieran, 195 espediente artean izapidetzen ari ziren.

***Arabako udalen aurkako kexen egoera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Artziniega | 1 | 3 | 3 | - | - | - |
| Ayala/Aiara | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Iruraiz-Gauna | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Iruña Oka/Iruña de Oka | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Legutiano | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Leintz-Gatzaga | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Laudio | 2 | 1 | - | 1 | - | - |
| Salvatierra/Agurain | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Valdegovía | - | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Villabuena de Araba/Eskuernaga | 1 | - | - | - | - | - |
| Vitoria-Gasteiz | 17 | 35 | 11 | 24 | - | 7 |
| Zuia | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 23 | 47 | 17 | 30 | - | 8 |

***Arabako administrazio batzordeen aurkako kexen egoera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Berantevilla | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Betoño | 1 | - | - | - | - | - |
| Corro | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Etxabarri Ibiña | 1 | - | - | - | - | - |
| Maeztu | 1 | - | - | - | - | - |
| Menagarai | - | 1 | - | - | 1 | - |
| Nanclares de la Oca | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Villanueva de Valdegovía | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Guztira | 3 | 5 | 2 | 2 | 1 | - |

## *Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aizarnazabal | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Alegia | - | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Andoain | - | 3 | 3 | - | - | - |
| Anoeta | - | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Arrasate/Mondragón | 2 | 2 | - | 2 | - | - |
| Astigarraga | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Ataun | - | 1 | - | - | 1 | - |
| Azpeitia | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Beasain | 2 | - | - | - | - | - |
| Bidegoian | 1 | - | - | - | - | - |
| Deba | - | 2 | - | 2 | - | 1 |
| Donostia-San Sebastián | 13 | 24 | 9 | 15 | - | 3 |
| Eibar | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Elgoibar | - | 3 | - | 3 | - | - |
| Errenteria | 4 | 3 | - | 3 | - | - |
| Hernani | - | 3 | 2 | 1 | - | - |
| Hondarribia | 4 | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Ibarra | 1 | - | - | - | - | - |
| Irun | 2 | 4 | 1 | 3 | - | - |
| Lasarte-Oria | 3 | 1 | 1 | - | - | - |
| Oiartzun | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Orio | 2 | - | - | - | - | - |
| Ormaiztegi | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Pasaia | 3 | 2 | - | 2 | - | - |
| Tolosa | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Urnieta | 1 | - | - | - | - | - |
| Urretxu | 1 | - | - | - | - | - |
| Billabona | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Zarautz | 1 | 2 | - | 2 | - | - |
| Zumaia | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 43 | 64 | 21 | 42 | 1 | 5 |

## *Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Abadiño | 2 | 1 | - | 1 | - | - |
| Abanto eta Zierbena-Abanto Zierbena | 4 | 2 | 2 | - | - | - |
| Alonsotegi | 1 | - | - | - | - | - |
| Amorebieta-Etxano | - | 2 | 1 | 1 | - | 1 |
| Artzentales | 1 | - | - | - | - | - |
| Arrankudiaga | 1 | - | - | - | - | - |
| Arrigorriaga | 3 | - | - | - | - | - |
| Barakaldo | 7 | 8 | - | 8 | - | 1 |
| Barrika | 1 | - | - | - | - | - |
| Basauri | 4 | 1 | - | 1 | - | - |
| Berango | 1 | - | - | - | - | - |
| Bermeo | 2 | - | - | - | - | - |
| Berriz | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Bilbo | 41 | 40 | 9 | 31 | - | 1 |
| Durango | 3 | 1 | - | 1 | - | - |
| Ea | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Erandio | 3 | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Etxebarria | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Galdakao | 2 | 4 | - | 4 | - | - |
| Galdames | 1 | - | - | - | - | - |
| Gamiz-Fika | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Gernika-Lumo | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Getxo | 8 | 8 | 1 | 7 | - | - |
| Gorliz | 1 | - | - | - | - | - |
| Leioa | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Lekeitio | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Lemoa | 2 | - | - | - | - | - |
| Loiu | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Markina-Xemein | 3 | - | - | - | - | - |
| Maruri-Jatabe | 1 | - | - | - | - | - |
| Mungia | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Muskiz | 1 | - | - | - | - | - |
| Ondarroa | - | - | - | - | - | 1 |
| Urduña | - | 2 | - | 2 | - | - |
| Orozko | 1 | - | - | - | - | - |
| Urtuella | - | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Otxandio | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Plentzia | 1 | - | - | - | - | - |
| Portugalete | 12 | 3 | 1 | 2 | - | - |
| Santurtzi | 3 | 6 | 2 | 4 | - | - |
| Sestao | 8 | - | - | - | - | - |
| Sopela | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Ugao-Miraballes | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Valle de Trápaga-Trapagaran | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Zalla | - | 2 | - | 2 | - | - |
| Zaratamo | - | 2 | 2 | - | - | - |
| Zeberio | 1 | - | - | - | - | - |
| Zierbena | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 126 | 98 | 26 | 72 | - | 6 |

### *Udalen aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | - | - | - | - | - |
| Gizarte Ongizatea | 8 | 6 | 1 | 5 | - | 1 |
| Kultura eta Elebitasuna | 5 | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Hezkuntza | - | 3 | - | 3 | - | - |
| Funtzio Publikoa | 9 | 13 | 4 | 9 | - | 3 |
| Ogasuna | 11 | 21 | 5 | 16 | - | - |
| Herrizaingoa | 63 | 19 | 3 | 16 | - | 1 |
| Ingurumena | 32 | 32 | 10 | 22 | - | 1 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 36 | 47 | 14 | 31 | 2 | 7 |
| Osasuna | 3 | 6 | 4 | 2 | - | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 27 | 66 | 25 | 41 | - | 5 |
| Guztira | 195 | 214 | 66 | 146 | 2 | 19 |

### *Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa | 3 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Bizkaiko Garraioen Partzuergoa | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Debagoieneko Mankomunitatea | 1 | - | - | - | - | - |
| Imebisa - Metro Bilbao | 2 | - | - | - | - | - |
| Guztira | 6 | 3 | 1 | 2 | - | - |

### *Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera*

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Funtzio Publikoa | 1 | - | - | - | - | - |
| Ogasuna | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Guztira | 6 | 3 | 1 | 2 | - | - |

## 6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

**- Kexagileen ezaugarriak**

2002 urtean aurkeztutako kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du gizonezko kexagileak pixka bat gehitu direla, 2001eko % 43,82tik 2002ko % 47,64ra igaroz. Emakume kexagileen portzentajea, berriz, % 41,31tik % 38,23ra jaitsi da.

Erreklamazioak aurkezten dituzten taldeen kopurua garrantzitsua da oraindik ere, guztira 170, 2001ean antzera.

***Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera***

| Kexagileen ezaugarriak | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonezkoak | 597 | 47,64 |
| Emakumezkoak | 479 | 38,23 |
| Taldeak | 170 | 13,57 |
| Izenik gabe | 7 | 0,56 |
| Guztira | 1.253 | 100 |

(Ikus 13. diagrama eranskinean)

**- Kexa-idazkia egiteko erabilitako hizkuntza**

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza. Herritarretatik % 93,05ek gaztelaniara jotzen du, euskaraz zein elebidun aurkezten direnak % 5,95 diren bitartean, hau da, 2001eko % 10,18a baino gutxiago.

Arartekо erakundeak erreklamazioak herritarrak aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoak ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

***Kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera***

| Hizkuntza | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gaztelania | 1.166 | 93,05 |
| Euskara | 65 | 5,19 |
| Biak | 22 | 1,76 |
| Guztira | 1.253 | 100 |

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

**- Kexak aurkezteko modua**

Kexak aurkezteko moduari dagokionez, datuek erakusten digute azkeneko urteetan izandako aldaketa finkatu egin dela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan arreta zuzeneko bulegoak jartzearen ondorioz. Kexagileetatik % 61,13 bulegoetara bertaratu dira kexa jartzeko (2001ean % 43,55 izan ziren).Oraindik hazkunde hain nabarmenik ez duen arren, erreklamazioak bideratzeko Interneten erabilpena ere goraka doa. Kexetan % 13,73 erakundearen web orrialdetik heldu dira (www.ararteko.net), postaz heldutako kexak nabarmen gutxitu diren bitartean (% 37,08tik % 21,55era).

***Kexen banaketa, aurkezteko moduaren arabera***

| Jasotzeko era | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Bulegoetara bertaratuta ........................ | 766 | 61,13 |
| Postaz ............................................... | 270 | 21,55 |
| Internetez .......................................... | 172 | 13,73 |
| Faxez ............................................... | 45 | 3,59 |
| Guztira ............................................. | 1.253 | 100 |

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

## 7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioren batekin arazorik daukaten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefonozko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik guztiarengatik, bisitez gain telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, pertsonek administrazio desberdinekin dituzten harremanetan dauzkaten eskubideen gaineko informazio lan interesgarria direla ziur baikaude. Hartara, 2002an guztira 3.572 kontsultari erantzun diogu, aurreko urtean baino % 15,92 gehiago.

***Telefonozko kontsulten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan***

| Herria | Kontsulta kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo ................................................ | 1.394 | 39,03 |
| Donostia ........................................... | 1.158 | 32,42 |
| Gasteiz ............................................. | 1.020 | 28,55 |
| Guztira ............................................. | 3.572 | 100 |

2002an guztira 2.332 bisita jaso genituen hiru hiriburuetako bulegoetan. Horietatik, % 39,92a Bilbora joan ziren, % 26,93a Donostiara eta % 33,15a Gasteiza. Gasteizek bisita kopuruan igoera nabarmena izan du.

***Arreta zuzeneko bulegoetara egindako bisiten kopurua***

| Herria | Bisita kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 931 | 39,92 |
| Donostia | 628 | 26,93 |
| Gasteiz | 773 | 33,15 |
| Guztira | 2.332 | 100 |

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

**- Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen ezaugarriak**

Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonetatik % 44,3 gizonezkoak dira eta % 43,61 emakumezkoak, hau da, ia parekatuta daude, jada azkeneko urteetan ikusitako joeraren ildotik. Bulegoetara etorri diren bikoteen kopurua ere gehitu da, guztirako bisiten % 7,25 baitira, eta taldeak % 4,84.

***Arreta zuzeneko bulegoetara joandako bisitarien ezaugarriak***

| | Bilbo | Donostia | Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoak | 397 | 264 | 356 | 1.017 | 43,61 |
| Gizonezkoak | 434 | 256 | 343 | 1.033 | 44,30 |
| Bikoteak | 62 | 63 | 44 | 169 | 7,25 |
| Taldeak | 38 | 45 | 30 | 113 | 4,84 |
| Guztira | 931 | 628 | 773 | 2.332 | 100 |

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

**- Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina**

Adin multzoen araberako datuak aztertuz, ez da aurreko urteetakoen aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitetatik % 50,52 36tik 55 urtera bitartekoak dira.

***Arreta zuzeneko bulegoetara joandako bisitarien banaketa, adin multzoka***

| Adina | Bilbo | Donostia | Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 34 | 20 | 15 | 69 | 2,96 |
| 26-35 | 142 | 90 | 119 | 351 | 15,05 |
| 36-45 | 254 | 115 | 271 | 640 | 27,45 |
| 46-55 | 192 | 174 | 172 | 538 | 23,07 |
| 56-65 | 127 | 140 | 105 | 372 | 15,95 |
| 66 edo gehiago | 182 | 89 | 91 | 362 | 15,52 |
| Guztira | 931 | 628 | 773 | 2.332 | 100 |

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

**- Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenen kopurua**

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik, 691 kexa jarri da, hau da guztirakoen % 29,63an.

***Kexa aurkeztu deneko bisitak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 350 | 50,65 |
| Donostia | 142 | 20,55 |
| Gasteiz | 199 | 28,80 |
| Guztira | 691 | 100 |

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaiei loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko kudeaketak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa espediente baten izapideei lotuta egon da, edo herritarrak bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko izapideei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

## A) GASTEIZKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

2002an Gasteizko arreta zuzeneko bulegoan guztira 1020 kontsultari egin zaio jaramon. 773 bisita hartu dira, beraz, igoera nabarmena izan da. Gasteizen bisiten ondorioz 199 kexa aurkeztu dira.

***Gasteizko bulegora joandako bisitarien ezaugarriak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonezkoak | 343 | 44,37 |
| Emakumezkoak | 356 | 46,06 |
| Taldeak | 44 | 5,69 |
| Bikoteak | 30 | 3,88 |
| Guztira | 773 | 100 |

**- Gasteizko bulegora etorritako pertsonen adina**

Adinari dagokionez, bisitarietatik % 57,31 36tik 55 urtera artekoak ziren. Aurreko urtearen aldean, 26 urtetik beherako bisitariak gutxiago izan direla ikusten da (% 23,13tik % 17,34ra).

| *Gasteizko bulegora joandako bisitarien banaketa adin multzoka* | | |
|---|---|---|
| **Adina** | **Kopurua** | **%** |
| 25 urte artekoak | 15 | 1,94 |
| 26-35 | 119 | 15,40 |
| 36-45 | 271 | 35,06 |
| 46-55 | 172 | 22,25 |
| 56-65 | 105 | 13,58 |
| 66 edo gehiago | 91 | 11,77 |
| Guztira | 773 | 100 |

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Gasteizko bulegora etortzen diren pertsonetatik % 82,79 hiriburuan bertan bizi dira, eta % 10 baino gehixeago lurralde historiko honetako beste udalerri batzuetan.

| *Gasteizko bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera* | | |
|---|---|---|
| | **Kopurua** | **%** |
| Araba-hiriburua | 640 | 82,79 |
| Araba-beste udalerri batzuk | 81 | 10,48 |
| Gipuzkoa | 16 | 2,07 |
| Bizkaia | 30 | 3,88 |
| Besterik | 6 | 0,78 |
| Guztira | 773 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## B) DONOSTIAKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

Donostiako arreta zuzeneko bulegoan 1.158 kontsultari egin zaio jaramon. 628 bisita hartu dira, eta 142 kexa aurkeztu dira.

| *Donostiako bulegora joandako bisitarien ezaugarriak* | | |
|---|---|---|
| | **Kopurua** | **%** |
| Gizonezkoak | 256 | 40,76 |
| Emakumezkoak | 264 | 42,04 |
| Bikoteak | 63 | 10,03 |
| Taldeak | 45 | 7,17 |
| Guztira | 628 | 100 |

**- Donostiako bulegora etorritako pertsonen adina**

Donostiako arreta zuzeneko bulegora etorritako 35 urtetik beheragoen portzentajea jaitsi da, baina 46 urtetik gorakoena igo egin da (% 64,17).

***Donostiako bulegora egindako bisitarien banaketa, adin multzoka***

| Adina | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 20 | 3,19 |
| 26-35 | 90 | 14,33 |
| 36-45 | 115 | 18,31 |
| 46-55 | 174 | 27,71 |
| 56-65 | 140 | 22,29 |
| 66 edo gehiago | 89 | 14,17 |
| Guztira | 628 | 100 |

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Donostiako arreta zuzeneko bulegora etorri diren gehienak hiriburuan bizi dira (% 62,1), eta % 37,58 Gipuzkoako beste udalerri batzuetakoak dira.

***Donostiako bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera***

| Kopurua | % | |
|---|---|---|
| Gipuzkoa-hiriburua | 390 | 62,1 |
| Gipuzkoa-beste udalerri batzuk | 236 | 37,58 |
| Bizkaia | 1 | 0,16 |
| Araba | 1 | 0,16 |
| Guztira | 628 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## C) BILBOKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

2002an Bilboko arreta zuzeneko bulegoan 1.394 kontsultari egin zaio jaramon. 931 bisita hartu dira, eta formalki, 350 kexa aurkeztu dira. Bulegora etorri diren emakumezkoen eta bikoteen portzentajea gehitu da, eta gizonezkoena nabarmen gutxitu (orain arte bisitetatik % 53tik gora gizonezkoenak ziren).

| *Bilboko bulegora joandako bisitarien ezaugarriak* | | |
|---|---|---|
| | **Kopurua** | **%** |
| Gizonezkoak | 434 | 46,62 |
| Emakumezkoak | 397 | 42,64 |
| Bikoteak | 62 | 6,66 |
| Taldeak | 38 | 4,08 |
| Guztira | 931 | 100 |

**- Bilboko bulegora etorritako pertsonen adina**

EAEko beste bi hiriburuetan bezala, Bilboko bulegora etorri diren pertsonarik gehienak 35etik 55 urtera artekoak dira, 66tik gorakoen portzentajea ere nabarmena delarik, guztirakoen % 19,55.

| *Bilboko bulegora joandako bisitarien banaketa adin multzoka* | | |
|---|---|---|
| **Adina** | **Kopurua** | **%** |
| 25 urte artekoak | 34 | 3,65 |
| 26-35 | 142 | 15,26 |
| 36-45 | 254 | 27,28 |
| 46-55 | 192 | 20,62 |
| 56-65 | 127 | 13,64 |
| 66 edo gehiago | 182 | 19,55 |
| Guztira | 931 | 100 |

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Bisiten erditik gora (% 54,99) hiriburu bertakoak dira, % 44,04 Bizkaiko beste udalerri batzuetakoak diren bitartean.

| *Bilboko bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera* | | |
|---|---|---|
| | **Kopurua** | **%** |
| Bizkaia-hiriburua | 512 | 54,99 |
| Bizkaia-beste udalerri batzuk | 410 | 44,04 |
| Araba | 4 | 0,43 |
| Besterik | 5 | 0,54 |
| Guztira | 931 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

# 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, hainbat gai ikertzeari ekiten diogu: batzuetan, Euskadiko herri administrazioren batean jarduketa irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ofiziozko jarduerak dira, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikuluan Arartekoari ematen dion eskumena, bere kabuz esku hartzeko aukera eskaintzen diona, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen zain egon barik.

2002an ofiziozko 91 espediente bideratu dira, aurreko urtean baino 23 gehiago. Ofiziozko jardueren artean, kopuruarengatik, Gizarte Ongizatearen arlokoak nabarmentzen dira, bereziki etxez etxeko laguntza zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak.

Arartekoak ofizioz abiatutako bi jarduera Estatuko Arartekoari bidali zaizkio, berak ikertzeko. Bata Langraitzeko espetxean hildako preso baten inguruan, eta bestea intsumisioarengatik epaiketaren zain zeuden, edo jada zigortuta zeuden edo zigorra betetzen ari ziren euskal gazteen egoeran esku hartzeko eskatzeko izan ziren.

***Ofiziozko jardueren banaketa arloen arabera***

| | **Ofizioz egindako espedienteak** | **%** |
|---|---|---|
| Gizarte Ongizatea | 52 | 58,43 |
| Herrizaingoa | 12 | 13,48 |
| Justizia | 8 | 8,99 |
| Osasuna | 7 | 7,87 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 3 | 3,37 |
| Funtzio Publikoa | 2 | 2,25 |
| Kudeaketa desberdinak | 2 | 2,25 |
| Kultura eta Elebitasuna | 1 | 1,12 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 1 | 1,12 |
| Hezkuntza | 1 | 1,12 |
| Guztira | 89 | 100 |

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

***Estatuko Arartekoari ofizioz bidalitako kexak***

| | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| Estatuko Arartekoa | 2 | 100 |

Aurreko urteetan bezala, tokiko administrazioak izan dira ofiziozko jarduketa gehien eragin dutenak, zehazki, % 59,09. % 25 Eusko Jaurlaritzaren gainera eta % 14,77 foru administrazioen gainera erori dira.

***Ofiziozko jardueren banaketa, eraginpeko administrazioen arabera***

| | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| Toki administrazioa .............................. | 52 | 58,43 |
| Eusko Jaurlaritza ................................ | 22 | 24,72 |
| Foru administrazioa ............................ | 13 | 14,60 |
| Besterik ............................................ | 2 | 2,25 |
| Guztira ............................................. | 89 | 100 |

(Ikus 22. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, bitartekaritza eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, 1996ko urtarriletik, kexa espediente baten izapideak amaitzen direnean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera sorten kopuruak eta bai gure zerbitzuez azaldu duten iritziak ere berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona. 2002 urtean galdera sorta bidali zaien pertsonetatik % 50,2k erantzun digute (2001ean % 37 izan ziren), eta horrek ondorio fidagarri eta aintzat hartzeko modukoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan kontuan izan behar dugu ezen, urte honetan izapideak amaitu zaizkien kexa guztietatik % 26,24an soilik iritzi zaiola arauz kontrakoa dena delako administrazioaren jokabideari.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, erreklamazioren bat aurkeztu duten eta izapidetzen amaitu zaizkien herritarretatik % 86,3k hauxe esan dute, *«Arartekoak emandako informazio ona edo ona izan da»*, eta % 61,42 *«erabat edo nahiko ados daude Arartekoak euren kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin"*. Bi kontu horietan jasotako balorazio ona 2001eko datuetan jasotakoa baino nabarmen hobea da.

Arartekoaren esku hartzea oro har, hau da, erakutsitako interesa, egindako gestioak, eta abar, nola baloratuko luketen galderari, kexagileetatik % 81,75ek *"oso balorazio ona edo nahikoa ona»* egiten dutela diote eta baiesten dute *"kasu guztietan (% 63,07) edo kasu batzuetan (% 28,22) Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lioketela administrazioarekin arazoak dituenari"*.

Azpimarratu behar da *«kexaren jatorrizko arazoa konpondu barik dago oraindik edo nahiko txarto konpondu da»* erantzun diotenen artean (galdera sorta erantzun

dutenen % 58,09) «*erakundearen esku hartzeaz balorazio positiboa edo oso positiboa*» egiten dutenak eta «“*kasu guztietan edo kasu batzuetan Arartekoarengana jotzea gomendatuko luketenak*» gehitu direla.

Inkestetatik ateratzen diren datuez gain, kexagileek beren iritzi eta iradokizunak ere helarazi ahal dizkigute galdera sortaren ataletako bat betez. Aurreko urteetan bezala, herritar askok Arartekoak aginte handiagoa, erabakitzeko ahalmen handiagoa izan behar duela iradokitzen dute, eta ebazpenek lotesleak, bete beharrekoak izan beharko luketela. Gainera, batzuk uste dut egon litezkeen administrazio erantzukizunak exijitu beharko lituzkeela, ofizioz, eta zuzen jokatu ez duten administrazioak zigortzeko ahalmena eduki beharko lukeela. Zenbaiten iritziz, Ararteko erakundeak administrazioetatik bidaltzen dioten informazioa sakon aztertu beharko luke. Hainbat herritar bat datoz Ararteko erakundea informazio igorle hutsa delako iritzian, eta kexa jarri zutenetik erantzuna jaso zuten arte joandako denbora luzeegia izan zela. Berresten dute erakundearen zabalkundea eta lana publizitate ekinaldien bidez indartu beharko litzatekeela.

- **Inkestaren emaitzak** (ikus 23 eta 28 bitarteko diagramak eranskinean)

. **Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

. Oso ona ........................................ % 35,69
. Ona ........................................ % 50,62
. Txarra ........................................ % 7,47
. Oso txarra ........................................ % 4,56
. Erantzunik ez ........................................ % 1,66

. **Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?**

. Oso luzea ........................................ % 14,52
. Luzea ........................................ % 32,37
. Laburra ........................................ % 39,83
. Oso laburra ........................................ % 9,13
. Erantzunik ez ........................................ % 4,15

. **Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

. Erabat ados ........................................ % 31,54
. Nahiko ados ........................................ % 29,88
. Ez nago ados ........................................ % 17,01
. Erabateko desadostasuna ........................................ % 17,84
. Erantzunik ez ........................................ % 3,73

. **Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:**

. Oso ondo konpondu da ........................................ % 19,92
. Nahiko ondo konpondu da ........................................ % 18,67
. Nahiko txarto konpondu da ........................................ % 7,88

. Ez da konpondu ............................................... % 50,21
. Erantzunik *ez* ................................................... % 3,32

. **Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)**
  . Oso ona ...................................................... % 50,21
  . Nahiko ona ................................................... % 31,54
  . Nahiko txarra ................................................ % 6,64
  . Oso txarra .................................................... % 6,22
  . Erantzunik *ez* ................................................ % 5,39

. **Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**
  . Bai, beti ...................................................... % 63,07
  . Bai, batzuetan ................................................ % 28,22
  . Ez, inoiz *ere ez* ............................................. % 5,81
  . Erantzunik *ez* ................................................ % 2,90

Galdetutakoen erantzunak beren kexa eragin zuen arazoa konpontzearen ala *ez* konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa *ez* dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera sortetako datuek berresten dutenarengatik.

- **Ararteko erakundeak izandako esku hartzeari buruz kexagileek (euren arazoa «ez da konpondu» edo «nahiko txarto konpondu da» erantzunez baloratu dutenak** (ikus 29 eta 30 diagramak eranskinean)

. **Oro har, zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prestutasuna, egindako gestioak...)**
  . Oso ona ...................................................... % 30,00
  . Nahiko ona ................................................... % 40,72
  . Nahiko txarra ................................................ % 11,43
  . Oso txarra .................................................... % 10,71
  . Erantzunik *ez* ................................................ % 7,14

. **Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**
  . Bai, beti ...................................................... % 50,71
  . Bai, batzuetan ................................................ % 35,71
  . Ez, inoiz *ere ez* ............................................. % 9,29
  . Erantzunik *ez* ................................................ % 4,29

IV. ATALA

# ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA

## 1. SARRERA ETA OHARRAK

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxieneko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebehar hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako daturik bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela.

Betebehar hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako kexak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Gertatzen da, gainera, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen duela non ez betetzeak zigor bideko tratamendua ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *"Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako"* enplegu edo ardura publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke. Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetza betebehar hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Lehenago aurreratu dugun bezala, kapitulu honek herri administrazio eta erakundeek lege antolamenduak ezartzen dien lankidetza edo laguntza betebeharraren aurrean nola jokatu duten erakusten du. Jarraian agertuko diren datuetan Arartekoak, inplikatutako erakunde eta organismoei erakunde bermatzaile honi laguntzeko duten betebeharra gogoratuz eta bete dezaten eskatuz egin dituen gestioak erakusten dira, bidali zaien informazio eskariari erantzun ez dioten edo erantzuten atzeratu diren kasuetan eta, era berean, gomendioak betetzeari eta legezkotasunaren gogorarazteei buruz jakindako isiltzeei buruzko kasuetan ere bai.

Kexa espediente batzuetan, informazio eskariari erantzuten ekitaldi bat baino gehiagoko berandutza ere izaten da. Horregatik, egoki iritzi diogu, aurreko ekitaldietan esan izan dugun bezala, txosten honetan 2002an izapidetzen ari ziren kexa espedienteetan egindako errekerimenduen zerrenda xehatua egiteari, izapideak aurreko urteetan hasi arren. Hori egin badugu Arartekoaren irizpenaren mende jartzen diren jardueren erantzule diren erakundeen lankidetzaren indizeen gaineko ikuspegi orokorragoa eskaintzeko izan da.

Ezinbestekoa da adieraztea, errekerimendu horiek egitean, Arartekoa ez dela automatikoki aritzen. Laguntzeko betebeharra gogorarazteko eginkizun hori zuhurtziaz baliatzen da, administrazioaren kudeaketan eragina daukaten aldagaiak neurtuz, eta kexa jarri duten pertsonei modu eragingarri eta lasterrean erantzun ahal izateko helburu garbiaz.. Hona hemen, besteak beste, zein diren, guretzat, nahitaez aditu behar zaien ingurumariak: informazioa eskatzen den arazoaren izaera materiala, eskaria egiten zaion organoaren burokrazia eta administrazio sarearen konplexutasuna, artatu beharreko prozeduren balizko pilaketa, hauteskunde garaien ondorioz kontrolaren mende jarritako erakundeen eraketan dauden denbora aldagaiak, arduradun eta funtzionarioak biratzea edota ordezkatzea, eta abar.

Zoritxarrez, ordea, ez da falta erakunde honen kontrol betekizunarekiko eta, ondorioz, herritar erreklamaziogileen eskubideenganako errespeturik ezeko jarrera adierazten duen ardura gabezia nabarmena agerian jartzen deneko unerik. Izan ere, hainbatetan, laguntzeko betebeharra ez betetzea maila aipagarrietarako heltzen da. Ararteko erakundeak, behin eta berrizko errekerimenduei erantzun zaienean, ukitutako administrazioei Zigor Kodearen 502.2 artikuluan zehaztutako delitua egiten ari litezkeela eta, hartara, gaia zigor bideko jurisdikziora bidera genezakeela gogorarazi behar izan diegun gaiez ari gara. 2002ko ekitaldian ondoko agintaritza hauei helarazi diegu ohartarazpen hori:

- Joseba Zorrilla Ibáñez, Balmasedako alkatea (1112/2001 esp.)
- Guillermo Garate Urzelai, Elgoibarko alkatea (1106/2001 esp.)
- José Luis Portillo López, Karrantzako alkatea (69/1998 esp.)
- Segundo Calleja Macho, Sestaoko alkatea (262/2002 esp.) eta
- Javier Portuondo Beascoechea, Herrizaingo Saileko kabineteko zuzendaria (108/2002 esp.)

Lehenengo bi ohartarazpenetan eskatutako informazioa, hau da, 1112/2001 eta 1106/2001 espedienteen izapideetan zehar, azkenean eman digute Balmaseda eta Elgoibarko alkateek. Era berean, Herrizaingo Saileko kabineteko zuzendariak eskatutako informazioari erantzun zion. Hala ere, ezin dugu laguntzeko prestutasunik ezak erakunde honen esku hartzea egokiro eta zuzen bideratzea oztopatu duela salatu gabe utzi.

Larriagoa da, ezbairik gabe, Sestaoko alkatearen jarrera, baita Karrantzako alkatearena ere, egin zaizkien ohartarazpenak egin arren, urteko txosten hau egiten ari garen unean oraindik erakunde honi laguntzeko inolako itxurarik erakutsi ez dutelako.

Oztopozko jarrera horren haritik, hain zuzen, berriro ere aipatu behar ditugu 2001ean Pasaiako alkatea protagonista izan genueneko gertakariak.

Aurten ere Pasaiako alkatearen jarrera atal honetan nabarmendu beharrean gaude.

Badakizuenez, 2001ean, Juan Carlos Alduntzin Pasaiako alkatea behin eta berriro ukatu zen gure erakundeari laguntzera, urte horretan gipuzkoar udal horrekin izapidetu ziren kexa espedienteetako ikerketa lana oztopatzeko jarrera garbia erakutsiz.

Arartekoaren idatzi guztietan, pertsona orok bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea duela dioen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua eta "ETA EZ" euskaraz eta gaztelaniaz leloa idazten zenez, Juan Carlos Alduntzin jaunak, erakunde honek lelo horrekin bidaltzen zizkion idatziak jasotzean, 2001eko maiatzaren 15ean alkatetzaren ebazpen bat atera zuen, non xedatzen baitzuen "*neutraltasunera bueltatu arte, arartekoak bidaltzen zituen idatzi guztiak hari itzultzea*". Ebazpen horretan oinarrituz, Juan Carlos Alduntzin Juanena Pasaiako alkate jaunak Arartekoaren erakundetik bidali zaizkion idatzi guztiak itzuli dizkigu.

Oztopatzeko jokabide argi eta garbi horrek erakunde honek udal horren jarduerekin zerikusia dutelako izapidetzen diren espedienteetan esku hartzea oztopatzen du, behin eta berrizko eskakizunak egin arren, eta erakunde honengana jo duten herritarrengan defentsarik gabeko egoera sortzen du.

Egoera larri horren ondorioz, 2001.12.27an erakunde honek Ministerio Fiskalari gertakariok jakinarazi zizkion, Zigor Kodeko 502.2 artikuluan aurreikusitako delitua egiten ari zen ala ez esan zezan.

Donostiako 1. Instrukzio Epaitegiak 039/02 prozedura laburtua abiatu zuen, «*Gipuzkoako Pasaia herriko alkate Juan Carlos Alduncín Juanena jaunaren aurkakoa, indarreko Zigor Kodearen 502.2 artikuluan aurreikusi eta zigortutako Estatuko Erakundeen aurkako ustezko delituarengatik* «.

Prozeduraren eginkariak bete ondoren, fiskalak, 2002ko apirilaren 25ean, zigor bideko epaitegiaren aurrean ahozko epaiketa zabaltzea eskatu zuen, eta Juan Carlos Alduncín Juanenaren aurka ondokoa zioen kalifikazio idatzia aurkeztu zuen: "*kontatutako egitateak indarreko Zigor Kodearen 502.2 artikuluan aurreikusi eta zigortutako Estatuko erakundeen aurkako delitua dira. Auzipetua delitu horren erantzule da, egile izanik*". Eta amaitzeko hauxe dio: "*auzipetua ENPLEGU EDO KARGU PUBLIKOTIK 12 HILABETEZ KENDU behar da, eta kosten ordainketa egotzi behar zaio*".

Pasaiako alkateak epaitegietako jarduera horiek errekurritu ditu, eta txosten hau ixteko orduan epailearen ebazpenaren zain gaude.

Lehenago esan dugun bezala, zigor prozedura hori izapidetzen ari den arren, Pasaiako alkateak tematuta segitzen du erakunde honetatik bidaltzen zaizkion idatzi guztiak itzultzen. Zehazki, 177/2002/17 espedientean, itzuli egin digu 2003aren hasieran -bere jokabidearen zigor ondorioak gogoraraziz- bidali genion behin betiko ohartarazpena. Era berean, itzuli egin dizkigu 1000/2002/23 eta 1215/2002/17 espedienteei dagozkien idazkiak. Horregatik guztiagatik, Ministerio Fiskalari berriro ere jakinarazi behar izan diogu zer egin duen, zigor prozedura berria abiatu behar zaion erabaki dezan. Txosten hau ixteko orduan horren berri izateko zain gaude.

Pasaiako alkatearen lagundu nahi ez horretan, 2002 urtean gertakari bereziki larria izan da. Erakunde honek euskal udal guztietara bidalitako galdera sorta ere itzuli digu. Galdera sorta hori EAEko herri erabilpeneko eraikin, instalazio eta zerbitzuen ezgaituentzako irismen baldintzen gaineko txosten berezia egiteko prestatu dugu eta, bete ez duenez, berriro ere oztopatu du Pasaiako udalean dugun kontrolerako eginkizuna.

* * *

Arestiko iruzkinak egin ondoren, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, errekerimendu bat edo gehiago egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako errekerimenduak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:

  (1) zenbat espedienteetan egin den 2002 urtean informazio eskariren bat.
  (2) 2002an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatean egin den errekerimenduren bat.
  (3) errekerimendua egin zaien espedienteen portzentajea, 2002an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
  (4) 2002an errekerimendurik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.
  (5) 2002an errekerimendurik egin zaien espedienteetan, errekerimenduen kopuruaren xehatzea.
  (6) 2002an guztira egindako errekerimenduak.

- Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, izapidetzeko gure irizpenaren mende jarri diren egitateak egin dituzten organo edo erakundeei errekerimenduak helarazi behar izan zaizkieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
- Erreferentziei izartxoa gehitu zaieneko espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2002an, izapidetzen jarraitzen zutenez, errekerimenduak egin behar izan zaizkienak dira.

Azkeneko zutabean islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2002ko abenduaren 31 zelarik sartu da.

Azkenik, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio bat baino gehiago behari izan dutenak direla. Horrela agerrarazten dira planteatutako eskari bakoitzeko zenbat errekerimendu egin behar izan diren jasotzeko.

# 2. ADMINISTRAZIOEK ARARTEKOAK 2002. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA ERREKERIMENDUEI EMANDAKO ERANTZUNA

## A) Eusko Jaurlaritza

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | | 2002ko errekerimenduak guztira |
| **Saila** | | | | | 1 | 2 | 3 | +4 | |
| Nekazaritza eta Arrantza | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Kultura | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Kirol Justiziako Euskal Batzordea | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| EITB | 3 | 2 | 66,67 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Bizkaiko Futbol Federakundea | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 63 | 22 | 34,92 | 3 | 21 | 1 | 2 | 1 | 33 |
| UPV/EHU | 15 | 6 | 40 | 1 | 6 | 1 | - | - | 8 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 5 | 3 | 60 | - | 3 | - | - | - | 3 |
| Eustat | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| HAEE | 5 | 2 | 40 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 9 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Spri-Sociedad de promoción y reconversión | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Herrizaingo Saila | 48 | 18 | 37,50 | 8 | 18 | 5 | 1 | 2 | 39 |
| Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza | 16 | 4 | 25 | 1 | 3 | 1 | 1 | - | 8 |
| Osalan | 3 | 1 | 33,33 | - | - | - | 1 | - | 3 |
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena | 5 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| IHOBE | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Osasuna | 6 | 2 | 33,33 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| SVS/Osakidetza | 39 | 9 | 23,08 | 5 | 9 | 2 | 2 | 1 | 23 |
| Garraioak eta Herri Lanak | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos | 5 | 1 | 20 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| IMEBISA | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 19 | 4 | 21,05 | - | 3 | 1 | - | - | 5 |

## B) Foru Aldundiak

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arabako Foru Aldundia** | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | 2001eko errekerimenduak guztira |
| | | | | | 1 | 2 | 3 | |
| Nekazaritza eta Ingurumena | 2 | - | - | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Gizarte Ongizatea | 6 | 1 | 16,67 | 3 | 4 | - | - | 4 |
| Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak | 5 | - | - | - | - | - | - | - |
| Herri Lanak eta Hirigintza | 3 | 1 | 33,33 | 1 | 1 | 1 | - | 3 |
| Lehendakaritza | 3 | - | - | - | - | - | - | - |

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bizkaiko Foru Aldundia** | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | 2001eko errekerimenduak guztira |
| | | | | | 1 | 2 | 3 | |
| Gizartekintza | 12 | - | - | 1 | 1 | - | - | 1 |
| Nekazaritza | 4 | 3 | 75 | - | 3 | - | - | 3 |
| Kultura | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ogasuna eta Finantzak | 10 | 3 | 30 | - | 3 | - | - | 3 |
| Herri Lanak eta Garraioak | 11 | 6 | 54,55 | 3 | 6 | 1 | 2 | 14 |
| Lehendakaritza | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Hirigintza | 1 | - | - | - | - | - | - | - |

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Gipuzkoako Foru Aldundia** | 2001eko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | 2001eko errekerimenduak guztira |
| | | | | | 1 | 2 | 3 | |
| Nekazaritza eta Ingurumena | 9 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ogasuna eta Finantzak | 6 | - | - | - | - | - | - | - |
| Gazteria eta Kirolak | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Lan Hidraulikoak eta Hirigintza | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Lehendakaritza | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | 1 |
| Gizarte Zerbitzuak | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Garraioak eta Errepideak | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | 2 |

| | (1) |
|---|---|
| **Bizkaiko Batzar Nagusia** | 2002ko eskaera espedienteak |
| Bizkaiko Batzar Nagusia | 1 |

## C) **Udalak**

## - Arabako Lurralde Historikoa

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arabako udalak** | **2002ko eskaera espedienteak** | **Errekerimendua duten espedienteak** | **%** | **Aurreko urteetako errekerimenduak** | **Errekerimenduen kopurua desglosatua** | | | | **2002ko errekerimenduak guztira** |
| | | | | | **1** | **2** | **3** | **+4** | |
| Artziniega | 4 | 3 | 75 | - | 3 | - | - | - | 3 |
| Ayala / Aiara | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Barrundia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | 2 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Iruraiz-Gauna | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Laguardia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Legutiano | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Leintz-Gatzaga | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Laudio | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Salvatierra / Agurain | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Valdegovía | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Villabuena de Álava / Eskuernaga | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Vitoria-Gasteiz | 47 | 13 | 27,66 | 2 | 11 | 3 | 1 | - | 20 |

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Arabako administrazio batzak** | **2002ko eskaera espedienteak** | **Errekerimendua duten espedienteak** | **%** | **Aurreko urteetako errekerimenduak** | **Errekerimenduen kopurua desglosatua** | | | | **2002ko errekerimenduak guztira** |
| | | | | | **1** | **2** | **3** | **+4** | |
| Berantevilla | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Betoño | 1 | 1 | 100 | - | - | - | - | 1 | 4 |
| Llanteno | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Maestu | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Markina | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Nanclares de la Oca | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Unzá | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Villanueva de Valdegovía | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |

## - Bizkaiko Lurralde Historikoa

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | | | 2002ko errekerimenduak guztira |
| **Udala** | | | | | 1 | 2 | 3 | 4 | +5 | |
| Abadiño | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 5 | 4 | 80 | 3 | 4 | 3 | - | - | - | 10 |
| Amorebieta-Etxano | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arcentales | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arrankudiaga | 1 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Arrigorriaga | 4 | 1 | 25 | 1 | 1 | - | 1 | - | - | 4 |
| Balmaseda | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | - | - | 1 | - | 5 |
| Barakaldo | 12 | 3 | 25 | - | 3 | - | - | - | - | 3 |
| Barrika | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Basauri | 5 | 1 | 20 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Bedia | 3 | 2 | 66,67 | 1 | 2 | - | 1 | - | - | 5 |
| Berango | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bermeo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Berriz | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Bilbao | 85 | 25 | 29,41 | 5 | 17 | 10 | 3 | - | - | 46 |
| Carranza | 1 | 1 | 100 | 2 | 3 | - | - | - | - | 3 |
| Derio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Durango | 4 | 1 | 25 | 1 | 1 | 1 | - | - | - | 3 |
| Ea | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Erandio | 5 | 4 | 80 | 2 | 2 | 4 | - | - | - | 10 |
| Ermua | 1 | 1 | 100 | 1 | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Etxebarria | 2 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Galdakao | 4 | 2 | 50 | 1 | 2 | 1 | - | - | - | 4 |
| Galdames | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Gernika-Lumo | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Getxo | 18 | 6 | 33,33 | 3 | 6 | 2 | 1 | - | - | 13 |
| Gorliz | 1 | 1 | 100 | 1 | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Iurreta | 2 | - | - | 1 | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Lekeitio | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Lemoa | 2 | 2 | 100 | - | 1 | 1 | - | - | - | 3 |
| Lezama | - | - | - | 1 | - | - | 1 | - | - | 3 |
| Loiu | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Mallabia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Markina-Xemein | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Maruri-Jatabe | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Mungia | 3 | 1 | 33,33 | 2 | 2 | - | 1 | - | - | 5 |
| Ondarroa | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Orozko | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | - | 1 | - | - | 4 |
| Ortuella | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Otxandio | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Plentzia | 1 | 1 | 100 | 1 | - | 2 | - | - | - | 4 |
| Portugalete | 16 | 3 | 18,75 | 6 | 7 | - | 2 | - | - | 13 |
| Santurtzi | 7 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Sestao | 6 | 3 | 50 | - | - | 2 | - | 1 | - | 8 |
| Sopelana | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Sopuerta | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Ugao-Miraballes | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zalla | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zaratamo | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zeberio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zierbena | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | | |
| Udala | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | 1 | 2 | 3 | +4 | 2002ko errekerimenduak guztira |
| Alegia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Andoain | 3 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Anoeta | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Arrasate / Mondragón | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Astigarraga | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Azpeitia | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beasain | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Deba | 6 | 2 | 33,33 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Donostia-San Sebastián | 40 | 14 | 35 | 8 | 11 | 9 | - | 2 | 37 |
| Elgoibar | 3 | - | - | 1 | - | - | - | 1 | 4 |
| Errenteria | 6 | 3 | 50 | - | 2 | 1 | - | - | 4 |
| Hernani | 2 | 2 | 100 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Hondarribia | 5 | 3 | 60 | - | 1 | 2 | - | - | 5 |
| Ibarra | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Irun | 5 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lasarte-Oria | 4 | 1 | 25 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Lezo | 3 | 3 | 100 | - | 3 | - | - | - | 3 |
| Mutriku | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Oiartzun | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Orio | 2 | 1 | 50 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Ormaiztegi | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Pasaia | 2 | 2 | 100 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Tolosa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Urnieta | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | 3 |
| Urretxu | 8 | 7 | 87,50 | - | - | 7 | - | - | 14 |
| Villabona | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zarautz | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Zumaia | 1 | 1 | 100 | 1 | 2 | - | - | - | 2 |

## D) **Beste erakunde publiko batzuk**

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | | |
| | 2002ko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | 1 | 2 | 3 | +4 | 2002ko errekerimenduak guztira |
| Bilbao Exhibition Centre S.A. | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bizkaiko Abokatuen Elkargoa | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Abokatuen Euskal Kontseilua | 3 | 1 | 33,33 | 1 | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Bizkaiko Garraio Partzuergua | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Euskaltel | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arabako Hauteskunde Batza | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | 3 |
| Mebisa-Bilboko Metroa | 2 | 1 | 50 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Estatuaren erakunde eta administrazioak | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Txingudi S.A. Zerbitzuak | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zierbena Portua S.A. | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |

# 3. ARARTEKOAK 2002. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN ERREKERIMENDUEN ZERRENDA

## A) **Eusko Jaurlaritza**

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekeriemen-duaren data | Informazio Jaso Gabea ( JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Arrantza | 509/2001/23* | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 29/01/2002 | J |
| Kultura | 4/2001/19 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 14/03/2002 | J |
| Kirol Justiziako Euskal Batzordea | 247/2002/22 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 21/11/2002 | JG |
| EITB | 31/2002/22 | ETB1en seinalea gaizki jasotzea | 1 | 02/05/2002 | J |
| | 628/2002/18 | ETB2an emandako saio baten gertaeraren tratamendua | 2 | 28/11/2002 | J |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 684/2001/25* | Erlijioa ikasgaiaren eskola materiala | 3 | 17/06/2002 | J |
| | 1159/2001/25* | Eskola garraioaren ukapena | 1 | 07/01/2002 | J |
| | 1393/2001/20* | Erlijio heziketa | 1 | 15/01/2002 | J |
| | 557/2000/20 | Bitarteko funtzionarioen seme-alabak zaintzeko eszedentzia | 1 | 10/07/2002 | J |
| | 641/2001/23 | Elektrizitate-hariak ikastetxetik gertu | 1 | 22/03/2002 | J |
| | 1509/2001/20 | Heziketa zentroko gastu eta inbertsioak | 1 | 27/02/2002 | J |
| | 39/2002/23 | Bidegoian ikastetxea eraikitzea | 1 | 23/04/2002 | J |
| | 39/2002/23 | Bidegoian ikastetxea eraikitzea | 1 | 01/08/2002 | J |
| | 39/2002/23 | Bidegoian ikastetxea eraikitzea | 1 | 11/12/2002 | J |
| | 153/2002/20 | Aurreko esperientzia baloratzea, irakasle ordezkapenetarako | 1 | 23/05/2002 | J |
| | 191/2002/20 | Irakasleak prestatzeko ikastaroa. Diskriminazioa arrazoi erlijiosoengatik | 1 | 19/04/2002 | J |
| | 191/2002/20 | Irakasleak prestatzeko ikastaroa. Diskriminazioa arrazoi erlijiosoengatik | 3 | 15/10/2002 | J |
| | 319/2002/18 | Eskola eskaintzaren plangintza okerra | 1 | 07/05/2002 | J |
| | 382/2002/20 | Unibertsitate beka ukatzea | 1 | 20/06/2002 | J |
| | 398/2002/20 | Polimeroen ingeniaritza ikasketak | 1 | 23/05/2002 | J |
| | 432/2002/25 | Ikastetxe batean obrak egin beharra | 1 | 25/06/2002 | J |
| | 441/2002/20 | Ikasleak hartzea | 1 | 20/06/2002 | J |
| | 467/2002/19 | Esp. informatiboa eskuratzea eta laguntza juridikoa ukatzea bere karguan ziharduen funtzionarioari | 1 | 08/10/2002 | J |
| | 492/2002/20 | Ikasleen banaketa | 1 | 20/06/2002 | J |
| | 544/2002/25 | Eskola garraioa ukatzea | 1 | 04/09/2002 | J |
| | 549/2002/17 | Arkitekturazko oztopoak | 2 | 18/11/2002 | J |
| | 552/2002/20 | Irale. Deialdien publizitatea | 1 | 27/08/2002 | J |
| | 556/2002/25 | Eskola garraioa ukatzea | 1 | 04/09/2002 | J |
| | 940/2002/20 | Irakasleen ordezkapenak | 1 | 06/11/2002 | J |
| | 956/2002/18 | Oholtzan gaztelania soilik erabiltzea | 1 | 12/12/2002 | JG |
| | 957/2002/18 | Oholtzan gaztelania soilik erabiltzea | 1 | 12/12/2002 | JG |
| | 1030/2002/25 | Elbarrien tratua. Lanbide Ikasketetarako sarrera | 1 | 23/12/2002 | JG |
| | 1070/2002/20 | Eskola garraioa | 1 | 11/12/2002 | J |
| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | 451/2001/18* | UPV/EHUn sartzea ukatzea | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 1433/2001/20 | Katedra eskuratzeko lehiaketa | 1 | 26/04/2002 | J |
| | 50/2002/20 | Irakasleen falta. Arkitektura Goi Eskola | 1 | 19/02/2002 | J |
| | 615/2002/25 | Administrazioaren isiltasuna. Organo akademikoen hauteskundeen kontrako errekurtsoak | 2 | 17/10/2002 | JG |
| | 785/2002/20 | Barneko auditoria txostenak eskuratzea | 1 | 11/12/2002 | JG |
| | 936/2002/20 | Irakasleen beharrak betetzea | 1 | 14/11/2002 | JG |
| | 964/2002/20 | "Erasmus" programako ikasleen matrikula | 1 | 06/11/2002 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea ( JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 143/2002/20 | Ordaintzeke zeuden soldatak ordaintzea | 1 | 19/04/2002 | J |
| | 769/2002/20 | Aldi baterako kontratazioa eta benetako lan denbora | 1 | 14/11/2002 | J |
| | 787/2002/19 | Prozedura administratiboan agiria galtzea | 1 | 16/12/2002 | JG |
| HAEE | 226/2002/20 | Hautaprobak. Pertsona ezinduei denbora egokitzea | 1 | 26/09/2002 | J |
| | 724/2002/20 | Hezitzaileen poltsa. Merituen balioztapena | 1 | 26/09/2002 | J |
| Industria, Merkatritza eta Turismoa | 1154/2001/25* | Telefonia enpresen kontrako kontsumo gaiaren gaineko erreklamazioa. | 1 | 07/01/2002 | J |
| Herrizaingo Saila | 508/1999/21* | Ertzaintzak gaizki jokatzea | 1 | 18/04/2002 | JG |
| | 824/2000/19* | Trafiko zehapena | 1 | 19/02/2002 | JG |
| | 862/2000/19* | Sabotaje baten biktimaren kalte-ordainaren balorazioa | 1 | 19/02/2002 | J |
| | 929/2000/19* | Ertzaintzak gaizki jokatzea herritar batekin | 1 | 19/02/2002 | JG |
| | 72/2001/21* | Ertzaintzak gaizki jokatzea | 1 | 17/04/2002 | JG |
| | 590/2001/19* | Ertzaintzak etxebizitzari kalte egin miaketan | 1 | 19/02/2002 | JG |
| | 1149/2001/18* | Euskararen ofizialtasuna urratzea | 1 | 25/01/2002 | J |
| | 1418/2001/19* | Ertzaintzak atxilotzea | 1 | 19/02/2002 | J |
| | 838/2000/19 | Ertzaintzaren tratu txarrak | 1 | 16/12/2002 | J |
| | 1149/2001/18 | Euskararen ofizialtasuna urratzea | 1 | 17/12/2002 | JG |
| | 108/2002/19 | Hontza zentroaren ondoan aparkatuta zuen automobileko kalteak | 4 | 16/12/2002 | JG |
| | 119/2002/19 | Ertzaintzak jarraipenak egitea | 3 | 16/12/2002 | JG |
| | 164/2002/20 | Bidaia gastuak likidatzea. EAEtik kanpo bizi diren ertzainak | 1 | 19/04/2002 | J |
| | 164/2002/20 | Bidaia gastuak likidatzea. EAEtik kanpo bizi diren ertzainak | 3 | 04/09/2002 | J |
| | 271/2002/19 | Ertzaintzak San Frantziskon izandako jokabidea | 1 | 08/07/2002 | J |
| | 638/2002/19 | Ertzaintzak kalean jolasten ziharduten haurrei jostailuzko pistolak bahitzea | 1 | 08/10/2002 | J |
| | 776/2002/18 | Langile publikoak euskarazko ikastaroak jasotzea | 1 | 09/10/2002 | J |
| | 776/2002/18 | Langile publikoak euskarazko ikastaroak jasotzea | 1 | 29/11/2002 | J |
| | 813/2002/19 | Ertzaintzak trafiko ezbeharrean hildakoen familiakoari emandako tratua | 2 | 16/12/2002 | JG |
| | 856/2002/19 | Zezenketen kontrako elkarretaratzean Ertzaintzak atxilotutakoa | 1 | 16/12/2002 | JG |
| | 946/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | JG |
| | 947/2002/23 | Animalien babesa | 2 | 11/12/2002 | JG |
| | 948/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | JG |
| | 949/2002/23 | Animalien babesa | 2 | 11/12/2002 | JG |
| | 950/2002/23 | Animalien babesa | 2 | 11/12/2002 | JG |
| | 951/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | JG |
| | 967/2002/20 | Diziplina espedientea | 1 | 28/11/2002 | J |
| | 970/2002/19 | Zirkulazio ezbeharren gaineko Ertzaintzaren atestatua eskuratzea | 1 | 16/12/2002 | JG |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 1141/2001/25* | Lan elkarte bati estatutuen erregistroa ukatzea | 1 | 29/01/2002 | J |
| | 190/2002/20 | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko lurraldetako delegazioetan letratu lanpostuak aldatzea | 1<br>3 | 15/10/2002<br>17/10/2002 | J<br>J |
| | 352/2002/25 | Langileei laguntzak ukatzea kooperatiban sartu izanagatik | | | |
| | 636/2002/20 | Karrera judizialeko bekak | 2 | 15/10/2002 | J |
| | 861/2002/16 | Laguntzen bateraezintasuna 176/2002 Dekretua | 1 | 03/12/2002 | JG |
| Osalan | 6/2002/20 | Lan arriskuak Metro Bilbaoko 2. lerroan | 3 | 04/09/2002 | J |
| Osasuna | 1381/2001/18 | Osasun produktuaren finantzazio falta | 1 | 14/05/2002 | J |
| | 381/2002/18 | Osasun garraioaren funtzionamendua | 1 | 02/07/2002 | J |
| SVS / Osakidetza | 856/2001/20* | Bitarteko beharrak kirurgia orokorrean | 1 | 09/01/2002 | J |
| | 1216/2001/18* | Antzutasunaren tratamendua eta VIH | 1 | 16/01/2002 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| SVS / Osakidetza | 1221/2001/20* | Zerbitzuetako langilearen bitarteko beharrak | 1 | 09/01/2002 | J |
| | 1223/2001/20* | Laguntzaileak. Lanpostua finkatzeko eskabidea | 1 | 09/01/2002 | J |
| | 1396/2001/20* | Lizentzia hauteskundeengatik. Jaiegunetako osagarria | 1 | 15/01/2002 | J |
| | 856/2001/20 | Bitarteko beharrak kirurgia orokorrean | 2 | 23/05/2002 | J |
| | 1221/2001/20 | Zerbitzuetako langilearen bitarteko beharrak | 2 | 03/06/2002 | J |
| | 1/2002/20 | Prebentzio zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdia | 1 | 19/02/2002 | J |
| | 1/2002/20 | Prebentzio zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdia | 1 | 05/06/2002 | J |
| | 1/2002/20 | Prebentzio zerbitzuko lanpostuak betetzeko deialdia | 1 | 06/11/2002 | J |
| | 51/2002/20 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 19/04/2002 | J |
| | 51/2002/20 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 10/07/2002 | J |
| | 226/2002/20 | Hauta probak. Pertsona ezinduei denbora egokitzea | 1 | 26/09/2002 | J |
| | 389/2002/20 | Dietetika eta Giza Elikadurako Diplomatuak | 3 | 04/09/2002 | J |
| | 461/2002/18 | Interesdunak erregistro eta artxiboak eskuratzea | 1 | 17/12/2002 | JG |
| | 712/2002/18 | Gastuak itzultzea | 1 | 04/09/2002 | JG |
| | 1053/2002/18 | Itxaroteko zerrenda | 1 | 12/12/2002 | JG |
| Garraioak eta Herri Lanak | | | | | |
| Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos | 1416/2001/22 | Tren geltokia eraberritzeko obrak | 2 | 02/07/2002 | J |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 1102/2001/17 | Antzemandako akatsak garaje batean | 1 | 24/05/2002 | J |
| | 1137/2001/23 | Babes ofizialeko eraikinaren erabilera aldatzea | 2 | 01/10/2002 | J |
| | 335/2002/17 | Etxebide zerrendetatik baztertzea | 1 | 05/06/2002 | J |
| | 494/2002/23 | Urbanizazio bat mantendu eta egikaritzea | 1 | 01/10/2002 | J |

## B) **Foru aldundiak**

### - Arabako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Ingurumena | 194/2001/19* | Zehapena ibaietako arrantza araudia urratzeagatik | 1 | 08/10/2002 | J |
| | 1133/2001/01* | Pertsona ezinduak garraiatzen dituen autobusaren baldintzak | 1 | 01/02/2002 | J |
| Gizarte Ongizatea | 1344/2001/21* | Adingabe baten erakundeen babesa | 1 | 17/04/2002 | J |
| | 1484/2001/18* | Lan baldintzei buruzko neurriak | 1 | 11/02/2002 | J |
| | 716/2002/01 | Autismo duten pertsonentzako eguneko zentroaren eskabidea | 1 | 07/10/2002 | JG |
| Herri Lanak eta Hirigintza | 1100/2001/23* | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 20/03/2002 | J |
| | 1456/2001/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 19/02/2002 | J |

## - Bizkaiko Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizartekintza | 1406/2001/20* | Hezitzaileen beharra. Orduña zahar-etxea | 1 | 15/01/2002 | J |
| Nekazaritza | 889/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | J |
| | 946/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | J |
| | 951/2002/23 | Animalien babesa | 1 | 08/11/2002 | J |
| Ogasuna | 1401/2001/16 | Familia ugariak Garraiobide Zehatz batzuen gaineko Zerga Berezian | 1 | 03/10/2002 | J |
| | 94/2002/16 | IBI izeneko zerga salbuespenak | 1 | 03/10/2002 | J |
| | 688/2002/16 | Jakinarazpen akastunak | 1 | 03/10/2002 | J |
| Herri Lanak eta Garraioak | 779/2001/22* | Jai egunetan garraio publikoa kentzea | 3 | 02/05/2002 | JG |
| | 1214/2001/22* | Ibarrekolanda-Deustuko saihesbideko obrak | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 1318/2001/22* | Sartzen ukatzea (BI-2121 errepidea) | 1 | 22/01/2002 | J |
| | 1450/2001/22 | Bizkaibusen gau zerbitzuak | 2 | 22/11/2002 | J |
| | 118/2002/23 | Derrigorrezko desjabetzea | 1 | 20/03/2002 | J |
| | 277/2002/22 | Trenbideko pasabidea | 1 | 03/06/2002 | J |
| | 624/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 3 | 23/12/2002 | JG |
| | 878/2002/23 | Txorierriko obrak gauzatzea | 1 | 08/11/2002 | J |
| | 944/2002/23 | Elorrioko saihesbideko obrak | 1 | 10/12/2002 | JG |

## - Gipuzkoako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza | 235/2002/20 | EAEJEGren epaia betetzea | 1 | 19/04/2002 | J |
| Garraioak eta Errepideak | 792/2002/23 | Obrak Etxegaraten | 1 | 01/10/2002 | J |
| | 793/2002/23 | Obrak Etxegaraten | 1 | 01/10/2002 | J |

## C) **Udalak**

## - Arabako Lurralde Historikoa

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Artziniega | 217/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 26/04/2002 | J |
| | 308/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 26/04/2002 | J |
| | 309/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 26/04/2002 | JG |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | 576/2001/17* | Industriako lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | J |
| Iruraiz-Gauna | 27/2002/23 | Lurraren sailkapena | 1 | 20/03/2002 | J |
| Laguardia | 472/1999/19 | Ibilgailua herri bidetik eramatea | 1 | 16/12/2002 | JG |
| Legutiano | 554/2002/17 | Urbanizatu ezineko lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 22/07/2002 | J |
| Leintz-Gatzaga | 82/2002/23 | Udaleko ebazpena gauzatzea | 1 | 02/04/2002 | J |
| Laudio | 1431/2001/16 | Hezetasuna trastelekuan eta errekak gainezka egitea | 1 | 03/10/2002 | J |
| Villabuena de Álava / Eskuernaga | 340/2002/23 | Eraikuntzaren hirigintza egoera | 1 | 17/07/2002 | J |
| Vitoria-Gasteiz | 38/2001/21* | Atzerritarrak. Etxebizitza alokatzeko eragozpenak | 1 | 25/03/2002 | J |
| | 850/2001/25* | Ondare erantzukizuna | 1 | 08/01/2002 | J |
| | 177/2001/20 | Ensanche 21. Zabalgunea abokatu-ekonomilari lanpostua | 1 | 26/04/2002 | J |
| | 814/2001/23 | Hirigintzako legezkotasuna | 1 | 20/03/2002 | J |
| | 117/2002/20 | OPE. Administrazio laguntzaileak | 2 | 03/07/2002 | J |
| | 151/2002/23 | Hirigintzako legezkotasuna | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 180/2002/25 | Haur eskolan matrikula itzultzeko eskabideari uko ematea | 1 | 05/06/2002 | J |
| | 259/2002/20 | OPE. Administrazioaren laguntzaileen probak | 3 | 02/07/2002 | J |
| | 392/2002/17 | Pertsona ezinduentzako erreserbak zinema aretoetan | 1 | 05/06/2002 | J |
| | 486/2002/19 | Trafiko zehapena | 1 | 16/12/2002 | JG |
| | 525/2002/23 | Udaleko estolderiak eragindako arazoak | 1 | 16/07/2002 | J |
| | 525/2002/23 | Udaleko estolderiak eragindako arazoak | 1 | 11/12/2002 | JG |
| | 653/2002/22 | Kontzesio kontratuaren klausulak berrikustea | 1 | 20/09/2002 | J |
| | 827/2002/20 | San Prudencio zahar-etxeko arduradunaren kargutik kentzea-birjartzea | 2 | 06/11/2002 | J |
| | 930/2002/23 | Hirigintzako informazioa | 1 | 08/11/2002 | J |
| | 1029/2002/20 | Elikaduren Zientzia eta Teknologian lizentziatuen sarbidea | 1 | 28/11/2002 | JG |

## - Administrazio batzak

| Batza | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Betoño | 310/2002/23 | Obrak gauzatzea | 1 | 23/05/2002 | J |
| | 310/2002/23 | Obrak gauzatzea | 3 | 11/12/2002 | JG |
| Llanteno | 724/2001/22* | Kalte-ordainen erreklamazioa | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 724/2001/22 | Kalte-ordainen erreklamazioa | 2 | 08/10/2002 | JG |
| Langraitz | 116/2001/23 | Bidearen jabetza | 1 | 20/03/2002 | J |
| Unzá | 21/2001/23* | Hilerriko hilobien adjudikazioa | 1 | 29/01/2002 | J |

## - Bizkaiko Lurralde Historikoa

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Abadiño | 605/2002/19 | Bere negozioaren ondoan aparkatzeko leku falta | 1 | 08/12/2002 | J |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 415/2000/23* | Ondare erantzukizuna | 2 | 02/04/2002 | J |
| | 501/2001/23* | Landa bideak mantentzea | 1 | 29/01/2002 | J |
| | 1080/2001/22* | Zaborrak biltzeko zerbitzua betetzea | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 38/2002/17 | Hiri inguruneko irisgarritasuna | 2 | 20/05/2002 | J |
| | 586/2002/23 | Urbanizazioa egitea | 2 | 01/10/2002 | J |
| | 886/2002/17 | Udal lokal batetik datozen ur filtrazio eta zarata gogaikarriak | 1 | 15/11/2002 | JG |
| | 965/2002/23 | Kalte-ordainen erreklamazioa | 1 | 11/12/2002 | JG |
| Arrankudiaga | 808/2001/23* | Lurzoruaren diziplina | 1 | 29/01/2002 | J |
| Arrigorriaga | 1126/2001/19* | Udalak ez du erroldan sartzen | 1 | 24/01/2002 | J |
| | 1126/2001/19 | Udalak ez du erroldan sartzen | 3 | 16/12/2002 | JG |
| Balmaseda | 1112/2001/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 4 | 22/07/2002 | J |
| | 1112/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/11/2002 | J |
| Barakaldo | 1023/2001/23 | Etxean berriro sartzeko gastuak | 1 | 24/04/2002 | J |
| | 1064/2001/23 | Derrigorrezko desjabetzea | 1 | 23/04/2002 | J |
| | 99/2002/23 | Kalearen titularitatea | 1 | 01/08/2002 | J |
| Barrika | 233/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 21/05/2002 | J |
| Basauri | 812/2002/17 | Industria lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 15/11/2002 | JG |
| Bedia | 561/2001/22* | Tasa hirigintza informazioagatik | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 109/2001/23 | Etxebizitzaren irisgarritasuna | 1 | 08/11/2002 | J |
| | 1495/2001/23 | Auzunearen elektrifikazioa | 3 | 01/08/2002 | J |
| Berriz | 478/2002/20 | Euskararen teknikari lanposturako deialdia | 1 | 20/06/2002 | J |
| Bilbao | 10/2001/22* | ICIO eta obraren tasa | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 431/2001/19* | TAOren eremuan aparkatzeko pertsona ezinduentzako araudi berezia | 2 | 14/03/2002 | J |
| | 472/2001/23* | Ondare erantzukizuna | 1 | 29/01/2002 | J |
| | 898/2001/23* | Bilbo zaharra biziberritzea | 3 | 01/10/2002 | J |
| | 1181/2001/25* | Auzuneko adingabeek erabilitako futbol zelaia desagertzea | 2 | 25/03/2002 | J |
| | 719/2001/22 | Etxebizitzen irisgarritasuna hondatzea | 1 | 02/05/2002 | J |
| | 1482/2001/16 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 20/06/2002 | JG |
| | 43/2002/23 | Igogailua jartzea | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 249/2002/16 | Tasa suhiltzaileen zerbitzua emateagatik | 1 | 20/06/2002 | J |
| | 292/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 24/07/2002 | J |
| | 303/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 314/2002/24 | Trafiko zehapena | 1 | 02/07/2002 | J |
| | 315/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 342/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 370/2002/17 | Sastraka garbitzea | 3 | 03/10/2002 | J |
| | 402/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 403/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 410/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 420/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 433/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 2 | 30/07/2002 | J |
| | 446/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 451/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 452/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 456/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 584/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 589/2002/19 | TAO txartela ukatzea | 3 | 16/12/2002 | JG |
| | 611/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 17/09/2002 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Bilbao | 618/2002/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 16/07/2002 | J |
| | 741/2002/19 | Erresidentzia egiaztatzeko elkarbizitza ziurtagiria exijitzea gizarte laguntzan | 1 | 08/10/2002 | J |
| | 968/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 23/12/2002 | JG |
| Carranza | 69/1998/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 14/01/2002 | JG |
| | 930/2000/23* | Ondare ondasunen erabilera | 1 | 12/03/2002 | J |
| | 930/2000/23 | Ondare ondasunen erabilera | 1 | 11/12/2002 | JG |
| Durango | 958/2000/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 02/04/2002 | J |
| | 142/2002/19 | Trafiko zehapena | 1 | 08/07/2002 | J |
| Ea | 100/2002/23 | Ur instalazioa | 1 | 20/03/2002 | J |
| Erandio | 1213/2000/19* | Pertsona ezinduentzako gordetako lekuetan aparkatzeko eragozpenak | 1 | 08/10/2002 | JG |
| | 497/2001/17* | Itsasadarra kanalizatzea | 2 | 02/04/2002 | J |
| | 1391/2001/22 | Gertuko obretako zarata eragozpenak | 2 | 22/11/2002 | J |
| | 573/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 08/10/2002 | J |
| | 590/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 08/10/2002 | J |
| | 885/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 08/11/2002 | J |
| Ermua | 434/2000/23* | Udal planeamendua | 1 | 24/04/2002 | J |
| | 1469/2001/23 | Erreklamazioa | 1 | 20/02/2002 | J |
| Etxebarria | 1147/2001/17* | Industria lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/02/2002 | J |
| Galdakao | 1219/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 02/04/2002 | J |
| | 341/2002/23 | Hirigintza kudeaketa | 1 | 17/07/2002 | J |
| | 996/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 23/12/2002 | JG |
| Gernika-Lumo | 807/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 04/11/2002 | J |
| Getxo | 226/2001/20* | B eta D hezkuntza ereduetan matrikulatzea sustatzea | 1 | 23/01/2002 | J |
| | 1041/2001/25* | Administrazioaren isiltasuna. Tokiko zerbitzuak hobetzeko eskabideak | 2 | 25/03/2002 | J |
| | 1339/2001/19* | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 11/06/2002 | J |
| | 883/2000/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 24/05/2002 | J |
| | 742/2001/23 | Baserriaren babesa | 1 | 12/12/2002 | JG |
| | 559/2002/19 | TAO ukatzea | 1 | 30/07/2002 | J |
| | 749/2002/20 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 26/09/2002 | J |
| | 789/2002/17 | Telefonia mugikorraren antena jartzearen kontra | 1 | 18/11/2002 | JG |
| | 922/2002/20 | Langileen ordezkaritza | 1 | 14/11/2002 | JG |
| Gorliz | 1388/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | J |
| | 1388/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 02/04/2002 | J |
| Iurreta | 1044/2001/17* | Txakurrek eragindako eragozpenak | 2 | 18/02/2002 | J |
| Lekeitio | 581/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 22/07/2002 | J |
| Lemoa | 487/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 03/10/2002 | J |
| | 750/2002/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 26/12/2002 | JG |
| Lezama | 923/2001/22* | Ganadua pasatzean eragindako eragozpenak | 3 | 02/05/2002 | J |
| Loiu | 299/2002/24 | Lauro ikastola inguruko trafiko eragozpenak | 1 | 26/09/2002 | J |
| Mallabia | 1386/2001/17 | Zabortegi klandestinoa | 1 | 25/03/2002 | J |
| Maruri-Jatabe | 317/2002/23 | Negutegiak jartzea | 1 | 24/05/2002 | J |
| Mungia | 498/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | J |
| | 804/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 3 | 24/05/2002 | J |
| | 804/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/11/2002 | JG |
| Ondarroa | 781/2001/20 | Udaltzain laguntzaileen bitarteko beharrak eskuratzea | 2 | 28/05/2002 | JG |
| Orozko | 1107/2001/22* | Landa elektrifikazioa | 1 | 28/01/2002 | J |
| | 462/2002/23 | Obra eragozpenak | 3 | 08/11/2002 | J |
| Ortuella | 438/2002/25 | Oinarrizko errenta eskabidea ukatzea | 2 | 17/10/2002 | J |
| Otxandio | 734/2002/17 | Urbanizatu ezineko lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 09/09/2002 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azken errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Plentzia | 1097/2001/19* | Eskabidearen erantzun falta | 2 | 14/03/2002 | R |
| | 1097/2001/19 | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 2 | 16/12/2002 | P |
| Portugalete | 337/1999/19* | Udaltzainek egindako erasoa | 1 | 02/01/2002 | R |
| | 600/2001/23* | Hirigintza diziplina | 1 | 30/01/2002 | R |
| | 674/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | R |
| | 1025/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 3 | 02/04/2002 | R |
| | 1127/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 3 | 02/04/2002 | R |
| | 1250/2001/25* | Ondare erantzukizuna | 1 | 29/01/2002 | R |
| | 1250/2001/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 23/12/2002 | P |
| | 225/2002/19 | Ibilgailua geldiaraztea | 1 | 11/06/2002 | R |
| | 673/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/11/2002 | R |
| Santurtzi | 197/2001/22* | LGS baino zenbateko handiagoa desjabetzea | 1 | 28/01/2002 | R |
| Sestao | 262/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 4 | 27/11/2002 | P |
| | 675/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 18/11/2002 | P |
| | 862/2002/23 | Kalte-ordainaren eskabidea | 2 | 11/12/2002 | P |
| Sopuerta | 655/2001/22* | Udaleko zerbitzu publikoak | 1 | 28/01/2002 | R |

## - Gipuzkoako Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Alegia | 188/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 22/07/2002 | J |
| Andoain | 1209/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/02/2002 | J |
| Anoeta | 63/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 17/06/2002 | J |
| Beasain | 806/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 15/11/2002 | JG |
| Deba | 2/2002/19 | Zinegotzia talde mistoan sartzeagatik eskumenak murriztea | 1 | 08/07/2002 | J |
| | 60/2002/19 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 08/07/2002 | J |
| Donostia-San Sebastián | 360/2001/19* | TAO txartela | 2 | 14/03/2002 | J |
| | 450/2001/19* | TAO txartela | 2 | 14/03/2002 | J |
| | 587/2001/19* | TAO txartela | 2 | 14/03/2002 | J |
| | 1033/2001/24* | Bizikletak oinezkoen guneetan | 2 | 18/04/2002 | J |
| | 1103/2001/23* | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 1187/2001/23* | Ordenamendutik kanpo eraikitzea | 4 | 24/04/2002 | J |
| | 1210/2001/22* | Garaje plazen adjudikaziotik baztertzea | 2 | 02/05/2002 | J |
| | 1390/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | J |
| | 1033/2001/24 | Bizikletak oinezkoen guneetan | 2 | 26/09/2002 | J |
| | 1503/2001/19 | Partida egunetan Anoetan trafikoa bideratzeko neurriak | 1 | 12/03/2002 | J |
| | 1503/2001/19 | Partida egunetan Anoetan trafikoa bideratzeko neurriak | 1 | 08/10/2002 | J |
| | 4/2002/23 | Lurrak mantentzea | 4 | 11/12/2002 | JG |
| | 72/2002/23 | Obrak lizentziarik gabe | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 121/2002/23 | Hirigintza obrak egitea | 1 | 23/04/2002 | J |
| | 178/2002/19 | Dagoeneko udaletxean zegoen txartela emateko eskatutako dokumentazioa | 1 | 11/06/2002 | J |
| | 223/2002/22 | Biribilguneak semaforo eta zebrabideekin Añorgan | 1 | 22/11/2002 | J |
| | 242/2002/24 | Bide segurtasuna | 1 | 11/06/2002 | J |
| | 385/2002/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 16/07/2002 | J |
| | 397/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 06/09/2002 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Donostia-San Sebastián | 507/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 17/07/2002 | J |
| | 849/2002/22 | Udaleko agiriak eskuratzea | 1 | 03/10/2002 | J |
| | 904/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 11/12/2002 | JG |
| | 905/2002/23 | Lurzorua berritzea | 1 | 11/12/2002 | JG |
| Elgoibar | 1106/2001/17* | Industria lurzoruan sailkatutako jarduerak | 4 | 24/05/2002 | J |
| Errenteria | 758/2001/24 | Ibilgailua eramatea | 1 | 11/07/2002 | J |
| | 92/2002/22 | Ur presioa | 2 | 22/11/2002 | J |
| | 280/2002/25 | Trafiko zehapena | 1 | 25/06/2002 | J |
| Hernani | 554/2000/23 | Hirigintza diziplina | 2 | 23/05/2002 | J |
| | 66/2002/20 | Administrazio agiriak eskuratzea | 1 | 03/04/2002 | J |
| Hondarribia | 616/2001/23 | Hirigintza diziplina | 2 | 23/05/2002 | J |
| | 305/2002/25 | Kamioien aparkalekua etxebizitzatik gertu | 2 | 04/09/2002 | J |
| | 1032/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 26/12/2002 | JG |
| Lasarte-Oria | 1221/2000/20 | Musika eskola | 2 | 23/05/2002 | J |
| Lezo | 1387/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 1434/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 02/04/2002 | J |
| | 1435/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 02/04/2002 | J |
| Mutriku | 643/2001/25* | Ondare erantzukizuna | 2 | 25/03/2002 | J |
| | 1203/2000/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 20/03/2002 | J |
| Oiartzun | 599/2002/22 | TMIZ | 1 | 22/11/2002 | J |
| Orio | 634/2002/24 | Ondare erantzukizuna | 2 | 10/12/2002 | JG |
| Ormaiztegi | 279/2002/23 | Higiezinaren hirigintza egoera | 1 | 23/05/2002 | J |
| Pasaia | 177/2002/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 14/11/2002 | JG |
| | 1000/2002/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 11/12/2002 | JG |
| Urnieta | 669/2002/23 | Hirigintza diziplina | 3 | 11/12/2002 | JG |
| Urretxu | 1473/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1474/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1475/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1476/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1477/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1478/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| | 1479/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 2 | 22/07/2002 | J |
| Zarautz | 6/2001/17 | Industria lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/11/2002 | JG |
| | 1005/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 12/12/2002 | JG |
| Zumaia | 670/2001/17* | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 10/01/2002 | J |
| | 670/2001/17 | Hiri lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 18/11/2002 | J |

## D) **Beste erakunde publiko batzuk**

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Deskripzioa (kexa eragin duen gaia) | Errekerimendu kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskal Abokatuen Kontseilua | 366/2001/21* | Espediente bat eskuratzeari uko egitea | 2 | 18/04/2002 | J |
| | 166/2002/21 | Errekurtso bat ebazteko atzerapena | 1 | 18/04/2002 | J |
| Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa | 449/2002/22 | Intertzeptore baten eraikuntzak eragindako kalteak | 1 | 22/11/2002 | J |
| Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea | 1097/2001/19 | Eskabidearen erantzun falta | 1 | 11/06/2002 | J |
| | 1097/2001/19 | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 2 | 16/12/2002 | JG |
| IMEBISA Bilboko Metroa | 713/2002/23 | Ondare erantzukizuna | 2 | 08/11/2002 | J |

# V. ATALA

# ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak -otsailaren 27koak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *"Dagokien iharduntze-sailei, herrilanariei edo hoien lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko"* (sic). Kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio-jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio-jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio bat bidaltzen du kexak eragindako administraziora, jokaera alda dezan eskatzeko.

Hala ere, zehaztu behar da beti ez dela beharrezkoa gomendioa egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkotasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregulartasunak antzeman dituzten 207 administrazio-jokaera gomendiorik egin gabe konpondu dira.

Azalpena eman ondoren, egindako gomendioak betetzeari lotuko gatzaizkio eta hurrengoa adieraziko dugu: 2002. urtean egindako 38 gomendio eta 2001eko abenduaren 31n artean behin betiko erabakitzeko zeuden beste 19 gomendioetatik, 12 onartu dira; 24 ez dira onartu; 19 erabakitzeko daude; 1 baliogabetu da eta beste 1 eten egin da, arazoa jurisdikzioaren esku jarri baita.

Kopuruaren araberako ikuspegitik, 2002. urtean egindako gomendioen % 31,50 onartu dela aipatu behar da. Era berean, onartu ez diren gomendioen % 20 administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko kexa-espedienteak direla-eta egin dela egiazta daiteke.

Emaitza horien balorazioa egiteko orduan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendioak ez direla lotesleak eta ondorioz, pertsuasioa besterik ez dugula gure esku-hartzea eskatu duten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Halaber, kontuan hartu behar da onartu gabeko gomendio bakoitzak erakunde honen funtzio bermatzailerako oztopoa ez ezik, legezkotasuna ez betetzeko edo herritarren eskubideak urratzeko iraunkortasuna ere badakarrela, herritarrei legezko eskubideak berrezartzea galaraziz.

Errealitate horrek kezkatuta, azpimarratu nahi dugu administrazio publikoek argudio juridiko zorrotzetan oinarrituko beharko luketela, gomendio horiek ez onartzeko. Bestela, argi egongo da erakundeen arteko harremanak arautzen dituzten arauen berri izan ez

dutela eta administrazio-jokaera zuzendu behar duten hastapenekiko jarrera bidegabe eta errespetu gutxikoak dituztela. Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluak xedatzen duena: "*Administrazio Publikoak interes orokorren alde egiten du lan eta eraginkortasun, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazio hastapenen arabera jokatzen du, beti Lege eta zuzenbidearen mendean dagoela*".

Aldi berean, aipatzekoa da erakunde honek administrazio publikoetara bidalitako erabakien arrazoiak behar bezala azaltzeko beharrari ematen dion garrantzia, batez ere, erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzea eskatzen denean. Beti esan dugu behartzeko gaitasunaren gabeziak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzera eta gure argudioak errepikatzera, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio-jokaera bat aldatzea gomendatzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzekotan, erakunde honek bere gomendioari eutsiko dio, hala balegokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Gomendioak betetzeari uko egitea erantzuna ez emanez gauzatzen denean sortzen diren egoerek, aldiz, beste motako balorazioa merezi dute. Hau da, kasu horietan eragindako administrazioak ez du aurkezten erabakia betetzeko hartu ahal izan dituen akordioei buruzko informazioa, eta ez du adierazten erabaki horren edukia onartzea galarazten dioten kontraste-argudioak zeintzuk diren. Ildo horretan, gomendioei erantzuteko askotan eskatu bada ere, Hernaniko udalak 66/2002 eta 208/20002 zenbakietako kexa-espedienteetan egindako gomendioei eta Plentziako udalak 271/2000 zenbakiko kexa-espedientean egindako gomendioari erantzun nahi ez izatea azpimarratu behar da. Jokaera horiek aipatutako gomendioak ez onartutzat jotzea ekarri du, azkenean.

Gure ustez, gomendioa aipatzen duten espedienteak amaitzeko beste modu desegoki bat ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe.

Uste dugu jokatzeko modu horiek -erantzun nahi ez izatea edo bidegabeko ezezko erantzuna- Eusko Legebiltzarreko erakunde mandatari gisa eman dizkiguten funtzioak onartzea urratzen dutela. Era berean, gure ustez, jokaera horiek Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko emandako mekanismoetako bat erabiliz beren eskubideak aitortzeko eta ordenamendu juridikoa betetzeko babesa eskatzen erakunde bermatzaile batera joan diren herritarrekiko oso begirunerik gabeko portaera islatzen dute.

Jarraian, 2002an egin diren eta 2001eko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen egoeraren aipamena egin dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak; 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioren behin betiko erabakiaren zain daudenak; eta 4) eten egin direnak, arazoa jurisdikzioaren esku jartzeagatik.

# 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

## A) EUSKO JAURLARITZA

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **557/2000/20 espedientea (40/2000 Gomendioa).** Egonkorrak ez diren bitarteko funtzionarioei senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzeko aukera eman ziezaieten gomendatu zen.

* **169/2002/25 espedientea (34/2002 Gomendioa).** Lanpostu bati behin betiko atxikitzeko prozeduretan, irizpide objektiboak ezarriko zirela bermatzeko gomendatu genuen, batez ere interesdunen merezimendu eta gaitasunari zegokionez, jatorriz mota bereko lanpostua duten karrerako funtzionarioen artean (lanpostu ez berezitua, betetzeko prozedura eta destino-osagarri berak, eta herri berean).

### Osasun Saila

#### Osatek

* **525/2001/20 espedientea (6/2002 Gomendioa).** Ondoko hau ziurta zedila gomendatu genuen: kexagilea Osatek, S.A. enpresako ordezko edo aldi baterako langileen kontrataziorako poltsa edo zerrendan sartu ahal izango zela, bere merezimendu eta guzti, beste edozein hautagai bezalaxe, eta enpresak horrelako langileak behar dituenean antolatzen dituen hornidura-prozesuetan parte hartzen utziko zitzaiola.

## B) FORU ADMINISTRAZIOA

### Bizkaiko Foru Aldundia

* **2441/1998/23B espedientea (30/1999 Gomendioa).** Herri Lanak Sailari gomendatu zitzaion espediente bat has zezala, Bilboko hirigunea zeharkatzen duten zazpi errepideren hiri arteko zatiak mugatzeko. espedientea Bizkaiko Errepideetako 2/1993 Foru Arauaren 57. artikuluan ezarritakoaren arabera bideratu behar zen, eta ezinbestekoa zen Bilboko udalari entzute-izapidea onartzea.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

* **1040/2001/16 espedientea (5/2002 Gomendioa).** Foru aldundiak Gipuzkoa Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei zera proposa ziezaiela gomendatu zen: alda ditzatela abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren -Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzekoa da hori- 71.4 eta 72. artikuluak, arau horren ezarpen-eremuan sartuz beren seme-alabekin bizi ez, baina epailearen erabakiz haiek elikatzeko urtean kopuru bat ordaintzen duten zergadun ezkongabeak.

* **777/2002/16 espedientea (33/2002 Gomendioa).** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ZMDAren (Zahartze eta Minusbaliotasunen aurkako derrigorrezko asegurua) baliaezintasunagatiko zahartzaro-pentsioa salbuetsita gera zedin

onartzeko gomendatu zen, abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak -zerga hori arautzekoak- 9 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta beharrezko likidazioak egin zitezela zergadun kaltetuen zerga-egoera legeztatzeko.

## C) TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO UDALAK

#### Gasteizko udala

* **1230/2000/23 espedientea (12/2001 Gomendioa).** Jabeen komunitateak etxebizitza zehatz baten zoru guztian tarima berri bat jartzeko betekizunari dagokionez, obrak egiteko agindua berriz azter zedin gomendatu zen. Izan ere, neurri hori ez zetorren bat 6/1998 Legeak -Lurzoruaren Erregimen eta Balioztapenei buruzkoak- 19.1 artikuluan jabeei ezartzen dizkien betekizunekin -alegia, etxea segurtasun, higiene eta apaindura baldintza egokietan mantentzea-.

### BIZKAIKO UDALAK

#### Bilboko udala

* **301/2002/21 espedientea (27/2002 Gomendioa).** Udal horren Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzuari hauxe gomendatu zitzaion: eman diezaiola kexagileari eta, oro har, hala eskatzen duten guraso guztiei, beren seme-alaba adin txikikoei dagokien errolda-agiria, betiere umeekiko guraso-agintea baldin badute, nahiz eta haiek zaindu eta jagon ez. Baldin eta seme-alabekin bizi ez den gurasoak umeak beste gurasoarekin non bizi diren ez badaki, eta azken honek datu hori ezkutuan mantentzeko arrazoi objektiboak badauzka, kasu horiek arestian aipaturiko arau orokorraren salbuespentzat joko dira.

#### Getxoko udala

* **937/2001/23 espedientea (33/2001 Gomendioa).** Alkatetzaren 2001eko uztailaren 12ko Dekretua ezeztatzea gomendatu zen, legeriaren kontrakoa zelako. Dekretu horretan xedatzen zen Udaltzaingoak, udalerriko hondartzetan edo zelaietan nudismoa egiten zuten pertsonei, halakorik ez egiteko ohartaraz ziezaiela; eta agindutakoa bete ezean, isun hertsatzaileak jartzeko bidea ematen zuen.

#### Mallabiko udala

* **1386/2001/17 espedientea (36/2002 Gomendioa).** Kautelazko neurri gisa, Mallabiko Goita auzoan garatzen ari zen zabortegi jarduera ixteko gomendatu zen, eta jarduera horren titularrari kaltetutako ondasunak lehengoratzeko eska ziezaiotela, nahiz eta, beharrezkoa bazen, zigortzeko espediente bat hasi.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Mendaroko udala

* **793/2000/23 espedientea (9/2002 Gomendioa).** Kexagileak azaldutako erreklamazioa udalak espresuki ebatz zezala gomendatu zen. Halaber, erantzunean bermatu behar zuen AIU O3 delakoaren Konpentsazio Batzordeak bere hirigintza eginkizunak bete zituela, hirigintza gastuei -eraispenaren ondoriozkoak barne- Konpentsazio proiektuan onartutako moduan aurre egiteko.

### Villabonako udala

* **430/2001/17 espedientea (8/2002 Gomendioa).** Ardo-biltegi baten titularrari honako hau eska ziezaiotela gomendatu zen: lokala hotsetatik behar bezala isola zezala, Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuan -ekainaren 11koan- ezarritako baldintzen arabera; eta beharrezko neurriak har zitzala suteetatik babesteko, NBE-CPI-96 arauan eskatutakoaren arabera.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **962/1998/20 espedientea (11/2001 Gomendioa).** Honako hau gomendatu zen: ikuspegi material batetik, modu konparatiboan azter zitezela Dietetika eta Giza nutrizioa Diplomaturaren ikasketa-planen edukia eta “Prozesu sanitarioak”, “Osasun eta laguntza Prozedurak”, “Diagnostiko klinikozko prozesuak eta produktu ortoprotesikoak” eta “Diagnostiko kliniko ortoprotesikoen prozedurak” espezialitateei eta “Sukaldaritza eta Gozogintza” espezialitateari -eta egoki iritzitako beste edozeini- dagozkien heziketa-zikloak ematean garatu behar den curriculuma. Eduki horiek erkatu ondoren, titulazio hori gehitu zitekeen ala ez baloratu ahal izango zen, irakaskuntza ordezkapenetarako hautagai zerrendetarako.

* **300/2002/20 espedientea (29/2002 Gomendioa).** Zero eta hiru urte bitarteko haur hezkuntzako lehen zikloan, lehentasunezko eskolatzeari buruzko agindua bete zedila gomendatu zen, izan ere, agindu hori ezartzen dute bai ikasleen onarpenerako araudiak, bai hezkuntza-premia bereziko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari buruzkoak; eta halaber, hori guztia bat etor zedila ziklo hori pixkanaka ezartzeko asmoz Euskal Eskola Publikoaren Legean finkatu diren lehentasunekin.

#### Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

##### Spri

* **442/2001/19 espedientea (16/2002 Gomendioa).** Kexagileari Konekta Zaitez laguntza-programaren babesean eskatu zuen laguntza eman ziezaiotela gomendatu zen, baldin eta horrek esku-ordenagailuaren RAM memoria moldatzen bazuen, diru-laguntzari buruzko arauetan ezarritako baldintza betetzeko. Konekta Zaitez programari buruzko arauak 2000ko azaroaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren.

#### Osasun Saila

* **1062/2001/18 espedientea (2/2002 Gomendioa).** Interesdunaren eskabidea berriz azter zedila gomendatu zen, eta hura anbulantzian eramateari buruzko zertzeladak aintzat hartu ondoren, beste erabaki bat har zedila, 63/1995 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete ziren ala ez kontuan izanik.

* **1176/2001/18 espedientea (1/2002 Gomendioa).** Interesdunaren eskabidea berriz azter zedila gomendatu zen, eta hura anbulantzian eramateari buruzko zertzeladak aintzat hartu ondoren, beste erabaki bat har zedila, 63/1995 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete ziren ala ez kontuan izanik.

#### Osakidetza

* **1396/2001/20 espedientea (19/2002 Gomendioa).** Kexagileak egindako erreklamazioaren gainean hartutako erabakia berriz azter zedila gomendatu zen,

kexagileari 2001eko maiatzaren 13ari zegokion igande-jaiegunetako lan-osagarria onar eta ordain ziezaioten, bada hauteskunde-egun hartan baimena eman zioten nahitaezko betebehar bat betetzeko, alde jakin bateko hauteskunde-batzordeko lehen mahaikide izendatu baitzuten.

## B) **FORU ADMINISTRAZIOA**

### Gipuzkoako Foru Aldundia

* **37/2000/23 espedientea (38/2001 Gomendioa).** Nekazaritza eta Ingurumen Sailari gomendatu zitzaion balio gabe utz zezala kexagileak aurkeztutako eskabidea atzera botatzeko Foru Agindua. Izan ere, foru erakunde horrek aurre egin behar zien interesdunari eragindako kalteei, kalteak kale bat urbanizatzeko zerbitzu publikoaren jardunak eragin baitzituen, eta baita ere oinezkoak pasatzeko irekitako gune batean irtenguneak begiratu eta kontserbatzeko eginkizunak ez betetzeak. Halaber, agindu berri bat eman zedila gomendatu zen, eskatzaileari eragindako kalteen ondorioz sor zitezkeen ondare-erantzukizuna onartzeko, zehaztuko zen proportzioan eta kopuruan.

## C) **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### ARABAKO UDALAK

### Gasteizko udala

* **536/2001/01 espedientea (20/2001 Gomendioa).** Aterpe gaueko zentroak kexagilearekin izan zuen jokaera berriz azter zedila gomendatu zen, gaueko atsedenaldirako ohea erabiltzea debekatua baitzuen, oinetan zeukan osasun arazoa izan arren.

* **717/2001/18 espedientea (31/2001 Gomendioa).** Kexa eragin zuten jardueretan atzera jotzea gomendatu zen, elkarte batekin sinaturiko hitzarmena deuseztatu baino lehen, horretarako legez ezarritako prozedura erabil zedin, eta, hartara, entzunaldiaren funtsezko izapidearen bidez, kaltetutako aldeak berari leporatzen zizkioten kontuen kontra alegazioak aurkeztu ahal izan zitzan.

### Lapuebla de Labarcako udala

* **806/2001/23 espedientea (11/2002 Gomendioa).** Kale batean itxidura bat ezartzeko lizentzia eman zuen udal erabakia baliogabetzat jotzeko gomendatu zen, herriko planeamenduaren arau subsidiarioen aurkakoa zelako. Halaber, beharrezko neurriak har zitezela gomendatu zen, kale horretarako aurreikusita zegoen oinezkoen erabilera bermatzeko, ibilgailuei sartzea ahalbidetuz.

## BIZKAIKO UDALAK

### Bilboko udala

* **577/2000/16 espedientea (38/2000 Gomendioa).** Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoak arautzen zituzten ordenantzetan, -guraso biak seme-alabekin bizi diren familien aldean- guraso bakarreko familien diskriminazioa eragin zezakeen edozein arrazoi ken zedila gomendatu zen, egoera hori nondik sortu zen ezertarako kontuan hartu gabe, Zehazki, guraso bakarreko familien kasuan, pertsona bakarreko kuotaren barruan seme-alabak onuradun bezala jartzeko aukera emateko gomendatu zen, betiere oro har ezarritako gainontzeko baldintzak betetzen bazituzten.

### Derioko udala

* **989/2001/20 espedientea (17/2002 Gomendioa).** Kexagileak aurkeztutako idazki bat errekurtsotzat hartuko zela ziurtatzeko gomendatu zen. Zehazki, honako hau adierazi zen: behar bezala arrazoitu beharko zela udalbatzak zergatik onartu zuen administrari lanpostuetako langile guztiei lansaria hobetzea -hileko osagarri berri bat onartuz-, kexagilearen lanpostua (administraria-kontuhartzailetza) salbuespen bakartzat hartuta.

### Eako udala

* **454/2002/17 espedientea (38/2002 Gomendioa).** Jarduera baten titularrari bere egoera legezta zezan eskatzeko gomendatu zen, eta horretarako epe bat eman ziezaiotela -epe hori, aparteko kasuetan izan ezik, ezin da sei hilabete baino gehiagokoa izan-. Era berean, beharrezkoa izanez gero, jarduera hori itxi zitekeela jakinarazteko gomendatu genuen.

### Errigoitiko udala

* **97/2001/23 espedientea (30/2001 Gomendioa).** Madalengoiti auzora iristeko bidean egin ziren ixteko obrak legeztatzeko espedientea has zedila gomendatu zen, udalak lursailak ixteko duen ordenantzan agindutakoa betetzen zen ala ez ikusteko. Baldin eta eskatutako zabalera betetzen ez bazen, obrak eraistea gomendatu zen, hirigintzako legeriarekin bat ez etortzeagatik.

### Ondarroako udala

* **781/2001/20 espedientea (41/2001 Gomendioa).** Udaltzain laguntzaile postuak aldi baterako betetzeko deialdian, sistema objektibo bat ezar zedila gomendatu zen, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak errespetatuko zituena, eta deialdi horretan kexagileari parte hartzen utz ziezaiotela, gainontzeko hautagaiekin batera.

### Plentziako udala

* **271/2000/23 espedientea (48/2000 Gomendioa).** Ondare-erantzukizunezko eskabide baten gainean ebazpen zehatz bat eman zedin gomendatu

zen, azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 42 eta 43. artikuluetan ezarritako agindua betez, zegokion espediente administratiboa 429/1993 Errege Dekretuan -martxoaren 26koan- finkatutako xedapenen arabera bideratu ondoren.

**Sestaoko udala**

* **467/2001/25 espedientea (42/2001 Gomendioa).** Honako hau gomendatu zen: berriz azter zedila kexagileak oinetakoetan izandako kalteengatik aurkeztu zuen ondare erantzukizunezko erreklamazioa ezesteko ebazpena, eta hasitako espedientearen jarduerak atzera eramanez, behar bezala aintzat har zitezela kaltetuaren alegazioak -alegia, zolatze-lanak egiten ari ziren espaloi bateko estolda-tapa bat solte zegoelako gertatu zirela kalteak-.

**Trapagarango udala**

* **892/2001/25 espedientea (40/2001 Gomendioa).** Honako hau gomendatu zen: berriz azter zedila kexagileak jabetza pribatuko lurretan izandako erorketagatik aurkeztu zuen ondare erantzukizunezko erreklamazioa ezesteko ebazpena, eta hasitako espedientearen jarduerak atzera eramanez, behar bezala aintzat har zitezela gertakariaren inguruko zertzeladak -alegia, kalteak eragin zituen arketa euriko urak biltzeko udal sarearena zela.

**GIPUZKOAKO UDALAK**

**Donostiako udala**

* **701/2000/23 espedientea (31/2000 Gomendioa).** Etxebizitzak esleitzeko prozesuetan, espedienteak bideratzen diren bitartean eskatzaileek aurkeztutako agiri eta alegazio guztiak kontutan har zitezela gomendatu zen, azaroaren 26ko 30/92 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 79.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lege beraren 35.*e*) artikuluarekin bat etorriz.

* **987/2001/22 espedientea (20/2002 Gomendioa).** Ordainarazteko espediente batean agindutako bahitura-eginbidea ofizioz ezezta zedila gomendatu zen, izan ere, bahitura hori proportzionaltasun printzipioa eta bahitu zitezkeen ondasunen lehentasun hurrenkera urratuz erabaki zen. Jakina denez, urtarrilaren 31ko 1/1985 Foru Arauak -Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Arau Orokorrak-, 131. artikuluan, eta Zerga-bilketazko Araudiak 101. artikuluan ezartzen dute ondasunen lehentasun hurrenkera.

**Anoetako udala**

* **63/2002/25 espedientea (32/2002 Gomendioa).** Kexagileak erorketa batengatik aurkeztu zuen ondare erantzukizunezko erreklamazioa ez onartzeko erabakia berriz azter zedila gomendatu zen, eta hartara, atzera eginez, hasitako espedientea onarpen-unean koka zedila, zuzenbidean zegokion ebazpena eman arte jarduerek aurrera egin zezaten.

**Elgoibarreko udala**

* **1511/2001/20 espedientea (7/2002 Gomendioa).** Interesatuek hala eskatuz gero, senideen gaixotasun larriengatiko lizentziak eman zitezela gomendatu zen, betiere senidearen gaixotasun larria egiaztatzen bazen; eta lizentziaren epeari edo iraupenari buruz, ez zezatela EUFALEBAn adierazitakoez bestelako baldintzarik jar. Halaber, senideen gaixotasun larriengatiko lizentziak emateko modu hori onartuta, kexagilearen eskabidea berriro azter zedila eta hark ezin hartu izan zituen opor-egunak hartzeko baimena edo egun horiengatiko konpentsazioa eman ziezaiotela gomendatu zen.

**Hernaniko udala**

* **66/2002/20 espedientea (24/2002 Gomendioa).** Kexa azaldu zuten ordezkari sindikalei Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko langile batzuen izendapenez eta egoeraz eskatutako agiriak eman ziezazkietela gomendatu zen.

* **208/2002/20 espedientea (10/2002 Gomendioa).** 2002rako onartu zen lan-egutegia aldatzeko gomendatu zen, ekainaren 26ko 116/2001 Dekretuak agindutakoa bete zedin, urriaren 12a (Espainiako festa nazionala) eta abenduaren 6a (Espainiako Konstituzioaren eguna) jaieguntzat hartuz. Izan ere, dekretu horren bitartez onartu zen Euskadiko Autonomia Erkidegorako 2002 urterako jaiegunen egutegi ofiziala (EHAA, 131. zk., uztailaren 10ekoa).

# 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

## A) EUSKO JAURLARITZA

### Herrizaingo Saila

* **1797/1998/19 espedientea (27/1999 Gomendioa).** Bizkaiko lurraldeko trafiko arduradunak Berangoko udalerriko kale batean egindako arau-hauste batengatik ezarri zuen zehapen bat ofizioz bertan behera lagatzeko gomendatu zen. Izan ere, lehenak zehapena ezartzeko eskumenik ez zuela ondorioztatu zen, egiaztatu baitzen ez zela bete Trafiko, Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuak 68.2 artikuluan aipatzen duen eskumen-aldaketa egiteko prozedura egokia.

* **597/2000/19 espedientea (47/2000 Gomendioa).** Trafiko alorreko zigor-arauak ezarriz ipini zen zehapen bat bertan behera uztea gomendatu zen, salaketa egin zenetik bi hilabetera jakinarazi baitzen prozedura hasia zela, eta, gainera, Ararteko erakundearen ustez, espedienteak ordurako galdua baitzuen bere balioa.

### Garraio eta Herri Lan Saila

* **541/2000/19 espedientea (6/2001 Gomendioa).** Donostiako portuan aparkalekuetarako aurreikusitako lekuan ezintasuna edo mugikortasun mugatua daukaten pertsonen ibilgailuek bakarrik erabiltzeko gutxienez hiru plaza gordetzea gomendatu zen, abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta lege hori betetzeko eman zen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan finkatutakoarekin bat. Dekretu horren bidez onartu ziren hiri gunetara, herri eremuetara, eraikuntzetara eta informazio eta komunikazio sistemetara sartzeko baldintzei buruzko arau teknikoak. Halaber, Donostiako portuan aparkatzeko xedatuta dauden arauak ezartzean, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan aurreikusitakoak kontutan har zitezela gomendatu zen -Dekretu horrek Ezinduentzako Aparkatzeko Txartela arautzen du, eta Komunitateko Eredu Bateratura egokitzen du-.

### Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

* **670/1996/23 espedientea (25/2002 Gomendioa).** Egin beharreko izapide administratiboen ondoren, kexagileak egindako ondare-erantzukizunezko erreklamazioa espresuki ebatz zedila gomendatu zen, eta bere errotan Ibai-Eder presaren obren ondorioz eragindako kalteengatik ordain ziezaiotela.

* **670/1996/23 espedientea (26/2002 Gomendioa).** Honako hau gomendatu zen: egiteke zeuden izapide administratiboen ondoren, erabaki bat har zedila herritarrak urez hornitzeko Ibai-Eder presan aurreikusitako aprobetxamendua Gipuzkoako Uren Partzuergoari ematearen gainean. Eta, halaber, zehazki adieraz zedila zein kalte-ordain ordaindu behar zuen Gipuzkoako Uren Partzuergoak, kexagileak irin-errotaren industria erabilpenerako lehendik zeukan emakidari ustez eragin zaizkion gaitz eta kalteen ondorioz.

## B) **FORU ADMINISTRAZIOA**

### Arabako Foru Aldundia

* **1481/2001/16 espedientea (3/2002 Gomendioa).** Apirilaren 24ko 25/1989 Foru Araua -Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa- garatzeko araudi bat onar zedila gomendatu zen, espresuki kontuan hartuz oraingo zerga-sisteman zergadunari onartzen zaizkion eskubide eta bermeak.

### Gipuzkoako Foru Aldundia

* **627/2001/19 espedientea (21/2002 Gomendioa).** Ehizarako baimen-eskaerak eta baimen horiek ukatzearen kontra egin daitezkeen errekurtsoak espresuki ebazteko neurriak har zitezela gomendatu zen, eta ebazpen horiek kanpaina bakoitza hasi baino lehen jakinarazteko.

* **627/2001/19 espedientea (22/2002 Gomendioa).** Zera gomendatu zen: ehiza-debekualdien Foru Agindua ezartzerakoan, ez zedila araudiaren babesik gabe ehiza-eskubidea murriztu, ezta prozedurazko erabakirik hartu ere.

## C) **TOKI ADMINISTRAZIOA**

### ARABAKO UDALAK

### Gasteizko udala

* **31/1999/19O espedientea (10/2000 Gomendioa).** Bizikletan oinezkoen guneetatik ibiltzeko bidea ematen duten erabilerak, trafikoa eta hiri izaerako herri bideetako zirkulazioa arautzen dituen udal Ordenantzaren aginduak alda zitezela gomendatu zen. Izan ere, ordenantza horrek urratu egiten ditu Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuko aurreikuspenak -martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen hori-, eta baita urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Arautegi Orokorraren aurreikuspenak ere.

* **741/2000/23 espedientea (13/2002 Gomendioa).** Kexagilearen erreklamazioa ezestea erabaki zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, udaltzaingoaren txostenetik ondorioztatzen zenez, udal gordetegian egon zen bitartean eragin zitzaizkion kalteak kexagilearen autoari aurrealdeko matrikulan. Halaber, beste ebazpen bat emateko gomendatu zen, kexagileari benetan eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onar zekion, espedientean zehazten zen proportzioan eta zenbatekoan.

* **397/2001/23 espedientea (31/2002 Gomendioa).** Kexagileak aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen ebazpena baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, udalak udal jaiak antolatzen ziren bitartean sortutako kalteen ardura hartu behar bailuke, “zezen suzkoa”k berez dakarren arrisku-egoeratik datozen egintzak direla eta. Era berean, kasu honi dagokion administrazio-espedientea bideratu ondoren,

kexagileari eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onartzeko gomendatu zen.

* **814/2001/23 espedientea (28/2002 Gomendioa).** Jatetxe baten jabeak jarduera zabaltzeko egin zuen lizentzia-eskaera berariaz ebazteko gomendatu zen, Ingurumena Babesteko 3/1998 Legean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, arlo horretako udal zerbitzuek ikuskatzeko bisitaldia egin zezatela gomendatu zen, jarduera-zabaltze hori eragozpenak eta besterentzako arriskuak saihesteko araudi teknikoa jarraituz egingo zela egiaztatzeko.

## BIZKAIKO UDALAK

### Bilboko udala

* **472/2001/23 espedientea (30/2002 Gomendioa).** Kexagileak aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen ebazpena baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, udalak arduratu beharko luke hiri-bideak mantentzeko herri zerbitzuaren funtzionamenduak eta errepide edo espaloiaren trazadura aldatu dela ez ohartarazteak eragindako kalteez. Era berean, kasu honi dagokion administrazio-espedientea bideratu ondoren, kexagileari eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onartzeko gomendatu zen.

* **384/2002/16 espedientea (35/2002 Gomendioa).** Banku-helbideratzea duten errolda-ordainagiriak pagatu izanaren frogagiriak ofizioz eman zitezela gomendatu zen, eta, hartara, bete zitezela Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabilketari buruzko Araudian ezarritako xedapenak. Jakina denez, araudi hori martxoaren 18ko 36/1997 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

### Abanto-Zierbenako udala

* **1080/2001/22 espedientea (15/2002 Gomendioa).** Zabor-bilketako kamioia ezin irits daitekeen aldeetako etxeetara zabor-tasa moduan bidali ziren likidazioak baliorik gabe uzteko gomendatu zen, edukiontzi hurbilenak etxe horietatik 300 metrora edo gehiagora daudenean, izan ere, etxe horiei egiaz ez zaie zabor-bilketa zerbitzurik ematen ari.

### Galdakaoko udala

* **1472/1998/23B espedientea (23/2002 Gomendioa).** Zuatzaurre auzunerako 1998ko maiatzaren 5ean sinatu zen bitartekaritza-ituna osorik beteko dela bermatzeko, neurriak har zitezela gomendatu zen, oraindik egin barik dauden gauzak, bereziki ondoko hauek bete daitezen:

- Hegoaldean eraikitako parke berriaren azpian dagoen hegoaldeko magalaren azterketa geoteknikoa idaztea.
- Egiteko dauden urbanizazioko obra guztiak egitea, bitartekaritzako itunean aurreikusita dagoen bezala.

- Hirigintzako planeamenduaren interpretazio egokia, 9. blokean dagoen eraikuntza proiektuaren gainean sinatutako itunean aurreikusita dagoenaren arabera.

### Ondarroako udala

* **780/2000/23 espedientea (12/2002 Gomendioa).** Kexagilea Arrigorri hondartzako zerbitzuak ustiatzeko kontratazio-prozeduratik kanpo uzteko egintza baliorik gabe uzteko gomendatu zen, ez baitzion hiru eguneko eperik eman udal zergen ordainketa egunean zeukala egiaztatzeko udal ziurtagiria aurkezteko. Halaber, gomendatu zen baliogabetze-adierazpenean zehatz zedila nolako kaltea eragin zitzaion kexagileari, baldin eta bera izan balitz kontratu-hartzaile.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Donostiako udala

* **53/2001/23O espedientea (37/2002 Gomendioa).** Santo Tomas feriako zozketan, animaliak salmentak bultzatzeko erabiltzea eragotz zedila gomendatu zen, eta berma zedila ospakizun horretan beteko direla Animaliak Babesteko 6/1993 Legearen -urriaren 29koa- 4. eta 5. artikuluak, eta baita animaliak babestu eta edukitzeko udal horren Ordenantzaren 9. artikulua ere.

### Lazkaoko udala

* **531/2000/23 espedientea (14/2002 Gomendioa).** Kexagilearen ondare erantzukizunezko erreklamazioa ebatzi zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen. Izan ere, administrazioak erabilitako prozeduratik ondorioztatzen zenez, herri-bideak ordenatzeko udal zerbitzuaren jarduerak eragina izan zuen kexagilearen ibilgailuan sorturiko kalteetan.

## 4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO

### EUSKO JAURLARITZA

#### Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

* **1471/2001/20 espedientea (18/2002 Gomendioa).** 2001 urtean hartu ez zituen opor-egunengatik, kexagileari bidezko ordaina onar zekion gomendatu zen.

# VI. ATALA

# GOMENDIO OROKORRAK

# 1. HAURREI TRATU TXARRAK EMATEN ZAIZKIEN KASUETAN ERAKUNDE-JARDUKETA KOORDINATZEKO PROTOKOLOA EGIN BEHARRA

## 1. Sarrera

Gizarte demokratikoek bilatzen dituzten giza eskubideak orokortzeko neurriak hartu behar dira, talderik zaurkorrenen egoera indartzekoak bereziki. Argi bide dago adin txikiko pertsonak, oraindik helduak ez diren eta, hortaz, beren buruaren jabe ez direnak, taldeotakoak direla. Ez dira beren eskubideak defendatzeko eta erabiltzeko gai, eta, bistan denez, ahulak dira zaindu behar dituzten pertsona helduen edozein abusu, eraso eta, are, arretarik ez hutsen aurrean. Hori dela eta, babes berezia behar dute. Are gehiago, beraiek menpean bizi direla eta, gizarteak eta, bereziki, herri botereek haien garapen pertsonala bermatzen jardun behar dute.

Haiek zaindu beharraz gero eta jabetuago gaude. Horrek nazioareko adierazpen garrantzitsuak ekarri ditu, hala nola, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioa; baina, era berean, estatu-arauetan agertu da. Arauotako bat Adinez txikien Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa da. Haurrak tratu txarretatik eta, bereziki, sexu-abusuetatik babesteko erabakiak hartu dira nazioartekoeremuan eta erkidegokoan, hala nola, Europar Batasuneko Kontseiluak gizakiak saltzearen eta erostearen eta haurrak sexuan esplotatzearen aurka borrokatzeari buruz 1997-2-24an onetsitako amankomuneko Ekintza. Erabakiok barruko lege-antolamendua aldarazi dute.

Zigor-eraldaketen artean, artean berria zen 1995eko Zigor Kodearen gain 1999an erori zirenak nabarmendu behar dira. 11/1999 Lege Organikoak sexu-asktasunaren kontrako delituen araupeketa sakonki aldarazi zuen, sexu-kalterik gabekotasuna ere babestera pasatu zena. Biktimen adinez txikitasunaz ari da, argi eta garbi. Hori kontuan hartu da subjektu pasiboaren zaurkortasun bereziagatiko zigorrak areagotzeko ere. Zaurkortasun berezi hori 13 urtetik beherakoengan ikusi behar da edozein kasutan. Adin-muga berak balio du onartu gabeko sexu-abusutzako jokaeren eremua zabaltzeko. Aipatutako legeak adinez txikien ustelkeriazko lehengo delitua berreskuratu zuen eta debekatu eta adinez txikiekin eta ezgaiekin lotutako jokabide exhibizionista edo pornografikoen zerrenda luzeagotu. Beste aldaketa batzuk direla eta, preskripzio-epeak luzeagoak dira biktima adinez txikia bada; delituok jazartzeko lurraldez kanpoko eskumena dago…

Bere aldetik, 14/1999 Lege Organikoak etxeko indarkeria deiturikoaren zigor-araupeketan eragina izan zuen. Bertan sartuta daude familiaren baitako haurrentzako tratu txarrak. Ohiko indarkeriazko delituaren deskribapena hobetu zen: indarkeria psikikoa

fisikoarekin batera tipifikatu zen eta ohikotasunaren definizio faktikoa erantsi zen. Tratu txarrek ukituriko pertsonak babesteko neurri bezala erantsi zuen eraldaketak beste zigor bat: biktimarengana edo berorren senideengana hurbiltzeko eta haiekin komunikatzeko debekua. Aldarazpenak ugari izan dira. Hemen, legeria prozesalari dagozkionak aipatuko ditugu. Izan ere, kautelazko neurrien edukia zabaltzeaz gain, adin txikiko lekukoak bereziki babestu behar direla berariaz adierazi dute. Horretarako, haiekin bat etorririk, hobe da lekukoon pertsona erruztatuarekiko bekaldurak saihestea.

Zigor Kode Berriak aldaketa handiak izan ditu, baina eraldaketa-prozesua ez da bukatu. Aitzitik, Gobernuak aipatutako bi arloak berriz ukitzen dituzten proposamenak aurkezten jarraitzen du: adinez txikien sexu-esplotazioa eta familiaren barruko indarkeria. Orokorrean, abaguneko zioztapenak eta presaka aritzea ez dira batere onak zigor-eraldaketetan, eta are txarragoak dira ari garen eremu zail honetan antzekoetan. Izan ere, iritzi publikoaren kezkak neurri sinboliko eta, are, demagogikoagoen bitartez baretzen saiatzeko tentazioa egoten da beti: benetan eraginkorrak diren neurriak behar dira.

Arrisku hori aipatuta, orrialdeotako helburua haurren eta nerabeen osotasun fisiko eta morala babesten duten zigor-manuak kritikoki irakurtzean ez datzala eta, lege eta zigor eremua alde batera utziko dugu eta haurrak txarto tratatzearen kontzeptua osatzen duten jokaerak hartuko ditugu hizpide.

## 1.1. Haurren aurkako tratu txarren tipologia

Haurrenganako tratu txarren kontzeptua ez da absolutua, gizarte kontzeptua baizik. Hala ere, gure testuinguru historiko eta kulturalean uste denez, adin txikiko pertsonek tratu txarrak jasaten dituzte beraiek zaintzeaz arduratzen diren pertsonek edo erakundeek edo beste edozein pertsonak beraien kontra indarkeria fisiko, psikiko edo/eta sexualik baliatzen badute.

Instituzio honek *babesik gabeko haur eta nerabeentzako arreta*ri buruz 1997an egindako txosten berezian eta gai honi buruzko protokolo batzuetan aipatuta dagoen bezala, haurrenganako tratu txarren honako motok bereiz daitezke:

**Tratu fisiko txarrak**: ustekabekoak ez diren gurasoen edo zaintzaileen ekintzak, adinez txikiari kalte fisikoa egin edo gaixotasuna eragiten diotenak, edo hura kaltea edo gaixotasuna jasateko arrisku larritan jartzen dutenak.

**Abandonu fisikoa edo zabarkeria**: adin txikiko pertsonaren oinarrizko beharrizanak (elikadura, janztea, higienea, arreta medikoa, hezkuntza, zaintzea, segurtasuna...) hura bizi den taldeko kideetariko inork aldi baterako edo betiko estaltzen ez dituenean gertatzen da.

**Psikologi edo emozio tratu txarrak**: egoerotan adinez txikiaren arduradunak diren helduek, jarduketekin edo gabetzeekin, bere autoestimuarekiko berarekiko sentimendu negatiboak eragiten dizkiote eta haren hazkuntza- eta sozializazio-prozesua mugatzen dute (gutxiespen etengabea, ahozko gaitzespena, iraina, beldurtzea, baztertzea eta abar).

**Sexu-tratu txarrak**: egoerotan haurra edo nerabea engainatuz, beldurtuz, indarkeriaz eta abarrez erabiltzen du helduak bere sexu-desirak asetzeko.

Horretarako, hura sexu-plazerra lortzea xede duten jardueretan parte hartzera edo jardueretan present egotera behartuta dago. Adinez txikia, beraren garapenarekin bat etorririk, ez dago jarduerotarako prestatuta eta, hortaz, ez du haiek onartzeko gaitasunik ez ahalmenik (intzestua, bortxaketa, zirriak, ahozko sedukzioa, adinez txikiaren aurrean masturbatzea, pornografia).

**Emozio-uzketa**: horrelakoetan, adin txikiko pertsonak ez du bere bilakaeraren fase bakoitzean behar duen maitasuna, estimulazioa, laguntza eta babesa jasotzen eta horrek beraren garapen ona oztopatzen du. Ez diete erantzuten haren gurasoek edo hura zaintzen duten pertsonek haren emozio-adierazpenei edo hurbiltzeko edo elkarri eragiteko haren saioei.

**Jaio aurretiko tratu txarrak**: haurdun dagoen emakumeak bere burua behar bezala zaintzen ez duenean eta fetuari kalte egiteko arriskua dagoenean gertatzen dira.

**Menpekotasun kimiko-farmazeutikoa:** beharrizan medikorik gabe edozein droga motaren menpean dagoen adinez txikia. Menpekotasun hori dela eta, hura ez da burujabetasuna, erresistentzia edo kontrola garatzeko gai. Hura Münchausen sindromeak eragin dezake. Bertan, gurasoen edo zaintzaileen arazo psikikoarengatik, adinez txikiaren gaixotasunen itxurak egiten dira eta hura azterketa mediko etengabeen edo ospitalerapenen menpean jartzen dute. Horretarako, gezurrezko sintomak alegatzen dituzte, edo helduek eurek modu aktiboan sortzen dituztenak.

**Laneko esplotazioa**: horrelakoetan, edozein irabazi mota lortzen den lanetarako erabiltzen da lanerako adinik ez duen adinez txikia (gogortasun fisikotik hura eskale bezala pasiboki edo aktiboki erabiltzerainokoa izan daiteke)

**Sexu-esplotazioa**: haurra prostituzioko edo/eta pornografiako jardueretara behartu edo eramaten denean gertatzen da.

**Erakunde-tratu txarrak**: arautegiak, prozedurak, herri botereen jarduketak edo jarduketarik ezak edo profesionalen banakako jarduketak, adinez txikiaren munduarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden eta hari ondo garatzea eragotzi ahal dioten egoerak sortu ahal dutenak.

Bistan da abstraktuan adinez txikiaren osotasun fisiko edo/eta moralaren zaurketa horiek guztiek garrantzi bera ez dutela, eta bere nortasuna garatzeko ondorio kaltegarri berdinak ez dituztela. Hori dela eta, *a posteriori* bakarrik baloratu ahal da jokaeren garrantzia edo larritasuna. Kasu bakoitzean, haurraren ezaugarriek, haren bizi-inguruabarrek, tratu txarrak ematen dituenarekiko harremanek banaka aztertu beharko den bestelako emaitza sortuko dute.

Jokaerak eta lesio-ondorio asko daude. Beraiek ere ez dute lege-kalifikazio berbera jasotzen. Tratu txarren mota guztiak ikuspegi etikotik berdin gaitzetsi ahal direlarik, bistan da gertaera guztiak ezin direla zigor motetan sartu. Kontua ez da jokaerak edo beraren emaitzek zigor-garrantzirik iristen ez dutela, debekatutako jokabidea indibidualizatu eta beronek egoeretan egindako kaltea zehaztu ezin dela baizik. Egoerak honakook ditugu, esate baterako, emozioei jaramonik ez egitea, jaio aurretiko tratu txarrak, zabarkeriagatiko edo ez zaintzeagatiko tratu txarrak...

Egoerok oso garrantzitsuak dira, baina ematen zaien erantzuna zigor-bidetik pasatuko ez delako oinarritik abiatu beharra dago. Gezurra badirudi ere, zigor-garrantzia beti izaten duten beste balizko batzuk egoten dira, hala nola, sexu-abusuak, beraiek jasan dituenaren bilakaera pertsonalari kalte egin ez diotela ere zigor-garrantzia izaten dutenak.

Herri botereek axolagabekeriazko, babesik ezezko eta, azken batean, adin txikiko pertsonentzako arriskuko egoeretan esku hartzen dute, haurrak babesteko zerbitzu edo erakundeen bitartez. Zerbitzuok nola dabiltzan ikuskatu eta ebaluatu behar dira etengabe. Hala ere, gai hori ezin da une honetan aztertu, Beste alde batetik, instituzio honek, *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako arreta*ri buruz txosten berezia 1997an egin zuenetik, gai horren gaineko jarraipen etengabea egiten du, zeinen berri ematen baitio Eusko Legebiltzarrari urteroko txostenetan (txosten honen I.1.1.5 kap., kop.).

Gomendio orokor honen xedea oso zehatza da: zigor-jurisikziora heltzen diren edo heldu ahal diren tratu txarren kasuetako erakundearteko koordinazioa. Izan ere, hori behar da.

## 1.2. Bigarren mailako biktimizazioa

Hobe da haurrenganako tratu txarren kasuetan erakundeek behar bezala esku hartzen duten zehazki aztertzea. Izan ere, adinez txikioi kalte handia etor dakieke judizio-prozeduratik. Hau da, bigarren mailako biktimizazioa etorri ahal zaie.

Zigor-sistemak biktimak ahantzi izana salatu ondoren, kriminologia delituaren ondorioz kaltea jasan duten pertsonei jaramon egiten hasi zaie, eta, besteak beste, jakin du ezen zigor-sistemak, haien igurikapenak, beharrizanak eta interesak asetzea lortzeaz gain, sarritan kalte berri eta larriak ekarri dizkiela, zilegi ez den egitatearen ondorio kaltegarria okerragotzen dutenak. Egiaztapen hori orokorra da, baina bereziki deigarria da oso zaurtu ahal diren pertsonei begira. Pertsona horiek, esate baterako, emakumeak eta adinez txikiak dira.

Edozein pertsonarentzat gogorra izan daiteke ezezagunen aurrean eta orokorrean erosoa ez den giroan oinaze-bizipenak, beldur-sentimenduak, irain-sentimenduak, min-sentimenduak eta abar kontatzea. Baina egoera bereziki larria bide da biktima adin txikikoa bada. Solaskide ezberdinen aurrean deklarazioak errepikatzea, elkarren osteko berrikuspen mediko eta psikologikoak, forma eta lengoaia nahiko ulertezinak dituen epaiketara joatea eta abar haurra sakon ukitzen dutenak izan daitezke eta jasandako tratu txarren ondorio kaltegarriak larriagotu ahal dituzte. Gainera, sarritan pertsona erruztatua biktimaren famili ingurunekoa izaten da. Hori dela eta, biktimaren sentimendu txarrak (erruduntasuna, segurtasunik eza eta abar) handiagotzen dira.

Horregatik guztiagatik, zigor-sistemarekin harremanetan jartzeak haurrenganako aurretiko tratu txarren ondorio kaltegarriak areagotu ahal dituenez gero, herri erakundeek biktimizazio berri hori saihesteko neurri guztiak hartu behar dituzte. Ildo horretatik, jarduketa-protokoloak erakundeen arteko koordinazioa eta errakundeen esku-harmenen eraginkortasuna handiagotzeko bide emankor bezala agertu dira.

## 1.3. Jarduketa-protokoloak egiteko zenbait esperientzia

Gero eta hobeto dakigu emakumeen aurkako indarkeria gatazka pribatu hutsa barik gizarte eta politika arazoa dela. Hortaz, herri botereek parte hartu behar dute. Hori guztia dela eta, hainbat erakundeek esku hartzen duten jarduketa programa eta plan asko sortzen ari dira.

EAEn nabarmendu behar da, bere alkantzuagatik eta garrantziagatik, *Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa*, Eusko Jaurlaritzaren, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiaren, Fiskaltzaren, hiru foru aldundien, Eudelen, Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren eta Euskal Kontseilu Medikoaren ordezkariek 2001eko urriaren 30ean izenpetua. Akordioaren helburua indarkeria jasan duten emakumeei laguntzen jarduten duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da. Horretarako, haiek tratu txarren edo sexu-erasoen ondoriozko zigorretako jarduketa horretarako egindako jarduketa-protokoloari egokitzeko konpromisoa hartu dute.

Akordio horren bitartez eguneratu gura dira hainbat sailen artean dauden beste batzuk. Protokolo hori ere ez da lehenengoa. Izan ere, eremu zehatzetan (esate baterako, osasun-eremuan) aplikatzeko beste batzuk sortuak ziren. Baina, gure ustez, hori haurrenganako tratu txarrei begira hartu ahal diren neurrietarako baliozko aurrekaria da.

Eremu zehatz honetan protokolo asko daude. Ez dugu gai honi buruz luze aritzeko asmorik, baina haien artean honakook aipa daitezke: Bartzelonakoa (1999), Gironakoa (2000) æbiotan esku hartu du Síndic de Greuges de Catalunya delakoakæ eta Murtziakoa (2000). Txosten hau egiten ibili garela, Nafarroako Herriaren Defendatzailearen gomendio bat argitaratu da, *Adinez txikienganako tratu txarren edo sexu-abusuen kasuen gaineko arreta, prozedura eta jarraipenari buruzkoa*. Bertan gomendatu denez, komenigarria da gai horretan jarduteko protokoloa egitea. Beste alde batetik, badaude erakundeek haurrekiko sexu-abusuetan jardutea ardatz nagusi duten beste protokolo batzuk ere (esate baterako, Leongo 1993koa, Galiziako 2000koa, Valedor do Pobok parte harturikoa).

EAEn, badaude foru aldundiek egindako hainbat lan eta txosten. Foru aldundiak haurrak babesteko eskudun erakundeak dira. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak egindako agiria nabarmendu ahal da, honako izenburu hau duena: *Haurrak eta nerabeak txarto tratatzea eta ez babestea. Arrisku-egoeretarako arreta*. Agiri hori tratu txarrak detektatzeko lan-tresna izatea nahi dute, haurren osasuneko profesionalei bereziki zuzendua.

Hortaz, bidea hasita dagoela kontuan harturik, erakundearteko koordinazioan aurrera jarraitu behar da. Horretarako, adinez txikienganako tratu txarren edo abusuen kasuetan esku hartu ahal duten organo eta erakunde guztien arteko akordioak ezarri behar dira.

## 2. Prebentzioa

Aurretik esan den bezala, egitea iradoki den protokoloak zigor-garrantzia izan dezaketen haurrenganako tratu txarren kasuetako herri jarduketak ditu ardatz nagusi.

Horrek ez du esan nahi prebentzio-lanari garrantzia kendu behar zaionik. Izan ere, prebentzioa ezinbestekoa da, eta tratu txarren ondorengo esku-harmena baino are eraginkorragoa.

Haurrak babesteko zerbitzu zehatzak oso garrantzitsuak dira tratu txarrak prebenitzeko lanean, arrisku-egoerak goiz detektatu behar dituztelako bereziki. Hala ere, garrantzizkoa da gizarte osoa eta, bereziki, eremuetan (hezkuntzakoan, osasunekoan, gizarte zerbitzuenean...) adinez txikiekin harremanetan dauden profesionalak hemen haurren eta nerabeen aurkako indarkeriak dirauela ohartzea. Arazo honi buruzko prestakuntza eta heziketa ezinbestekoa da; eta, lehenengo urrats bezala, informatze eta ohartze kanpainak egitea.

Halaber, kontuan hartu behar da haurrenganako tratu txarra gizarte osotik hedatuta dagoela, gizarte klaseak eta ekonomi edo kultur mailak bereizi gabe. Ildo horretatik, gogora ekarri behar da ezen emozioei jaramonik ez egitea, sexu-abusuak edo psikologi tratu txarrak bezalako jarduerak gizartearen eremu guztietan daudela, nahiz eta gizarte zerbitzuek gizarte talderik baztertuenak gehiagotan ikuskatu eta, hortaz, beraien artean babesik ezeko egoera gehiago detektatu. Hortaz, oso garrantzitsua da hezkuntzako, osasuneko eta abarretako estamentuak haurrenganako tratu txarrak prebenitu beharraz jabetzea eta prebentzio horretan prestatzea eta esku hartzea.

*Save the Children* erakundearen iritziz, Europan eta Estatu Batuetan egindako hainbat erakundek erakusten bide dute ezen ezgaitu fisikoak, sentsorialak edo psikikoak diren adin txikiko pertsonenganako sexu-abusua ezgaitasunik gabeko taldeak jasaten duena baino handiagoa dela. Arazoaren tamaina jakiten saiatzeko ikerketak egiteaz gain, beharrezkoa da, antza, haur horien beharrizanak kontuan hartzen dituzten eta komunikaziorako, nork bere burua defendatzeko eta beren buruaren jabe izateko arauak edo bideak ematen dizkieten prebentzio-programak antolatzea. Era berean, adin txikiko pertsona ezgaituak zaintzen dituzten familiei eta profesionalei baliabideak eta prestakuntza zehatza eman behar zaizkie.

Herri botereek adin txikiko pertsonak zaintzen dituzten erakundeetan gertatzen diren haurrenganako tratu txarrak prebenitzen jardun behar dute bereziki, 1.1 atalean azaldutako definizioaren arabera. Haiek haurren edo nerabeen garapenean eragin txarra duten egoerak edo jokaerak sortu ahal diren eremu bakarrak ez diren arren, bereziki kontrolatu behar da erakunde-tutoretzapean dauden adinez txikien egoitza-zentroak nola dabiltzan.

Ildo horretatik, berriz aipatu behar ditugu *Babesik gabeko haur eta nerabeentzako arreta*ri buruzko txosten berezian egindako gomendio batzuk. Izan ere, adin txikiko pertsonentzako arretarako zerbitzuei buruzko amankomuneko arautegia behar da (gogora dezagun ezen onetsi gabe jarraitzen duela haurrei buruz eskaturiko euskal legea). Gainera, komenigarria da aipatu zerbitzuotako langileak etengabe prestatzeko planak antolatzea eta, batez ere, haiek kontrolatzeko eta ebaluatzeko sistemak garatzea, eredu eta adierazle koalitatiboak barnean sarturik. Esate baterako, jarduteko amankomuneko irizpide argiak adostu eta egin behar dira, egoitza-zentroetako eguneroko bizitzaren alderdiei orori buruzkoak diren eta adinez txikiak guztiz ondo egon edo bizitzea bilatzen dutenak.

Haurrenganako tratu txarrak prebenitzeari buruzko ohar laburrok bukatzeko, *Save the Children* GKEk *Europako Batasunean adingabeekiko sexu-abusua prebenitzeko eginera onak sustatze*ari buruzko txosten batean iritsitako ondorioetako bat aipatu behar da. Hainbat herritan garatutako prebentzio-programak erkatzeko egindako

azterketaren arabera, aipatu programek ez dute haurrentzakoak bakarrik izan behar: beraien gizarte ingurune osoa (familia, eskola eta abar) sartu behar dute. Halaber, azterketa horren arabera, komenigarria da prebentzioaren ardatzak, izan daitezkeen biktimak ezezik, erasotzaile posibleak ere izatea. Ildo horretatik, emakumeekiko indarkeriaren aurkako borrokan erakutsiz den bezala, tratu txarren biktimek ondore txarrak gainditzeko eta sendatzeko programez gain, biktimarioei ere sendabidea eman behar zaie, etorkizunean erasoak burutzea saihesteko.

## 3. Erakundeek haurrenganako tratu txarren aurrean jardutea

Aurreko ataletan agerian jartzen saiatu garen bezala, haurrenganako tratu txarrak desagerrarazteko helburu nagusi-nagusia lortzeko beharrezkoa da disziplina anitzetako planteamendu globala, prozesuaren fase guztietan eragina handiagotu ahal izatekoa: prebentzioa, detektatzea, tratu txarren egoera ezagunen aurreko erantzuna eta erantzuteko harturiko neurriei jarraitzea.

Era berean, oharrarazi da ezen jarduteko protokoloa egitea bide horretako etapa bat bakarrik dela, gainerakoei lotuta egon behar duena. Protokolo horren bitartez hobetu behar da, bereziki, haurrenganako tratu txarren kasu bat aurkitzearen ondoriozko erakunde-jarduketa guztien koordinazioa, berariazko helburu bat kontuan harturik: adin txikiko pertsonaren gainean behar-beharrezko denean bakarrik esku hartzea, eta biktimizazioa areagotu ahal duten eginbideak, deklarazioak eta azterketak errepikatzea saihestea. Dena dela, helburu hori bilatu behar den arren, ezin dira errua egozten zaion pertsonaren berme prozesalak txikitu, ezta epailearen delituei begirako ikerketaren eraginkortasuna ere.

Haurrenganako tratu txarren balizkoetan jardun dezaketen pertsonak, zerbitzuak eta erakundeak ugari izan daitezkeela ikusita, komenigarria bide da esku-harmenak gertatzen diren uneak aztertzea.

### 3.1. Jarduketak hastea

Adin txikiko pertsonaren osotasunari erasotzea gerta daitekeelako susmoa sortu ahal den eremuak ugari dira: familia, eskola, zerbitzu medikoak, gizarte zerbitzuak… Eta ugari dirab bere susmoa agerrarazteko aurrea hartzen duenak hura adierazi ahal dien sailak ere: polizia, epaitegia, fiskaltza, haurrak babesteko zerbitzuak, biktimei arreta emateko zerbitzuak, gizarte larrialdiak eta abar.

Bistan denez, hala denean protokoloa izenpetzen duten erakundeek ezarri behar dituzte jarduteko beharrezko diren irizpideak eta koordinabideak. Adibidez, Gironako Protokoloa aipatu ahal da. Bertan administrazio-jarduketak ikertu dira eta, ustezko tratu txarrak detektatu diren eremuen (gizarte zerbitzuak, irakaskuntza…) arabera bereizirik, jakinarazpena zuzendu behar zaion organoa edo erakundea ezarri da.

Instituzio honen ikuspuntutik, hobe izan ahalko litzateke, halaber, hura zantzuen garrantziaren arabera bereiztea. Delituzko egitateak epai-botereak ikertu eta epaitu behar dituela kontuan harturik, ez da ahaztu behar zigor-garrantzia duten jokaeren mugak sarritan zehaztugabeak eta zehazten zailak direla. Beste alde batetik, Zigor Zuzenbidearen

oinarrizko abiaburuetako baten arabera, zigor bidea da azken errekurtsoa: esku hartzeko antzeko eraginkortasuneko eta giza eta gizarte kostu txikiagoko beste modurik ez dagoenean bakarrik jo behar da errekurtso horretara.

Horregatik guztiagatik, ezin da jarduketa-irizpide bera ezarri, tratu txarren susmo hutsik badago edo arriskutsua izan daitekeen egoeraren berri jakiten bada eta tratu txarren garrantzizko zantzurik, ebidentziarik edo, are, diagnostiko berretsirik badago. Zantzuen balorazioa haiek detektatatzen duen pertsonaren araberakoa dela ere (pertsona horrek prestakuntza espezializatua izan dezake edo ez), lehenengo balizkoan beharbada egokiagoa dateke haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuetara hasieran jotzea. Jakina, egoera larrialdi-kasuetan aldatzen da, adinez txikiaren osotasun fisikorako berehalako arriskua baitago. Kasuotan, berehalako arreta emateko beharrezko neurriak hartu beharko dira. Beharrezkoa izan daiteke adin txikiko pertsona harrera-zentroan sartzea ere, gau eta eguneko epaitegian salaketa jartzeaz gain.

Era berean, berezitasunak agertzen dituzte larrialdi medikoko balizkoek, zeinetan eraso fisikoa edo sexukoa gertatu baita. Protokoloak jarduteko irizpide zehatzak ezarri behar ditu, baita, esate baterako, ospitaleetako langileek eta auzitegikoek batera egindako azterketaren eta, hortaz, txostenen komenigarritasuna ere, zertarako-eta aipatu jarduketak errepikatu beharra saihesteko.

Poliziak, haurrekiko inoizkako abusuaren edo tratu txarren lehenengo berria jasotzen duenean, epaitegiari delituzko egitatea dagoela jakinaraziko dio; eta babes-zerbitzuei, babesik ezeko egoerak egon daitezkeela. Alabaina, ez lioke adin txikiko biktimari deklaraziorik hartu beharko, epaileari hori egiteko modurik egokienari buruzko erabakia hartzen utzi beharko diolarik.

Gizartea tratu txarren aurrean esku hartzen hasten den era erabakiorra da. Adinez txikiaren interes handiagoa defendatzeko beharrezkoa da bizkortasunaren eta zuhurtziaren, eraginkortasunaren eta berme prozesalekiko errespetuaren eta abarren arteko oreka hauskor eta, hortaz, kontuzkoa.

## 3.2. Judizio-eremuko jarduketak

Judizio-prozedura hasita, biktimaren adinez txikitasunetik datozen ezaugarriekiko arreta bereziak laguntza osoaren kalitatea baldintzatuko du, eta, beraren arabera, bigarren mailako biktimizazioa agertuko da edo ez da agertuko. Horregatik, hobe da prozesuan esku hartzen duten profesional guztiek prestakuntza espezializatua izatea.

Instrukzioko epaitegiak prozesua zuzendu behar du, fiskaltzak gaiturik esku hartuz. Kasu bakoitzeko inguruabarrek lehentasunak eta erritmoak finkatuko dituzte. Hala ere, dirudienez, ekonomia prozesala bilatu behar da: adinez txikiarekin beharrezko eginbideak bakarrik egin behar dira eta hobe da haiek ez errepikatzea, ez gehiagotzea eta ez abartzea. Era berean, garrantzitsua da prozedura luzatzea saihestea. Izan ere, horrelakoetan, prozedura luzatze horrek biziki oztopatzen du justiziaren eraginkortasuna.

Epaileak peritu-laguntza behar du lehenengo unetik, haurren psikologiako adituena bereziki. Psikologi tratu txarren balizkoetan, lesio fisikorik ez dagoenean, ikerketa psikologikoarekin hasi behar da esku-harmena, beste azterketarik (medikorik...) behar den erabakitzeko. Nolanahi ere den, haurrenganako tratu txarren kasuetan garrantzitsua izaten da adinez txikiaren deklarazioa, askotan kargu-froga nagusia (edo bakarra) izaten

baita. Hori dela eta, garrantzizkoa da biktimaren testigantzaren sinesgarritasuna aztertzea. Halaber, profesional espezializatuek aztertu behar dute hori zigor-prozesuaren hasierako unean.

Bai tratu txarrek ukituriko adin txikiko pertsonak bai beraren familiak laguntza behar dute judizio-prozeduran zehar. Oro har, biktimentzako arretarako zerbitzuek emango diete laguntza hori. Hala ere, kontuan hartu behar da ezen askotan tratu txarren emailea haurraren famili eremukoa izaten dela. Horrelakoetan, neurri zehatzak hartu beharra gerta daiteke. Batzuetan, famili inguruneko beste pertsona batek bere gain hartuko du adinez txikiaren interesen defentsa. Bestetan, haurrak babesteko eskudun erakundeak beteko du funtzio hori, babesik ezeko egoera detektatzeak adinez txikia zentro batean sartzea ekarri duenean bereziki. Nolanahi ere, komenigarria bide da prozesu osoan zehar adinez txikiaren erreferentzia pertsona bakarra izatea eta beronek hari segurtasuna ekartzea, beharrezko azalpenak ematea…

Ildo horretatik, hausnar egin behar da adin txikiko biktimaren interesak juridikoki defendatzeko abokatu bat izendatzea komenigarria den eta, hala denean, legelarien prestakuntza espezializatua bermatzen duen ofiziozko txanda zehatza sortu behar den. Haurrenganako tratu txarren eta sexu-abusuaren arloko judizio-prozeduren Frantziako araupeketan ezarrita dago judizio-prozesu osoan haurraren laguntasuna eta babesa bermatzen duen «*ad hoc* administraile» baten figura. Eginkizun hori senide edo adiskide batek hartu ahal du, baina baita haurren arloan lan egiten duen erakunde bateko kide edo profesional batek ere.

Kautelazko neurriei dagokienez, adinez txikia babesteak eta kalte berriak saihestu beharrak ustez tratu txarren emailea denarekiko haren harremanak apurtzea ekarri behar izaten du. Arazoa hura biktimarekin bizi denean sortzen da. Hasiera batean, akusatuaren errugabetasun-ustezkotasunerako eskubidea txikitu barik, bere etxean eta ingurunean geratzen dena adinez txikia izan dadin ahaleginak egin behar dira. Adinez txikia harrera-zentro batean barneratzean datzan neurria tratu txarren jasalea den adinez txikiarentzat halako zigor bat izan daiteke. Hori dela eta, barneratze hori salbuespenezko neurri bezala azaldu behar da.

Egoera zail-zaila sortzen da tratu txarrak ezkontideetako batek besteari begira banantze edo dibortzio prozesu batean zehar salatzen dituenean. Gezurrezko salaketarik gehienak testuinguru horretan gertatzen direnez gero, profesionalek kasuotan biktimaren deklarazioari sinesgarritasuna kentzeko joera izaten dute. Arazoa zaila da, baina pentsa daiteke ezen, salaketa gezur-oinarrikoa den arren, inplikaturiko adinez txikiak baztertu edo ahaztu ezin den halako indarkeria psikiko bat jasaten ari direla. Beste alde batetik, horrelakoetan ageri-agerikoa da senar-emazteak elkarrengandik banatzea tramitatzen duen jurisdikzio zibilaren eta tratu-txarren salaketa ezagutu duen zigor-jurisdikzioaren arteko koordinaren beharra.

Esan den bezala, prozesu osoan zehar epaileak arreta berezia eman behar die tratu txarrek kalte egin diotenari parte hartzeko eskatzen zaion eginbideei. Ildo horretik, hark egitate berberei buruz birritan edo gehiagotan deklaratu beharrik izan ez dezan, hobe da lehenengo deklarazioa epailearen eta profesional espezializatuaren aurrean egitea. Aldeen berdintasuna eta, bereziki, errua egotzi zaionaren eskubideak bermatu ahal dira baldin eta deklarazioa gela egokian burutzen bada. Horretarako, gelak norabide bakarreko ispilua izan behar du, edo TBko barru-zirkuitua, deklarazioaren jarraipena egin ahal izateko. Ikerketaren bukaeran galderarik egin nahi izanez gero, aldeek galderak

epaileari jakinaraziko dizkiote egin ditzan. Halaber, hobe da deklarazioa bideoan grabatzea, zertarako-eta hura ahozko epaiketan berriro ikusi ahal izateko eta, ahal den neurrian, adin txikiko pertsona berriz agertzea saihesteko.

Zigor-prozedura osoa ahozko agerraldian burutzen da, non bitartekotzaren, aldeen berdintasunaren eta abarren abiaburuak uztartu behar diren, adinez txikiaren interes nagusia babestuta. Biktimari laguntza profesionala bermatzeaz gain, haren ustezko erasotzailearekiko bekaldura saihestu behar da eta adin txikiko pertsonaren begi-babesa bilatu. Hori bide-bitarteko mekanikoen bitartez lortu ahal da, baina teknologia berriek, hala nola, bideokonferentziak, edo beste batzuek, judizio-egoitza askotan daudenek, oso errazten dute lana. Hori dela eta, magistratuek ezin dute haien baliagarritasuna alde batera utzi.

Hartzen errazak diren beste neurri batzuek, haurren eskubideekiko halako sentikortasun bat bakarrik eskatzen dutenek, biktimaren intimitatea zaintzea ahalbidetzen dute (hala nola, epaiketa atea itxita egiteak, komunikabideei ematen zaien informazioarekin kontuz ibiltzeak) edo antsietatez itxaroteko egoerak saihesten dituzte (esate baterako, adinez txikiek esku hartzen duten epaiketak eguneko lehenengo orduan jartzeak, judizioaren zitazioaren aurretik egotziaren konformetasun posibleari heltzeak eta abartzeak). Guztiarekin ere, garrantzitsua da berme prozesalak errespetatzeko beharrezko ez diren formalismo guztiak (togak erabiltzea, judizio-sala itxuratzea) ezabatzea eta adin txikiko pertsonari galderak ulertzea ahalbidetzen dion eta haren segurtasunik eza handiagotzen ez duen lengoaia erabiltzen ahalegintzea.

Azkenik, kontuan hartu behar da ezen epaiarekin batera ez dela desagertzen tratu txarrak edo abusua jasan dituen adinez txikiaren laguntzaren, informazioaren, aholkularitzaren eta, are, sendabidearen beharra. Era berean, arlo horretan ezinbestekoa da jarduten duten erakundeen arteko koordinazioa. Hori egiten den protokoloan kontuan hartu behar da, halaber.

## 4. **Erakundearteko akordioen beharra**

Aurreko iritzien bitartez zorroztasun-asmorik gabe azaldu gura da herri botereek haurrenganako tratu txarren balizkoen aurrean garatzen dituzten esku-harmenen ugari eta askotarikotasuna. Eraginkortasuna bilatzeko eta, batez ere, adin txikiko pertsonen eskubideak sakonkiago errespetatzeko, erakunde bereziek lankidetzarako eta koordinaziorako ahaleginak egin behar dituzte bigarren mailako biktimizazioa saihesteko, tratu txarrak argitu eta zigortzea bilatzen duen erakundeen esku-harmenarengatik haien kalteak ez areagotzeko alegia.

Arlo honetan inplikaturiko sailen artean akordioak iristea eta bertan jarduteko protokoloa egitea aurrerako urratsa izan daiteke adin txikiko pertsonen aurkako indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta tratatzeko lan itzel honetan. Horregatik, arartekoak gaian eskumena duten erakunde guztiei haurrenganako tratu txarren aurrean jarduteko amankomuneko irizpideak aztertu eta, hala denean, ezartzeko beren ahaleginak bateratzea gomendatu nahi die. Horretarako ekarri dira aurreko ataletan azaldutako hausnarketak eta iradokizunak.

## 2. GORDETAKO KUOTA: PERTSONA EZGAITUAK EAEko ENPLEGU PUBLIKORA HELTZEKO SUSTAPEN NEURRIA

Europako Batasunaren Kontseiluak pertsona ezgaituen urte europarra aldarrikatu du 2003a eta bere helburuen artean, ezgaitasunen bat daukaten pertsonek bereizkeriaren aurrean babesa izateko eta euren eskubideez bete-betean eta modu zuzenean gozatzeko daukaten eskubideaz sentsibilizatzeaz gain, pertsona ezgaituen aukera berdintasuna sustatzeko behar diren neurriei buruzko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea dago.

Aldarrikapen hori, bada, pertsona ezgaituen aldeko jarduketa-lerro finkatuaren barruan sartzen da. Jarduketa horrek, hain zuzen ere, gizarteratze oso-osoa lortu nahi du neurri positiboen bidez, ezgaituek euren eskubideak benetan erabiltzea bermatzeko, halaxe defendatzen baitu Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agiriak.

Pertsona ezgaituen gizarteratze osoa lortzeko borroka horretan, lana eta lanbidea funtsezko elementuak dira aukera berdintasuna bermatzeko eta laguntza erabakigarria dira bizitza ekonomiko, kultural eta sozialean bete-betean parte har dezaten, bai eta euren garapen pertsonalerako ere.

Zalantza barik, hori da ekimen zehatzago batzuek aurrera egitearen arrazoia, hala nola Kontseiluaren 2000ko azaroaren 27ko 2000/78 EK Arteztaraua, lanean eta lanbidean tratu berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa – arlo publikoan eta erakunde publikoetan ere aplika daitekeena –. Arteztarau horren 7.2. artikuluak beren beregi ezartzen du, pertsona ezgaituei dagokienez, berdintasun hastapena ez dela oztopo izango pertsona horiek lan arlora heltzea babesteko edo bultzatzeko xedapenak edo erraztasunak sortzeko edo mantentzeko neurrientzat.

Hala ere, Europako Batasunaren Kontseiluak 2003. urterako egin duen gonbidapena kontuan hartuta, Ararteko erakundeak pertsona ezgaituen aldeko ekimen horrekin bat egin nahi du, beste jarduketa zabalago eta garrantzitsuago batzuetan jarraitzea nahi dugun gomendio orokorrarekin. Horren bidez, Euskal Herriko administrazio publikoen arreta orain arte pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzea sustatzeko erabili diren neurriekin aurrera egiteko beharrizanera erakartzen ahaleginduko gara, batez ere gordetako plazen kuotaren inguruan.

Hasieran geneukan iritziak bultzatu gaitu horretara. Izan ere, iritzi hori sendotu egin da gurearen pareko erakundeek egindako txostenak irakurri ondoren (adibidez, Herriaren Defendatzailearen otsailaren 25eko 15/1997 Gomendioa, pertsona ezgaituak funtzio publikora heltzeari buruzkoa), bai eta pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzearen jarraipen berezia egiten ari diren beste erakunde batzuk egindakoak aztertu ondoren ere (Ezgaitasunari buruzko Errege Patronatua). Erakunde horiek zalantzarik egin gabe adierazten dute gordetako kuotak eragin txikia izan duela enplegu publikoan.

* * *

Jakina denez, Konstituzioaren testuak funtsezko eskubidetzat jotzen du herritarrak lanpostu publikoetara berdintasunean eta merezimendu eta gaitasunaren printzipioen arabera heltzeko eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 23.2. eta 103. artikuluak).

Hala ere, Konstituzioak berak neurri positiboak aplikatzeko aukera ematen du, merezimendu eta gaitasunari buruzko printzipio horien aplikazio soila modulatzeko, ez

bakarrik pertsona ezgaituentzako babes zehatza ezartzen denean, herritar guztiek dauzkaten eskubideez goza dezaten (49. art.), ezpada, batez ere, berdintasun konpentsatorioaren ideia berea egiten denean eta botere publikoak berdintasun eraginkorra lortzeko baldintzak sustatzera behartuta daudenean, bete-betean lortzea zailtzen duten oztopoak kenduta (9.2. art.).

Alde horretatik, gaur egun baketsua da onartzea enplegu publikora heltzeko berdintasunik ez dela bermatzen –ezgaitasunen bat daukaten pertsonak direnean– merezimendu eta gaitasunaren inguruko baldintza objektiboak soilik aplikatuta. Aldiz, uste nagusia da ezgaitasunak modu naturalean apurtzen duela berdintasuna, eta berdintasun hori lehengoratzeko bereizketa positiboko neurriak behar direla; horien artean gordetako kuota dago.

Horrela adierazi du Auzitegi Konstituzionalak berak, urriaren 3ko 269/1994 epaian (1994/269 AKE). Epai horretan ezgaitasunen bat daukaten pertsonen aukera berdintasuna sustatzeko neurriak bidezkoak direla adierazten du:

*"...Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan aipatzen diren faktore bereizgarrien zerrenda itxita ez dagoenez gero, argi dago minusbaliotasun fisikoa bereizketarako benetako arrazoi izan daitekeela. Hain zuzen ere bereizketarako faktorea izan daitekeelako, eragindako taldeen enpleguan ondorio larriekin, legegileak eta nazioarteko arauak (LANEren 159. Hitzarmena) minusbaliotasunen bat daukaten pertsonen aukera berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea legezkotzat jo dute, hau da, pertsona moduan garatzea arriskuan dagoen bizitza sozialaren arlo ugaritan abiapuntu-egoera kaltegarrian dauden pertsonen funtsezko berdintasuna lortu nahi dutenak. Hortik dator neurri horien eta EKaren 9.2. artikuluan ezarritakoaren eta, zehazki, EKaren 49. artikuluaren arteko lotura estua (...).*
*Orain arte esandakoa laburtzeko, argi dago lan-eskaintza batean ehuneko lanpostu batzuk gordetzeak eta lanera heltzeko zailtasun handiak dauzkan talde batentzat gordetzeak (...) ez duela EKaren 14. artikulua hausten. Hortaz, bidezkoa da orain interesatzen zaigun ikuspuntutik, eta gainera EKaren 9.2. artikuluan ezarritakoa betetzea dakar, Estatuaren izaera sozial eta demokratikoarekin bat etorrita (EKaren 1.1. art.)."*

Konstituzioaren erreferentzia horrekin, ez da arraroa funtzio publikora heltzeak estatuan izan duen garapen legalak pertsona ezgaituentzako neurri positiboen aukera sartu izana, batez ere gordetako kuota ezartzeari buruzko neurri hori.

Zehazki, Funtzio Publikoa aldatzeko neurriei buruzko abuztuaren 30/1984 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarriak, uztailaren 28ko 23/1988 Legearen bidez hedatutakoak, hauxe ezartzen du:

*"Enplegu publikoaren eskaintzetan, ehun lanpostu hutsetik gutxienez hiru gordeko dira ehuneko hogeita hamahiruko minusbaliotasuna edo handiagoa daukaten langileek betetzeko, apurka-apurka estatuko administrazioaren ehun lanpostutik bira heldu arte. Hala ere, langile horiek hautaketa probak gainditu beharko dituzte eta egoki denean minusbaliotasun gradua egiaztatu beharko dute..."*

Agindu horretan arlo bi azpimarratu behar ditugu: alde batetik, estatuko administrazioaren ehun langiletik bi langile ezgaituak izatera heltzeko helburu nagusia eta, bestetik, enplegu publikoaren eskaintzek (hemendik aurrera EPE) gutxienez ehun lanpostutik hiru gorde beharra ehuneko hogeita hamahiruko minusbaliotasuna edo handiagoa daukaten langileentzat.

EKaren 149.1.18. artikuluaren ondorioetarako, xedapen gehigarri hori ez dela funtzionarioen estatutu erregimenaren oinarria zehaztea garrantzitsua da eta, horregatik, euren funtzio publikoa arautzeko moduan dauden autonomia erkidegoek ez dutela betebetean jarraitu behar. Hala ere, estatuaren aurrekari horretatik oso autonomia erkidego gutxi aldendu direla erakusten digu errealitateak.

Hain zuzen ere, EAEn Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak estatutako legea kopiatu du gutxi gorabehera:

> *"Enplegu publikoaren eskaintzetan, euskal Administrazio Publikoek, horretarako jarritako lanpostu hutsen ehuneko hiru baino gutxiagokoa ez den kupoa ehuneko hogeita hamahiruko edo haundiagoko ermaintasun-maila duen langilegoz betetzeko gordeko dute, horri dagokion Administrazioko giza-baliabide guztien ehuneko bi bete arte..."*

Lehen esan dugu EAEn bezala, autonomia erkidego gehienek jarraitu diotela estatuko araudiari gordetako kuotaren inguruan. Horrela, bada, oso gutxi izan dira tratamendu bereizi eta bakarra aukeratu dutenak: Balearrak, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Madril eta Murtzia. Ez nahasteko, Katalunia eta Gaztela-Mantxako adibideak aztertuko ditugu.

Katalunian Neurri Fiskal eta Administratiboei buruzko maiatzaren 26ko 4/2000 Legeak (era berean funtzio publikoaren arloan Katalunian indarrean zeuden lege testu zehatz batzuen aginduak testu bakarrean biltzea onartzen zuen urriaren 31ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aldatzen duena) Generalitatearen gobernuak pertsona ezgaituak funtzio publikora gainerako hautagaien egoera berdintasunean heltzeko behar diren neurriak sustatuko dituela ezarri du eta, horretarako, enplegu publikoaren eskaintzetako gehienez ere ehuneko bost lanposturen gordetako arautuko du, ehuneko lanpostu bi ezgaitua izatearen egoera legala onartuta daukaten pertsonek bete ditzaten.

Horrela, praktikan EPEak izan arren garrantzitsuak gordetako kupoa modu eraginkorrean aplikatzean, arautze horrek lehen Katalunian zegoen aurreikuspena sendotzen du –estatuko araudiaren antzekoa, gehienez ere ehuneko hiru lanpostu gordetzea proposatzen baitu– eta gehienez ere ehuneko bost lanpostu huts gordetzeko aukera ematen du.

Erabatekoagoa da, zalantza barik, Gaztela-Mantxako araudia. Hain zuzen ere, martxoaren 4ko 1/1999 Legeak aldatutako Gaztela-Mantxako Erkidegoetako Batzordearen Funtzio Publikoaren Antolaketari buruzko abenduaren 13ko 3/1998 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak ezarri du enplegu publikoaren eskaintzetan gutxienez ehuneko bost lanpostu huts gordeko direla % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa daukaten pertsonek betetzeko; hartara, apurka-apurka lanpostu guztien % 2a lortuko da. Beraz, gordetako edozein kuota ezin izango da lanpostu hutsen % 5a baino txikiagoa. Aurreko adibideetan ikusi dugunaren alderantzizkoa gertatzen da hemen,

erkidegoak idazketa positiboa erabili du eta gutxieneko muga ezartzen du, hain zuzen ere ehuneko bost lanpostu huts.

Orain arte, pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzea sustatzeko, gordetako kuota bereizketa positibotzat ezartzen duten arauak ikusi ditugu.

* * *

Aurreko lerroetan gomendio hori egitera bultzatu gaituen arrazoia aipatu dugu, eta gurearen pareko erakundeek eta pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzearen jarraipen-lanetan jarduera luzea daukaten beste erakunde batzuek uste bera daukatela esan dugu, hau da, kuota bat gordetzearen neurri positibo horrek eragin txikia izan duela. Orain da horretan eragin duten faktoreak zeintzuk izan diren zehazteko edo, gutxienez, iradokitzeko, sasoia.

A) Lehenengo eta behin, gordetako kuota horrekin egin den **gutxieneko planteamendua** aipatu behar da.

Hain zuzen ere, ez da zalantzan jarri proposatutako ehunekoa azken helburua izatea, langile publiko guztien artean pertsona ezgaituek izan behar duten okupazio-indizearekin alderatuta. Errealitateak erakusten digu autonomia erkidego guztiek, salbuespenik gabe, erabili dutela estatuko araudian funtzio publikoa aldatzeko neurriek ezarritako % 2ko portzentajea, eta ez dago horren inguruko beste ekimenik.

Hala ere, datu horrek ez du alarma handirik sortu behar. Izan ere, pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzearen jarraipen berezia egiten ari diren erakundeen diote gaur egun erabiltzen den gordetako kuota (behintzat orokorrena, % 3koa) ez dela batere nahikoa proposatutako helburua lortzeko, hau da, pertsona ezgaituak ehun langile publikotik bi izatera heltzea, batez ere gaur egun enplegu publikoa murriztearen aldeko egoera kontuan hartuta.

Hori dela eta, gutxieneko planteamendu hori askoz kezkagarriagoa da gordetako kuotak izan behar duen portzentajeari dagokionez, pertsona ezgaituen enplegu indizearen inguruan lortu nahi den azken helburuari dagokionez baino.

B) Bigarrenik, pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzeko gordetako kuotak daukan eragin txikia hainbat EPEtan iragarri eta deitu diren sarrera prozeduretan **modu orokorrean ez aplikatzearen** ondorio izan daiteke.

Beharbada gordetako kuota modu orokorrean ez aplikatzea zelan edo zertan ageri den azaltzea komeni da.

Bada, batzuetan, modu orokorrean ez aplikatze horren ondorioz kidego, eskala, maila batzuetako deialdi batzuetan, segur aski EPE osoko datu globalak aipatu barik, ez da gordetako kuota aplikatu, iragarritako lanpostu hutsak gutxi izateak (30 baino gutxiago) % 3ko portzentajea aplikatzea ahalbidetzen ez zuenaren ustean. Imajinatu ditzagun teknikarien oso kidego zehatzetako deialdiak, lanpostu huts gutxirekin.

Era berean, modu orokorrean ez aplikatze horren eraginez gordetako kuota lanpostua jabetzan hartzen denean eta txanda askeko lanpostuetan baino ez da aplikatu; neurri horrek enplegu publikoa sustatzearekin lortu nahi duen helburuak, ostera, beharrezko egiten du aldi baterako lanpostuak eta barne sustapeneko lanpostuak direnean ere. Prozedura berrietan eta EPEetatik kanpo dauden prozeduretan ere ezin da gordetako

kuotaren sistema aplikatzea baztertu, adibidez enplegu planetan.

Beste batzuetan, aldiz, gordetako kuota ez aplikatzea pertsona ezgaituak lanpostu zehatz batzuk betetzeko bateraezintasun funtzionala izateari buruzko aurreiritzien erantzuna izan zitekeen. Jarrera horiek, agian oinarri sendorik gabe, pertsona ezgaituak zenbait lanpostu publikotara heltzea zaildu dute. Hortaz, gordetako kuota horrez gain beste neurri osagarri batzuetan sakondu behar da, adibidez lanpostu publiko zehatz batzuetara heltzea antolatzeko beharra, oinarritzat irizpide egiaztatuak eta probatuak, bateragarritasun funtzional zorrotza daukatena, hartuta.

C) Azkenik, gomendio honen norainokoa gainditzen duen eztabaida erakargarria zabaltzen duen arren, gordetako kuotaren eragin txikiak pertsona ezgaituentzako **erreserbak berak benetako edukirik ez edukitzearen** susmoa sortu duela aipatu behar dugu. Izan ere, beharrezko egokitzapenik ez egotearen ondorioz (ez bakarrik proben konfigurazioan, baizik eta baliabide eta denboren egokitzapenean, prozesua gainditzeko atalase desberdinduetan eta abarretan ere) gordetako txandako hautagaiek gainerako hautagaientzat ezarritako maila gainditu behar dute.

* * *

Hainbat faktore aipatu ditugu eta, lehen azaldu dugun moduan, gure ustez eragin negatiboa daukate gordetako kuotak, hau da, pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzea sustatzeko neurri positiboak, daukan eraginkortasun txikian. Hori dela eta, Ararteko erakundeak egoki deritzo Euskal Herriko administrazio publikoei iradokizun hauek bidaltzea:

- Gaur egun pertsona minusbalituentzat gordetako kuotak daukan portzentajea igotzeko egokitasuna eta, egoki bada, legeen aldaketa bultzatzea.
- Gordetako kuotaren aplikazioa funtzio publikora heltzeko era guztietako prozedura eta deialdietara zabaltzea (behin betiko lanpostuak, aldi baterakoak, txanda askea, barne sustapena, enplegu planetatik eratorritako prozedurak, etab.).
- Gordetako kuotaren aplikazioa ahalik eta kidego, eskala eta maila gehienetara zabaltzea. Salbuespen bakarra bateragarritasun funtzionalaren inguruko irizpide zorrotzek justifikatutako kasuak izango lirateke.

Era berean, erakunde honek uste du egoki dela Euskal Herriko administrazio publikoak hauei buruz sentsibilizatzen ahalegintzea:

- Gordetako lanpostuen portzentajearen xehetasunak EPEek adieraztearen egokitasuna – deitutako kidego, eskala eta maila bakoitzaren arabera, bai eta txanda desberdinen arabera (askea, barne sustapena) –; hartara, pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzea sustatzeko neurri positibo honek daukan eragin praktikoa hobeto aztertu eta jarraitu ahal izango da.
- Beharrezkoak diren egokitzapen neurri guztiak aurrera eramateko egokitasuna –proben konfigurazioari eta proba horiek egiteko neurriei dagokienez–, gordetako kuota horri benetako edukia emateko.

- Pertsona ezgaituak enplegu publikora heltzearen inguruko organo aholku-emailea eratzea EAEn, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren bitartez edo egoki irizten zaion beste edozein formula erabilita.

## 3. UDAL ZERGETAN SUBJEKTU PASIBO GISA HAINBAT PERTSONA BATERATZEA

Gomendio orokor honen bitartez zehaztu gura da nolako eragina duen zerga-egitate beraren aurrean subjektu pasibo gisa zenbait pertsona agertzeak bai zergadunentzat bai Zerga Administrazioarentzat, udal zergal ukitzen dituenean zehazki.

Udal zergak udalek eskatzen dituzten zergak dira. Hiru lurralde historikoetako toki ogasunak arautzen dituzten foru arauen eta Toki Ogasunei buruzko Legearen 60. artikuluaren arabera, honakoak dira udal zergak: Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), Ekonomi Jardueren gaineko Zerga (EJZ), Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ), Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) eta Hirilurren Balio Igoeraren gaineko Zerga.

Zerga-betebeharrean, jakina denez, subjektu pasiboa legearen arabera zerga-prestazioa bete behar duena da, zorra ordaindu behar duena funtsean. Subjektu pasiboa pertsona bakarra izan ohi da, baina batzuetan hainbat subjektu egoten dira zerga-egitate bakarrean.

Zordunak bateratze horrek hainbat jatorri izan ditzake: jaraunspenak, pertsona askok ondasun bat eskuratzea... Alabaina, erakunde honen aurrean mahaigaineratu diren balizkoei dagokienean, haren kariak urbanizazio-prozesuak izan ohi dira. Zehazki, kasuok hirilurren OHZ ordaintzeari zegozkion. Lurren jabetza banatuta zuten pertsona batzuek, lurzati osoan kuota ezberdinak zituzten titularrak zirenek.

Baina zerga ordaindu behar duen ondasunaren titularkidetasuna udalaren edozein zergatan azal daiteke.

Inguruabar hori toki erakundeei ez zaie berdin eta, hasiera batean, Zuzenbide Zibilaren markoan sortzen diren betebeharrei begira berritasun garrantzitsuak sartu ditu, Zuzenbide pribatuko arau orokorraren aldean. Arau orokor horri jarraitu behar dio betebeharren elkarketak (KZren 1137 eta 1144. artikuluak). Zergei buruzko Lege Orokorraren 34. artikuluak (ZLOrenak) ezarritakoarekin bat etorririk, zerga-egitatean titular bi edo gehiago bateratzeak berauek Herri Ogasunari zerga solidarioki ordaindu beharra ekarriko du, zerga bakoitzaren legeak kontrakoa xedatzen ez badu.

### A. Nolako garrantzia eta ondoreak dituzte elkartutako betebeharrek eta betebehar solidarioek?

Betebehar horiek Zuzenbide zibilaren markoan aztertzen badira, labur-labur esan dezakegu ezen titulartasun aktiboan (kredituan) edo pasiboan (zorra) pertsona asko dauden eta kreditua edo zorra hartzekodun edo zordunak beste zatitan zatitutzat jotzen diren betebeharra dela betebehar elkartua. Betebehar horretan kredituak eta zorrak elkarren ezberdintzakoak dira.

Betebeharraren titulartasun pasiboa da ondoreotarako gehien interesatzen zaiguna. Titulartasun horri dagokionez horrek dakarrenez, betebehar partziarioen aurrean gaude. Betebeharrotan zordun bakoitza bere zatiaren zorduna da soilik, eta, horren ondorioz, ezein zordunek ez du besteen kaudimengabezia bete behar. Gauza horrela, zordun bakoitzak bere zatia ordainduz kitatzen du bere zorra.

Solidariotasunak, aldiz, betebeharrari askoz ezaugarri neketsuagoak ekartzen dizkio, zorraren perspektibatik aztertzen badira; eta hartzekodunarentzat kobrantza-bermea ekartzen du. Izan ere, zordun bakoitzari ordaintzekoa osorik ordaindu beharra ezartzen dio. Beste era batera esanda, betebeharraren titulartasun pasiboko solidariotasunak prestazioaren batasuna eskatzen du eta prestazio hori bakarra eta berdina da zordun guztientzat. Hori dela eta, bakoitzak prestazio osoaren zorra du.

Hartzekodunarekiko karga handiago horrek ez du eraginik zordunen arteko barruko harremanetan. Harremanotan nagusi da zordun bakoitza dagokion zatiaren zorduna delako ideia. Hortaz, zorra haien guztien artean zatitu behar da. Horrela, «*ordainketa egin duenak bere zordunkideei bakoitzari dagokion zatia bakarrik eskatu ahal die, aurrerakinaren korrituekin batera*» (KZren 1145.2 artikulua). Ordaintzearekin batera *ex novo* eskubidea sortzen da, doktrinak itzultzeko eskubidea deitu diona. Eskubide horrekin bat etorririk, zorra ordaindu duenak zordunkide bakoitzari bere zorreko zatia eskatu ahal dio.

Hala ere, lehen esan bezala, zerga-arloan presuntzioak alderantzikatzen bide da eta abiaburu eraentzailea, ZLOren 34. artikuluaren arabera, solidariotasuna da, zerga bakoitza arautzen duen legeak kontrakoa xedatzen ez badu.

## B. **Baina zer ekarri du ZLOren 34. artikuluak eta noiz aplikatu behar da?**

Lehen esan dugun bezala, erakunde honi ekarritako kasua honakoa da, toki erakundeak likidazio bakarra edo zergaren ordainagiri bakarra jaulkitzea eta ondasunaren titular gida ageri den pertsonetako bati zuzentzea eta zerga osorik ordaintzeko eskatzea. Zehazki gertatu ohi da lur horien jabetza pertsona fisiko eta juridiko askoren artean oso zatituta egotea eta horiek finkan oso kuota ezberdinen titularrak izatea.

Udal jarduketa horrekin ados ez daudela azaltzen dute ukiturikoek. Izan ere, *aukeratutako pertsonak* zergaren zenbateko osoa aurreratu behar du, finkaren titularra ehuneko tzikian bada ere, nahiz eta Administrazioak gainerako titularkideak nor diren, ondasunaren titulartasunean zenbateko kuota dagokien eta beraiek non aurkitu jakin.

Hau da, Zerga Administrazioaren ustez, zerga ordaindu beharra ondasunaren titularkideentzako solidarioa da, eta administrazio horrek haietako bati ordainagiriko zerbateko osoa eskatzen dio. Horren ondorioz, zorra osorik ordainduta, berau ordaindu duenak gainerako zordunkideen artean jasanarazi behar du, bakoitzaren partaidetzako ehunekoaren arabera, dagokien zergako zatia.

Administrazioaren jarduketa hori azkotan juzkatu dute gure auzitegiek, Hirilurren Balio Igoeraren gaineko Zergari begira bereziki. Horrela, haren gaineko jurisprudentzia zabala sendotu da. Berau oinarri hartuta uste denez, pertsona taldeak higiezina erosteak, zerga-egitatea ezezik, pertsonek ondasuna erosten duten beste zerga-egitate ere zehaztu egiten du. Horretarako zerga-zorrek bereizita egon behar dute. Beraz, horrelakoetan, likidazioa jakinarazi behar zaie ukiturikoei dagokien proportzioan. Hau da, kasu horietan auzitegiek berariaz baztertu dute zerga-betebehar solidarioa egotea, ZLOren 34. artikulua aplikatuta. Eta beraien iritziz, kuota zatiezinen titularrak beste zerga-betebehar daude [Valentziako JANE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 1. Atala), 2001eko otsailaren 1ekoa]. Hrri buruz adierazi dutenez, «*betebeharraren zatiezintasunak edo zatitugabetasunak ez du hura solidario bihurtuko, edo, beste era batera esanda,*

*solidariotasunak prestazioko gaiaren zatiezintasunaren edo zatitugabetasun posiblearen guztiz ezberdina den oinarria du»* [AGE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 2. Atala), 1996ko azaroaren 8koa; edo AGE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 2. Atala), 1998ko apirilaren 30ekoa].

Ildo horretatik, Auzitegi Gorenak (Administrazioarekiko auzietarako sala, 2. Atala) 1994ko ekainaren 20ko Epaian azaldu zuenez, ZLOren 34. artikuluak eragina izan dezan, pertsonek ustez soldarioki erantzun behar zaion egoera aurretik onartzeko printzipio bat behar da. Izan ere, inor ezin da beste baten ordez ordaintzera behartu aurretiko egoera hori onartu edo baimendu gabe.

Orobat, gure auzitegien doktrinaren arabera, zergapeko lurrek dituzten eskuratzaile beste zerga likidazio egin behar da. Likidaziook partzialak izan beharko dute eta subjektu pasiboei jakinarazi beharko zaizkie, eskuratzaileetako batek bakarrik bere izena eta «eta beste batzuk» bukaerako argibidea eskuratzaile gisa zainpetuko zuen zergaren aitorpen bakarra aurkeztu badu ere. Jarduketa horren justifikazioa gure auzitegiek dute. Beraien iritziz, Administrazioak informazio base nahikoa du, honakoa jakiteko nahikoa: beste eskuratzaile horiek nor diren eta beraien titulartasun-ehunekoa zenbatekoa den [Madrilgo JANE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 3. Atala), 1995eko uztailaren 4koa].

Iritzi horrek ez du baliorik irabazpidezko sozietateak eskuratzen badu eskuratzekoa. Izan ere, kasu horietan, ondasun-erkidegoaren modukoaren aurrean gaude. Hura ekonomi batasun lokabea da. Beraren zerga-egitateko bi titularrak baldintza beretan bateratzen dira [Madrilgo JANE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 4. Atala), 1996-6-24koa; eta AGE (Administrazioarekiko auzietarako sala, 2. Atala), 1996-11-8koa]. Horrelakoetan, gure auzitegiek ez dute udalaren jarduketa zalantzatan jarri eta onartu dute ezen nahikoa dela administrazio ordainarazlea zerga ordaindu behar duenetako baten kontra zuzentzea. Egin-eginean ere, haiek aitortu dute ezen berau ZLOren 34. artikuluko balizkoa eta, horren ondorioz, betebehar solidarioa dela.

* * *

ZLOren 34. artikuluak zerga-arloko abiaburu orokorra dakar. Manu hori kontuan harturik finkatu izan den jurisprudentziak solidariotasunak berebeharraren zatiezintasun edo zatitugabetasu hutsa oinarri izatea baztertu du. Beraren iritziz, solidariotasunak zerga-egitatean titularrak baldintza berberetan bateratzen direnean bakarrik jardun behar du. Horren ondorioz, auzitegiek abiaburu orokorra ulertzen duten era hori bada, aipatu jurisprudentzia, Hirilurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren eremuan sortu den arren, orokorrean aplikatu behar da, hau da, zorra sorrarazten duen zerga-kontzeptua kontuan hartu barik.

Toki erakundeen tentazioa da uste izatea ezen, auzitegiek OHZri edo udalaren gainerako zergei begira hainbeste pronuntziamendu egin ez dutela eta, gainbalioaren zergari buruzko jurisprudentzia ez daitekeela estrapola eta, hortaz, ezin dela zerga-figura horretatik kanpo aplikatu. Hala ere, esan dugun bezala, ez gara iritzi horretakoak.

Are gehiago, justizia materialaren abiaburuagatik, beharrezkoa ei da likidazio eta ordainagiri bakoiztuak jaulkitzea, zertarako-eta pertsona titularkideetariko batek beste pertsona batek ordaindu beharreko zergako kuotak ordaindu beharra eragozteko. Gure iritziz, administrazioek gogoan izan behar dute ezen hiritarrei zorra borondatez edo betearazpidez ordaintzeko eskatzeko ahalgoak eta ahalmenak ezin ezelan erka daitezkeela

norbanakoek dituzten bitartekoekin. Horrela, erakunde honen aurrean azaldutako kasu batzuetan, erreklamatzaileek ez zekiten beraiekin batera lurzatiaren titularkide gisa ageri ziren pertsona batzuen helbidea edo telefono-zenbakia eta ez zeukaten hori lortzeko aukerarik.

Egokitzat jo dugu gomendio horretan auzitegien bestelako pronuntziamenduak agerraraztea, beroriek hain ohikoak ez diren arren, adierazitako zentzuan. Pronuntziamenduok ez dira Hirilurren Balio Igoeraren gaineko Zergari buruzkoak, foru zergei (Ondare Eskualdaketen gaineko Zergari eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari) eta udal zergei (OHZri) buruzkoak baino.

Lehenengoen adibideak honakoak dira: Auzitegi Gorenaren Epaia (Administrazioarekiko auzietarako salarena, 2. Atalarena), 1998-04-30ekoa; eta Murtziako JANen Epaia (Administrazioarekiko auzietarako salarena), 1996ko otsailaren 7koa. Azken epai horretan, Administrazioak likidaturiko eskrituran dauden interesatuak beste banakako likidazio bidali behar ditu prozedura-une egokian. Edozelan ere, egoki deritzogu auzitegi horrek solidariotasunari buruz ekarritako hausnarketa batzuk hemen kopiatzeari:

> *"Hala ere, aukera horietariko edozein eskumenez aukeratzeak arrazoi frogatuak izan behar ditu eta ez du arbitrario hutsa izan behar. Hori dela eta, bistan da ez dela nahikoa Administrazioaren erosotasun hutsa, baldin eta horretatik aipatu jabeetariko batentzat bidegabea den emaitzarik badator. Izan ere, jakina denez, Administrazioaren eskumena kontrolatzeko sistemetako batzuk Zuzenbidearen abiaburu orokorrak dira, abiaburuon kontrakoak diren emaitzak bazterturik, hala nola, fede ona, zehapenaren eta legea urratzearen arteko proportziozkotasuna eta abar.*
>
> *Beste alde batetik, kontuan hartu behar da ezen Administrazioarentzat askoz errazagoa dela zerga-zorra zordun bakoitzari eskatzea, Legeak horri buruz eman dizkion ahalgoen arabera (ahalgo horien barruan sarturik dago premiamendu-bideari jarraitzeko aukera, zerga-zorrak borondatezko epealdian ordaintzen ez badira), auzi-jartzailearentzat baino. Izan ere, auzi-jartzaileak, zerga-zorra osorik ordaindu ondoren, gainerako zordunei beren zatia eskatu behar die, horrelako ahalgo eta onurabiderik izan gabe, eta, haiek ordaintzen ez badizkiote, beraien kontra judizioko ekintzak jarri behar ditu, ekintzok jartze horrek oztopo eta gastuak berekin ekarri arren."*

Andaluziako Auzitegi Nagusiak (Malagako Administrazioarekiko auzietarako salak) 2000ko irailaren 29ko Epaian OHZri buruz ondokoa adierazi zuen:

> *"Horri buruz esan behar denez, zerga-eremuan zerga-egitatearekiko titularkidetasuneko balizkoetan arau orokorra soldariotasuna da, zerga bakoitzaren legeak kontrakoa xedatzen ez badu (ZLOren 34. artikulua) (...). Hala ere, zehaztu behar da ezen solidariotasunak zerga-egitatean titularrak baldintza berberetan bateratzen direnean bakarrik jardun behar duela.*
>
> *Auto-balizkoan ezin da titularkide batzuk dituen zerga-egitate bakarraz berba egin, zenbait egitate eta zergadun ezberdinez baino; eta zergadun bakoitzak beraren eskuraketa-kuotari edo partaidetzari dagokion likidazioarekiko*

*erantzukizuna du. Egin-eginean ere, Auzitegi Gorenak antzeko balizkoetan behin eta berriz adierazitakoaren arabera, «betebeharraren zatiezintasunak edo zatitugabetasunak ez du hura solidario bihurtuko, edo, beste era batera esanda, solidariotasunak prestazioko gaiaren zatiezintasunaren edo zatitugabetasun posiblearen guztiz ezberdina den oinarria du». Eta horrela adierazi du kasu guztietarako 1998ko apirilaren 30eko AGEk (3. Atala, 2. at.).*

*Horrela, aipatu Ebazpenaren arrazoibideari jarraiki, «batasun ekonomiko»rik osatzen ez duen ondasun-erkidego sinple edo arruntaren aurrean, ezin da onartu Ogasunak hitz egin duen eskuratzaileak, ZLOren 43.4 artikuluan aipatuta dagoen eran erkidegoaren ordezkaritza duenik (...). Aurrekoak dakarrenez, solidariotasunik ez dagoela eta, Toki Ogasunak autoetako hiri-finkaren jabekide bakoitzari katastroko balioak banan-banan jakinarazi behar dizkio eta bakoitzari dagokion zati alikuotaren likidazioa banan-banan egin.*

*Hori esanda, era berean gehitu behar da ezen, demanda jarri zaion Udalak zerga-zorra ordaindu behar dutenen datuak ez baditu, haiek berarekin elkarlanean aritu behar dutela eta, horretarako, beren datu pertsonalak, helbidea eta proportzioa eman behar dizkiotela, zertarako-eta hark doazkion betebeharrak behar bezala bete ahal izateko".*

## C. **Ondorioa**

Zerga egitate bereko subjektu pasiboak hainbat pertsona izateak ez du berez esan nahi betebehar solidarioaren aurrean gaudenik. Izan ere, solidariotasuna ez da zerga ordaindu beharra dakarren ondasunaren zatitugabetasun hutsaren ondoriozkoa. Kasuotan, justizia materialaren abiaburuagatik, eta gure auzitegiek finkatu izan duten jurisprudentzi ildoari jarraiki, toki erakundeek titularkide gisa ageri den pertsona bakoitzari udal zergen ordainagiriak eskatu edo likidazioak bidali behar dizkiote bere betebeharreko partaidetza-kuotaren proportzioan, titulartasuna irabazpidezko sozietate edo ondare-batasun batzuei ez badagokie. Berauek osatzen dituzten pertsonei loturik ez daudenak dira.

# 4. TRAFIKOARI, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE SEGURTASUNARI BURUZKO ZEHAPEN PROZEDURAN POSTAZ EGITEN DIREN JAKINARAZPENAK: JAKINARAZPENAK BEHAR BEZALA SAIATUTA EGIN DIRELA ULERTZEKO BALDINTZAK, JAKINARAZPENA JASO BEHAR DUENA EZ DAGOENEAN

## I. Planteamendua

Arartekoak Barne sailean izan dituen jarduketetatik nabarmenetako baten sarreran, txosten honen II. kapituluan jaso dena, agerian jarri dugu zein izan den 2002. urtean gehien azaldu den kexetako bat: trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arautegia hausteari dagokionean, zehapen-prozeduren ekintzak jakinarazteko modua, jakinarazteko ahalegina egin baina jakinarazleak interesdunaren etxean inor aurkitu ez duenean.

Hori dela-eta gure erakundera jo dutenen kexa, gehienetan, hau izan da: ez dutela zehapen-prozeduraren berri izan harik eta premiamendu-bidea hasi arte, prozeduraren ondoriozko zehapena derrigorrez betearazteko. Egiaztatu ahal izan dugunez, jakinarazpen pertsonalak posta bidez egindakoak ziren kasu guztietan eta horrez gain, administrazio zehatzaileak ediktu bidez jakinarazten zuen, Correos eta Telegrafos-ek (aurrerantzean, Correos) jakinarazpena birritan egiten saiatu baina lortu ez zuela ikusita.

Era berean, egiaztatu ahal izan dugu jakinarazpen pertsonalak egiteko ez zirela, guri dagozkigun kasuetan, kontuan hartu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluan (aurrerantzean, Administrazio eta Prozedura Legea), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean egindako aldaketen ondoren, ezartzen diren baldintzak. Lege horretako 5. Paragrafoan arautzen da noiz jo behar den jakinarazpen pertsonala behar bezala saiatutzat, jakinarazpen jaso behar duena ez dagoenean, horrela, ediktu bidezko jakinarazpena egin ahal izateko. Ez betetzeak, hain zuzen ere, jakinarazpen-ahalegin biak egindako orduei –funtsean, ordu berean-, eta postontzian ahalegin horren abisurik ez uzteari zegozkien, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak, jakinarazpena Correos-ek egiten duenean, agintzen duen legez. Hori dela-eta, interesdunek ez zuten zehapen-prozeduraren berri, prozedura izapidetzen ari bazen ere.

Honako aholku hau, bada, aipatutako zehapen prozedurak postaz jakinaraztearen alderdi berezi bi horiei buruzkoak dira, batik bat.

Ez da lehenengo aldia Ararteko erakundeak jakinarazpenak egitearen inguruko aholku orokorra aztertzen duena. 1992ko txosten arruntean arazo hau aztertu genuen, Administrazio eta Prozedura Legea indarrean jarri zela-eta; hala ere, orduan modu orokorragoan aztertu genuen, nahiz eta zergen arloko likidazioak beren beregi aipatu "Administrazioaren jakinarazpena, benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko " izeneko aholkuan. Aholku hori 1994ko txostenean osatu egin genuen "Ediktu bidezko jakinarazpena administrazioaren zehapen-prozeduretan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoen babesean" izeneko aholkuan. Harako hartan gaian sakondu genuen

eta ediktu bidez jakinarazi aurretik gure ustez administrazioaren jarduteko irizpideak zeintzuk behar zuten izan ezarri genuen.

4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak, berrikuntza garrantzitsuak egin zizkion Administrazio eta Prozedura Legeari. Berrikuntza horiek jakinarazpenak arautzeko egin ziren, hain zuzen ere, jakinarazpen pertsonala noiz jo behar den behar bezala saiatutzat, jasotzailea ez dagoenean; arau berri horrek paragrafo bat gehitu zion 59.2 artikuluari eta, nola edo hala, orduan atera genituen ondorioetako batzuk ukitzen ditu.

Aurten gai horri buruzko aholku berria eman dugu, batetik, lege-irizpide berria dagoelako, eta bestetik, egiaztatu dugulako–arazo horren inguruan aurten kexa asko izapidetu baititugu- askotan ez dela behar bezala betetzen irizpide hura eta gainera, gaiak garrantzia handia duela defentsarako eskubidearen ikuspegitik. Beraz, irizpide berri hau lehen zehaztutako alderdi bietara mugatuko da.

## II. **Lege-markoa**

Trafikoari, Ibilgailu Motordunei Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen eta haren arabera, salaketak jakinaraztea, baldin eta unean bertan ematen ez badira, araubide erkidearen pean geratzen da, bai eta arlo horretako zehapen-prozedurako gainerako ekintzak ere (78. artikulua).

Araubide Erkidea Administrazio eta Prozedura Legearen 59. artikuluan dago jasota. Hala ere, esan dugu arau hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuela, 2. paragrafoan, beren beregi arautu zen jakinarazpenak nola egin behar diren, interesdunaren etxean jakinarazpena hartzeko inor ez dagoenean. Testu berriak, honela dio hitzez hitz: “*jakinarazpenaz arduratzeko inor ez dagoenean, espedientean jasoko da inguruabar hori, jakinarazpen-ahaleginaren egunarekin eta orduarekin batera; hurrengo hiru egunen barruan, bigarren eta azkenengoz egingo da ahalegina, baina beste ordu batean*”.

Jakinarazpena postaz egiten denean, arau-markoa 1829/1999 Errege Dekretuak, abenduaren 3koak, osatzen du. Errege Dekretu horren bidez, posta zerbitzuen prestazioa arautzen duen araudia onartzen da, uztailaren 13ko 24/1998 Legea garatzeko. Errege Dekretu horretako 39-44 artikuluetan ezartzen dira jakinarazpenak egiteko orduan Correos-ek jarraitu behar dituen arauak, Administrazio eta Prozedura Legeko araudi berriarekin bat etorrita, eta, era berean, 1653/1964 Dekretua, maiatzaren 14koa, Posta Zerbitzuari buruzko Ordenantza, 1960ko maiatzaren 19koa, baliogabetzen ditu; hain zuzen ere, Errege Dekretua indarrean jarri aurretik, horietan bietan jasotzen zen aplikatzeko araudi berezia.

Aipatutako arauetatik 42. artikulua aipatu behar dugu, artikulu horretan ezartzen baitira jarduteko jarraibideak, jakinarazpen-ahalegin bi egin behar direnean eta, zehatz esateko, artikulu horretako 1., 2. eta 3. paragrafoetan, beren beregi aipatzen dira jarraibideak jakinarazpen-ahalegin bi egin baina interesdunaren etxean inor ez egoteagatik jakinarazpenik egin ezin izan ez denean. Hortaz, zehaztapen horiek berriz begiratu behar dira.

1. paragrafoan, Administrazio eta Prozedura Legearen 59.2 artikuluaren azken oharreko aurreikuspenak berretsi ondoren - urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldaketak egin zizkion Legeari-, lehenengo ahalegina jasota uzteko modua zehazten du, honela: “*posta operadoreko langileak bere dokumentazioan, eta bestela, jakinarazpenarekin*

*batera doan agiriaren abisuan, ahalegina jasota utzi behar du, bai eta ahalegina egin deneko eguna eta ordua ere*". 2. paragrafoak agintzen du bigarren ahalegina modu berean utzi behar dela jasota.

3. paragrafoaren arabera, bigarren ahaleginean jakinarazi ezin izan bada, ahaleginaren abisua utzi behar da interesdunaren postontzian. Honela dio 3. paragrafoak, hitzez hitz: "*ahalegin bi egin-eta, jakinarazterik lortu ez bada, posta zerbitzuko operadoreak jakinarazpenen zerrendan utzi beharko du, gehienez ere, hilabeteko epean; horretarako, jasotzaileari helduera-abisua utziko zaio egoki den etxeko kutxatilan; abisuan, jakinarazpenen zerrenda zein egoitzatan eta zein epetan egongo den jaso beharko da, bai eta bigarren ahaleginari buruz adierazitako inguruabarrak ere. Abisu hori arrunta izango da*".

Kasu batean eta bestean, Correos-eko langileak, aipatutako datuez gain, bere sinadura eta identifikazio-zenbakia utzi behar ditu jasota bai jakinarazpenarekin batera doan hartu-abisuan, bai jakinarazpenaren helduera-abisuan. Horrela ezartzen du aztergai dugun arauko 6. paragrafoan.

Araudiko aipamen hau amaitzeko, Correos-eko Zuzendaritza Nagusiak 1999ko maiatzaren 25ean emandako ebazpena –2000ko apirilaren 25eko instrukzioak aldatua- aipatu behar dugu. Hor zehazten denez, jakinarazpenak 7 egun naturaleko epean egon behar du Correos-eko zerrendan eta era berean, jakinarazpenaren helduera-abisuaren eredua finkatzen da.

Azpimarratzekoa da azken instrukzioan araubide orokorra –aurreko ebazpenean ez zen zehaztu helduera-abisua utzi behar zenik- eta instituzio-erabaki bereziak bateratzen direla eta bietan ezinbestekoa da betebehar hori. Hori guztia abenduaren 3ko 1829/ 1999 Errege Dekretuan horri buruz jasotzen diren aurreikuspenetara egokitzeko.

Deskribatu dugun arau-markoarekin bat etorrita, jasotzailea ez dagoelako egin ezin izan den jakinarazpena behar bezala saiatuta egin dela jotzeko, ondoko baldintzak bete behar dira: (a) jakinarazpen-ahalegin bi egitea, helburua lortu gabe, eta bigarren ahalegina, gainera, lehenengoa egin eta hurrengo hiru egunen barruan eta ordu desberdinean egitea; (b) jasotzailearen postontzian bigarren ahaleginaren abisua uztea, eguna eta ordua adierazita, bai eta jakinarazpena non dagoen eta han noiz arte egongo den ere; (c) jakinarazpen-ahalegin biak jasota uztea, egunarekin eta orduarekin batera, Correos-eko langilearen dokumentazioan eta jakinarazpenarekin batera doan hartu-abisuan; eta (d) langileak hartu-abisua eta helduera-abisua sinatzea eta bere identifikazio-zenbakia jartzea.

## III. Jakinarazpena defentsarako eskubidearen berme, administrazioaren zehapen-prozeduran

Auzitegi Konstituzionala[1] onartzen joan da, bere ibilbideari ekin zionetik, administrazio-zehapenen eremuan, EKko 24. artikuluaren paragrafo bietatik eratorritako

---

[1] KAren 7/1998 Epaian Auzitegiaren doktrina biltzen da eta gai honen inguruan emandako epai asko aipatzen dira..

berme-multzoa, defentsarako eskubidea da horietako bat, indarrean egotea. 1981eko Epai goiztiarrean (AKE 18/1981) gai hori izan zuen aztergai, honako hau adieraztean: "*prozeduraren arloan Konstituzioaren 24. artikuluan jasotako funtsezko printzipioek administrazioaren zehatzeko jarduerari aplikatzekoak izan behar dute, arauaren oinarrian dauden funtsezko baloreak babesteko beharrezkoa den heinean, bai eta Konstituzioaren 9. artikuluan bermatzen den segurtasun juridikoa ere (FJ, 2.a).*

Auzitegi Konstituzionalak agerian utzi nahi izan du hasiera-hasieratik, jakinarazpenen, edo prozesuko beste komunikazio-ekintza batzuen, eta defentsarako eskubidearen arteko lotura instrumentala. Oraintsu, 2002ko urriaren 28ko Epaian (AKE 199/2002)[2], kategorikoki baieztatzen du ondokoa: "*deiak, zitazioak edo jakinarazpenak egiteko lege prozesalek eskatzen dituzten baldintzak betetzeak garrantzia konstituzionala du eta berme da deiaren, zitazioaren edo jakinarazpenaren jasotzaileak berari ukitzen dion ekintza edo ebazpena ezagutzeko eta, ondorioz, defentsarako duen eskubidea behar bezala erabili ahal izango du*" (FJ, 2.a).

Konstituzioko doktrinaren arabera, jakinarazpenen oinarrizko helburua da jakinarazpeneko edukia jasotzaileari ezagutaraztea, honek, edukia ezagututa, bere eskubideak eta interesak defendatzeko gehien komeni zaizkion neurriak har ditzan[3].

Horregatik, prozeduretako legeetan jakinarazpenei buruz jasotzen diren eskakizunak ez dira sekula eskakizun formal hustzat jo behar, betekizun garrantzitsu baitira, funtsezko tresnak interesdunak jakinarazpena ezagutarazteko, eta hori, esan bezala, defentsarako eskubideari lotuta dago. Auzitegi Gorenak honela adierazi zuen 1998ko otsailaren 25eko Epaian (RJ 1408), zerga-prozedurari dagokionez: "*prozedurako zorroztasuna ez da formulismo gehiegizkoa izatea, zorroztasuna giltzarria da defentsarik ezarik gerta ez dadin eta benetako babes judiziala izateko eskubidea egon dadin, Konstituzioaren 24. artikuluan aipatzen denez. Izan ere, Administrazioak herritarrari dei, zitazio edo jakinarazpenak egiteko akatsak egiten baditu, orduan herritarrak defentsarako duen eskubidea mugatuta gera daiteke, bere eskubide subjektiboetan eragina duen ekintza erabat ezagutzeko aukera baztertzen delako; eta, ondoren, administrazio-esferako babesik ezak, benetako babes judizialerako eskubidea erabiltzeko mugak jartzen dizkio, ekintza Epaitegietan berrikustea galarazten duelako. Horren inguruan, 1987ko apirilaren 30eko Epaian, Sala honek ondokoa esan zuen: "Benetan, prozesu- eta prozedura-legeek organoaren (…) eta aldeen artean (…) komunikazio-ekintzak (jakinarazpenak, zitazioak, deiak…) egiteko erabiltzen dituzten bideak eta bermeak ez dute beste helbururik, dagokionari ekintza ezagutaraztea edo ziurtatzea baino (…). Horregatik, Ordenamendu modernoetan, eskakizun horiek hirugarrenen eragingarritasunak eta interesek uzten duten bezain*

---

[2] Epaian Auzitegiaren gai horren inguruko doktrina biltzen da eta doktrina zehazten joan diren epai nagusiak aipatzen dira.

[3] Auzitegi Gorenak, 2000ko azaroaren 10eko Epaian (RJ 10061) jakinarazpenen funtsezko garrantzia azpimarratzen da, administrazio-prozedurari dagokionez. Honela dio: "Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren 30/1992 Legean aipatzen diren bermeen helburua (…), jakinarazpenei dagokienez, administratuen babesik eza materiala saihestea da herri administrazioen ekintzen aurrean" (FJ 3.a). Antzeko epaia eman zuen Auzitegiak 1999ko uztailaren14ko Epaian (RJ 6068) eta 1993ko irailaren 29ko Autoan (RJ 6521). Aipatutakoak banaka batzuk baino ez dira, antzekoa adierazi baitu beste askotan ere.

*muturrera eramaten dira; eta Epaitegietako jurisprudentzian ekintza horien formalismoa zorrotz zaintzen da, prozedura ulertzeko modu berrietan nagusi diren formalismorik gabeko ildoen kontrara"* (FJ 1.a).

Eta, arrazoi bera dela-eta, Auzitegi Konstituzionalak prozesuetako komunikazio ekintzak arduratsu egiteko eskatzen du[4]; era berean, ediktu bidez jakinaraztea azken errekurtsotzat hartzeko eskatzen du, hau da, ardura handiz ahalegindu arren jakinarazpen pertsonalik egin ezin izan denean, bide hori erabiltzeak dakartzan bermeak ahuldu direlako[5].

## IV. Postaz egiten diren jakinarazpenak behar bezala saiatutzat jotzeko -jasotzailea ez dagoenean- legez eskatzen diren betebeharren analisia, defentsarako eskubidea gauzatzeko ikuspegitik.

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eskakizun formalak sartu ditu jakinarazpenak egin ezin izan direnerako, nahiz eta jakinarazteko ahalegina egin; jakinarazpena behar bezala egin dela jotzeko, jasotzailea ez dagoen kasuetan, eta ediktuaren bideari ekin ahal izateko, aurrekoak hartu behar ditugu kontuan. Beste modu batean esanda, helburua da pertsona interesdunak zuzen eta pertsonalki ezagutu dezala jakinarazten zaion ekintzaren edukia. Eskakizun hori areagotu egiten da aztertzen ari garen zehatzeko administrazio-prozeduren eremuan, esan dugun bezala, eremu horretan garrantzia handia baitauka jakinarazpenak, defentsarako babesa bermatzeko (Konstituzioaren 24. artikulua).

Aipatutako legea indarrean jarri zenetik denbora askorik igaro ez denez, gaur egun, aurreikuspen berriei buruzko erabaki judizial gutxi daude oraindik. Badaude, ordea, arazoari buruzko epai batzuk, Correos-eko araudi zaharra oinarritzat hartuta; araudi horren arabera, zenbait kasutan, jakinarazpen-ahalegin bi egin behar ziren ordu desberdinetan eta postontzian helduera-abisua utzi.[6]. Hala era, batzuen eta besteen ustez, eskakizun horiek biak zabal samar interpretatu behar dira, jakinarazpenen helburuarekin bat etorrita[7].

Hala ere, arazo honen inguruan jaso ditugun kexetan egiaztatu ahal izan dugunez, administrazioaren jarduna interpretatzeko modu horretatik urrun dago.

Izan ere, aztertu ditugun kasu gehienetan, bigarren jakinarazpen-ahalegina lehengo ahaleginaren ordu desberdinean egiteko eskakizuna era formalean bakarrik betetzen da; batzuetan, lehenengo jakinarazpen-ahaleginetik bigarrenera minutu batzuetatik ordu betera bitarteko tartea dago; beste batzuetan, ahalegin biak egun desberdinetan egiten

---

4 Guztietatik, AKaren 199/2002 Epaia (FJ 2.a), lehen aipatua.

5 Guztietatik, AKaren 220/2002 Epaia (FJ 3.a).

6 1964ko maiatzaren 14ko Dekretuaren 251.3 artikulua.

7 Bereziki, ordu desberdinei dagokienez, Administrazioarekiko Auzietako Sevillako Epaitegiak 2001eko otsailaren 1ean emandako epaia dugu (RJCA 275). Epai horretan interpretazio honen alde egiten da "ezin da zekentasunez interpretatu" adieraziz (FJ 2.a). Errioxako Justiziako Auzitegi Nagusiak ere antzekoa adierazi zuen, Correos-eko araubide zaharra dela-eta, 1998ko abenduaren 12ko Epaian (RJ 4679), beraren ustez 10:22ak eta 09:37ak (FJ 5.a), funtsean, "ordu bera dira".

dira baina ordu berean, eta horrek esan nahi eskakizuna formaz ere ez dela betetzen.

Beste alde batetik, sarritan espedientean ez da jasota utzi interesdunaren postontzian abisua utzi denik, alegia, jakinarazten ahalegindu baina lortu ez delako abisurik.

Hala, bada, gure erakundearen ustez, aztertu ditugun kasuetan jakinarazpen-ahalegin biak egiteko orduen artean ez dugu alde handirik ikusi eta, beraz, ahalegin horiek ez dira egokiak eskakizuna behar bezala betetzeko; izan ere, jakinaraztearen helburua da pertsona interesdunak zuzen eta bertatik bertara ezagutu dezala jakinarazten zaion ekintzaren edukia, jakinarazpena egiteko funtsezkoa da hori, askotan esan dugun bezala. Gure ustetan, jakinarazpenaren edukia interesdunari ezagutarazteko bide bakarra dago: lehenengo ahalegina hutsala izan denean, bigarren ahalegina, arrakastatsua izateko, ardura handiz egin behar da eta hori gertatzeko ez da nahikoa formaz ordu desberdinetan egitea, batetik bestera alde handirik ez badago, une horretako errealitate soziala ere hartu behar da kontuan; izan ere, badakigu gaur egun jakinarazpenez arduratu daitezkeen pertsona askoren etxeetan ez dela inor egoten lanaldi osoan[8].

Era berean, garrantzitsua da bigarren ahaleginean jakinarazi ezin izan bada, behar besteko ardura jarri arren, aholku honetako bigarren eskakizuna zorrotz betetzea: ahaleginaren abisua utzi behar da interesdunaren postontzian.

Eskakizun horren garrantzia azpimarratu du Auzitegi Gorenaren 1997ko abenduaren 12ko Epaiak (RJ 1998, 2264), lege-intereseko kasazio-errekurtso batean emana; epaia zerga arloko prozedura bati buruzkoa da eta jakinarazpena postaz egin zen. Epaitu zena Administrazio eta Prozedura Legearen 59. artikuluaren 4. paragrafoa zen, hain zuzen ere, ediktu bidezko jakinarazpena arautzen zuena (gaur egun artikulu bereko 5. paragrafoan arautzen da, abenduaren 27ko 24/2001 Legeak egindako aldaketaren ondoren, paragrafo bat gehitu baitzaio jatorrizko artikuluari); zehatz esateko, espedientean jasota utzi behar dela Correos-ek egindako jakinarazpenaren helduera-abisua utzi zaiola jasotzaileari, jakinarazpen hori egin aurretik.

Correos-eko araudi zaharraren arabera, zenbait kasutan, jakinarazpen-ahalegin bi egin behar ziren –orain Administrazio eta Prozedura Legearen arabera ere bai - eta postontzian helduera-abisua utzi, bigarren ahalegina hutsala gertatzen bazen. Bada, Auzitegiak, horretan oinarrituta, honako hau adierazi zuen[9]: *“azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako kasuan, hau da, jasotzailearen etxean eskutitz ziurtatua emateko ahalegin bi egin baina jakinarazterik egon ez denean, funtsezko arazoa da jakinarazpena emateko (eskutitz ziurtatua) ahalegin horiek*

---

[8] Tomás Cobo Olvera magistratuaren ustez “bigarren jakinarazpen-ahalegina lehenengo ahaleginaren ordu desberdinean egitearena, bidezko terminoetan ulertu behar da. Legegilearen xedea da ekintzaren jasotzaileak ekintzaren berri izatea, baina badaki jendea ez dela 24 orduetan etxean egoten eta horregatik, administrazioari eskatzen dio jakinarazpen-ahalegin bi egiteko. Baina Legeak agintzen duenean ordu desberdinetan jakinarazi behar dela, ez du esan nahi lehenengo ahalegina 10:00etan egin bada bigarrena 10:30ean egin daitekeenik, aukera asko dagoelako ordu horretan ere interesduna etxean ez egoteko. Gure ustez, arau hori betetzeko, arauaren mamia betetzeko, ondokoa egin beharko da: lehenengo ahalegina goizeko 10etan egin bada, bigarrena arratsaldean egin behar da, ziur asko ekintzaren jasotzailea lanean egongo delako goiz osoan eta beraz, askotan ahaleginduta ere ez genuke inoiz lortuko ekintza bertatik bertara ezagutaraztea”. COBO OLVERA, T.: Herri Administrazioen Araubide Juridikoa, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen analisia (arauak, doktrina eta jurisprudentzia aztertzea). El Consultor de los Ayuntamientos y de los Juzgados, 2002, 411. orrialdea.

[9] 1964ko maiatzaren 14ko Dekretuaren 251.3 artikulua.

*jasota uzterik ez dagoela, eta ezinezkoa dela egotea jasotzailearen edota azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. 2 artikuluan aipatzen diren pertsonen ekintzak direla-eta; beraz, funtsezkoa da birritan saiatu izanaren proba eta helduera-abisua jaso izanarena -abisua egoki den postontzian edo kutxatilategian utzi da-; proba hori Correos zerbitzuaren esku dago".*

Hala ere, horrek ez du esan nahi administrazio zehatzaileak azken betekizun hori alde batera utzi dezakeenik. Ordea, Auzitegiak berak agerian utzi du epai berean, behin jakinarazpena itzuli bazaio, muga-eguna igarotzeagatik, administrazioak Correosi "*eskatu egin behar diola eta administrazio-espedientean sartu*", ahaleginak behar bezala egin direlako agiria. Eta horrekin lotuta dago, dio Auzitegiak, honako hau: administrazioak egintza horiek egiaztatu dituenean, eta orduan bakarrik, eman daiteke ontzat iragarki bidez jakinaraztea (Administrazio eta Prozedura Legearen lehengo 59.4 artikuluan arautzen zen).

Bigarren baldintza hori garrantzitsua da interesdunak jakinarazpen-ahaleginen berri izan dezan eta, ondorioz, jakinarazpena jaso ahal izan dezan, behar besteko ardura erakusten badu; baina helduera-abisua behar bezala dokumentaturik postontzian uzteak bermatzen duen bakarra da abisua utzi utzi dela, baina horrek ez du esan nahi jasotzaileak jaso duenik, eta horixe da hain zuzen ere jakinaraztearen xedea. Horregatik, berriz ere azpimarratu gura dugu jakinarazpen pertsonalak arduratsu egin behar direla, zuzenean eta bertatik bertara jakinarazi ahal izateko eta hartu izana bermatzen ez duten beste bide batzuk erabili beharra ez izateko.

Amaitzeko, aztergai ditugun kasuetan jakinarazpenak behar bezala egin direla jotzeko, nahiz eta baina jakinarazterik lortu ez, erabakigarria da Correos-eko langileak eskakizun formalak bete dituela jasota uztea, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan agintzen den eran (aholku honen II. kapituluan azaldu dugu).

## V. **Ondorioa**

Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko, jakinazpena jaso behar duen pertsonaren etxean haren kargu egiteko inor ez dagoenean, beharrezkoak dira honako baldintza hauek:

1 Jakinarazteko bigarren ahalegina, lehenengoa egin eta hurrengo hiru egunen barruan eta ordu desberdinean egitea; ordu desberdinean egiteak esan nahi du, une horretako errealitate soziala ere kontuan hartuta, ordu horretan aukerak egon daitezkeela –zentzuzko irizpideak jarrituta- interesdunari jakinarazpena eskura emateko.

2 Ardura handiz ahalegindu arren bigarren jakinarazpen egin ezin izan denean, jasotzailearen postontzian bigarren ahaleginaren abisua uztea, eguna eta ordua adierazita, bai eta jakinarazpena non dagoen eta han noiz arte egongo den ere.

3 Jakinarazpen-ahalegin biak jasota uztea, egunarekin eta orduarekin batera, Correos-eko langilearen dokumentazioan eta jakinarazpenarekin batera doan

hartu-abisuan; langileak bai dokumentu hori bai hartu-abisua sinatzea eta bere identifikazio-zenbakia jartzea.

4 Zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espedientean jasota utzi behar da eskakizun horiek bete direla.

## 5. HIRI INGURUETAN DAUDEN GOI-TENTSIOKO HARI ELEKTRIKOEN ARAZOA

Jendea bizi den hiriguneen inguruetan energia elektrikoa bideratu eta banatzeko sareak egotearen arazoa leku askotan ageri da, eta harien inguruetan bizi diren herritarren kezka eragiten du.

Herritar horiek gehien salatzen duten arazoa hauxe da: goi-tentsioko hariek sorrarazten duten kutsadura elektromagnetikoak ustez ondorio kaltegarriak izan ditzakeela euren osasunerako.

Eragin kaltegarri horiek arintzen saiatzen den gizarte-mugimendu garrantzitsua sortu da. Jendea bizi den aldeetan dauden hari elektrikoak lekuz aldatu edo lurperatu egin behar direla dio mugimendu horrek.

Arazo horren oihartzuna Arartekoarengana heldu da. Izan ere, Arartekoak gai horretan esku hartzeko zenbait eskaera jaso ditu. Aipatuko dugu, adibidez, Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzeta auzoa zeharkatzen duen tentsio ertaineko hari elektrikoa. Zenbait eraikinen ondotik pasatzen da, metro gutxi batzutara, eta eusten dioten dorreetariko bat ikastegi batetik gertu dago.

Kutsadura elektromagnetikoaren gaia ez da berria, eta eremu magnetikoek gizakiengan duten eraginean eta osasunerako ustez izan ditzaketen ondorioetan datza. Legebiltzarrari egin genion aurreko txostenean ere aukera izan genuen antzeko arazo batek gizartean sortzen duen kezka aztertzeko, sakeleko telefonoetarako instalazioek sortzen dituzten eremu magnetikoak direla-eta.

Hain zuzen ere, pertsonen osasunaren gaineko eragina izan da gizarteko alarma-giroaren pizgarri nagusia. Gauzak horrela, askok eskatzen dute hariak ken daitezela, dela lurpean sartuz, dela jenderik bizi ez den beste alde batzuetara desbideratuz. Egia da informazio zientifiko eta teknikoak ez duela garbi frogatzen hari elektrikoek sortzen dituzten eremu elektromagnetikoen eraginpean egotea zenbait kantzer-patologiaren zuzeneko kausa denik. Hala ere, nazioz gaindiko eta nazioarteko hainbat erakundek esku hartu nahi izan dute badaezpada, eremu elektromagnetikoetatik jendea luzaroan egoten den lekuetaraino utzi behar diren distantziei buruzko gomendioak emanez.

Osasun publikoa dela-eta gizartean garbi ageri den kezkari beste arazo bat gehitu behar zaio, alegia, hariei eusten dieten dorreak oztopo direla hirigintza antolatzeko, eta bazterrak desitxuratu egiten dituztela. Inguruabar horiek bultzaturik, udalak ahaleginak egiten dituzte hari elektrikoak lurperatu egingo direla ziurtatzeko, hirigintzarako lurrak garatzeko beharrezkoak diren urbanizazio-lanen barruan.

Gainera, sektore elektrikoari buruzko legerian energia elektrikorako bide-zortasunak eta mugak ezarri dira, energia banatzeko goi-tentsioko sareko hariak eraikin, ikastetxe, patio eta lorategien gainetik igaro ez daitezen. Hala ere, zortasun horiek gorabehera, udalek ez dute debekurik jartzen halako lurretan eraikinak egiteko, baldin eta goi-tentsioko sarearekiko distantziak mantentzen badira. Horren ondorioz, gure erkidegoko zenbait tokitan, herri eta hirien hedapenak bide eman du lehendik zeuden aireko harien ondoan eraikin berriak egiteko.

Eraikinak eta aireko hariak elkarren ondoan egoteak bizilagunen ezinegona sorrarazten du, eta herri botereek erantzun egokia eman behar diote ezinegon horri. Gauzak horrela, gomendio honetan herri erakundeek esku hartzeko markoa ezartzen saiatuko gara, eta espero dugu marko horrek politika egokia bermatuko duela, egoitza-

guneetan zehar airetik doazen goi-tentsioko hariak lurperatzera edo korridore elektrikoetara bideratzera joko duena, batik bat kalterik handiena jasateko arriskua duten lekuak babesteko, hala nola ospitaleak eta herri erabilerako beste alde batzuk. Eremu honetan eskumena duten administrazioek are ahalegin handiagoa egin behar dute gai honi buruzko ikerketak egiteko eta emaitzen gardentasuna eta zabalkundea sustatzeko.

**Eremu elektromagnetikoak eta beraiek osasunean duten eragina. Zuhurtasun-printzipioa**

Arazo hau dela-eta, elektrizitatea energi iturri gisa erabiltzen hasi zen garaian sortu zen kezka zientifikoa, baina azken berrogei urteetan arreta eta ardura areagotu egin dira. Laurogeiko hamarkadatik hona egin diren azterlan zientifiko ugariek agerian jarri dutenez, litekeena da, agian, behe-maiztasuneko kutsadura elektromagnetikoak lotura izatea zenbait gaixotasun sortzeko arriskuarekin, esate baterako, leuzemia, garuneko tumoreak eta beste minbizi-mota batzuk.

Eremu elektromagnetikoak lerro magnetiko eta elektriko ikusezinez osaturik daude eta edozein aparatu elektrikoren inguruan sortzen dira. Eremuok, goi-tentsioko harietan ez ezik, instalazio elektrikoetan eta telekomunikazioetako instalazioetan ere sortzen dira, eta bai etxean egunero erabiltzen ditugun tresna elektrikoetan ere: lehorgailu, irrati, telebista, ordenagailu eta abarrekoetan.

Eremuok bizidunengan izan ditzaketen ondorioak eragin-graduaren eta denboraren araberakoak dira. Hasierako ikerketen ondoren, azterlan epidemiologikoetan oinarritutako ekarpen zientifiko batzuetan onartu egin zen behe-maiztasuneko eremu magnetikoen eraginpean egoteak beharbada lotura izan zezakeela minbizien gehikuntzarekin, batez ere haurren leuzemiaren gehikuntzarekin. Geroago erkidego zientifikoak adierazi izan duenez, ostera, egin diren azterlan epidemiologiko eta biologikoetatik ezin da argi eta garbi ondorioztatu eremuak osasunerako kaltegarriak direnik. Datu esanguratsua da, nolanahi ere, zientzialariek euren txostenetan beti eskatzen dutela ikerketa gehiago egiteko, jendea eremuen barruan egotearen balizko arriskua behin betiko egiaztatu edo baztertu ahal izan dadin, eta batez ere eragina luzaroan jasaten den kasuetarako.

Eusko Legebiltzarrari urtero egiten diogun txostenean aurreko urtean esan genuen bezala, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) nazioarteko ikerketa programa proposatu du, eremu elektriko eta magnetikoen barruan egoteak osasunean duen eragina argitu dadin. Programa horretan parte hartzen duten erakundeetariko bat International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection izeneko batzordea da (ICNIRP). Ildo horretan, OMEk, 1998ko maiatzeko txosten batean -"*Electromagnetic Fields and Public Health*"-, giza gorputzaren eta eremu elektromagnetikoen arteko interakzioaren balizko arriskua artean zientifikoki frogaezina zela adierazi zuen. Baina beste alde batetik, OMEri lotutako erakunde batek, minbiziari buruzko ikerketarako nazioarteko agentziak, behe-maiztasuneko eremu elektromagnetikoak minbiziaren garapenaren balizko eragileen artean sailkatu zituen. Gizartearen zalantza eta kezkari erantzunez, OMEk, 2000ko martxoan, osasun arloko prebentziorako zenbait politika proposatu zituen. Politika horien oinarriak hauexek dira: zuhur jokatzea, arriskua badaezpada saihestea, eta jendea eremuen barruan ahalik denbora gutxien egon dadin lortzea.

Eremu elektromagnetikoak kaltegarriak ez direnik oraingoz frogatu gabe dagoela ikusita, Europako Batasunean marko bat ezarri da Erkidegoak arazo horretan esku har dezan. Europako Parlamentuak -1994ko maiatzaren 5ean- erradiazio ez-ionizatzaileen ondorio kaltegarriak baztertzeko borrokari buruzko ebazpena aurkeztu zuen, eta Batzordeari neurriak proposatzeko deia egin zion, langileek eta herritar guztiek erradiazio elektromagnetikoa zela-eta jasaten zuten eragina mugatze aldera. Ebazpen horrekin bat etorriz, Europako Batasuneko Kontseiluak 1999ko uztailaren 12ko Gomendioa onetsi zuen (1999/519/CE). Bertan, jendearen osasuna eremu magnetikoetatik babesteko maila jakin bat ezar zezatela gomendatu zien Estatu kideei; besteak beste, oinarrizko mugak eta herritarren esposizioaren erreferentzia-mailak ezar zitzatela. Neurri horiez gainera, eremu elektromagnetikoen ondorioei buruzko informazioa jendeari emateko eskatu zien, eta informazio hori formatu egokian taxutzeko. Bestalde, Eskualdeen Batzordeak goi-tentsioko hari elektrikoen eraginari buruzko irizpena onetsi zuen (1999/C 293/03). Eremu elektromagnetikoei gehieneko balioak ezartzearen alde agertu zen txosten horretan, eta goi-tentsioko sareak, hirialdeetan zehar doazen tarteetan behintzat, lurpean instalatzeko agindu behar zuketela esan zien administrazio eskudunei.

Estatuko Administrazioan, berriz, Energi, Ingurumen eta Teknologi Ikerketetarako Zentroak ondorio hau atera du: informazio tekniko eta zientifiko adierazgarrienek orain arte ezin frogatu izan dutela goi-tentsioko hari elektrikoek sortzen dituzten eremu elektromagnetikoen eraginpean egotea jendearen osasunerako arriskutsua denik.

Beraz, azterlan eta ikerketak ikusirik, oraindik ere zalantza da nagusi, eta egoera horren gainean egin behar dugu lehenbiziko gogoeta. Osasunari kalte egiten dioten eragileak behatu eta detektatzeko ardura duten nazioarteko erakundeek aditzera eman dute, modu erabakigarrian ez bada ere, eremu elektromagnetikoen ondorioak ez direla hasierako ikerketetan uste izan zen bezain kezkagarriak. Dena dela, litekeena da epe luzean egiaztatu ahal izatea minbizien sorreran badutela eraginik, eta horregatik mugak jarri zaizkio gizakien esposizioari eta prebentziozko neurriak hartu dira alferrikako esposizioak ekiditeko.

Hortaz, herri botereek kontuz eta arretaz jardun behar dute, eta zuhurtasunaren printzipioaren alde apustu egin behar dute erabakiak hartzerakoan eta aurrekontu-baliabideak erabiltzeko orduan. Badira lehentasuneko arreta behar duten tokiak, babestu beharreko kolektiboen egonlekuak direlako. Toki horiek eremu magnetikoen eraginpean dauden etxebitzitza-eraikinak, ikastegiak eta ospitaleak dira.

Ildo horretan, administrazio eskudunek neurriak hartu behar dituzte eremu elektromagnetikoek gizakien osasunean duten eraginari buruzko informazioa behar bezala zabaldu dadin, hots, herritarrei nahi adina informazio eman behar zaie, formatu ulergarrian eman ere. Aldi berean, esposizioak epe luzean izan ditzakeen ondorioei buruzko ikerketa sustatu behar da, eta kontuan hartu beharreko maiztasun guztiak izan behar dira aztergai.

Zuhurtasun-printzipioa dela eta, egoitzaldeak zeharkatzen dituzten goi-tentsioko hariak (bai energia bideratzeko hariak eta bai banatzekoak ere) programatu eta antolatzeko modu egokiak definitu behar dira. Beste arau batzuen artean, aireko hariak -egoitzaldeen inguruetatik pasatzen diren kasuetan- hirialdeetatik kanpoko korridore elektrikoetara eraman daitezela xedatu behar litzateke, edo lurpean sar daitezela, baina kontrolpean, eremu elektromagnetikoen eraginetik jendea babesteko behar adinako isolamendu-gradua

bermatzeko moduan, zeren eta goi-tentsioko hariak lurperatzeak besterik gabe ez baitu bermatzen kutsadura elektromagnetikoa ezabatuko dela.

## Energia elektrikoa bideratzeko sareak eta sektore elektrikoari buruzko legerian ezarritako jabari-mugak

Elektrizitatea gure gizarteak behar-beharrezkoa duen energi ondasuna da. Beste energi iturri batzuk ez bezala (gasa, petrolioa, ikatza…) energi mota hau ezin da kopuru handietan biltegiratu. Horregatik, sorreraren eta kontsumoaren arteko orekari eutsi behar zaio etengabe. Energi mota hau, hortaz, era egokian eraman behar da ekoizten den lekutik kontsumitzen den lekura, elektrizitatea bideratu eta banatzeko harien sare konplexuaren bitartez. Enpresa elektrikoek, lur urbanizaezinetan zehar hedaturik dagoen energi sare nagusian, eskuarki aireko harien sistema hautatu dute elektrizitatea bideratu eta banatzeko. Hirialdeetan soilik lurperatu behar izan dituzte horrelako energi sareak, hirigintzako planek hartaraturik.

Energia garraiatu eta banatzeko eredua aukeratzeko orduan erabili izan diren irizpide nagusiak hauek dira: sektore elektrikoari buruzko arauak betetzea, eta hornidura prezio egokian bermatu ahal izatea.

Horren ildotik, azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, sektore elektrikoari buruzkoak, abiaburu nagusi gisa jaso du planifikazio elektriko egokia, hau da, energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta hartzaileei helarazteko bide egokien planifikazioa. Horretarako, sektorearen antolamenduak helburutzat izan behar ditu elektrizitate-hornidura bermatzea, kalitateko hornidura eskaintzea eta kontsumitzaileei ahalik kosturik txikiena ordainaraztea, eta ahaleginak egin behar ditu hori guztia bateragarria izan dadin ingurumenaren babesarekin.

Energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko instalazioen eredu zehatzik ez da ageri sektore elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean, ezta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Araudian ere; instalazioak zerbitzu elektrikoaren eraginkortasun, segurtasun eta ekonomikotasun irizpideei jarraituz antolatu behar direla, besterik ez diote arau horiek.

Edozelan ere, instalazio elektrikoek industriaren segurtasun eta kalitateari buruzko arau teknikoak bete behar dituzte. Arau horiek -51.2. artikuluko a) eta f) idatz-zatietan ezarritakoaren arabera- honako helburuak dituzte, besteak beste: "*instalazioen eraginpean egon litezkeen pertsonak eta ondasunak babestea*" eta "*ingurumena eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak babestea*".

Arautegi zehatz horiez gainera, oraindik indarrean dago 3.151/1968 Dekretuaren bidez onetsitako Goi-tentsioko Aireko Hariei buruzko Araudia, aurreko horiekin bat ez datozen alderdietan izan ezik. Bada, araudi horrek dioenez, 30 kV-etik gorako tentsioa duten hari elektrikoak ezin dira jarri hiri-lurzoru gisa kalifikatutako lurretan, eta zenbait kasutan baimena eman daiteke hiri-erreserbakoak diren lurretan horrelako hariak jartzeko, baldin eta lurrok garapen-planik ez badute. Goi-tentsioko hariek hiri-eraikuntzetatik gutxienez 5 metroko distantzia bertikal eta horizontalera egon behar dutela dio araudi horrek. Bestalde, preskripzio bereziak dakartza, hari elektrikoek baso, errepide edo aireportuen inguruak zeharkatzen dituzten kasuetarako.

Arau tekniko horiek diotenez, goi-tentsioko haria jartzeko aurkezten den proiektuan ageri den bezalakoa izan behar da hariaren taxuera, baina litekeena da proiektua

aldaraztea, beharrezkoa izanez gero, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketaren emaitzak ikusirik, halako azterketa egin beharra dagoen kasuetan, edo jendaurreko informazioaren tramitearen ondorioz, edo ukitutako beste administrazioek proiektuari buruz azaltzen duten iritziaren ondorioz.

Sektore elektrikoari buruzko legeriak kasu hauetan bakarrik jartzen dizkie mugak aireko hariei: aintzat hartzen duenean "*eraikin, patio, ikuilu, ikastetxe, kirol-zelai, lorategi eta ortuak*" bezalako tokien gaineko legezko bide-zortasunak ezartzeko ahalbidea (54/1997 Legearen 57. artikulua); edo hariek itsaso-lehorreko jabari publikoko lekuak zeharkatzen dituztenean, hondartzetan edo babes bereziko guneetan (abenduaren 1eko 1.955/2000 Errege Dekretuaren 129. artikulua).

Dena dela, arauan badago jasorik plangintza elektrikoaren eta hiri-antolamendurako planen arteko koordinazioaren printzipioa. Arauak dioenez, horrelako azpiegituren planifikazio egokia lortuko bada, beharrezkoa da hura egokiro uztartzea lurraldea antolatzeko tresnekin, urbanizatzeko ez diren lurretan, edo udal plangintzarekin, hiri-lur sendotuetan eta etorkizuneko garapenetarako diren hiri-erreserbako lurretan.

Hori guztia ikusirik, hona hemen ondorio nagusia: sektore elektrikoari buruzko legeriak ez du ezertxo ere aurreikusten eremu elektromagnetikoek pertsonen osasunean izan dezaketen eragin kaltegarria dela-eta gizartean hedatzen ari den kezkari erantzuteko. Sektore elektrikoari buruzko arauen garapenean, Herriaren Defendatzaileak 2000. urteko txostenean Gorte Nagusiei adierazi zien bezala, alferrik galdu da goi-tentsioko hariak jendea bizi den aldeetatik urruntzeko aukera, ez baita aurrearretazko araurik erantsi arazo horri buruz.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio elektrizitate alorrean legeak eta araudiak garatzea, jendea eta ingurumena behar bezala babesturik egon daitezen instalazio elektrikoek bete behar dituzten baldintzak zehazteko.

Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan adierazten da zein prozedura erabili behar duen administrazioak autonomia erkidegoan instalazio elektrikoak jartzeko proiektuak baimentzerakoan.

Jarraian azpimarratuko dugun bezala, udalek baldintzak ezarri izan dizkiete hiri-lurrak eta lur urbanizagarriak zeharkatzen dituzten hari elektrikoei. Horregatik, interesgarria litzateke xedapenak onestea lur urbanizaezinak zeharkatzen dituzten goi-tentsioko hariek bete beharreko baldintzak ere arautzeko, eta goi-tentsioko harien eta eraikuntzen arteko gutxieneko distantziak finkatzea, eremu elektromagnetikoen balizko eragin kaltegarri guztiak baztertu ahal izateko, edota horrelako azpiegiturek paisaia desitxuratu ez dezaten lortzeko. Araugintza horretan kontuan hartu behar lirateke, halaber, lurpeko goi-tentsioko hariek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta segurtasun baldintzak.

### Hari elektrikoak eta hiri-garapena

Hiri-antolamendurako plan orokorretan, eta, egoki izanez gero, arau subsidiarioetan, zerbitzu nagusien hornidurarako sare publikoen taxuera eta ezaugarriak zehaztu behar dira. Sare horietan energia elektrikoa ere sartu behar da, alegia, etxeak, industriak eta lurretan koka daitezkeen beste jarduera guztiak zerbitzu egokiaz hornitzeko behar den energia elektrikoa.

Hirigintza antolatzeko tresnetan, oro har, energia elektrikoa banatzeko sareak bete behar dituen baldintzak ezartzen dira, biderakuntza-haritik hasi eta kontsumitzaileek energia erabiltzen duten tokietaraino. Baldintza horiek aldatu egiten dira lur-motaren arabera; izan ere, batetik hiri-lur eta lur urbanizagarriak eta bestetik lur urbanizaezinak bereizi beharra dago. Instalazio elektrikoak hirigintzako planekin koordinatu behar direla dioen printzipioa Sektore Elektrikoari buruzko Legearen 5.1. artikuluan dago:

> "*Energia elektrikoa bideratu eta banatzeko instalazioak lur urbanizaezinetan kokatuz gero, edo horrelako lurrak zeharkatuz gero, instalazio horien planifikazioa kontuan hartu beharko da lurraldea antolatzeko kasuan kasuko tresnan. Halaber, eta instalazio horiek hiri-lurretan edo lur urbanizagarrietan kokatzen badira, lurren kategoria edozein dela ere, planifikazio hori hirigintza antolatzeko kasuan kasuko tresnan kontuan hartu behar da, hots, balizko instalazioak zehaztu behar dira, lurrak behar bezala kalifikatu behar dira, eta, bi kasuetan ere, instalazio berriak kokatzeko eta lehendik daudenak babesteko behar diren lur-erreserbak ezarri behar dira.*"

Eskumen horiek erabiliz, udal plangintza gehienetan udalek ondokoa agindu dute: hiri-lurretan sare elektrikoa lurpean jar dadila, edo, lurrak kategoria horretara igaro ahal izateko, lehendik dauden aireko hariak lurperatu egin daitezela. Udalek, beraz, horrelako instalazioak lurperatu beharra ezarri dute, hiri-lurretan eta are lur urbanizagarrietan ere, eta honakoak izan dira udalen jokabide horren oinarriak: sektore elektrikoari buruzko Legeak ezarritako bide-zortasunak direla-eta jabetzak dituen baldintzak, eta estetikarako eta hiri-elementuen antolamendurako parametroak (aipa dezagun, adibide gisa, Bilboko HAPOren 6.3.b artikulua).

Zer egin behar da, orduan, hariak lurperatu beharra sortu aurretik instalatuta zeuden aireko hariekin, eta, lur urbanizaezinetan egon arren, eraikinetatik edo hiria garatzeko erabili behar diren lurretatik gertu dauden hariekin?

Lehendik dauden aireko hariei dagokienez, hiri-lurretan zehar igarotzen diren aireko hariak lurperatu beharra hiri-antolamendurako plan orokorretan edo arau subsidiarioetan jasorik dago, edo egon behar luke behintzat. Antolamenduan ezarritako betebehar hori dela-eta, aireko instalazioak antolamenduz kanpoko araubideari loturik geratu behar lirateke. Antolamenduz kanpoko araubideari loturik dauden instalazioetan, Lurzoruari buruzko Legearen 1976ko Testu Bateginaren 60. artikuluaren arabera, ezin da instalazioa zabaltzeko edo sendotzeko obrarik egin, zenbait konponketa-obra izan ezik.

Lehendik dauden aireko hariak lurperatzea edo lekuz aldatzea, nolanahi ere, lurzatiaren jabeek, hariaren titularrak edo Udal Administrazioak berak proposatu dezaketen lana da. Kasu guztietan ere, aldaketa proposatzen duenari dagokio obren kostuak ordaintzea. Hona zer dioen 54/1997 Legearen 58. artikuluak: "*Halaber, jabeak haria lekuz aldatzeko eskatu ahal izango du, oztopo teknikorik ez badago, eta beraren kontura izango dira lekualdaketaren gastuak. Administrazioak onetsitako proiektu edo planen ondorioz haria lekuz aldatzen bada, berak ordaindu beharko du aldaketaren kostua.*"

Inguruabar horrek izugarri zailtzen du hiri-lurretan dauden aireko banaketa-hari elektrikoen sareak kentzeko egin behar diren hirigintza-jarduketen kudeaketa.

Zailtasun horiek kontuan harturik, beste autonomia erkidego batzuetan erraztu egin nahi izan dira hirigintzako jarduketa horiek, udalek berek eskaturik. Hain zuzen

ere, horrelako jarduketak finantzatzeko dekretuak onetsi izan dira –Madrilgo Autonomia Erkidegoko Gobernuak, adibidez, horrela egin du-, edo, beste kasu batzuetan, alderdi interesatuen arteko hitzarmenak sustatu izan dira, finantzaketaren arazoa ukituriko alderdi guztien artean konpon dadin.

Hirigintzako garapen berrietan urbanizagarri bihurtu diren lurretan lehendik dauden aireko hariei dagokienez, elektrizitatea banatzeko sistema orokor horiek lurperatzera jotzen da, eta obren kostua urbanizazio-kostu orokorrei eransten zaie.

Bigarrenik, energia elektrikoa bideratu eta banatzeko sareek lur urbanizaezinak zeharkatzen dituztenean irtenbidea zein izan ote litekeen argitu behar dugu.

Sektore elektrikoari buruzko Legearen arabera, lurraldea antolatzeko tresnen bidez arautu egin daitezke energia elektrikoa bideratu eta banatzeko sareen baldintzak, hariok lur urbanizaezinak zeharkatzen dituzten kasuetan. Bestalde, EAEko ingurumenari buruzko legerian (Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra) ezarrita dagoenez, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa egin behar da energia elektrikoa bideratzeko lehen kategoriako hariak, hau da, 100 kV-ekoak edo hortik gorakoak, ezartzeko proiektu guztietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago inongo zehaztapenik goi-tentsioko aireko hariei buruz, ez lurraldea antolatzeko gidalerroetan ezta garapenerako lurralde- eta sektore-planetan ere.

Dena dela, sektore elektrikoaren lurralde-antolamendua egokiro garatuz gero, gomendio honetan aipatu ditugun etorkizuneko arazoak konponduko lirateke; batez ere, jendea bizi den aldeen inguruetan dauden aireko hariak lurperatu beharrari dagokionez.

Halaber, beste arazo kezkagarri batzuk, esate baterako paisaiaren itxuragabetzea edo hegaztiak haria jota hiltzeko arriskua, jarduketa-eremu horretan arautzeko aukera egongo litzateke.

## Gomendioak

- Eremu elektromagnetikoek gizakien osasunean epe luzean izan dezaketen eraginari buruzko zalantzak orain arte ezin izan dira argitu ikerketa zientifikoen bitartez. Zalantza horiek hari elektrikoen inguruetan bizi diren herritarren kezka eragiten dute.

  Gai honekin zerikusia duten administrazioek, eta batik bat osasunaren eta sektore elektrikoaren gaineko eskumenak dituztenek, informazioa eman behar lukete, eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginari buruzko ikerketa zientifikoen nondik norakoak jendeari jakinarazteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoak, bere Autonomia Estatutuan eman zaizkion eskumenak erabiliz eta Sektore Elektrikoari buruzko Legeak ezarritako esparruan, goi-tentsioko instalazio elektrikoak arautu egin behar lituzke eta herritarrak egokiro babestu behar lituzke eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginetik; bestalde, arauak ezarri behar lituzke paisaiaren, ingurumenaren eta hegaztien gaineko eraginak murrizteko.
- Udalerrietako hirigintza-planetan, urbanizazio obrei buruzko atalean hain zuzen, goi-tentsioko aireko hariak lurperatu beharra jaso behar litzateke –bai hari berriak

eta bai lehendik daudenak ere- hariok hiri-lurretan edo lur urbanizagarrietan zehar igarotzen diren kasuetan.

- Beharrezkoa da sektore elektrikoaren lurralde-antolamendu egokia, lurperatze hautakorraren politika proposatuko duena hiri-lurretan, lur urbanizagarrietan eta egoitzaldeen inguruetako lur urbanizaezinetan, segurtasun- edo premia-irizpideei jaramon eginez, bereziki zaurgarriak diren zenbait aldetan. Halaber, korridore elektriko deituen baldintzak zehazteko balioko luke, Autonomia Erkidegoko lur urbanizaezinetan energia elektrikoa bideratu eta banatzeko sareak korridore horietatik zehar joan daitezen.
- Goi-tentsioko harien antolamendu eta arauketa egokiak gauzatzearekin batera, eztabaida egin behar litzateke, esku hartzen duten eta onura jasotzen duten eragile guztien artean (harien titularrak, lurren jabe onuradunak…) horrelako jarduketak nola finantzatu behar diren zehazteko.
- Esparru horretan, komenigarria litzateke etapakako plana zehaztea, lehendik dauden aireko hariak lurperatu egin daitezen, baldin eta betebehar horri egokitzen ez bazaizkio, kontuan izanik hari bakoitzak izan dezakeen eragina. Geroago, botere publikoek aurrekontu-ahalegina egin beharko dute laguntza-programa ezartzeko udal administrazioentzat edo hariak lurpera daitezen nahiz korridore elektrikoetara desbidera daitezen sustatzen dituztenentzat.

# 6. DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK: NOLA ERABILI DATUEN BABESA BERMATUTA

Datu pertsonalak dituzten fitxategi ugariei so egiten badiegu, badirudi arlo honetako kexa-kopurua dena baino handiagoa izan beharko litzatekeela.

Baliteke, datu pertsonalak kontrolatzeko ordenamenduak herritarrari aintzatesten dion babes-mailarekin konparatuta, kontrol-mekanismoen sistema oraindik txikia delako izatea, edo beharbada, herritarra oraindik ez delako behar bezala jabetu bere datu pertsonalak babesteko duen eskubideaz.

Ulertzeko modu horrek eta kontzientziazio urriak fitxategien titular batzuei eta erabiltzaileei berdin eragingo liekeela pentsatzeak hemen egingo ditugun hausnarketak aurtengo txostenean sartzera bultzatu gaituzte. Hausnarketa horiek Ararteko erakundeak eskubideak sustatzeko egiten duen ahaleginean justifikatzen dira. Horretarako, herritarrek datuak babesteko eskubidea erabili ahal izateko arreta berezia merezi duten alderdiak landuko ditugu, ukitutako alderdi guztiek dituzten eskubide eta beharrizanei dagokien protagonismoa izan dezaten.

Egingo ditugun gogoetek ez dute zerikusirik bitarteko teknikoekin –etengabe egokitu beharko dira–, burutzen duten lanagatik datu pertsonalen erabiltzaile direnen eta datuok dituen fitxategiaren titularraren jokabidean beti egon behar diren beste faktore batzuekin baizik.

Ikuspuntu horretatik abiatuta, kontuan izan behar dugu konfidentzialtasunaren kultura izenez ezagutzen denak datu pertsonalak dituen fitxategi orotarako balio duela -fitxategiok informatika-bitartekoen bidez tratatuak izan zein ez- eta ez bakarrik ordenamenduak bereziki babestutakotzat hartzen dituen datuak dituzten fitxategietarako. Datu pertsonal guztiak babestuta daude, garrantzi gutxiko datuak ematen duten horietatik pertsonen profila egiteko aukera dagoelako.

Zalantzarik gabe esan daiteke fitxategi guztietan dauden datu pertsonalak –baita herri-administrazioetakoak ere, interes orokorrei erantzun arren– babestu egin behar direla, inork fitxategi horiek sortzeko helburua ez den beste asmo batekin erabili ez ditzan. Bestalde, ordenamenduak justifikatutzat jotzen duen helburua betetzen dutela kontuan izanda, ez dugu zalantzarik egiten datuen tratamendu automatizatuaren abantailez.

Baina helburua legezkoa izateak ez du indargabetzen datuok pertsonalak izatea, eta, beraz, ordenamenduak babestu egiten ditu erabilitako bitartekoari atxikitako arriskuetatik.

Abantailak zalantzarik gabekoak dira, eta ez dago arrazoirik pentsatzeko gure datu pertsonalak dituzten botere publikoen esku utzitakoez bestelako helburuekin sortu direnik. Hala ere, informatika erabiltzean herritarrek dituzten erreparoak ez zaizkigu funsgabeak iruditu behar, intimitate-eskubideari dagokionez, Konstituzioak berak, 18.4 artikuluan, haren erabilera mugatu beharra berariaz aipatzen duela kontuan izanda.

Intimitate-eskubidea urratzea eta horretarako arriskua ez dira informatikarekin sortzen; izan ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko indarreko 15/1999 Lege Organikoa (DPBLO) datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiez arduratzen da, tratamendu automatizatua izan ala ez. Hala eta guztiz ere, badirudi informatikaren ezarpenak datu pertsonalen konfidentzialtasunaren gaia indarberritu egin duela.

Paradoxa badirudi ere, fitxategi automatizatuetako datu pertsonaletara baimendutako pertsonei bakarrik sartzen uzten dien informatikak, baimendu gabeko

pertsonak sartu direla adierazi beharko lukeenak, datu horiek behar ez bezala erabiltzeko arriskurik handiena sortzen du.

Bistan denez, fitxategien segurtasuna *bitarteko teknikoen mailaren* araberakoa da neurri handi batean. Baina edonor konturatuko da ezarpenak bere helburua beteko duela erabiltzaileak datuen konfidentzialtasunaz eta dena delako informazio-sistema behar bezala erabiltzearen garrantziaz ohartzen badira soilik.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziako erabiltzaile bat justifikazio gabe fitxategi batera sartzearen inguruan Entzutegi Nazionak emandako RJCA 1999\3467 epaiak, modu aktiboan zein pasiboan, erabilera desegokia zer izan daitekeen azaltzeko balio dezake: *"...espedienteko dokumentuetan, lurraldeko datu-basera pertsona hori, edo identifikatu gabeko beste pertsona bat, haren zabarkeriaren ondorioz, Zerga Administrazioan burutzen duen lanak justifikatu ezineko arrazoiren bategatik, 17 aldiz sartu izana egiaztatu eta biltzen duten dokumentuetan, base horietako eta bere adierazpenetan adierazitako herritarren datuen konfidentzialtasun zorrotzaren inguruko arrazoi nabariengatik, (...) eta ondorioz, baliteke uneren batean pantaila zabalik utzi izana, norbaitek haren ordenagailua erabili zuenentz zehaztu ezin den arren. Alegazio horiek ez dute, inola ere, datu-basera sartu izana justifikatzen; alderantziz, funtzionarioek duten kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaiak zaindu, sekretuan eta erabateko isiltasunean gordetzeko betebehar berezia kontuan izanda..."*

Herri-administrazioen kudeaketan informatikaren presentzia ia erabatekoak lehen neutroak ziren datuak orain hala ez izatea eragin dezake, tratamendu automatizatuak eskaintzen dituen aukerengatik, hain zuzen ere. Hau da, bakarka garrantzi gabekoak diren datuetatik pertsona baten profila egin daiteke.

Arrisku hori saihestu nahian, ordenamenduak zenbait betebehar ezartzen dizkie fitxategien titularrei, baina betebehar horiekin modu korrelatiboan, eragiten dion informazioa kontrolatzeko aukera emango dioten eskumenak aintzatesten dizkio herritarrari. Auzitegi Konstituzionalaren 202/1999 epaiak honako aipamena egiten du eskumen horien inguruan: *¨...intimitatea bermatzeak adiera positiboa hartzen du gaur eta pertsonaren beraren datuak kontrolatzeko eskubidea dakar berekin; informatika-askatasuna deritzona informatikako programa batean sartutako datuen erabilera kontrolatzeko eskubidea da (habeas data) eta, besteak beste, datu pertsonalak datuok eskuratzea justifikatu zuen legezko helburua ez den beste asmoren batekin erabiltzeari herritarrak egiten dion ukoa barne hartzen du."*

Jarduteko gaitasun hori hezurmamitzeko, ezinbestekoa da herritarrak bidezko egunkari ofizialean iragarkia argitaratzetik harantzago doan informazioa jasotzea.

15/1999 Lege Organikoak, 5. artikuluan, ezartzen dituen zehazpenekin, datu pertsonalak eskatu ahal izateko, aurretiaz datuok emango dituzten pertsonei berariaz eta modu zehatzean horren beri eman behar zaiela adierazten du.

Informazio-eskubide hori eraginkorra izan dadin, datuak babesteko eskubideari lotutako gainerako eskumenekin gertatzen den bezala, eskubide horren existentziaz eta irismenaz ohartu behar gara.

Beharbada, ez dugu zalantzarik egingo hala eskatzen duenari informazioa emateko betebeharraz, baina agian, geure buruari galdetuko diogu ea informaziorik eman behar diogun eskatu ez duenari. Herritarrak bere datuak hartuko dituen fitxategia dagoela jakiteko duen eskubidearen berri ez badakigu edo jakinaren gainean ez bagaude, galdera hori logikoa izan daiteke.

Adibidez, gaixo baten eta haren sendagilearen arteko harremana nolakoa den kontuan izanda, arrazoizkoa da pentsatzea gaixoa laguntza medikoa jasotzeko beharrezko datuak jasota uztearekin ados egotea. Beharbada, horrexegatik egiten diogu galde geure buruari gaixoari horren berri emateko beharraren zentzuaz.

Baliteke, informatzeko beharra alde batera uzten denean, horrek zentzurik ez duela uste delako izatea; izan ere, hasiera batean, gaixoak ez du eskubide korrelatiborik bere datuak erabiltzeko baimena ez emateko.

Jokabide horrek, lehenengo eta behin, goian adierazi dugun legezko betebeharra (DPBLOaren 5. artikulua) alde batera utziko luke, bai eta baimenaz gain, gerora erabili daitezkeen beste eskubide batzuk daudelakoa ere. Datuetara sartu, datuak deuseztatu, etab. dira eskubide horietako batzuk; ordenamenduak eskubidetzat hartzen ditu eta komenigarria da jarduteko irizpideak argitu edo aurreratzea eskubide horiek behar bezala erabili ahal izateko.

Alderdi horri dagokionez batzuetan agertzen diren zalantzak, herritarrak bere datu pertsonalak kontrolatzeko duen eskubideaz behar bezalako kontzientziazioa ez dagoela adieraz dezake.

Informazioak duen garrantzi hori erreparoak edo desadostasunak adierazi dituzten pertsonek aurkeztutako zenbait kexatan ikus dezakegu, euren datu klinikoez baliatzea intimitate-eskubidean muturra sartzea zela uste zutelako.

Kexak jaso zituen informazio-sistema zehatz bat azaltzeko, Osakidetza horren abantailak azaltzen saiatu zuen, baita segurtasun-neurriak ere, baina ikusi dezakegu ez zituela berdin landu gaixoek euren datu pertsonalak babesteko duten eskubidearen adierazpena ziren alderdiak. Ildo beretik, informazio-eskubidea, baimen-eskubidea, sartzeko eskubidea, edo zuzendu eta deuseztatzeko eskubidea, beharrezkoa bada, behar bezala landu ez ziren gaiak ziren.

Kexa horietako batzuek, gainera, inor datu pertsonaletara behar ez bezala sartu ez dadin hartzen diren neurriei buruzko informazioa nahikoa ez dela erakutsi ziguten, eta pentsatzekoa da testuinguru horretan informazio-sistemaren alderdi batek, erakunde honen ustez, funtsezkoa ez zen alderdi batek (zentralizazioa), datuak babestearen inguruko araudiaren ikuspunturik merezi zuena baino garrantzi handiagoa hartu zuela.

Kexa horien (Legebiltzarrari zuzendutako txosten honetako II. kapituluan, Osasunari buruzko atalean, bildu dira) zioz burutu genituen jardueren ondoren, ondorioztatu genuen, diseinuari zegokionean, kexan zalantzan jarritako sistemak segurtasun-neurriak betetzen zituela, baina era berean, beharrezkoa dela, neurri berean, herritarrak behar bezala informatzea eta konfidentzialtasun-kultura deitu duguna sustatzea, bertan aurkitu ahal izango liratekeelako esparru honetan sortzen diren galdera askorentzako erantzunak.

Adierazi dugu datuak babesteko eskubidearen inguruko eskumenak eraginkorrak izateko, eskumen horien existentziaz eta irismenaz ohartu behar garela.

Legean datu pertsonalak babesteko eskubidearen zati gisa bildutako eskumenetako batzuek herritarrek, eskubide horiek erabili nahi dituztenean, formulatu ditzaketen eskaerez arduratzeko erabilgarriak izango diren jarduteko irizpideak garatu edo ezarri beharra dakarte. Sartzeko, baimena emateko edo deuseztatzeko eskaerei buruz ari gara; izan ere, horiek behar bezala erabiltzea, neurri handi batean, zeregin horren araberakoa izango da, zeregin horrek erantzun generikoak edo funsgabeak saihestuko ditu eta.

Horri buruz, hasieran esan dugu ez dela zalantzan jartzen datu pertsonalak konfidentzialak izatea. Baina baliteke aintzatespen hori eraginkorra ez izatea, gauzatzeko

ahalegina egiten ez bada; horretarako, hasiera batean, fitxategiaren administrazio titular bakoitzaren funtzio sektorialekiko zeharkako helburuetarako bitarteko nahikoak beharko dira (diru-bilketa, osasun, hezkuntza, segurtasun eta beste zenbait arlotako funtzioak).

Ahaleginak desbideratzen direla ulertu beharrean, neurri horiek hartzea herri-administrazioen esku jarritako zerbitzuaren garapenari lotutako zerbait bezala ikusi behar da, eta ez kontrako indarren arteko tirabira gisa.

Ez gaude, beraz, xedapen askeko eskubide baten aurrean, herri-administrazio zehatz batek garatzen duen eskumen materialarekiko bigarren mailakoa den eskubidearen aurrean, eta, beraz, jarduera sektorialetan gailendu behar den eraginkortasun-printzipioaren eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen artean oreka egon behar da.

Agiri Klinikoen Batzordeak garatutakoak bezalako jarduerak -Batzordearen 2000. urteko urriko ondorioetan zenbait gomendio biltzen dira informazio klinikoaren konfidentzialtasuna bermatzeko- zeharkako eskubide horren inguruan lan egiteko komenentziaren erakusgarri dira, eta datuak babesteko eskubideari lotutako alderdiei, baliabideen inguruko alderdiei (datuak deuseztatzeko edo baimena emateko balizko eskaerak…), buruzko zalantzak argitzen lagundu dezaketen mekanismoak dira.

Konfidentzialtasunaren kultura sustatzea ahalegin horiei lotuta dago, erabiltzaileen kontzientziazioari kalterik egin gabe, ezin baita pentsatu behin eta berriro adierazitako gaiei (sarbidea, baimena, etab.), erantzuten zailak izan daitezkeen gaiei, buruzko lehenengo erabakia eta/edo erantzuna haien esku geratzea.

Adibide gisa, 15/1999 Lege Organikoak, herritarraren baimen edo onespenari buruzko 6.4 artikuluan, aipatzen dituen egoerak hartu ditugu. Artikulu hori interpretatu edo aplikatzeak galdera asko mahaigaineratzen ditu -batez ere osasun-arloan, hasiera batean baimena behar ez den eremuan-, eta artikulu horren irismena eremu bakoitzean aztertu beharko litzateke, herritarrak bere datu pertsonalak erabiltzeari uko egiteko argumentu gisa har dezakeen bezainbatean.

Berriro ere esan behar dugu datuak babesteko eskubidea osatzen duten eskumenen eraginkortasuna legean modu generikoan adierazitako suposizioak zehazten lagunduko duten irizpideak ezartzearen araberakoa izango dela.

Arazook aztertzeko ezagutza tekniko-juridikoak izan behar izateaz gainera, erabiltzaileari bere lana burutzeko eskatutako ezagutzetatik desberdinak, beharbada, erantzunak homogeneoak izan behar dira eta fitxategiaren titularrak aldez aurretik ezarritako irizpide objektiboak oinarritzat hartu behar dira. Horri dagokionez, erabiltzaileak datuen konfidentzialtasuna hutsik egin gabe errespetatu arren, baliteke gaixoak bere datuekiko dituen eskumenak erabiltzearen inguruko galderentzako erantzuna ez jakitea, eta ez da beti erraza edo erosoa izango, ezta beti beharrezkoa izan behar ere, galdera guztiak fitxategiaren titularrari bidaltzea hark erantzun ditzan.

Gai horiek argitzeko eskumena fitxategiaren titularrarena da; berak argitu beharko du, arrazoiak emanez, gai horien ingurukoa, beraz, hasiera batean, herritarrarengandik gero automatizatu egingo diren datuak jasotzen dituen erabiltzailea –osasun-arloan sendagilea, batez ere- ez da derrigorrez herritarrak tratamendu horri buruz azaldu diezazkiokeen gai edo arazoen inguruan iritzia eman behar duena. Halere, egia da erabiltzailea/medikua, dagokion mailan bada ere, informazio-iturria izan daitekeela eta, beraz, gaixoak datuak babesteko eskubidea behar bezala erabili ahal izateko garrantzitsua izatea.

Datu pertsonalen erabiltzaile diren langileekin batera, fitxategien administrazio titularrak oinarrizko atal dira konfidentzialtasunaren kultura honetan.

Baina administrazioen eginkizuna ez da garrantzitsua, ordenamenduak fitxategietako datu-moten arabera ezartzen duen segurtasun-mailaren arabera, bere informazio-sistemaren inguruko edo bere erabiltzaileen kontrolerako neurri zuzenak hartzeari dagokionean soilik. Administrazioaren egitekoa garrantzitsua da, administrazioak direlako, zerbitzu batzuei dagokienez, herritarrengandik lortutako datu pertsonalak kanpora ateratzea erabakitzen dutenak.

Beste pertsona batzuek datuak erabiltzeko zerbitzuak emateko aukera DPBLOaren 12. artikuluan bilduta dago. Aukera horrek arrisku gehiago sor ditzake, fitxategiaren titular den administraziotik kanpoko pertsonek esku hartzen dutelako.

Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan, Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2002ko ekainaren 11ko Aginduak, beste pertsona batzuek datuak erabiltzea dela-eta, pertsona horiekin sinatutako kontratuetan DPBLOaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak barne hartzeko betebeharra gogorarazten du.

Datuak erabiltzeko lagapenaz gainera, batzuetan zerbitzu publiko baten zeharkako kudeaketa ere beste pertsona batzuen esku utzi daiteke.

Diru-sarrerak biltzeko, nominekin zerikusia duten zereginak kudeatzeko, edo dei larregi dagoenean deitzen dutenei erantzuteko zerbitzuak kudeatzeko enpresa pribatuak kontratatzeko aukera ordenamenduan sartu daiteke, horretarako baldintzak betetzen badira. Esate baterako, diru-bilketa eremuan, sarrerak kudeatzeko administrazio-kontratazioa arraroa izan ez den eremuan, pentsatu behar dugu fitxategiaren administrazio titularrak bilketaren kudeaketa kontratatzen duen enpresa berari aginduko diola datuen tratamendua.

Ez dagokigu guri administrazio bakoitzaren titulartasun diren zerbitzuak zeharka kudeatzeko komenentziari buruzko iritzia ematea. Baina gogorarazi behar dugu bermeak berdinak izan behar direla, eta bete beharreko baldintzak ez direla administrazio-kontratazioaren esparrukoak soilik.

Kontratu horiek ez dute esan nahi administrazio kontratugileek aginpidea erabiltzeari uko egitea, datu pertsonalak lagatzea baizik. Hori dela eta, tratamendu automatizatuari berari atxikitako arriskuez gainera, kanpoko kontratazioak segurtasunerako izan ditzakeen arriskuak kontuan izanda, ezinbestekoa da kontratuko baldintzek datu pertsonalak babesteari buruzko aginduekiko lotura ezartzea, eta aginduok betetzen direla ikuskatzeko aukera emango duten mekanismoak ezartzea, eta, beharrezkoa bada, datuak itzultzea.

Hausnarketa hauen hasieran adierazi dugu datuen konfidentzialtasunari buruzko kontzientziazioa, agian, behar lukeena baino txikiagoa dela. Baina baliteke zenbait esparrutan (adibidez, irismen ekonomikoa dutenak), behar ez bezalako erabilerari esleitzen diogun ukigarritasuna dela-eta, herritarrak kontzientzia handiagoa izatea eta, era berean, hala izatea erabiltzaileak eta fitxategiaren titularrak ere.

Arrazoi beragatik, gizarteak oraindik duen zaurian adierazitako ukigarritasunagatik, esan dezakegu gaixotasun jakin batzuen (GIB edo HIES) inguruan, gaixoaren konfidentzialtasun-eskubidearen inguruan dagoen kontzientziazioa ez dela zauri edo estigma bera uzten ez duten beste gaixotasun batzuen inguruan dagoen kontzientziazioaren parekoa.

Berdinak ez diren egoeren arteko desberdintasunak, eta batzuk besteekiko izan ditzaketen berezitasunak, alderatzeko asmorik gabe, fitxategien titularrek hartu beharreko neurrien ardatz nagusia eta erabiltzaileen jokabidea datuak fitxategia sortzeko helburuarekin bakarrik erabiltzea izan behar da. Ez dago arrazoirik datu pertsonaletara sartu eta datuok erabiltzerakoan konfidentzialtasun-gradua jaisteko. Lege Organikoaren hitzetan, datu pertsonalak *"identifikatutako edo identifikatu daitezkeen pertsona fisikoei buruzko informazio oro"* dira.

Administrazioaren jarduteko eremu zehatz baten inguruan jardun dugu herritarren intimitate-eskubideak, datu pertsonalak babesteari dagokionean, dituen alderdiak argitzeko. Kexak aztertu ondoren atera genituen ondorio eta iradokizun zehatzak ukitutako administrazioari bidali zizkion Ararteko erakundeak.

Hemen egin ditugun hausnarketek, hausnarketa orokorrek, fitxategietan dauden datu pertsonal guztiak, gure kasuan, gure Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen titulartasunpeko datuak, babestea sustatu beharra dagoela gogoraraztea izan dute helburu.

Herri-administrazioei ezarritako betebeharrak, euren esku utzitako interes orokorreko helburuak betetzeari lotutakoak, zeintzuk diren esan gabe, datuak babestearen inguruan, hau da, intimitate-eskubide oinarrizkoaren adierazpenaren inguruan, jardun nahi izan dugu, uste dugulako ez dela behar bezala ulertzen, eta beraz, ukitutakoa eragileek –fitxategien titularrak, erabiltzaileak, eta herritarrak-, batzuetan, konfidentzialtasunaren inguruko kultura urria dugula.

Kultura horren barruan, pentsatu dezakegu datuak babesteko herritarrek dituzten eskumenenak behar bezala erabiltzeko aukera emango duten bitartekoak egongo direla, erabiltzaileek hobeto izango dutela haien irismenaren berri, eta konfidentzialtasunak zor zaion garrantzia izango duela.

Kontzientziazio horrek hainbat adierazpen izango ditu, honako hauek, besteak beste: segurtasun-sistemak ezartzen jarraitzea; datuak erabiltzeko kontratuetan edo zerbitzu bat zeharka kudeatzeko datuok lagatzeko kontratuetan, enpresa esleipendunek DPBLOaren 12. artikulua betetzen dutela zaintzea; datuak erabiltzearen inguruko betebeharrei buruz erabiltzaileei argibideak ematea; edo sartzeko, baimena emateko, deuseztatzeko eskumenak behar bezala erabiltzen lagunduko duten irizpideak ezartzea.

Testuinguru horretan, eskubide hori bermatzeko landu beharreko alderdiei buruz jardun dugun testuinguruan, zaila da informatika erabiltzearen inguruan ezarritako mugak behar bezala kontrolatzeko organo espezializatu batek duen garrantzia alde batera uztea, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak Ararteko erakundeari esleitzen dizkion eskumenei kalterik egin gabe.

Horrela bada, ezin dira guretzat oharkabean pasatu Datuak Babesteko Agentziarentzat ezarritako funtzioak, ezta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeak, gure Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako foru-organoek eta toki Administrazioak sortu edo kudeatutako fitxategien inguruan, datu pertsonalen fitxategien inguruan, datuak babesteko emango duen laguntza ere.

Hori dela eta, hausnarketa hauek amaitzeko, gogorarazi nahi dugu datu pertsonalen erabilera modu eraginkorragoan kontrolatzeko garrantzitsua dela Datuak Babesteko Euskal Autonomia Erkidegoko Agentzia abiarazteko aukera emango duten bitartekoak onetsi eta hornitzea.

# 7. MERKATARITZARAKO LOKALAK ETXE BIHURTZEKO AUKERA EMATEN DUTEN UDAL ORDENANTZAK

## I. Sarrera

Jakina denez, etxebizitza da euskal herritarron kezkarik handiena. Euskal herritarrak kezkatuta daude arrazoizko prezioetan etxebizitza gutxi dagoelako, ez alokatzeko ezta erosteko ere.

Herritarren kezka eta premia horietaz jabetuta, arlo horretan aginpideak dituzten euskal administrazioek –Eusko Jaurlaritzak eta udalek, batez ere- eskari hori asetzeko zenbait politika garatu dituzte. Oro har, egokiak izan dira politika horiek guztiak.

Ekimen horiek abian jarri arren, oraindik ez da konpondu etxebizitza eskasiaren eta etxebizitza garestien arazoa, ezta urrik eman ere. Hori dela eta, lehendik dauden politika publikoak osatzeko ekimenak sortu dira aspaldi honetan hainbat udaletan: azpiegituretarako lursailetan gazte zein nagusientzako apartamentuak eraikitzeko ekimena, besteak beste.

Horren harira, hainbat udalek berariazko ordenantzak sustatu eta onartu dituzte etxebizitzetarako eraikinen beheko solairuetan dauden lokalak etxe bihurtzeko aukera ahalbideratzeko; ordenantza horiek onartu arte era horretako lokalak hirugarren sektorerako baino ezin ziren erabili hirigintzaren ikuspuntutik.

Ildo beretik, eta ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren 4.4 artikuluaren bidez, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du lokalak etxebizitza bihurtzeko laguntzetarako berariazko erregimen bat ezartzeko.

Era berean, komunikabideek aspaldi honetan arreta berezia eskaini diete era horretako ekimenei, eta gai horren inguruko berri ugari kaleratu dira komunikabideetan.

Horiek guztiak kontuan hartuta, uste dugu era horretako ordenantzak Autonomi Erkidegoko beste udalerri batzuetara ere zabalduko direla, eta horrexegatik ekin diogu ekimen horiek aztertzeari.

Azterketa honekin agerian utzi nahi ditugu kontuan hartu beharreko zenbait alderdi, transformazio horien ondorioz sortuko diren etxebizitzek etxebizitza izateko baldintza guztiak bete ditzaten bermatzeko eta hiri-antolamenduaren ikuspuntutik erabileraren aldaketak ekar ditzakeen arriskuei aurrea hartzeko.

## II. Araudiaren aldaketak: justifikazioa

Ekimen honen aitzindari izan diren udaletan –Arrasaten, lehenengo, eta Errenterian, gero- onartutako udal ordenantzak aztertu ostean, aldaketa horiek eta horren ondorioz sortutako araudiak hiru arrazoik bultzatuta gertatu dira.

Lehenengo arrazoia: Euskal Autonomi Erkidegoan etxebizitza gutxi eta garestiak daude. Botere publikoek arreta berezia eskaini behar izan diote arazo horri, eta neurriak hartu behar izan dituzte pertsona orok etxebizitza duina eta egokia izateko daukan eskubidea bete dadin (EK, 47. artikulua).

Bigarren arrazoia: arrazoi asko direla medio, eraikitako ondare asko dago jarduerarik gabe, batez ere, eraikinetako beheko solairuetan. Beste modu batera esanda, eraikinen aprobetxamenduaren zati bat alferrik galduta dago, ez zaio probetxurik ateratzen.

Hirugarren arrazoia: beheko solairuetan etxebizitzak egiteko kontsulta eta eskari asko dago.

## III. Araudien aldaketek berekin izan ditzaketen arriskuak

Beheko solairuetako merkataritzako lokalak etxebizitza bihurtzeko udaletan sustatzen eta onartzen ari diren araudien aldaketek berekin izan ditzakete hainbat arrisku, eta sustatzaileak eurak ere horren jakitun dira.

Arlo hori jorratzen duten ordenantza aitzindarietan dago islatuta arrisku hori; ordenantzen indarraldia ikusi baino ez dago, aldi baterako onartu baitira –Arrasaten 2 urterako eta Errenterian 3 urterako-; epe horiek igaro ondoren, izandako esperientzia aztertu eta baloratuko dute, eta horren arabera erabakiko dute zer egin: ordenantzak bere horretan utzi ala indargabetu.

Gure aburuz, merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzei heltzerakoan, bi eratako arriskuei erreparatu behar diegu.

Alde batetik, kontuan izan behar dugu merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzeak hirigintza antolamenduari arazoak ekar diezazkiokeela, hau da, merkataritza-erabilerak etxebizitzetarako guneetatik atera eta bizitegi horiek lo egiteko gune bihur daitezke, inguru horietako bizilagunen bizi-kalitatearen kaltetan. Era berean, zonalde batzuetan etxebizitza gehiago egiten badira, gerta daiteke inguru horietako azpiegiturek eta gune publikoek gainezka egitea.

Bestetik, erakundeek zaindu egin behar dute hortik ateratzen diren etxebizitzek izan ditzaten gaurko egunean erabilera horretarako eskatzen diren baldintza guztiak; neurriak hartu behar dira ez daitezen etxebizitza eskasak merkaturatu.

Lehen esandakoaren haritik, ekimen horiek sustatu dituzten udalek jakin badakite hasiera-hasieratik arrisku horien berri, eta horrexegatik hartu dituzte hainbat neurri arriskuak ezabatzeko edo, besterik ez bada, gutxitzeko.

Interesgarria iruditzen zaigu neurri horiek aztertzea eta batean zein bestean hartutakoak alderatzea, ondorioak ateratzeko eta zenbait gomendio egin ahal izateko.

## IV. Ordenantzetan datozen neurrien azalpen alderatua

Aurreko atalean aipatutako arriskuen multzo biak bereiztuko ditugu azalpena zein ondorengo azterketa egiteko.

### 1. Hirigintzaren ikuspegitik, erabileraren aldaketek ekar ditzaketen arazoak arintzeko neurriak

Hirugarren atalean aipatu ditugu merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzeak ekar ditzakeen arriskuak: alde batetik, eremu batzuk lo egiteko zonalde bihurtzeko arriskua, eta, bestetik, inguru horietako azpiegiturek eta gune publikoek gainezka egiteko arriskua.

Horretara, bada, honako hau ikusi dugu:

1.1. Errenteriako Udalak onartutako Ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz, ordenantza hori ez dago etxebizitzetarako hiri-lurraren edozein eremutan ezartzerik, lortu nahi den hiri-eredua lortu ahal izateko eremu jakin batzuetako beheko solairuak hirugarren sektorearentzat gorde behar direlako. Arrazoi horren eraginez, ordenantza onartu aurretik ikerketa bat egin zen, eta ikerketa horretan oinarrituta erabaki dute zehaztea zein eraikinetan egin daitekeen ordenantzak ahalbidetzen duena.
Arrasateko Udalak onartutako Ordenantza, ostera, hiri lurzoruko bizitegi eremu finkatu osoan ezar daiteke.

1.2. Ordenantza bietan ezarri dute kontribuzio ekonomikoa hirigintza karga bezala, Udalak espazio irekietarako behar den lurzorua eros dezan, eta hirigintzari buruzko legedian espazio irekietarako ezarritako kopurua betetzeko.

2. **Era horretako etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak bete ditzaten -etxebizitza duinak eta egokiak izan daitezen, alegia- hartu beharreko neurriak**

- Lehendabizi, solairuak etxebizitza bihurtzeko izan behar dituen ezaugarriak zedarritu behar dira. Ildo horretatik, Errenterian beheko solairuetara mugatu dute aukera hori, eta beheko solairu izateko solairuaren eraikitako azaleraren ehuneko berrogeita hamarretik gora eraikinaren erreferentzia-kotarekin bat etorri behar da. Era berean, Ordenantza horretan berariaz jaso da sotoak etxebizitza bihurtzeko debekua. Arrasaten etxebizitza bihurtzeko eremutik kanpo geratu dira sotoak eta erdisoto izaera duten lokalak, beste lokal batzuekin loturan ez dauden kanpo aldeko perimetroaren itxituren %50 baino proportzio handiagoan, berdin diolarik zein erabilera duten. Erdisototzat hartzen da beheko solairutik behera dagoena eta metro bat baino gehiago irteten duena, eraikinarekin lotura duen lur-arraseko edozeinetan.
- Bizigarritasun-baldintzei dagokienez, Errenteriako Udala arau subsidiarioetako eraikuntzei eta lurraren erabilerari buruzko ordenantza orokorretan ezarritakoa hartzen du aintzat oro har, nahiz eta zehaztasun bat edo beste ere sartu duen. Hona hemen zehaztasun horiek lantzen dituzten alderdiak: etxebizitza berria intsonorizatu egin behar da, fatxadari dagokionez eraikinaren osaketara eta materialetara egokitu behar da eta irisgarritasun-baldintzak ezartzen ditu.
- Irisgarritasuna dela eta, etxebizitza berri horietarako sarbidea eraikinaren barrutik ibiltzeko elementuetatik egin behar da; salbuespenez eta baldintza batzuk betez gero, baimena ematen dute eraiki gabeko pareko eremutik sartzeko.
- Arrasate Udalaren Ordenantzan zehaztu egiten dira erabilera aldatzeko lokalek bete behar dituzten bizigarritasun-baldintzak: etxebizitzak gutxienez azalera erabilgarri eta programatu zehatz bat izan behar du, finkatu egiten dira gelen gutxieneko azalera eta zabalera, gutxieneko altuera librea eta gelak banatu, argiztatu eta aireztatzeko baldintzak.
- Errenteriako Ordenantzan aipatutakoak beste modu batera azaltzen dira Arrasatekoan. Esate baterako, intsonorizatzeko baldintzak ipini barik, Arrasateko Ordenantzan jasota dago baimenik ez emateko aukera, baldin eta lokalarekin

mugan eta lokaletik hurbil dauden lokalek etxebizitzarekin erabilera bateragarririk ez badaukate. Lokaleko sarbidea dela eta, baldintza bakarra ezartzen du, ez du salbuespenik aurreikusten: etxebizitza bihurtu nahi diren lokalek sarbide bat izan behar dute eraikineko komunikazio bertikaleko nukleotik. Arrasaten ez dago ezer zehaztutako fatxaden baldintza estetikoei buruz.

## V. Aztertutako ordenantzetan proposatutako neurriei buruzko balorazio kritikoa

### 1. Hirigintzaren ikuspegitik sor daitezkeen arazoak leuntzeko neurriei buruz

1.1. Arrasateko Udalak onartutako Ordenantza etxebizitzetarako hiri-lur osoan ezar daiteke, beraz, teorian, udalerri horretako merkataritza lokal guztiak izan daitezke etxebizitza bihar-etzi, eta horrek ez luke ondorio onik ekarriko. Etxebizitzetarako eremuetan erabilera bat baino gehiago izatea ona da, babestu beharrekoa, baldin eta erabilera horiek etxebizitzen berezko erabilerarekin bat badatoz. Ikuspegi horretatik, Errenteriakoa hobea da, aldaketak egiteko mugak jartzen dituelako, eta eremu jakin batzuetako beheko solairuak hirugarren sektorerako gordetzen direlako.
Etorkizuneko udal ordenantzetan kontuan izan beharko litzateke alderdi hori. Horretara, egin beharreko azterketak eta ikerketak egin ostean, mekanismoak ipini beharko lirateke neurri horren eraginpean dauden etxebizitzetako eremuetan merkataritzako azpiegitura batzuk bermatzeko.

1.2. Ordenantza bietan dator hirigintza karga; neurri egokia da hori, aukera ematen dielako udalei espazio irekietarako lurzorua erosteko.
Nolanahi ere, badago neurri hori hobetzerik. Horretarako, aurretiaz finkatu beharko lirateke erabilera horren eraginpean egon daitezkeen lurzoruak.

### 2. Etxebizitza duinak eta egokiak bermatzeko neurriak

Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluarekin bat etorriz, espainiar guztiok daukagu etxebizitza duinaz eta egokiaz gozatzeko eskubidea, eta aginte publikoei dagokie eskubide hori gauzatzeko behar diren baldintzak eta arauak sustatzea.

Ikuspegi kualitatibotik, bada, Konstituzioak exijitu egiten du etxebizitza orok zein duintasunezko baldintza bete behar duen: higieneari eta segurtasunari buruzkoak eta leku- zein erosotasun-premiei erantzuteko egokitasunari buruzkoak.

Aurreko atalean, onartutako ordenantza horien analisia egiterakoan, aipatu dugu zein den udalen kezkarik handienetakoa: hortik ateratzen diren etxebizitzek gaurko egunean erabilera horretako eskatzen diren baldintza guztiak (higienea, bizitzeko egokitasuna, erabilera bateragarriak,...) izatea eta alderdi hori zaintzea.

Ordenantza horiez gain, badaude arlo horrekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten xedapenak. Alde batetik, garrantzitsuena, Eraikuntzaren Ordenamendurako azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3. artikulua eta, bestetik, ondare urbanizatu eta

eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan datozen xedapenak.

Horiek guztiak kontuan hartuta, aztertutako bi ordenantza horietan jasotako erabakiak onuragarritzat jotzen ditugu, nahiz eta gure ustez egon badauden hobetzeko moduko alderdiak.

### Intimitatea eta segurtasuna babestea

Normalean, beheko solairuetan etxebizitzak egiteko aukera eskaintzen duten hiri antolamendurako planetan jaso egiten dira etxebizitza horietako erabiltzaileen intimitatea eta segurtasuna babesteko zehaztasunak, mugak edo murrizketak.

Esate baterako, Donostia-San Sebastian Hiriko Udalak 1995ean onartutako Hiri Antolaketaren Plan Orokorrak aukera ematen du eraikin berrietako bastardeetan etxebizitzak egiteko –etxebizitzako gelak argiztatu edo aireztatzeko tarteen ertza espazio publikoetako urbanizazio mailatik 2,20 metroko altuerara egon behar da-. Era berean, beheko solairuetan terrazarik edo etxebizitza horrentzako lorategirik badago, pareko eta fatxadako espazioen artean 3,00 metroko sakonera gorde behar da gutxienez, eta kanpoko aldetik banantzeko gutxienez 2,00 metroko altuera daukan itxitura ipini behar da; hirigintza arloan indarrean dauden udal ordenantzetan ezarritako tratamendu-baldintzetara egokitu behar da itxitura.

Etorkizunean etxebizitza horien erabiltzaile izango direnen intimitatea eta segurtasuna babesteko borondatea dago horren guztiaren atzean.

Argi dago ez dagoela baldintza horiek aztertzen ari garen ordenantzetan aurreikusitako kasuetara zabaltzerik, lokalak etxe bihurtzea ezinezkoa gertatuko litzatekeelako kasu gehienetan, guztietan ez bada.

Betebehar horiek eraikuntza berriei eskatzen zaie, baina ezin zaie ezarri etxebizitzetarako hiri-lurrean dauden lokalen aldaketei. Hori dela eta, udalak arazo horretaz jabetu eta ordenantzetan sartu egin beharko lituzkete era horretako etxebizitzen balizko erabiltzaileen intimitatea eta segurtasuna zaindu eta babesteko baldintza batzuk.

Arazo hori konpontze aldera, honako hau proposatzen dugu:

a) Ahal denean, behintzat, ordenantzetan aurreikusi egin beharko litzateke erabilera aldatzeko baimenak baldintza batzuen pean emateko aukera, hau da, baimena lortu ahal izateko eska daiteke etxebizitzak berena soilik den terraza edo lorategia izatea.
b) Ontzat hartzen da Arrasateko Ordenantzan ezarritako muga, erabilera publikoko ataripeko barrualdeetan dauden fatxadetan tarteak irekitzeari buruzkoa. Arrazoi horregatik komeniko litzateke mugak ezartzea mugimendu handiko inguruetan.
c) Ontzat hartzen da Arrasateko Ordenantzan sarbideari buruz ezarritakoa. Izan ere, Ordenantza horren arabera hauxe bete behar da derrigorrean: etxebizitza bihurtu nahi diren lokalek sarbide bat izango dute eraikineko komunikazio bertikaleko nukleotik, hau da, ez dute zuzeneko sarbiderik izango bide publikotik. Hala behar izanez gero, badago neurri hori osatzea berariazko debeku batekin, hau da, jaso liteke ez dagoela etxebizitza horietara beste etxebizitza batzuetatik edo beste erabilera bat daukaten lokaletatik sartzerik (debeku hori jasota dago

autonomi erkidego mailan bizigarritasun-baldintzak arautzen dituzten araudi batzuetan, analisi hau egiteko aztertu baitira).

d) Babes ofizialeko etxebizitzen diseinurako ordenantzak onartzen dituen 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren 4. idatz-zatiaren 5.3.b artikuluan jasotakoarekin bat etorriz, ordenantza hauetan ere betekizun hau sartu beharko litzateke: etxebizitza horietara erraz sar badaiteke, intrusismoaren aurka babestu behar dira argia sartzeko tarteguneak.

### Funtzionaltasun, segurtasun eta bizigarritasun baldintzak

Aztertutako ordenantza horiek aipatutako lege horiekin osatuz gero, bermatu egingo lirateke bizitzeko baldintza egokiak.

Nolanahi ere, obrak egiteko eta erabilera aldatzeko eskariekin batera aurkeztu behar izaten diren proiektu teknikoei eskatu egin behar zaie justifikatzeko zer-nolako baldintzak izango dituzten hortik ateratzen diren etxebizitzek, hau da, bete egin behar dituzte arauetan funtzionaltasunari, segurtasunari eta bizigarritasunari buruz datozen baldintzak.

Horien guztien osagarri, Errioxako Komunitateko urriaren 4ko 51/2002 Dekretua aipamena egin gura dugu, gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen baitira xedapen horretan; neurri horiek interesgarriak izan daitezke era horretako ordenantzetan sartzeko. Errioxako Dekretu horretan, bada, hauxe eskatzen da: beheko solairuetako etxeak lurrarekin joten daudenean, solairua isolatuta egon behar da aire-ganbara baten bidez edota beste konponbide termiko baten bidez, eraberritutako eraikinetan lursailaren eta zolarriaren beheko aldearen arteko tartea (20-15 cm) bermatzeko.

Ildo beretik, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. eranskineko 8. idatz-zatian aurreikusitakoa aipatu behar dugu. Aurreikuspen horren arabera, beheko solairuan etxebizitzaren bat dagoenean, isolamendu termikoa eta iragazgaiztasuna bermatu beharko dira, material hidrofugo eta isolatzaile egokien bidez.

Amaitze aldera, udalen betebehar bat nabarmendu behar dugu: hartu beharreko neurriak hartu behar dituzte etxebizitza horiek zaratatik babesteko, baita kasu bakoitzean ezarri beharreko irisgarritasun-arauak betearazteko ere.

## VI. Ondorioak eta gomendioak

1. Beheko solairuetako merkataritza lokalak etxebizitza bihurtzea ahalbidetzen duten ordenantzak onartzeko udalek erabilitako arrazoiak ulertzeko modukoak dira.

2. Edozein modutan ere, arlo horretan aginpidea duten herri-administrazioak jabetu egin behar dira araudi horiek ekar ditzaketen arriskuez, eta arretaz aztertu behar dute zelan arautu hori guztia balizko arrisku horiek gutxitu edo ezabatzeko.

3. Etorkizunean onartuko diren ordenantzetarako zein egun indarrean daudenak aldatzeko, komeni da Arrasate eta Errenteriako Ordenantzetan jasotako hainbat zertzelada –gomendio honetan ontzat jo direnak- kontuan hartzea eta proposatutako hobekuntzak sartzea.

Laburbilduz, zenbait iradokizun eta proposamen egin nahi dizkiegu udalei, eta, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzari, kontuan har ditzaten. Hona hemen:

- Gaur egun dauden etxebizitzen eremuetan gutxienez merkataritza arloko azpiegitura batzuk mantendu eta gordetzea.
- Eros daitekeen lurzorua ab initio mugatu beharra, etxebizitzetarako gorde behar diren espazio libreen ratioa betetzeko.
- Ekimen horretatik ateratzen diren etxebizitzak behar den modukoak izan daitezen eta etxebizitza duinak eta egokiak egin daitezen, ordenantzetan gutxieneko baldintza batzuk ezarri beharra. Helburu hori lortzeko, jadanik onartuta dauden ordenantzak eta hemen proposatutako hobekuntzak kontuan hartzeko gomendioa egiten dugu.

# VII. ATALA

# ONDORIOAK.
# ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikuluak, Arartekoaren erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: "*Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio*".

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta euskal erakunde publikoek hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak erakusten duten errespetua.

2002. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Hala ere ezin dugu ahaztu ETAk 2002. urtean 5 pertsona erahil dituela, tarte honetan eskubideen urratzerik larriena izanik.

Mehatxuak eta estortsioak herri-ordezkari hautetsi, epaile, fiskal, kazetari, enpresari, alderdi politiko eta sindikatuen militante eta euskal hiritarren bizitzeko, integritate fisikorako eta adierazpen askatasunerako eskubideak mugatu dituztela ere gaitzetsi behar da.

Etikak agintzen duen legez, euskal hiritar askorentzat oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak ahuntzaren gauerdiko eztula direla adierazi behar dugu. euskal hiritar mehatxatu bakar bat dagoen bitartean, hiritar guztiek edukiko dugu askatasun gutxiago.

Gauza horiek oso larriak izanez gero, kapitulu honetan egiten den balorazioak euskal erakunde publikoaren jarduera eta jarduera honek ekarri duen eskubideen haustea ukitzen ditu.

Konstituzioaren testuan agertzen den lehenengo izenburuan egiten den eskubideen azterketaren arabera egituratzen da kapitulua, Arartekoari Lege arautzailearen 1.1 artikuluak egozten baitio horren defentsa.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako II. kapituluko sarrera bakoitzean administrazio-jardueraren arlo ezberdinak eta hiritarren eskubideekin dauzkaten harremana aztertzen dira.

Hasierako hurbilketaren bidez, Arartekoaren eta Estatuko gainerako ordezkari parlamentarioen txostenetan Espainiako Konstituzioaren I. izenburuko bigarren kapituluan azaltzen diren eskubideen urratzeen gaineko kexak oso gutxi direla eta normalean horrela izaten dela esan dezakegu, hau da, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoen urratzeen gaineko kexa gutxi izan direla. 2002. urtean ere horrela izan da.

Aurrekoaren isla gisa, gizarte eskubideen gaineko kexak dira aurkeztutako kexa gehienak, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzeak ere -erakunde

publikoak eraginkortasuna eta zuzenbidearen printzipioak erabiliz jardutera behartzen ditu erakunde publikoak, beti legea eta zuzenbidearen mende, interes orokorren zerbitzuan beti -.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 14. art.**
  *"Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako diskriminazioa ezin da nagusi izan."*

Berdintasunaren printzipioarekin zerikusia dute eskubide eta askatasunekin lotutako kexa gehienek.

Erakunde honen oinarrizko kezkarik handienetariko bat botere publikoaren jarduera diskriminatzailea ez izaten saiatzea da, Konstituzioaren testuan aurreikusitako edozein zergatiaren ondorioz.

Berdintasunerako eskubidearen haustea askotan beste edozein eskubidearekin lotu behar dela zehaztea komeni da. Beraz, eskubide horiek aztertzen direnean, batzuetan, printzipio hori ukitzen da.

Bestalde, argi dago berdintasunerako eskubidearen hausterik larrienak esparru pribatuan ere gertatzen direla, batez ere laneko harremanetan, familiakoetan eta abarretan, eta laneratzeko eta lanean irauteko baldintzetan edo familiako arduren zamaren banaketan dauden desberdintasunetan agertzen direla.

Herri botereek, pertsonen arteko benetako eta izatezko berdintasuna sustatzeko konstituzioaren eta estatutuaren agindua betez, berdintasun hori gauzatzea lortzeko neurriak hartu beharko dituzte.

Horren ildotik, esan behar da, bizitza publikoan berdintasuna sustatzeko esparru pribatuan ere ematen diren bereizkeria egoerak ere ezabatu behar direla. Horregatik, printzipioz irakurketa positiboa merezi behar duten neurriak daude, hala nola, Eusko Jaurlaritzaren familia eta lan bizitzak uztatzeko ekimenak, zeren, generoa dela-eta rolen banaketa desberdina erabat errotuta dagoen esparruan eragiten dutenez, gerta bailiteke etxeko ardurak gizon eta emakumeen artean oreka handiagoz banatu beharrean, tradizioz emakumezkoentzat hartu izan diren eginkizunetarako emakumeen papera sendotzeko balio izatea.

Atzerriko pertsonen eskutik ere agertu dira kexak, arrazakeriarengatik diskriminatu dituztela salatzeko.

Batzuetan pertsona horiei berdintasunaren printzipioarekin bat ez datorren tratu bat emateagatik sortzen dira diskriminazioak; beste batzuetan, ordea, esparru pribatuan sortzen dira diskriminazioak.

Atzerritarrak direlako, besterik gabe, poliziek beraiengana dituzten jarduera eta jarreren aurkako kexak jarri dira, pertsona horiekin bai eta beste guztiekin ez esku hartzea justifikatzen duen bestelako arrazoi objektiborik gabe.

Batzuetan, zergen alorrean, zerga araupetzen duten arauek bereizkeriako tratua sartzen dute, justifikaziorik gabe, eta horrek berdintasun hatsarrearen aurka jotzen du

Hartara, PFEZ araupetzeko Gipuzkoako Foru Arauak banandutako, dibortziatutako edo ezkontza baliogabetzen zuen epaia zuten pertsonei familiengatik kenkariak

aplikatzeko aukera ematen zien, baina pertsona ezkongabeak kanpoan lagatzen zituen, egoera zibilari zegokionez ezik, bestelakoetan egoera berean egon arren. Egoera horrek berdintasun hatsarrea urratzen zuen, eta hala onartu zuen Gipuzkoako Aldundiak, gure erakundean gomendioa onartu eta Batzar Nagusiei foru arau horretako zenbait artikulu aldaraztea proposatu zienean. Hori jasotzen zuen aldaketa egin zen.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZEKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. art.**
  *"Guztiek dute bizitzeko eta integritate fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita."*

Botere publikoek hiritarren bizitzeko eta integritate fisikorako eskubidea errespetatzen dutela zaindu behar du Arartekoaren erakundeak.

Etikak agintzen duen legez, ETA erakundeak eskubide horiek sistematikoki hausten dituela salatu beharra dauka.

Bizitza edo integritate fisikoa galtzeko mehatxupean bizi diren hiritar asko daude.

Egoera honek, biolentzia darabilena degradatu egiten duena, guztion ardura da.

Beharrezkoa da 2001ean 5 bizitza desagerrarazi dituen ekintza totalitario horren kontrako gaitzespen aktiboa erakustea, baita terrorismoaren biktimekiko solidaritaterik minena erakustea ere.

Egoera horrek jarraitzen duen bitartean, Arartekoaren erakundeak, bere idatzi ofizial guztietan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluaren lema agerrarazten du euskaraz eta gaztelaniaz: "*gizaki guztiek dute bizitzeko, askatasunerako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea*", baita ETAri EZ esamoldea ere.

Emakumeen kontrako biolentziak bizitzeko eta integritate fisikorako eskubideen hausterik larrienetako bat osatzen du gaur egun, erakunde bermatzaile hau ezin da bihozgabe agertu horren aurrean, orokorrean eraso sexiten kasuetan esku hartzeko ahalmenik ez badu ere.

2002 urtean genero indarkeria jasan duten emakumeentzako erakundeen artapenaren gaineko txostena egiten aritu gara. Funtsezkoa da herri botereen erantzuna tratu txarrak pairatutako emakumeen beharretarako egokia izatea, genero indarkeria errotik moztea pertsonen arteko izatezko berdintasunak soilik ahalbidetuko lukeela jabetzen garen arren.

Bereziki gaitzesgarria den beste indarkeria mota bat haurren tratu txarrak dira. Adingabeei tratu txarrak sarritan familiaren esparruan ematen zaizkielako egitateak zailago egiten du antzematea.

Erakundeen ikuspegitik, asko dira halako ekintzei erantzuteko orduan tartean sartuta ager daitezkeen herri botereak: mediku, gizarte, hezkuntza, epaitegi eta abarretako zerbitzuak. Horregatik, inplikatutako herri erakundeen arteko akordioak behar dira,

jarduera horiek koordinatzeko protokoloa ezartzeko, tratu txarrak jasan dituzten adingabeen interesik handienaren ikuspegitik beti.

2002 urtean Ertzaintzak atxilotutakoei ukitzen dieten tratu txar eta torturen salaketa batzuk jaso dira.

Erakunde honek gai horretan izandako jarduerak nagusiki prebentziora bideratu izan dira. Hala ere, salaketa zehatz horiei dagokienez, Herrizaingo Sailera jo genuen, eta 300 bat orrialde dituen dokumentazio ugaria eman digute, une hauetan aztertzen ari garena.

Bestalde, Ertzaintzak kale borrokarekin zerikusia dutelakoan atxilotutakoen gainean egindako polizia txostenak ikuskatu dira.

Gogoratu behar dugu erakunde hau sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluak dioela Arartekoak ezin duela epaitegien esku dauden edo epaileen ebazpena jaso duten kontuak ikertzera sartu. Jakin badakigu atxilotuen atxiloketa, inkomunikazioa eta espetxeratzea epaile batek baimendu dituena, eta epaileari dagokio atxilotuen eskubideak zigor prozeduran zehar zaindu eta babes daitezen bermatzea. Agintaritza judizialak soilik dauka balizko ez-legezkotasunak ikertzeko eta horien ondoriozko zigor erantzukizunak ezartzeko eskumena.

Horregatik, erakunde honek Ertzaintzari buruzko tortura eta tratu txarren salaketen aurrean egin dezakeena ez doa kasu zehatzen ikerketaren bidetik, eta hartara, esku hartzeko daukagun bide bakarra prebentzio lanarena eta polizien jardueren etengabeko ikuskapenarena da, jarduera ez-legezkoak saihesten edo, bestela, aurkitu eta zehatzen lagunduko duten mekanismoak ezartzeko.

Horren ildotik, Eusko Jaurlaritzari urteroko txostenak aurkeztean, Arartekoaren erakundeak behin eta berriro azpimarratu du zigor gabetasuna babes lezaketen espazio eta denbora opakuak ezabatu behar direla, pertsona guztien eskubideen errespetuaren berme gisa: atxilotzen dituzten pertsonek tratu txarrik eman ez diezaieten duten eskubidea, baita atxiloketa, ikerketa edo galdeketetan esku hartzen duten poliziek gezurrezko salaketekin irain ez dezaten duten eskubidea ere.

Halakoak errotik mozteko lehenengo baldintza badirela edo, gutxienez, egon litezkeelako benetako ahalbidea onartzea da. Eta, ondorioz, ikuspegi nagusiki prebentziokotik, halakoak saihesteko bitarteko guztiak jarri behar dira. Denok dakigu zer-nolako bitartekoak diren:

· inkomunikazio aldiak ezabatzea;
· grabaketarako bitarteko teknikoak erabiltzea;
· abokatuak eta epaileak egotea eta esku hartzea polizien ikerketetan;
· erakunde bermatzaileak, aurretiaz jakinarazi gabe, atxiloketa tokietara agertzea;
· presio bidez lortutako informazioen baliorik eza;
· berehala epailearen eskuetan jartzea polizien aurrean ezer ez esateko eskubideari eusten dioten pertsonak…

Eta prebentziozko bitartekoak nahikoak ez badira, neurri eredugarriak erabiltzea:

· ofiziozko ikerketa tratu txarren susmorik badago;
· poliziari salaketak argitzen laguntzea;
· azkartasuna –atzerapenik ez– epaiketetan;

- zigorren betetze eredugarria;
- eta gure sisteman ia kontuan edukitzen ez den zerbait: biktimaren kalte edo mina ongitzea.

Azkenean, prebentzio neurriak nahikoa izan ez badira, funtzionatu behar duen berme mekanismoa epaitegietakoa da.

Esperientziak, ordea, torturei buruzko prozedurak denboran ikaragarri luzatzen direla erakusten digu, batzuetan hamabost urte ere, eta horregatik atzera eragiteko eragingarritasuna galtzen dute, ustez tratu txarrak jasan dituztenen izatezko eta alferrikako atzerapenik gabeko epaile tutoretzarako eskubidea urratuz.

Garbi dago tortura salaketei buruzko epaitegietako prozesuak arindu behar direla.

Gogoratu behar dugu 1999an Arartekoaren erakundeak Herrizaingo sailari, prebentziorako asmo horrekin, ziegen eremuko korridoreetan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ezartzeko gomendioa luzatu ziola, atxilotutakoen eskubideak urratuko zituen poliziaren jarduerarik ez egotea bermatzeko prebentzio neurri gisa, baita Ertzaintzaren izen ona funtsik gabeko balizko kexa edo salaketetatik babesteko ere.

Herrizaingo sailak gomendioa onartu zuen arren, Ertzaintzaren ziegetara egin ditugun bisitetan egiaztatu ahal izan dugu, oraindik, oro har, eta denbora luzea joan den arren, ez dela halakorik jarri. Herrizaingo sailak ez die, halaber, grabaketak kontrolatu eta erregistratzeko ezarri dituen mekanismoen gaineko gure informazio eskariei erantzun.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua.**

  *"1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulu honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.*

  *2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritza judizialaren eskuetan uzteko askatuko da*

  *3. Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*

  *4. 'Habeas corpus' prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko."*

Legezkotasunaren errespetuaren kontrola batez ere instrukzio penalaz arduratzen diren organo judizialek gauzatzen dutela bistakoa da. Hala ere, legeak erakunde honi egozten dion hiritarren eskubideen babesaren funtzioak kautelazko neurri hori xehetasunez zaintzera behartzen gaitu.

Gorputz miaketaren eginkariaren praktika, zeinen gainean erakunde honek gomendio orokorra - 2001eko txostena- eta udaltzaingo desberdinen jardueren gaineko

gomendio zehatzak eman dituen, kexa gai da oraindik ere, neurriaren beharra eta egokitasuna frogatzen ez deneko justifikaziorik gabeko biluzteak salatzen baitira. Horrelakoak planteatu dira Donostiako udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren jarduerei dagokienez.

Bereziki aipagarria da protesta ekitaldi baketsu batean pertsona bat, Ertzaintzak euskaraz eskatu arte identifikatzera ukatu zelako, atxilotu eta polizia etxean biluzarazi zutenekoa.

Ertzaintzak burututako ekintzetako polizien txostenak ikuskatzean, atxilotutakoen bermean eraginik handiena izan lezaketen kontuan begiratzen dira bereziki: epaileen baimenak, epaitegiko idazkaria etxeen miaketetan egotea, mugimendu guztiak agirietan jasota egotea, epaitegietako medikuen eta epaitegietako segizioaren bisitak, ospitaletarako irteerak eta medikuen azterketak …

Beste kontu batzuk, hala nola, atxiloketaren iraupena laburtzea, ziegetako egonaldiaren baldintzak hobetzea (jatekoa, argia) eta atxiloketaren hasierako uneetan abokatuaren laguntza edukitzea erakunde honen esku hartzearen helburu dira.

Atxilotuak preso zergatik hartu duten jakin behar du, eta hala agerrarazi behar da atxiloketaren aktan.

Berme tramite hori bat ere betetzen ez dela behin eta berriro salatu dugun arren, Herrizaingo sailak ez ditu LECr-ren aurreikuspenak betetzeko behar diren neurriak hartu eta, hori, egindako proposamenaren xumetasuna kontuan izanik, are ulertezinagoa zaigu.

## 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 18.1. artikulua.**
  *"Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da."*

Beldurra dago Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetan teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzeak herritarren zenbait eskubide eta, bereziki, intimitaterako eskubidea urratzea eragin lezakeela. Isilekotasunaren inguruko kautelak hartzen dira, datu pertsonalak dituzten fitxategi ugariak daudelako, bitarteko informatikoen bidez tratatuak zein ez, eta bereziki babestutzat jotakoak zein ez.

Herritarrek beren datu pertsonalak babesteko duten eskubideak fitxategiak ikusteko, baimena emateko edo ezabatzeko eskarietan nola jardun behar den ezartzen duten irizpideak garatzea eskatzen du.

Herri administrazioek beren informazio sistemari buruz isilekotasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri ez eze, hirugarren konturako datuen tratamendu zerbitzuen prestazioaren aukera ere kontuan izan behar dute.

Herritarrek gero eta kontzientzia handiagoa daukate irismen ekonomikoa duten datuen isilekotasunaren gainean, edo norberaren barruragoko esparruetako, esaterako, datu medikuen kontuen gainean, batez ere hiesak bezala gizartean nolabaiteko estigma jasan behar duten gaixotasunen kasuetan.

Hartara, zenbait elkarteren iritziz, VIH kutsadura berriak erregistratzeak intimitatearen eskubideari uki liezaioke. Erakunde honen ustez, ordea, sistemak ez zien norbanakoen eskubideei ukitzen, ez baitzuen erregistratutako pertsonak identifikatzeko

ez eta, ondorioz, kutsadura berrien erregistroko datuen eta norbanakoen historia klinikoen arteko konexiorik egiteko ere aukerarik eskaintzen zuen daturik jasotzen.

Osakidetzak pazienteen datuen tratamendu zentralizaturako Osabide izeneko sistema ezartzeak pertsona askorengan kezka sortu zuen, pazienteen datuen isilekotasuna urratzen zelakoan. Osakidetzak datuen sistema zentralizatuaz emandako informazioa aztertu ondoren, 994/1999 Errege Dekretua errespetatzen zela ondorioztatu genuen.

Hala ere, gogoratu behar dugu neurri teknikoak bezain garrantzitsua jarduera honetan esku hartzen dutenek erabiltzen dituzten datuen izaeraz jabetzea da.

2001ean aurkeztutako gorputz miaketaren eginkariaren gaineko gomendio orokorrean, azaldu genuen Arartekoa kezkatuta zegoela erakunde honen iritziz nortasunaren esparrurik barrukoenean argi eta garbi jotzea dakarren esku hartzea ohitura modura erabiltzeagatik.

Garbi dagoela ematen du barrukotasunerako *ez eze* integritate moralerako eskubidean egiten den urraketa, halakorik egitea justifikatuko bada neurri hori hartu beharra, lortu nahi den helburu zilegirako egokitasuna eta biluztearen eta horrek ukitutako pertsonaren esfera juridikoan eragindako kaltearen arteko proportzionaltasuna oinarritzen dituzten banan-banako ingurumariak egon beharko baitira.

Zoritxarrez, praktika hau, lehen esan dugun bezala, ohikoa da udaltzaingoek eta Ertzaintzak egiten dituen atxiloketetan.

## 2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 23.2. artikulua.**
  *"Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera."*

Erakunde publikoek berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipioak errespeta ditzan lan egiteko joera dauka erakunde honek, baita publizitatearen esparruan ere, enplegu publikoan nagusi izan behar baitute Konstituzioak horrela aginduta. 2002. urtean langileak aukeratzeko prozesu batek baino gehiagok izan du erakunde honek esku hartzeko beharra..

EAEko Administrazio Orokorraren esparruan esan behar da epaitegiek OPE 2000ren markoan bidean zeuden hautespen prozedura guztiak eten egin dituztela. Egoera horrek erakunde honek behin eta berriro salatu duen praktika irregular bati, hau da, enplegu publikoko eskaintzen absentziarenari amaiera ematen zioten prozesuak geldiarazi ditu eta, horrek, besteak beste, bitarteko langileak zirenek beren zerbitzu harremana normaltzerik ez izatea ekarri du.

Gasteizko udaleko OPEari dagokionez, administrazioko laguntzaileen multzoari dagokion hautespen prozesuak kexa ugari eragin ditu, aurkaritza faseko ariketa bat garatu zen moduarengatik, baina ez dugu azterketa berrikustea eskatzeko beste irregulartasun zantzurik aurkitzerik lortu.

Erakunde honek jarduera bat egin du bertan bizitzeko eskubidea duten atzerritarrek euskal herri administrazioek deitzen dituzten enplegu eskaintzetara aurkeztu ahal izan dezaten, eta aldi baterako kontratuen ordezkoen zerrendetan edo lan burtsetan sartu ahal izan daitezen.

Osasun esparruan, Osakidetzaren 2002ko OPEan aurretiazko esperientziaren lehentasunezko balorazioa zalantzan jartzen zuten kexak jaso ziren. 1989ko uztaila baino lehenagotik lanean ari diren behin behineko langile funtzionarioek eta behin behineko estatutuko langileek tratu desberdina jasotzen dute aurretiazko esperientziaren balorazioari dagokionez, eta ez dugu desberdintasun hori egitea justifikatzen duen arrazoi objektiborik aurkitu, Osakidetzara lotzen dituen harreman formal desberdinetik harantzago.

Poliziako funtzio publikoaren esparruan, zenbait herritarrek galdetu dute ea polizia izan ahal izateko gutxieneko altuera bat exijitzeak ez ote den berdintasun hatsarrea urratzea izango. Araudiak muga hori jartzea ahalbidetzen du, bete beharrekoen ikuspegitik zentzuzkoak eta egokiak diren funtzio publikora sartzeko baldintzak ezartzeko aukera onartzen duen eta behin eta berriz eman den konstituziozko jurisprudentziaren haritik baitoa.

Irakaskuntzako funtzio publikoaren esparruan, hasieran 2002rako aurreikusita zegoen OPE atzeratzeak behin behinekotasun egoera beste urte betez luzatzea ekarri du.

Bitarteko lanpostuak bete edo ordezkatzeko prozesuen gaineko kexetan, hutsuneen esleipenean akatsak egon direlako ondorioak jasan behar izan dituztenen interesak ongitzen saiatu gara, horrela dela jakindako kasuetan, gutxienez gerorako ordezkapenetarako eskaintzetan egiteari utzitako zerbitzuak gutxienez aitortuz.

Aparteko arreta merezi du hautespen prozesuetako ezgaituen partaidetzak. Hartara, ahalmen urrikoa zela aitortuta zeukan pertsona batek azterketa praktikoak egitera berdintasun baldintzetan aurkeztu ahal izateko behar zituen egokitzapen teknikoak eskatu zituen, batez ere denbora gehiago eman ziezaiotela. Osakidetzak onartu zuen hautagai guztiek benetako eta izatezko berdintasun baldintzetan parte hartu ahal izateko beharrezko neurriak ezartzea.

Ezgaituek hautespen prozesuetan parte hartzeari dagokionez, erakunde honek gomendio orokor bat planteatu du, hau da, oro har, «ezgaituek EAEko enplegu publikoari eutsi ahal izateko sustapen neurri gisa erreserba kuota» ezartzearena.Gomendio honetan komenigarri irizten zaio erreserba kuotak egun dakarren portzentajea gehitzeari, behar diren lege aldarazpenak bideratuz. Gainera, erreserba kuotaren aplikazioa funtzio publikora sartzeko deialdi eta prozedura guztietara hedatu behar da, behin betiko sartzeko suposamenduetan ez eze, baita bitarteko edo aldi baterako kasuetan eta barne sustapeneko prozesuetan ere.

## 2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 24. art.**

  *"1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik."*

  *"2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen*

*prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nork bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere.*
*Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitzeko arauak jarriko ditu legeak."*

2002. urtean zehar, azken urteetan gertatu den bezala, prozedura judizialen atzerapenekin lotutako kexa gutxi jaso dira. Edozelan ere, justizia-administrazioaren funtzionamendu arruntaren denbora eta epeak luzeegiak direla ikusten da berriz ere hiritarren ikuspuntutik.. Berandutze hauek jurisdikziozko esparru guztiak hartzen dituzte, eta nabarmenena Justizia Epaitegi Gorenean tramitatzen diren administrazioarekiko auzi-bideko prozesuen gehiegizko iraupena da.

Zergen esparruan, zergak ediktuen bidez jakinarazteak dakartzan arazoak azpimarratu behar dira, ordainagiriaren bidez aldizka kobratzeko zergei dagokienez. Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga dira mota honetakoak.

Horrek esan nahi du, zergetako jakinarazpenetan indarrean dagoen jakinarazpen adierazi, pertsonal eta banakoaren arau orokorraren aurrean, zerga hauetan lehenengo likidazioa soilik jakinarazi behar zaiola pertsonalki zergadunari, zeren hurrengo urteetan ordainagiriak ediktuen bidez eta kolektiboki jakinarazten baitira.

Joan zen urtean nabarmendu genuen zenbait toki-administraziok egindako ahalegina, Bilboko Udalarena edo Gasteizko Udalarena, besteak beste, urtean zehar ordaindu behar diren zergei dagokienez borondatezko aldian egiteko ordainketen datak hiritarrei modu indibidualean jakinarazten dituztenak, eta banku-helbideratzeak sustatzen dituztenak. Hau guztia ordainagiria premiamendu bidetik ez sartzeko eta ondorioz kitapenaren kontrako aurkezpena aurkeztu ahal izateko.

Bilboko udalaren beste ekimen batek, «kartarako ordainketa» izenekoak, zergadunei zergak bankuetan helbideratuz eta zatika ordaintzeko aukera eskaintzen die. Ekimen honek, ordea, arazo bat sortzen du, hau da, behin ordainagiri guztiak ordaindu ondoren, ez zaiela herritarrei zergak ordaindu izanaren frogagiririk bidaltzen.

Trafiko araudiaren urraketaren ondoriozko zehapen prozedura baten esparruan postaz bidalitako jakinarazpenek huts egin dutenean, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan aurreikusitako betekizun formalak bete behar dira, defentsarik ezeko egoerak saihesteko.

## 2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 25.2. art.**

  *"Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere."*

Arartekoaren erakundeak duela urte batzuetatik hona salatu ditu Euskadin kokatutako hiru presondegietako egiturazko hutsuneak, eta Konstituzioaren aginduak esaten duena betetzeko oztopoak dira hutsune horiek, hau da askatasuna kentzen duten penek lortu behar duten heziketa eta birgizarteratzearen kontrako oztopoak. Hartara, salatu egin dugu penak erregimen itxian betetzeko sailik ez egotea, Basaurin emakumeentzako modulurik ez izatea, zentro guztietan gazteen modulurik ez izatea, emakume presoak euren hiru urtetik azpiko umeekin bizi ahal izateko lekurik ez izatea eta beste hutsune batzuek ere. Euskadiko preso asko euren ohizko helbidetik oso urrun dauden presondegietara joatea eragiten dute horiek guztiek. Horrek erauztea pairatzeko aukera areagotzen du sarri, eta askatasuna kentzeak gizartetik kanpo biziaraztera bultza dezake presoa, kondenatuaren familiak jasotzen dituen kalteak ahaztu barik.

Eskumenezko arrazoiengatik, kolektiboek zein erakundeek terrorismo delituengatik zigortutako pertsonen egoerari buruz, bisitak, gutunak, ikasketak zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak, gaixotasun larriak dituztenak kartzelatik ateratzeak, eta abarrak hizpide dituztela jarritako kexak Estatuko Arartekoarengana bideratu ditugu.

Aipatu behar da, bestalde, espetxean egon ondoren aske irteten diren pertsonek diru laguntzak jasotzeko orduan eta, zehazkiago, espetxetik irtetean langabeziako sorospena jasotzeko orduan oso atzerapen handiz hartzen dituztela ikusi dela.

Gizarte Ongizateko Sailburuordearen jarduera, hau da, diru sorospen hori jasotzea bermatzeko kredituzko lau euskal erakunderekin itunak sinatzea, pertsona horiei berriro gizarteratzen laguntzeko sostengu garrantzitsua da.

Presoen osasun artapenari dagokionez, Osasun Sailak presoek eskatutako artapen jarduerei buruz, artapena ez dela Osakidetzako zentroetara joaten diren beste pertsonei ematen zaienaren desberdina, baina berdintze hori ez da oraindik erabat lortu espetxeetan ematen den artapen espezializatuan.

Espetxearen programa alternatiboak, esaterako berriro deliturik ez egiteko prest ageri diren gazte batzuei espetxeaz bestelako konponbidea eskaintzeko sortutako Ametzagaña Pedagogia Zetroa bezalakoak garatu behar direla eta garatzea komeni dela esaten jarraitu behari dugu, behin eta berriro.

## 2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 27. art.**

  *“1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.*

  *2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.*

  *3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*

  *4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*

  *5. Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*

  *6. Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*

*7. Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzatutako ikastegien kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
*8. Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
*9. Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
*10. Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera."*

Heziketarako eskubidea prestazio-eskubide bat da eta horregatik litzateke egokiagoa gizarte eskubideekin batera lantzea. Hala ere, Konstituzioaren idatzian agertzen denez eta aukeratutako metodoa dela-eta, atal honetan aztertua izango da.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza mailan, haurren hezkuntzaren lehenengo zikloak konpondu gabeko erronka bat izaten jarraitzen du.

Erakunde honen jarrera, gai honi buruz, adierazi izan da Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako urteko txosten desberdinetan, eta Hezkuntza Sailburuari ere zuzenean jakinarazi zaio.

Erakunde honek beti defendatu izan du gizarte eta ekonomia aldetik maila txikieneko eremuak, eta hezkuntza eta hizkuntza behar bereziak dituzten ikasleak lehentasunez artatzeko aukera eskainiko duen hezkuntza eskaintzaren plangintza egin behar dela.

Bestalde, 0 eta 3 urte bitarteko zikloan, onarpenerako berariazko arau edo irizpide batzuk ezarri behar direla ere berretsi dugu.

Duela gutxi abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua argitaratu da, 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolak araupetzen dituena, iragankorki, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetarako. Esan behar da dekretu honek hurrengo antolamendu baterako lagatzen duela onarpen irizpideen arauketa, eta haur eskolen mapa egiteko ildoak ematera mugatzen dela. Itxaron beharko dugu balorazio behin betikoa egin ahal izateko.

Nolanahi ere, aipatu behar da hezkuntza Administrazioak 2002 urtean zehar jarraitu duela bere gain hartu gabe, alderantziz baizik, ahalmenez urriak diren haurren eskolatze goiztiarrean laguntzeko bereizketa positiboko neurriak hartzea.

EAEn dauden hezkuntza behar bereziei dagokienez, esan behar dugu, Hezkuntza Sailak erantzuten ez duenez, ez gaudela Eusko Legebiltzarrean gai honetaz aurkeztu genuen txostena betetzearen gaineko baloraziorik egiteko moduan.

Bereziki behartsuak diren ikasle gehiago artatzen dituzten eskolei baliabide gehiago eman behar zaiela azpimarratu behar dugu, berriro ere.

Zeharo lehentasunezkoa da, era berean, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak modu orekatuan banatuko direla bermatzeko behar diren neurri guztiak hartzea, benetako «eskola ghettorik» ez sortzeko.

Unibertsitateko irakaskuntzaren mailan, EHUn jarraitzen den onarpen eta matrikulazio prozesuari buruzko hainbat kexa jaso ziren eta, zehazkiago, Arte Ederren Fakultateari zegokionez. 2002an prozesu horiek kudeatzeko onartutako araudi berriak amaiera eman die lehenago bereizten ziren onarpen eta matrikula epeei.

Benetan onerako dira, halaber, EHU ikasle ezgaituak integratzea lortzen saiatzeko hartzen ari den neurriak. Hartara, oztopo arkitektonikoak ezabatzen ari dira, ikasle ezgaituei sostenguko langileak jartzen ari zaizkie, eta garraio egokiko beharrak finantzatzeko laguntzen sistema artikulatu da.

# 3. HERRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

## 3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK

- **Espainiako Konstituzioaren 31. art.**
  *"1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.*
  *2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.*
  *3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira."*

PFEZren gaineko gaur egungo araudiak zerga honengatik ordaintzeko moduaren aukera aldatzea zerga Administrazioak edozein jarduera egin arte ahalbidetzen du eta, horrek, zio horrengatik jarritako kexak nabarmen gutxitzea eragin duen arren, jarraitzen du gaitasun ekonomikoaren hatsarrea bermatu gabe.

Zerga Administrazioak, sarritan, kudeaketa eta diru bilketaren eragingarritasun irizpideak lehenesten ditu gaitasun ekonomikoaren konstituzio hatsarrearen errespetuaren gainetik.

Zenbait esperientziak, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiaren «Rentanet Etxean» edo helbideratutako zergen «kartarako ordainketa» direlakoek prozedurazko zenbait kontu ongitu beharko dituzte, zergadunentzako berme guztiak hedatu ahal izateko.

Toki-zergei buruz, Ondasun Higiezinen gaineko Zergak kexen aurkezpena eragiten jarraitzen du, antzeko ezaugarriak dituzten ondasun higiezinen balorazio ezberdinaren ondorioz.

Gipuzkoan katastroko balorazioen berrikuspenak indarrean jartzeak prozedurazko zioen ondoriozko kexak eragin ditu.

Tokiko zergen esparru honetan, pertsona multzo batek zerga egitate berberaren aurrean subjektu pasibo jarrera partekatzen duenean, tokiko ogasunek, justizia materialeko hatsarre batengatik, likidazioak titular kide gisa ageri diren pertsonetako bakoitzari bidali edo udal zergen ordainagiriak horietako bakoitzari galdatu beharko lizkiokete, bere partaidetza kuotaren proportzioan.

## 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 33. art.**
  *"1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.*
  *2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.*
  *3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera."*

Ondarezko erantzukizunaren figurak herritarrek herri zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz beren ondarean jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko duten eskubidea adierazten du.

Herri administrazioek ez dute onartu nahi eragindako kalteen ordainaren izaera objektiboak ez dakarrela herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran errurik edo axolagabekeriarik izan behar izatea, zeren nahikoa baita herri zerbitzuen funtzionamendu normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko lotura dagoela frogatzea.

Erantzukizun kasuen estaldura aseguru konpainiekin kontratatzen duten euskal udalei gogorarazi behar zaie horrek ez dituela antolamenduak administrazioei egozten dien erantzukizun zuzenetik libratzen. Hartara, konpainiak aurkako txostena egiteak ez du esan nahi, inondik ere, Administrazioak ez duenik eragindako kalteengatik erantzun behar, lege antolamenduaren zeharo aurkakoa baita ondarezko erantzukizuna onetsi edo ezesteko aseguru konpainiaren irizpidean oinarritzea.

Beste aldetik, ezin dugu ahaztu jabetza pribaturako eskubidearen edukia eskubide horri egokitzen zaion funtzio sozialak mugatzen duela, eta funtzio horren adierazpenetariko bat udalen hirigintza-ordenamendua dela. Lursail baten jabeek eraikitzeko edo lurra erabiltzeko daukaten muga interes sozial eta orokorraren bitartez justifikatzen da, udalaren hirigintza planarekin bat, hiri eta herrien zentzuzko garapenaren ondorioz. Horregatik, jaso dituen kexak jasota ere, Arartekoarengana hirigintzaren ustiapenaren mugak edo bere jabetzari aginte publikoek derrigorrez ezarritako erabilpena zalantzan jartzeko jotzen duten hiritarren interesak babesteko eskuduntzarik ez du erakunde honek.

Indarreko araudiak dio jabeei onartutako hirigintzako ahalmenak legeek ezarritako mugen barruan ulertu behar direla beti eta, edonola ere, une bakoitzean onartzen diren erabilpen eta eraikuntzak antolatzen dituen udaleko hirigintza planeamenduaren barruan.

## 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK)

### 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikuluak.**
  *“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”*
  *“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesa izango dute.”*

Familiaren babesaren alorrean eta «Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundeen arteko Plana»ren jarraipen gisa, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 16ko 176/ 2002 Dekretua eman du, non bigarren seme-alabarengandik aurrerako jaiotza eta adopzioetarako diru laguntza unibertsalak jasotzen diren, baita erditze eta adopzio ugarietarako ere. Dekretu honek igurikapen handiak eta, aldi berean, kexa ugari ere piztu ditu, batez ere hirugarren eta hurrengo seme-alabengatik eta adopzio edo erditze

ugariengatik ematen diren laguntzen bateraezintasun araubidearengatik, horrek, hitzez hitz aplikatuta, bereizkeriazko tratua sortzen baitu, haur bikien jaiotza ordena zein den arabera.

Benetan kezkagarria da bakarrik dauden atzerriko adin txikikoen egoera, eta hazten ari den talde bat da, Bizkaiko Lurralde Historikoan batez ere. Foru aldundiak benetako ahaleginak egiten ari dira erantzun egoki bat emateko baliabide eta zerbitzu espezifikoak martxan jartzeko.

Azpimarratu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik dauden adingabeen dokumentazioa izapidetzeko ezarri duen irizpideak, hau da, ez dela tramitaziorik hasten harik eta adingabearen harreratik bederatzi hilabete igaro arte, oso ondorio txarrak ekartzen dituela, urte osoan beraiekin egindako lana baldintzatu duten ondorioak, hain zuzen.

Ez dago adingabe atzerritar horiek eskolatze arazoez ondo arduratu ahal izateko behar beste lankidetza hezkuntza Administrazioarekin.

Benetan kezkagarria da babesean hartutako adingabe atzerritarretatik asko eta askok erreforma zentroetan amaitzen dutela.

Barnerapena ezartzen zaien adingabe lege-urratzailerik gehienak babes zentroetatik datozenez, horrek pentsarazten digu babes sistemetan zerbait huts egiten ari dela.

Adingabe lege-urratzaileekin dagoen arazo nagusietako bat barnerapen epea agortu eta adingabeak bere ingurune naturalean integratu edo beste zerbitzu batzuetan artatu behar dutenean sortzen da.

Administrazioa egoera konplexu horiei aurre egiteko erantzun egokiak diseinatzen ari da.

Terrorismo delituetan inplikatuta dauden adingabeei, hau da, Entzutegi Nazionalak esku hartzen dueneko kasuei dagokienez, zigor neurriak beren familia inguruneetatik gertuago bete ahal izan ditzaten formulak garatu behar dira.

Azkenik, behin eta berriz esango dugu adin txikikoentzako lege baten beharra dagoela EAEn, esparru honetan erreferentziak eta jarraibideak ezartzeko.

## 4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua.**

  *"1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.*

  *2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez*

  *3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute."*

Herritarren osasun gaietako kexarik gehienak prestazio jakin batzuetarako irismen irizpideen edo itxaroteko zenbait zerrendaren kudeaketaren gainean dira, izatezko edo berezko artapenaren gainean baino gehiago.

Lehenik eta behin gero eta eskari handiagoa artatzeko antolaketa egokia garrantzitsua dela gogoratu behar da, dauden baliabide materialak eta giza baliabideak mugatuak direla kontuan izanda.

Lagundutako ugalketako zerbitzuek prestaziorako irizpide homogeneoak ezartzea exijitzen dute, eta sexu aldaketarako kirurgiak, konplexua izanik, beste autonomia erkidego batzuetako osasun zerbitzuekin koordinatzea eskatzen du.

Funtsezkoa da Osasuneko Lurralde Arteko Kontseiluan sexu arteko patologia egoeratzat zer hartu behar den zehaztea, eta prestazio hori betetzat zein mailatan jo behar den finkatzea.

Espetxeetako osasun artapenaren alorrean, aurrerapenak izan diren arren, preso gaixoak gainerako herritarren artapen maila bera izatetik urrun daude oraindik -batez ere artapen espezializatuaren alorrean-. Artapen psikiatrikoa ere aipatu behar da, aurreko urteetan jada planteatutako berariazko zenbait esparrutan bitarteko gutxiegi dagoelako, hala nola buruko gaixo kroniko eta larrien artapenean, edo haurren eta nerabeen artapen psikiatrikora bideratutako baliabideetan.

VIH kutsatu berrien informazio sisteman edo Osabide sistema zentralizatuan datu medikoen isilekotasunak ere kezka sortu du hainbat herritarrengan.

Azkenik, esan behar da buruko gaixoen ez-borondatezko osasun artapenean buruko osasun zerbitzuek gaixoentzako nahitaezko tratamendu anbulatorioen bidez esku hartzea komeni dela planteatzen dutela, ondorengo barnerapenak ezarri behar izatea saihesteko. Irtenbide honek, ordea, ez dauka beti epaitegietako organoen babesik.

## 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua.**
  *"1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea,baita hura zaintzeko betebeharra ere.*
  *2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.*
  *3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute."*

Sailkatuak deritzen jarduerek sortutako ingurumeneko afekzioen gaineko kexek, kasu askotan, kutsadura akustiko eta atmosferikoko kasu suposamendu larriak jartzen dituzte agerian.

Ostalaritzako establezimenduek, hala nola, taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomikoek zarata, kirats eta ke traba handiak eragiten dituzte. Hala ere, ostalaritzako jarduerak ez dira ingurumeneko erasoak egiten dituzten bakarrak, badira-eta beste zenbait jarduera, besteak beste, ibilgailuen konponketarako tailerrak, akademiak, industria jarduerak edo soinketa tokiak, ingurumenari erasotzen diotenak.

Herritarrek uste dute udal agintaritzek, oro har, ez diotela arazo honi aurre egin nahi, eta ez dituztela arazo horiek konpontzeko behar diren zehapen zein hertsapen neurriak hartzen.

Aipatu behar da, onerako delako, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko apirilaren 18ko ez-legezko proposamena, non ordutegien dekretua ez betetzearen ondorioak etengabe jasan behar dituzten herritarrei bere babesa adierazten dien, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari Ikuskizun Publiko eta Jarduera Gozagarrien Euskal Kontseiluaren bidez behar diren neurriak hartzeko lan ildoa ezar dezan eskatzen dion.

Erakundeen konpromiso horrek 1991tik eskatzen ari garena berrestera garamatza, hau da, sailkatutako jardueren lizentziak funtzionamenduko lizentziak deritzenen barruan sartzen direla eta, horregatik, baimena ematen duen administrazioak etengabe kontrolatu behar dituela. Horretarako, funtsezkoa da administrazioak beren eskumenekoak diren ikuskaritza eta kontroleko eginkizunak betetzeko behar dituzten bitartekoez hornitu behar dira.

Jarduera industrialek sortzen duten kutsadurari buruzko kexa asko jaso dira. kasu askotan duela zenbait hamarkada funtzionatzen duten industriaz ari dira, kokatzen den udalaren ekonomiarako funtsezkoak izanik.

Udalek, oro har, ahalegin handiak egiten dituzte jarduera horiek legean sartzeko, behin funtzionamendua legeak ezartzen dituen kutsatzeko mugei egokituz gero, zuzentzeko behar diren neurrien bidez.

Ibilgailuen zirkulazioak sortzen duen kutsadura akustikoa, gero eta nabariago, ingurumenari egiten zaion erasorik ohikoena da.

Gero eta gehiagotan salatzen da tokiko administrazioek ez dutela ezer egiten etxeko animaliek eragiten dituzten traba eta deserosotasunen aurrean. Horregatik, asko dira animaliak eduki eta babestearen gaineko araudiak onetsi dituzten udalerriak.

Ingurumenaren aldetik, kezkagarria da tentsio altuko lineak egotea, inguruneko paisaian eta hegaztiengan duten eraginarengatik.

## 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua.**
  *"Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrarekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.*
  *Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du."*

Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonak etxebizitzaren garestitasunak eta merkatu libreak ezartzen dituen zailtasunek kezkatuta daude, azken urteetan izandako igoera orokorren ondoren etxebizitzak hiritar gehienentzat lortezinak baitira.

Etxebizitza lortzeko arazoak dituzten pertsona askok administrazioek eta promotore pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten sustapenen bitartez besterik ezin dutela etxebizitza bat lortu esan nahi du horrek. Adjudikazio prozesuak erabakitzeko zenbait irizpide objektibo ezarri behar dira, zeren babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenak eskaintzen diren etxebizitza kopurua baino askoz ere gehiago baitira.

Jasotzen diren kexa gehienek etxebizitzen esleipenaren prozesuan sartzeko irizpideren bat zalantzan jartzen dute.

Gutxiago bada ere, sustapen ofizialeko etxebizitzen eraikuntzaren ondoriozko arazoak eta akatsak planteatzen dira oraindik ere.

Etxebizitzak garesti eta gutxi daudeneko testuinguru honetan, hainbat udalek berariazko araudiak sustatu eta onetsi dituzte, egoitzazko eraikuntzetako beheko solairuetan dauden eta orain arte hirugarrendar erabilpenetara xedatuta zeuden lokalak

etxebizitza bihurtu ahal izateko. Ateratzen diren etxebizitzek bizitzeko gutxieneko baldintzak bete ditzaten bermatzeko behar diren neurriak hartu beharko dira, hau da, etxebizitza duin eta egokiak direla bermatu eta etxebizitzatik beherako ezer izan daitezen ekiditeko.

Bestalde, berriro ere esan behar dugu mahatsa eta patata biltzera etortzen diren sasoikako langileen bizi baldintzak dekretu bidez arautu behar direla, instalazio horiek bete behar dituzten gutxieneko baldintza eta betekizunak ezarriz.

Aurreko urteetan bezala, lurraren euskal arau baten beharra aldarrikatu behar dugu, egun dauden xedapen legalak moldatu eta sistematizatzeko eta, besterik ezean, lurraren prezioaren areagotzea murrizteko.

## 4.5. URRITU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK)

- **Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua.**
  *"Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten."*

Erakunde honek jarduera asko egin ditu gure herri eta hirien ordenamenduan irismena, aginte publikoei ezgaitasunak dauzkaten hiritarrak hiri-ingurura, gune publikoetara, eraikinetara, garraiobideetara eta komunikabideetara irits daitezen neurri zehatzak eskatu die.

Eraikin publikoen irismenak agintarientzat lehentasuna izan behar du, batez ere gizarte zerbitzuak ematen dituzten eraikinena.

Horregatik, 2002an aparteko txosten berezi bat egin dugu, herri eraikinetako irismena nolakoa den jakiteko. Bertan, besteak beste, oraingo egoera zein den eta euskal udalerrietan herri eraikinetako oztopo arkitektoniko guztiak ezabatzeko zer plan eta egitasmo dagoen ere jakin nahi da. Txosten hau aurki aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarrari.

Ezgaitasuna daukaten pertsonek aparkatzeko leku erreserbatuak lortzeko zailtasunak aurkitzen jarraitzen dute, askotan erreserbak eskubide barik erabiltzen dituztenen solidaritate faltarengatik eta gauza hauen aurrean udal askok erakusten duten pasibotasunarengatik.

Hezkuntza Administrazioak askotan utzi ditu erantzun barik heziketa-behar bereziak dituzten 0 eta 3 urteren arteko umeen eskolatzeko eskakizunak eta horregatik, hain zuzen ere, ezin izan dute garaiz eskolan hasi.

Ezgaituek dituzten zailtasunik handienetako bat lan merkatuan sartu ahal izatea da. Arartekoaren erakundeak 2002an aparteko txosten berezia egin du arazo honen inguruan, datozen hilabeteotan aurkeztuko dena.

Ezgaituak funtzio publikoari eutsi ahal izateari dagokionez, egun kolektibo horrentzat gordetako kuotaren portzentajea gehitzea planteatzen da.

Bestalde, astialdiko jarduerak eskueran berdintasunez izatea oinarrizkoa da kolektibo horren erabateko integrazioa lortzeko. Ezgaituen eskubideak defendatzeko elkarteek nabarmendu dute zinemara joateko ere zailtasunak dituztela zeren, ezgaituentzat gordetako tokiak badauden arren, toki horiek lehenengo lerroan baitaude, eta horrek jarduera horretara berdintasun baldintzetan heltzeko duten eskubidea izugarri mugatzen die. Legerik inondik urratu ez arren, komeniko litzateke enpresen interesa eta ezgaituen eskubideak eta segurtasun arauak nolabait uztartzeko formulak bilatzea.

## 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua.**
  *"Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoak konpontzeko."*

2001ean gizarte zerbitzuen alorreko betekizunen banaketa ezartzen zuen 155/2001 Dekretuaren garrantzia nabarmendu genuen. 2002ko ekitaldi honetan aipatu behar da akordioak gauzatu direla, zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta Eudelen artean gizarte eta osasun aldeko artapenaren gainekoa, herritarren arazo asko, batez ere hirugarren adinekoen arazoak konponduko dituena.

Eskumena duten administrazioen konpromisoa kontuan izanik ere, adineko pertsonak zaintzeko gizarte zerbitzuen eskaintzak -egoitzena eta besteak- eskasa izaten jarraitzen du eta gainera gaizki banatuta dago, administrazioaren arabera. Horren ildotik, esan behar dugu Bizkaiko Aldundiak jarraitzen duela egoitzazko eta eguneko zentro berriak sortzeko bere planarekin, eta zentro horiek, ezbairik gabe, lurralde historiko horrek pairatzen duen defizita arintzen lagunduko dute.

Ikusi ahal izan dugu desberdintasun garrantzitsuak daudela udalerri batzuetatik bestera adinekoen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren estaldura mailari dagokionez. Udalerri askotan ez zaie gure zaharrei larunbat, igande eta jaietan, edo Aste Santua bezalako oporraldietan artapenik bermatzen.

Bestalde, osasun zainketaren beharrak pertsona bakoitzarentzat ezberdinak badira ere, osasun arriskua handiagoa da adineko pertsonentzako, eta hori ezin da izan bere osasun eskubidearentzako muga bat alderdi ezberdinetan.

## 5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere II. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Era berean, bereziki behartsuak diren eta eskubideak urratzea errazago gerta dakiekeen zenbait kolektibori ukitzen dieten gaiak ere aztertu ahal izango dira.

Kexen laburpenek 2002an zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, I. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2001ean egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutakoen segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa aginte publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.

# ERANSKINAK

# I. ERANSKINA

## JARDUNEKO ARARTEKOAREN AGERRALDIA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERA ETA BEHARRIZANAK AZTERTZEAZ ARDURATUTAKO PONENTZIAK ESKATUTA

Egunon, jaun-andreok:

Eskerrak eman nahi dizkiot Lantalde honi, terrorismoaren biktimen egoeraz hitz egitera gonbidatu nauelako.

Terrorismoaren biktimak direla-eta, Ararteko erakundeak beti adierazi izan du laguntza nabaria eta erabatekoa ematearen alde dagoela, indarkeria jasan duten edo jasaten ari direnen pertsonengandik gertu. Horretaz mintzatzeko aukera izan dugunean, beti biktimen “ondoan” eta biktimen “alde” agertu gara.

Eskerrik asko, Ponentzia honi, terrorismoaren biktimen egoeraz hitz egitera gonbidatu nauzuelako.

Arartekoaren erakundeak, terrorismoaren biktimei dagokienez, ezbairik gabe eta baldintzarik gabe babesteko, indarkeria jasan duten edo jasaten duten pertsonengandik gertu egoteko jarrera izan du beti. Gure iritzia emateko aukera izan dugun guzti-guztietan, biktimen “ondoan” eta biktimen “aldean” gaudela adierazi dugu.

Erakunde hau jada 2000ko ekainaren 15ean “Gure herrian sortutako indarkeriaren biktima ororen egoera aztertzeko Ponentzian” agertu zen.

Orduan biktimen ezagumenduaren beharraren inguruko hainbat gogoeta aurkeztu genituen eta batzuk berriro aipatu beharko ditugu.

Hala ere, orduko agerraldiaren aldean oraingoan dauzkagun bi berritasun garrantzitsu azpimarratu nahi ditut.

Lehenengoa da Ponentzia honetan ETAren indarkeria deitoratzen duten eta biktimei egindako kaltea konpondu nahi duten talde guztiak gaudela.

Ideiak, iritziak eta proposamenak elkartrukatzeko ahalbideak giza oihartzun ikaragarria duen errealitate poliedrikoa konpondu ahal izatetik pixka bat gertuago egotera garamatza.

Hitz egin behar dugu, aurreiritzirik gabe hitz egin, asmo onez hitz egin. Adostasun berrien egitura ehunduz joan behar dugu, funtsezkoan elkartu; zubiak egin; jarrerak hurbildu. Eta horretarako elkarren ondoan eseri behar dugu, elkarrekin lan egin eta ados jarri.

Batasun demokratikoak soilik lagunduko gaitu egoera honetatik irteten.

Guztion lehenengo helburua, helburu nagusia indarkeria terrorista gainditzeak izan behar duelako ziurtasunak soilik hurbilduko gaitu balizko konponbidera.

Horregatik, ponentzia hau abian jartzeak eta hemen bildutako guztion partaidetzak adierazten duen adostasunak iristeko borondatea albiste ona da.

Bigarren albiste ona biktimek beren elkarteen bidez partaidetza zuzena izango dutela da, terrorismoaren biktimek beren ahotsa izango dutela, bitartekaririk gabe.

Inork ezin du biktimen ahotsa ordezkatu, ez dago ahots hori isilarazterik. Biktimen ahotsak interpelatzen gaitu, errugabeen heriotzak ahazterik ez daukagula gogorarazten digu.

Elkarrizketa demokratikoaren bidez eta konponbideak bilatzen saiatzea eta biktimen ahotsa entzutea bi abiapuntu on dira.

Baina, Reyes Mate irakasleak gogorarazten digun bezala, biktimak eztabaida politikora sartzen duen berritasuna bere izatearen beraren egitatea da, inolako diskurtso propiorik ez duten biktima anonimoen artean indar handiagoz ageri den berritasun politikoa, hain zuzen. “Biktimaren begiradaz” mintzo da, metaforikoki.

Gogorarazten digu “biktimak izateak aurreko segurtasun guztiak berrikusi eta zalantzan jartzera behartzen duen elementua sartzen duela.

Biktimak ez dira konpondu beharreko arazoa soilik, edozein konponbidetarako nahitaezko urratsa baizik, indarkeriaz baliatzen den alderdia etorkizuneko erkidego adiskidetuan txertatu ahal izan daitezen giltza beraiek baitaukate, horregatik dute autoritate morala auzi honetan".

Horregatik, edozein akordio politikok ezin du ahaztu hemen biktimak, hau da, hil dituzten pertsona errugabeak daudenik.

Akordio politikoak, moralak ere izateko, biktimen ahotsa ez eze, batez ere haien begirada, Matek aipatzen duen biktimaren begirada, hildakoen odol errugabea izan behar dute kontuan.

Gertatutakoaren ezagumendu moral, sozial eta politikoa bakearen oinarria da.

## Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei material eta moralki ordaindu beharra

Indarkeriaren biktimek materialki eta moralki ordain diezaieten eskubidea daukate.

Autonomia Erkidegoko eta Estatuko Administrazioei aitortu behar zaie, azkeneko urteotan terrorismoaren biktimen nolabaiteko kalte ordain materiala lortzeko izandako konpromisoa.

Ezarritako kalte ordainen abonua, ondasun materialetan jasandako kalteek konponketa, osasunaren, irakaskuntzaren, etxebizitzaren, lanaren esparruetako laguntzak, administrazioarengandik biktimenganako erantzun solidarioa dira.

Horregatik Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimak Artatzeko Zuzendaritzari eta Barne Ministroari biktimentzako konponketa materialaren eginkizun garrantzitsuan jorratzen ari diren bidearen ildotik jarrai dezaten animatzen ditut.

Biktimenganako elkartasuneko estatuko legeak berak, ordea, zioen azalpenean honako hau dio "*que no se trata de sustituir el dolor padecido por las víctimas por el efecto de una compensación material, porque ello resultaría, de suyo inaceptable*", alegia, kontua ez dela biktimek pairatutako mina konpentsazio materialaz ordezkatzea, hori, berez, onartezina bailitzateke.

Oraindik egiteko asko konponketa moralaren alorrean geratzen zaigu, ez erakundeoi soilik, euskal gizarte osoari ere, eta batez ere gizarteari.

Konponketa moralerako proposamenak asko eta desberdinak dira, eta guztiak dira baliozkoak biktimek horietan ezagututa sentitzen badira, adiskidetzeko egindako urratsak badira.

Gure herri eta hiri batzuetan biktimen oroimenezko monumentuak eraiki dira, kaleak, plazak, kiroldegiak eskaini zaizkie ETAk hildako pertsonei.

Gure udaletxe batzuetan, aldundiren batean, ETA EZ, euskaraz eta gaztelaniaz dioen esaldia ageri da, beti.

Erakunde askok, halaber, Arartekoarenak besteak beste, lelo bera idatzi eta ofizio guztietan jartzen dute.

Hala ere, oraindik ezin ditugu gure herrietako edozeinetako jaietan terrorismoak hildako pertsonen argazkiak edo izenak "gogoan zaitugu" edo "ez gaude denok" leloen ondoan ikusi.

Aitzitik, aurtengo udan, gehiengo demokratikoko udaletan ere, herriko ETAkideen argazkiak jarri dira berriro, jaien buru, biktimentzat eta beren senideentzat iraingarria eta herritar guztientzat zitala den mezua aireratuz.

Egun, oraindik orain, karteletan, adierazpen politikoetan, biktimak borreroekin nahasten dira.

Oraindik orain, euskal kirol ekitaldietan ez da biktimen aldeko minutuko isilunerik egiten, errespetatuko ez delako beldurrez.

Batzuetan nahikoa izango litzateke pixka bat erabakitasun handiagoa eta irudimen apurra, hilketa batengatik protestatzeko minutuko isilunea barik minutuko txalo jotzea eskatu zuen saskibaloi talde horrena bezalakoa. Besteen mina errespetatzen ez duen gutxiengoaren oihuak isilarazi zituen txalo jotze zalapartatsuak biktima baten oroimena ohorez janzteko balio izan zuen.

Baina ekintza sinboliko horiez gain, biktimei, beren etxekoei gure maitasuna helarazi behar diegu. Babestuta senti daitezen lortu behar dugu. Biktimen inguruan ehundutako isiltasun estalki horri amaiera eman behar diogu.

Biktimak ez dira ikusezinak, hemen daude, gure artean eta gure maitasuna behar dute. Laguntasun keinuak behar dituzte, besarkada solidario, zintzo eta beroa.

Adiskidetzeko bide luzean, esan behar dugu ez dagoela adiskidetzerik egiaren eta memoriaren ezagumendutik ez bada.

Memoria morala behar dugu, iraganeko injustiziaren bat indarrean dagoela ahazten duen orainaren eraikuntza oro salatzen duena, hain zuzen.

Egia behar dugu, hainbeste sufrimendu bidegabe, hainbeste pertsona errudunen sufrimendua ezagutzea. Biktimaren begiradak memoria erreskatatzea exijitzen digu, egia dirdiratsu ager dakigun.

## Hizkuntza eta biktimak

Gabriel Celaya poetak zioen "*poesia etorkizunez beteriko arma dela*", nire belaunaldikook Paco Ibañezekin "*la poesía es un arma cargada de futuro*" kantatzen genuen behintzat.

Poesia, hitzak etorkizunez, ulermenez, sentipen onez beterik etor daitezke, baina baita bazterkeria, gorroto, arrangura sentipenez beteta ere, sotilki izan arren, ia oharkabean, pixkana errotuz doazelarik.

Hitzak, kontzeptuak ez dira neutroak, asmoez jantzita datoz, aldatu egiten dira, moldatu eta jatorrizko esanahia gaiztotzen dute. Batzuetan min ematen dute, askotan eraso egiten dute, zaurian berriro jo.

Euskadin, hainbat eta hainbatetan, hitz mingarriak bala hiltzailearekin batera etorri dira. Hitzok, berez, poetak zioen etorkizunez beteriko arma barik, arrangurazko arma metaforiko bihurtu dira, eta batzuetan hain iraingarriak izan dira, non heriotza fisikoari nolabaiteko heriotza zibila ere gehitu dioten.

Txarrena da, denok, sarritan, oharkabean, hitzen erabilpen desegoki horretan parte hartu dugula, ulermenik gabeko, biktimekiko elkartasunik ezeko estalki lodia ehuntzen lagunduz.

Víctor Klemperer filologo bikainak, bere *La lengua del tercer Reich* obran jada ohartarazten zigun "*Hitlerren propagandaren ondorerik indartsuena ez zutela hitzaldiek, esku orriek, kartelek eta banderek lortzen, ez zuela pentsamendu edo sentipen kontzientearen bidez har zedin ezerk lortzen*", eta gehitzen zuen, "*nazismoa masen haragian eta odolean milioika bider errepikatuz ezarri eta pertsonengana mekanikoki eta inkontzienteki heltzen ziren hitz bakanen, adierazpideen, forma sintaktikoen bidez sartzen zela*".

Idazle alemanak zioen "*hitzek artseniko dosi txiki-txikien modura eragin dezaketela; batek oharkabean irensten ditu, badirudi ez dutela ezer egiten eta handik gutxira toxikapena dator*". Kutsatzen duten hitzak.

Arcadi Espada kazetariak, bere *Diarios* obran, gure duela gutxiko iraganerako bidaian murgiltzen gaitu. Entomologo baten zehaztasunarekin zatikatzen ditu 1979an egunkari batean atentatu terroristen gainean agertutako albisteak.

Hizkuntza berriro ere, albisteari ekiteko orduko hizkuntza maltzurra, asmoz hain beterik dagoen ustezko hizkuntza neutroa. Zenbat eufemismo! Zenbat lerroalde justifikatzen-edo! Nolako sakontasuna, ikaragarria, zeukaten garai bateko "*poliziaren salataria omen zen!*, "*eskuin muturreko giroetan ibiltzen zela diote*" …esaldi haiek!

Zenbat gogotan gordetzen zen "*zerbait egingo zuen*" doilorra, zenbat elkarrizketatan labaintzen zen "*bai, baina….*" hipokrita hura.

Euskal gizartean guztiongana hainbestetan heldu den erlatibismo moralaren "*bai, baina…*" hori.

Eta orain, beste Arcadi Espada batek antzeko azterlana egin nahi izango balu, gure egunkarietako edukien gainean, orain, duela egun batzuk, bihar bertan, hitz armatuak, sastakaiak bezain zorrotzak, iraingarriak, ankerkeriaz beteak aurkituko lituzke, berriro ere. Gaur bertan, gertatutako guztiaren, gertatzen jarraitzen duenaren ostean, erakundeetako eta politika munduko hainbeste ordezkariren, hainbeste herritar xeheren hitz arduragabe eta mingarriekin egiten dugu topo.

Hitzak desarmatu behar ditugu, ezin dugu onartu gutako bakoitzak, gure elkarrizketa pribatuetan, gure harreman pertsonaletan, jakin gabe bada ere, bazterkeriaren zuloan sakontzen lagun dezagun, mina areago dezagun.

Desarma ditzagun hitzak, egin dezagun enpatia ariketa bat, jar gaitezen sufritzen duenaren tokian eta bete ditzagun gure hitzak ulermenez eta gizalegez.

Eta, batez ere, dei diezagun gauzei beren izenekin. Gaiztakeria semantikorik gabe, bizitzen ari garen errealitate izugarria mozorro dezaten eufemismorik gabe. Egiak libre egingo gaitu-eta.

## Jazarpeneko indarkeria deritzona eta zuzentza estatua

Gaur egun, indarkeria terrorista Zuzentza Estatu ororen oinarri diren kolektiboen aurka doa, bere indar osoaz: demokratikoki hautatutako ordezkari, epaile eta fiskal, kazetari, irakasle eta intelektual, polizia, espetxeetako funtzionario, enpresarien aurka. ETAk bere proiektu totalitarioaren aurka daudela irizten dien, edo batzutan, besterik gabe, "*handik zihoazen*" herritar arrunten aurka ere bai.

24.000 pertsona baino gehiagok pairatzen dute ETAren jazarpen zuzena.

Gure epaile eta fiskalak gure ordezkari demokratikoak, gure irakasleak, gure kazetariak, gure poliziak, gure enpresariak dira helburu terrorista nagusia.

Egunero-egunero beren lana betetzen dutelako, legearen agintean eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen den Zuzentza Estatuak herritarrei libre izaten jarraitzen utz diezaien saiatzen direlako dira terroristen helburu.

Guzti-guztiak, Zuzentza Estatu honen zerbitzariak, sentipen eta guraridun pertsonak dira. Gurasoak, seme edo alaba, senar ala emazteak dira, zaletasunak eta bizitzarako egitasmoak dauzkate.

Bizitzako egitasmo horiek bidegabeki baldintzatuta daude, mehatxuengatik, bortxakeriarengatik, jazarpeneko indarkeria delakoarengatik. Eta beren senide, kide eta lagunek ere egoera hori pairatzen dute. Batzuetan bizitza horiek betiko eteten dira, modu izugarrian, asasinatze terroristaren ondorioz.

Inor ere ez dute hiltzen guraso edo bikotekide ona zelako ala ez zelako, erlijo sinesmenik zuelako ala ez zuelako, zaletasun hau ala hura zuelako, atsegina edo desatsegina zelako.

Epaileak, zinegotziak, ertzainak, kazetariak direlako jazarri eta hiltzen dituzte.

Indarkeria hiltzaile, gizatiar eta moralki deitoragarri hori, gainera, “askatasunaren hiltzailea” ere bada.

Hainbeste herritar jazarri eta hiltzen dituztenean, adierazpen askatasunari ere erasotzen diote; katedra askatasunari, segurtasun pertsonalari, herritar guztion ordezkaritza politiko libreari.

Jada 1979an, Norberto Bobbiok, Brigadas Rojas zirela-eta, ondokoa zioen: *”ez dut uste gure herria (Italia) odoleztatzen ari den terrorismoa autokrazia, terrorista historikoen etsai tradizionalaren aurka barik, demokraziaren aurka doalako gaiaz nahikoa gogoeta egin.*

Halatan, egitate berria da, bere berritasunean nahasgarria. Horregatik da ankerra eta maltzurra. Ankerra, oraindik ahula eta ezegonkorra den eta, izan ere, gaitzez beterik dagoen gurea bezalako erregimen demokratiko batek borroka politiko ez-odoltsua onartzen –hobeto esanda, exijitzen- duelako. Maltzurra, epe luzera, indarkeriaren sortzearen ondore bakarra izu orokorreko erregimena, denon askatasunaren amaiera soilik izan daitekeelako. Garaian-garaian, aro guztietako historian ia sasi-maisutsu baitetsi den irakaskuntza ukaezin gutxietako bat da besteen askatasuna hiltzen duenak berea ere hil duela.”

Urte askotan, urte gehiegitan, terrorismoaren biktimak “gauza” bilakatzen ziren, uniforme batera, inizial batzuetara murrizten ziren.

Biktimei giza ezaugarri guztiak kentzen bazaizkie, terrorismoak pertsonen aurka barik “gauzen” aurka jotzen du.

Beste bat gorrotatzeko, beste baten aurka indarkeria erabiltzeko, biderik errazena despertsonalizatzea da, norbanako izaerarik gabeko kolektibo baten zati bihurtzea: etsaia, “bestea”, atzerritarra, uniforme bat edo toga bat janzten duena.

Biktimei aurpegia ipini behar zaie, begietara begiratu behar diezaietela. Jakin dezatela gizakiak direna.

Besteak ere sentipenak dituela, sufritzen duela onartzeak gorrotoak hausten laguntzen digu.

Gupidaren sentipena berreskuratu behar da, gizatartzen gaituen sentipena baita.

Zenbat erreparo biktimen aurpegia ikusteko!

Zenbat aldiz, amorru bizia, manipulazioaren salaketa, biktimen errealitate mingarria ezkutatzen zuen errezela itxi nahi izateagatik.

Biktimen begiek, biktimen begiradak ez digute, jada, beste alde batera begiratzen lagatzen.

Inork ezingo du, jada, duinki, eguneroko bere zereginetan jarraitu, agerikoa ukatuz.

Biktimen 80. hamarkadako bakardade etsigarria gainditu egin da, zorionez. Egun biktimak babestuago, lagunduago daude.

Arriskua dago, ordea, biktimen begiradan sufritzen duten, maite zutenaren heriotzarengatik negar egiten duten pertsonak baino ikus ez ditzagun.

Hildakoei negar egiten diona laguntzea, dolua partekatzea, gizatasun unibertsaleko ezaugarria da. Horregatik eta ahal bada, are ankerragoa da doluan ez parte hartzea; minaz pozten den dei iraingarria; hilobiak profanatzea.

Biktimaren begirada ez da hildakoarengatik negar egiten duenaren begirada soilik. Ez gaude arrazoi naturalengatik, trafiko istripu batengatik gertatutako heriotzaren aurrean. Gure biktimak bere proiektu totalitarioak biktima errugabeen odolaren gainetik ezarri nahi dituen norbait dagoelako hil dira.

Horregatik, giza elkartasunezko erantzunaz gain, erantzun demokratikoa ere eman behar dugu.

Eta erantzun politikoa Zuzentza Estatutan, legearen nagusitasunean, botereen banaketan eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen den Estatu eredu horretan, legea aplikatzea da, sistema demokratikoa sendotzea, erakundeak errespetatuz eta pertsona guztien giza eskubideak defendatuz.

Horregatik, biktimen begiradak egunero gogorarazten digu ez dagoela bidezidorrik, inork ezin duela etekin politikorik atera errugabeen heriotzatik.

Gure zinegotziek, gure kazetariek, gure epaileek, gure poliziek, gure irakasleek jakin behar dute, gainera, giza elkartasunaz gain –ia beti ez da nahikoa izaten-, Estatu bat demokratiko egiten duten baloreen defentsa itxia ere jasoko dutena.

Jakin behar dute gure eraikin demokratikoaren aurrealde edo aurpegia aniztasun ideologikoa, adierazpen askatasuna eta informazio aniztasuna, zilegitasuna kentzen duten interferentzia onartezinik gabeko justiziaren jarduera, herritar guztien segurtasuna, katedra askatasuna eta gure ikastegi eta Unibertsitateko aniztasuna direna.

Terroristen helburua izua sentiaraztea da, pertsona bat markatzea milaka isil daitezen, beste bat hiltzea gainerakoek zer gerta daitekeen jakin dezaten. Izuak geldiarazten du, koldartzen gaitu, munduan izan diren diktadura guztien oinarri nagusia den *"zu ez ezertan nahastu"* jarrerara atzera eragiten digu.

Biktimen begiradak ez digu izurik, zur eta lur lagatzen gaituen izurik sentiarazi behar.

Biktimen begiradak hainbeste erokeria izugarriren lazdura sentiarazi behar digu. Lazdurak ez du zur eta lur gerarazten, kontzientziak mugiarazten ditu. Beste zer gehiago gertatu behar da kontzientzia guztiak asalda daitezen, erokeria honi amaiera emateko?

## Baloreetan heztea, bakearen oinarri

Intolerantzia, arrangura eta gorroto urte asko dira. Minezko urte asko. Sufrimenduzko urte asko.

Indarkeriaren sustraiak denboran txertatzen dira, luzatu eta besterengana hedatzen dira.

Indarkeriaren erreferentea euskal gizartean barneratzen da, zeharkatzen du, ezaugarritzen du eta zatitzen du. Familiak, koadrilak banatzen ditu, ikasgeletaraino eta lantokietaraino sartzen zaigu.

Balorerik funtsezkoenen gaineko gutxieneko adostasunak lortzea eragozten du. Edozein erreferentzia moral ezabatzen du.

Indarkeriaren azpi-kultura hori sendo errotuta dago euskal gizartearen alor askotan, intolerantzia dosi handiz elikatzen da.

Gizarte honen berreraikuntza moralak, bakezko etorkizunak indarkeriaren kulturaren ordez bakearen kultura hartzea exijitzen du, bazterkeriaren kulturaren ordez aniztasunaren eta tolerantziaren kultura izatea.

Baloreetan hezteak gure hezkuntza sistemaren apustu irmoa izan behar du baina, batez ere, gizartearen eta familien konpromisoa izan behar du.

Gurasoek seme-alabei tolerantzia eta askatasun balioak transmititzen badiete, gizarteko bizikidetasuna susmo txar eta mesfidantzak ezabatuz berregiten badugu, gure harremanetarako modu berria moldatuz joango gara.

Lan gogorra eta zaila da, benetan, eta gure etorkizuna dago jokoan.

Bien bitartean, biktimen begiradak duintasun handia, gizatasun handia eta zintzotasun demokratiko handia exijituko digu, denoi, lan hori burutzeko.

Eskerrik asko.

# II. ERANSKINA

## INMIGRAZIO PLANEN ERAGINGARRITASUNA

### Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldiak

Jardunaldi hauen barruan, inmigrazio planek etorkinak gizartean txerta daitezen laguntzeko politika aktiboak egiteko bitarteko gisa duten eragingarritasunaz mintzatuko natzaizue.

Espainiar gizartean gero eta etorkin gehiago dagoenez, gizarte bazterkeriako egoera ugari sortzen ari dira, guk ordezkatzen ditugunak bezalako erakunde bermatzaileoi oharkabean igaro ezin zaizkigunak. Ezin dugu ahaztu inmigrazioaren fenomenoak, hein handian, jatorri ekonomikoa daukala, eta beren herriak, eta aldi berean familiak eta bizi ingurunea uztea erabaki duten pertsonek eta, oro har, bizitza maila hobetu nahi dute, bizi dituzten pobrezia eta bidegabekeria egoeretatik ihes egiteko ahalegin etsian. Babesik ezak, joko arauak zein diren ez ezagutzeak, eta dituzten eskubideak zein diren ez jakiteak ere, oro har, pertsona hauek oso jarrera ahul eta zaurgarrian uzten dituzte.

Etorkinak gizartean txertatzea, beraz, inmigrazioak egun planteatzen duen erronkarik garrantzitsuenetakoa da.

Fenomeno hau erakundeetatik eta gizartearengatik berarengandik jasotzen ari den erantzuna ez dator, sarritan, elkartasunaren hatsarrearen aplikazioarekin eta etorkinen oinarrizko eskubideen beharrezko ezagumenarekin bat. Oraindik traba ugari aurkitzen dituzte pertsona horiek erabat gizarteratzea lortzeko. Etxebizitza, hezkuntza, enplegua, gizarte bizitzan parte hartzea dira, esaterako eta batzuk soilik aipatzearren, etorkinek beste guztien baldintza berdinetan gizarteratzeko prozesuan aurre egin behar dieten berariazko arazoak oso bereziki igartzen direneko esparruak.

Azkeneko urteotan dagokien herri administrazio desberdinak integrazioaren alde egiten ari diren ahaleginak aitortu behar da, ezbairik gabe, baita gizarte eragileek egindakoak ere. Orain arte ildo horretan garatu diren jarduerak, ordea, oro har, koordinaziorik ezarengatik, izaera partzialarengatik eta, askotan, zergatik ez esan, abaguneen arabera egin izanagatik, sortuz joan diren arazo handiago edo txikiagoko gizarte egoera jakin eta zehatzei halabeharrez berehalako erantzuna eman behar izan zaielako nabarmendu dira; alde handiak daude, gainera, autonomia erkidego bakoitzean fenomenoari oso modu desberdinetan aurre egiten zaio. Izan ere, gehienetan alor bakarreko jarduera bakanak izan ohi dira, beste administrazio batzuek eremu berberetan egiten duten lana kontuan hartzen ez dutenak; batzuetan, administrazio berberak alor desberdinetan helburu berarekin garatzen duen lana ere ez da gogoan izaten; eta gizarte eragileek ildo beretik garatzen ari direna ere ez, jakina.

Azken batean, esan dezakegu eremu honetan erakundeen ekintzarik badagoen arren, oraindik –oro har- ez dela ekintza koordinatu eta planifikatua, ez eta etorkinen gizarteratzeak dakarren berariazko arazo multzoari eragingarritasun bermez aurre egiteko gai ere, fenomenoak eskatzen duen ikuspegi integral eta globaletik.

***

Egungo egoera, hein batean, integrazioko eredu garbirik ez dagoelako azal daiteke. Baina garbi dago hori gaian erantzukizunik duen erakundeen ehunduraren konplexutasunaren ondorio ere badela; inmigrazioaren fenomenoarekin eta, bereziki, etorkinen gizarteratzearekin eta esparru horietan erantzukizunik duten administrazio ugariekin zuzenean lotuta dauden esparru materialen aniztasunaren emaitza.

Sobera ezagutzen duzue zuok guztiok konstituzionaltasunaren blokeak inmigrazioaren fenomenorako erantzun globala, gizarteratzearen ikuspegitik, diseinatzeko hain erabakigarriak diren gaietako eskumena

Estatuari, esklusiboki, gorde diola, hau da, inmigrazioaren, atzerritarren eta babes eskubidearen kontuen gainean. Ezin zaio inori ezkutatu etorkinak nolako baldintzetan heltzen diren, eta baldintza horiek zuzenean eragiten diotela etorkinon gizarteratzeari eta, beraz, horren gaineko edozein politikaren formulazioari. Ezin da ukatu etorkinik gehienek, gaur egun, berton bizitzeko baimena lortu baino lehen jasan behar dituzten egonaldi irregularreko epeek pertsona hauek gizarte bazterkeriatik oso gertu dagoen egoeran jartzen dituztela, eta horrek gizarteratzeko prozesua ezinbestean baldintzatzen duela, prozesua gauzatzea ikaragarri zailduz. Horregatik, esparru honetan garatutako politika gizarteratzeko politikei estu-estuan lotzen zaie.

Baina, estatuko erreserba garrantzitsu horrekin batera, badago, dakizuenez, autonomia erkidegoei esleitu zaizkion eskumenen sorta zabala, askotan, Estatuarekin partekatuta esleituta daukana, eta gizarteratzeko giltzarritzat jotzen diren alorrak ere hartzen dituena, hala nola, hezkuntza, osasun artapena, etxebizitza, gizarte ongizatea, adingabeen artapena, enplegua eta kultura, batzuk bakarrik aipatzearren.

Lehen aipatutako eremuetako askotan esleituta dituen eginkizunengatik *ez eze*, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa ere badelako eta, ondorioz, etorkinak lehenengo jotzen duten administrazioa izanik, tokian tokiko administrazioak integrazioaren prozesuan jokatu beharko duen eginkizun garrantzitsua ere azpimarratu behar da.

Oso labur eta azaletik deskribatu dizuedan erakundezko panorama korapilatsua are gehiago nahasten da, bai estatuko Administrazioan bai autonomia erkidegoetako administrazioetan, aipatutako eskumen horiek antolakuntza sail desberdinetan kokatzen direla erreparatzen badiogu. Eta are gehiago zenbait autonomia erkidegoren berezitasuna, esaterako, Euskal Autonomia Elkartearena kontuan hartzen badugu, non gizarteratzearekin zerikusia daukaten eskumen autonomiko asko, gehiago ala gutxiago, foru erakundeek ordezkatzen duten beste erakunde mailari esleitzen zaizkion.

Gauzak horrela, argi dago etorkinen gizarteratzearen artapenak, bere ezaugarriengatik, hurbilpen globala exijitzen duela, zeren hurbiltze horrekin soilik iritsiko baita esparru materialen eta inplikatutako herri administrazioen ugarien koordinaketa maila egokia, eta guztien jarduerak elkarren osagarri izatea.

***

Etorkinen gizarteratzean eskumenak dituzten herri administrazioen jarduerak koordinatu eta bat egin behar direla eta esparru honetako koordinazio mekanismoak indartu behar direla behin eta berriz adierazi dute gizartearen alor zabalek. Azkeneko urteetan behar hori sarritan azpimarratu da parlamentuaren egoitzan, hainbesteraino non atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta beren gizarteratzearen gaineko Lege Organikoa[1] gaiari formalki erantzuten saiatzen den, herri botereen koordinaketari goiburu osoa –IV. goiburua- eskainiz.

Lege Organikoak problematika honi batez ere koordinaketako berariazko organoak, hala nola, Inmigrazio Politikako Kontseilu Gorena, Etorkinak Gizarteratzeko Foroa, edo Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean Lankidetzarako Bitariko Batzordeen barruan aurreikusitako Azpibatzordeak sortzea aurreikusiz egiten dio aurre.

Etorkinak gizarteratzeko plan orokorrak ez daude Legeak koordinazioa lortzeko espresuki aurreikusitako mekanismoen artean[2], formula hau sartzea egun abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organiko gisa ezagutzen dugun legearen proiektua Senatuan izapidetzen ari zen bitartean proposatu zen arren, proiektuaren hirugarren xedapen gehigarria aldatu eta ondorengo modu honetan idaztea proposatzen zuen emendakinean: "*la política española en materia de inmigración se establecerá a través de un Plan Director que el Gobierno deberá formular cuatrienalmente y que contendrá las líneas generales y directrices básicas de la política inmigratoria, señalando los objetivos y prioridades así como los recursos presupuestarios indicativos que orientarán su actuación durante el referido periodo*"[3]. Emendakina ezetsi egin zen, *"considerarse innecesaria",* hau da, beharrezkoa ez zela irizten zitzaiola besterik argudiatu gabe. delako Diario de Sesiones del Senado[4] aldizkarian irakur dezakegun bezala, eta horrekin esparru honetan behar den koordinaketa eragingarritasunez ziurtatzeko, nire ustez ezinbestekoa den bitartekoari izaera orokor eta nahitaezkoa emateko, eta inmigrazioaren fenomenoari ikuspegi global batetik aurre egiteko aukera paregabea zapuztu zen.

---

[1] Urtarrilaren 7ko 4/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldarazia.

[2] Legeak zehapen prozeduraren aurreko Lan Ikuskaritzaren jardueraren gaineko alorrez alorreko planak soilik aurreikusten ditu (67.3 art.).

[3] Convergencia y Unió-ren Kataluniarren Talde Parlamentarioaren 178. emendakina Senatuan.

[4] Diario de Sesiones del Senado, Año 2000, VII Legislatura, Comisiones. Núm. 71.

Bestela, planek gai batean eskumena daukaten erakunde desberdinen jarduerak koordinatzeko duten eragingarritasuna, oro har, administrazioaren gaineko dotrina kualifikatuago batek nabarmendu du. Eduardo García de Enterría irakasleak ondo dioen bezala, "*sólo los planes, en cuanto actos complejos que incorporan un diagnóstico de la situación, un pronóstico de su evolución, un cuadro de prioridades y objetivos y un programa sistemático de acción en función de aquéllos, pueden asegurar globalmente la convergencia imprescindible de las distintas acciones, sin la cual no puede conseguirse el óptimo de eficacia en ningún sistema. Los planes, la planificación constituyen por ello la máxima expresión de la coordinación en su aspecto funcional*" [5].

***

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta beren gizarteratzearen gaineko Lege Organikoak, lehen esan dizuedan bezala, ezartzen dituen koordinaketa mekanismoen artean plan orokorrak espresuki sartzen ez dituen arren, joan den 2001ean, Ministroen Kontseiluak atzerritarren eta etorkinen egoera araupetu eta koordinatzeko programa globala onetsi zuen –Plan Greco deritzona-, hain zuzen, datozen urteotarako atzerritarren eta etorkinen tratamendua ikuspegi globaletik azter dezan plana eduki beharrean oinarritzen dena, hau da, "*en la necesidad de contar con un plan que aborde desde una perspectiva global el tratamiento de la extranjería y la inmigración para los próximos años*". Plan hau 1994an onetsitako Etorkinak Gizartzeratzeko Planaren tokia hartzera etorri zen eta, dioenez, "*representa la primera iniciativa en nuestro país para afrontar el tratamiento de la extranjería y la inmigración desde todas sus vertientes*", hau da, "herri honetan atzerritarren eta etorkinen tratamenduari alderdi guztietatik aurre egiteko dagoen lehenengo ekimena da".

Greco Plana Barne Ministerioak diseinatu du eta, denok dakizuenez, Ministerio horri esleitu zaizkio inmigrazio politikaren formulazioa eta gai horretan egiten diren jarduerak Estatuko Administrazioaren esparruan koordinatzea.

Aipatutako Ministerio horri lan konplexu eta diziplina askotako honen mandatua egiteko erabakiak, zalantzarik gabe, inmigrazioaren fenomenoaren ikuspegi batez ere poliziala ematea adierazten du. Hori, jakina, planaren edukian bertan ere islatu da, non kontrolatzeko jarduerak, bigarren plano batean lagatzen diren gizarteratzeko prozesuen aldean, nolabait lehenesten direla ikusten den. Ingurumaria hori, presaka prestatu izanari, autonomia erkidegoek eta inplikatutako gizarte eragileek prozesuan parterik hartu ez izanari eta, aurreikuspenekin batera egiteko behar diren aurrekontuz esleipenik etorri ez izanari gehitzen badiogu, plana programazkoa baino adierazpenezkoa izatea eta, orain arte behintzat, halako bitarteko batengandik espero diren emaitzak lortu ez izana azaldu ahalko genuke.

Autonomia Erkidego batzuek ere etorkinak gizarteratzeko beren planak onetsi dituzte, hobeto ala okerrago; beste batzuek onesteko daude ia, hala nola, euskal eta nafar erkidegoak; eta, finean, hainbat udalerri ere esparru honetako berariazko planez hornitu da dagoeneko.

Hala ere, uste dut etorkinak artatzeko planak, integrazioaren gizarte politiken adierazpide diren heinean, eragingarriak izateko, ondoren azalduko dizkizuedan hainbat alderdi –nire iritziz, funtsezkoak- kontuan hartu beharko dituzte.

Etorkinak artatzeko politikak, lehenik eta behin, gogoan izan behar du fenomeno honek gizarte hartzailearen egiturari, bizimoduari, ohiturei, kultura adierazpenari eta bizikidetasunari ukitzen diela eta, ondorioz, herritarren multzoak bere egin eta onartu behar duela. Horregatik, nik uste dut etorkinak gizarteratzeko eta gizarteratze hori gainerakoen baldintza berdinetan gauzatzea bermatzeko helburua duen planak ezin du helburu hori lortu, biltzen dituen neurriak etorkinengana esklusiboki bideratzen badira. Gai honen tratamendu integralak, gainera, herritar hartzaileengana zuzendutako beste jarduera batzuk behar ditu, elkarren ezagutzera, fenomeno hori ekonomia[6], gizarte[7] eta kultura garapenaren faktoretzat hartu eta etorkina erkidegoko eskubide eta betebeharretan beraien berdina den kide gisa ikus dezaten sustatzera. Horrela soilik izango dira integratzeko neurriak eragingarriak.

---

[5] GARCÍA DE ENTERRÍA, E.: Curso de Derecho Administrativo I. Madrid: Civitas, 2000. 10. ed. 330. orr.

[6] Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2001. urteko txostenak nabarmentzen du langile atzerritarren Gizarte Segurantzako afiliazioaren pisua gero eta handiagoa dela eta, antza, jada afiliazio osoaren 100eji 4tik gorakoa dela. Horien hiru laurdenak, bertan dioenez, europar batasunaz kanpoko herritarrak dira.

[7] Eurostaten 2000ko txostenaren arabera, datozen urteotan inmigrazioa elementu giltzarria izango da erretiroko pentsioen finantzaketan, europar biztanleen zahartzearen ondorioz.

Eragin nahi zaion gizarte errealitatea zehatz-mehatz ezagutzea, halaber, edozein herri politika formulatzeko funtsezko elementua da; baita etorkinak artatzeko politika formulatzeko ere. Inmigrazioaren benetako egoera zein den jakiteak izan behar du, beraz, abiapuntu saihestezina esparru horretako inolako herri politikarik definitzeko garaian.

Plangintzako edozein bitartekok, berez, lortu nahi dituen xedeak argi eta zehatz definitu eta horretarako behar diren neurriak ezarri behar ditu. Etorkinak artatzeko planek ere funtsezko eduki hori jasoko dute. Eta, ondorioz, gutxienez, lortzeko asmoa duten xedeak, garatuko diren jarduera zehatzak, egiteaz arduratuko direnak nortzuk diren eta ekintza horiek burutzeko behar diren baliabide ekonomikoak zeintzuk diren adieraziko dute.

Gaiaren azkeneko kontu hori bereziki azpimarratu nahi dut, eta aurreikusitako jardueren azterlan ekonomikoek, horiek gauzatzeak dakarren gastua zenbakitzeak, eta aurrekontuetan gastu horri aurre egiteko behar diren zuzkidurak esleitzeak, planak bete daitezen bermatzeko, egokituko zaien betebehar erabakigarria nabarmendu nahi dut, denok baitakigu planak izatez gauzatzea, neurri handi batean, beren bideragarritasun ekonomikoaren mende dagoena, behin helburuak eta helburuok lortzeko ekintzak argi eta garbi diseinatu direnean.

Lehenago esan dudan bezala, integrazioaren prozesuak gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du. Horregatik, nire ustez, funtsezkoa da helburu horrekin onartzen diren planek gizarte eta politika mailako adostasun zabala izan dezaten; eta planok prestatzeko prozedurak gizarte eragileek eta etorkinek beraiek ere parte har dezaten bermatzea.

Planak eragingarriak izango direla ziurtatzeko, oinarrizko irizten diot, halaber, gaiarekin zerikusirik daukaten administrazioek planen prestakuntzan esku hartzea, eta planetan aurreikusten diren neurrien egintza beren gain hartzea, zeren administrazio horiek izango baitira, ziurrenik, neurriok bete daitezen arduradun nagusiak.

Eta azkenik, amaitzeko, planifikatutako ekintzen ebaluazioak, nire ustez, aurreikusitako jarduerek ezarritako helburuak zenbateraino lortu dituzten, eta helburu horiek lortzeko erabili diren bitartekoak egokiak izan diren zehazteko duen garrantzia azpimarratu nahi nuke.

***

Arestiko guztiaren ondorio gisa, nik uste dut etorkinen gizarteratzean inplikatutako herri administrazioek, hemen aipatu ditudan oinarrizko alderdiak kontuan hartuta, ikuspegi global, koordinatu eta giza eskubideen errespetuzkotik, bakoitzari dagozkion etorkinen artapenerako politikak argi eta garbi ezar ditzaten planak egitea sustatu beharko luketela. Horrekin, herri administrazioak eta gizarte eragileak egun egiten ari diren ahaleginak batuko lirateke, esku hartzeen bikoizketa ere saihestuko litzateke eta, azken finean, nire hitzaldiaren hasieran esan dizuedan moduan, etorkinek egun etxebizitza, hezkuntza, osasun artapen, enplegu eta gizarteko partaidetza bezalako esparruetan aurkitzen dituzten berariazko arazo ugariei modu planifikatuan erantzungo litzaieke.

Eskerrik asko.

# III. ERANSKINA

# APARTEKO AHULTASUN EGOERAN DAUDEN ADINGABEAK ETA ERAKUNDEEN ERANTZUNAK

## Hamar zailtasun, eta esku hartu eta hobetzeko ahalbideak

## Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVII. Jardunaldiak

Arartekoaren erakundeak, azken urteotan, normalean ofiziozko jarduera eta ikerketa monografikoen bidez, adingabe talde batzuen aparteko ahultasun egoeraren arazoa aztertu du, erakundeek talde horien beharrei emandako erantzuna kontuan hartuz, eta hobetzeko proposamen asko eginez. Lanok, Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako ezohiko txostenetako horiei buruzko kapituluetan bildu dira. Horrela, adibidez:

- Babesik gabeko haurtzaroaren eta nerabezaroaren arreta (1997ko ezohiko txostena)
- Adingabe urratzaileekin esku hartzea (1998ko ezohiko txostena)
- Hezkuntza berezien beharrei erantzutea (2001ko ezohiko txostena)
- Haurren psikiatria arreta (elkarteko arreta, buru gaixotasunaren gaineko 2000ko ezohiko txostenean)
- Sasoika lanetako familien seme-alaben eskolaratzea (sasoikako jendearen egoera Araban, oraintsu egin berri den ezohiko 2002ko txostenean)
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera (azken urtetako txostenetako jarraipen kapituluetan)…

Egoera horietako elementurik kezkagarrienak azpimarratu dira, eskubide-bermearen ikuspegitik, erantzukizuna duten administrazioei aholkuak eman zaizkie eta hobekuntzarako jarduerak bultzatu dira. Oraingoan ez dugu aztertu den egoera bakoitzaren berariazko kontuez aritzeko asmorik. Horretarako, hobe da aipatutako txostenetara jotzea. Gainera, argi dago beste ahultasun egoera batzuk egon badaudena, sakonki aztertzea ere merekiko luketenak: ijito ikasleriaren hezkuntza arreta, terrorismoaren edota sexu-gehiegikerien biktima adingabeak. Argi dago, halaber, aztertutako edozein egoera nabarmen alda daitekeena, problematikan eta erantzunean, leku batzuetatik beste batzuetara, erkidego batetik beste batera; hau da, geure hurrenez hurreneko jardueren lurralde eremuen arabera.

Oraingo jardunaldietan askoz ere baliagarriagoa dirudi elementu erkideei adi diezaiegun, egoera bakoitzak berariazko edo berezkoei erreparatu barik. Hara zen nahi lortu nahi dugun dokumentu honekin: erakundeen jardueran eragina duten alderdi erkideren batzuk azpimarratzea; gure ikerketen arabera errepikatzen diren elementu kezkagarriak, eta adingabeekiko lanetan nolabaiteko izendatzaile erkideak direnak; elementu kezkagarriak, gure ikuspegitik, hobetu behar direnak, eta pertsona horien eskubideen defentsako geure jardueretarako lagungarri izan dakizkigunak.

Hona hemen gai horietako hamar, laburbilduta, gure lanerako bereziki garrantzitsu eta baliagarriak direlakoan.

## 1. Zerbitzu espezializatuen eta ohiko laguntza sareen arteko loturak

Arrisku edota ahultasun egoera askoren aurrean, batzutan, legezko aginduz, erakundeen erantzuna zerbitzu espezializatu batean gauzatzen da. Adibide moduan, aterpetxeak edota barnetegiak aipatuko ditugu.

Ikus daiteke, sarritan, aipatutako zerbitzuak izateak ohiko laguntza sareen esku-hartzea eragozten dela, edo sare horien inplikazio eta erantzun murritzaren aitzakia gisa erabiltzen dela: ohiko hezkuntza sarearena, osasunaren sarearena, oinarrizko gizarte-zerbitzuaren sarearena… Horrela denean, erakundetzeari lotutako arriskuak handitu egiten dira (dauden behar guztiak zentroak berak dituen diru-iturrietatik ordainduko dira), eta adingabeak normalizatu eta gizarteratzeko ahalbideak gutxitu.

Arrisku egoera horiek ekidin behar dira, eta ohiko zerbitzuen inplikaziorik handiena bultzatu, mesfidantzarik izatekotan gainditu, eta oinarrizko eskubideei, esaterako, adingabearen egoera dena delarik hamasei urte bitarteko beharrezko hezkuntzari lotutako irizpideak tinko mantenduz.

## 2. **Zerbitzu eta erakunde desberdinen arteko koordinazioa**

Ahultasun egoerei ematen zaien erantzunak, gehienetan, berez duen zailtasunarengatik, zerbitzu eta instantzia ezberdinen esku hartzea eskatzen du. Zerbitzu horiek, askotan, administrazio edota sail ezberdinekoak izanik, gizarte-ongizatea, hezkuntza, osasuna... behar dute, bada, esku-hartze koordinatuak, arlo ezberdinetako profesionalen arteko informazioaren trukea, lanen iraunkortasuna... Sarritan, sail edota administrazio ezberdinen menpekotasuna (herrikoak, herrialdekoak, autonomia erkidegokoak eta estatukoak) lan profesionalari gehitzen zaion zailtasun bilakatzen da, ahalegin gehigarriaren bidez eta alderdien borondatearen bidez gainditu daitekeena.

Egoera honen ondorioak argi daude: esku-hartzeen arteko loturarik eza, hutsuneak, bikoiztasunak, eta irizpide bateraturik ez..., zerbitzuetarako (eraginkortasunik eza eta indarrak alferrik galtzea), zein adingabeentzat (arretarik eza, edo ganorarik gabeko arretak) kaltegarriak direnak.

Hutsune horiek direla eta, desio gisa, sarean lan egiteaz hitz egiten da. Bide horretan aurrera egiten den bitartean, neurriak daude, hain handiguratsuak izan gabe berehalakoak aplikatzeko modukoak liratekeenak eta hobekuntza garrantzitsuak ekarriko lituzketenak: koordinazio bideak, esku-hartzeko prozedura berdinak, tutoretza eta bakarkako ibilbideen jarraipena, profesional jakin batzuen eskutik, informatikako sistemen aprobetxamendua...

## 3. **Erantzukizunak mugatzea eta araudien beharra**

Tradizio luzea duten eta guztiz errotuta dauden zerbitzuetan egoera ezberdinak zehazki araututa eta kontrolatu, ikuskatu eta ebaluatzeko mekanismoak nabarmen garatuta dauden bezala (heziketa edo osasun arloak, besteak beste), laguntzazko beste arlo batzuetan ez da halakorik gertatzen.

Beste aldetik, aparteko ahultasun egoeran dauden adingabeen arretari dagokionean, sarritan, zerbitzuaren prestazio zehatza eskuordetu egiten da, adibidez, bere kabuz kudeatzen den elkarte edo talde batengan, eta administrazioak, horregatik, itunaren edo bestelako formula baten bidez, dirua ematen dio.

Eredu ezberdinen (zerbitzu propioak, itundutako zerbitzuak...) abantailen eta desabantailen gainean eztabaidatzen hasi gabe, ikusitakoak gutxienez ondokoetan sakondu behar dela berrestera garamatza:

- arretaren erantzukizuna, ondore guztietarako, kasu bakoitzean eskudun den administrazioarena da, eta ezin da eskuordetu.
- elkarteek baliabideak kudeatzen dituztenez, are beharrezkoagoa da jarduera esparruak argitzea: lokalen gutxienezko baldintzak, langileen gaitasuna eta prestakuntza, alderdien eskubideak eta betebeharrak, funtzionamenduaren arautegiak egon eta berrikustea, itunen definizioa eta berrikustea, kontrola eta kanpoko ebaluazioa...

Errealitateak aztertu ondoren, baiezta daiteke kasu batzuetan ez dagoela ezelako araudirik, ez eta gutxieneko kontrol mekanismorik ere, eta horrek esan nahi du administrazioren aldetik erantzukizunetan utzikeria dagoela. Araudiak berez ez ditu arazoak konpontzen, ezta gutxiago ere, baina erantzukizunak bai argitzen ditu, gutxieneko exijentziak ezartzen ditu, berme esparrua eskaintzen du eta, esparru horren arabera, eskubideen exijentzian segurtasun juridiko handiagoa izaten laguntzen du.

Bestalde, erantzukizunak ezartzeko orduan argitasunik ez izateak elkarteei eta administrazioei ez eze, familiei ere eragin liezaieke. Batzutan, beharrezkoa eta egingarria da familia horiekiko lana. Familia ereduak aldatzen ari diren arren, oraindik orain, gure artean, familiak funtsezko papera jokatzen du adingabearen eskubideak eta ongizatea bermatzeko garaian. Eta erakundeek familiaren funtsezko betekizun hori sustatu behar dute, lankidetzaren ildoak sendotuz.

## 4. **Plangintza eta ebaluazioa**

Sarritan, erakundeek adingabe jakin batengan edota egoera bati erantzunez esku hartzen dutenean, jarduera hori kokatzeko eta, ondorioz, ebaluatzeko markorik eskaintzen duen planik egon gabe burutzen da. Lehentasunak, lortu nahi diren helburuak, behar diren baliabideak, jarraipeneko mekanismoak, alderdi bakoitzaren erantzukizunak ezartzen dituen planik gabe, hain zuzen.

Plan edota konpromiso publikorik ez izateak jarduera administratiboen gaineko gizarte kontroleko ahalbideak murrizten ditu eta, are gehiago, geuri dagozkigun kontroleko eta eskubideak bermatzeko esku hartzeak zailtzen ditu.

## 5. **Azaleratutako beharrei erantzun egokia emateko zailtasunak**

Badira beharrizan berriak, edo une jakin batean ustekabeko garrantzia hartzen dutenak: bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektibo garrantzitsuaren presentzia, portaera arazo larriez edo drogen kontsumora lotutako arazo larriez hartzen diren nerabeak gehitzea… Orduan, dauden baliabideak behar horiekin bat ez datozela gertatu ohi da: aterpe edo harrera etxeetan ez dago arabieraz mintzatzen den edota hartutakoen kultura ezagutzen duen profesionalik, edo desohitzeko dauden programek adingabeak kanpoan uzten dituzte, eta boluntarioen lanean oinarritzen dira, edo buruko gaixotasunak sendatzeko zerbitzuek eskaintzen duten erantzuna ez da inola ere nahikoa.

Halakoetan, zailtasunak pilatu egiten dira: zaila da beharrizanak aurretiaz igartzea eta, ondorioz, sortu baino lehen planifikatu eta aurrea hartzea; agian, ez dago horren aldeko gizarte kontzientziarik, edo gerta liteke laguntzazko hainbat jarduera errefusatzea; lantalde profesionalek ez dute bere burua prestatuta sentitzen; urtetako ahaleginaren ondoren abian jarritako programek ez diete kolektibo horien berehalako beharrizanei erantzuten… Eta erantzunak premiazkoak dira, ordea.

Agian, azken urteotan adibiderik argiena bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokiena da, asko eta asko magrebiarrak direlarik. Ez dirudi abaguneko egoera denik, edo epe laburrera desagertuko denik. Beraz, jarduerak gainbegiratu behar direla dirudi, eta, luze gabe, baliabideak, irizpideak eta programak egokitu behar direla. Eta beharrezkoa da, halaber, gure erakundeetan egoera horiei, hain konplexuak eta zailak izanik, arreta berezia eskain diezaiegun.

## 6. **Konpentsazio neurriak hartzeko gogorik eza**

Zerbitzu arruntek, oro har, oinarrizko prestazioak, exijitzeko modukoak eta, printzipioz, denontzako berdinak ezarri ohi dituzte. Zenbait kasutan, erakundeak berak aldarazpenak sartzen ditu beharrizan zehatzei erantzun bereziak emateko; esaterako, hezkuntza beharrizan bereziei erantzuteko eskola sisteman sartu diren aldaketak. Baina arlo askotan aldaketak erantzun bereizgarriak, erantzun berdinak barik konpentsaziozkoak, berdintasuna barik doitasuna bilatzen duten erantzunak emateko gogorik ez dago, nonbait..

Begira diezaiogun, esaterako, haur eta nerabeei buruko gaixotasunetarako ematen zaien artapenari. Alor honetan osasun zerbitzu publikoak eskaintzen duen prestazioa urria delako adostasuna oso handia da. Baita erakundeek hartutako edo bereziki ahultasun egoeretan bizi diren adingabe askok dituzten psikiatria beharrak ere gero eta handigoak direla ere. Defendatu ahal da kasu horietan itxarote-zerrendako txanda aurreratzea edo arreta jarraituagoa ematea…, horrek irizpide orokorrak aldarazi arren? Gure ustez bai, argi eta garbi. Eta tratu bereizgarriak justifikatzen dituzten irizpide malguak eta prozedura bermatzaileak ezartzea era badago.

Gure gizartean badago bazterkeriaren edota ghettoen arriskua, eta arrisku hori gainditzeko prebentzio neurriak hartu eta konpentsaziozko politikak sendotu behar dira.

## 7. **Emantzipazioko irtenbideen eta programen ahulezia**

Sarritan, haurtzaroaren eskubideak bermatzeko orduan, jarduera publikoa prozesu kronologiko baten ondorioa da, eta honela labur daiteke: prebentzioa – antzematea –erabakitzea –artatzea – jarraipena egitea – “irtenbideak” bilatzea. Hori oso argi dago adibidez, babesik gabeko egoerei ematen zaien erantzunean.

Oro har, esan dezakegu gure babes-sistemek arretarako bideak bereziki garatu dituztela (egoitzen sarea edo aterpetxeak, barnetegiak, “erkidego” mailako zenbait erantzun…), baina prebentzioan (prebentzioak erantzun orokorrak eskatzen ditu), antzeman eta azkar erantzutean (gizarte-kontzientzia, oinarrizko zerbitzuen sendotzea, gizarte, osasun eta hezkuntza zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa), prozesuen ebaluazioan eta jarraipenean, eta emantzipazio eta gizarteratzeko bideetan zailtasun handiak topatzen dituztela.

Batzutan, tarte jakin batean adingabeari eskaintzen zaion erantzunaren kalitatea zehatz-mehatz aztertzen dugu: babesaren iraupena, barnetegietako egonaldiaren iraupena… baina arazo larrienak ez dira, ziurrenik, hor gertatzen, aurretiaz (arazoa antzeman baino lehen edo esku-hartzea erabaki baino lehen) edo ondoren (familiarengana itzultzean edo heldua delako emantzipatzen denean) baizik.

Aztertutako errealitateen arabera, alde handia dago (baliabideak eta egitarauak) “itxiak” edo “trinkoak” esan geniezaiekeen zerbitzuen eta eremu irekian egindako edo bitarteko ahalbideetan egindako lanaren artean. Horrela, “irteera” gizarteratzeko funtsezko une bihurtzen da, kritikoa, arriskuz beterikoa eta urteetan egindako lana zaputz lezakeena. irauten ez duelako edo gutxieneko jarraipenik egiten ez zaiolako.

Programa hauek gehiago garatu eta arian-arian emantzipatuz joatea, gizarteratzea, edo adingabeak beren jatorrizko familietara esku-hartzea exijitu zutenak baino baldintza hobeagoetan itzultzea erraztuko duten baliabideak prestatu behar direla ematen du. Gizarteratzeko ibilbideetako azken urratsak hobetzea da kontua.

## 8. **Informazioaren isilekotasuna eta tratamendua**

Beti ez da egoten adingabeen eta beren familien informazioaren gaineko irizpide argi eta zuzenik: zer nolako datuak bildu behar diren, nola islatu datuok agirietan edo informazioa nola gorde behar den, nork ikus ditzakeen artxibategi eta txosten horiek, zer egin behar den informazio horrekin behin egin beharrekoa egin denean … Garbi dago adingabearen eta familiaren intimitatea zaindu behar dela eta, horretarako, isilekotasunaren irizpidea errespetatu behar dela. Baina beti ez da erraza izaten, eta elkarren aurkako irizpide eta interesak ere egon litezke.

Egoera gatazkatsuetan arazo horiek are nabariagoak izaten dira, batez ere polizia tartean sartzen denean edo komunikabideek informazioa lortu nahi eta horretarako iturri ezberdinetara jotzen dutenean. Komunikabideen tratamenduari dagokionez, ez da batere erraza irizpide deontologikorik adostea, beharrekoa dirudien eta gai batzuetan lortu den arren (Euskal Herriko komunikabide ezberdinek "kazetaritzako estilo liburua" delakoaren inguruan 2000ko apirilaren 5ean iritsitako akordioa, atzerritarrekin zerikusia zuten berrien tratamenduaz). Dena dela, exijitzeko modukoa eta premiazkoa ematen du horretan parte hartzen duten lantalde eta profesional guztiek irizpide argiak izan ditzaten.

Baina, irizpideok izanda ere, betetzen diren kontrolatu beharko da, eta horretarako hainbat bidetara jo genezake: espediente pertsonalak, artxibategiak edo oharren koadernoak ikuskatzera, komunikabideetan ageri diren adingabeen gaineko informazioak jarraitzera, ofiziozko jardueretara…

## 9. **Gizartearen sentsibilizazioa eta eskubideen kultura**

Adingabeen gizarte artapeneko arloan oraindik ongintzaren mentalitatea dago. Kasu askotan ez gara exijitzeko moduko eskubideen aurrean gaudenik jabetzen, gizabidezko laguntzak, borondate onaren edo baliabideak edukitzearen mende dauden ekimenak direla pentsatzen baitugu.

Gizartearen pentsamolde horrek oso ondorio txarrak ditu adingabeengan (adibide gisa, pertsona askok arrisku edo babesik gabeko egoera jakinen salaketan duen inplikazio maila txikia), baina baita eskumendun erakundeentzat ere, hainbat erreparo eta mesfidantza gainditu behar izaten baitute. Denok dakigu, batzuetan, zein zaila izaten den, han edo hemen, arazoak dituzten adingabeentzako baliabide bat zabaltzea: gizartearen gaitzespena, udal agintarien laguntzarik eza…. aurkitzen dira.

Umeen eskubideen Konbentzioa ez da eskubideen katalogo hutsa: haur zein nerabe bakoitza zuzenbide subjektutzat, eskubide osoko herritar gisa hartzen du. Kontzepzio hori gure gizarte kulturan txertatu eta eguneroko jardunean gauza dadin, denbora eta jendartera zabaltzeko eta sentsibilizatzeko kemena eskatzen duen pentsamolde aldaketa ere gauzatu behar da.

Erakundeei dagokie gizartea sentsibilizatzea, beste gaietan egiten den moduan, eta prozesuen aitzindari izatea, gizartearen sostengua bilatuz eta, izatekotan, talde jakin batzuen presioa edo errefusatzea jazartzea. Ikuspegi berberetik, umeen eta nerabeek zuzenean parte har dezaten ahalbideak gehitu behar dira (konbentzioaren 12. artikuluan jasotako eskubidea), eta eskubideen ikuspegia zerbitzu ezberdinetara sartu behar da.

## 10. **Defentsa eta bermerako bitartekoak**

Lehenago esan dugu plangintza gizartearen kontrola errazten duen elementuetako bat dela, eta geure kontrol lanetan ere lagun diezagukeena ere badela. Badaude plangintza bezain bitarteko garrantzitsuak, eta jorratu behar ditugunak:

- zerbitzuen eguneroko jarduna bideratu, eskubideak eta betebeharrak ezarri edo prozedurak finkatzen dituzten antolamendu edo funtzionamenduko arautegiak, edo bizikidetasunerako arauak.
- adingabearen gainean hartutako erabakien edota parte hartu duteneko gorabeheren gaineko erregistroak.
- kexak eta erreklamazioak egiteko mekanismo formalak izatea.

Argi dago erakundeek artatutako adingabeen eskubideak errazago bermatzen direla alderdi guztientzako baliagarriak diren halako bitartekoak daudenean:

- adingabe edota horien familientzat, araudien prestakuntzan aktiboki parte hartu, esparru argia izan eta, behar izanez gero, beren kexak bidera baitezakete.
- profesionalentzat, erabakiak ezarritako esparruaren arabera hartzen uzten dieten irizpideak eta prozedurak baitituzte.
- administrazio eskudunentzat, horrela kontrolerako mekanismoak baitituzte.
- guri edo beste instantzia batzuei dagozkien esku hartze bermatzaileentzat.

* * *

Hemen aipatutako 10 kontuek eragin handiagoa ala txikiagoa daukate xehetasunez aztertzen den edozein ahultasun egoeratan eta, ziurrenik, azalagotik aztertutako beste batzuetan ere bai.

Beste alde batetik oker ibiliko ginateke elkarren arteko loturarik ez duten egoeren edo elkarrekin zerikusirik ez duten adingabe taldeen aurrean gaudela pentsatuko bagenu. Ez eta gutxiagorik ere. Oso argi dauden gizarteratzeko ibilbideak dauden moduan (familia egituratua – eskolaratze arrakastatsua – lanbide gaitasuna – lana aurkitu edo nork bere familia bizitza edukitzea - ...), gure gizartean badaude benetako bazterketa ibilbideak ere: familiarik eza, edo desegituratutako familia, eskolaratze arazotsua edo eskola porrota – erakundeetara sartzea – delinkuentzia- erakundeetara berriro sartzea - berrerortzea…

Gaur aterpetxean dagoen edo eskolatu gabe ikusten dugun adingabea, bihar barnetegi edo giltzapeko zentro batean aurkituko dugu eta, handik hilabete batzuetara, ahultasun bereziko egoeran aurkitzea gerta dakiguke. Horregatik da hain garrantzitsua osotasuneko ikuspegia edukitzea, zerbitzuen arteko koordinazioa lortzea edo gizarteratzera erraztu arteko ibilbide pertsonalen jarraipena egitea.

Hemen aipatutako hamar izendatzaile komunak, aldi berean, kezkatzeko arazoak, hobetzeko proposamenak eta kalte-beratasun berezietako egoerak pairatzen dituzten adingabeen eskubideen defentsako gure jarduera bidera lezaketen ildoak dira.

IV. ERANSKINA

# GRAFIKOAK

## ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2002an BUKATUTAKO KEXETAN




**1. DIAGRAMA**

## ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA




**2. DIAGRAMA**

## ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2002)




1 545 kexak kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
2 1.143 kexak kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.
3 62 kexak kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
4 264 kexak kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

**3. DIAGRAMA**

## 2002an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




**4. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




**5. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




**6. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




1 Funtzio Publikoa
2 Osasuna
3 Hezkuntza
4 Herrizaingoa
5 Hirigintza eta Etxebizitza
6 Gizarte Ongizatea
7 Lana eta Gizarte Segurantza
8 Kultura eta Elebitasuna
9 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
10 Herri Lanak eta Zerbitzuak
11 Justizia
12 Ingurumena
13 Ogasuna

**7. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




1 Osasuna
2 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa
3 Herrizaingoa
4 Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
5 Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza
6 Ogasun eta Herri Administrazioa
7 Industria, Merkataritza eta Turismoa
8 Kultura
9 Garraio eta Herri Lanak
10 Lurralde Antolamendu eta Ingurumena
11 Nekazaritza eta Arrantza

**8. DIAGRAMA**

## FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




| | |
|---|---|
| 1 Ogasuna | 6 Herrizaingoa |
| 2 Gizarte Ongizatea | 7 Kultura eta Elebitasuna |
| 3 Herri Lanak eta Zerbitzuak | 8 Hirigintza eta Etxebizitza |
| 4 Funtzio Publikoa | 9 Osasuna |
| 5 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 10 Ingurumena |

**9. DIAGRAMA**

## UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




| | |
|---|---|
| 1 Hirigintza eta Etxebizitza | 7 Gizarte Ongizatea |
| 2 Herri Lanak eta Zerbitzuak | 8 Osasuna |
| 3 Herrizaingoa | 9 Kultura eta Elebitasuna |
| 4 Ingurumena | 10 Hezkuntza |
| 5 Ogasuna | 11 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa |
| 6 Funtzio Publikoa | |

**10. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2002)




| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BIZKAIA** | 288 | 828 | 293 | 332 | 376 | 349 | 528 | 746 | 915 | 1.471 | 649 | 645 | 651 | 643 |
| **GIPUZKOA** | 188 | 195 | 244 | 241 | 250 | 234 | 281 | 448 | 663 | 905 | 372 | 295 | 375 | 294 |
| **ARABA** | 97 | 125 | 158 | 201 | 182 | 160 | 328 | 446 | 371 | 244 | 237 | 256 | 444 | 268 |

**11. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2002)




**12. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXAGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




**13. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




**14. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




**15. DIAGRAMA**

## 2002an ARRETA ZUZENEKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




**16. DIAGRAMA**




**17. DIAGRAMA**

### BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA




**18. DIAGRAMA**

## KEXA BILAKATUTAKO BISITAK




**19. DIAGRAMA**

## ARRETA ZUZENEKO HIRU BULEGOETARA JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA




**20. DIAGRAMA**

# OFIZIOZKO JARDUERAK (2002)

## BANAKETA ALORREZ ALOR




**21. DIAGRAMA**

## ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




**22. DIAGRAMA**

# KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

## 1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?




**2002**




**2001**

**23. DIAGRAMA**

## 2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?




**2002**




**2001**

**24. DIAGRAMA**

## KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?




**25. DIAGRAMA**

### 4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:




**26. DIAGRAMA**

## KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




**2002**




**2001**

**27. DIAGRAMA**

### 6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?




**2002**




**2001**

**28. DIAGRAMA**

## ARAZOA “*ez da konpondu*” *edo* “*nahiko txarto konpondu da*” DIOTEN KEXAGILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA

### 5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)




**2002**




**2001**

**29. DIAGRAMA**

### 6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?




**2002**




**2001**

**30. DIAGRAMA**

# GAIEN AURKIBIDEA

## A

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 257**
Bidegabeko atzerapenak
Euskara eta gizartea, 257
**Adimeneko ezintasuna duten pertsonak**
Egoitzak, 183
**Adinarengatiko bereizkeria**
Adinekoak
Osasun prestazioak, 333
**Adinekoak, 333**
Adinarengatiko bereizkeria, 333
Egoitzak, 55, 333
Egoitzaz kanpoko laguntza, 61
Eguneko zentroak, 333
Etxez etxeko laguntza, 333
Familia, 179
Gizarte eta osasun prestazioak, 333
Gizarte zerbitzuak, 333, 502
Osasun prestazioak, 333, 502
**Adingabeak, 335**
Adingabeko lege hausleak, 91, 337, 498
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 337, 342, 498
Babesik gabeko adingabeak, 73, 337
Gizarte eskubideak, 517
Gizarte taldeak, 339
Haur hezkuntza, 194, 495
Hezkuntza, 335
Hezkuntza-premia bereziak, 195, 198, 338
Legegintzaren beharra, 340, 498
Ombudsmana, 153, 517
Polizia, 241
Sasoikako langile adingabeak, 43, 338, 343
Tratu txarrak
Eraginkortasun printzipioa, 433, 487
Kooperazio printzipioa, 433, 487
Koordinazio printzipioa, 433, 487
Protokoloa, 433, 487
**Adingabeko lege hausleak, 91, 256, 337, 498**
**Administrazio-errekurtsoak**
Ordainsariak, 422
**Administrazio-hitzarmenak, 421**
**Administrazioaren aukeramena**
Errepideak, 283
Herri lanak, 277
**Administrazioaren erantzukizuna**
Administrazioaren kontratazioa, 428
Errepideak, 284

Foru zerbitzu publikoak, 421
Funtzio publiko orokorra
Sarrera, 212, 221
Herri lanak, 425
Jabetza pribaturako eskubidea, 497
Udal zerbitzu publikoak, 422, 423, 426, 427, 428
Zerbitzu publikoak, 278
**Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak**
Bidezko konfiantzaren printzipioa, 173, 175, 420
Eraginkortasun printzipioa, 188
Adingabeak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Ombudsmana, 153
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
Kooperazio printzipioa, 188
Adingabeak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Haur hezkuntza, 194, 495
Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
Koordinazio printzipioa, 188
Adingabeak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Haur hezkuntza, 194, 495
Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
**Administrazioaren kontratazioa, 428**
**Alkatetza dekretuak**
Nudismoa, 418
**Ama-haurren moduluak**
Espetxeak, 259
**Amaordetza**
Emakumeak, 330
**Animaliak**
Ohiturazko ikuskizunak, 428
Udal ordenantzak, 264
**Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**
Berdintasun printzipioa, 486
Atzerritarrak, 486
Emakumeak, 297, 321, 325, 327, 328, 330, 486
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 348
Ezkongabeak, 417, 486
Legezkotasun printzipioa
Alkatetza dekretuak, 418
TAO, 240, 247, 348
Segurtasun juridikoaren printzipioa
Kirol lizentziak, 192
**Aparkalekuak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 241, 347, 425

**Araztegiak, 278**
**Ardandegiak**
Usainak, 268, 419
Zaratak, 268, 419
**Arkitektura-oztopoak**
Eraikin publikoak, 351
Irisgarritasuna, 348
**Askatasun sindikalerako eskubidea**
Ordezkari sindikalen informaziorako eskubidea, 424
**Atmosferako kutsadura**
Industri jarduera sailkatuak, 264
Ostalaritza establezimenduak, 265
**Atxilotuak, 127**
Atzerritarrak, 241, 244, 342
Biluzteak, 241, 342
Gizarte taldeak, 139
Gorputz araketak, 491
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 241, 244, 342
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 241, 244, 342, 489
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 241, 244, 342
Polizia, 241, 342
Tratu txarrak, 127, 488
Ziegak, 127
Bideograbazioa, 127
**Atzerritarrak, 342, 486**
Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak, 343, 513
Atxilotuak, 241, 244, 342
Berdintasunerako eskubidea, 486
Espetxeratuak, 255
Etxebizitzen alokairua, 317
Gizarte taldeak, 139, 343
Kulturarako eskubidea, 148
Ombudsmana, 153
Plangintza, 343, 513
Polizia, 104
**Aurrearretazko espetxeratzea**
Emakumeak, 259
**Auzibideratzea**
Bidegabeko atzerapenak, 250, 259
Delituen biktimak, 253
Genero-indarkeria, 251
Herritarren eskubideak eta betebeharrak
Informaziorako eskubidea, 318

**B**

**Babes bereziko taldeak**
Adimeneko ezintasuna duten pertsonak
Egoitzak, 183
Adinekoak, 179, 333
Egoitzak, 55, 333
Egoitzaz kanpoko laguntza, 61
Eguneko zentroak, 333
Etxez etxeko laguntza, 333
Gizarte eta osasun prestazioak, 333
Gizarte zerbitzuak, 333, 502
Osasun prestazioak, 333, 502

Adingabeak, 335, 517
- Adingabeko lege hausleak, 91, 337, 498
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 337, 342, 498
- Babesik gabeko adingabeak, 73, 337
- Eskola garraioa, 196, 204
- Gizarte taldeak, 339
- Haur hezkuntza, 194, 495
- Hezkuntza, 335
- Hezkuntza-premia bereziak, 195, 196, 198, 203, 338, 345
- Legegintzaren beharra, 340, 498
- Ombudsmana, 153
- Polizia, 241
- Sasoikako langile adingabeak, 43, 338, 343
- Tratu txarrak, 433, 487

Adingabeko lege hausleak, 256

Atxilotuak, 127
- Atzerritarrak, 241, 244, 342
- Bideograbazioa, 127
- Biluzteak, 241, 342
- Gizarte taldeak, 139
- Gorputz araketak, 491
- Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 241, 244, 342
- Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 241, 244, 342, 489
- Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 241, 244, 342
- Polizia, 241, 342
- Tratu txarrak, 127, 488
- Ziegak, 127

Atzerritarrak, 342
- Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak, 343, 513
- Atxilotuak, 241, 244, 342
- Berdintasun printzipioa, 486
- Espetxeratuak, 255
- Etxebizitzen alokairua, 317
- Funtzio publiko orokorra, 212, 220, 343
- Gizarte taldeak, 139, 343
- Kulturarako eskubidea, 148
- Ombudsmana, 153
- Plangintza, 343, 513
- Polizia, 104

Burutik gaixo daudenak
- Gizarte arreta, 117
- Gizarte taldeak, 139
- Nahitaezko barnerapen psikiatrikoa, 295
- Nahitaezko osasun-laguntza, 289, 499

Drogaren menpekoak
- Gaueko aterpetxeak, 180

Emakumeak
- Amaordetza, 330
- Amatasuna, 212, 213, 221
- Berdintasun printzipioa, 321, 486
- Espetxeak, 259
- Espetxeratuak, 255, 326
- Genero-indarkeria, 136, 243, 251, 252, 321, 326, 487
- Guraso bakarreko familiak, 331
- Kexak, 322

Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297, 321, 328, 486
Mamografiak, 332
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 417
Prostituzioa, 332
Sexu-bereizkeria, 297, 325, 327
Errefuxiatuak
Ombudsmana, 163
Espetxeratuak, 254
Atzerritarrak, 255
Baldintzapeko askatasuna, 254
Emakumeak, 255, 326
Espetxeak, 26
Gizarte taldeak, 139
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 254
Laguntza ekonomikoak, 255
Osasun prestazioak, 256, 499
Zigorra non bete, 254
Etxerik gabeko pertsonak
Harrera zentroak, 421
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 344
Aparkalekuak, 241, 347, 425
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 350
Berdintasunerako eskubidea, 348
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 492
Egoitzak, 179
Erabilera bereziko garraio-zerbitzu arautuak, 183
Funtzio publikoa, 344, 345, 443
Gizarte taldeak, 139
Gizarteratzea, 501
Hezkuntza-premia bereziak, 345
Hezkuntzarako eskubidea, 345
Irisgarritasuna, 348, 351, 501
Lana, 352
Osasun alorreko funtzio publikoa, 214, 226, 345
PFEZ, 348
TAO, 240, 248, 348
Unibertsitate hezkuntza, 197, 200, 346
Ezgaituak, 179
Familia, 178, 179, 497
PFEZ, 228
Familia ugariak
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315
GIB-eramaileak
Datu pertsonalak babestea, 289, 291, 490
Guraso bakarreko familiak
Emakumeak, 331
Prezio publikoak, 422
Kultur gutxiengoak
Kulturarako eskubidea, 148
Minbizia duten adingabeak
Hezkuntza-premia bereziak, 196
Sasoikako langileak, 43
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 501
Gizarte taldeak, 139

Terrorismoaren biktimak
Gizarte taldeak, 139
Kalte materialen ordaina, 507
Kalte moralen ordaina, 507
**Babes ofizialeko etxebizitzak, 500**
Adjudikatzeko irizpideak, 302, 314, 315, 350, 423
**Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 337, 342, 498**
**Babesik gabeko adingabeak, 73, 337**
**Bahiturak**
Prozedura zigortzailea, 231, 423
**Bakezaleak**
Gizarte taldeak, 139
**Baldintzapeko askatasuna, 254**
**Balioak egiaztatzea**
OEZ, 236
**Banku-helbideratzea**
Zergen alorreko prozedura, 229
**Barneko kontu-ikuskapena**
Espedientea ikusteko aukera, 197, 208
**Berdintasun printzipioa**
Atzerritarrak, 486
Emakumeak, 321, 486
Amaordetza, 330
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297, 321, 328
Sexu-bereizkeria, 297, 325, 327
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 348
Ezkongabeak, 417, 486
**Berdintasunerako eskubidea, 486**
Adinarengatiko bereizkeria
Adinekoak, 333
Atzerritarrak, 486
Emakumeak, 321, 486
Amaordetza, 330
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297, 321, 328
Sexu-bereizkeria, 297, 325, 327
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 348
Ezkongabeak
PFEZ, 233, 417, 486
**Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**
Administrazio-karrera, 417
Atzerritarrak, 212, 220, 343
EBko herritartasuna, 215, 218
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 492
Funtzio publikoa, 344, 345
Osasun alorreko funtzio publikoa, 214, 226, 345
Funtzio publikoa
Enplegu eskaintza publikoa, 491
Osasun alorreko funtzio publikoa, 417
Enplegu eskaintza publikoa, 214
Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 422
**Berriro gizarteratzeko eskubidea**
Espetxeratuak, 26, 494
**Bideak, 276**

**Bidegabeko atzerapenak, 259**
Auzibideratzea, 250
Euskara eta gizartea, 257
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 493
**Bideograbazioa**
Ziegak, 127
**Biluzteak**
Atxilotuak, 241, 342
**Bioetika**
Gizarte zerbitzuak, 180
**Bitartekaritza**
Hirigintza kudeaketa, 427
San Bartolome mendixka, 308
**Bizikletak**
Hiriko trafikoaren antolamendua, 426
**Bizitzeko eskubidea**
Emakumeak
Genero-indarkeria, 136
Terrorismoaren biktimak, 487
**Buru-osasuna**
Nahitaezko barnerapen psikiatrikoa, 295
Nahitaezko osasun-laguntza, 289, 499
**Burutik gaixo daudenak**
Gizarte arreta, 117
Gizarte taldeak, 139
Nahitaezko barnerapen psikiatrikoa, 295
Nahitaezko osasun-laguntza, 289, 499

## D

**Datu pertsonalak babestea**
Ezabatzea
Polizia, 241, 243
GIB-eramaileak, 289, 291, 490
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 470
Polizia, 241, 243
Teknologia berriak, 490
Tratamendu automatizatua, 470
Zentralizazioa, 289, 293, 490
**Delituen biktimak, 253**
**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
Ebaluazioak, 197, 201
Ordezkapenak, 216, 217
**Desjabetzapenak, 278**
Obra proiektua, 282
**Diru-laguntzak**
Lana, 298
Prozedura administratiboa, 173, 175, 420
**Drogaren menpekoak**
Gaueko aterpetxeak, 180

## E

**EBko herritartasuna**
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
Ordezkapenak, 215, 218

**Egoitzak**
Adimeneko ezintasuna duten pertsonak, 183
Adinekoak, 55, 333
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 179
**Egoitzaz kanpoko laguntza**
Adinekoak, 61
**Eguneko zentroak**
Adinekoak, 333
**Ehiza, 426**
Baimenak, 172, 426
**Elektrizitatea, 276**
**Elikadurarako pentsioak**
PFEZ, 233, 417, 486
**Emakumeak, 321**
Amaordetza, 330
Berdintasunerako eskubidea, 321, 486
Espetxeratuak, 255, 326
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 331
Genero-indarkeria, 136, 321, 326, 487
Auzibideratzea, 251
Polizia, 243, 252
Guraso bakarreko familiak, 331
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 417
Kexak, 322
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297, 486
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 417
Osasun prestazioak
Mamografiak, 332
Prostituzioa, 332
Sexu-bereizkeria, 297, 325, 327
Alardea, 325
**Enplegu eskaintza publikoa, 211, 215**
Aurretiko zerbitzuak, 214
**Erabilera bereziko garraio-zerbitzu arautuak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 183
**Erabiltzaileen eskubideak**
Trenbideko garraioa, 286
**Eraginkortasun printzipioa, 188**
Adingabeak
Tratu txarrak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Ombudsmana, 153
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
**Eraikin publikoak**
Irisgarritasuna, 351
**Eraikinen segurtasuna**
Hirigintzako diziplina, 418
**Erkidegoaren antolamendu juridikoko printzipioak**
Zuhurtasun-printzipioa
Goi-tentsioko hari elektrikoak, 173, 462, 500
**Errefuxiatuak**
Ombudsmana, 163

**Errepideak, 276**
Administrazioaren erantzukizuna, 284
Hiri plangintza, 283
Udal zerbitzu publikoak, 417
**Errolda, 281**
Errolda-agiriak, 418
Guraso-agintearen eskubideak, 331
**Eskola garraioa**
Haur hezkuntza, 196, 204
Hezkuntza-premia bereziak, 196, 203
**Eskolako materiala, 206**
**Eskulangintzako azokak**
Saltokien adjudikazioa, 174
**Espedientea ikusteko aukera**
Barneko kontu-ikuskapena, 197, 208
**Espetxeak**
Ama-haurren moduluak, 259
Aurrearretazko espetxeratzea
Emakumeak, 259
Espetxeratuak, 26
**Espetxeratuak, 26, 254**
Atzerritarrak, 255
Baldintzapeko askatasuna, 254
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 494
Emakumeak, 255, 326
Gizarte taldeak, 139
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 254
Laguntza ekonomikoak, 255
Osasun prestazioak, 256, 499
Zigorra non bete, 254
**Estatistika publikoa, 319**
**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 302**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 423, 500
Lokalak
Udal ordenantzak, 476
Sasoikako langileak, 501
**Etxebizitzak**
Lokalak
Udal ordenantzak, 476
**Etxebizitzen alokairua**
Atzerritarrak, 317
**Etxerik gabeko pertsonak**
Harrera zentroak, 421
**Etxez etxeko laguntza**
Adinekoak, 333
**Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 179**
**Euskara eta administrazio publikoa, 188**
Hizkuntz normalizazioa, 191
Polizia, 190
**Euskara eta gizartea**
Bidegabeko atzerapenak, 257
**Euskara eta hezkuntza, 196**
Hizkuntz tratamendu bereizia, 196, 199
**Euskara eta irakaskuntza**
IRALE, 215
**Euskara eta justizi administrazioa, 189, 253**

**Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 344**
Aparkalekuak, 241, 347, 425
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 350
Berdintasunerako eskubidea, 134, 348
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 492
Egoitzak
Prezio publikoak, 179
Erabilera bereziko garraio-zerbitzu arautuak, 183
Funtzio publikoa
Sarrera, 344, 345, 443
Gizarte taldeak, 139
Gizarteratzea, 501
Hezkuntza-premia bereziak, 345
Hezkuntzarako eskubidea, 345
Irisgarritasuna, 348, 351, 501
Lana, 352
Osasun alorreko funtzio publikoa, 214, 226, 345
PFEZ, 348
TAO, 240, 248, 348
Unibertsitate hezkuntza, 197, 200, 346
**Ezgaituak, 179**

**F**

**Familia, 178, 497**
Adinekoak, 179
PFEZ, 228
**Familia ugariak**
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315
**Foru zerbitzu publikoak**
Administrazioaren erantzukizuna, 421
**Foru zergak**
OEZ
Balioak egiaztatzea, 236
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga
Zergadunaren eskubideak eta bermeak, 426
PFEZ
Elikadurarako pentsioak, 233, 417, 486
Familia, 228
Ohiko etxebizitza erostea, 234
Rentanet etxean, 228
Zerga-ordainketarako aukera, 235
ZMDA, 417
**Funtzio publiko orokorra**
Amatasuna, 212, 213, 221
Enplegu eskaintza publikoa, 211
Kalte-ordainak, 429
Lan-egutegia, 424
Lekualdatze-lehiaketa, 211
Lizentziak eta baimenak, 212, 424
Ordainsariak, 422
Sarrera
Administrazioaren erantzukizuna, 212, 221
Atzerritarrak, 212, 220, 343
**Funtzio publikoa**
Sarrera
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 344, 345, 443

## G

**Gastuen itzulketa**
Osasuna, 292
**Gaueko aterpetxeak**
Drogaren menpekoak, 180
**Genero-indarkeria, 136, 321, 326**
Auzibideratzea, 251
Polizia, 243, 252
**Giza eskubideak**
Berdintasunerako eskubidea, 486
Atzerritarrak, 486
Emakumeak, 486
Ezkongabeak, 486
Berriro gizarteratzeko eskubidea
Espetxeratuak, 494
Bizitzeko eskubidea
Emakumeak, 321
Terrorismoaren biktimak, 487
Europako Batasuna, 148
Hezkuntzarako eskubidea, 495
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495
Haur hezkuntza, 495
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
Adingabeak, 487
Atxilotuak, 488
Emakumeak, 321, 487
Terrorismoaren biktimak, 487
Material didaktikoa, 149
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
Atxilotuak, 489
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
Atxilotuak, 491
Datu pertsonalak babestea, 490
GIB-eramaileak, 490
Teknologia berriak, 490
Teknologia berriak, 151
Terrorismoaren biktimak, 485
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
Zergen alorreko prozedura, 493
**Gizarte bazterketa**
Oinarrizko errenta, 148
Betekizunak, 185
**Gizarte eskubideak**
Adimeneko ezintasuna duten pertsonak
Egoitzak, 183
Adinekoak, 179, 333, 502
Egoitzak, 55
Egoitzaz kanpoko laguntza, 61
Adingabeak, 335, 517
Adingabeko lege hausleak, 91, 498
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 498
Babesik gabeko adingabeak, 73
Legegintzaren beharra, 498
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 302, 314, 423
Atzerritarrak, 317
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 315, 350

- Familia ugariak, 315
- Lokalak, 476
- Sasoikako langileak, 501
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 344
    - Aparkalekuak, 241, 347, 425
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 350
    - Egoitzak, 179
    - Erabilera bereziko garraio-zerbitzu arautuak, 183
    - Gizarteratzea, 501
    - Irisgarritasuna, 501
    - TAO, 240, 248, 348
    - Unibertsitate hezkuntza, 197, 200, 346
  - Ezgaituak, 179
  - Familia, 178, 179, 497
    - Amatasuna, 212, 213, 221
    - PFEZ, 228
  - Familia ugariak
    - Babes ofizialeko etxebizitzak, 315
  - Guraso bakarreko familiak, 422
  - Ingurumen egokia izateko eskubidea
    - Atmosferako kutsadura, 264, 499, 500
    - Goi-tentsioko hari elektrikoak, 500
    - Kutsadura akustikoa, 262, 499, 500
  - Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 106

**Gizarte eta osasun laguntza**
- Eraginkortasun printzipioa, 178
- Kooperazio printzipioa, 178
- Koordinazio printzipioa, 178

**Gizarte taldeak, 139**
- Adingabeak, 339
- Atxilotuak, 139
- Atzerritarrak, 139, 343
- Babes bereziko taldeak, 139
- Burutik gaixo daudenak, 139
- Espetxeratuak, 139
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 139
- Haur hezkuntza, 139
- Hezkuntza-premia bereziak, 139
- Sasoikako langileak, 139
- Terrorismoaren biktimak, 139

**Gizarte zerbitzuak**
- Adinekoak, 333, 502
- Bioetika, 180
- Egoitzak
  - Adimeneko ezintasuna duten pertsonak, 183
  - Adinekoak, 55
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 179
- Egoitzaz kanpoko laguntza
  - Adinekoak, 61
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 179
- Gaueko aterpetxeak
  - Drogaren menpekoak, 180
- Grebarako eskubidea, 297, 299
- Kudeaketarako hitzarmenak, 184
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 106
- Prezio publikoak, 179

**Goi-tentsioko hari elektrikoak**
Osasun publikoa, 173, 462, 500
**Gorputz araketak**
Atxilotuak, 491
**Grebarako eskubidea**
Gizarte zerbitzuak, 297, 299
**Guraso bakarreko familiak**
Emakumeak, 331
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 331
Prezio publikoak, 422
**Guraso-agintearen eskubideak**
Errolda
Errolda-agiriak, 331
Informaziorako eskubidea, 331

## H

**Harrera zentroak**
Etxerik gabeko pertsonak, 421
**Haur hezkuntza**
Eskola garraioa, 196, 204
Gizarte taldeak, 139
Hezkuntzarako eskubidea, 194, 495
Hizkuntz tratamendu bereizia, 196, 199
Ikasleen onarpena
Hezkuntza-premia bereziak, 195, 198, 420
Irakaskuntzaren programazio orokorra, 194, 495
Kooperazio printzipioa, 194, 495
Koordinazio printzipioa, 194, 495
**Herri lan hidraulikoak**
Uholdeak, 280
**Herri lanak, 277, 425**
Administrazioaren aukeramena, 277
Araztegiak, 278
Bide azpiegiturak, 277
Desjabetzapenak, 278
**Herriaren defendatzaileak**
Adingabeak, 153
Atzerritarrak, 153
Errefuxiatuak, 163
Zerbitzu publikoak, 153
**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**
Defentsarako eskubidea
Prozedura administratiboa, 184
Erabiltzaileen eskubideak, 286
Errolda, 331, 418
Espedientea ikusteko aukera
Barneko kontu-ikuskapena, 197, 208
Estatistika publikoa, 319
Herritarren parte-hartzea, 301
Informaziorako eskubidea, 292, 318
Bahiturak, 319
Guraso-agintearen eskubideak, 331
Polizia, 243
Jabetza pribaturako eskubidea
Administrazioaren erantzukizuna, 497
Hiri plangintza, 313, 497

Kulturarako eskubidea
Atzerritarrak, 148
Kultur gutxiengoak, 148
Ustiatzeko askatasuna
Ekoizpen esklusiboko aldeak, 172, 173
Zergadunaren eskubideak eta bermeak
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 426
Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa, 496
Ordaintzeko betebeharra, 237, 449
Prezio publikoak, 422
**Herritarren parte-hartzea**
Hiri plangintza, 301
**Hezkuntza**
Eskolako materiala, 206
Irakasleak prestatzeko proiektua, 197
**Hezkuntza-premia bereziak, 338**
Eskola garraioa, 196, 203
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 495
Adingabeak, 345
Gizarte taldeak, 139
Haur hezkuntza, 195, 198, 420
Hezkuntzarako eskubidea, 125
Minbizia duten adingabeak, 196
**Hezkuntzarako eskubidea, 495**
Adingabeak, 195, 198
Eskola garraioa, 196, 203, 204
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 345
Hezkuntza-premia bereziak, 495
Haur hezkuntza, 194, 495
Hezkuntza-premia bereziak, 125
Minbizia duten adingabeak, 196
**Hiri jarduera sailkatuak**
Ardandegiak
Usainak, 268, 419
Zaratak, 268, 419
Kutxetak
Zaratak, 273
Ostalaritza establezimenduak
Keak, 265
Lizentziak, 422, 427
Usainak, 265
Zaratak, 262, 265, 266, 272, 422, 427
Zabortegiak, 418
**Hiri plangintza**
Errepideak, 283
Herritarren parte-hartzea, 301
Ibaiak, 311
Jabetza pribaturako eskubidea, 497
Kultur ondarea, 188
Lurraren araubide juridikoa
Jabetza pribaturako eskubidea, 313
Lurraren sailkapena, 312
**Hirigintza kudeaketa, 302**
Antolamenduz kanpokoak
San Bartolome mendixka, 308

Desjabetzapenak
    Obra proiektua, 282
  Konpentsazio proiektua, 309, 419
  Urbanizazio proiektua, 427

**Hirigintza-oztopoak**
  Irisgarritasuna, 348

**Hirigintzako diziplina, 302, 422**
  Eraikinen segurtasuna, 418
  Obrak egiteko baimenak, 302, 307
    Itxiturak, 303
    Udalaren kaleak, 305, 421

**Hiriko trafikoaren antolamendua**
  Bizikletak, 426
  Jendaurreko ikuskizunak, 247

**Hizkuntz normalizazioa**
  Euskara eta administrazio publikoa, 188, 191
    Polizia, 190
  Euskara eta gizartea
    Bidegabeko atzerapenak, 257
  Euskara eta hezkuntza, 196
    Hizkuntz tratamendu bereizia, 196, 199
  Euskara eta justizi administrazioa, 189, 253
  IRALE, 215

## I

**IAT**
  Prozedura zigortzailea, 173, 177

**Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 164**

**Ibilgailuak erretiratzea, 241**

**Industri jarduera sailkatuak**
  Keak, 264

**Informaziorako eskubidea, 188**
  Guraso-agintearen eskubideak, 331
  Polizia, 243

**Ingurumen egokia izateko eskubidea**
  Atmosferako kutsadura, 264, 265
    Ibilgailuen zirkulazioa, 500
    Ostalaritza establezimenduak, 499
  Goi-tentsioko hari elektrikoak, 500
  Kutsadura akustikoa, 262, 265, 266, 268, 272, 273, 419, 427
    Ibilgailuen zirkulazioa, 500
    Ostalaritza establezimenduak, 499
  Zabortegiak, 418

**Integritate fisiko eta moralerako eskubidea**
  Adingabeak
    Tratu txarrak, 433, 487
  Atxilotuak, 241, 244, 342
    Tratu txarrak, 127, 488
  Atzerritarrak
    Polizia, 104
  Emakumeak
    Genero-indarkeria, 136, 243, 251, 252, 321, 326, 487
  Espetxeratuak, 254
  Terrorismoaren biktimak, 487
  Tratu txarrak, 242
    Grabazioak, 241

**Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**
Administrazio-karrera, 417
Emakumeak, 417
Enplegu eskaintza publikoa, 215
IRALE, 215
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 216
Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 417
Ordezkapenak, 215, 420
Aurretiko zerbitzuak, 215, 218
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 216, 217
**Irakaskuntzaren programazio orokorra**
Haur hezkuntza, 194, 495
**IRALE, 215**
**Irisgarritasuna**
Arkitektura-oztopoak, 348
Eraikin publikoak, 351
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 348, 351, 501
Hirigintza-oztopoak, 348
Oztopoak garraioan, 276, 348
Sentimen-oztopoak, 348
**Itxaron zerrendak**
Medikuntzako saioak, 291

## J

**Jabetza pribaturako eskubidea**
Administrazioaren erantzukizuna, 497
Hiri plangintza, 313, 497
**Jakinarazpenak**
Zergen alorreko prozedura, 228, 230, 493
**Jendaurreko ikuskizunak**
Hiriko trafikoaren antolamendua, 247
**Justizia administrazioa, 250**

## K

**Katastro-balorazioak, 229**
**Keak**
Industri jarduera sailkatuak, 264
Ostalaritza establezimenduak, 265
**Kirol lizentziak, 192**
Kirol lizentziak, 192
**Kooperazio printzipioa, 188**
Adingabeak
Tratu txarrak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Haur hezkuntza, 194, 495
Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
**Koordinazio printzipioa, 188**
Adingabeak
Tratu txarrak, 433, 487
Atzerritarrak, 343, 513
Gizarte eta osasun laguntza, 178
Haur hezkuntza, 194, 495

Laguntza bidezko ugalketa, 288, 499
Osasun garraioa, 288
Sexua aldatzeko kirurgia, 289, 499
**Kudeaketarako hitzarmenak**
Gizarte zerbitzuak, 184
**Kultur gutxiengoak**
Kulturarako eskubidea, 148
**Kultur ondarea**
Hiri plangintza, 188
**Kulturarako eskubidea**
Atzerritarrak, 148
Kultur gutxiengoak, 148
**Kutsadura akustikoa**
Ardandegiak, 268, 419
Kutxetak, 273
Ostalaritza establezimenduak, 262, 265, 266, 272, 427
**Kutxetak**
Zaratak, 273

## L

**Laguntza bidezko ugalketa**
Eraginkortasun printzipioa, 288, 499
Kooperazio printzipioa, 288, 499
Koordinazio printzipioa, 288, 499
**Lan-egutegia**
Funtzio publiko orokorra, 424
**Lana**
Diru-laguntzak, 298
Emakumeak
Sexu-bereizkeria, 297, 327
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 352
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297
Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa, 297
**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 297, 321, 328**
Emakumeak, 486
Funtzio publiko orokorra, 212, 213, 221
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 216
**Legegintzaren beharra**
Adingabeak, 340, 498
Lurra, 301, 501
**Legezkotasun printzipioa**
Alkatetza dekretuak, 418
TAO, 240, 247, 348
**Lekualdatze-lehiaketa, 211**
**Lizentziak**
Ostalaritza establezimenduak, 422, 427
Pasabideak, 286
**Lizentziak eta baimenak, 212, 424**
Ordainsariak, 214, 224, 420
**Lurra**
Legegintzaren beharra, 301, 501
**Lurraren araubide juridikoa**
Jabetza pribaturako eskubidea, 313
**Lurraren sailkapena, 312**

## M

**Material didaktikoa**
Giza eskubideak, 149
**Medikuntzako saioak**
Itxaron zerrendak, 291
**Minbizia duten adingabeak**
Hezkuntza-premia bereziak, 196

## N

**Nahitaezko barnerapen psikiatrikoa**
Burutik gaixo daudenak, 295
**Nahitaezko osasun-laguntza**
Burutik gaixo daudenak, 289, 499
**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**
Atxilotuak, 241, 244, 342, 489
Atzerritarrak
Polizia, 104
Espetxeratuak, 254
**Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea**
Atxilotuak, 241, 244, 342
Gorputz araketak, 491
Datu pertsonalak babestea, 470
Polizia, 241, 243
Teknologia berriak, 490
Tratamendu automatizatua, 289, 293, 490
GIB-eramaileak, 289, 291, 490
**Nudismoa**
Alkatetza dekretuak, 418

## O

**Obesitate erigarria**
Osasun prestazioak, 290
**Obra proiektua**
Desjabetzapenak, 282
**Obrak egiteko baimenak, 302, 305, 421**
Ebatzi beharra, 307
Itxiturak, 303
**Ohiko etxebizitza erostea**
PFEZ, 234
**Ohiturazko ikuskizunak**
Animaliak, 428
**Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea**
Atzerritarrak
Gizarte komunikabideak, 104
**OHZ**
Ordaintzeko betebeharra, 237, 449
**Oinarrizko errenta, 148**
Betekizunak, 185
**Oinarrizko eskubideak, 485**
Adierazpen-askatasunerako eskubidea
Terrorismoaren biktimak, 485
Askatasun sindikalerako eskubidea
Ordezkari sindikalen informaziorako eskubidea, 424

Berdintasunerako eskubidea, 486
    Adinekoak, 333
    Amaordetza, 330
    Atzerritarrak, 486
    Emakumeak, 297, 321, 325, 327, 328, 486
    Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 348
    Ezkongabeak, 233, 417, 486
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
    Atzerritarrak, 212, 220, 343
    EBko herritartasuna, 215
    Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 214, 226, 344, 345, 492
    Funtzio publikoa, 491
    Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 417
    Osasun alorreko funtzio publikoa, 214, 417
    Poliziaren alorreko funtzio publikoa, 422
Berriro gizarteratzeko eskubidea
    Espetxeratuak, 26, 494
Bizitzeko eskubidea
    Emakumeak, 136
    Terrorismoaren biktimak, 485, 487
EBko herritartasuna, 218
Espetxeratuak
    Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 254
Grebarako eskubidea
    Gizarte zerbitzuak, 297, 299
Hezkuntzarako eskubidea, 495
    Adingabeak, 194, 195, 196, 198, 203, 204, 495
    Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 345, 495
    Haur hezkuntza, 495
    Hezkuntza-premia bereziak, 125
    Minbizia duten adingabeak, 196
Informaziorako eskubidea, 188
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
    Adingabeak, 433, 487
    Atxilotuak, 127, 241, 244, 342, 488
    Atzerritarrak, 104
    Emakumeak, 136, 243, 251, 252, 321, 326, 487
    Terrorismoaren biktimak, 485, 487
    Tratu txarrak, 241, 242
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
    Atxilotuak, 241, 244, 342, 489
    Atzerritarrak, 104
    Espetxeratuak, 254
    Terrorismoaren biktimak, 485
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
    Atxilotuak, 241, 244, 342, 491
    Datu pertsonalak babestea, 241, 289, 293, 470, 490
    GIB-eramaileak, 289, 291, 490
Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea
    Atzerritarrak, 104
Teknologia berriak, 151
Terrorismoaren biktimak, 485
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
    Bidegabeko atzerapenak, 493
    Zergen alorreko prozedura, 493

**Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 106**
**Ombudsmana**
Adingabeak, 153, 517
Atzerritarrak, 153
Eraginkortasun printzipioa, 153
Errefuxiatuak, 163
Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 164
Zerbitzu publikoak, 153
**Ondorengoak zaintzeko eszedentzia, 417**
Emakumeak, 417
**Ordaindu beharra**
Trenbideko garraioa, 286
**Ordainsariak**
Funtzio publiko orokorra, 422
Lizentziak eta baimenak, 214, 224, 420
**Ordezkari sindikalen informaziorako eskubidea, 424**
**Osasun alorreko funtzio publikoa**
Enplegu eskaintza publikoa
Aurretiko zerbitzuak, 214
Lizentziak eta baimenak
Ordainsariak, 214, 224, 420
Sarrera
Aparteko prozesua, 213
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 214, 226, 345
**Osasun garraioa, 420**
Eraginkortasun printzipioa, 288
Kooperazio printzipioa, 288
Koordinazio printzipioa, 288
**Osasun gastuak itzultzea**
Osasun garraioa, 420
**Osasun prestazioak**
Adinekoak, 333, 502
Emakumeak, 332
Espetxeratuak, 256, 499
Mamografiak, 332
Medikuntzako saioak
Itxaron zerrendak, 291
Obesitate erigarria, 290
Osasunerako eskubidea, 498
**Osasun publikoa**
Goi-tentsioko hari elektrikoak, 173, 462, 500
**Osasuna**
Gastuen itzulketa, 292
Informaziorako eskubidea, 292
**Osasunerako eskubidea**
Osasun prestazioak, 498
**Ostalaritza establezimenduak**
Keak, 265
Usainak, 265
Zaratak, 262, 265, 266, 272, 427
**Oztopoak garraioan**
Irisgarritasuna, 276, 348

## P

**Pasabideak, 286**
**PFEZ**
Elikadurarako pentsioak, 233, 417, 486
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 348
Familia, 228
Ohiko etxebizitza erostea, 234
Rentanet etxean, 228
ZMDA, 417
**Plangintza**
Atzerritarrak, 343, 513
**Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 485**
Adimeneko ezintasuna duten pertsonak
Egoitzak, 183
Adinekoak, 179, 333, 502
Egoitzak, 55
Egoitzaz kanpoko laguntza, 61
Adingabeak, 335, 517
Adingabeko lege hausleak, 91, 498
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 498
Babesik gabeko adingabeak, 73
Legegintzaren beharra, 498
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 302, 314, 423
Atzerritarrak, 317
Babes ofizialeko etxebizitzak, 500
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 315, 350
Familia ugariak, 315
Lokalak, 476
Sasoikako langileak, 501
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 134, 344
Aparkalekuak, 241, 347, 425
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 350
Egoitzak, 179
Erabilera bereziko garraio-zerbitzu arautuak, 183
Gizarteratzea, 501
Irisgarritasuna, 501
TAO, 240, 248, 348
Unibertsitate hezkuntza, 197, 200, 346
Ezgaituak, 179
Familia, 178, 179, 422, 497
Amatasuna, 212, 213, 221
PFEZ, 228
Familia ugariak
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315
Ingurumen egokia izateko eskubidea
Atmosferako kutsadura, 264, 265, 499, 500
Goi-tentsioko hari elektrikoak, 500
Kutsadura akustikoa, 262, 265, 266, 268, 272, 273, 419, 427, 499, 500
Zabortegiak, 418
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 106
Osasunerako eskubidea
Osasun prestazioak, 498
Ustiatzeko askatasuna
Ekoizpen esklusiboko aldeak, 172, 173

**Polizia**
Atxilotuak, 241, 244, 342
Atzerritarrak, 241, 342
Biluzteak, 241, 342
Atzerritarrak, 104
Datu pertsonalak babestea
Ezabatzea, 241, 243
Euskara eta administrazio publikoa, 190
Genero-indarkeria, 243, 252
Herritarrentzako informazioa, 243
Inkautazioak
Adingabeak, 241
Tratu txarrak, 242
Atxilotuak, 127
Grabazioak, 241
**Poliziaren alorreko funtzio publikoa**
Sarrera, 422
Garaiera, 217, 223
Zerbitzuarengatiko kalte-ordainak, 216
**Prezio publikoak**
Egoitzak, 179
Guraso bakarreko familiak, 422
**Prostituzioa**
Emakumeak, 332
**Prozedura administratiboa**
Administrazio-errekurtsoak
Ordainsariak, 422
Administrazio-hitzarmenak, 421
Administrazioaren erantzukizuna
Errepideak, 284
Foru zerbitzu publikoak, 421
Funtzio publiko orokorra, 212, 221
Herri lanak, 425
Udal zerbitzu publikoak, 422, 423, 426, 427, 428
Zerbitzu publikoak, 278
Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak
Bidezko konfiantzaren printzipioa, 173, 175, 420
Eraginkortasun printzipioa, 178, 188, 288, 289, 499
Kooperazio printzipioa, 178, 188, 288, 289, 499
Koordinazio printzipioa, 178, 188, 288, 289, 499
Administrazioaren kontratazioa, 428
Bahiturak, 319
Baimenak
Ehiza, 172, 426
Diru-laguntzak, 173, 175, 420
Egintza deuseztagarriak
Kudeaketarako hitzarmenak, 184
Errolda, 281, 331, 418
Herritarren eskubideak eta betebeharrak
Defentsarako eskubidea, 184
Errolda, 331, 418
Espedientea ikusteko aukera, 197, 208
Estatistika publikoa, 319
Herritarren parte-hartzea, 301
Informaziorako eskubidea, 292, 331

Hirigintza kudeaketa
Konpentsazio proiektua, 309, 419
Hirigintzako diziplina, 422
Eraikinen segurtasuna, 418
Obrak egiteko baimenak, 302
Kirol lizentziak, 192
Lizentziak
Ostalaritza establezimenduak, 422, 427
Pasabideak, 286
Obrak egiteko baimenak
Ebatzi beharra, 307
Udalaren kaleak, 305, 421
Prozedura zigortzailea
Bahiturak, 231, 423
Eskumenak, 425
Trafikoa, 425
IAT, 173, 177
Jakinarazpenak, 245, 246, 454
Trafikoa, 240, 425
Trenbideko garraioa, 286
Zergen alorreko prozedura
Banku-helbideratzea, 229
Jakinarazpenak, 228, 230, 493
OEZ, 236
PFEZ, 235
Zerga-bilketa, 427
**Prozedura zigortzailea**
Bahiturak, 231, 423
Eskumenak
Trafikoa, 425
IAT, 173, 177
Jakinarazpenak
Trafikoa, 245, 246, 454
Ordaindu beharra, 286
Trafikoa, 240, 425

**R**

**Rentanet etxean**
PFEZ, 228

**S**

**Saltokien adjudikazioa**
Eskulangintzako azokak, 174
**Sasoikako langile adingabeak, 43, 338, 343**
**Sasoikako langileak, 43**
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 501
Gizarte taldeak, 139
**Segurtasun juridikoaren printzipioa**
Kirol lizentziak, 192
**Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa**
Lana, 297
**Sentimen-oztopoak**
Irisgarritasuna, 348

**Sexu-bereizkeria**
Emakumeak, 325
Alardea, 325
Lana, 297, 327
**Sexua aldatzeko kirurgia**
Eraginkortasun printzipioa, 289, 499
Kooperazio printzipioa, 289, 499
Koordinazio printzipioa, 289, 499

## T

**TAO, 240, 348**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 240, 248, 348
Legezkotasun printzipioa, 240, 247, 348
**Teknologia berriak**
Giza eskubideak, 151
**Terrorismoaren biktimak, 487**
Gizarte taldeak, 139
Kalte materialen ordaina, 507
Kalte moralen ordaina, 507
Oinarrizko eskubideak, 485
**Trafikoa**
Prozedura zigortzailea, 240, 425
Eskumenak, 425
Jakinarazpenak, 245, 246, 454
**Tratu txarrak, 242**
Adingabeak
Protokoloa, 433, 487
Atxilotuak, 127, 488
Grabazioak, 241
**Trenbideko garraioa**
Erabiltzaileen eskubideak, 286
Ordaindu beharra, 286
**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea**
Bidegabeko atzerapenak, 493
Zergen alorreko prozedura
Jakinarazpenak, 493

## U

**Udal ordenantzak**
Animaliak, 264
Etxebizitzak, 476
**Udal tasak**
Ura
Ordaintzeko betebeharra, 239
Zaborra, 427
Ordaintzeko betebeharra, 238
**Udal zerbitzu publikoak, 275**
Administrazioaren erantzukizuna, 422, 423, 426, 427, 428
Bideak, 276
Elektrizitatea, 276
Errepideak, 276, 417
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 106
Ur hornidura, 276

Ura
Ordaintzeko betebeharra, 239
Zaborra, 275
Ordaintzeko betebeharra, 238
**Udal zergak**
OHZ
Ordaintzeko betebeharra, 237, 449
Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa
Udal zergak, 496
Zergen alorreko prozedura
Banku-helbideratzea, 229
Jakinarazpenak, 228
**Uholdeak**
Herri lan hidraulikoak, 280
**Unibertsitate hezkuntza**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 197, 200, 346
Ikasleen onarpena, 197
**Ur hornidura, 276**
**Usainak**
Ardandegiak, 268, 419
Ostalaritza establezimenduak, 265

## Z

**Zaborra, 275**
Udal tasak, 427
**Zabortegiak, 418**
**Zaratak**
Ardandegiak, 268, 419
Kutxetak, 273
Ostalaritza establezimenduak, 262, 265, 266, 272
**Zerbitzu publikoak**
Administrazioaren erantzukizuna, 278
Ombudsmana, 153
**Zerga-ordainketarako aukera, 496**
PFEZ, 235
**Zergadunaren eskubideak eta bermeak**
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 426
**Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa**
Ordaintzeko betebeharra
OHZ, 237, 449
Prezio publikoak
Guraso bakarreko familiak, 422
Udal zergak, 496
Zerga-ordainketarako aukera, 496
**Zergen alorreko prozedura**
Banku-helbideratzea, 229
Jakinarazpenak, 228, 230, 493
OEZ
Balioak egiaztatzea, 236
PFEZ
Zerga-ordainketarako aukera, 235
Zerga-bilketa
Ordainketaren egiaztagiriak, 427

**Ziegak**
Polizia, 127
**Zigorra non bete**
Espetxeratuak, 254
**ZMDA**
PFEZ, 417
**Zuhurtasun-printzipioa**
Goi-tentsioko hari elektrikoak
Osasun publikoa, 173, 462, 500